

HITZAURREA

Gogoetaren heroia, ibiltari intelektuala eta pentsalari ausarta ez ezik, gure Uharte Donibanekoa mintzatzen da oso bakanean ikusten den segurtasunez eta are gutxiagotan erabiltzen den argudiozko sendotasunez. Giza argimeneren ikertzaile handia izan zen, gogoak eta haragiak elkarri dizkioten atxikimenduen neurtzailea, bakoitzak bere buruaz xeheki eta zehazki ezagutu behar duenaren erakuslea.

Lau mende baino gehiago joan dira hil zenetik, eta, behar bada, oraindik ez da aski izan merezi duen atenzioa behingoz emana izan dakion eta bere irakaspen sakonaren zinezko neurria alde alde zehazki baloratua izan dadin.

Izan ere, badira Uharte Donibanekoak azpimarratzen dituen kontzeptuak Kanten lanik gorenean bakarrik berriro agertu eta espresuki lantzen direnak. Adibide adierazgarri baterako, garaztarraren lan honetan agertzen da tabula rasa funtsezko hastapen eskolastikoari Mendebaldeko jakintzan egindako lehen ukapen garbia. Azpimarratzekoa da bera baino askoz ere geroago etorri ziren ilustre askok —Lockek, Voltairek...—, bera baino lehenagokoek bezala, onartu egiten zutela Könisbergeko filosofoak, Uhartek baino bi mende geroago, berriro eta modu sonatuagoan ukatu zuen kontzeptu aristotelikoa.

Zientzietarako argimeneren azterketa analisi psikologikoa da, baina ikuspegi psikologikoari atxikita badoaz biologikoak, eugenetikoak eta antropologikoak ere. Eta ez da hor ahitzen mendeek garaitu ez duten liburu honen joritasuna. Uharte Donibanekoaren ikerketan agertzen zaizkigu enpirismoaren erroak. Aipatua izan da garaztarrak Baconengan eduki zuen eragina. Horri buruz, gehiago esango nuke: Baconek darabiltzan gaiak (zientzien aurrerapenerako baldintzak) Uharte Donibanekoak landutakoekin (zientzietarako giza argimenerak, esan nahi baita, zientzia guztien posibilitatea bera) konparatzen badira, iruditzen zaigu garaztarrak, ingelesaren aurrekoa izanik ere, beronen ondokoa dela, beronen ikerketen gainditzea dakarrela.

Baconengan baino garbikiago ikusten dut Locke edo Humeren ikerketetan zeukan eragina, baita joan den mendean Claude Bernardek idatzitako *Introduction a l'Étude de la Médecine Expérimentale*, Zolak, Bergsonen eta Barojak hainbat goraiapatutako lan famatuan ere.

Uharte Donibanekoak hautsi egin zuen, eta errotik egin ere, ordura arte erabiltzen zen ikerketa-erarekin. Inork ez zuen esperientzia hitza berak bezainbat aipatu. Hori berria zen, eta berez aski adierazgarria iruditzen zaigu. Fenomenoei aurre egiteko modu hori orotara eraman zuen, sendo eta zuzen, adibidez, aipamenak egiterakoan edota haien interpretazioan. Oroitu, beti ere, bukatu berria zen Trentoko kontzilioan espresuki debekaturik gelditu zirela Eskritura Santuen interpretazioak.

1575ean, Zientzietarako argimeneren azterketaren lehen edizioa agertu zenean, Frai Luis Leongoa Valladolideko Inkisizioko Auzitegiaren ziegatan giltzapeturik

zegoen, eta salakuntzarik larriena zen —judu jatorrizkoa izatekoa txikiena ez zelarik— Kantuen Kanta amodiozko poema profano balitz bezala itzuli izana.

Halarik ere, testu sakratuen aipamenean erabilera eta itzulpena, delitu larriak izanik, ez ziren kausa nagusia izan Elizak Zientzietarako argimenean azterketa debekatzeko. Baziren askoz ere kausa larriagoak.

Uharte Donibanekoaren tesi nagusiak —izaerak egoera organikoen menpean daudelakoa, eta, ondorioz, izaera horien berorien funtsezko aldaezintasunak— oso ondorio garrantzizkoak ekarriko zituen zenbait ideia azaltzeko garaian: morala, erruaren kontzeptua, hautapen librea eta, ororen buruan, gizarte osoak bere burua epaitzeko eta neurtzeko daukan modua. Inkisizioko kideek inork baino hobeki ikusi zuten hori, zeren, hasteko, baldin eta adimena ahalmen organiko bat bazen, edota, gutxienez, organoek osoki baldintzatutakoa, eskolastikan eta doktrina ofizialean arimari ematen zitzaizkion eginkizunak berak eta haren existentzia bera oso zalantza arriskutsuetan gelditzen baitziren.

Ezinago ageria baita Uharte Donibanekoa prezeptiba eskolastikoaren kontra, bai moldez eta bai funtsez, mintzatzen dela. Tomas Akinokoaren eta Averroesen aurka, bereziki. Garaztarraren arabera, organoak ahalmena egiten baitu eta ez alderantziz. Hori guztia, oroitu berriro ere, Descartesez halakorik esan baino mende erdi bat lehenago.

XVI. mendean, egiaren definizioa zen “gauzaki eta adimenaren arteko adostasuna”. Isaak ben Salomonen definizioa zen, Platonengandik zetorrena eta Tomas Akinokoaren onarpen adieraziarekin zigilatutako zegoena. Definizio horrek, hutsuneak eta guzti, gaur arte iraun du neopositibisten eta hegeliarren sostenguari esker.

Baina Uharte Donibanekoa ausartu egin zen egiaren kontzeptu horren kontra, eta ausartu, gainera, eta hauxe da gogoan atxikitzekoa, halako ausardiekin ibiltzeko oso aro desegokian. Baieztatzen zuen adimen bakoitzak, edozein adostasunen aurretik, bere gauzakia irudikatzen eta bere egia erakitzen moldea duela. Azpitik zalantzan jartzen zuen, beraz, Egia Bakarraren izatea.

Aurreko zentsura, halarik ere, aldekoa izan zuen. Baina 1581ean agertu zen Portugaleko Catalogo dos libros que se prohiben nestes Regnos e Senhorios, eta 1583an Espainiako Index librorum prohibitorum delakoan. Dirudenez, liburuaren tesiaren ondorioak ez zitzaizkien begi-bistakoak gertatu zentsoreei. 1584an, Index librorum expurgatorum delakoak xeheki eta zehazki adierazten ditu zuzendu beharreko zatiak eta pasarteak. Bakarrik hiru kapitulu —VIII, IX eta XI.a— salbatzen dira zuzentzeko manamendutik. Gainerakoek, gutxi edo aski, mozketak eta oharpenak jasaten dituzte; VII.a, adibidez, osorik zentsuratzen da.

Espanian egindako liburu debekatuen zerrendak autonomoak ziren Erroman egindakoei zegokienez. Espainiakoek, Zientzietarako argimenean azterketaren kasuan bezala, zehaztu egiten zituzten hutsegiteen zenbakia, larritasuna eta, behin zuzendurik edota kendurik, argitaratzeko baimenaren posibilitatea aipatzen zuten. Erromakoek ez; berauek liburu osoak debekatu egiten zituzten beste oharpenik gabe. Modu horretan, gerta zitekeen Espainian kondenatutako liburuak Erromako onarpenarekin argitaratzea edota alderantziz. Uharte Donibanekoaren kasuari gagozkiolarik, ez zen halakorik gertatu eta adostasuna erabatekoa izan zen: XVII. mendetik aurrera Erromako

Inkisizioko zerrendetan agertzen da. Gainera, azken honetan ez zen ezberdintasunik egiten jatorrizko eta zuzendutako edizioen artean; guztiak, itzulpenak barne —in qualunque lingua et in ogni stampa—, debekatu egin ziren Vatikanoko II. kontzilioa arte.

Motiboen artean, aipatu izan dira teologo eta predikari zenbaiten jeloskeriak. Uharte Donibanekoak haien lanbidearen ezaugarriak eta nolakotasunak oroimenaren ahalmenetan, eta ez adimenaren artean, sailkatzen zituelako. Izanez ere, baziren halako zenbaiten salakuntzak. Baina, aurrean aipatu bezala, baziren kausa larriago eta sakonagoak, zuzen-zuzen doktrinaren aurka zihoazenak.

Trentoko kontzilioak, hain zuzen, Eskritura Santuen itzulpena debekatzen zuen “argimen ausartei aurre egiteko”. Uharte Donibanekoak ez zituen bakarrik pasarteak itzultzen, gainera zentzu tropologikoak baztertzeko zituen —hain zuzen Elizak betidanik izan dituen maiteenak, “egiazko zentzua” bezala proposatzeko— eta zentzu literalak erabili. Ez da harritzeko, beraz, aurre egin beharreko “argimen ausarten” artean sailkatua izan bazen.

Uharte Donibanekoa hil eta bost urte ingururen buruan, 1594an eta Baezan, agertu zen lehendabiziko edizio zuzendua. Edizio honen arabera egin ziren Espainian XVII. eta XVIII.ekoak. Hala ere, Herbehereetan inprimatu egin ziren denbora berean oso edizio ederrak, gazteleraz, jatorrizko testuari jarraikiz.

Zentsura deitoratu beharra inola ere ahanzi gabe, gaur egun jatorrizko edizioa eta zuzenduan egindako gehitzeak irakurtzeko aukera daukagunez, baditugu oso motibo ageriak ezbehar hori ospatzeko. Benetan harrigarria baita kontrako gorabeherei egokitzeko erakutsi zituen ahalmena eta baliabideak. Zuzendu eta gehitutako pasarteetan, behin eta birritan, pentsatzen zuenaren kontrakoa idatzi behar bazuen ere, aukera guztiez baliatzen zen bere zinezko eta nahastezinezko iritzia adierazteko.

Zernahiren gainean, adimenerako organorik ez zela esatera beharturik, halakorik esaten du baina, izatez, lehen bezala edo are modu irmoago batez, mantendu egiten du adimena burmuinaren antolaketa naturalaren arabera dela.

Zuhurtziari buruz, nola lehengo edizioan sostengatutako ideia bazterrarazi baitzioten, alegia, haragiarekiko kontraesanetan egindako bertutezko ekintza bat ezinezkoa dela graziaren laguntzarik gabe, bigarren idazketan itzultzen da bere tesira eta are garbiago mintzaten da hautapen librearen posibilitateaz. Egiazki, oso gai arriskatua eta lerrakorra. Onartzen du izaeraren laguntzarik gabeko bertutezko ekintzak posibleak direla oso ahalegin handien bitartez, baina ez du onartzen beharturik ez diren bertutezko ekintzarik. Azken zerean, zuhurtzia, ez bada berez izaten, ezinezkoa dela dio. Izaeraren aldaezintasuna, ñabardura eta argudio landu eta xehetuagoz, finkatzen du berriro.

Moldez eta mamiz, argimena, zientzia eta gaitasun naturala dira Zientzietarako argimenen azterketaren funtsezko elementuak. Giza argimena mailak eta nolakotasunezko ezberdintasunak onartzen ditu. Zientziak —jakintzak, trebetasunak, ofizioak, lanbideak, arteak...— oso ezberdinak dira eta gaitasun ezberdinak eskatzen dituzte. Azken buruan, naturak egiten du gizakia halako edo honelako zientzietarako gai, bai ikasteko nola jarduteko.

Liburuaren lehen oharpenean mugatzen da zehazki erabiliko den gaia: zuhurtasun eta jakintza handiko jendeak behar dira haur bakoitzaren baitan aurkitzeko bere argimen berezia. Bigarrenean, hiru ondorio agertzen dira: lehena, giza izaeraren baitan izan daitezkeen argimen mota askotatik bat bakarrik gerta dakiola bakoitzari bere mailarik gorenean...; bigarrena, argimen maila goren bakoitzari zientzia bat soilik dagokiola...; hirugarrena, argimen bati dagokion zientzia jakinda, bada zailtasunik handiagorik, hots, jakitea trebetasun hori praktikari ala teoriari hobeki dagokiokeen...

Lehendabiziko zazpi kapituluetan osatzen da liburuaren atal orokorra, ondoko ikerpenaren sailkapena aurretik ohararazten duena. Giza argimenaren izaera aztertzen da bere neurkizun guztietan barrena. Hasteko hiru maila bereizten dira, hiru gradu, hiru altuera. Lehenengokoak soilik arazo garbi eta errazak ulertzeko gai diren gizakiak dira. Beste mailaraino goratzen diren argimenek arau eta kontsiderazio, arazo eta galdemodu guztiak ulertzen dituzte, baldin eta, kasuan kasuko, dena egina eta azaldua ematen bazaie jaso behar baitute zientzia irakasle onengandik eta liburu argietatik, eta, behin hala izanda, bertan etengabe ihardun eta jorratu. Azkenean, hirugarren graduan agertzen dira naturak moldaturiko argimenek gorenak; argimen asmatzaileak, beren kabuz bideak urratzen dituztenak.

Nolakotasunaren ikuspuntutik, Uharte Donibanekoak hiru argimen ezberdin eta nagusi bereizten ditu. Oroimenak, irudimenak eta adimenak markatzen dituzte mota horiek, beren menperatzeen arabera argimen bakoitzaren baitan. Eta, halaber, argimen mota bakoitzari badagokio jakintza bat.

VII. kapituluan, osoki debekaturik izandakoan, XVI. mendean egindako “ez gara hiltzen” kontzeptuaren azalpena adierazten da. Eta hori, gaur egun, zientzia esperimentalaren ordezkari askok ulertzen duten bezala. Tesi hirukoitza da: 1. ez da “ni”-aren hilkortasuna froga dezakeen argudiorik; 2. ez da, halaber, bere hilezintasuna froga dezakeen argudiorik; 3. soilik fedea segurtatzen digu gorputzezko heriotzaren ondoko “ni”-aren bizitza. Arazoa, beraz, ez dagokio zientzia fisikoari.

Sekula aditu gabeko “ausardia” horri buruz, oroitaraztekoa eta erremarkatzekoa da Kantek erlijioak arrazoiaren barrenean eduki dezakeena zehazki mugatzeko eta teodizearen alorrean filosofiaren ahalegin guztiek daukaten ezintasunari buruz bere ikerpena argitaratzeko oraindik bi mende baino gehiago iragan beharrekoak zirela.

VIII. kapituluan, argimen bakoitzari ematen zaio bereziki dagokion jakintza. Zientziak ahalmen ezberdinen berezitasunak izanik, lanbide eta arte bakoitza izaera eta argimenaren antolaketa ezberdinen egitekoak dira.

Ondoko sei kapituluetan garaiko lanbiderik nabarmenen ezaugarriak eta beraiek eskatutako baldintzak aztertzen dira. Zorrozkari aipatzen ditu giza jakintzak pairatzen dituen kalteak zientziak nahasteagatik, eta bereziki ohararazten du filosofia naturala metafisikaren bidez argitzeko joera sasiakademikoa.

Uharte Donibanekoak ez du zientzien katalogaziorik egin nahi. Aski zaio bere garaian erabilitako zerrenda. Ezinago ageria da zientzia horien zenbakia ugaritu egin dela eta horrela jarraituko duela. Ideiarik garrantzizkoena gizakiak modu eta baldintzapekotasun berean dirauela dugu; eta bera dela bere baitara jo behar duena bere

zientzia berezian zehazki asmatzeko, zentzurik ez bailuke izango bere baitan oihartzunik ez duten jardueretan aritzeak.

Uharte Donibaneakoak gutxietsitako trebetasunen artean hizlaritza da. Garbiki sostengatzen baitu hitz egiteko txukuntasunik asko duten jendearengan adimen azkarrik ez dela egoten ahal; hitz eder eta ongi antolatuen jariotasuna, alegia, ez dagoela adimenean, zeren sofisteria hori oroimenak eta irudimenak elkartzearekin goratzen duten burrunba eta errautsa baita bakarrik. Barojak asko estimaturiko pasarte da. Ez da harritzeko Uharte Donibaneakoaren iritzi honek eragindako adostasunik eza; izanez ere, etorri handiko eledertasuna ustezko jakinduria eta sasiaditu askoren berme bakarra baitzen orduan, baita oraintxe ere, eta baitirudi luzez izango dela.

Bukaeran, XV. kapitulu luze eta berezian azaltzen dira seme-alaben argimen bikainak, sexua, eta berauen argimenak hazteko eta iraunarazteko moduak. Oroitarazten da historia zaharra zeren, haren arabera, gizartearen hasieran emakumeak bi umez erditzen baitziren, bata arra eta bestea emea. Gaurko egunean, Uharte Donibaneakoaren denboran bezala, naturaren antolabide hori desegin, apaldu eta moteldu egin da; gainera, eme gehiago sortzen dira. Sei baldintza adierazten dira halako desoreka sendatzeko.

Luze eta xeheki dihardu Uharte Donibaneakoak hiru ahalmenetarik bakoitzean eragina duten janarien zerrendan. Janari horietarik hazia egiten da eta kausa horretan datza argimen ezberdinen jatorria. Galenok hiru liburu idatzi zituen janarien ezaugarri eta berezitasunei buruz. Uharte Donibaneakoak uraren eta airearen eragina gehitzen die.

Jazarri egiten dio garai hartan oso arrunta eta zabala zen sinesmen bati, alegia, gurasoen irudimenak berauen umeen sortzapenean duen eragina. Ohartaraztekoa, hemen, sinesmen hori zahar eta klasikoenetarikoa dela; ez baita bakarrik Biblian berean (Gen. 30, 39...) eta kultura zahar gehienetan agertzen, Goethek berak, Uharte Donibaneakoaren garaia eta bi mende t'erdiren buruan, bertan finkatu baitzuen bere Die Wahlverwandtschaften nobelaren efektu nagusietariko bat.

Uharte Donibaneakoaren lanaren jomuga zuzenbide banatzaile baten finkapena da. Berorren arabera, bakoitzak ihardun beharko luke soilik bere argimenari zinez dagozkion zereginetan. Lanen banakuntza arrazional batetik —ahal bezainbatean, zoriaren nahikerien eta hainbat faktore irrazionalen gaintetik— etorriko dira gizabanakoak eta gizartearen multzoak eduki ditzaketan irabazpenik handienak. Egiazko orientabide profesionalak ahalmen naturalen azterketatik abiatu beharko du; esan nahi baita, burmuinaren antolaketatik datozen ahalmen eta baldintzen azterketa.

Honelako edo halako lanbiderako isurpenak eta erraztasunak jatorri naturalekoak dira eta izaeren alor biologikoan erroztatzen. Hiru izaerei —bero, lehor, heze— hiru ahalmen dagozkie —irudimen, adimen, oroimen—. Uharte Donibaneakoa, bere garaiko semea, bermatzen da, beraz, oraindik Errenazimentu aroan omenean dirauten idazle klasikoaren baitan; alegia, Platon eta Aristoteles filosofoak eta Hipokrates eta Galeno sendagileak.

Baina jakingo du, eta gainera indarrez eta sendotasunez jakin, haien baieztapenetariko bat edo beste errefusitzen. Guztiz argimen berritzaile baita bera, moldez eta funtsez. Garbiki baitio egia ez datzala dioenaren ahoan baizik oiuhu dagien gauzakian berean.

“Magister dixit” zaharkitua eta trabagarria, leloen iturburua, baztertzen du eta lekua zabaltzen behaketa eta esperientziari. Ahal bezainbat saiatzen da aurreratzen duen guztia bermatzen eta esplikatzen, naturaren filosofoa den bezala.

Sineslea eta fededuna den bezainbatean, askotan argitzen ditu bere baieztapenak Bibliaren aipamen ugarien bidez, beti egokiro datozenak. Baina, hainbaterainokoan non kritikari batzuek beren harridura erakusten baitute galde eginez ea nolatan erdiets zezakeen Eskritura Santuen ezagutza sakon hori.

Azken honengatik eta juduak, maila intelektualean, goraiatzen dituelako, baten batek —Américo Castrok, adibidez— garaztarra judua zitekeelako hipotesia adierazten du. Beste frogarik ezean, gauza horiek ez dira aski ezer segurtatzeko eta, bestalde ere, dakizkigun berri apurrak jakinda, ezin daiteke halakorik ezinezkotzat jo. Zeren, nolana ere, Uharte Garazin —halaber, XVI. mendean, Donibane Garaziko auzo bat izanik— baitzegoen orduan judu auzo bat.

Hamabost kapituluetan barrena irmoki bilatzen du anitzetan oso zaila den izpiritu eta materiaren —dogma eta naturaren— arteko oreka bat, eta ez da hori, hain juxtu, gure pentsalariaren meriturik xeheenetakoa.

Ahalkizun bakar batez horniturik antolatuta gaudelako ideiatik abiatu eta horri dagokion lanbidea zehazteko arazoa denez, Uharte Donibanekoak zinezko pertsonaien galeria bat irudikarazten digu: hor erakusten ditu bere garai eta gizarteko lagun batek mediku, abokatu, militar, teologo, sermoilari edo errege izateko behar dituen arau eta baldintza zehatzak eta ezinbestekoak. Idazkera atseginez, azpitik darion umorea agertzen da honako edota harako teoria ilustratzeko erabiltzen dituen pasadizoetan, halako moldez non gure bertsolariak ekartzen baitizkigu gogora.

Halarik ere, ezaugarrien, interesen eta izaeraren modu berezien behin betiko diagnostikoa oraindik zientzien menpetik kanpo dagoen posibilitatea da. Izanez ere, profesioaren hautapena ez da gertakari bat baizik eta gorabehera askoren prozesu bat. Betiere, Uharte ohartzen zaie hazkera eta hezierei eta berauek duten eragina argimenen moldakuntzan. Horrela badihardu etxekoen arteko harremanez, giroaz, janariez: hitz batez, ingurugiroaz. Betiere, faktore sozio-ekonomikoez ahortzi gabe.

Zientzietarako argimenen azterketa oso “bere garaiko” den liburua da eta horrek, hein batez, argitzen du eduki zuen berehalako arrakasta. Jatorrizko izaera eta ahalmenen arteko elkarreragiteen bideak eta arauak ikertzeko eta finkatzeko ahalegina oso zaharra eta landua da pentsamenduaren historian. Aristotelesengandik gutxienez etorritako Erdi Aroko tradizioaren “lau izaerak” eta berauen ezaugarrien zerrendak oso abiapuntu garbia dira Uharte Donibanekoaren lanerako.

Gure garaztarrak bere lanaren iturburua bezala Antzinako autoreak aipatzen ditu, hauen aburuak eta usteak maisutasun eta erudizio handiz ekartzen baititu bere ideien sostengu eta bermerako. Bibliako aipamenez landara —maizenik agerturikoak baitira— gehienetan erabiliak honako hauek dira: Galeno, Aristoteles, Hipokrates, Platon eta Zizeron. Hain zuzen, Galenoren Quod animi mores corporis temperaturam insequantur liburua aipatzen du Uharte Donibanekoak bere lanaren funtsik nagusia bezala.

Zientzietarako argimenen azterketaren arrakastak esplikatzen digu, halaber, ondoko bi mendeetan barrena zabaldu zen liburu plagiarioen meta handia. Baina zinezko eraginei dagokienez, nabarmenenak Alemaniako erromantizismoaren eta Cervantesen baitan izandakoak izan daitezke.

Lessing, hein handi batez erromantizismo alemanaren aita, izan zen Uharte Donibaneakoaren obra bere hizkuntzara itzuli zuena eta garaztarrari buruzko tesi bat eginez, gainera. Baina, menturaz, irakurpenik sakonena Schopenhauerrek egindakoa dugu; gaztelera ikasi baitzuen Uharte, Baltasar Gracián eta Calderón de la Barca ordezkariarik gabe eta zuzenean irakurtzeko. Garaztarraren eragina Schopenhauerren baitan oso handia eta ageria izan zen, haren argimenen azterketan agertzen baita honek beti bere tesirik maitatuena bezala defendatu zuena: izaeraren aldaezintasuna eta, ondorioz, moralean eta, orokorki, filosofian sortzen diren kontzeptuak. Schopenhauerren bidez eragin ikaragarri eduki baitzuten XIX. mendeko idazle eta artista askoren lan eta pentsaeretan.

On Kixote eta Zientzietarako argimenen azterketaren arteko harremanak maiz aipatu izan dira eta, noizean behin ere, neurritz gorainokoan ezarri. Mende honen hasieran R. Salillasen *Un gran inspirador de Cervantes. El doctor Juan de Huarte y su Examen de Ingenios* lanean egin zen bezala. Halaber, Unamunoren *Vida de don Quijote y Sancho*, según Miguel de Cervantes Saavedra liburuan, halako paralelismo errazegia egiten da On Kixoteren ustezko izaeraren azalpenean.

Zernahi ere zen, badira oso ohargarriak diren kointzidentziak, eta, benetan, dudagaitza zaigu Alcalakoak garaztarraren liburua irakurri zuela. Cervantesek, bere nobeletarako abentura eta material berezien bila, oso behatzaile fina eta zinezko aportazio jatorrekiko arretatsua izanez, Uharte Donibaneakoaren liburuan aurkitu zuen bere pertsonaien gorputza eta gogoia janzteko joritasun psikologikoa eta, oroz gain, Kixoterentzat behar zuena.

Uharte Donibaneakoa eta Cervantes elkarren antza daukaten bi gogo ditugu, bai ausardian nola gogozko argitasunean. Eta zalantzarik gabekoa dugu azkena egiazki poztuko zatekeela Zientzietarako argimenen azterketan bilatzen zuena aurkitzearekin: zinez bizirik zen zerbait. Nobelistak bazeukan, behingoz, material berri bat, izaera berri bat eraikitzeko azpiegitura ideala, molde bakar batez egiteko, okerbiderik gabe, diskurtsorako erraza, obsesio eta maniez kargatuta, ikasbiderako liburu bat eta giza gertakarizko zerrenda zabal bat. Bere On Kixoteren baitan, Cervantes Uharte Donibaneakoak irakatsitako mediku enpirikoa da. Ez du inoiz aipatzen, baina Argitsuaren epitetoa ematen dio, apika Zientzietarako argimenen azterketaren egileari omenaldia eta ezagutza bezala.

Zer esan Uharte Donibaneakoaren idazkeraz? Argitasuna, laburtasuna, oreka, erraztasun naturala dira haren funtsezko ezaugarriak. Bada Jean Etxeparek zehaztu euskal idazkerari buruzko pasarte bat gure garaztarra oroitarazten didana: “Greziatar eta guziz Erromanoak baino laburragoak nahi dugu izan, kasik motz ere. Hats luzeko ahopaldiak ez ditugu laket. Erraitea baino adieraztea, joko hobea zaiku; adieraztea baino ere, aditzera uztea. Haririk gabe airez aire dabilan elektrikaren idurirat dute egiten indar, idazle hobereenen gogomenek, doi doi dira askotan ezagun; ele guti, direnak haatik ageri ez duten pindar batez urrunerat eta barna helkor. Eskualduner ginarritsu eta labur ederrago zaiku solasa.”

Gaur egun eztabaiden gainekoa da gazteleraren goi eredua dela. Menturaz, tartekatzen dugu, gogo zolan zeukan J. Etxeparek deskribatutako elokuentziaren euskal moduari esker, besteak beste. Uharte Garazin sortu zenean, erromantzea zen hango hizkuntza ofiziala; baina horrek esan nahi du notari eta eskribauren batek ezagutzen zutela, garaiko jende guztiak, xehe eta handi, euskaldun hutsak zirelarik. Eta, haurdanik gaztelerazko erromantzea Baezan aditu eta ikasi bazuen ere, inoiz iragan beharko zukeen euskaratik letratuen hizkuntzara, eta ez zatekeen hori gertatuko bidenabar zerbait eraman gabe.

Vossler Espainiako Urrezko Mendea delakoaren ikertzailearen arabera, garaiko hizkuntza idatzizko erabileran hiru maila estilistiko bereizten ahal dira: “herrikoia, klasikoa eta kulteranoa. Baina, hain zuzen, gaztelerazko eraikuntza handian, erdiko solairuak, neurtasun eta garbitasunaren maila ordezka zezakeenak, tarterik eta alderik hertsi eta murriztena hartzen du.”

Bada, hain juxtu, erdiko solairu neurtu eta klasiko horretan kokatzen dira Zientzietarako argimenen azterketaren orrialdeak. Erdi Aroko jakintzak eta ekarpen berri europarrak, erlijiozko tradizioa eta humanismo paganoa, idealismo eta errealismoa, irakaspenerako xedea eta estetikarekiko kezka orekatuz.

Amaitzeko, laburbildu egin dezagun Zientzietarako argimenen azterketak izan zuten arrakasta editorialaren kronika.

Uhartek berak ikus zitzakeen bere liburuaren hamar argitalpen, berauetarik bost frantses eta italierara itzuliak zirelarik. Baezan egindako edizio princeps 1575ekoa da eta handik hiru urtera Iruñean bigarren argitalpena agertu zen. Hain zuzen, Nafarroan egindako edizio hori izango zen gainerako guztien iturburua. Baina soilik 1583 arte egin ahal ziren penintsulan, orduan gertatu baitzen gorago aipatu dugun Inkisizioaren debekua. Artean, Valentzia eta Bilbon agertu zen 1580an eta Huescan 1581ean. Bilboko edizioa izan bide zen debekua pairatu zuena eta, segur aski, bahiturik izan zen. Horregatik ez da alerik aurkitzen Espainian, eta bakarrik Vatikanon bat --zuzenduta-- eta Pariseko Liburutegi Nazionalen beste bat ezagutzen dira. 1594an, Baezan ere, aldaera erreformatua agertzen da.

Debekuak eragin zuen liburuaren egoera bereziagatik, bi aldaerak --jatorrizkoa eta Uhartek berak erreformatua-- argitaratuz joan ziren bakoitza bere eremuan, lehena Herri Behereetan eta bigarrena Espainian. Horrela, biak 1846an elkarrekin argitaratu arte, erreformatuak sei edizio izan zituen eta jatorrizkoak beste hainbat.

Itzulpenei dagokienez, frantsesekoa 1580an agertu zen, Iruñeko 1578ko edizioari jarraituz. Azpimarratzekoa da hamalau argitalpenen ondoren, 1645ean, frantsesek agertu zela aldaera erreformatua eta jatorrizkoa biltzen zituen edizio bat, ondoko hiru hamarkadetan zazpi aldiz berrargitaratu zena. Italieraz, 1582an agertu zen, Uharte bizirik zela hau ere. Ingeleseko itzulpena, 1594koa, italierazkotik abiatuta egin zen, itzultzaileak berak aitortua; hiru edizio ondoren, 1698an, ingelesera jatorrizko hizkuntzatik itzuli zen. Alemanian, Lessingek gorago aipatu dugun itzulpena eta ikerpena egin arte, latinez argitaratu zen hiru aldiz, lehenengo edizioa 1622koa delarik. Nederlanderaz, 1659an agertu zen.

Europako hizkuntza landuetan irakurria izan zen, beraz, Zientzietarako argimenen azterketa, ospe handia eta eragin garrantzizkoa lortuz.

Azkenean, Uharteren lanak eragindako oihartzun nabarmenen artean, aipa dezagun arreta berezia merezi duen gramatika sortzailearen teoriko handienetako bat den Noam Chomskyk, bere Language and Mind liburuan, ematen dion ohorezko postua. Aitzindariaren lana egin izana ezagutzen baitio gogoratuz nola lengoaiaren ikuspegi sortzailea garzarrak azpimarratu zuen XVI. mendean.

Orain, lau menderen buruan, egilearen ama hizkuntzaz, euskaraz, datorkigun itzulpen honek osagarri berezia ekartzen die bai Uharteren lanari eta bai gure kulturari.

Eduardo Bil Bera

BIBLIOGRAFIA

Uharte Donibaneakoaren obra

Examen de ingenios para las ciencias. Ildefonso Martínez y Fernández de edizioa eta hitzaurrea. Madrid, 1846. (Debekuaz geroztik, Espainian egindako lehendabiziko edizio osoa.)

Idem. Rodrigo Sanzen edizioa, hitzaurrea eta oharak. (Bi liburukitan.) Madrid, 1930. (Edizio kritikoa ez bada ere, testuaren antolaketarik fidagarriena eta hitzaurrearik joriena duena da.)

Idem. Esteban Torreren edizioa, hitzaurrea eta oharak. Madrid, 1976. (Jatorrizko eta erreformaturiko aldeak hobekien berezi eta aurkezten dituen edizioa.)

Zientzietarako argimenen azterketari buruz

Artigas, M: Notas para la bibliografía del Examen de Ingenios. Donostia, 1928.
Chichilla, A: Historia de la medicina española. Valencia, 1841.

Etcharren-Lohigorri, Jean Baptiste: Juan Huarte de San Juan à travers son analyse de l'homme dans Examen de Ingenios para las Ciencias. Tesia. Donibane Garazi, 1967.

Etcharren-Lohigorri, Jean Baptiste: Juan Huarte, une figure intellectuelle. Baigorri, 1991.

Farinelli, A: Dos excéntricos: Villalón y Huarte. Madrid, 1936.

Franzbach, M: Lessings Huarts Übersetzung (1752). Die Rezeption und Wirkungsgeschichte des "Examen de Ingenios para las ciencias" (1575) in Deutschland. Hamburg, 1965.

Gil Bera. E: Uharterengandik egungo gizarteraino: egiaren kontzeptua. Bilbo, 1989.

Guardia, J. M. : Essai sur l'ouvrage de J. Huarte: Examen des aptitudes pour les sciences. Paris, 1855.

Hutchings, C. M.: The Examen de Ingenios and the Doctrine of Original. Stanford, 1936.

Iriarte, M. de: El doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios. Contribución a la historia de la psicología diferencial. Madrid, 1948.

Marañón, G: Examen actual de un Examen antiguo. Madrid, 1940.

Oteiza, Antonio de: Comentarios al “Examen de Ingenios” de Huarte de San Juan. Bilbo, 1975.

Salillas, R: Un gran inspirador de Cervantes. El doctor Juan Huarte y su Examen de Ingenios. Madrid, 1905.

Sanz, R: Bere edizioko hitzaurrea eta oharrak Op. cit. Madrid, 1930.

Salvá, J: Observaciones sobre la obra titulada “Examen de ingenios por don Juan Huarte”. Madrid, 1841.

Simonena y Zabalegui, A: Un precursor de la orientación profesional: El Doctor Juan Huarte. Donostia, 1927.

Vossler, K: Introducción a la literatura española del Siglo de Oro. Buenos Aires, 1945.

ZIENTZIETARAKO ARGIMENEN AZTERKETA

non erakusten baitira gizonengan diren trebetasun ezberdinak,

eta bakoitzari bereziki dagokion letra mota

Obra hau arretaz irakur dezanak bertan bere argimen moldea aurkituko du, eta probetxu handiena eginen dion zientzia era hautatzen ere jakinen: eta menturaz jadanik horretan ari balitz, bere trebetasun naturalak eskatzen ziona asmatu ote duen adituko du.

Joanes Uharte Donibaneko doktoreak, Donibane Garazin jaioak, moldatua.

Gure jaun Filipe erregearen maiestateari zuzendua da, zeinen argimena adierazten den, doktrina honen erregela eta aginduen adibide gisa.

Gaztelako eta Aragoako Erret Pribilegioarekin.

Baezan, Juan Baptista de Montoya-ren etxean lizentziaz inprimatua.

1575

[AURRETIKOAK]

Onespena

Ikusia dut liburu hau, eta doktrina guztia katolikoa eta sana da, Erromako gure ama Eliza Sainduaren fedearen aurka den gauzarik gabea. Honez landa, argimen handi eta berriko doktrina da, irakats daitekeen filosofiarik onenean oinarritua eta hortik aterea. Eskriturako leku batzuk ukitzen ditu, sakonki eta jakituria handiz deklaratuak. Argumentu printzipalena hain kontsideratzekoa dute aita familiakoek, non liburu honetan ohartarazten denari jarraikiko balitzaizkie, Elizak, errepublikak eta familiek ministro singularrak eta munta handiko sujetak bailituzkete. Honela iruditzen zait, iritzi hoberik salbu.

Frai Lorenzo de Villavicencio

[GAZTELARAKO LIZENTZIA, 1575.EKO ARGITARAPENARENA]

ERREGEA

Zeren zerorren aldetik, Joanes Uharte Donibaneko doktorea, Baezako hiriko auzokidea, jakinarazi baitzitzaigun liburu bat moldatua zenuela, Zientzietarako argimenen azterketa izenburua duena, non erakusten baitira gizonengan diren trebetasun ezberdinak, eta bakoitzari bereziki dagokion letra mota, ikus eta examinaraz zedin mana genezan erregutuz, eta lizentzia eman geniezazun inprimaraz zenezan eta hogei urtez edo gure mesedea litzatekeen bezala hartarako pribilegioa. Hori guztia gure Kontseilukoek ikusirik, eta haren manuz guk liburuak inprimatzeaz egin berri dugun pragmatikak agintzen dituen diligentziak eginik, eta zuri on eta mesede egiteagatik, erabaki zen txartel hau eman behar genuela esaniko arrazoiak, eta guk ontzat eduki genuen. Eta honako honen bidez lizentzia eta ahalmen ematen dizugu hamar urteren denboran, gure txartel hau egina den egunetik iragaten eta kontatzen hasirik, zerorrek edo zure boterea lukeen pertsonak, goian aipatzen eta esaten den liburu inprima eta sal ahal dezazun. Eta honako honen bidez gure erresuma hauetan zuk izenda zenezakeen edozein inprimatzaileari lizentzia eta ahalmena ematen diogu oraingo aldi honetan inprima ahal dezan, eta inprimatu ondoren, saldu baino lehenago, gure Kontseilura ekar dezazun, han ikusi zen originalarekin batera, azken buruan Pedro de Mármol, gure Kontseiluan direnetatik, gure Ganbarako sekretariaren izenpe eta sinadura dituena, harekin korregi eta liburu bakoitzetik izan beharko zenukeen prezioan tasa dadin. Eta manatzen dugu, esaniko denbora horretan, ezein pertsonak, zure lizentziarik gabe, ezin dezakeela inprimaraz ez sal, inprima edo sal lezanak gure erresuma hauetan hartarik eduki edo sal lituzkeen liburu eta molde guztiak edo nolanhikoak gal zitzan eta ditzan penapean, eta manatzen diegu gure Kontseilukoei, gure Entzutegietako Buruari eta Entzuleei, gure etxe, Gorte eta kantzelaritzako alkate eta alguazilei, eta korregidoreei, laguntzaileei, gobernadoreei, alkate nagusi eta arruntei, eta gure hiriburu, hiri eta gure erresuma eta jaurerrietako beste nolanhiko epaile eta justiziei, bai orain direnei eta bai hemendik aurrera izanen direnei, gure txartel hau eta honela egiten dizugun mesede hau gorde eta konpliaraz diezazuten, haren tenore eta formaren aurka, ez eta hark daukanaren aurka, inola ere deus pasa ez onar dezaten, gure mesedearen eta gure Ganbararentzako hamar mila marabediren penapean. Madrilen egina. Mila eta bostehun eta hirurogeita hamalagarren urteko apirilaren hogeita bosgarren egunean.

NIK, ERREGEAK.

Zure Maiestatearen aginduz

Antonio de Eraso

[ARAGOAKO KONTSEILIAREN ONESPENA]

Aragoako Koroa sailduko Errege-Kontseiluko agindu eta manuz, ikusi eta examinatua dut Zientzietarako argimenen azterketa izenburuko liburua, Joanes Uharte nafarrak, Donibane Garazin jaiok, moldatua. Obra katolikoa iruditzen zait, zeinetan autoreak asmatzeko argitasun singularra eta filosofia natural soilean frogatua erakusten duen. Haren argumentua bikaina da nik haren generoan ikusi eta entzun ditudanen artetik. Eta, frogatuko balitz, duda gaberik errepublikaren mesede handirako litzateke. Probetxugarritzat daukat honelako hitzotan murriztea, argimenak enplega daitezela, eta sekretu natural batzuk aurki, autoreak eskaintzen dituenetatik. Iruditzen zait lizentzia eman behar zaiola inprima dezan, etab. Hau iruditzen zait beste iritzi hobe baten pean, hartara igorritz. Madrilén, 1574. urteko agorrilaren hamaikan.

Heredia doktorea

[ARAGOARAKO LIZENTZIA, 1575.EKO ARGITARAPENARENA]

GU, DON FILIPE, Jainkoaren graziaz, Gaztelako Errege, Aragoakoa, Sizilia bietakoa, Jerusalemekoa, Hungariakoa, Dalmaziakoa, Kroaziakoa, Leongoa, Nafarroakoa, Granadakoa, Toledokoa, Valentziakoa, Galiziakoa, Mallorketakoa, Sibiliakoa, Sardiniakoa, Gordoakoa, Korsikakoa, Murtziakoa, Jaengoa, Algarbeetakoa, Algezirakoa, Gibraltarkoa, Kanaria irletakoa, Indietako Irletakoa eta Itsas Ozeanoko lehorrekia, Austriako Artzadukea, Burgundiako, Bravanteko eta Milanoko Dukea, Bartzelonako, Flandesko eta Tirologo Kondea, Bizkaiko eta Molinako Jauna, Atenas eta Neopatriako Dukea, Roselló eta Cerdanyako Kondea, Oristan eta Goceanoko Markesa. Zeren zerorren aldetik, Joanes Uharte Donibaneko doktorea, Donibane Garazikoa, esaniko gure Nafarroako Erresumakoa, jakinarazi baitzitzaigun liburu bat moldatua zenuela, Zientzietarako argimenen azterketa izenburua duena, zein baita probetxu handikoa, eta inprimatu nahi duzula eta gure Aragoako Koroako erresuma eta jaurerrietara inprimatuak saltzera eraman, horretarako, hamar urteren denboran lizentzia emateko guri oso apalki erregutuz, beste inork hala egin dezan galaraziz, zeuk edo zure boterea lukeen pertsonak baizik. Eta guk, esaniko liburu horretatik atera daitekeen fruitu eta probetxuari errespetua ukanez, eta sostengatu dituzun eta inprimaketa egiteko datozkizun gastuak eta kostak kontutan ditugula, eta bera gure manuz ikusi, ezagutu eta aprobatua izanez, hitzeraduki diogu zure erregua amore emateari beherago izkiriatuaren bidez. Beraz, honako honen indarraz, gure egiazko zientziarenaz, eta Erret agintearenaz, zuri, esaniko Joanes Uharte doktoreari, eta zuregandik botere daukakeen pertsonari edo pertsonari, eta zure gogoko inprimatzaileari edo inprimatzaileei, lizentzia, baimena eta ahalmena ematen dizuegu goiko izenburua duen liburu inprima edo inprimaraz dezazun, gure Aragoako Koroako erresuma eta jaurerri guztietan, eta haietan sal ditzazun, horrela eginen dituzun inprimatuak, honako hauekin galarazten dugun bezala, beste inolako pertsonak inprima ez inprimaraz dezan galaraziz eta eragotziz, ez eta sal, ez eta beste leku batzuetako inprimatuak eraman esaniko erresuma eta jaurerrietara saltzera, zuk edo zure boterea lukeenak izan ezik, hamar urteren denboran, honako hauek emanak izan diren egunetik aurrera iragaten hasirik, Aragoako urrezko berrehun florinen eta molde eta liburuak galtzeko penapean, hiru partetan banatzekoa berau, bat gure erret kutxetarako, beste bat esaniko Uharte doktorearentzat, eta beste bat salatzailearentzat.

Hainbesterekin ere, gaur goitik inprimaraz ditzazun liburuak ezin sal ditzakezu harik eta gure aldamenen den Erret Kontseilu saindu eta goren honetara presentatu diguzun liburu, izenpetua, eta haren bukaeran Pedro Franquesa, behean izkiriaturiko manamenduko eskribauaren eskuz sinaturik dagoena, inprimaketa berriko beste batekin batean ekarri arte, inprimaketa berri hori presentatu zaigun eta, goian esan den bezala, aipaturiko Pedro Franquesak izenpeturik dagoen liburu horrekin bat ote datorren ikusi eta froga dadin. Honako honen indar berberaz, gure esaniko egiazko zientziarenaz, eta erret agintearenaz, manatzen diet edozein loktenenteri, kapitain generalei, kantzelariei, kanzelariordei, kanzelaritza-erregentei, ofizio-erregentei eta general, gobernadore, alguazil, atezain, zigortzaile eta beste gure ofiziale eta ministroen beste edozein kargudunari, handiei eta txikiei, Aragoako Koroako esaniko erresuma eta jaurerrietan, eratuetan eta eratzekoetan, eta haien loktenente eta erregentei esaniko ofizioak, gure ira eta haserrea jaukiarazteko eta Aragoako urrezko mila florinen penapean, bestela egiteak galdetuko lituzkeen ondasunetatik, gure erret kutxetara joatekoak, gure honako lizentzia eta galarazpen hau, eta bertan dagoen guztia, kontutan hartu, gorde eta bete dezaten, eta kontutan harraraz, gorderaz eta beterez dezaten, hala kontraesanik gabe dagiten, eta

aurkakoa egiterik inola ere permiti ez dezaten, gure grazia estimutan baldin badute, gure ira eta indignazioaz gain, zeinetan ez baitute sartu nahi. Horren lekukotasunaz, oraingoak luza daitezen manatzen dugu, gure erret zigilu komunaz gibelego aldean zigilaturik. Madrileko gure hirian emana, agorrilaren hamabostgarren egunean. Gure Jaunaren jaiotzako mila bostehun eta hirurogeita hamalagarren urtean.

NIK,

ERREGÉAK.

[1578.EKO IRUÑEKO ARGITARAPENAREN ONESPENA]

Nafarroako Erresuma honetako Erregeorde eta Aditzaile jaunen aginduz, Argimenen Azterketa deritzon liburu hau ikusi dut Joanes Uharte Donibaneko doktoreak, Donibane Garazin jaioak, konposatua, eta ez dut hartan gauzarik bat ere aurkitu gure fede katoliko sailduaren, ez eta Eliza Ama Sailduaren erabakien kontra erraiten duenik, baina bai filosofia natural eta oso jasoak, Eskrituraren pasarte txit ongi ekarriekin, guztia irakurgarri eta jakingarri. Eta baldin ad praxim ezarri ahal balitz, baliagarritasun eta probetxu handia letorkioke errepublikari.

Done Frantzisko Iruñekoan egin, 1578.eko apirilaren 26an

Frai Gabriel de Alava

[NAFARROAKO ERRESUMARAKO LIZENTZIA]

Nik, Miguel Barbo, Nafarroako Erresuma honetan, zure Maiestatearen Errege-Kontseiluko sekretari naizen honek, fedea ematen dut ezen presenteko maiatz honen hamahiruan, eta behean izkiriaturiko urtean, Frai Gabriel de Alavak, Iruñeko hiri honetako Done Frantzisko monasterioko zainzaileak eginiko onespina ikusirik, Santoyo de Molina Erregeorde eta Bayona Ollacarizqueta lizentziatu jaunek, Amezqueta doktoreak eta don Francisco Contreras jaunak, aipaturiko bere Maiestatearen Kontseilukoek, Thomas Porrallis liburu-inprimatzaileari lizentzia eta baimena eman diotela Argimenen azterketa izeneko liburua inprimaraz dezan, eta sal ez dadin erraniko Kontseiluak tasa ezarri gabe, ene boterean gelditzen den eta aipatzen dudan autoan ageri den bezala.

Horren lekukotasuna emateko sinatu dut. Iruñean, 1578.eko maiatzaren 20an

Miguel Barbo,
Sekretaria

[1594.EKO ARGITARAPENAREN AZALA]

ZIENTZIETARAKO ARGIMENEN AZTERKETA

non erakusten baitira gizonengan diren trebetasun ezberdinak,

eta bakoitzari bereziki dagokion letra mota

Joanes Uharte Donibaneko doktoreak moldatua. Oraingo honetan autore berak emendatua, anitz gauza kurioso eta probetxagarri erantsirik.

Gure jaun Filipe erregearen maiestateari zuzendua da, zeinen argimena adierazten den, doktrina honen erregela eta aginduen adibide gisa.

Gure Errege Jaunaren Pribilegio berriarekin.

Baezan, Juan Baptista de Montoya-ren etxean inprimatua

1594. urtean

[1594.EKO ARGITARAPENERAKO PRIBILEGIOA]

ERREGEA

Zeren zerorren aldetik, Luis Uharte Donibanekoa, jaiotzez Donibane Garazikoa zen Joanes Uharte Donibaneko doktorearen (jadanik zenduaren) semea, jakinarazi baitzitzaigun: esaniko doktoreak Argimenen azterketa izenburuko liburu bat moldatua eta ordenatua zuela, jadanik behin inprimatua eta Ofizio Sainduak ikusia, eta manaturiko zuzenketa batzuekin zebilela, eta presenteon ez zela bat ere aurkitzen eta anitz jendek eskatzen zuela; eta argimen handiko liburua, errepublikarentzat baliagarri eta probetxuzkoa zenez gero, hura inprimatu ahal izateko lizentzia eman geniezazun erregutu zenigularik, orain aurkezten zenuenean zeukan gisan izateko zure aitak hura zuzendu eta hobetzeko eginiko lan ugaria kontutan izanik; eta eginiko zuzenketa Inkisizioaren Kontseilukoek argitaratu duten azken Katalogoaren aginduarekin bat zetozela ikusirik, eta zure aitarengandik beste gauzarik eta ondasunik ez zenuenez gero, aipaturiko zure aitari lehen aldiz eman zitzaion luzapenerako txartela eta pribilegioa, edo gure mesedea litzatekeen bezala, eman geniezazun.

Hori guztia gure Kontseilukoek ikusirik, eta esaniko liburuan guk liburuak inprimatzeaz egin berri dugun pragmatikak agintzen dituen diligentziak egin direnez gero, erabaki zen zuretzat txartel hau eman behar genuela esaniko arrazoiak, eta guk ontzat eduki genuen. Eta honen bitartez, zuri on eta mesede egiteagatik, lizentzia eta ahalmen ematen dizugu hurrengo lehen sei urteren denboran, gure txartel hau egina den egunetik iragaten eta kontatzen hasirik, zerorrek edo zure boterea lukeen pertsonak, eta ez beste inork, Argimenen azterketa izenburua duen esaniko liburua gure Gaztelako erresuma guztietan inprima eta sal ahal dezazun hartan egin diren eta goian aipatzen diren zuzenketa guztiekin, gure Kontseiluan ikusi den originalaren arauz, zeina gure Ganbarako eskribauak, gure Kontseiluan direnatarik, Miguel de Ondarza Zavalak azken buruan sinatua eta izenpetua baita; eta saldu baino lehenago ekar dezazula haien aurrera originalarekin batera, esaniko inprimaketa hori harekin bat datorren ikus dadin, edo era publikoan fedea ekar dezazula, zuk izendaturiko zuzentzaileak inprimaketa hori originalaren arauz ikusi eta zuzendua dela azalduz. Eta esaniko liburu hori horrela inprima dezan inprimatzaileari agintzen diogu ez ditzala hasiera eta lehen plegua inprima, eta ez diezaiola liburu bat baino gehiago, originalarekin, eman autoreari edo liburua bere kontura inprimarazten duen pertsonari, ez eta beste inori ere, zuzenketa eta tasa horretarako, harik eta esaniko liburu hori gure kontseilukoek zuzendu eta tasaturik egon arte; eta horrela, eta ez bestela, egon ondoren, esaniko hasiera eta lehen plegua inprima ahal izan dadin, eta horretan gure lizentzia eta pribilegioa ezar dadila, onespenerekin eta tasarekin batean, esaniko prematikan eta gure erresumetako legeetan dauden zehapenetan erori eta sartzeko penapean.

Eta manatzen dugu, esaniko denbora horretan, inork ere, zure lizentziarik gabe, ez dezala inprimaraz ez sal, eta inprima edo sal lezanak gure erresuma hauetan hartarik eduki edo sal litzakeen liburu, molde eta aparailu guztiak, nolanhikoak, gal litzan eta ditzan penapean, eta gainera, kontrakoa egin lezakeen aldi oro berrogeita hamar mila marabediren zehapenean sar dadila; esaniko zehapen horretatik heren parteia izan dadila gure Ganbararako, eta beste heren parteia hura sala dezan pertsonarentzat, eta beste heren parteia hura juzka dezan epailearentzat. Eta manatzen diegu gure Kontseilukoei, gure Entzutegetako Buruari eta Entzuleei, gure etxe, Gorte eta kantzelaritzako alkate eta alguazilei, eta korregidoreei, sorosleei, gobernadorei, alkate nagusi eta arruntei, eta gure hiriburu, hiri eta gure erresuma eta jaurrerietako beste nolanhiko epaile eta justiziei, bai orain direnei eta bai hemendik aitzinera izanen direnei, gure txartel hau eta honela egiten dizugun mesede hau gorde eta konpliaraz diezazuten, haren tenore eta formaren aurka, ez eta hark daukanaren aurka, deus

inola ere pasa ez onar dezazuen, gure mesedearen eta gure Ganbararentzako hamar mila marabediren zehapenean. Valladoliden egina. Mila eta bostehun eta laurogeita hamabigarren urteko uztailaren seigarren egunean.

NIK, ERREGÉAK

Gure errege jaunaren aginduz

Don

Luis

de

Salazar

TASA

Nik, Miguel de Ondarza Zavalak, gure errege jaunaren Ganbarako eskribauak, haren Kontseiluan direnetarik, fedea ematen dut ezen esaniko Kontseiluko jaunen aitzinean, Juan Andrea Guarnero Baezako hiriko auzokidearen aldetik, Argimenen azterketa izenburua duen liburua, Kontseilu horretako jaunen lizentziaz inprimatua, aurkezturik, esaniko liburu horren plegu bakoitza hiru marabeditan tasatu zutela, eta prezio horretan eta ez handiagoan saltzeko agindu zutela, eta tasa hori liburu bakoitzaren azkenaldean jar dadila. Eta, esaniko Juan Andrea Guarneroren izenean Juan Orozco Carvajalek hala eskaturik, honako hau eman nuen, Madrileko hirian egina, mila bostehun eta laurogeita hamalagarren urteko uztailaren hamazortzigarren egunean, eta horren fedean neure izenaz sinatu nuen. Miguel de Ondarza Zavala.

AINTZINSOLASA

Don Filipe gure Jaun

Erregearen Maiestateari

Artegileen obrek errepublikaren azturari dagokion maila ezin hobea izan dezaten, iruditu zait, Erret Maiestate Katolikoa, lege bat ezarri behar dela: zurginak ez dagiela laborariaren ofizioari doakion obrarik, ez ehuleak arkitektoarena, ez legetan adituak senda dezala, ez medikuak aboka dezala; aitzitik, bakoitzak talentu naturala zertarako duen, hartantxe enplegatzea, gainerako gauzak utzirik. Zeren, gizonaren argimena gauza baterako eta ez gehiagotarako zein laburra eta mugatua den kontsideraturik, neure baitan beti eduki baitu aditurik inork ere ezin jakin ditzakeela ezin hobeki bi arte, batean faltarik egin gabe¹. Eta, bere izaerari ongienik legokiokena huts egin ez lezan, errepublikan diputatuek izan behar lukete, zuhurtzia eta jakite handiko gizonak, haurtzaroan nori bere argimena aurki liezaioten, hari legokiokoen zientzia bortxaz estudiaraziz, hari bere gogoz hautatzen utzi gaberik. Horrek zure Estatu eta jaurrerietan munduko artegilerik handienak eta obrarik hoberenak izatea lekarke, artea eta izaera elkartze hutsagatik.

Hauxe berau nahi nuke legiten zure erresumetako Akademiek; horiek ez baitiote uzten estudianteari beste fakultate batera iragan dadin, harik eta latin hizkuntzan aditua ez den artean, izan zitzatela examinatzaileak ere dialektika, filosofia, medikuntza, teologia edo legeak estudiantu nahi dituenak ea zientzia horietako bakoitzak behar duen argitasuna ba ote duen jakiteko. Zeren bestela, halakoak bere arte gaizki ikasiarekin errepublikan gero eginen duen kalteaz landa ere, deitoragarria baita gizon bat lanean eta burua hausten ikustea deus onik aterako ez zaion gauzan². Gaur egunean diligentzia hau ez egiteagatik, kristau erlijioa suntsitu dute teologiarako argimenerik ez zutenek, eta gizonen osasuna alferrik galtzen dute medikuntzarako ezgaiek, eta ez du jurisperiziak ukan lezakeen bikaintasuna legeen aztura eta intepretazio zuzena zein ahalmen arrazionalia dagokion ez jakiteagatik.

Antzinako filosofo guztiek esperientziaz aurkitu zuten gizonak jakitera gidatzen ez duen izaerarik ez duenean, soberan duela artearen erregeletan trabailatzea. Baina batek ere ez du bereziki eta klarki erran, zein izaerak egiten duen gizona zientzia baterako trebe eta beste baterako ezgai, ez giza espeziearengan zenbat argimen molde diren, ez bat bederari nolako arte eta zientziak doazkion partikularzki, ez eta zeintzuk seinalerekin ezagut zitezkeen, hura munta handieneko kontua izanik. Lau gauza hauek, ezin eginezkoak diruditen arren, tratatu behar den materia daukate, doktrina honi buruz ukitzen diren beste anitzez landa, guraso kuriosoek beren seme-alaben argimena aurkitzeko arte eta manera ukan dezaten, eta bakoitzari probetxu handiena eginen dion zientzia aplika diezaioten. Galenok kontatzen duenez, bere aitari demonio batek emaniko abisua da, lotan zetzala bere semeari medikuntza estudiaraz ziezaiola kontseilatuz, zientzia horretarako argimen bakar eta singularra baitzuen³.

Hortik, adituko du zerorren Maiestateak, zenbat doakion errepublikari bertan zientzietarako argimenerik azterketa eta hautapen hau izatea; zeren Galenok medikuntza estudiantzetik bere garaiko erientzat hainbesteko osasuna jalgi baitzen, eta etortzekoentzat hainbeste erremedio izkiriaturik utzi ere bai. Eta Baldok (zuzenbideko gizon argitsu hark) medikuntza estudiantu eta usatu ondoan, harekin aitzinera iraun balu, mediku arrunta zatekeen -egiazki zen bezala, zientzia horrek behar duen argimen molde falta baitzuen- eta legeek beren deklaraziorako aurki zitezkeen giza trebetasunik handiena galduko zuketen⁴.

Beraz, filosofatzeko molde berri hau arte bilakatu, eta bera argimen batzuetan frogatu nahirik, berehalaxe burura etorri zitzaidan zerorren Maiestatearena, nabarmenena baita,

zeinez mundu guztia miraz dagoen hain jakituria eta zuhurtzia handiko Printzea ikusiz. Eta horrez ezin trata daiteke hemen, obran itsuskeria eginez ez bada. Azkenurreko kapitulua da horretarako lekurik komenigarriena, eta hor zure Maiestateak bere argimenaren manera dakuske, eta errepublikari zein arte eta letrez probetxu egingen liokeen, baldin eta, izaeraz gure Errege eta jauna delarik ere, gizon partikularra izan balitz.

Vale.

BIGARREN AINTZINSOLASA

Irakurleari

Platonek doktrina pisu, sotil eta iritzi arruntetik apartekoren bat irakatsi nahi zuenean, bere dizipuluetatik argimen delikatuenekoak zeritzenak hautatzen zituen, eta horiei baizik ez zien bere ustea erraiten, esperientziaz bai baitzekien adimendu urriko gizonei gauza delikatuak irakastea denbora ematea eta doktrina alferrik galtzea zela¹.

Hautapenez gero, bigarrenik egiten zuena, aitzinuste argi eta egiazko batzuekin, ondoriotik urrun ez zirenekin, haiek aurretik ohartaraztea izaten zen. Jende arruntak haintzat hartua duenaren aurka supituki argitaratzen diren erranek eta esakerek, hasieran hala ohartarazi ezean, ez dute entzulegoa nahas eta koleratzeko besterik balio, eta horrela hartarako atxikimendu zintzoa galdu eta doktrina gaitzestera heltzen da.

Jokamolde hau gorde nahi nuke nik ere zurekin, irakurle jakinahi hori, lehenik zu tratatzeko erarik balitz, eta neronek bakarka zure argimenaren talentua aurki ahal baneza; zeren, doktrina honi dagokion bezalakoa balitz, zu ohiko argimen arruntetik bereizturik, sekretuki hain errankizun berri eta partikularrak erranen bainizkizuke, gizonen irudimenean sar zitezkeela zuk inoiz pentsatu gabeak.

Baina hori ezin egin daitekeenez gero, obra honek guztientzat publikoki jalgi behar duenez gero, ezinezkoa da zu nahaste gabe uztea. Zeren baldin zure argimena komun eta arruntetikoa bada, ongi dakit segurtzat daukazula zientzien kopurua eta haien bikaintasuna duela anitz egun antzinakoek konplituak dituztela; arrazoi hutsalaz horretaturik: haiek gehiago zer erranik ukan ez zutenez gero, argudioa da ez dela gauzetan beste berrikuntzarik. Eta menturaz halako iritzia baldin baduzu, ez zaitez hemendik iragan, ez eta aitzinago irakur; pena emanen baitizu frogaturik ikusteak zer nolako argimen molde miserablea zegokizun. Baina diskret, ongi arautua eta eta pairatia baldin bazara, hiru ondorio erran behar dizkizut, hagitz egiazkoak, beren berritasunagatik biziki mirestekoak diren arren.

Lehena da, giza espeziean diren argimen molde anitzetatik, goren mailan, bat baizik ezin dagokizukeela; baldin Naturak, txit boteretsua izanik, eratu zintuen denboran bere gainerako indar guztiak, halako bi edo hiru elkartzeko, ezarri ez bazituen; edo, ezinbestean, ergelik eta haiez guztiez gabeturik utzi ez bazintuen².

Bigarrena da, argimen molde bakoitzari, gorentasunez, zientzia bat besterik ez dagokiola, eta ez gehiago; halako moldez, non zure trebetasun naturalari dagokiona hautatzen asmatzen ez baduzu, besteak eskuratzeko neke handia ukanen baituzu, egunez eta gauez lan badagizu ere.

Hirugarrena, zure argimenari gehien doakion zientzia zein den aditu eta gero, beste zailtasun are handiago bat gelditzen zaizula jakiteko; erran nahi baita, ea zure trebetasuna praktikarako teorikarako baino egokiagoa ote den, bi alde hauek, zernahi letra generotan, beren artean hain aurkakoak diren eta hain argimen ezberdinak eskaten dituztenez gero, batak bestea urritzen duelarik, egiazko kontrarioak balira bezala.

Errankizun gogorrek dira, aitortzen dut. Baina beste gauza batzuek are zailtasun eta laztasun handiagoa dute: haiez ez baita nori apela, ez eta irainez zer erran. Zeren Jainkoa Naturaren autorea izanik, eta honek gizon bakoitzari ez diola argimen molde bat besterik ematen ikusirik, arestian erran dudan gisan, elkartzean den aurkakotasun edo zailtasunagatik, harekin egokitzen baita; eta gizonen artean dohainik banatzen dituen zientzietarik, mirariz bat baino gehiago ematen du goren graduan, *Divisiones vero gratiarum sunt, idem autem Spiritus; et divisiones ministrationum sunt, idem autem Dominus; et divisiones operationum sunt, idem vero Deus qui operatur omnia in omnibus. Unicuique autem datur ministratio* Spiritus ad utilitatem: alii quidem datur per Spiritum sermo sapientiae, alii autem sermo scientiae secundum eundem Spiritum;*

alteri fides in eodem Spiritu, alii gratia sanitatum in uno Spiritu; alii operatio virtutum, alii prophetia, alii discretio spirituum, alii genera linguarum, alii interpretatio sermonum. Haec autem omnia operatur unus atque idem Spiritus dividens singulis prout vult³.

Nik ez dut dudarik egiten zientzien banaketa hau** Jainkoak bat bederaren argimen eta joera naturala kontutan harturik egiten duela. Zeren banatu zituen talentuak, Done Mateoren arabera, ebangelariak berak dioenez, unicuique secundum propriam virtutem⁴ eman baitzitu. Eta naturaz gaineko zientzia hauek subjektuarengan halako joera batzuk, haren baitan ixuri aitzin, ez dituztela eskatzen pentsatzea, errakuntza handia da^{5***}.

Izan ere, Jainkoak Adam eta Eva eratu zituenean, egia da jakituriaz bete bezain laster, burmuina halako moldez antolatu ziela, hura emeki errezibi zezaten, eta harekin pentsu eta gogoeta egiteko instrumentu erosoak izan zedin. Eta halaxe dio Eskritura Jainkozkoak: ... et cor dedit illis excogitandi, et disciplina intellectus replevit illos⁶.

Eta bakoitzak duen argimen moldearen arabera, zientzia bat isurtzea, eta ez beste bat, edo haietako bakoitzetik gehiago edo gutxiago, gure lehen gurasoen exenpluan adierazten den kontua da; zeren Jainkoak biak jakituriaz bete eta gero, ondorio jakina da Evari gutxiago etorri zitzaioela, eta arrazoi horrexegatik diote teologoek deabrua hura engainatzeraz ausartu zela, eta ez zela menturatu gizonetzkoa tentatzeraz, haren jakituria handiaren beldur⁷. Honen arrazoa da, geroago frogatuko dugunez, emakumeak burmuinean daukaten moldaerak ez duela argimen handirik ez eta jakituria handirik ere izateko gaitasunik.

Substantzia aingerutarretan ere kontu eta arrazoi bera edirenen dugu. Zeren, Jainkoak aingeru bati glorian gradu gehiago eta dohain goragoak emateko, lehenik izaera delikatuagoa baitemaio; eta ea izaera delikatuago hau zertarako balio duen teologoen galdetuz, ba diote endelegu goragoa eta izaera hobea duen aingerua Jainkoagana errazago bihurtzen dela eta dohaina are efikazia handiagorekin erabiltzen duela; eta gauza bera gertatzen dela gizonengan ere^{8****}.

Hemendik argiki inferitzen da, naturaz gaindiko zientzietarako argimenen hautapena badela****, eta nolana hiko trebetasun moldea, haietarako tresna erosoak ez denez gero, giza letrek are arrazoi handiagoak eskatuko dutela hura, horiek gizonen beren argimenaren indarrekin ikasi behar dituztelako.

Giza argimenaren diferentzia natural hauek bereizten eta ezagutzen jakitea, eta bakoitzari arterioz probetxu handiena eginen duen zientzian hura aplikatzea da nire obra honen xedea. Hortik egin asmo dudana bezala atera banendi, horren gloria Jainkoari emanen nioke, ongi eta zuzen asmatua haren eskutik heldu delako. Eta ezperez, ongi dakizu, irakurle diskretu horrek, ezinezkoa dela arte bat asmatu eta bera hobetu ahal izatea; zeren giza zientziak hain luze eta zabalak direnez gero, ez baita aski gizon baten bizia haiek eriden eta ukan behar duten bikaintasuna eman ahal izateko. Aski egiten du lehen asmatzaileak hastapen nabari batzuk erakustearekin, ondotik jarraikiko zaizkionek, hazi horrekin, arte hura hedatu eta behar den kontu eta arrazoiak ezar dezaten⁹.

Honi buruz Aristotelesen dioenez, filosofatzen hasi zirenen okerrak benerezio handitan eduki behar dira; izan ere, gauza berriak asmatzea hain zaila eta jadanik eginik eta trataturik dagoenari gehiago erantzea hain erraza denez gero, lehenbizikoaren faltekin, arrazoi honen kariak, ez dute oso gaitzetsiak izatea merezi, eta erantzen duenari ere ez zaio horregatik laudorio handirik egin behar.

Nik ongi aitortzen dut ene obra honek ezin ihes dagikeela errakuntza batzuetatik, materia hain delikatuak izan eta lehendik bera tratatzeko bide urraturik ez zelako. Baina

halakoak endeleguak irizteko era duen lekuan baldin balira, otoi, erregutzen dizut, irakurle argitsu horri, zeure dekretua eman baino lehen, irakur dezazula obra osoa, eta jakin zein argimen molde duzun; eta hartan zure iritziz ongi erranik ez legokeen zerbait kausi bazeneza, beha iezaezu haren aurka indar handiena egiten dizuten arrazoiei; eta horiek askatzen ez bazeneki, itzul zaitez hamaikagarren kapitulua irakurtzera, hantxe aurkituko baituzu ukan dezaketen erantzuna. Vale.

BIGARREN AINTZINSOLASAREN HURRENKINA [1594]

eta arrazoia ematen da zergatik gizonak, ematen dituzten iritzietan, aburu ezberdinetakoak diren

Duda batek nekarazi dit argimena aspaldiko egunetan, eta haren erantzuna gizonen iritzi eta zentzurako arras ezkutua zela pentsatuz, irakurle jakinahi hori, beti bazterrean utzia nuen; baina, hura ene irudimenera behin eta berriz etortzeaz unaturik, haren arrazoi naturala jakin behar nuela erabaki nuen neure baitan, horrek zernahi trabailu kosta ziezadakeen arren. Eta kontua da ea nondik sort daitekeen hau, gizon guztiak espezie banaezinekoak izanik eta arima arrazionalaren ahalmenak (oroimena, endelegua eta borondatea) guztietan ontasun maila berekoak direlarik, eta auzia are zailago egiten duena, endelegua ahalmen izpirituala eta gorputzeko organoetatik apartatua izanda, guztiarekin ere, esperientziaz badakusagu ezen baldin mila gizon biltzen badira zailtasun berari buruz beren iritzia eta usteak emateko, nork bere iritzi ezberdin eta berezia erranen duela, gainerakoekin bat etorri gabe. Eta horregatik erran zen

Mille hominum species et rerum discolor usus:

velle suum cuique est, nec voto vivitur uno¹.

Antzinako edo oraingo filosofo batek ere, nik ikusi ditudanetarik, ez du ukitu zailtasun hau, ene ustez, horren iluntasun handiaz harriturik, gizonen iritzi eta apeta anitzez guztiak kereilatsu dakuskidan arren. Hori dela eta, gogoeta hegaldatzera jaurtiki behar izan nuen eta ikerketaz baliatu, aitzindaririk izan ez duten beste zailtasun handiagoetan bezala.

Eta gogoetan arituz, neure buruz aurkitu nuen gizonen eraketa berezian badela kausa natural bat haiek uste ezberdinetara makurtarazten dituen; eta hori ez dela gorrotoa, ez grina, ez eta gizonak gaitzerraile edo aurka mintzatzeko zaleak izatea ere, horien kontra laguntza eta faborea eskatzeko, beren Mezenasei eskaintza-gutunak izkiritzen dizkietenek pentsatzen duten bezala. Baina kausa berezi hau zein den eta zer nolako hastapenetatik sort daitekeen, horrexek eman zidan min eta neke.

Horretarako, jakin behar da antzinako mediku jakintsu batzuek uste zutela eskualde epeletan bizi ez garen gizon guztiok gaur eri gaudela eta gaitzen batekin, baina horrekin sortu eta jaiio garelako eta egoera hobez gozatu gabe ez dugula horrela sentitzen. Baina gure ahalmenek egiten dituzten gaiztakeriez eta, zeretik eta zergatik ez dakigula, orduz ordu pairatu behar ditugune deskontentuez oharturik, klarki aurkituko dugu ez dela gizon bat bera ere aurkitzen min eta oinaze gabe dagoela erran dezakeenik.

Medikuek orok diotenez, gizonaren osasun ona lehen lau kalitateen elkarrekiko egokitzapenean datza, non beroa ez zaion hotzari, ez eta hezetasuna lehortasunari aitzintzen, baina behin oreka hori galdu eta gero, gizonak ezin egin ditzake bere obrak lehen ohi zituen bezain ongi. Eta horren arrazoia aski argi dago: zeren tenperatura egokian gizonak bere lanak egoki egiten baldin baditu, nahitaez destenplantzaz, haren kontrario denaz, nolabaiteko huts eta akatsez egin beharko baititu. Baina osasun bikain hura kontserbatzeko, beharrezkoa da zeruek beti kalitate berberetz eragitea; eta negu, uda eta udazkenik ez izatea; eta gizona hainbeste adinetatik ez iragatea; eta gorputzaren eta arimaren mugimenduak beti era berekoak izatea: itzarririk egotea eta lo egitea, janak eta edana, den-dena epel eta tenperatura on horren kontserbazioari doakion bezala. Eta hori guztia ezinezko kasua du, bai medikuntzaren arteak eta bai Naturak berak ere.

Jainkoak ez bestek egin ahal ukan zuen hori Adamekin, bera Lurreko Paradisuan ezarri eta bizitzako zuhaitzetik jatera emanetz, horren propietatea gizona hazi zen osasun hobezineko puntuan kontserbatzea baitzen. Baina gizonak epel ez diren eskualdeetan bizi izanda, airearen aldaketen menez, negu, uda eta udazkenaren pean, eta hainbeste

adinetatik iraganez, bakoitza bere temperaturaz, eta jaki batzuk hotzik eta beste batzuk berorik janez, horrek nahitaez gizona destenplatu behar du eta lehen kalitateetako tenplantza ona galdu eragin. Eta horren argudio argia hauxe da, sortzen diren gizon guztietarik, batzuk patxadazkoak, beste batzuk odoltsuak, beste batzuk koleratsuak, eta beste batzuk malenkoniatsuak jaiotzen direla ikustea, eta, mirari handiaz, bat besterik ez tenplatu; honek, baina, une batez ere ez dirau bere temperatura ona aldatu gabetik.

Mediku horiei ihardetsiz, Galenok hertsikiegi mintzo direla dio. Gizonen osasuna ez baitatza puntu zatiezin batean, zabalera eta luzera ere baitu, eta lehen kalitateak temperamentu hobezin hartatik gantzia daitezkeelako, eritasunean erori gabe ordea. Patxadazkoak bereizten dira hoztasun eta hezetasunagatik, eta koleratsuak berotasun eta lehortasunagatik; baina guztiak osasuntsu bizi dira, min eta oinazerik gabe. Eta hauek tenplatuak bezain obra onik ez dutela egiten egia bada ere, halere horiekin ongi pasatzen dira gaitz agerikorik gabe eta horiek zuzentzeko medikua deitu beharrik ez dute; hori dela karia, arteak berezko joerazkotzat atxikitzen eta kontserbatzen ditu. Nahiz eta, honekin, Galenok destenplantza biziotsuak direla eta eritasunak balira bezala tratatu beharra dagoela aitortu, bakoitzari bere aurkako kalitatea aplikatuz, horiek guztiok, hala izanez gero, osasun hobezinera erdutzeko, min eta oinazerik ez den egoerara. Eta horren begien bistako argudioa da ikustea ezen Natura, bere haserre eta apetekin, ez dela behin ere entseiatzen destenplatu antzeko kausekin kontserbatzera, aitzitik, beti ari da hura aurkakoekin bideratzen, eri balego bezala. Eta honela, koleratsuak udari gaitz deritzola dakusagu, eta neguarekin jostatzen dela, ardoak barrua erretzen diola eta urarekin eztitzen dela. Horixe baita Hippokratesek erran zuena: *calidae naturae cui est, aquae potus et refrigeratio*².

Baina ni narraion xederako, ez da beharrezkoa destenplantza hauek eritasun izatea, antzinako mediku haiek erran zuten bezala, edo osasun ezosoak, Galenok aitortzen duenez, iritzi batetik eta bestetik argiro inferitzen baita nik frogatu nahi dudana, alegia, gizonak pairatzen dituzten destenplantzengatik eta beren konposaera naturala osorik ez dutelako, aurkako gustu eta apetetara emanak direla, ez soilki haserre eta nahien arloan, baina arrazoimenaren aldean ere bai. Eta hori argi ageri da gizon destenplatu gobernatzeko duten ahalmen guztiak xeheki aztertuz gero. Koleratsuak, ahalmen naturalen arauz, jaki hotz eta hezeak nahi ditu; eta patxadazkoak jaki bero eta lehorrak. Koleratsua, ugaltzeko ahalmenaren arauz, emakumeek galtzen dute; eta patxadazkoak gaitzesten ditu. Koleratsuak, haserre-arlotik, ohorean eta banaglorian agintea eta manu ukaitea adoratzeko ditu, eta ororen gain egotea; eta patxadazkoak estimatzenago du lotan asebetetzea munduko jaurgu guztiak baino. Eta gizonen apeta ugariak koleratsu, patxadazko, odoltsu eta malenkoniatsuen artean bertan ezagut daitezke, kolera, patxada eta malenkoniaren artean diren ezberdintasun ugariengatik.

Baina arrazoimen-aldean nork bere iritzia erraitzeko kausa osoa gizonak pairatzen dituzten destenplantza eta eritasunetan dagoela are argiago uler dadin, on dateke kanpoko ahalmenetan exenplu bat ezartzea, horietan zer gerta, barnekoetan ere berdin izanen da eta.

Filosofo natural guztiak bat datoz, ezagueraren bat egin behar duten ahalmenek, osasuntsu izan eta ezagutu behar duten objektuaren kalitateetatik garbi egon behar dutelako ustean, bestela anitz iritzi eta guztiak faltsuak egin bailitzakete. Demagun bada, itxuraz, lau gizon ditugula, laurak beren ikusmenaren eraketan eri, eta batek humore kristalinoa odol tanta batez bustia duela, beste batek koleraz, beste batek patxadaz eta besteak malenkoniak. Horiei, berek beren eritasunaren berri jakin gabetik, para bageniezaie aitzinean oihal zati urdin bat, haren egiazko koloreari iritz liezaioten, egia da lehenak erran lezakeela gorria zela, eta bigarrenak horia, eta hirugarrenak zuria, eta laugarrenak beltza. Eta guztiek hala zin legikete, eta elkarri irri eginen, besteak hain

gauza ageri eta nabarmenean erraturik baleude bezala. Eta humoreen lau tanta horiek mihira pasa eta edatera pitxer bat ur eman bageniezaie, batek lerrake gozoa zela, beste batek mingotsa, beste batek gazia eta besteak garratza.

Hemen bi ahalmenetan lau iritzi ezberdin dakuskizue, bakoitzak bere eritasuna duelako arrazoiagatik; eta battok ere ez zuen egia zuzen haztatu. Bada, arrazoi eta proportzio bera dute barneko ahalmenek ere beren objektuekin. Ezpere, pasa ditzagun lau humore horiek, are neurri handiagoan, burmuinera, hura bero diezaioten; eta mila eratako eromen eta ergelkeria ikusiko ditugu, eta horrexegatik erran zen: bakoitzak bere zoroa bizi du³. Hain erotasun handira heltzen ez direnak badirudi beren senean daudela eta gauza komenigarriak erran eta egiten dituztela; baina egiatan irrist egiten dute, batzuek aritzeko darabilten eztitasunagatik hori inoiz garbi ageri ez bada ere.

Medikuak, gizon bat osasunean ala eri ote dagoen jakin eta aditzeko, ez dira beste ezein ere seinalez gehiago baliatzen hark egiten dituen obrei behatzeaz baino. Horiek onak eta sanoak baldin badira, egia da osasuna duela; eta baldin akats- eta gaitzduinak badira, hutsik gabe, eri dago. Argudio honetan oinarritu zen filosofo handi hura, Demokrito Abderakoa, Hippokratesi frogatu zionean, gizona, jaiotzen denetik hil arte, ez dela etengabeko eritasuna besterik arrazoimenaren obren arauetz; eta honela erran zion: Totus homo ex navitate morbus est: dum educatur, inutilis est et alienum auxilium implorat: dum crescit, protervus, insipiens, paedagogo opus habens; dum in vigore est, audax est; dum decrescit, miserabilis, ubi labores suos recolit ac jactat... Ex maternis enim uteri inquinamentis talis prodiit⁴. Eta Hippokratesek errankizun hori miretsi zuen eta, erabat egiazkoa zela uste izanik, hartaz komentziturik, haintzat hartu eta halaxe kontatu zion bere adiskide Demokritori⁵. Eta berriz ere bisita egin zionean (haren jakituriaz gozatzeko) badio galdetu ziola bere etengabeko irriaren arrazoia eta kausa (munduko gizon guztiei irriz eta trufaka ari zela ikusirik), eta horri ondoko errankizunaz ihardetsi omen zion: Numquid universum mundum aegrotare non animadvertis? Alii canes emunt, alii quos, aliis volunt multis imperare, nec sibi ipsis imperare possunt; uxores ducunt quas paulo post eiiciunt; amant, deinde odio habent; cum magna cupiditate liberos generant, deinde adulto eiicunt. Quae est illa vana ac absurda diligentia, nihil ab insania differens? Bellum intestinum gerunt quietem non amplectentes; reges deponunt, alios subrogant; occidunt homines; terram fodientes argentum quaerunt⁶. Eta honela luzaro ihardun zuen gizonen apeta ugariak eta egiten eta erraiten dituzten erokeriak kontatzen, guztiak eri daudelako arrazoiagatik. Eta ondoriotzat, erran zion mundu hau eroetxe bat besterik ez zela, eta haien bizitza komedia irrigarria zela, gizonen barre eragiteko jokatu; eta horrexegatik egiten zuela hainbeste irri. Eta Hippokratesek hori entzun eta gero Abderakoei publikoki erran zien: Non insanit Democritus, sed super omnia sapit et nos sapientiores efficit⁷.

Gizon guztiak tenplatuak izan eta eskualde epeletan biziko bagina eta elikatzeko janari epelak jan bagenitza, guztiok (ez, ordea, beti, baina bai gehienetan) kontzeptu berak ukanen genituzke, apeta eta gurari berak; eta norbait hasiko balitz arrazonatzen eta zailtasunen bati buruz bere iritzia ematen, guztiok era berean eta ia esku batez beren izenaz sinatuko lukete hura. Baina bizi garen gisan, eskualde destenplatuetan bizi izanik, eta jan-edanetan hainbeste desordena ditugularik, hainbeste grina eta arima-ardurarekin eta zeruaren etengabeko aldaketa anitzekin egonik, ezin gaudeke eri egon gabe, edo destenplaturik bederen⁸. Eta guztiok eritasun molde berberaz gaixotzen ez garenez gero, ez gatzazkio komunzki guztiok iritzi ber bati jarraitzen, eta ez dugu komunzki apeta eta nahikeria bera ukaiten, baina nork berea, bakoitzak pairatzen duen destenplantzaren arabera.

Filosofia honekin hagitz ongi dator Jaun Done Lukasen parabola hura, honela dioena: Homo quidem descendebat ab Ierusalem in Iericho, et incicit in latrones; qui etiam despoliaverunt eum et, plagis impositis, abierunt semivivo relicto⁹. Eta hori argitzen dute zenbait autorek erranez horrela zaurturiko gizon hark bekatu ondoko giza natura irudikatzen duela; izan ere, lehenago Jainkoak hura hobezinik sortua baitzuen naturaz bere espeziari zegozkion konposaeran eta tenperamentuan, eta naturaz gaineko anitz grazia eta dohain ere bai, are hobea izan zedin. Jatorrizko justizia eman zion bereziki, eta horrekin gizonak bere konposaeran nahi zezakeen osasun eta kontzertu guztia erdietsi zuen; eta, horrela, Done Augustinek hari sanitas naturae erraiten zion, hari gizonaren harmonia eta kontzertua baitzerizkion, beheko aldea goikoaren meneko eta goikoa Jainkoaren meneko eginez. Baina hori guztia galdu egin zuen bekatu egin zuen puntuan; zeren gero dohainekotik gabetu eta naturalean jorik eta zaurturik gelditu baitzen. Eta ezperez, beha diezaiegun haren ondorengoei, nola dauden eta nolako obrak egiten dituzten; eta argi adituko da horiek ezin datozkeela gizon eri eta zaurtuengandik ez bada: gutxienez, haren irizmen libretik determinaturik dago bekatuaren ondoan erdi hilik gelditu zela eta lehenago ohi zuen indarrrik gabe. Zeren, behin Adamek bekatu egin eta gero Lurreko Paradisutik egotzi (leku hagitz epeletik) eta bizitzako zuhaitzetik gabetu baitzuten, bai eta bere eraketa ona kontserbatzeko zituen gainerako babesetatik ere. Harez gero ukaiten hasi zen bizitza lan handikoa izan zen, behearen gainean hotzetan, gau izartsuetan eta beroetan lo eginez. Bizi zen eskualdea destenplatu zen, eta jan-edanak haren osasunaren aurkakoak. Bera oinutsik eta gaizki jantzirik ibiltzen zen, jatekoa irabazteko lanean eta izerdia zeriola, etxe eta aterperik gabe, herririk herri noraezean joanez. Hainbeste kontentuz eta erregaliaz haziriko gizonak nahitaez eritu eta destenplatu beharko zuen; eta horrela, ez zitzaion organo ez gorputz instrumenturik bat ere gelditu destenplatu gabetik, lehen ohi zuen leuntasunaz baliatu ezinik. Eta halako destenplantzarekin bere emaztea ezagutu¹⁰ eta Kain bezalako gizon txarra sortarazi zuen, hain argimen txarrekoa, maliziati, harro, gogor, latz, mutiri, bekaizti, deboziogabe eta gaizki egokitua. Eta horrela hasi zen osasun txar eta desordenu hau bere ondokoei komunikatzen; zeren sortaraztean gurasoek duten eritasuna, (medikuek diotenez) horixe bera ateratzen baitute jaio ondoren haien seme-alabek ere.

Baina doktrina honetan zailtasun handi bat aurkitzen da eta eskatzen duen soluzioa ere ez da nolanahikoa. Eta hauxe da: gizon guztiok eri eta destenplaturik baldin bagaude, frogatu dugun bezala, eta destenplantza bakoitzetik iritzi partikular bana jalgitzen bada, zer erremedio dukegu iritzi ematen duten anitzen artetik egia zeinek dioen jakiteko? Zeren, oihal urdinaz egin zuten juzku eta ezagutzan gizon haiek erratu baziren, ikusmenean nork bere eritasuna zuelako, gauza bera gerta baliteke beste lauri bakoitzak burmuinean destenplantza bana baleuka; eta horrela egia ezkutuan legoke, edo inork ere ez luke hura erdietsiko, guztiak eri eta destenplaturik leudekeelako.

Honi ihardets dakioke erranez giza jakituria segurgabea eta ahikorra dela, aipatua dugun arrazoiagatik. Baina, horretatik landa, jakin behar da ez dela behin ere gizonarengan eritasunik gertatzen, ahalmen bat ahulduz, hargatik kontrakoa, edo aurkako tenperamentua eskatzen duena, indartzen ez duenik; eta baldin burmuin tenplatu hezetasunagatik destenpla baledi, egia da oroimena handitu eta endelegua faltako litzatekeela, geroago frogatuko dugunez; eta lehortasunagatik, endelegua iganen eta oroimena, aldiz, jaitsiko litzateke. Eta horrela, endeleguari ukitzen dioten obretan, askoz ere gehiago lekike burmuin lehorreko gizonak, gizon oso sano eta tenplatuak baino; eta oroimeneko obretan anitzez gehiago erdiesten du hezetasunagatik destenplatuak munduko gizon tenplatuak baino. Medikuen ustez, anitz obratan destenplatuak tenplatuak gaintzen dituztelako; eta horrexegatik erran zuen Platonek mirariz ez bada,

ez dela argimen handiko gizon bat aurkitzen nola edo hala maniara eroria ez dena (hau da, burmuinaren destenplantza bero eta lehorra ez duenik).

Beraz, halako jakituri mota baterako destenplantza eta eritasun mugatua egoten da, gainerakoetarako higuingarria izaten dena; eta horretara beharrezkoa da gizonak zein eritasun eta nolako destenplantza duen jakitea, eta hori bereziki nolako zientziari dagokion (hauxe baita liburu honen gaia); horren bidez egiara helduko baita eta gainerakoekin iritzi okerrak ukanen ditu.

Gizon tenplatuek, geroago frogatuko dugunez, zientzia guztietarako ahalmena dute nolabaiteko erdi mailaraino, haietan sobera aitzinatu gabe. Baina destenplatuek bakarrerako, eta ez gehiagorako; eta horri zin-zinez ekiten badiote, eta bera artaz eta arduraz estudiatzen badute, hartaz gauza mirezgarriak erdietsiko dituzkete; eta erratzen badira, gainerakoek oso gutti jakinen dukete. Eta horren argudio nabaria hauxe da, historiek erakusten dutenez, zientzia bakoitza bere asmamenari zegokion eskualde destenplatuan asmatu zela ikustea.

Adam eta haren ondoko guztiak Lurreko Paradisuan bizi izan balira, orain eskoletan irakurtzen diren arte mekaniko eta zientzietarik bat bera ere ez zuketean beharko, eta gaurdaino ere ez ziratekeen asmatuko, ez eta praktikan jarri ere. Zeren, biluzik eta oinutsik zebiltzalarik, ez baitzatekeen beharko jostunik, galtzagilerik, zapataririk, kardaririk, ehulerik, zurginik ez eta etxegilerik ere; Lurreko Paradisuan euririk egiten ez zuelako, ez eta aire hotz edo berorik ibiltzen, horietatik gordetzeko¹¹. Orobat ez legoke teologia eskolastiko eta positibo hau, orain dugun bezain hedaturik behinik behin; zeren, Adamek bekatu egin ez balu, ez zatekeen Jesu Kristo jaioko, haren haragitze, heriotza eta bizitzaz, eta jatorrizko bekatuaz eta honek ukan zuen ordainaz osaturik baitago Fakultate hori. Are gutxiago legoke jurisperziarik, zuzenak ez baitu lege eta zuzenbiderik behar: gauza guztiak komunak lirateke eta ez legoke enerik ez hirerik, hortixek sortzen baitira auziak eta haserreak. Medikuntza zientzia behargabea litzateke, gizonak hilezinak liratekeelako, usteltzepean eta eritasunak ekar liezaiekeen aldaketaren pean egon beharrik gabe: guztiek bizitzako zuhaitz hartatik janen lukete, haren propietatea, betiere, lehen zuten sustraizko hezetasuna¹² baino hobea haiei banatzea baitzen.

Behin Adamek bekatu egin eta gero ukan zuten hasiera praktikoa arestian erran ditugun arte eta zientzia guztiek, haren miseria eta premiak erremediatzeko guztiak beharrezkoak izan zirelako. Paradisuan hasi zen lehena jurisperzia izan zen, eta hartan orain dugun ordenu judizial berak prozesu bat substantziatu zuen, demandantak deitu eta bere akusazioa eginez, eta akusatuak erantzunez, epailearen sententzia eta kondenazioarekin. Bigarrena teologia izan zen; zeren Jainkoak sugeari et ipsa conteret caput tuum¹³ erran zionean, Adamek, endelegua goitiko zientziaz beteriko gizona zen aldetik, laster konprenitu zuen Jainkozko Hitza emakume baten sabel birjinalen haragituko zela, eta andre horrek bere haur erditze onarekin bere zangopean ezarriko zituela deabrua eta haren enperadorego guztia; eta fede eta sinesmen horretan salbatu zen. Teologiari zerraiola, ondoan arte militarra jalgi zen, zeren Adam bizitzako zuhaitzetik jatera zihoan bidean Jainkoak presondegi bat fabrikatu baitzuen, han kerubin armatua jarriz, pasatzen debeka ziezaion. Arte militarraren ondoan medikuntza atera zen; zeren, behin Adamek bekatu egin eta gero hilkor eta ustelkor bilakatu baitzen, eta mila eritasun eta oinazeren meneko.

Zientzia eta arte horiek guztiok hemen ukan zuten beren hastapena, eta ondotik hobetu eta gehitu ziren, bakoitza berari zegokion eskualde destenplatuan, hor bere asmamenari zegozkion argimen eta trebeziako gizonak jaiorik. Eta honela konkluditzen dut, irakurle jakinahi hori, neu ere eri eta destenplaturik nagoela zintzoki aitortuz (eta hi ere hala

egon haitekeela), halako eskualdean jaio bainintzen¹⁴; eta guri ere gerta dakiguke lau gizon haiei gertatu zitzaiena bera, oihala urdina zelarik, batak gorri zela zin egin baitzuen, besteak zuri, besteak hori eta besteak beltz, bakoitzak zuen gaitz bederagatik batek ere ongi asmatu ezinik.

I [1594]

Non deklaritzen baita argimena zerik den eta giza espeziearen baitan zenbat ezberdintasun kausitzen diren harenik

Platonek agindu zuen gisan (eta izkiriartzen eta irakasten duten guztiak hartara obligatzen ditu) doktrinaren hasieran gaia definitu beharra dago, zeinen natura, diferentzia eta propietateak jakin eta aditu nahi ditugun. Bide honetatik hura ikasteko duenari gustua ematen zaio, eta izkiriartzen duena ez da premia gabeko kontuetan desbideratzen, eta horrela ez ditu ukitu gabe uzten obrak behar duen bikaintasunaz ateratzeko premiazko dituen gaiak. Eta honen kausa hauxe da, definizioa hain emankor eta zaila denez gero, kasik ez da zientzian ez eta erabili behar den metodoan ere pauso eta kontenplaziorik batere aurkitzen hartan aipatua ez denik. Eta horregatik egia da ezin ari datekeela jakituriaren ezein generotan hemendik hasten ez bada.

Eta obra honen sujet¹ osoa gizonen argimena eta trebetasuna izanik, arrazoizkoa dateke, erranikoagatik, haren definizioa eta bere esentziarik zer daukan jakin dezagun; horrela behin hura komeni den bezala jakin eta endelegaturik, doktrina berri hau erakusteko egiazko bidea aurkitu dukegulako.

Eta izena, Platonek dioen bezala, est instrumentum docendi discernendique rerum substantias² denez gero, jakiteko da izen hori, argimena³, latinezko hiru hitz hauetatik heldu dela: gigno, ingigno, ingenero; eta, dirudienez, azken honetan du jatorri garbiagoa, hortik hartzen dituen letra eta silaba anitzengatik, eta haren erran-nahiaz geroago aipatuko dugunaren argitan.

Hori asmatu zuten lehenbizikoek horretarako ukan zuten arrazoiak ez zuen arina izan behar. Izan ere, berriki erideiten diren gauzen izenak haiek eskatzen duten kontsonantzia eta soinu onarekin asmatzen jakitea (Platonek dioenez) gizon heroiko eta estimu handikoei dagokie eta. Izen hau asmatzeko gertatu zen bezala, hori erideiteko beharrezkoa izan baitzen behakuntza aski delikatu eta filosofia naturalaz betea. Horretan arituz gizonaren baitan sortzeko bi ahalmen zirela aurkitu zuten: bata arrunta, basa animaliekin eta landareekin batera duena, eta bestea substantzia izpiritualen, Jainkoaren eta aingeruen partaide dena⁴. Lehenengoaz ez da tratatu behar, berez aski ageri eta nabaria baita; bigarrena da, ordea, zailtasunen bat duena, jende arruntak haren erditzeko eta sortzeko manerak hain ongi ez dakizkielako.

Baina filosofo naturalekin mintzatuz gero, horiek ongi dakite endelegua sortze ahalmena dela eta izor gelditzen eta erditzen eta seme-alabak eta ilobak ukaiten dituela, eta (Platonek dioenez) erditzera laguntzen dion emagina bat ere bai⁵. Zeren lehen sortze molde horretan animaliak edo landareak bere kumeari izate erreal eta substantifikoa⁶ ematen dion arauaz, sortze hori baino lehenago ez zeukana, era berean endeleguak bere barnean kume bat ekoitzi eta erditzeko bertute eta indar naturalak dauzka, filosofo naturalek notizia edo kontzeptua deitua, verbum mentis dena⁷. Eta endelegua sortzeko ahalmena dela eta haren ekoizpenari ume deitzea ez da, soilki, filosofo naturalengandik harturiko mintzaira eta doktrina hutsa; baina Eskritura Jainkozko Hitzaren sortzeaz mintzo delarik ere, aita eta seme hitz dermio berberak darabiltza, eta sortu eta erditzeaz: Nondum erant abyssi, et ego iam concepta eram... Et ante omnes colles, ego parturiebar⁸. Eta honela, egia da Aitaren endeleguaren emankortasunetik ukan zuela Jainkozko Hitzak bere sortze eternala: eructabit con meum verbum bonum⁹. Eta hark ez eze, baina Unibertsoak bere baitan daukan ikusizko eta ezin ikusizko oro ere ahalmen berak ekoitzi zuen; eta filosofo naturalek Jainkoak bere endeleguan zuen emankortasun

handia ikusi eta kontsideraturik, hari Genius deitu zioten, antonomasiaz sortzaile nagusia erran nahi duena.

Arima arrazionala eta gainerako substantzia izpiritualak ere, zientziari eta jakituriari doazkion kontzeptutan emankorrek direlako, jeinuak deitzen diren arren, halere horien endeleguak egiten dituen erdialdietan ez du hainbesteko bertute eta indarririk eta horregatik ezin eman diezaieke beregandik kanpoan izate erreal eta substantifikorik, Jainkoak egin zituen sortzeetan bezala. Horien emankortasunak akzidente bat¹⁰ besterik ez du ekoizten, hori ongi sortua denean jakin eta konprenitu nahi dugunaren figura eta erretratua besterik ez dena; ez Jainkoazko Hitzaren sortzea bezala, horrela sortua consubstantialis Patri irten eta erditu zituen gainerako gauzak kanpoan orain ikusten diegun izate erreal eta substantifikoa horniturik agertu baitziren. Baina gizonak bere endeleguak egiten dituen sortzeek, baldin gauza artifizialenak badira, ez dute ondotik ukan behar duten izatea eskuratzen, baina haiek fabrikatu behar direneko ideia hobezina ateratzeko, lehenik airean mila lerro¹¹ irudikatu behar dira eta anitz modelo presatu eta, azkenean, haien gainean eskuak ezarri, ukan behar dute izatea har dezaten, eta halere, gehienetan erraturik ateratzen dira. Gauza bera gertatzen da gizonak gauza naturalak berez diren bezala endelegatzeko egiten dituen gainerako sortzeekin ere; eta endeleguak haiez mamitzen duen imajina mirariz besterik ez da irteten gauzak duen bizitasunari lehen aldiz behatzen zaionean; eta figura bat bere originalean den bezain ongi pintatzeko, argimen infinituak elkartu behar dira eta anitz urte iragatea, eta guztiarekin ere mila ergelkeria mamitzen dira.

Doktrina hau jakintzat emanik, bada, tenorea da jakin dezagun gizonak ikasten dituzten arte eta zientziak argimenean beren oroimenaren barnean sortu zituzten imajina eta figura batzuk direla, eta horiek irudikatzen dutela bizi-bizitan gizonak ikasi nahi duen zientziaren sujetak¹² duen eraketa naturala: medikuntza Hippokratesen eta Galenoren endeleguan gizonaren egiazko eraketa naturalean kopiaetzen duen irudi bat besterik ez zen bezala, eritzeko eta sendatzeko kausak eta ongiezekin: eta jurisperizia beste figura bat da, zeinetan justiziaren egiazko forma irudikatua baita, horrekin giza polizia¹³ gorde eta gizonak bakean bizi daitezten. Horregatik, egiazkat hartu behar da ezen, baldin maisu on baten doktrina entzunez ikasten duenak, bere oroimenean figura bat, erraiten diotena bezalakoa eta hura bezain ona, ezin pinta baleza, dudarik gabe antzua dela eta ezin dela izor gelditu ez eta umerik egin ere, itxuragabekeriak eta munstroak ez badira.

Eta hau aski biz ingenium izenez den bezainbatean, ingenero hitz honetatik datorrena, eta norbere baitan figura oso eta egiazko bat sortzea erran nahi du, ikasten den zientziaren sujetaren natura bizitan irudikatzen duena.

Ciceronek argimena hau erranez definitu zuen: docilitas et memoria quae fere uno ingenii nomine appellantur¹⁴, eta hitz horietan segitu zuen herriko jendearen iritziak, zeinek aski duen bere seme-alabak disziplinagarri eta beste batzuek irakatsiak izateko eta endeleguak sorturiko figurak gordetzeko gaitasunaz hornituak ikustearekin. Hori dela eta erran zuen Aristotelesekin belarria eta oroimena elkartu beharra zegoela zientzietan probetxu handiagoa izateko¹⁵.

Baina, egiazki, definizio hau labur-laburra da eta ez du bere baitan biltzen dauden argimen-diferentzia guztiak; zeren docilitas hitz honek maisu behar duten argimenak ez beste biltzen baititu, eta kanpoan uzten, aldiz, emankortasun handiko beste anitz endelegu, objektua eta beren endelegu soila ukanik, beste inoren laguntzarik gabe, inoiz ikusi eta entzun gabeko mila kontzeptuz erditzen direnak: arteen asmatzaileak izan ziren haiek bezalakoa. Hortik landa, Ciceronek oroimena argimenaren kontuan sartzen du; argimenaz Galenok¹⁶ ez zuela inolako asmamenik erran zuen, hau da, ezin dezakeela bere baitatik deus sort; aitzitik, haren trinkotasun eta handitasuna da (Aristotelesekin

dioenez) endelegua antzua izateko eta ezin umedun gelditu eta erditu ezinean egoteko kausa. Beste ahalmenek sortu dituzten formak eta figurak gorde eta zainpean edukitzeko besterik ez du balio, oroimen handiko letra-gizonengan ageri denez, horiek erraiten eta izkiriartzen duten orok lehenago beste jabe bat ukan du eta.

Egia da, ordea, docilitas partikula hura ongi kontsideratuz gero, aurkituko dugula Ciceronek ongi erran zuela. Zeren zuhurtzia eta jakituria eta zientziek daukaten egia (Aristotelesek dioenez) gauza naturaletan ereinik baitago, eta horietan bilatu eta eriden behar da bere egiazko originalean bezala¹⁷. Proposamen bat egiazkoa dela Aristotelesek hala erran zuelako, beste arrazoirik bilatu gabe, pentsatzen duen filosofo naturalak ez du argimenerik. Egia ez baita bera baieztatzen duenaren ahoan, tratatzen den gauza baizik, eta hori oihuz ari da, eta eiagora egiten, gizonari irakasten dio Naturak eman zion izatea eta, zein helburutarako ordenatua izan zen, honen arauaz¹⁸: numquid sapientia non clamitat et prudentia dat vocem suam?¹⁹ Naturak bere obrekin zer diotson eta zer irakasten dion ohartzeko endeleguan otzantasuna eta entzumen ona duenak anitz ikasiko du gauza naturalei behatzean, eta ez duenak, aldiz, nork irakatsi beharko du, animaliek eta landareek oihuka zer diharduten kontsideraraz diezaion. Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius et disce prudentiam; quae cum non habeat ducem nec praeceptorem, praeparat in aestate²⁰, etab.

Platon ez zen era horretako otzantasunaz ohartu, eta ez zitzaion iruditu gizonari irakasteko beste maisurik egon zitekeenik katedraren gainean igonik dakuskigunez landa; eta honela erran zuen: agri vero et arbores nihil me docere possunt, sed homines qui in urbe versantur²¹. Are hobeki erran zuen Salomonek, bigarren otzantasun era hau ere bazela jakinik, bere herria gobernatzeko Jainkoari eskatu zionak: dabis ergo servo tuo cor docile, ut populum tuum iudicare possit et discernere inter bonum et malum²², eta hitz horiekin ez zuen endelegurako sua eta argitasuna besterik eskatu (eskatu zuena baino gehiago eman zioten arren), horrela, bere gobernazioari zihoazkion gauzen eta duden aitzinean jarririk, gauzaren izaeratik egin behar zuen egiazko judizioa atera zezan, haren bila liburuetara joan beharrik gabe; emagalduen lehen kasu hartan eman zuen epai hartan argiro agertu zen bezala, gauzaren izaerak egiazki erakutsi baitzion haurraren benetako amak ez zuela utziko hura erdibana zezaten.

Endelegu otzantasun eta argitasun molde berberau eman zien Kristok bere dizipuluei Eskritura adi zezaten, lehenik Naturaren eskuetatik atera zuten arrunkeria eta dorpezia kenduz, haren arauaz: aperuit illis sensum ut intelligerent Scripturas²³. Eta honela, Eliza katolikoak, otzantasun molde honek Eskritura ulertzeko duen munta ongi aditurik, ordenaturik eta manaturik dauka argimenerik gutxiko inolako gizonen, ez eta inolako zaharrek ere, teologia estudia dezan: Est enim lex, apud nos sanctissima, quae in eiusmodi disciplinis solum adolescentes, nec omnes sed ingeniosos exercet: grandioribus autem natu, ingenioque tardiori, studia haec interdicat. Perpaus bera erran zuen Platonek jainkozko zientziak ikasi behar zituzten argimenez ari zelarik: substantziak zentzuetatik hain urrun direnez gero, komeni zela haietarako argimenerik oso klaroak bilatzea; eta honela erran zuen: Nec solum quaerendi sunt homines generosi atque terribiles, sed qui, insuper, eas habeant naturae dotes quas disciplina divina exigit, acumen scilicet facilitatemque ingenii²⁴. Eta, bide batez, Soloni errieta eman zion, letra horiek han, zahartzaroan ikasi behar zirela erran zuelako.

Trebetasun berezi hau erdiesten dutenak, ukitzen dituzten zientzietan, atsedean handiz bizi dira; ez baitu haien endeleguak figurak eta espezieak gorde diezazkion oroimenerik behar, horiekin berriz ere gogoeta egiteko; aitzitik, gauza naturalek berek ematen dizkiete beroriei behatu nahi dieten aldioro; eta naturaz gainekoak direnez gero, zentzuetatik pasa gabeko espezie eta figurarik gabe ere, aditu egiten dituzte. Horregatik

Platonek honela erran zuen: *Rerum autem maximarum pretiosissimarumque nulla est imago quae manifeste ad hominum sensum captumque affecta sit; incorporea namque, cum maxima et pulcherrima sint, ratione sola, alio vero nullo, perspicue declarantur*²⁵. Eta horrela badio jainkozko zientzietarako are argimen handiagoak behar direla besteetarako baino, zentzuaz baliatzen ez direlako. Hori dela eta, egiazki, Aristotelesen erran famatu hark, nihil est in intellectu quin prius fuerit in sensu²⁶, ez du lekurik bigarren era honetako otzantasunean, lehenbizikoan baizik, haren trebetasuna ez baita hedatzen maisuak erran eta irakasten duena ikasi eta oroimenean atxikitzeaz baino urrunago.

Hortik klarki segitzen da zein gaizki obratzen den gure denboretan teologiarekin; Eliza katolikoak manatzen duen hautamena egin gabe, hura estudiatzera anitz sartzen baitira, Naturak aitzurrean eta goldaketan aritzeko ordenatueta rik.

Otzantasun mota bi hauei argimen berezi bana dagokie. Bataz Aristotelesek honela erran zuen: *bonum ingenium est illud quod bene dicenti obedit*; erran balu bezala: "argimen ona da ongi dioenari obeditzen diona"²⁷. Zeren hitzaldi eta arrazoi onak entzunik komentzitzen ez den gizona, eta proposatzen dioten figura bere oroimenean ezin era dezakeena, seinale baita endelegu antzukoa dela.

Egia da honetan badela gauza kontsideragarri bat; ikasle batzuek oso aise ikasten dutela maisuak diotsen eta irakasten dien guztia, eta dena oroimenean atxiki eta gorde egiten dutela, bat ere kontraesanik gabe; eta hori arrazoi hauetariko bategatik gerta daiteke:

Maisu hori halakoa eta Aristotelesek pintatu zuen bezain ona delako, honela erraiten: oportet sapientem non solum ea quae ex principiis sunt cognoscere, sed etiam circa principia ipsa verum dicere²⁸. Egia da honelako maisu honi obedituko lioketen dizipuluek argimen ona luketela; eta hori areago erazagutzen dute irakasten dien maisuagandik doktrina hori bera oinarriturik dagoeneko hastapenek eskatzen dituzten esaldi eta ondorioetan lotura eta kidetasuna egin gabe dantzutenean. Argimen ona bide zuzen honetatik eraman ezik, laster agertzen zaizkio mila oztopo eta argudio, halako maisuagandik dantzuenak ez baitio eskaintzen doktrinaren egiazko hastapenek eskatzen duten irudia eta egokitasun ona; eta horrela, endelegua beti ere urduri eta sosegurik gabe erabiltzen du irakasten dionaren erruagatik. Beste argimen batzuk trakets eta dorpe dira, eta argitsuak maisuari ezartzen dizkioten zailtasun eta argudioengatik handietsiak izaten direla ikusirik, (haiek imitatu nahiz) ikasgaitik atera eta beren irakasleari inpertinentzia handiekin traba egitera saiatzen dira, beren zailtasunaren arrazoirik eman gabe; eta bide horretatik lasterrago erakusten dute beren trebetasunik eza, ixilik baleude baino. Hauengatik erran zuen Platonek konfutatzeko²⁹ argimenik gabeak direla. Baina argimen zorrotz eta delikatua duenak ez dio maisuari deus sinetsi behar, ez eta harengandik fitsik onartu behar doktrinarekin bat ez datorrenik. Eta beste batzuk ixilik egon eta maisuari obeditu egiten diote haren kontra ezertxo ere erran gabe, haien endeleguak ez baitu sentitzen hark irakasten duenaren faltsutasuna eta atzeko hastapenekiko bateratasunik eza.

Argimenaren bigarren ezberdintasuna Aristotelesek hau erranez definitu zuen: optimum ingenium est illud quod omnia per se intelligit³⁰. Eta ezberdintasun horrek, jakin eta endelegatu behar dituen gauzekin, gorputzeko ikusmenak irudi eta koloreekin duen hein bera du³¹. Berau garbia eta oso delikatua baldin bada, gizonak begiak ireki bezain laster gauza bakoitza zer den erraiten du eta zein lekutan den asmatzen du eta batetik bestera dagoen aldea ere bai, inork abisurik eman gabe. Baina uherra eta hagitz laburra baldin bada, gauza txit argiak eta nabarmenak, bere aitzinean izanik ere, ezin antzeman ditzake beste batek erraiten ez badizkio. Gizon argitsuak, gogoetara ematen denean, hau da, endeleguaren begiak irekitzen dituenen, mintzaldi laburrez gauza naturalen izaera

aditzen du, haien ezberdintasunak eta propietateak, bai eta zein xedetarako ordenatu izan ziren ere. Baina trebetasun molde hau ez badauka, orduan maisuaren diligentzia erabili behar da, eta anitzengan hori ere ez da aski.

Argimen ezberdintasun hau ez du herriko jendeak onartzen, eta halakorik ezin izan daitekeela uste du. Eta ez dabil bidetik arras saihesturik; zeren Aristotelesek erran zuen bezala, *nemo est natura sapiens*; honela minzatu balitz bezala: "inor ez zen jaio ikasirik, eta ez dago gizonengan jakintza naturalik"³². Aitzitik, esperientziaz badakusagu letrak ikasten dituzten guztiak eta gaurdaino ikasi dituzten guztiek, irakasteko maisu eta irakasle bat behar ukan dutela. Prodikoa³³ Sokratesen maisua izan zen, eta azken honetaz Apolloren orakuluak munduko gizonik jakintsuena zela erran zuen; Sokratesek Platoni irakatsi zion, eta beronek, halako argimena ukanik, jainkozkoa izengoitia merezi ukan zuen; Platon Aristotelesen maisua izan zen, eta horretaz Ciceronek hauxe erran zuen: *Aristoteles longe omnibus praestans ingenio*³⁴; eta argimen ezberdintasun hau zenbaitzuegan aurkitzekotan, gizonezko argi hauengan kausitu beharra zegoen. Eta haietariko inork hura erditsi ez zuenez gero, Naturak halakorik ezin egin dezakeela argudia daiteke. Adam ez beste (teologoek diotenez) jaio omen zen ikasirik eta zientzia guztiak goitik harturik, eta bera izan zen bere ondokoei haiek irakatsi zizkiena. Horregatik egiazat daukate ezein ere jakituri generotan ez dela errankizun ez perpausik lehenago beste batek errana ez denik, harako haren arabera: *nihil dictum quod non sit dictum prius*³⁵.

Honi erantzuten zaio erranez Aristotelesek argimen hobezina definitzean hark izan behar zuen bezala definitu zuela, halakorik ezin aurki zitekeela ongi zekien arren; halaxe egin zuen Ciceronek ere hizlari hobezina pintatu zuenean, hura aurkiezina zela erranez, baina zenbat eta gizona pintura horretara hurbilago, hainbat eta hizlari hobezinago zatekeela³⁶. Gauza bera gertatzen da argimen ezberdintasun honetan, eta Aristotelesek irudikatu zuen bezain hobezin ezin erdiets badaiteke ere, anitz gizon jaio dira horren ondo-ondora heldu eta beren maisuei ez eta beste inori ere inoiz entzun ez zieten asmatzen eta erraiten dutenak; eta irakatsi zizkieten anitz gauzari faltsu iritzi eta horiek aditzen eta konfututzen jakin zuten; eta erakutsi zizkieten beste egiazko batzuk, haiek berenez eskuratu zituzten, beren trebetasunaren azkartasunera etorririk. Gutxienez, Galenok bere buruaz kontatzen du argimen ezberdintasun hau erdietsi zuela, erranez: *siquidem ipse ea per me ipsum omnia investigavi, ratione ipsa viam monstrante; quando si praeceptores secutus fuisset, multos errores fecissem*³⁷. Eta Naturak argimena hastapen, emendio, egoera eta jauskerarekin eman zien bezala, guztia bat-batean balemaie, Aristotelesek zioena gerta liteke; baina dena hain pixkanaka eman zenez, bai Platonek eta bai Aristotelesek maisu premia izan zuten, trebatzeko.

Argimenaren hirugarren ezberdintasuna ez da aitzinekotik oso urrun eta hura eskuratzen dutenek (arte eta ikasi beharrik gabe) hain gauza delikatuak, hain egiazkoak eta miresgarriak erraiten dituzte, non halakorik ez ziren sekula ikusi, ez entzun, ez izkiriatu, ez eta inoiz gizonen kontsideraziotan eduki ere. Platonek horri *ingenium excellens cum mania*³⁸ deritzo. Horrekin poetek halako errankizun eta perpaus jaso bikainak erraiten dituzte, eta (Platonek hala dio) jainkozko iradokizunaz ez bada ezin da hori eskuratu; eta, horretara, erran zuen: *res enim levis, volatilis atque sacra poeta est; nec canere prius potest quam Deo plenus et extra se positus et a mente alienatus sit; nam quamdiu mente quis valet, nec fingere carmina nec dare oracula quaquam potest; non arte igitur aliqua haec praeclara canunt quae tu de Homero refers, sed arte divina*³⁹.

Platonek gehitzen duen argimenaren hirugarren ezberdintasun hau egiazki gizonen baitan kausitzen da, eta neronek, bistako lekukotzat halaxe aitortzeko eta, behar izanez gero, zenbaitzuk erhiaz seinala ere bai. Baina haien erranak eta perpausak

jainkozko iradokizunak direla, eta ez beren izaera berezia, erraitea oker argi eta ageria da; eta ez doakio Platon bezalako filosofo nagusi bati kausa unibertsalera jotzea lehenago kausa bereziak diligentzia eta ardura handiz bilatzen ibili gabe.

Hobeki egin zuen hori Aristotelesek; izan ere, bere garaiko Sibylak hain gauza harrigarriak erraiteko arrazoiaren eta zergatiaren bila zebilela, hau erraitean: id non morbo nec divino spuraculo, sed naturali intemperie accidit⁴⁰. Honen arrazoa arras argi dago filosofia naturalean. Zeren gizona gobernatzen duten ahalmen guztietarik (naturalak, bizitzazkoak, animaliarrik eta arrazionalak) bat bederak bere obrak komeni bezala egiteko tenperamentu berezia eskatzen baitu, gainerakoei kalterik egin gabe⁴¹. Urdailean jakiak egosten dituen bertute naturalak beroa eskatzen du; nahia duenak, hoztasuna; atxikitzen duenak, lehortasuna; kanporatzen duenak, hezetasuna⁴². Ahalmen hauetarik lanean ari deneko kalitate horretatik gradu gehiago hartuko lituzkeena sendoago eta indartsuago egingen da halako punturaino, baina gainerakoek hori ordaindu beharko dute; izan ere, ezinezkoa dirudi lau bertuteak elkarrekin toki berean egonik, beroa eskatzen duena haztea eta aldi berean hoztasunaz ari dena ez flakatea; eta, horrela, Galenok erran zuenez, urdail beroak asko egosten du eta gutxi nahi du, eta hotzak, ordea, gaizki egosten eta anitz nahi.

Gauza bera gertatzen da animalia ahalmen diren zentzu eta mugimenduarekin ere. Gorputzaren indar handiak nerbio eta giharreetan lur ugari izateko marka dira, gogortasun eta lehortasunik gabe ezin baitezakete fermuki ihardun. Aitzitik, zentzu ona eta ukimen bizia ukaitea nerbioak airezko parteez, sotilez eta guztiz delikatuaz osaturik daudelako ezaugarria da, eta haren tenperamentua bero eta hezea delakoa. Izan ere, nola izan daiteke nerbio berak gorputzaren indarrek eskatzen dioten tenperamentua eta eraketa naturala igotea eta ukimenaren hobezintasuna ez aldatzea, biak aurkako kalitateak izanik? Hori argiki ageri da esperientziaz: gizon bat sendo eta indar handikoa denean, gero ukimenean dorpe izaten baita; eta ukimen bizi-bizia duenak, aldiz, hagitz ahula izaten da gorputzaren indarretan.

Kontu eta arrazoi bera dute ahalmen arrazionalak ere, oroimenak, irudimenak eta endeleguak. Oroimenak, ona eta fermua izateko (geroxeago frogatuko dugunez) hezetasuna behar du eta burmuina substantzia lodikoa izatea; aitzitik, endeleguak burmuina lehor eta atal sotil eta oso delikatuaz osatua nahi du. Beraz, oroimena puntuz igonez, endeleguak nahitaez jaitsi behar; eta ezpere, gogoeta begi irakurle jakinguratsuak eta abia bedi ikusi eta ezagutu dituen oroimen handiegiko gizonen artean eta han aurkituko du hainak, endeleguari dagozkion lanetan, ia haserrekorrak direla. Gauza bera gertatzen da irudimenean bere puntua goratzen denean: bere alorreko lanetan kontzeptu izugarriak sortarazten ditu, Platoni miretsarazi zioten haien gisakoak⁴³, eta gizona endeleguaz ihardun nahi duenean, aldiz, esteka dezakete.

Hortik klarki aditzen da giza jakituriak moderazio eta tenplantzaduna izan behar duela, eta ez horrenbeste ezberdintasunaz. Eta horrela, Galenok tenplatuak jotzen ditu gizon zuhur-zuhurtzat, zeren sapiunt ad sobrietatem⁴⁴. Demokrito Abderakoa bere garaian izan zen filosofo naturaletarik handienetako bat izan zen, Platonek hartaz erran arren naturalaz gehiago zekiela jainkozkoaz baino; eta hark zahartzaroan endeleguan hain gorakada handia ukanik, irudimena galdu zuen, eta horregatik neurritz kanpoko errankizunak eta perpausak egiten eta erraiten hasi zen, halako moldez non Abderako hiriko guztiek erotzat jo zuten. Hori erremediatzeko presaka mezulari bat bidali zuten Koi-ko uhartera, Hippokrates bizi zen lekura, erregu handiz eta anitz dohain eskainiz, otoi lehenbailehen Demokrito sendatzera etor zedila eskatuz, burua galdu baitzuen. Hippokratesek gogo onez egin zuen hori, gizon hori, zeinez hainbeste handitasun kontatzen zituzten, ikusteko eta harekin komunikatzeko irrikaz. Eta horretara, laster

partitu zen; eta hura bizi zen lekura heldurik, platano baten peko eremura alegia, harekin arrazoitzen hasi zen. Eta alde arrazionalen zeukan akatsa erideiteko galdera egokiak eginez, hura munduan atzeman zitekeen gizonik jakintsuena aurkitu zuen⁴⁵.

Eta, horrela, bera ekarri zutenei erran zien eroak eta okerrerratuak berak zirela, hain gizon zuhurraz halako iritzia zutelako. Eta Demokritoren zori on guztia honetan zetzan, Hippokratesekin denbora labur hartan arrazoitu zuen guztia endeleguaren solasak, eta ez irudimenarenak izatean, hor lesioa baitzuen.

II [1594]

Non deklaritzen diren zientzietarako gizon ezgaien ezberdintasunak

Gizonari hitzez egin diezaioketen laidorik handienetako bat, jadanik diskrezioaroan¹ delarik, argimen gabea deitzea da (Aristotelesek dioenez). Haren ohore eta noblezia guztia (Cicerok dioenez) argimena ukan eta eleder izatea delako: ut hominis decus est ingenium, sic ingenii lumen est eloquentia². Honexetan ez beste bereizten da basa animalien gandik, eta badu antzik Jainkoarekin, hori haren naturak erdiets zezakeen handitasunik gorenarekin³. Aitzitik, hasieran argimenik gabe abiatu zenak ezin ikas dezake ezin letra motarik; eta jakiturarik ez den lekuan (Platonek dioenez) ezin egon daiteke zorion ez eta ohore egiazkorik; baina Jakintsuak honela dio: stultus natus est in ignominiam suam⁴; halakoa basa animalien artean kontatu behar baita, eta haintzat eduki, gainerako ondasunetan, bai naturaletan zein fortunazkoetan, ederra, aitonen seme, aberats, ongi jaioa eta duintasunean errege edo enperadore izan arren.

Hau klarki aditzera ematen da lehenbiziko gizonak, hazi zen argimena galdu aitzin zuen egoera hain zorionsu eta ohorezko hura kontsideraturik, eta ondoan, jakiturarik gabe nola gelditu zen ikusirik: Homo cum in honore esset, non intellexit: comparatus est iumentis insipientibus, et similis factus est illis⁵. Eta ohartarazteko kontua da, ez zuela Eskriturak askietsi basa animaliei beste inolako izengoitia ezartzerik, ezjakinak baizik; beste pasarte batean sugearen eta inurriaren zuhurtzia eta jakintza goraiatuak zituela gogoan izanik, gisa horretakoekin, basak badira ere, ez baitu ikustekorik gizon argimen gabeak.

Halako hitza entzutean gizonak egiten duen laido hain handiari eta sentimenduari adi zegokiola, erran zuen jainkozko testuak: qui dixerit fratri suo raca, reus erit concilio; qui vero dixerit, fatue, reus erit gehennae ignis; erran balu bezala: "bere lagun hurkoari haserrez raka (argimenik gabeko gizona erran nahi duena) erran diezaiona batzarrerako gai izanen da, baina ergela erran diezaionak betiereko sua mereziko du"⁶. Obra hau, egia da, honaino epaitzeko eta batzarrerako gai izan da, eta hainbeste tribunaletatik aztertu eta galdeturik ibilia da, (beste anitz arrazoitatik landa) han hurkoari nolabait raka erran zaiolako, hor haserretik eta hura laidotzeko asmorik bat ere izan ez arren. Endelegu handia zuenari oroimena kendu zion; oroimen handikoari, endelegua; irudimen nabarikoari endelegua eta oroimena; predikari handiari eskolastikotasuna; eskolastiko handiari pulpituak; positiboari bere ahalmena oroimenari zegokiola erran zion (eta horregatik biziki mindu zen); abokatu handiari ezin jakin zezakeela gobernatzen; hau guztia, gehienik ere. Baina inori fatue erran ez dionez gero, ez da sutarako gai izan⁷.

Orain informaturik nago zenbaitzuek obra hau behin eta berriz irakurri dutela, beren argimenaren eta horrek probetxu gehien egiten zien letra motaren kapitulu bereziaren bila; eta hori eriden ez dutenean, liburu honen izenburuari faltsu kontrargudiatu diotela, eta autoreak alferrik prometatzen omen zuela ezin konpli zezakeena. Eta horri gutxi iritzirik beste anitz laido ere erran dituztela, neronek obra honetan argimena eta kapitulua eman behar banio bezala, Jainkoak eta Naturak kendu zionari.

Bi agindu, arras bidezko eta arrazionalak, ematen ditu Jakintsuak, eta kausa beragatik horiek betetzera behartzen gaitu. Lehena hau da: Non respondeas stulto iuxta stultitiam suam, ne efficiaris ei similis; erran balu bezala: "ez iezaiek ihardets ergelak eginen dizkian irainei, haren irudiko eginen haiz eta". Bigarrena: Responde stulto iuxta stultitiam suam, ne sibi sapiens esse videatur; "erantzun iezaioek ergelari haren ergeltasunaren arauz, burua jakintsutzat eduki ez dezan"⁸, eta ez hura iraintzearren, baizik eta errepublikarentzat gauza kaltegarriagorik ez delako jakintsu usteko ergela baino, eta areago aginte eta gobernurik bat ere baldin badu.

Eta ukitzen ari garen argimenen azterketa honi doakionez, egia da letrek eta jakituriek, gizon argitsua pentsatzera eta filosofatzera laguntzen duten adina, horrenbeste eta gehiago behaztopatzen dutela ergela: compedes in pedibus stulto doctrina, et quasi vincula manuum super manum dexteram⁹. Askoz ere hobeki egoten da gizon ezgauza letrarik gabe haiekin baino; jakitera behaturik ez dagoenez gero, gizonen artean pentsabide gutxirekin bizi daiteke eta. Eta artea eta letrak ergelak lotzeko oin-burdinak eta kateak izatea, eta ez errazpideak, gauza ezin ageriagoa da Unibertsitateetan ikasten ari direnengan, horien artean zenbait kausituko baitugu lehen urtean bigarreanean baino gehiago dakienik, eta bigarreanean hirugarreanean baino gehiago; eta gisa horretakoez erran ohi da lehen urtean doktoreak direla, bigarreanean lizentziatuak, hirugarreanean batxilerrak, eta laugarreanean ez dakitela deus. Eta hori da, Jakintsuak erran bezala, arteen arauak eta erregelak argimenez ez duenarentzat loturak eta kateak izatearen kausa¹⁰.

Beraz, anitz pertsona ezgauzak, zegokien argimen eta trebetasuna aurkitzeko asmoz, obra hau irakurri eta irakurriko dutela jakinik, iruditu zitzaidan (Jakintsuaren agindua betetzearren) on zela hemen gizonengan letretarako diren ezgauzatasun ezberdintasunak azaltzea, eta horiek zer nolako aieruz ezagut daitezkeen; beren argimen moduaren bila datozelarik, beren ezgauzatasunaren seinaleak argiro eriden ditzaten. Horrexegatik erran zuen Jakintsuak: responde stulto; zeren, letretatik alde eginik, menturaz beren argimeneari hobeki doakien bizimodua bilatuko dute, adi izanik ez dela munduan gizonik, denik arruntena bada ere, Naturak zerbaiteko trebetasunen bat eman ez dionik.

Beraz, puntura etorririk, jakin behar da iragan den kapituluan ezarri genituen hiru argimen ezberdintasunak beste hiru ezgauzatasuni dagozkiela. Gizon batzuek arima gorputzaren kalitate materialetan arras ehortzirik dute eta kausek¹¹ guztiz harturik, eta horregatik parte arrazionala alferrik galtzen dute, eta betiko gelditzen dira letrei eta jakituriari buruzko kontzeptuak sortu eta munduratzeko ahalmenik gabe. Hauen ezgauzatasuna zikiratuei dagokie erabat; izan ere, sortzeko instrumentuak falta dituztelako, gizon batzuk sortzeko inpotenteak diren bezalaxe, era berean badira zikiratu eta irenak, hotz eta akasduak, jakituri kontzepturen bat sortzeko indar eta bero naturalik gabeak. Era honetakoek ezin ditzakete ongi asma arte guztiek, diziplina horrekin hasi baino lehen, ikasten duenaren argimenean lehenagotik behar dituzten hastapen batzuk, eta horiez ez dago beste frogaz ere eta erakuspiderik ere, argimeneak berez eta gauza agerikotzat hartzea baizik; eta horien figura beren baitan ezin era badezakete, hori da zientzietarako aurki daitezkeen ergeltasun gorena, horiek irakatsi behar diren lekurako sarrera galarazten duelako. Horiei irakasteko, ez da burua hausten saiatu behar, ez baitira aski kolpeak, gaztiguak, oihuak, irakasteko artea, diziplina, exenpluak, esperientzia, ez eta beste nolana hiko iratzargailuak ere, haiek akorduan sartu eta sortarazten jartzeko. Horiek alde txikia dute basa animaliangandik eta beti lo daude, itzarri badakuskigu ere; eta Jakintsuak honela erran zuen: cum dormiente loquitur qui enarrat stulto sapientiam¹². Eta konparaketa oso fina eta aproposa da, loa eta ergelkeria,

bi-biak, hastapen beretik heldu direlako, burmuinaren hoztasun eta hezetasun handitik, alegia.

Bigarren ezgauzatasun moldea gizonengan aurkitzen da, ez lehenagokoa bezainbateko dorpezia, lehen hastapenen figura antzeman eta horietatik ondorio batzuk, gutxi eta lan handiarekin bada ere, ateratzen dituztelako; baina ez du figurak haien oroimenean luzaroago irauten maisuak hura pintatzen eta anitz exenpluz eta haien gogortasunari dagozkien irakasteko manerekin erraiten ari zaizkien denboraz baino. Ernaldu eta erditzen diren emakume batzuen irudikoak dira; baina, behin haurra jaio eta gero, hil egiten zaie. Hauetarikoek burmuin oso urtsua dute, eta horregatik figurek ez dute koipe ez eta gelditasun oliotsurik aurkitzen horri atxikitzeko. Eta horretara, halakoei irakastea ura saskiaz hartzea besterik ez da: *cor fatui tanquam vas confractum, et omnem satientiam non tenebit* ¹³.

Hirugarren ezgauzatasun-moldea komunzki letrak ikasten dituzten gizonengan kausitzen da, eta argimenetik zerbait hartzen du. Zeren bere barnean lehen hastapenen figura antzeman eta horietatik ondorio asko ateratzen baitu, eta horiei atxiki eta oroimenean gordetzen; baina gauza bakoitza bere jarlekuan eta tokian ezartzeko garaian, mila itxuragabekeria egiten ditu. Ernaldu eta burua zangoek izan behar duten lekuan eta begiak garondoan dituen haurra egiten duen emakumearen parekoa da. Hirugarren ezgauzatasun-molde honetan oroimenean figurekin anabasa eta nahasmendu oso handia egiten da, eta gizonak bere baitan sortu duena adierazi nahi duenean, mintzatzeko era infinituak ere ez ditu aski, darabiltzanak kontzeptu infinituak baitira, guztiak solte eta elkarren artean eduki behar duten loturarik gabeak. Hauei Eskoletan nahasiak erraiten zaie, eta burmuina ezberdina dute, bai substantzian eta bai temperamentuan ere: alde batetik mehea da eta bestetik lodia eta destenplatu; eta heterogeneoak direlako, une batez argimen- eta trebetasunezko gauzez mintzo dira, eta hurrengoan mila itxuragabekeria erraiten dituzte. Gisa honetakoez erran zen: *tanquam domus exterminata sic fatuo sapientia, et scientia insensati inenarrabilia verba*¹⁴.

Letra-gizonen artean beste laugarren ezgauzatasun-molde bat ere kontsideratu dut, eta ez nuke ongi eginen ezgauzatasun erranen banio, eta are gutxiago argimen. Horiek doktrina antzematen eta bera oroimenean finkorik atxikitzen dutela dakusadalako, eta figura, eduki behar dituen zatien egokitasunarekin, jartzen dutelako, behar denean oso ongi mintzatu eta obratuz; eta dakiten eta ulertzen dutenaren propter quid-a¹⁵ galdetuz, argi erakusten dute beren letrak ez direla doktrinak dauzkan hitzen eta errankizunen bilketa besterik, horrela zergatik eta nola den ulertu gabe. Aristotelesekin erran zuen bezala hainak sicut quaedam inanimantia: *faciunt quidem sed nescientia faciunt ea quae faciunt, ut ignis comburis; sed inanimata natura quadam gorum singula faciunt*. Erran balu bezala: "Badira gizon batzuk berezko senaz basanimaliak bezala mintzo direnak, eta dakitena eta aditzen dutena baino gehiago erraiten dute, agente inanimatuena antzera, hauek, sortarazten dituzten ondorioak endelegatu gabe ere, hagituz ongi obratzen baitute, suak erretzen duen bezala; eta gidatzen dituen kausa Natura da, eta horrela ezin egin dezakete okerrik"¹⁶.

Eta konpara litzake Aristotelesekin hainak basanimalia batzuekin, horiengan anitz obra diskrezioz eta zuhurtziaz eginik ikusi eta kontsideratzen ditugulako; eta Aristotelesekin egiten dutenaren jakintzarik inola ere ez dutela uste izanik, agente inanimatuengana iragan zen. Haren iritziz obratzen dutenak, ongi egiten badute ere, ez baitira jakintsu ez eta argimenik ukan ere, baldin ondorioa azken kausaraino eramaten ez badakite. Ezgauzatasun- edo argimen-molde hau arrunt ongi frogaturik geldi liteke baldin, neronek maiz ikusi eta ezagutu dudanez, haren jabea mindu gabe erhiarekin seinala ahal baneza.

I [1594.eko III.a]

Non exenplu baten bitartez frogatzen den ezen, mutilak estudiantu nahi duen zientziak eskatzen dituen argimena eta trebetasuna ez baldin baditu, soberan dela maisu onengandik entzutea, aitz liburu ukaitea eta haietan bizi osoan lanean aritzea

Ongi pentsatzen zuen Ciceronek¹, bere seme Marco, hautatua zuen letren genero hartan berak nahi zuen bezala gerta zedin, aski zuela Atenasera igortzea, hain ikastegi famatu eta munduak goraiatu hartara, eta maisutzat Kratipo ukaitea, garai haietako filosoforik handiena, eta hain hiri jendetsuan edukitzea, non, hara ailegatzen ziren jende ugarien etorreraz, nahitaez aitz exenplu eta kasu estrainio izanen baitziren, ikasten zituen letrei buruzko gauzak esperientziaz irakats ziezazkioten.

Baina diligentzia horiekin guztiekin eta, aita on baten gisan, egin zitzakeen beste anitzekin ere (hari liburuak erosiz eta bere imintzioko beste batzuk idatziz) historialariek kontatzen dutenez ergel handia gertatu zela, eledertasun urriarekin eta are filosofia gutxiagorekin. Gizonen artean maiz usatzen den kontua berau, hots, semeak aitaren jakituria handia ordaindu beharra.

Izan ere, Ciceronek seguraski pentsatu zukeen bere semeak Naturaren eskuetatik eledertasunak eta filosofiak eskatzen zituzten argimena eta trebetasuna atera ez arren ere, hain maisu onaren industriaz² eta Atenasko liburu eta exenplu ugariekin, mutilaren lan etengabearekin eta denbora emanaz haren endeleguaren faltak konponduko zirela. Baina azkenean badakusagu engainatu zela; baina ez zuen horrek harritu, horri buruz aitz exenplu ukan baitzituen, haren semeari ere gauza bera gerta zekiokela pentsarazten ziotenak. Eta horrela Ciceronek berak kontatzen du³ Xenokrates filosofia naturala eta morala ikasteko argimen oso latzekoa zela (Platonek hartaz ezproinak behar zituen ikasle bat zuela erran zuen), eta hain maisu onaren industriarekin eta Xenokratesen etengabeko lanarekin biziki filosofo handia atera zen. Gauza bera idazten du Kleantez ere, hain ergel eta arrazoi txarrekoa zelako, bere eskolan maisu batek ere onartu nahi ez zuenaz; eta mutila, horrekin ahalketurik eta laido harturik, letretan hainbeste lan egin zuen, non gero jakituriaren Herkules bigarrena erran baitzioten. Halako itxuragabe zirudien, halaber, Demostenesek eledertasunerako zuen argimenak, mutil kozkorra zelarik mintzatzen ez omen zekien eta; eta arte horretan artaz lan eginez eta maisu onei entzunik, munduko hizlaririk hoberena bilakatu zen. Bereziki, Ciceronek kontatzen duenez, ezin ebaki zezakeela erre letra, totelxko zelako, eta gero hagitz maina handiz heldu zen hura artikulatzera, lehenago bizio hura inoiz ukan ez balu bezala⁴. Hortixek sortu zen gizonak zientzietarako duen argimena datoka⁵ jolasean ari denaren antzekoa dela dioen atsotitza, hots, hasieran zoritxarrekoa baldin bada, taulatuan behin eta berriz artearekin jaurtikitzen saiatuz gero, hondarrean bere fortuna txarra ontzera heltzen dela.

Baina Ciceronek dakartzan exenplu hauetako bat ere ez da ene doktrinan ihardespen egokirik gabe. Zeren, geroago frogatuko dugunez, mutilengan inoiz halako gogortasuna izaten baita beste adin batean argimen handiagoa erakusten duena, haurtzaroan trebetasuna ukaitea baino; eta bestaldetik, goiz arazoitzen eta adituak izaten hastea gero gizon ergelak izateko aierua izaten da. Zeren Ciceronek lehen adinean argimenak erideiteko egiazko seinaleak erdietsi bazituen, aieru ontzat hartuko zukeen Demostenes mintzatzeko zakar eta motela izatea, eta Xenokratesek ikasten zuenean ezproinak behar ukaitea. Nik ez dizkiot maisu onari, arte eta lanari, argimenak, zakarrak zein trebeak, lantzeko bertute eta indarrak kentzen. Baina erran nahi dut ezen, baldin mutilak ikasi nahi duen arte haren agindu eta erregelez, eta ez bestelakoez, bere endelegua berez

ernaldurik ez badauka, alferrak izaten direla Ciceronek bere semearekin egin zituen diligentzia guztiak, eta beste edozein aitak berearekin egin litzakeenak ere bai.

Doktrina hau egiatzkoa dela erraz ulertuko dute Sokrates emagin baten semea zela (berak bere buruaz kontaktzen duenez) Platoni irakurri diotene⁶; eta haren amak (emagintzan maistra handia izanik ere) bere eskuetara etorri aurretik ernaldurik ez zegoen emakumea ezin erdieraz zezakeen bezala*, horrela berak ere, amaren lanbide bera erabiliz, ezin erdieraz ziezaiekeen zientziarik bere dizipuluei, berek berenez endelegua ernaldurik ez bazeukaten. Haren ustez, zientziak haietara egokituriko argimena zeuzkaten gizonek ez bestek zituzten natural bezala, eta horiexengan gertatzen zela esperientziaz dakusaguna, hots, lehenago zekitenaz ahantzi direnen pertsonengan, hots, hitz bat aipatu hutsarekin, hartarik gainerako guztia ateratzen dutela^{7**}.

Ez dute maisuek beren dizipuluekin beste lanbiderik (nik endelegatzen dudanez) doktrina aipatzea besterik; ezen argimen ernea baldin badute, hori egin hutsarekin kontzeptu miressgarriak erdiarazten baitizkiete, eta bestela, beren buruak tormentatzen dituzte eta berei irakasten dietenak ere bai, eta ez dute inoiz lortzen erdietsi gogo zutena***. Nik bederen, maisu banintz, neure eskolan ezein dizipulu onartu aitzin, harekin anitz proba eta esperientzia eginen nituzke, dukeen argimena erideiteko; eta neronen arloko zientziarako natura ona duela aurki baneza, gogo onez errezibi nezake, irakasten duenak bozkario handia hartzen baitu trebetasun oneko gizona heztean; eta, bestela, bere argimenari ongien lihoakiokeen zientzia ikasteko kontseilatuko nuke. Baina inolako letra generotarako gaitasun eta ahalmenik ez zuela ikusiz gero, maitasunaz eta ele bigunez honela erranen nioke: "Anaia neurea, hautatu duzun bidetik ez duzu probetxuzko gizona izateko manerarik: zure bizitzarren, ez dezazula hor denbora gal ez eta lana ere, eta bila ezazu beste bizimodu bat, letrek bezainbateko trebetasunik behar ez duena".

Eta esperientzia hain dator horrekin bat, ezen badakusagu zernahi zientziaren irakaskuntzan dizipulu kopuru handia sartzen dela (bai maisua arras ona eta bai hagitz kaxkarra denean) eta egunaren buruan batzuk jakintza handiarekin ateratzen direla eta beste batzuk erdikoarekin, beste batzuek ikastaro osoan denbora galdu, beren ondasunak gastatu eta burua inolako probetxurik gabe hautsi besterik egiten ez dutelarik. Ez dakit nik ondorio hau nondik sor daitekeen, guztiek maisu bera eta diligentzia eta arta berarekin entzunik, eta benturaz zakarrek trebeek baino gehiago lan eginez. Eta zailtasun hau are handiagoa da ikusirik ezen zientzia batean zakar direnek beste batean trebetasun handia dutela, eta letra genero batean hagitz argitsu direnek, behin beste batzuetara iraganik, ezin ditzaketela haiek uler.

Nerau bederen egia honen lekuko ona naiz. Zeren hiru lagun sartu ginen elkarrekin latin ikastera, eta batak hura txit errazki ikasi zuen, eta gainerakoek ez zuten inoiz perpaus dotore bat osatzerik ukan. Baina, hirurak dialektikara iraganik, gramatika ezin ikas zezaketenetako bat arte horietan goi mailako arrano gertatu zen, eta beste biek ez zuten ikastaro osan hitzik ere erran. Eta hirurok astrologia entzutera etorririk, kontsideratzekoa izan zen ez latin ez dialektika ikasterik ez zuenak handik egun gutxitara irakasten zigun maisuak berak baino gehiago jakin zuela, gainerako oi hura buruan inoiz ezin sartu zitzaigun artean⁸. Eta harrez gero, espantuz, hartaz gogoeta egiten eta filosofatzen hasi nintzen, eta neure kontutik aurkitu nuen zientzia bakoitzak bere argimen berezi eta bedera eskatzen zuela, eta hark, behin handik ateraz gero, ez zuela deus balio gainerako letretarako. Eta hau egia baldin bada, den bezala, eta horren froga geroago emanen dugu, oi, nor sar liteke gaur egun gure denboretako eskoletan argimenen zernolakoak aztertzer! Zenbati ez ote litzioke zientziak aldatuko eta zenbat ez ote litzuke baserrira egotziko, ergel eta jakiteko ezindutzat harturik! Eta fortuna urria

izanik, arte arruntetan zokoraturik daudenetarik zenbat ez ote lituzke egokiaraziko, Naturak haien argimenak letretarako besterik sortu ez zituelako! Baina, hori ezin egin ez erremedia daitekeenez, ez dago etsitzea besterik.

Erran berri dudan hau, behinik behin, ezin uka daiteke, hots, badirela zientzia baterako argimen bereziak, horiek beste baterako desegokiak izanik ere. Eta, beraz, mutila estudiatzen hasi baino lehen, komeni da bere argimen-moldea erakustea, eta ikustea zientzietatik bere trebetasunarekin ongi zein heldu zaion, eta huraxe ikastaraztea. Baina, aldi berean, kontsideratu behar da ez dela aski erranikoa horrela letratu porrokatua gerta dadin; aitzitik, beste kondizio batzuk ere eduki behar ditu, horretarako trebetasuna ukaitea bezain premiazkoak. Eta horrela, Hippokratesek dioenez⁹, gizonaren argimenak zientziarekin duen heina lurrak haziarekin duena bera da; hau, berez, emankor eta bihitsu izan arren, halere, hura laboratu behar da, horrela, berezko egokitasun handiena zein hazi generotarako duen ikusteko. Ez baitu nolana hiko lurrak zein-nahi hazirekin ogirik ematen: batzuek garia hobeki ematen dute garagarra baino, eta beste batzuek, aldiz, garagarra hobesten garia baino, eta garitan ere, badira galbera oparo ugaltzen duten lurrak, eta, halere, zahigaria ezin jasan dezaketenak. Baina nekazari ona ez da bereizkuntza hau egite soilarekin asebetetzen; aitzitik, lurra aro onean goldatu eta gero, ereiteko sasoi egokiaren zain egoten da, ez baitago hori zernahi urtarotan egiterik; eta behin ogia erne eta gero, hura garbitu eta jorratzen du, gero haz dadin eta hazi horretatik espero den fruitua eman dezan. Horrela bada, gizonari hobekienik doakion zientzia zein den jakin ondoan, komeni da hori lehen adinean ikasten hastea, hori (Aristotelesekin dioenez)¹⁰ guztietatik ikasteko aproposena delako. Gainera, gizonaren bizia oso laburra da eta arteak luze eta astitsu; hargatik horiek jakiteko denbora nahikoa behar da, eta horietan aritzeko denbora ere bai¹¹, eta horiekin errepublikari probetxu egiteko.

Mutikoen oroimena, Aristotelesekin dioenez¹², hutsik dago, pinturarik bat ere gabe, duela gutxi jaio direlako, eta horrela zernahi errazki errezibitzen dute; eta ez gizon nagusien oroimenaren antzera, beren biziaren ibilbide luzean ikusi dituzten gauza ugarietz beterik, barnean gehiago sartzeko lekurik gabe. Eta honegatik erran zuen Platonek¹³ haurren aitzinean beti ere alegia eta bertute-egintzetara bultzatzen duten istorio onestuak kontatu behar ditugula, adin horretan ikasirikoa inoiz ahanzten ez zaielako. Eta ez Galenok erran zuenez: "Arteak orduantxe ikasi behar dira, gure naturak erdiets ditzakeen indar guztiak dauzkanean"¹⁴. Baina ez du arrazoirik ondokoa bereizten ez bada: latina edo beste zein-nahi hizkuntza ikasi behar duenak hori haurtzaroan egin behar du, zeren gorputza gogortu eta ukan behar duen hobezintasuna lortu arte igurikitzen bada, ez baitu behin ere eskuratuko.

Bigarren adinean¹⁵, nerabezaroan alegia, arrazoitzeko artean lan egin behar da, jadanik endelegua agertzen hasten delako, eta horrek dialektikarekin duen heina mando hezigabe baten lau zangoetan ezarri ohi ditugun trabek dutena bera da, haiekin zenbait egunez ibiliz gero, ibileran nolabaiteko grazia hartzen baitu; halaber, gure endeleguak ere, dialektikaren erregela eta arauekin trabaturik, zientzia eta eztabaidetan gogoeta egiteko eta arrazoitzeko manera arras graziosa erdiesten du¹⁶.

Behin gaztaroa heldu eta gero, endeleguari dagozkion gainerako zientzia guztiak ikas daitezke, jadanik ongi agertua delako. Egia da Aristotelesekin hortik filosofia naturala salbuesten duela, mutila letra genero honetarako ez dagoela prest erranez, eta badirudi hor arrazoia duela, zientzia horrek beste edozeinek baino kontsiderazio eta zuhurtzia handiagoa eskatzen duelako.

Zientziak zein adinetan ikasi behar diren jakin eta gero, komeni da horietarako gisako tokia, letrak besterik tratatzen ez den toki bat, hala nola Unibertsitateak. Baina mutilak bere aitaren etxetik jalgi behar du, zeren amaren, anaia-arreben, ahaideen eta bere

lanbidekoak ez diren adiskideen erregalia ikasteko oztopo handia baita. Hau argi ageri da Unibertsitateak dituzten hirietako estudianteengan; ezen horietako inor ez baita letratu ateratzen, mirari handiz ez bada. Eta hori aise erremedia daiteke Unibertsitateak trukatur: Salamanca hirian jaioak Alcalá de Henaresko hirira, eta Alcalakoak Salamancara ikastera joanez gero.

Gizona, adoretu eta jakintsua izateko¹⁷ bere jatorrizko sorlekutik jalgitzea delako hau hain da munta handikoa, ezen ez da munduan maisu bat horrenbeste irakats diezaiokeenik, bereziki maiz bere sorterriko fabore eta erregaliarik gabe aurkitzen bada. "Ilki zaitez zeure herritik, (erran zion Jainkoak Abrahami) eta zure ahaidegotik, eta zeure aitaren etxetik, eta zatoz nik erakutsiko dizudan herrialdera; han handietsiko dut zure izena eta neure bedeinkazioa emanen dizut"¹⁸. Hauxe bera diotse Jainkoak adorea eta jakituria ukan nahi duten gizon guztiei; zeren, beren sorlekuan bedeinka ditzakeen arren, alabaina nahi du gizonak Berak manatu zuen moldeaz ari izan daitezen, eta zuhurtzia dohainik etor ez dakien. Hau guztia aditzen da gizonak argimen ona eta trebetasuna ukanez gero, ezpere, Erromara basa doana, handik basa itzuli ohi da: probetxu gutxi egingen dio zakarrari Salamancara ikastera joateak, ez baita han endelegu-katedrari ez zuhurtziarenik, ez eta hori irakats dezakeen gizonik ere¹⁹.

Hirugarren diligentzia, irakastean argitasuna eta metodoa dituen maisua bilatzea da, doktrina ona duena, sofistika²⁰ eta kontsiderazio hutsalik gabe. Zeren, ikasten ari den artean, dizipuluak egiten duen guztia maisuak proposatzen dion guztia sinestea baita, faltsua egiazkotik bahatzeko eta apartatzeko bereizmenik ez eta judizio osorik ez duelako. Baina hau ustegabeko kasua da, ikasleen hautamenean ez dagoena, garaiz estudiantzera etortzea alegia, Unibertsitateek maisu onak edo txarrak baitauzkate. Galenok aipatzen dituen mediku batzuei gertatu zitzairen bezala, zeintzuei, anitz esperientziaz eta ordurarte zerabilten praktika erratua eta gizonen osasunen kalterakoa zela arrazoiz komentatu ondoan, begietatik malkoak jalgi zitzaizkien, eta Galenoren beraren aitzinean hasi ziren beren patua madarikatzen eta ikasten aritu zirenean maisu zitzilekin topo egitean ukan zuten dohakaitza²¹.

Egia da zorioneko dizipulu batzuek, beren argimenarekin, maisuaren kondizioak eta dakarren doktrina berehala aditzen dituztela; eta hori txarra bada hari konfututzen dakitela, ongi dioena onartuz. Honelakoek urtearen buruan maisuari gehiago irakasten diote, maisuak haiei baino; zeren, dudatuz eta galdera zorrotza eginez, hainbat gauza delikatu jakinarazten eta erantzunarazten baitizkiote, lehenago inoiz jakin ez zituenak, eta jakin ere egingen ez lituzkeenak baldin eta dizipuluak, bere zorioneko argimenarekin, iradoki ez balizkio. Baina hau egin dezaketenak bat edo, gehienik ere, bi besterik ez dira; eta ezteusak infinituak dira. Eta horrela, on da (zientzietarako argimenen azterketa eta aukera hau egiten ez denez gero) Unibertsitateek beti ere doktrina sana eta argimen garbia duten maisu onak hartzea, ezjakinek errakuntzarik ez proposamen faltsurik irakats ez dezaten.

Egin behar den laugarren diligentzia zientzia ordenaz estudiantzea da, haren hastapenetatik hasirik, bitartekoetatik helbururaino igonez, lehenago beste bat auresuposa dezakeen gairik entzun gabe. Horregatik beti errakuntza iruditu zait zenbait gairi buruzko ikasgaiak entzun eta etxean guztiak batera pasatzea: bide honetatik endeleguan gauzak nahaspilatu egiten dira, eta gero, praktikan, bat bederak ez daki bere artearen manuez baliatzen ez eta haien leku egokian ezartzen ere. Askoz hobea izaten da gai bakoitza berez eta bere osieran duen ordena naturalarekin lantzea; zeren, nola ikasten den, halaxe baratzen baita oroimenean²². Hau egitea are gehiago komeni zaie beren izaera propioagatik argimen nahasia dutenei; eta erraz erremedia daiteke gai bakar bat entzunez eta, behin hura bukatu eta gero, hari darraionean sartu, arte osoa konplitu

arte. Eta gaiak ordena eta kontzertuaz estudiantzeak zer nolako munta zuen endelegaturik, Galenok liburu bat²³ izkiriatu zuen bere obrak irakurtzeko gorde behar zen moldea irakasteko, medikua nahas ez zedin. Beste batzuek gehitzen dute ezen, estudianteak, ikasten ari den artean, ez duela ukan behar doktrina garbiki daukan liburu bat besterik, eta horretan estudiantu behar duela, endreda eta nahas ez dadin; eta arrazoi arras handia dute.

Gizona hagitz letratu handia egiten duen azken puntua letretan denbora luzea ematea da eta zientzia egosi eta erro sakonak atera arte igurikatzea. Zeren gorputza egun bakarrean anitz jan eta edanez mantentzen ez den bezala, baizik eta urdailean egosi eta eraldatzen denetik, era berean, denbora laburrean anitz irakurtzearekin ez da gure endelegua gizentzen, baizik eta pixkanaka konprenituz eta hausnartuz doanarekin. Egunez egun gure argimena hobeki antolatuz doa eta, denboraren buruan, lehenago ezin erdietsi ez jakin zituen gauzetan jausten da. Endeleguak bere hasiera, gehipena, egoera eta beherapena dauka, gizonak eta gainerako animaliek eta landareek bezala. Hura nerabezaroa hasi, gehitu gaztaroan egiten da, egoera heldutasunean du eta beheratzen zahartzaroan hasten da. Beraz, bere endeleguak erdiets ditzakeen indar guztiak noiz daukan jakin nahi lukeenak, beki hori hogeita hamahirutik berrogeita hamarrerarte dela, gutxi gora-behera²⁴. Eta denbora horretan sinetsi behar dira autore gorenak, baldin eta beren bizian zehar elkarren aurkako iritziak ukan badituzte²⁵. Eta liburuak izkiriatu nahi dituenak adin honexetan egin behar ditu, eta ez lehenago ez geroago, iritzia aldatu edo mudatu nahi ez badu.

Baina gizonen adinek ez dute guztiengan kontu eta arrazoi bera ukaiten²⁶. Zeren batzuei haurtzaroa hamabi urterekin bukatzen baitzaie, beste batzuei hamalaureraino, beste batzuei hamaseirekin eta beste zenbaitzuei hamazortzirekin. Hauek adin hagitz luzeak ukaiten dituzte, gaztaroa berrogei urte baino pixka bat lehentxoagoraino heltzen baitzaie, helduaroa hirurogeiraino, eta zahartzaroa beste hogeitaretan ukaiten dutelako, hauxe izanik oso ahalmen handikoen azken muga. Lehenbizikoak, haurtzaroa hamabi urterekin agortzen zaienak, bizi hagitz laburrekoak izaten dira; goiz hasten dira arrazoitzen eta bizarra hazten, eta argimenak gutxi irauten die, eta hogeita hamabost urterekin behehitzen hasten dira, eta berrogeita zortzigarrenean bizia bukatzen zaie.

Erran ditudan kondizio guztietatik, guzti-guztiak dira arras beharrezkoak, baliagarriak eta probetxuzkoak mutila jakintzara hel dadin. Baina kasu honi gehienik doakiena hau da, ikasi nahi den zientziarekiko natura on eta egokia ukaitea, zeren, badakusagu ezen horrekin anitz gizon hasi zirela ikasten behin beren gaztaroa iragan eta gero, eta maisu zirtzilengandik entzun zutela, ordena txarrarekin eta nor bere herrian, eta guztiarekin ere handik laster oso letratu handi bilakatu zirela; eta argimena falta bada, Hippokratesek dioenez, gainerako guztia diligentzia galduak dira²⁷.

Baina hori Marco Ciceronek aipatu zuen hobekienik, zeren hark bere semea hain ergel, eta hura jakintsu egiteko bilatu zituen bitarteko guztiek inolako probetxurik ez ziotela egin ikusirik, honela erran baitzuen: nam quid est aliud gigantum more bellare cum diis, nisi naturae repugnare? Erran balu bezala: "zerk du eite handiagorik erraldoiek jainkoekin zerabilten borrokarekin, argimena falta duen gizona estudiantzen hasteak baino?"²⁸ Zeren erraldoiek jainkoak behin ere garaitzerik ez zuten bezala, haiek horien pean bentzuturik geldituz, era berean bere natura txarra garaitu nahi duen zein-nahi estudiante ere hark bentzuturik geldituko da. Eta, beraz, Ciceronek berak kontseilatzen gaitu naturaren aurka tiraka ez iharduteko, eta ez gaitezela saia hizlari izaten hark horretarako biderik ematen ez badigu, alferlana egingen dugulako.

II [1594.eko IV.a]

Non deklaritzen den Natura dela mutila ikasteko trebe egiten duena

Errankizun hau hagitz komuna da eta antzinako filosofoek erabilia, eta honela dio: "Natura da gizona ikasteko trebe egiten duena, eta arteak bere aginduekin hori errazten dio, eta gauza partikularretan duen usuarioak eta esperientziak obratzeko boteretsu egiten du"¹. Baina inork ez du bereziki erran Natura hau zerik den, ez eta zer nolako kausa generotan ezarri behar den: aipatu zuten bakarra hauxe zen, ikasten ari denarengan hura falta izanez gero, alferrik direla artea, esperientzia, maisuak, liburuak eta lana^{2*}.

Jende arruntak**, argimen eta trebetasun handiko gizona dakusanean, laster seinalatzen du Jainkoa autoretzat eta ez du beste ezein ere kausaz ardurarik ukaiten; aitzitik, alferreko irudimen deritzo hemendik urruntzen den orori. Baina filosofo naturalak mintzamolde honetaz burlatzen dira; zeren, berez piadoso bada ere eta beren baitan erlijio eta egiarik daukan arren, Jainkoak gauza naturaletan sortu zituen egunean ezarri zituen ordena eta kontzertua ez jakitetik jaioa baita³; eta haien ezjakintasuna segurtasunaz babestu eta inork erantzute egin eta aurka erran ez diezaien, guztia Jainkoak nahi bezala dela erraiten dute, eta ez dela gauzarik bat ere gertatzen haren jainkozko borondateatik sortua ez denik. Eta hau hain egia handia izanik ere, erantzutez ihardestea merezi dute⁴; zeren, Aristotelesek dioen bezala, zernahi galdera egin behar ez den bezala, era berean, egia izanik ere, ez baita nolana hiko erantzunik eman behar⁵.

Filosofo natural bat gramatikari batekin eztabaidan ari zelarik, haiengana, jakinminez, baratzain bat heldu eta galde egin zien ea zein izan zitekeen lurrari hainbeste erregalia^a egin arren, hura zulatu, goldatu, simaurrez hornitu eta ureztatuz, horregatik ere hark hartan ereiten zuen barazkia inoiz gogo onez ez eramateko kausa, eta berak berez ematen zituen belarrak, aldiz, hain errazki hazteko. Gramatikariak ihardetsi zion ondorio hura Jainkozko Probidentziatik sortzen zela, eta horrela ordenaturik zegoela munduaren gobernu onerako. Eta filosofo naturalak irri egin zion erantzuerara horri, kausa naturalen ibilbidearen berri eta haien ondorioak^b nola sortzen zituzten ez zekienez gero, Jainkoaren baitan aterpe hartzen zuelako. Gramatikariak, barrezka ikusirik, galdetu zion ea bere lepotik burlatzen ote zen, edo irri zeri egiten zion. Filosofoak erran zion ez zela hartaz burlatzen, hain gaizki irakatsi zion maisuaz baizik. Zeren Jainkozko Probidentziatik sortzen diren gauzen ezaguera eta soluzioa (naturaz gaindiko obrena kasu) metafisikariei dagokiela, orain teologo deritzenei; baina baratzainaren galdera, ordea, naturala da eta, beraz, filosofo naturalen hesparrukoa, horretarako kausa ordenatu eta agerikoak baitira, horietatik halako ondorioa sor dadin⁶. Eta horretara, filosofo naturalak ihardetsi zion erranez lurak nolabaiteko amordearen izaera duela, berak eginiko seme-alabak hagitz ongi mantendu eta senarrarenei alimentua kenduz; eta horrela badakusagu berarenak gizen eta ederrik daudela, eta bestearenak, aldiz, argal eta kolorge. Lurrak berez ematen dituen belarrak bere erraieratik sortuak ditu, eta baratzainak indarrez eramanez dizkionak, aldiz, beste ama batenak dira, eta horregatik hazteko beharko zuten bertutea eta alimentua kentzen die, berak sortaraziriko belarrei emateko.

Halaber kontatzen du Hippokratesek⁷ ezen, Demokrito filosofo handi hura bisitatzera zihoalarik, jende arruntak Medikuntzaz erraiten zituen erokeriak kontatu zizkiola; eta hortaz, beren buruak eritasunetik libre ikusirik, Jainkoak sendatu zituela erraiten zuten, eta Hark nahi ez balu, probetxu gutxi eginen zukeela medikuaren industriak***. Mintzamolde hori hain zaharra da eta filosofoek hainbeste aldiz eztabaidatu dutenez gero, alferrik da hura kentzera saiatzea; eta komeni ere ez da, zeren jende arruntak, zernahi ondorioren kausa partikularrak ez dakizkienak, hobeki ihardesten baitu kausa unibertsalarekin (Jainkoarekin alegia), zentzugabekeriaren batekin baino.

Baina nerau anitz alditan kontsideratzen aritu naiz zein izan daitekeen arrazoia eta kausa, hortik jende arruntak hain gogo handia ukan dezan gauza guztiak Jainkoari

egozteko, Naturari kentzeko eta bide naturalak gaitzesteko. Eta ez dakit bete-betean asmatu ote dudan. Gutxienez, ongi ageri da, jende arruntek Jainkoari zuzenki zeintzuk ondorio egotzi behar zaizkion eta zeintzuk Naturari ez jakiteak hala mintzarazten dituela. Hortik kanpo ere, gizonak, gehienbat, pazientzia gutxikoak dira eta beren nahia berehala betetzeko gogo handia ukaiten dute; eta bitarteko naturalak hain zabalak izan eta denbora luzean obratzen dutenez gero, ez dute pazientziarik ukaiten haiei igurikitzeke; eta Jainkoa guztiahalduna dela eta nahi duena une batez egiten duela dakitenez, eta gisa horretako anitz esenplu dituztenez gero, nahi lukete hark osasuna eman liezen elbarrituari bezala, eta jakituria Salomoni bezala, eta aberastasunak Job-i bezala, eta beren etsaietatik libra litzan, David libratu zuen bezala.

Bigarren kausa gizonak harro eta hantuste hutsalekoak izatean datza, eta haietako anitzek beren bularraren barnean nahi dute Jainkoak berei halako fabore bereziren bat egitea, eta hori ez dadila izan ohiko bidez heldua (zintzoen eta gaiztoen gainean eguzkia jalgiaraztea eta, oro har, guztientzat euri eragitea bezala), zeren zenbat eta gutxiagorekin egiten diren, are estimatuagoak izaten baitira faboreak. Eta honen kariatz ikusi ditugu sainduteki eta debozio-lekuetan anitz gizon mirakulu-itxurak egiten; zeren ondoren jendeak haiengana heldu eta benerezio handitan edukitzen baitituzte, Jainkoak partikulari kontutan ukan dituen pertsonen gisan; eta baldin pobreak badira, anitz erremusinarekin laguntzen dituzte, eta horrela batzuk interesean mugitzen dira.

Hirugarren arrazoa gizonak alferkerian egoteko zale izatea da; eta kausa naturalek berez duten ordena eta kontzertuaren arabera, haien eraginak erdiesteko, lan egin beharra. Eta, beraz, nahi lukete Jainkoak haiekin bere guztiahalmena erabil lezan eta izerdirik gabe haien nahiak bete litezen. Alde batera uzten dut Jainkoari mirakuluak eskatzen dizkiotenen malizia, haren guztiahalmena tentatu eta ea egin ote ditzakeen frogatzeko; eta beste batzuk ere, beren bihotza mendekatzeko, zerutiko sua eta krudeltasun handiko beste gatzigu batzuk eskatzen dituztenak.

Azken kausa jende anitz erlijiosoa eta Jainkoa ohoratu eta handietsia izateko zalea izatea da, eta hori hagitzez ere gehiago lortzen da mirakuluekin ondorio naturalekin baino. Baina gizon arruntek ez dakite Jainkoak naturaz gairik eta miragarritzko obrak egiten dituela, hori ez dakitenei bera guztiahalduna dela erakusteko, eta haiez usatzen dela bere doktrina frogatzeko argudiotzat, eta, horren premiarik ez denean, ez dituela behin ere egiten. Hau ongi entelega daiteke Jainkoak Testamentu berri eta zaharreko gauza estrainio haiek honez gero ez dituela obratzen kontsideratzen badugu; eta horren arrazoa hau da, gizonak ezjakinak direlako aitzakia atera ez dezaten, Bere aldetik, komeni ziren diligentzia guztiak jadanik eginak izatea⁸. Eta berriz ere argudio berak egitera itzuli eta beste mirakulu batzuekin, hilak biztuz, itsuei ikustea emanez, mainguak eta elbarrituak sendatuz, bere doktrina frogatzera etorri behar duela uste izatea, errakuntza handia da; zeren gizonak komeni zaiena behingoz irakasten baitu Jainkoak, eta mirakuluekin frogatzen, eta berriz errepikatzen ibili gabe: *semel loquitur Deus, et secundo id ipsum non repetit* ⁹.

Gizon batek filosofia naturalerako argimen egokirik ez ote duen erideiteko neronek gehienik darabildan aierua, hura gauza guztiak, inolako bereizketarik gabe, mirakulutzat jotzeko zale ote den ikustea da; eta, aitzitik, ez da zer duda ondorioaren kausa partikularra jakin arte askiasten ez dutenen argimen onaz. Horiek ongi dakite ondorio batzuk berehala Jainkoarengana bildu behar direla, erran nahi baita mirakuluak, eta beste batzuk Naturarengana, hots, sortzen diren lekutik kausa ordenatuak dituztenak; baina era batera eta bestera mintzatuz, beti ere Jainkoa autore ezartzen dugu. Izan ere, Aristotelesek hau erran zuenean¹⁰, *Deus et natura nihil faciunt frustra*, ez zuen horregatik endelegatu Natura Jainkoagandik kanpoko jurisdikzioa zuen kausa

unibertsalen bat zenik¹¹; aitzitik, Jainkoak munduaren antolakuntzan ezarririk dauzkan ordena eta kontzertuaren izena da, haren kontserbaziorako behar diren ondorioak gerta daitezzen. Zeren, halaber, erran ohi baita erregeak eta Zuzenbide zibilak ez diotela inori laidorik egiten; eta mintzamolde horretan inork ez du aditzen Zuzenbide izen horrek erregearenaz kanpoko jurisdikzioa duen printzeren bat adierazten duenik, baina hitz bat dela, bere erran-nahiarekin, erregeak, bere errepublikan bakea kontserbatzeko, egirik dauzkan lege guztiak eta erret ordenamendu oro besarkatzen dituen.

Eta erregeak beretzat erreserbaturiko kasu batzuk dituen bezala, eta horiek, estrainioak eta larriak direlako, ezin erabaki ditzake Zuzenbideak, era berean utzi zituen Jainkoak beretzat erreserbaturik mirakuluzko ondorioak, eta horiek sortarazteko ez zien kausa naturalei manurik eman, ez eta botererik ere. Baina hemen ohartzekoa da haintzat ezagutu eta obra naturaletatik bereiztu behar dituenak filosofo natural handia izan behar duela eta ondorio bakoitzari jakin zer nolako kausa ordenaturik ukan ditzakeen; eta, guztiarekin ere, ez da aski Eliza katolikoak haiek haintzat deklaritzen ez baditu¹².

Eta letratuek Zuzenbide zibila irakurriz lan egin eta ikasten duten moduan, eta halako kasua erabakitzeko erregearen borondatea zein izan zen jakin eta endelegatzeko, hura oroitzapenean atxikitzen duten bezala, guk ere, filosofo naturalok, fakultate horretako letratu gisa, Jainkoak mundua sortu zuen egunean egin zuen ibilbide eta ordenan ezartzen dugu geure estudioa, ikusteko eta jakiteko, nola eta zergatik nahi ukan zuen gauzak horrela gerta zitezten. Eta irrigarria litzatekeen bezala, baldin letratu batek bere izkiribuetan ongi frogatuzat eman baleza erregeak kasu bat hala erabaki duela, hori hala ebatzia duen legea eta arrazoia erakutsi gabe, era berean filosofo naturalek irri egiten diete "obra hau Jainkoarena da" diotenei, hori sortaraz zezaketen kausa naturalen ordena eta ibilbidea seinalatu gabe.

Eta nola erregeak, lege zuzenen bat hauts dezala edo berak gordetzeko manaturik daukan ordena judizialetik landa kasu bat erabakitzeko eskatzen diotenean, entzun nahi ez duen, hala Jainkoak ere ez du entzun nahi norbaitek mirakuluak eta ordena naturaletik kanpoko eginak premiarik gabe eskatzen dionean. Zeren, erregeak berak ere, egunero lege batzuk kendu eta mudatzen baititu, bai denboren aniztasunagatik eta bai, gizonaren kontseilua ahikorra izanik, zuzentasuna eta justizia behingoz ezin asma daitezkeelako. Baina unibertso osoaren ordena naturalari, Natura deritzogunari, Jainkoak mundua sortu zuenetik, ez zaio iota bat bera ere gehitu behar izan; eta horregatik, Jainkoak hura hain probidentzia eta jakituria handirekin egin zuenez, ordena hura ez gordetzeko eskatzea haren obretan akatsa ezartzea besterik ez da.

Beraz, antzinako filosofoek hainbestetan zerabilten errankizun hartara itzulirik, Natura facit habilem, aditzekoa da badirela argimen eta trebetasun batzuk, Jainkoak gizonen artean ordena naturaletik landa banatuak, hala nola apostoluen jakituria, ezen haiek arruntak eta dorpeak zirelarik, mirakuluz argituak eta zientziaz eta jakintzaz beteak izan baitziren. Honelako trebetasun eta jakituriatik ezin egiazta daiteke Natura facit habilem; obra hau berehala Jainkoagana, eta ez Naturaren baitara, bildu behar delako. Gauza bera aditzen da profeten jakituriak eta Jainkoak graziaren bat goitik isuri zien gainerako guztiez.

Bada gizonengan beste trebetasun moeta bat, eta hori heldu zaie Jainkoak helburu horretarako ordenatu zituen kausetatik halako ordena eta kontzertuaz sortarazi delako; eta era honetakoaz erraiten da egiaz Natura facit habilem. Zeren, obra honetako azken kapituluan frogatuko dugunez, kausa naturaletan ordena eta kontzertua baitago, eta gurasoek sortarazteko aldian hori gordetzeko ardura baldin badute, haien haur guztiak jakintsu jalgiko dira, batek ere huts egin gaberik¹³. Baina bitartean Naturaren erran-nahi hau hagitz unibertsala¹⁴ eta nahasia da, eta endelegua ez da olgatzten ez eta

atsedenik hartzen ibilbide berezia eta azken kausa jakin arteraino. Eta horrela, natura izen horren beste erran-nahi bat bilatu behar da, gure xederako egokiago datekeena.

Aristotelesek¹⁵ eta gainerako filosofo naturalek are partikularkiago jaitsi eta natura gauzari izatea ematen dion eta haren obra guztien hastapena den zernahi forma substantzialia erraiten diote. Eta erran-nahi horretan gure arima arrazionalari arrazoiz deituko zaio Natura, dugun gizon-izate formala hartatik hartzen dugulako, egiten eta obratzen dugun ororen hastapena bera izanik¹⁶.

Baina arima arrazional guztiek bikaintasun bera dutenez gero, bai jakintsuarenak eta bai ergelarenak ere, ezin erran daiteke Natura, erran-nahi honetan, gizona trebe egiten duena denik; zeren, hori egia balitz, gizon guztiek argimen eta jakintza bera ukan bailezakete. Eta horrela, Aristotelesek berak Naturaz beste erran-nahi bat bilatu zuen, hori gizona trebea edo ezgai izateko arrazoia eta kausa baita, erranez¹⁷ lehen lau kalitateen tenperamentuari (berotasuna, hoztasuna, hezetasuna eta lehortasuna) erran behar zaiola natura, horretatik gizonaren trebetasun guztiak heldu direlako, bertute eta bizio guztiak*, eta argimenetan dakusagun aniztasun hau.

Eta hau klarki frogatzen da gizon ezinago jakintsu baten adinak kontsideratuz; ezen horrek, haurtzaroan basa animalia bat besterik ez da, eta haserreminaz eta nahimenaz landa ez darabil gainerako ahalmenik; baina behin nerabezaroa etorririk, argimen miresgarria agertzen hasten da, eta badakusagu halako denbora bateraino irauten diola, eta ez gehiago, zeren behin zahartzaroa etorritz gero, egunez egun argimena galduz baitoa, ahitzera heldu arte. Egia da argimenen aniztasun hau [ez] dela sortzen arina arrazionaletik, adin guztietan berbera delako, bere indarretan eta substantzian inolako aldakuntzarik hartu gabe¹⁸, baina adin bakoitzean gizonak tenperamentu ezberdina dauka eta aurkako jarrera, eta horregatik arimak haurtzaroan obra batzuk egiten ditu, beste batzuk gaztaroan eta beste batzuk zahartzaroan. Beraz, hortik, arima ber batek gorputz berean elkarren kontrako obrak egiten dituelako argudio garbia hartzen dugu, adin bakoitzean kontrako tenperamentua daukalako, eta bi mutiletarik bata trebea eta bestea ergela denean, hori bakoitzak bestearena ez bezalako tenperamentua izatetik sortzen dela, eta horri, arima arrazionalaren obra guztien hastapena zenez gero, medikuek eta filosofoek natura erran zioten¹⁹. Eta adiera horretatik egiaztatzen da Natura facit habilem errankizun hura.

Doktrina hau berresteko Galenok liburu bat izkiriatu zuen²⁰, arimaren ohiturak bera dagoen gorputzaren tenperamentuari darraizkiola frogatuz; eta gizonak bizi diren herrialdearen bero, hotz, hezetasun eta lehortasunagatik, eta jaten dituzten jakiengatik, eta edaten dituzten urengatik eta arnasten duten aireagatik, batzuk ergelak eta beste batzuk jakintsuak izaten direla, batzuk adoretuak eta beste batzuk izukorrak, batzuk krudelak eta beste batzuk bihozberak, batzuk bularrez hertsiaik eta beste batzuk irekiaik, batzuk gezurtiak eta beste batzuk egiatiaik, batzuk traidoreak eta beste batzuk leialak, batzuk urduriak eta beste batzuk sosegatuak, batzuk elezuriak eta beste batzuk zintzoak, batzuk urriak eta beste batzuk liberalak, batzuk lotsorrak eta beste batzuk lotsagabeak, batzuk sinesgogorrak eta beste batzuk sinesberak. Eta hau frogatzeko Hippokratesen, Platonen eta Aristotelesen anitz pasarte aipatzen ditu, horiek erran baitzuten ezen nazioen ezberdintasuna, bai gorputzaren osaeran eta bai arimaren izaeretan ere, tenperamentu honen aniztasunetik heldu dela.

Eta esperientziaz klarki ageri da zein urrun diren elkarrengandik grekoak eta eskitiarrak²¹, frantsesak eta espainolak, indiarak eta alemanak, Etiopiakoak eta ingelesak. Eta ez da hori soilki ageri hain herrialde apartatuetan; aitzitik, Espainia osoa inguratzen duten probintziak kontsideratzen baditugu, kontatu ditugun bertuteak eta bizioak haien bizilagunen artean bana ditzakegu, bat bederari bere bizio eta bertutea

emanez. Eta ezpere, kontsidera ditzagun katalanen argimena eta ohiturak, valentziarrenak, murtziar, granadar, andaluziar, extremadurar, portugaldar, galego, asturiar, montañas²², bizkaitar²³, nafar eta aragoarrenak, eta Gaztelaren giltzurrunekoenak. Nork ez dakusa eta ez dazagu horiek beren artean ez direla berdin, aurpegiaren figuran eta gorputzaren izaeraz gainera, arimaren bertute eta bizioetan ere? Eta hori guztia probintzia horietako bakoitzak bere temperamentu berezi eta ezberdina ukaitetik heldu da. Eta ez da, soilki, ohituren aniztasun hau hain herrialde apartatueta ezagutzen, baina elkarrengandik lekoa txiki bat besterik ez duten tokietan ere ezin sinets daiteke zer nolako ezberdintasuna izaten den bertako bizilagunen artean.

Azkenik, Galenok bere liburuan izkiriartzen duen guztia ene obra honen oinarria da; berak gizonak duten trebetasun-diferentzietara bereziki jo ez zuen arren, ez eta horietarik bat bederak partikulariki eskatzen dituen zientzietara ere. Baina ongi aditu zuen mutilei zientziak banatu behar zitzaizkiela, bakoitzari bere berezko trebetasunak eskatzen ziona emanez, hau erran baitzuen, errepublika ongi ordenatuek zuhurtzia eta jakituria handiko gizonak eduki behar zituztela, bakoitzari haurtzaroan bere argimen eta solertzia²⁴ naturala eriden ziezaioten, komeni zitzaion artea ikastarazteko, hura haren hautamenean utzi gabe²⁵.

V [1594]

Non deklaritzen baita temperamentuak zenbat egin dezakeen gizona zuhur eta ohitura oneko bihurtzeko

Hippokratesek gure arima arrazionalaren natura ona eta bera kokaturik dagoeneko giza gorputzaren izate aldakor eta ahikorra kontsideraturik, hain autore handiaren mailako errankizun hau egin zuen¹: *anima quidem semper similis est, et in maiori et in minori, non enim alteratur nec per naturam nec per necessitatem; corpus autem numquam idem in ullo aliquo est, nec secundum naturam nec ex necessitate*; erran balu bezala: "gure arima arrazionala beti bat bera da bizitzaren ibilbide osoan zehar, zahartzaroan eta umezaroan, eta handi zein txiki garenean; gorputza, aldiz, behin ere ez dago izaki batean geldirik, eta ez dago bera kontserbatzeko manerarik ere". Eta mediku batzuk horretarako artea egiteko lanean aritu diren arren, batek ere ezin ekidin ukan ditu bere agindu eta erregelekin adinen aldaketak: haurtzaroa, beroa eta hezea; nerabezaroa, epela; gaztaroa, beroa eta lehorra; helduaroa, bero-hotzetan tenplatua eta lehortsunean destenplatua; zahartzaroa, hotz eta lehorra. Ezin daiteke ezer egin zeruek uneoro airea muda ez dezaten, ez eta horrek gure gorputzean hain zirrara ezberdinak eragin ez ditzan ere.

Hortik aditu zuen gizon bat arras zuhur bihur zedin, lehenago halakoa izan gabe, ez zela arima arrazionala aldatu behar ez eta haren natura hobetu ere; zeren (hori ezinezkoa izateaz gainera) bere sorkuntzan ez baitzitzaion gauza bat ere falta izan, harengatik gizonak bere espezieko obrak hagitx ongi egin ez zitzaion. Eta, horrela, erran zuen: *si ignis et aqua in corpore temperamentum acceperint, fit anima sapientissima et memoria valentissima praedita; si vero ignis superetur ab aqua, fit tarda et stulta*²; erran balu bezala: "lau elementuak, ura eta sua bereziki, giza gorputzaren osaeran pisu eta neurri berean sartzen direnean, arima txit zuhur egiten da eta oroimen arras handikoa; baina urak sua gainditzen badu, arima geldo eta ergel lotzen da"; eta ez haren erruz, berak obratzeko zeukan tresna akasturik zegoelako.

Hori ikusirik, Galenok azken konklusiotzat atera zuen arimaren ohitura eta trebetasun guztiak bera dagoen gorputzaren temperamentuari darraizkiola hutsik egin gabe. Eta, bide batez, filosofo moralei errieta egiten die, medikuntzari emanak ez direlako, zuhurtzia ez eze (bertute guztien oinarria dena), baizik eta justizia, sendotasuna eta tenperantza, eta horien aurkako bizioak ere, gorputzaren temperamentuaren menean daudela egia izanik. Beraz, erran zuen medikuari zegokiola gizonaren bizioak ezereztu

eta aurkako bertuteak sartzea; eta horrela lizunkeriaren bizioa ezereztu eta kastitatearen bertutea sartzeko artea egin zuen; eta harroa mantso eta tratagarri eginen da; zikoitza, eskuzabal; eta beldurtia, adoretzu; eta ergela, jakintsu, eta zuhur. Eta ezartzen duen estudio guztia gorputza bizio eta bertute bakoitzari dagozkion medizina eta jakiekin gorputza bestelakotzekoa da³; eta ez arima sendatzeko, Hippokratesen iritzian oinarriturik, zeren horrek garbi aitortzen baitu arima ez dela aldagarri, eta, bera egitera behaturik dagoena egiteko, ez duela bertute eskuratuen premiarik, horretarako tresna onik ematen badiote. Eta, horretara, errakuntzatzat dauka bertuteak ariman ezartzea eta ez horrek obratzeko duen gorputzaren tresnetan⁴. Eta honekin, ezinezkoa iruditzen zaio bertute bat erdiestea, gizonarengan temperamentu berri bat sortarazten ez duenik.

Baina iritzi hau faltsua da eta filosofo moralen kontsentimendu komunaren aurka doa, zeren, horiek diotenez, "bertuteak ohitura izpiritualak baitira, arima arrazionalari atxikiak"⁵. Zeren, akzidentea nolakoa den, halakoa izan behar baitu hori jausten zaion subjektuak ere. Gehienbat, arima agente eta mugitzailea, eta gorputza mugitu behar dena izanik, are aproposago jausten dira bertuteak zerbait egiten duenarengan pairatzen duenarengan baino. Eta bertute eta bizioak temperamentuaren meneko ohiturak balira, hortik segituko litzateke gizonak agente natural gisa obratuko lukeela, eta ez libreki, temperamentuak erakutsiko lizkiokeen apeta on eta txarra behar izanik; eta era honetara obra onek ez lukete saririk mereziko, ez eta txarrek gaztigurik ere, esaera haren arabera: in naturalibus nec meretur nec demeretur⁶. Are gehiago, dakuskigularik temperamentu gaizto eta biziotsua duten anitz gizon bertutetsu, bertutearen bidetik obratzera baino lehenago bekatu egitera makurrarazten dituenak; eta horiez honela erran zen: vir sapiens dominabitur astris. Eta zuhurtziaren eta trebetasunaren egintzei doakienez, gizon ezin jakitunago eta arras tenplatuen anitz obra desegoki ikusten ditugu, eta beste batzuk, hagitx ongi asmatuak, horrenbeste ez dakien eta hain tenperatura ona ez daukanak eginak. Hortik aditzen da zuhurtzia eta jakituria, eta gainerako giza bertuteak, ariman direla, eta ez daudela gorputzaren osaera eta temperamentuaren menean, Hippokratesek eta Galenok uste bezala⁷.

Baina, horrekin guztiarekin ere, indar handia egiten du bi mediku larri hauek, eta horiekin Aristotelesek eta Platonek, errankizun hau erraiteak, egia erran gabe, halere. Hortik jakiteko da ezen bertute osamaituak, filosofo moralek itxuratzen dituztenez, ohitura izpiritualak direla, arima arrazionalari atxikiak, horren izaera ez temperamentuaren menean egon gaberik. Baina horrekin, egia ere bada ez dela gizonarengan bertute ez biziorik (ez dira hemen naturaz gaindikoak aditu behar, hauek kontu eta arrazoi honetan sartzen ez direlako) bere tenperatura gorputz-ataletan ez duenik, bere obretan laguntzen edo deslaguntzen duena, eta horri, desegokiro, filosofo moralek bizio edo bertute erraiten diote, ikusirik ezen gizonak eskuarki ez dutela beste ohiturarik haien temperamentuak seinalatzen dituenak baizik. Eskuarki erran dut, zeren anitz gizonak arima bertute osamaituez beterik daukaten arren, ez baitute gorputz-ataletan temperamenturik arimak nahi duena egitera laguntzen dituenik, eta guztiarekin ere, erabakimen librea dutelako, hagitx ongi obratzen dute, borroka eta lehia handiarekin bada ere; Jaun Done Pauloren harako hura bezala: condelector enim legi Dei secundum interiorem hominem; video autem, aliam legem in membris meis, repugnatem legi mentis meae, et captivantem me in lege peccati quae est in membris meis. Infelix ego homo! Quis me liberabit de corpore mortis huius? Gratia Dei per Jesum Christum Dominum nostrum. Igitur ego ipse mente servio legi Dei; carne autem legi peccati⁸. Hitz horien bidez Jaun Done Paulok aditzera ematen du bere baitan bi lege kontrario sentitzen zituela: bata ariman, eta harekin Jainkoaren legea maitatzen zuen eta harekin jostatzen zen; eta bestea bere gorputz-adarretan, bekatu egitera gonbidatzen zuena.

Honen arabera, badirudi Jaun Done Paulok ariman zeuzkan bertuteei ez zegozkiela gorputz-ataletako tenperaturak, leuntasunez eta haragiari kontra erran gabe obratzeko behar zirenak. Haren arimak otoitz egin eta behatu nahi zuen; eta hura betearazi behar zuen burmuinera zihoanean, hura destenplaturik aurkitzen zuen hoztasun eta hezetasunagatik, lo egiteko⁹ ordenaturiko bi kalitate direnak, eta nahigabe handiarekin. Halaxerik zeuden Jesu Kristo baratzean otoitz egiten zuenean laguntzen zuten hiru dizipulu haiek, honela erran zien eta: spiritus quidem proptus est, caro autem infirma¹⁰. Arimak barau egin nahi zuen, eta egin behar zuenarekin urdailera zihoanean, mila ahulaldirekin aurkitzen zuen, eta jateko gogo asezinarekin. Arimak nahi zuen kastu eta kontinente izan zedin, eta ernaltzeko instrumentuetara zihoanean, su izekitan aurkitzen zituen, aurkakora makurtaraziz.

Honelako egoeretan, bertutetsuek zailtasun handiarekin obratzen dute, eta horregatik hau erran zen: virtus versatur circa difficile. Baina baldin arimak, gogoeta egin nahi duenean, burmuina bero eta lehor aurkituko balu, beila egiteko jarrera naturalean alegia; eta baldin barau egin nahi duenean urdaila bero eta lehor kausituko balu, tenperatura hori, Galenok dioenez, gizonak jatea gaitzesten duena izanik; eta, kastitatea nahi eta maite duenean, barrabilak hotz eta hezerik baldin baleude, guztia ongi eginik aurkituko luke inolako eragozpenik gabe. Arimaren legeak eta gorputz-atalen legeak, bi-biek gauza bera eskatzen dutelako, eta horrela gizonak leuntasun handiarekin obratuko luke. Horregatik ongi erran zuen Galenok medikuari zegokiola gizona, biziotsu izatetik bertutetsu egitea; eta filosofo moralek gaizki egiten zutela, beren artearen helburua erdiesteko, medikuntzaz ez baliatzean, zeren gorputz-atalak aldatzean bertutetsuak leuntasunez obrarazten baitzituzten¹¹.

Nik Galenorengandik eta filosofo moral guztiengandik nahi nuena hauxe da, arimako bizio eta bertute bakoitzari gorputz-ataletako tenperatura bedera baldin badagokie, obratzera laguntzen edo deslaguntzen dituen, konta diezagutela ea gorputzaren zeintzuk kalitatetan zetzan haietariko bakoitza, bat bederak premiazko zuen sendabide aplikatzeko.

Aristotelesekin ongi endelegatu zuen tenperatura onak gizona arras zuhur eta ohitura oneko egiten zuela, eta, horregatik erran zuen optima enim temperies non solum corpori, verum intelligenti homini prodest¹². Baina ez zuen deklaratu tenperaturarik hoberena zein zen; aitzitik, gizonaren ohiturak bero eta hoztasun soiletan oinarritzen zirela erran zuen; eta medikuek, Hippokratesek et Galenok batik bat, bi kalitate hauek biziozkotzat dauzkate, eta epela onesten dute, beroa hoztasunari, eta hezetasuna lehortasunari aitzintzen ez zaionekoa. Eta, horretara, erran zuen Hippokratesek: quod humidissimum est in aqua et doccissimum igne, si in corpore temperamentum acceperint, fit homo pridentissimus.

Baina anitz medikuek tenperatura hau aztertu dute, duen fama handiagatik; eta obran ez du erantzuten Hippokratesek dioen heinean; aitzitik, gizon ahul eta kemen urrikoak iruditzen zaizkie, beren eginetan ez dute destenplatuak adinako zuhurtzia eta diskreziorik agertzen: izaera oso bigun eta leuna dute, eta ez dakite inori makurrik egiten, ez erranez ez eginez, eta hortixek dirudite arras bertutetsu eta animua aldatzen duten grinak ukan gabeak. Medikuek horiek epela tenperatura txartzat daukate, ahalmenen sendotasuna ahultzen eta deusezten dutelako, haiei komeni denez obratzen ez uzteko kausa izanik; eta hori argiro ezagutzen da urteko bi arotan, udan eta udazkenean, airea epeltzen denean, eta orduan eritasunak sortzen dira. Eta horrela gorputza osasuntsuago aurkitzen da hotz handiarekin edo bero handiarekin, udako epeltasunarekin baino¹³.

Badirudi medikuek hauei nolabaiteko mesedea egiten diela jainkozko Eskriturak, gizonaren ohiturez honela dioenean: utinam esses calidus aut frigidus; sed quia tepidus

es, incipian te vomere ex ore meo¹⁴. Dirudienez, Aristotelesen doktrinan oinarritu zen, horrek aburu arras egiazkotzat baitauka gizonaren ohitura aktibo guztiak bero eta hoztasunean dautzala, eta ez hotzil edo epelean¹⁵. Baina pozik nengoke Aristotelesek erran baliezagu zein bertutek horietariko zein kalitate eskatzen duen, eta haren aurkako bizioa zertan datzan, Galenok diozen sendaketak egiteko. Nik neure baitan aditurik daukat hoztasuna garrantzitsuena dela arima arrazionalak bere bertuteak bakean kontserba ditzan eta gorputz-ataletan deusek ere kontraerran ez diezaion. Zeren ezein kalitatek (Galenok dioenez) ez baitu hainbat ahultzen nahikundezkoa eta eta hirakortasunezkoa, nola hoztasunak egiten duen, batez ere lehortasunarekin bat eginik badago, eta beheko aldea ahulik eta eri egonik, arima arrazionalaren bertuteak zehebeteka hasten dira¹⁶.

Ezpere, filosofo moralaren aitzinean gizon lizunkoi bat, jatun eta edale handia, bere artearen erregelen arauz senda diezadan, eta bere ariman kastitate- eta tenperantzi ohitura sortaraz diezaión, eta horiekin leuntasunez obra dezan, bere gorputzaren ataletan hoztasun eta lehortasunik sartu gabe, eta lehen zituen bero eta hezetasun handiegiek deuseztu gabe. Eta dakusagun bada nola eginen duen¹⁷.

Segurki, lehenik egin behar duena, lizunkeriaren bizioa zein itsusia den hari errieta aurpegiratzea da; eta horrek aldean ohi dakartzan gaitz eta kalteak kontatuko dizkio, eta haren arima zein peril handitan dagoen baldin herioak eraman baleza bere bekatuen penitentzia egin gaberik. Horren ondoan, baraua, otoitz egitea eta meditazioa kontseilatuko lizkioke, lo gutxi egitea, zoruan eta jantzirik etzatea, diziplina, emakumeengandik urruntzea eta deboziozko obretan aritzea¹⁸; hori guztia Jaun Done Pauloren aforismo hark dauka barnean: castigo corpus meum et redigo in servitute¹⁹. Erremedio hauekin, horietan anitz egunetan pertseberatuz, gizona ahuldu eta zurbilduko da, eta aitzinetik izaten zenetik hain ezberdin, non lehenago emakumeen eta jan-edanengatik galtzen zena, oraingoan hori aipatzen entzuteak berak nahigabe eta oinaze ematen baitio.

Filosofo moralak gizon biziotsua seinale horiekin ikusirik arrazoirekin erranen du: "honek kastitate eta tenperantzi ohitura du" jadanik. Baina haren artea hemendik iragaten ez delako, pentsatzen du bi bertute horiek airetik heldu direla eta haren arima arrazionalan ezarri direla gorputzetik iragan gabe. Baina medikuak, ahultasuna eta kolore zurbila nondik sortzen den, eta bertuteak nola sartzan eta bizioak nola ezereztan diren dakienez gero, erranen du gizon horrek jadanik kastitate eta tenperantzi ohitura duela, erremedio haiekin berotasun naturala galdu eta haren lekura hoztasuna etorri zelako. Eta bizitzeko ordena hura guztia kausa hoztaileak izatea frogatzeko gauza erraza da, haietako bakoitzaz gogoeta eginez gero:

Larderiak eta bekatu mortalean hilez gero ukan zitzakeen pena infernutarren kontsiderazioak ekarri zioten beldurrak, egia da, berotasun naturala hildumatzen eta gorputza hozten duela; eta honela, galde egiten du Aristotelesek: cur voce et manibus et labro inferiori tremunt qui metuunt? An quoniam hic affectus, caloris defectio ex locis superioribus est, ex quo ut palleant accidit²⁰.

Baraua ere berotasun naturala gehienik hildumatzen eta gizona hotzik uzten duten gauzetarik bat da, zeren (Galenok dioenez) gure izaera janari eta edariaz kontserbatzen baita, kriseiluko garra olioaz bezala²¹; eta, egosi den janaria zenbatekoa den, hainbat berotasun natural dago giza gorputzean, eta berotasuna zenbatekoa den, hainbatekoa da eman behar zaion jakia ere, eta kopuru txikiagoan emanaz gero hura laster gutxitzen da; arrazoi horregatik agintzen du Hippokratesek ez diezaiegula hurrei barau eragin, elikadurarik ezaz ahuldu eta ahitzen direlako²².

Diziplina, mingarria eta odolezkoa baldin bada, nork ez daki bizitasunezko eta animalitasunezko izpiritu anitz irioten eta xahutzen dituela, eta odol jarioarekin gizonak pultsua eta berotasun naturala galtzen dituela?²³

Loak, dio Galenok, berotasun naturala gehienik indartzen duten gauzetarik bat da, haren bidez gorputzeko barrunbeetara sartu eta bertute naturalak sendotzen dituelako, eta, horrela jakia egosi eta gure substantzia bilakarazten duelako, eta itzarri egotean deusezten eta gogortzen da. Eta horren kausa loak barneko aldeak berotu eta kanpoaldekoak hoztean datza; eta, aitzitik, beilak urdaila, gibela eta bihotza (horiekin bizi baikara) hoztu eta kanpoko aldeak berotzen ditu, horiek gorputzeko alderdirik eznoableenak eta gutxien baliatzen garenekoak izanik. Horrela bada, bere buruari loa kentzen dionak nahitaez anitz eritasun hotz pairatu behar ditu.

"Zoruan lo egiteak, behin baino gehiago ez jateak eta gaizki jantzirik ibiltzeak" Hippokratesek zioenez, haragia eta odola irioten zituen, berotasun naturala gorderik daukatenak: *semel tantum cibum sumere, duriter cubare, nudusque ambulare*. Eta Galenok, zergatik ohe gogorak gorputza flakutzen eta haragiak ahitzen dituen azaltzeko arrazoa ematean, badio ezen oinazea gorputzari alha zaionean ez diola lorik egiten uzten, eta anitz bira eginez haragiak leku guztietatik hersten dituela, eta horrela ez diela uzten hazten. Eta haragiak gastatzen zenbat bero galtzen den Hippokratesek berak dio, gizona zuhur nola eginen den irakastean: *conducit ad sapientiam ut minime carnosus sint, nam ad carnis bonam habitudinem ardoris inflammationem fieri necesse est* ²⁴; erran balu bezala: "jakituriarako komeni da gizonak haragi ugari ez ukaitea, horien temperamentua arras beroa delako"; eta kalitate honek zuhurtzia alferrik galtzen du.

Otoitz eta meditazio egitea beroa burura igonez egiten da, horien gabezia gorputzeko gainerako zatia hotzik geldituz; eta aditasun handiaz baldin bada, ukimena galtzea agitzen da, zeinez Aristotelesek erran baitzuen animalien bizitzarako beharrezkoa zela, eta gainerako zentzuek apaindura eta hobezintasunerako balio zutela, ezen badakusagu dastamen, usaimen, ikusmen eta entzumenik gabe bizi daitekeela²⁵. Baina behakuntza sakonen batean goraturik dagoelarik, arimak ez die gorputzeko zatiei animalia ahalmena²⁶ bidaltzen, eta hori gabe belarriek ezin dezakete entzun, ez begiek ikus, ez sudurrek usna, ez dastamenak gusta, ez ukimenak uki; eta ukimena delarik gizonari nork ongi edo gaizki egiten dion salatzen dion begiralea, ezin balia daiteke hartaz; eta horrela, hotzez izozturik, edo berotan kiskaldurik egonik, edo goseak hilik, hortik hori sentitu gabe iragaten da, abisua nork eman ez duelako. Jarrera honetan, Hippokratesek dioenez, arimak ez du egiten beharturik dagoena, zeren horren ofizioa gorputza animatu eta zentzu eta mugimendua ematea delarik, desenparaturik uzten baitu: *quicumque dolentes parte aliqua corporis, omnino dolorem non sentiunt, iis mens aegrotat* ²⁷. Baina letragizonen baitan eta meditazioa emanak diren gainerakoengan aurkitzen den jarrera txarrena urdaileko flakia da, beti ere jakia berotasun naturalik gabe egosten duena, hori eskuarki buruan egiten delako; eta horrela, gordintasunez eta gorroz beterik dago²⁸. Horrexegatik gomendatzen du Cornelio Celsok letretara emaniko gizonari, beste nolana hiko atal baino gehiago, urdaila konforta diezaiegula. Horrela, otoitz egitean, behakuntzan eta meditazioan aritzean gorputza lehortzen eta malenkoniatsu egiten du²⁹. Eta hori dela eta, erran zuen Aristotelesek: *cur homines qui ingenio claruerunt, vel in studiis philosophiae, vel in republica administranda, vel in carmine pangendo, vel in artibus exercendis, melancholicos omnes fuisse videantur*?³⁰

Emakumeengandik apartatzeak (lehenago haiekiko solasa ukanik) gorputza zenbat hozten duen eta horrek kontinentearen baitan zenbat aldaketa berri sortarazten dituen, Galenok frogatzen du, berak ikusiriko eta oharturiko anitz esperientziaren bitartez. Eta bereziki haren adiskide bati, behin alargundu eta gero, gertatu zitzaiona kontatzen du:

ondoan jateko gogoa kendu zitzaioa eta gorringo bat ere ezin digeri zezakeela; eta lehen ohi zuen bezala jaten ahalegintzen bazen, berehala goitika egozten zuela; eta horrekin triste eta malenkoniatsu zebilela. Eta hari ezkontzeko kontseilua eman zion, baldin osasuna eduki nahi bazuen; eta, hortaz, honela dio: hic quam celerrime liberatus est, ad pristinam consuetudinem reversus.

Kantariez ari delarik, Galenok berak kontatzen du ezen, esperientziaz zekitelarik barrabilek eztarriarekin duten korrespondentzia handia, eta emakumeekin harremanetan aritzeak ahotsa alferrik galarazten ziela, indarrean kontinente egiten zirela, jatea eta beren musikagatik ematen zieten alokairua ez galtzeagatik; eta horrekin (Galenok dioenez) ugaltzeko tresnak erabat txiki, hotz eta zimurturik zeuzkaten, zaharrak balira bezala. Lizunek ez bezala; horien alderdiak, hagitz erabiliak eta usatuak izanik, txit haziak baitira, eta hazi-hodiak arras zabalak eta nabarmenak, horietara odola eta berotasun naturala oldarka heltzen delako³¹. Zeren, Platonek dioen bezala: ignavia quidem exsolvit, proprii autem officii exercitatio robus augere, solet; erran balu bezala: "gorputzeko zatiak erabiltzeak, indar handiagoa eskurazten die, eta haiek ez usatzeak ahuldu egiten ditu"³². Eta, horretara, egia da lizunkeriazko egintza bakoitzean sorkuntza-atalak are gehiago indartzen direla, eta are boteretsuago gelditzen direla, eta obratzera berriz itzultzeko gutiziosoago³³; eta gizonak haragiari erresistitzen dion bakoitzean, hotzago gelditzen dela, eta are egintza hartarako indar gutxiagoekin. Hortik konkluditu zuen ezen kastu eta kontinentea, bide honetatik eginikoa, ohiko hoztasunera etortzen dela, eta horrekin penarik eta eragozpenik gabe obratzen duela, zaharrak, bere izaeraz hotzik jaio zenak eta zikiratuak bezalaxerik. Eta, horrela, kontinente izan nahi dutenak eta haragiak kilika ditzan nahi ez dutenak, beren ahulezia handiaren beldur, medizina hotzez eta hazia ahitzen eta bera hozten duten gauzez baliatzen dira; eta horiexengatik uler daiteke: beati qui se castraverunt propter regnum Dei ³⁴.

Lizunkeriaz eta kastitateaz erran eta frogatu dugun hau guztia aditu behar da, halaber, gainerako bertute eta bizioez ere. Zeren horietako bakoitzak bere bero- eta hoztasuneko temperamentu bedera baitu, eta atal bakoitzak erdiesten duen substantzia-moduan ere, eta bi kalitate horien gehipen edo urripenagatik. Bero- eta hoztasuneko erran dut, zeren ezein bertute ez bizio ez baita oinarritzen hezetan ez lehortasunean. Aristoteles aburuz, bi kalitate horiek pasiboak direlako, eta bero-hoztasunak, aldiz, aktiboak; eta, hortaz, honela erran zuen: mores enim condit calidum aut frigidum, omnium maxime que in nostro corpore habentur. Eta, bere errankizunarekin Eskriturari erantzuten dio, hau zioenean: utinam frigidus esses, aut calidus; sed quia tepidus es et nec frigidus nec calidus incipiam te vomere ex ore meo³⁵. Honen arrazoa honetan datza, ezen ez dela gizon tenplaturik aurkitzen bertuteak fundatzeko behar den bikaintasun-puntuan. Honela, Eskriturak (eta Filosofoak) beroa eta hoztasuna hautatu zituen; bertuteak oinarritzeko beste kalitaterik ez zegoelako. Beren kontrapisuarekin ordea; zeren, hoztasunari eta beroari anitz bertute erantzuten dietela kontutan izanik, era berean bizio anitzen iturri ere badira, eta, horretara, miraz aurki daiteke gizon gaizto bat zenbait bertute natural ez duenik, ez eta bizioren bat ez duen gizon bertutetsurik ere.

Ordea, arima arrazionala ongienik aurkitzen deneko kalitatea gorputzaren hoztasuna da. Hau klarki frogatuko da gizonaren adin guztietatik iraganez gero: haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, adin hobezina eta zahartzarora; eta hor aurkituko dugu ezen, adin bakoitzak bere temperamentu berezia duelako, batzuetan biziotsua eta beste batzuetan bertutetsua dela, batzuetan kaskarina eta beste batzuetan jakintsua.

Haurtzarora temperamentu bero eta hezea besterik ez da, eta horretan (Platonek hala dio) arima arrazionala itorik dago, bere endelegua, borondatea eta erabakimen librea erabili ezinik, denbora joan ahalean beste adin batera iragan eta temperamentu berria eskuratu

arte. Umezaroko bertuteak anitz dira, eta bizioak gutxi. Haurrak, Platonek dioenez, miresleak dira, eta hastapen horretatik zientzia guztiak sortzen dira; bigarrenik, diziplinagarriak dira, bigunak eta zernahi bertutetan sartzeko bigunak; hirugarrenik, beldurti eta ahalketiak dira, hor (Platonek dioenez) tenperantziaren oinarria izanik; laugarrenik, sinesberak dira eta sinestarazteko errazak; karitatetsuak, liberalak, kastuak eta apalak dira; bakunak eta maliziarik gabeak³⁶. Eta bertute horiei begira, erran zien Jesu Kristok bere dizipuluei: nisi efficiamini sicut parvulus iste, non intrabitur in regnum caelorum³⁷. Jainkoak erakutsi zien haur hori zer adinetakoa zen ezin jakin daiteke. Baina Hippokratesek haurtzaroa bizpahiru zatitan banatzen du; eta urtebetetik hamalau urterarte beti humore asko eta tenperamentu ezberdinak hartuz doazenez, horrela anitz eritasun pairatzen dituzte, eta arrazoi berberetatik doazkio arimari bertute eta bizio ezberdinak. Horretan oinarri harturik, Platon haurrari lehen urtetik hasten zaio irakasten, bera hazten duen unideari haren bertute eta bizioak nola adituko dituen (haren negar, irri eta ixiltasunaz) eta nola zuzenduko dizkion azalduz³⁸. Adin honetako bertuteak zituen Saulek, Eskriturak dioenez, errege hautatu zenean: puer erat unius anni Saul quando coepit regnare³⁹. Eta hortik badirudi Jainkoak Hippokratesen banaketa bera egiten duela, haurtzaroko bertuteak urteka seinalatuz.

Nerabearoa gizonaren bigarren adina da; eta hamalau urteetatik hogeita bosterate kontatzen da. Hori, medikuen iritziaren arabera, ez da beroa, hotza, hezea ez lehorra, kalitate horien artekoa baizik, hots, epela⁴⁰. Temperatura horrekin gorputzeko tresnak bertute mota guztietarako arimak behar dituen eran daude, zuhurtziarako bereziki; eta, hortaz, honela erran zuen Hippokratesek: quod humidissimum est in igne, et siccissimum in aqua, si in corpore temperamentum acceperint, anima est sapientissima et memoria valentissima praedita⁴¹. Erran ditugun haurtzaroko bertuteek sen natural soilaz eginiko obrak dirudite, inurriek, sugeek eta erleek egiten dituztenak bezalakoak⁴², gogoeta arrazionalik gabeak; baina nerabearokoak jadanik diskrezioaz eta zuhurtziaz eginik doaz, eta horrela nerabeak egiten duena eta zein helburuz egiten duen aditzen du, eta xedea ezagaturik, hura lortzeko bideak ezartzen ditu. Eskriturak sensus et cogitatio hominis prona est ab adolescentia sua ad malum⁴³ erran zuenean, hor exclusive adi daiteke, hortik haurtzaroa eta nerabearoa aterarik; horiek gizona bertutetsuenik deneko adinak direlako.

Hirugarren adina gaztaroa da, hogeit eta hogeita bost urtetik hogeita hamabosterate kontatzen dena. Horren tenperamentua bero eta lehorra da; eta horretaz honela erran zuen Hippokratesek: cum aqua superatur ab igne, fit anima insana et furiosa⁴⁴. Eta horrela erakusten du esperientziak; zeren ez baita gaiztakeriarik, adin honetan gizona tentatzen ez duenik: hira, jan-nahia, lizunkeriak, harrokeria, erhaiteak, adulterioak, epaskoak, beldurgabekeriak, lapurretak, ausarkeriak, etsaigoa, engainuak, gezurrak, bandoak, ezinikusiak, mendekuak, gorrotoak, laidoak eta hantustea. Eta Davidek bere burua adin horretan ikusirik erran zuen: Domine, ne revoces me in dimidio dierum meorum⁴⁵, gaztaroa gizonaren bost adinen erdian dagoelako, haurtzaroa, nerabearoa, gaztaroa, adin hobezina eta zahartzaroa. Eta hartan hain da gaizto gizona, ezen Salomonek honela erran zuen: tria sunt difficilia mihi, et quartum penitus ignoro: viam aquilae in coelo, viam colubris super petram, viam navis in medio mari, et viam viri in adolescentia⁴⁶. Toki honetan nerabearoa gaztarotzat hartzen du.

Honetatik guztitik, egia da arimak baduela erru horren nolabaiteko desenkusarik, adinen iragaitza osoan zehar berbera baita, eta Jainkoak hasieran sortu zuen bezain hobezina⁴⁷, gorputzak adin bakoitzean eskuratzen dituen tenperamentu ezberdinetatik ez bada; eta gaztaroan gorputza are destenplatuagorik dagoenez gero, horrexetatik egiten ditu

zailtasun handiagoarekin arimak bertutezko obrak, eta errazkiago biziozkoak. Hau da, hitzez hitz, Jakituriak erran zuena: Puer eram ingeniosus et sortitus sum arimam bonam; et cum essem magis bonus, veni ad corpus coinquinatum, et inveni quod aliter homo continens esse non potest nisi Deus det; erran balu bezala: "Niri arima ona eman zidaten, eta umetandik hagitz argitsua izan nintzen; eta (uler bedi nerabezaroan) hobeia izanik, geroago gorputz hain zikin eta destenplatura etorri nintzen, gaztaroan dagoena bezalakoa, eta neure kontutik aurkitu nuen gizonak ezin eduki zezakeela kastitate eta kontinentziarik Jainkoak ematen ez bazion"⁴⁸. Beraz, Davidek bere burua hain adin txarretik landa ikusirik, eta hartan iraganikoaz oroiturik, erran zuen: delicta juventutis meae et ignorantias meas ne memineris⁴⁹.

Laugarren adinean, heldutasunezkoan alegia, gizona epeltzen hasten da, bero eta hoztasunaren aposizioan; bero handitik hoztasunera jaisten denak, nahita ez erditatik iragan behar duelako. Eta gaztaroko gorputzari gelditu zitzaion lehortasunarekin, arima biziki zuhur egiten da. Hori dela eta, gaztaroan gaizki bizi izan diren gizonak ohi ditugun birakada nabarmenak egiten dituzte, lehenagoko biziera txarra ezagutuz eta bestela bizi izanez. Adin hau hogeita hamabost urtetik hasi eta berrogeita bostera doa, batzuegan gehiago eta beste batzuegan gutxiago, bakoitzaren izaera eta temperamentuaren arauz.

Gizonaren azken adina zahartzarora da, zeinetan gorputza hotz eta lehor baitago, eta ahul eta mila eritasunekin: ahalmen guztiak galdurik, lehen ohi zutena egin ezinik. Baina, arima arrazionala hartzarora, nerabezaroan, gaztaroan, helduraroan eta zahartzarora izan zen zen berbera izanik ere, bere ahalmenak ahul liezazkioken eraldaketarik bat ere hartu gaberik, behin azken adin honetara etorri eta temperamentu hotz eta lehor honekin, guztiz zuhurra, justu, sendo eta tenperantziaduna⁵⁰ da; eta nahiz eta obra hauek gizonari egotzi behar zaizkion, arima da, halere, horien lehen mugitzailea, harako haren arauz: anima est principium intelligendi⁵¹. Gorputza boteretsu dagoen denbora guztian, bizitasunezko, naturazko eta animalia ahalmen sendoekin, gizonari bertute moral gutxi datozkio; baina indarrak galtzen dituenean, laster hazten da arima bertutetan⁵². Badirudi Jaun Done Paulok hau sentitu nahi zuela virtus in infirmitate perficitur erran zuenean; erran balu bezala: "bertutea eta arima arrazionalaren indarrak gorputza eri dagoenean hobetzen dira"⁵³. Eta honela dirudi, zeren ezein ere adinetan ez baitago gorputza zahartzarora baino ahulago, ez eta arima libreago eta askatuago ere arazoaren arauz obratzeko.

Baina horrekin guztiarekin, Aristotelesek zaharrek dituzten sei bizio kontatzen ditu, gizonak adin horretan duen hoztasunarengatik⁵⁴. Lehenik, izukorrak dira, animua eta adorea bihotzaren bero handian eta bertako odolean oinarritzen direlako, eta zaharrek odol gutxi eta arras hotza dutelako. Bigarrenik, zikoitzak dira, eta dirua behar baino gehiago gordetzen dute; zeren jadanik bizitzaren azken herenetan egonik eta arazoak ondasun gutxirekin pasa lezaketela erran beharko liekeelarik, orduan gutizia areago hazten zaie, hartzarora baleude bezala, iragateko bost adin gelditzen zitzaizkiela kontsideraturik on zela gordetzea jatekoa zerekin eros. Hirugarrenik, aierukorrak dira; eta ez dakit zeren kariaz Aristotelesek honi bizio erraiten dion, zeren egia baita hori sortzen zaiela esperentziaz, gizonen hainbat gaiztakeria ikusteagatik, eta berberak beren gaztaroan egin zituzten bizio eta bekatuez oroitzeagatik; eta horrela, beti ere susmotan bizi dira, gizonen zer fida gutxi dagoela jakinik. Laugarrenik, esperantza txarrekoak dira eta ez dute behin ere pentsatzen kontuak ongi gertatuko direnik; eta ukan ditzaketen bizpahiru bukaerarik, beti okerrena hautatzen dute eta haren zain egonen dira. Bosgarrenik, lotsagabeak dira; lotsa, Aristotelesek dioenez, odolari baitagokio; eta zaharrek humore hori ez dutenez, ezin daitezke lotsatiak izan. Seigarrenik,

sinesgogorak dira: behin ere ez dute pentsatzen egia diotsetenik, oroimenera gizonen gezur eta engainuak eta beren bizitzan zehar munduan ikusi dutena ekarriz. Aurkako bertuteak (Aristotelesek dioenez) mutilek dituzte. Animosoak, eskuzabalak, ez dute inoiz txarrik susmatzen, esperantza onekoak dira, lotsatiak eta beste usterak eramateko errazak eta sinesberak⁵⁵.

Gizonaren adinez frogatu dugun berbera erakuts genezake sexuaz ere: zeintzuk bertute dituen gizonak eta zeintzuk emakumeak. Eta humoreen arrazoiz ere: odola, kolera, gorroa eta malenkonia. Eta eskualde eta leku partikularren arrazoiz ere bai: probintzia batean gizonak gogo handikoak eta beste batean gogo urrikoak, batean zuhurak eta beste batean zuhurtzarikgabeak, batean egiaziak eta beste batean gezurtiak, Apostoluaren hartan bezala: *cretenses semper mendaces, malae bestiae ventris pigri*⁵⁶. Eta jan-edanetan zehar iragaten bagara, aurkituko dugu batzuek bertuteari lagundu eta bizioari kontra erraiten diotela, eta beste batzuek bizioari mesede egin eta bertuteari kontra egiten diotela, baina gizona nahi duena egiteko libre geldituz, harako haren arauz: *apposuit tibi aquam et ignem: ad quod volueris porrige manum tuam*⁵⁷. Zeren tenperamentu horietatik batek ere (gizonari bere zentzua kentzen ez bazaio) ez baitu ezertara behartzen, haserrera izan ezik.

Eta ohartzekoa da, gauzen behaketan eta haiez gogoetan arituz, gizonak tenperamentu berria eskuratzen duela bere gorputzaren atalek dutenaren gainean. Zeren, aitzinerago frogatuko dugunez, gizonak dituen hiru ahalmenetatik, oroimena, endelegua eta irudimena, irudimena da (dio Aristotelesek) nahi duena irudikatzeke libre den bakarra⁵⁸. Eta ahalmen horren obrei (diote Hippokratesek eta Galenok) atxikirik dabilta beti bizitasunezko izpirituak eta arterietako odola; eta nahi duen aldera jaurtikitzen ditu; eta bero natural hau doan lekuan parterik boteretsuena gelditzen da bere lana egiteko, eta gainerakoak indar gutxiagorekin⁵⁹. Eta, horrela, Galenok kontseilu ematen die Diana jainkosaren kantariei emakumeei beha egon ez daitezen, zeren hori egite hutsetik, haragizko egintzarik ere gabe, ugaltzeko tresnak berotzen baitzaizkie; eta Hippokratesek erran zuen bezala: *tussis sedatio, tumor testium, et e contra*⁶⁰. Eta baldin norbait hasten bada kontsideratzen eta gogoeta egiten beste batek egin dion laidoaz, berehala igoten zaio bero naturala eta odol guztia bihotzera, eta haserremena sendotu eta arrazoimena flakutzen; eta baldin kontsiderazioa pasatzen bada Jainkoak irainak barkatu eta geure etsaiei ongi egiteko manatzen duela pentsatzera, bero natural eta odol guztia burura doa, eta arrazoimena indartu eta haserremena ahultzen du. Eta horretara, irudimenarekin nahi dugun ahalmena indartzea geure esku dugularik, arrazoiz sarituak gara arrazoimena indartzen eta haserremena ahultzen dugunean, eta kausa justuaz erruduntzat hartuak izaten gara haserremena sendotzen eta arrazoimena flakutzen dugunean.

Hortik klarki aditzen da zein arrazoi handirekin gomendatzen duten filosofo moralek jainkozko gauzak gogoetan erabili eta kontsideratzea, hori egin hutsarekin arima arrazionalak behar duen tenperamentua erdietsi eta behaldekoko alderdia ahultzen dugulako. Baina bada gauza bat, kapitulu hau bukatu baino lehen ezin ixil dezakedana, hots, gizonak bertute-egintza guztiak burutzen ihardun dezakeela, gorputzean horretarako tenperamentu egokirik eduki ez arren, zailtasun eta trabailu handiarekin bada ere, zuhurtzi egintzak ez badira. Zeren, gizon bat Naturaren eskuetatik zuhurtzia gabeko gertatu bada, hori Jainkoak ez bestek erremedia baitezake. Eta gauza bera aditzen da justizia banatzaileaz eta gizonek ikasten dituzten arte eta zientzia guztiez ere.

III [1594.eko VI.a]

Non deklaritzen baita gorputzaren zein atalek egon behar duen ongi tenplaturik mutilak trebetasuna ukan dezan

Giza gorputzak hain atal eta ahalmen ugari (bakoitza bere helburuari aplikatua) dituen zera, ez dagoke xedetik kanpo, aitzitik, gauza premiazkoa dateke, jakitea ea zein atal ordenatu zuen Naturak tresna nagusizat gizona jakintsu eta zuhurra izan zedin. Ezen egia baita ez dugula zangoaz arrazoitzen, ez eta buruaz ibiltzen, ez sudurrekin ikusten, ez eta begiekin entzuten; baina atal horietako bakoitzak bere erabilera eta osaera berezia du egiteko duen obrarako.

Hippokrates eta Platon jaio aurretik, filosofo naturalen artean arras hedaturik zegoen bihotza¹ zela gure arrazoimena zetzan alderdi nagusia, eta bera zela gure arimak zuhurtzi, solertzi, oroimen- eta endeleguzko obrak egiteko zerabilen tresna²; eta horrela jainkozko Eskriturak, garai hartako mintzamolde komunari egokituz, anitz lekutan bihotza erraiten dio gizonaren alderdi gorenari. Baina behin bi filosofo handi hauek mundura etorri eta gero, aditzera eman zuten uste hura faltsua zela, eta anitz arrazoi eta esperientziarekin frogatu zuten burmuina zela arima arrazionalaren jarleku nagusia³; eta guztiek horrela onartu zuten, Aristoteles salbu, berau, Platoni gauza orotan kontra erraiteko gogoaz, lehenagoko uste hura berritzera bihurtu baitzen, argudio topikoekin hura gertagarri eginez⁴. Honez gero ez da garaia errankizun egiazkoena zein den eztabaidatzeko, ez baitu ezen filosofok aro honetan dudan jartzen burmuina dela Naturak gizona jakintsu eta zuhurra izateko ordenatu zuen tresna. Komeni den bakarra da, atal horrek, ongi antolaturik dagoela erran ahal izateko, zer nolako betebeharrak eduki behar dituen azaltzea, bai eta mutilak, arrazoi horregatik, argimen ona eta trebetasuna ukan ditzan ere.

Lau betebeharrak eduki behar ditu burmuinak arima arrazionalak harekin endeleguzko eta zuhurtziazkoak diren obrak erosotasunez egin ahal ukaiteko. Lehena eraketa ona; bigarrena bere zatiak ongi baturik egotea; hirugarrena, berotasunak hoztasuna ez gaitzetea, ez eta hezetasunak lehortasuna ere; laugarrena substantzia zati sotil eta hagitik delikatuaz osaturik egotea. Eraketa onean beste lau gauza sartzen dira. Lehena itxura ona; bigarrena kopuru nahikoa; hirugarrena burmuinean lau bentrakulu ezberdin eta berezi izatea, bakoitza bere jarleku eta tokian ezarria; laugarrena horien edukina beren obrei komeni zaiena baino handiagoa ez txikiagoa ez izatea.

Burmuinaren figura ona aipatzen du Galenok buruaren itxura eta eraketa kanpotik kontsideraturik, eta hartaz dio komeni den bezala litzatekeela, argizarizko bola arras biribila hartu eta hegaletatik leunki hertsatuz: honela kopeta eta garondoa konkorrak batekin geldituko lirateke⁵. Hortik segitzen da ezen gizonak kopeta hagitik leuna eta garondoa zapaldua duenean, ez duela haren burmuinak argimenak eta trebetasunak eskatzen duten figura.

Harrigarria da arimak gogoeta egin eta arrazoitzeke zenbat burmuin-kopurua behar duen, basa animalien artean ez baita bat bera ere aurkitzen gizonak bezainbat garun daukanik, halako moldez, non elkartuko bagenitu bi idi hagitik handiengan kausitzen direnak, ez lirateke gizon bakarrak daukanen parekoak izanen, hura den mendreana izan arren. Eta are ohargarriagoa dena: basa animalien artean giza zuhurtzia eta bereizmenera gehiago hurbilduz doazenek (tximinoa, azeria eta txakurra, adibidez), horiek burmuin kopuru handiagoa daukate besteek baino, gorpuzkeraz handiagoak izan arren. Horregatik erran zuen Galenok⁶ buru txikia beti ere akats bat zela gizonarengan, garun falta zuelako; baina, era berean, erran zuen ezen buru handia sortua bazen Naturak hura eratu zuenean gai franko eta gaizki apailatua zegoelako, seinale txarra dela, dena hezur eta haragia delako, garun hagitik gutxi edukiz; laranja handi handiei gertatzen zaienez, behin ireki eta gero mami gutxi eta azal txiki daukate eta. Deusek ere ez dio arima arrazionalari hainbat laidorik egiten nola egiten baitio hezurrez, koipez eta haragiz zamaturiko gorputzean egoteak*. Eta honela, erran zuen Platonek

gizon jakintsuen buruak eskuarki meheak zirela eta zernahi okasiotan aise mintzen zirela⁷; eta horren kausa Naturak aterpe gutxiz eginak izatean datza, argimenari irainik ez egiteko gogoaz, gai gehiegiaz zamatu gabe. Eta hain da Platonen doktrina hau egiazkoa, ezen urdailak, burmuinetik hain saihesturik egonik ere, hari irain egiten baito koipez eta haragiz beterik dagoenean; eta hori berresteko Galenok erretrau bat dakar, honela dioena: sabel lodiak endelegu lodia sortarazten du⁸. Eta honetan ez da beste misteriorik burmuina eta urdaila nerbio batzuekin loturik egotea baizik, horien bitartez elkarri beren kalteak komunikatuz⁹. Eta, aitzitik, urdail zimurtsu eta urria izateak argimenari laguntza handia ematen dio, goseti eta behartsuengan ikusi ohi dugun bezala; eta doktrina horretan oinarritu bide zen Persio, erran zuenean sabela zela gizonari argimena ematen ziona¹⁰.

Baina honi buruz gehienik ohartu behar dena hau da, ezen gorputzaren gainerako zatiak lodiak eta mamitsuak baldin badira, hortik gizona gorpuzkera handia erdietsiz, Aristotelesek dio horrek argimena alferrik galtzen diola¹¹. Horrexegatik sinetsirik nago ezen gizonak buru handia baldin badu, Natura arras sendo dagoelako eta gai ongi maneatu ugari eduki duelako, halere ez duela hain argimen ona ukan nola ukanen lukeen ertaina balitz. Aristotelesek kontrako iritzia du, gizona animalia guztietarik zuhurra izateko kausa zein den galdetuz; eta duda horri ihardesten dio erranez ez dela animalia bat ere gizonak bezain buru txikia duenik, bere gorputzarekiko; eta gizonen artean, zuhurrenak (berak dioenez) buru txikiena dutenak dira¹². Baina ez du arrazoirik; zeren berak gizon baten burua irekiko balu, eta daukan garun-kopurua balekusa, aurki lezake bi zaldik ez dutela elkarrekin haren besteko garaunik. Nik esperientziaz hau eriden dut, gorputz txikiko gizonengan, hobe dela burua handirantz lerratua izatea, eta gorpuzkera handiagokoen baitan txikirantz; eta honen arrazoia da gisa honetara kopuru ertaina aurkitzen dela, zeinekin arima arrazionalak ongi obratzen duen.

Hortik landa, burmuinean lau bentrakulu¹³ behar dira, arima arrazionalak gogoeta eta filosofatu egin ahal izateko. Bata burmuinaren eskuineko aldean ezarriarik egon behar du, bigarrena ezkerrekoan, hirugarrena bi horien erdian eta laugarrena burmuinaren atzeko aldean, figura honetan¹⁴ ageri den bezala. Bentrakulu hauek eta ahalmen zabal edo hertsiek arima arrazionalari zertarako balioko dioten, geroago erranen dugu, gizonaren baitako argimen-ezberdintasunak tratatzean. Baina, era berean, ez da aski burmuinak figura ona, kopuru nahikoa eta erran ditugun bentrakulu-kopurua edukitzea, bere edukiera handi edo txikiarekin; aitzitik, haren zatiek nolabaiteko jarraitasuna gorde behar dute, elkarrengandik banaturik izan gabe. Arrazoi horregatik ikusi dugu buruko zauriak ukaitean, gizon batzuek oroimena, beste batzuek endelegua eta beste batzuek irudimena galtzen dutela; eta kontu egizue osatu eta gero burmuina berriz elkartu zela, baina ez lehenagotik zuen lotura naturalean.

Lau kondizio nagusietarik hirugarrena burmuina ongi tenplaturik egotea da, bero moderatuarekin eta gainerako kalitateetarik gehiegizkorik ukan gabe; eta jarrera horri natura ona zeritzola erran genuen lehenago, horrexek baitu, printzipalki, gizona gai egiten, eta kontrakoak ezgai.

Baina laugarrena, burmuinak bere substantzia edo eraketa zati sotilez eta hagitz delikatuaz osatua edukitzea, Galenok dio guztietarik garrantzizkoena dela; ezen, burmuinaren eraketa onaren ezaugarri eman nahi ukanez, badio argimen sotila izatea burmuina zati sotilez eta txit delikatuaz osaturik dagoelako seinalea dela, eta endelegua geldoa bada, substantzia lodia argudiatzen duela; eta ez du temperamentuaren aipamenik egiten¹⁵.

Kondizio hauek eduki behar ditu burmuinak arima arrazionalak berarekin bere arrazoiak eta silogismoak egin ahal ukaiteko. Baina tartean eragozpen bat dago,

hagitz handia. Ezen, adimenik ez duen animalia baten burua irekitzen badugu, kausituko dugu haren burmuina gizonarenaren gisa eta era berean osaturik dagoela, aipaturiko kondizioetarik bat bera ere falta ukan gabe*. Hortik heldu da basa animaliek ere zuhurtziaz eta arrazoimenaz usatzen dutela beren burmuinaren eraketaz, edo gure arima arrazionala ez dela atal honetaz baliatzen bere obrak egiteko tresnatzat, baina hau ezin erran daiteke.

Zalantza honi hau erranez erantzuten dio Galenok: In animantium genere quod irrationale appellatur, nulla omnino data ratio sit, sane dubium est. Nam etsi caret ea quae in voce versatur, quam sermonem nominant, quae tamen animo concipitur, quam ratiocinium dicunt, eius fortasse particeps omne genus animalium est, quamque aliis partius aliis liberalius tributa sit. Se perfecto quam caeteris animantibus homo sit hac ipsa ratione praestantior, nemo est qui dubitet ¹⁶. Hitz hauekin aditzera ematen du Galenok, nolabaiteko beldurrez bada ere, basa animaliak arrazoimenaren partaide direla, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago, eta beren animuaren barnean zenbait silogismoz eta gogoetaz, horiek hitzez ezin azal ditzaketen arren; eta gizonak haiengandik duen ezberdintasuna are arrazionalago izan eta zuhurtziaz are hobeki baliatzean datza. Galenok berak frogatzen du anitz esperientziaz eta arrazoiez ezen astoek beren argimenaz, adimenik gabeko animalien arteko ergelenak izanik ere, Platonek eta Aristotelesek eriden zituzten gauzarik sotilen eta delikatuenak erdiesten dituztela; eta ondorio hori ateraz honela dio: Ergo tantum abest ut veteres philosophos laudem tamquam amplum aliquid magnaue subtilitatis invenerint, quod idem ac diversum, unum ac non unum non solum numero, sed etiam specie sit in audiendum, ut etiam ipsius asinis, qui tamen omnium brutorum stupidissimi videntur, hoc inesse natura dicam ¹⁷.

Hauxe berau sentitu nahi zuen Aristotelesek¹⁸ galdetu zuenean ea zein den gizona animalia guztietatik zuhurrena izateko kausa; eta beste leku batean galdetu zuen ea zein den gizona animalia guztietatik bidegabeena izateko arrazoia¹⁹. Horrekin Galenok aditzera eman zuen gauza berbera erranez: gizonagandik basa animalia gano dagoen aldea gizon ergelaren eta jakintsuaren artean dagoena bera dela, hori intentsitate-maila hutsa izanik. Hori egia bada, ez da dudatu behar adimenik gabeko animaliek oroimena, irudimena eta beste ahalmen bat dutela, berau endeleguaren gisakoa izanik, tximinoak gizonaren eitea duen bezalaxe. Eta haien arima burmuinaren eraketaz baliatzen dela arrunt gauza egiazkoa da; eta horrek, ona eta komeni den bezalakoa izanik, bere obrak ongi eta zuhurtzia handiarekin egiten ditu, eta baldin burmuina gaizki eraturik badago, errakuntza egiten du. Eta, horretara, badakusagu asto batzuk jakiturian halakoxeak direla, eta beste batzuk hagitz zorrotz eta maltzurak direla, beren espeziekoak gaindituz²⁰. Eta zaldien artean ere anitz zitalkeria eta bertute aurkitzen dira, eta batzuk beste batzuk baino diziplinagarriagoak dira; hori guztiori burmuina ongi edo gaizki antolatuz edukitzearen ondorioa izanez. Zalantza honen arrazoia eta soluzioa honi darraion kapituluaren emanen dugu, hor gai hau berriz ere ukitzen delako.

Badira gorputzean* beste zati batzuk, beren tenperamentua bai argimenaren eta bai burmuinaren menean dutenak; eta obra honen azken kapituluaren erranen ditugu²¹. Baina horiez eta burmuinaz landa, bada gorputzean beste substantzia bat, eta arima arrazionala horretaz baliatzen da bere obretan; eta horrela azken hiru kalitateak eskatzen ditu, burmuinak bezala, hots, kopuru nahikoa, substantzia delikatua eta tenperamentu ona. Hauek bizitasunezko izpirituak eta arteri odola ditugu, gorputz osoan zehar noraezean ari direnak, beti ere irudimenari atxikiak, horren behakuntzari darraizkiolarik. Substantzia izpirital horren ofizioa gizonaren ahalmenak iratzartzea eta indarra eta kemena ematea da, obratu ahal ukan dezaten.

Argiro ezagutzen da horien usarioa hauxe dela irudimenaren mugimenduak eta gero obran gertatzen dena kontsideraturik. Zeren, baldin gizona egin dioten irainen batez oroitzen hasten bada, arteri odola bihotzera berehala etorri eta haserremena iratzartzen zaio, mendekatzeko beroa eta indarrak emanez²². Eta baldin gizona ari bada emakume ederren bati behatzen, edo Venusen egintzan irudimenaz hartzen eta ematen ari bada, laster etortzen dira bizitasunezko izpiritu horiek ernaltze-organoetara eta obrarako altzarazten²³. Gauza bera gertatzen da akordura jaki delikatu eta gozoren bat heldu zaigunean: berehala gorputz guztia desenparatzen eta urdailera abiatzen dira, eta ahoa urez betetzen. Eta horren mugimendua hain lasterra da, ezen baldin emakume izarren bat zernahi jakiren apeta badu eta beti ere hura gogoetan badarabil, esperientziaz dakusagu behingoan ematen ez badiote, haurra galtzen ohi duela; eta horren arrazoi naturala hauxe da, bizitasunezko izpiritu hauek, nahikundea baino lehen, eta jakiaren irudipen berriarekin, urdailera datozela jateko gogoia piztera; bitartean, umontziak atxikimen handirik²⁴ ez badu, hura ezin gorde dezake, eta horrela galtzen du.

Galenok, bizitasunezko izpiritu hauen kondizioa endelegaturik, medikuei²⁵ kontseilu ematen die, humoreak gordinik eta egoteko daudenean, eriei jaten eman ez diezaiten; zeren, urdailean jaki bat dela sentitu bezain laster, egiten ari direna berehalaxe utzi eta hartara etortzen baitira, laguntzera.

Onura eta laguntza berbera hartzen du burmuinak bizitasunezko izpiritu horiengandik arima arrazionalak behatu, aditu, irudikatu eta oroitzapenik egin nahi duenean; eta horrelakorik gabe ezin obra dezake. Eta burmuinaren substantzia lodiak eta horren tenperamentu txarrak argimena alferrik galtzen duten bezala, era berean bizitasunezko izpirituek eta arteri odolak, delikatuak eta tenperamentu onekoak ez direnean, gizonari bere gogoeta eta arrazoiketa eragozten diote. Horrexegatik erran zuen Platonek²⁶ bihotzaren tenperamentu onak eta biguntasunak argimena zorrotz eta zoli bihurtzen dutela (lehenago frogatu ondoren burmuina zela, eta ez bihotza, arima arrazionalaren kokaleku nagusia); eta honen arrazoiak da bizitasunezko izpiritu horiek bihotzean sortzen direla, eta substantzia eta tenperamentu hori hartzen dute, horien eratzaileak zituenen arabera. Arteri odol horretaz aditzen da Aristotelesekin erran zuena²⁷: odola bero, delikatu eta garbia duten gizonak ongi eraturik egotea, batera gorputz-indar onekoak eta argimen hagitik zorrotzekoak.

Eta bizitasunezko izpiritu hauei medikuei Natura erraiten diete²⁸, horiexek baitira arima arrazionalak bere obrak egiteko darabilen tresna nagusia. Eta hauez ere errankizun hura egiazta daiteke: Natura facit habilem.

IV [1594.eko VII.a]

Non erakusten baita arima begetatiboa, sentibera eta arrazionala, inork irakatsiak izan gabe, jakintsuak direla, haien obrek eskatzen duten tenperamentu egokia ukanik

Lehen lau kalitateen tenperamentuak (lehenago Natura deitu genuena) landareek adimenik gabeko animaliek eta gizonek zeinek bere espezieari dagokion obrak egiten asma dezaten hainbesteko indarra du¹, ezen eduki dezakeen puntu hobezinean egotera etortzen bada, bat-batean, eta inork irakatsi gabe, landareek badakite lurrean sustraiak eratzen eta horietatik elikadura eskuratzen, hura eduki, egosi eta irazikinak egozten; eta adimenik gabeek, jaio bezain laster, badazagute beren izaerari ongi doakiona eta txar eta kaltegarri dutenetik ihes egiten. Eta filosofia naturalik ez dakienak gehienik harritzen duena hauxe da, gizonak, burmuina ongi tenplaturik eta zientziaren batek behar duen jarreraz horniturik duenean, bat-batean eta inorengandik inoiz ikasi gabe ere, hartaz sinetsi ere ezin daitezkeen gauzak erraiten eta hitz egiten duela.

Filosofo arruntek, adimenik ez duten animaliek egiten dituzten obra miresgarriak ikusirik, erraiten dute ez dela horregatik harritu behar berezko senaz egiten dutelako, horrek bakoitzari bere espeziean egin behar duena erakutsi eta irakasten baitio. Eta honetan hagitz ongi erraiten dute, jadanik errana eta frogatua baitugu Natura lehen lau kalitateen temperamentua besterik ez dela*, eta hauxe dela arimei nola obratu behar duten irakasten dien maisua. Baina haiek naturazko sena teiletatik gora igoten diren halako gauzen nahaste-borrasteari erraiten diote, eta ezin ukan dute hori inoiz azaldu ez eta aditzera eman ere².

Filosofo larriek, Hippokratesek, Platonek eta Aristotelesek kasu, obra miragarri hauek guztiok bero, hoztasun, hezetasun eta lehortasunean laburbiltzen dituzte; eta hau lehen hastapentzat hartu, eta ez dira hemendik iragaten. Eta adimenik gabeko animaliei harritzen gaituzten obrak egiten eta gizonoi arrazoitzen ea zeinek irakatsi zien galdetzen zaienean, Hippokratesek Natura omnium sine doctore³ erantzuten du; erran balu bezala: "ahalmenak, edo horiek oinarriturik dautzaneko temperamentua, guztiak jakintsuak dira, inorengandik ikasi gabe". Eta horrek hagitz argi dirudi arima begetatiboaren (eta gizona gobernatzen duten gainerako guztiak) kontsideraturik: ezen, giza haziaren pusketa bat tenperatura onean, ongi egosi eta ondurik edukiz gero, hortik gorputz hain ongi antolatua eta edera egiten da, non munduko tailatzaile guztiak ere kontrara ez bailukete egiten jakinen beste bat halakorik; bitartean, Galenok, hain fabrika miresgarria ikusteaz, haren zatien kopuruaz, haren egoitzaz eta figuraz, eta bakoitzak bere kabuz duen usuarioa eta ofizioaz harriturik, erran zuen ezin zitekeela arima begetatiboak ez temperamentuak hain obra pitxia egiten jakitea, eta haren egilea Jainkoak edo adimen arras jakintsuren batek izan behar zuela⁴.

Baina mintzatzeko era hau jada gaitzetsirik utzia dugu lehenago**, zeren filosofo naturalek ez baitute egoki ondorioak Jainkoaren baitara berehala laburbiltzea, bitarteko kausak kontatu gabe utzirik; eta kasu honetan areago, hor esperientziaz ikusten dugulako giza hazia substantzia txarrekoa baldin bada eta komeni den temperamentua ez badauka, arima begetatiboak mila aldrebeskeria egiten dituela. Zeren, behar baino hotzago eta hezeagoa baldin bada, Hippokratesek dioenez, gizonak txikiroak edo hermafroditak gertatzen direla⁵; eta arras beroa eta lehorra bada, muturluze, zangoker eta sudur zapalekoak, Etiopiakoak diren bezalakoak⁶; eta hezea baldin bada, dio Galenok berak, luze eta gangar irteten direla; eta lehorra izanik, gorputz txikiroak jaiotzen direla⁷. Eta hori guztiori giza espeziearen baitan itsuskeria handia da, eta horrelako obregatik ez da Natura laudatu behar, ez eta jakintsutzat eduki*. Eta baldin Jainkoa egilea balitz, kalitate horietako batek ere ezin liezaioke eragozpenik egin. Platonek dioenez, munduan izan ziren lehenbiziko gizonak ez beste egin zituen Jainkoak⁸; baina gainerakoak bigarren kausen jarraipidean jaiotzen ziren, horiekin, ongi ordenaturik daudenean, arima begetatiboak bere obrak hagitz ongi egiten dituelako, komeni den bezala ez badatoz, mila aldrebeskeria sortaraziz.

Ondorio honetarako naturazko ordena ona hauxe dateke: arima begetatiboak temperamentu ona ukaitea. Ezperez, erantzun bezate Galenok eta munduko filosofo guztiak: zein da arima begetatiboak gizonaren lehen adinean hainbeste jakituria eta ahalmen ukaiteko arrazoa (gorputza eratzeko, handitzeko eta elikatzeke), eta behin zahartzarua etorririk, hori ezin egitea? Zeren zaharrari hagin bat erortzen bazaio, ez baitago hori berriz sortzeko erremediorik; eta mutikoari guztiak faltatzen bazaizkio, badakusagu Naturak berriz sortarazten dizkiola. Bada, daitekeena ote da, bere bizitza osoan jakia irentsi, bera eduki, egosi, irazkinak egotzi eta falta diren zatiak birsortu besterik egin ez duen arimari, bizitzaren buruan hori guztiori ahantzi eta gehiago ezin egitea? Egia da Galenok erantzunen duela arima begetatiboa haurtzaroen jakintsu eta

ahaltsu izatea bero eta hezetasun natural handia izatetik heldu dela, eta zahartzaroan ezin egin dezakeela, eta jakin ere ez dakiela, adin horretan gorputzak duen hotz eta lehortasun handiagatik.

Arima sentikorraren jakituria bera ere burmuinaren temperamentuaren menean dago; beren obrek eskatzen dioten eta izan behar duen gisakoa baldin bada, horiek egiten hagitz ongi asmatzen ditu, eta bestela, erratu ere egiten ditu arima begetatiboaren irudira. Arima sentikorraren jakituria begien ikusmenaz behatu eta ezagutzeko, Galenok erabili zuen bidea ahume jaioberria hartzea izan zen; eta hura, behearen gainean utzirik, ibiltzen hasi zen, hankak hartarako eginak zirela irakatsi eta erran baliote bezala; eta horren ondoan, bere amarengandik atera zuen gehiegizko hezetasuna ondotik inarrotsi zuen, eta hanka altxatuta, belarriaren gibelean hatz egin zuen, eta haren aitzinean anitz gopor, ardoarekin, urarekin, ozpinarekin, olioarekin eta esnearekin, ezarri zizkiotenean, guztiak usnatu ondoan, esnea besterik ez zuen jan⁹. Eta han present zeuden anitz filosofok hori ikusirik oihuka erran zuten: "Arrazoi handia zuen Hippokratesek erran zuenean arimak jakintsuak zirela maisurik ukan gabe!"** Eta Galenok ez zuen hori egite hutsaz askietsi; baina bi hilabete iragan ondoren, larrera atera zuen gosekilik; eta anitz belar usnatu ondoren, ahuntzak alhatu ohi direnetarik besterik ez zuen jan.

Baina Galeno antxume horren obrei behatzen aritu zen bezala, beste hiruzpalau artean egin balu, ikus zezakeen batzuk besteak baino hobeki zebiltzala, hobeki inarrosten zirela, hobeki hatz egiten zutela eta kontatu ditugun obrak era hobean egiten zituztela. Eta Galenok bi zaldikoa haz balitza, guraso berberen kumeak, ikus zezakeen batak grazia eta airostasun handiagorekin ohondikatzen zuela¹⁰, hobeki ibili eta gelditzen zela, eta fideltasun handiagoa zuela. Eta belatz habia hartu eta haz balitza, aurkituko zukeen lehena hegalaria handia zela, bigarrena ehiztari bikaina eta hirugarrena lamiti eta ohitura txarrekoa. Gauza bera aurki zezakeen ehiza- eta erbi-txakurretan ere; zeren guraso berberen kume izanda, batak ez zuen falta ehizan mintzatzea besterik, besteari joera hori basabehe-mastinari baino gehiago atxikitzen ez zaion bitartean.

Hau guztiau ezin laburbil daiteke filosofoek asmatzen dituzten Naturaren sen hutsetan. Izan ere, galdetuz gero ea zergatik txakur batek beste batek baino sen handiagoa duen, bi-biak espezie berekoak eta aita beraren kume izanik, nik ez dakit zer ihardets lezaketen, beren makulura¹¹ itzultzea ez bada, erranez Jainkoak batari besteari baino gehiago irakatsi eta sen natural handiagoa eman ziola. Eta berriz ere galdetzen bazaie ea txakur on honek, gaztetan hain ehiztari ona denak, behin zaharturik zergatik ez duen horrenbesteko trebetasunik eta, alderantziz, zergatik gaztetan ehizan ez dakien eta zahartzaroan maltzurra eta trebea den, ez dakit zer ihardets dezaketen. Nik neuk, behinik behin, erran nezake txakur bat beste bat baino ehizarako trebeago izatea burmuinean temperamentu hobea izatetik heldu dela; eta batzuetan gaztetan ongi ehizatzea eta zaharretan hori ezin egitea, adin batean ehizarako trebetasunak behar duen temperamentua izatetik, eta bestean ez, izatetik datorrela. Eta hortik inferitzen da ezen, lehen lau kalitateen tenperatura adimenik gabeko animalia batek bere espezieko obrak beste batek baino hobeki egiteko arrazoia eta kausa denez, temperamentua dela arima sentikorrari zer egin behar duen irakasten dion maisua.

Eta baldin Galenok kontsidera balitza inurriaren bideak eta bideskak, eta haren zuhurtziari, haren bihozberatasunari, haren justiziarari eta* gobernazioari beha baliezaie, judizioa gal lezake, hain animalia txiki bat, jarraipide eta irakasteko maisurik gabe, hainbesteko jakituriarekin ikustean¹². Baina inurriak bere burmuinean duen tenperatura jakinik, eta jakituriarako (geroago erakutsiko denez) zein egokia den ikusirik, mirespena eten eta endelegatuko ditugu adimenik gabeko animaliek, beren burmuinaren temperamentuaren eta bost zentzuetatik sartzen zaizkien fantasmekin, ezagutzen

dizkiegun gogoetak eta** trebeziak egiten dituztela. Eta espezie bereko animalien artean, diziplinagarriena eta argitsuena burmuina ongien tenplaturik ukaitetik sortua dela; eta baldin okasio edo eritasunen batengatik burmuinaren tenperamentu ona alda balekio, laster zuhurtzia eta*** trebetasuna gal litzake, gizonari gertatzen zaion bezala¹³.

Oraingoan zailtasuna arima arrazionalan datza: ea nola berak ere bere espezieko obretarako sen naturala duen, hots, jakituria eta zuhurtziarako; eta nola, bat-batean, tenperamentu onagatik, jakin ditzakeen gizonak inori entzun gabeko zientziak; esperientzia hori erakusten baitigu, ezen ikasten ez badira, inor ez dela haiekin jaiotzen. Platonen eta Aristotelesen artean bada kontu arras eztabaidatua gizonaren jakituria nondik sor daitekeen jakiteko arrazoiaren eta kausaren gainean. Batak dio gure arima arrazionala gorputza baino zaharragoa dela; zeren, Naturak hau antolatu baino lehen hura jadanik zeruan baitzen Jainkoaren konpainian, eta hortik atera zen zientziaz eta jakituriaraz beterik; baina materia eratzeraz sartzean, hartan aurkitu zuen tenperamentu txarragatik, haiek guztiak galdu zituen, harik eta denboraren buruan tenperatura txarra hobetu arte, haren lekura beste bat etorritz, eta horrekin (galdu zituen zientziei egokitua izanik) pixkanaka jadanik ahantzia¹⁴ zuenaz oroitzera heldu zen. Iritzi hori faltsua da; eta horretan Platonek espantatzen nau, berak, hain filosofo handia izanik, giza jakituriaren arrazoa ematen ez jakin ez zuelako, adimenik gabeko animaliek beren zuhurtzia**** eta trebezia naturalak badituztela ikusiz, haien arima gorputzetik irten ez eta haiek ikastera zerura joan ez arren¹⁵. Horregatik ez dago errurik gabe, areago hain zinez sinesten zuen Genesian hau irakurria ukanik¹⁶, Jainkoak lehenik Adamen gorputza antolatu zuela arima kreatu baino lehen. Horixe berori gertatzen da orain ere, Naturak gorputza sortzen duela eta azken unean Jainkoak arima gorputz berean kreatzen duelako salbuespenaz, hartatik kanpoan denborarik ez eta unerik bat ere egon gabe¹⁷.

Aristoteles beste bide batetik abiatu zen, erranez¹⁸: *omnis doctrina omnisque disciplina ex praesistenti fit cognitione*; erran balu bezala: "gizonek dakiten eta ikasten duten guztia, hori entzun, ikusi, usaindu, dastatu eta ukitua izatetik sortzen da, ezinezkoa baita endeleguan notiziarik bat ere egotea aurretik bost zentzu horietako batetik iragan gabe".

Eta, horrela, erran zuen¹⁹ ahalmen horiek Naturaren eskuetatik jalgitzen direla "pinturarik bat ere ez duen ohol leun baten gisara". Eta iritzi hori ere faltsua da, Platonena bezala. Eta hori hobeki adieraz eta frogaraz dezagun, lehenik filosofo arruntekin* batera etorri behar dugu giza gorputzean arima bat besterik ez delakoan, eta hura arrazionala dela, egiten eta obratzen dugun guztiaren hastapen dena**; honetan ere iritzi batzuk baitira, eta, aitzitik, ez da falta, arima arrazionalaren konpainian, beste bi edo hiru direla dioenik ere²⁰.

Beraz, horrela izanik, arima arrazionalak begetatibo moduan egiten dituen obretan, jadanik frogatua dugu gizona eratzen eta ukan behar duen figura ematen dakiela; eta elikadura ekartzen, hura edukitzen, egosten eta iraizkinak kanporatzen; eta baldin gorputzean zatiren bat falta bada, hori berriz egiten daki, eta erabileraren arauz behar duen eraketa ematen ere bai. Eta sentimen eta higimenezko obretan, behingoan daki haurrak, behin jaiotz gero, edoskitzen eta ezpainak mugitzen esnea ateratzeko, eta hain trebetasun handiarekin, non ezein gizonek, jakintsuena izanik ere, ez bailuke horrela egiten asmatuko; eta horrekin bere izaera kontserbatzeko komeni diren kalitateak igartzen ditu, kaltegarri eta mingarri zaionetik ihes egiten du, eta irri eta negar egiten daki inorengandik ikasi gabe²¹. Eta ezperez, erran bezate filosofo arruntek ea nork irakatsi zien umeei obra horiek egiten, edo zein zentzuz heldu zitzaion hori. Ongi dakit ihardetsiko dutela Jainkoak eman ziela berezko sen hori, adimenik gabeko animaliei

bezala; eta horretan ez diote gaizki, baldin berezko sen hori eta temperamentua gauza bera bada²².

Arima arrazionalaren obra propioak, endeleгатzea, irudikatzea eta oroimen-egintzak egitea ezin egin ditzake gizonak jaio bezain laster; haurtzaroko temperamentua hartarako arras desegokia delako, eta erabat egokia begetatibo eta sentikorrerako; zahartzarokoa bezala, arima arrazionalerako egokia eta begetatibo eta sentikorrerako txarra. Eta zuhurtasunerako balio duen temperamentua burmuinean pixkanaka erdiesten delarik, baldin den behingoan bil ahal baledi, bat-batean gizonak hobeki lekike gogoeta egiten eta filosofatzen eskoletan ikasi balu baino; baina Naturak denboraren buruan hori ezin egin dezakeenez gero, horrelaxe ari da gizona pittinka-pittinka jakituria eskuratzen. Eta hauxe dela arrazoa eta kausa argiro frogatzen da kontsideratuz ezen, gizon bat arras jakintsua izan ondotik, pixkanaka ergel bilakatuz doala kontsideraturik, egunez egun (makurtze-adinarean aldean) aurkako beste temperamentu bat eskuratzen duelako. Nik neure kautarako aditurik daukat Naturak gizona hazi bero eta hezetik egiten duen bezala (hauxe baita begetatiboari eta sentikorrari zer egin behar duten irakasten diena), hazi hotz eta lehorretik eratuko balu, jaio bezain laster gogoeta egiten eta arrazoitzen lekikeela, baina ez lukeela edoskitzen asmatuko, tenperatura hori horrelako obretarako desegokia delako²³.

Baina, burmuinak natur zientziek eskatzen duten temperamentua daukanean, ez dela hori irakasten digun maisurik behar* esperientziaz aditzeko, egunoro gertatzen zaigun gauza batez ohartu beharra dago. Eta hau da, gizona eritasunen batean erortzen bada zeinengatik burmuinari bat-batean bere tenperatura aldatzen zaion (adibidez, mania, malenkonia eta zorabioa)²⁴, une batez, zuhurra bada, dakien guztia galtzea gertatzen zaiola, eta mila zozokeria erraiten ditu; eta ergela baldin bada, lehen zuena baino argimen eta trebetasun handiagoa erdiesten duela**.

Baserritar nekazari batez erran dezaket, zorabiaturik zegoela, ene aitzinean arrazoiketa bat egin zuela bere ingurukoei bere osasuna gomendatu eta bere seme-alabak eta emaztea begiratzeko eskatuz, baldin eritasun hartatik Jainkoak beragana eramatea baletsa, hainbeste era erretorikoz, hain dotoretasun handiz eta hitz-politasunaz, nola Ciceronek Senatuaren aitzinean egin zezakeen. Eta inguruan zirenek, hartaz miretsirik, galde egin zidaten ea nondik etor zekioken hainbesteko bokantza eta jakituriarik osasunean zegoenean solasean ez zekien gizon hari; eta gogoan dut ihardetsi nuela hizlaritza halako berotasun-puntu batetik sortzen dela, eta baserritar nekazari horrek jada halakoa zeukala eritasunagatik²⁵.

Beste zorabiatu batez erran dezaket zortzi egun baino gehiagotan ez zuela hitzik erran, horri bere hoskidea aurkitu gabe, eta gehienetan koplak biribildu ongi paratua egiten zuela. Eta ingurukoak, gizon hura bertsotan mintzatzen entzuteaz espantaturik, osasunean zegoenean ez baitzuen jakin behin ere hala egiten, erran nuen oso gutxitan gertatzen zela inor zorabioan poeta izatea, osasunean halakoa bazen; zeren gizona osasuntsu dagoenean burmuinak daukan temperamentua, zeinekin poeta den, eskuarki eritasunean desegin behar baita, aurkako obrak egiteko²⁶. Oroitzen naiz zorabiatu horren emazteak, eta beraren arrebak, Marigarcia deituak, errieta egiten ziotela sainduetz gaizki erraiten zuelako. Eta eriak, horretaz haserre, bere emazteari honela erran zion: "Hortaz uko egiten diot Jainkoari, zure amoreagatik, eta Andre Dona Mariari, on baiteritzot Marigarcinari, eta Jaun Done Petriri, Juan de Olmedoren amoreagatik"²⁷. Eta horrela anitz saindu aipatu zituen, han inguruan ziren gainerako lagunen izenen hoskidetasunean.

Baina hau huskeria eta munta gutxiko kontua da erresuma hauetako Handiki baten sehiak, burutik galdua zegoenean, erran zituenekin alderaturik. Hura, osasunean

zegoela, argimen urriko mutiltzat zeukaten, baina eritasunean erori eta gero, hainbeste grazia erraiten zituen, hainbeste goitizen, eta galdetzen ziotenari ematen zizkion erantzuerak, eta bere burua jauntzat zeukan ustezko erresuma gobernatzeko egiten zituen plantak eta itxurak hainbat ziren, non jendeak hura ikustera eta entzutera etortzen baitzen, eta haren jauna bera ere ez zen haren oheburutik inoiz aldentzen, Jainkoari otoitz eginez senda ez zedin. Eta ondoan hori hagitz argi argertu zen. Zeren, behin sehi hori eritasun horretatik libratu eta gero, haren ardura zerabilen medikua jaunagana joan zen, agur egitera, harengandik zenbait golardo edo hitz onik errezibitzeko asmoz; baina hark honela erran zion: "Neure hitza ematen dizut, doktore jauna: ezein gertakari txarretik ez dut behin ere pena handiagorik ukan, sehi hau osasunean ikustetik baino; zeren ez baita arrazoirik, hain eromen zuhurra hain zentzu dorpe bilaka dakion, honi osasunean gelditu zaionaren gisakorik. Eta iruditzen zait zuhur eta zentzudun izatetik ergel bilakarazi duzula, gizonari gerta dakioken miseriarik handiena berau". Medikua gaixoa, bere osasunbideak zein esker txarra ukan zuen ikusirik, sehiari agur erraitera abiatu zen; eta elkarrekin tratatu zituzten anitz gauzaren azken ondorioan, sehiak honela erran zion: "Doktore jauna, nik mun egiten dizut eskuetan egin didazun fabore handiagatik, neure sena bihurtarazi baitidazu; baina neure hitza ematen dizut, ala naizenaren fedea, nolabait damu dudala sendatu izana, neure eromenean nengoenean munduko kontsideraziorik gorenetan bizi bainintzen, eta hain jaun handia izateko usteaz, ez zen lurrean erregerik bat ere ene menekoa ez zenik. Eta hura burla eta gezurra izateak, zer axola zuen ba? hartaz egia izan balitz bezainbat gozatzen bainintzen²⁸. Hagitzez makurragoa da oraingoa, egiaz sehi gaixo bat naizela dakusadalarik, eta bihar zerbitzatzen hasi behar dut, eri nengoenean, neure lekaiotzat ere onartuko ez nukeena"²⁹.

Hau guztia ez da aski filosofoek ontzat eman eta hala izan zitekeela sinets dezaten. Baina, baldin nik erran baniezaie orain, historia arras egiazkoen bitartez, gizon ezjakin batzuk, eritasun hori pairatzen zutelarik, latinez mintzo izan zirela, osasuntsu zeudenean hura ikasi gaberik? Eta emakume zorabiatu batek bera bisitatzerantz sartzen ziren pertsonetako bakoitzari bere bertute eta bizioak erraiten zizkiola, eta batzuetan aieruz eta seinalez mintzo direnen segurtasunaz igartzen zuela³⁰, eta horregatik inor ez zela ausartzen hura ikustera sartzera, erraiten zituen egien beldurrez? Eta miresentzen handiena sortu zuena izan zen odola ateratzen ari zitzaien barberuari hau erraitea: "Ikusazu, Urtia, zer egiten duzun, bizitzeko hagitz egun gutxi dituzulako, eta zure emaztea Sandiarekin ezkonduko da". Eta, ustekabean bada ere, haren iragarpena hain egiazkoa izan zen, non handik urte erdira bete baitzen.

Jadanik irudi zait filosofia naturaletik iheska doazenei entzuten diedala erraiten hau guztia burla eta gezur hutsa dela, eta menturaz egia izan bada, deabrua, jakintsu eta sotila denez, Jainkoak hala egiten utzirik, emakume horren eta erran ditugun gainerako zorabiatuen gorputzetan sartu zela, eta gauza harrigarri horiek erranarazi zizkiela. Eta hau aitortzea ere aldapan gora egiten zaie, deabruak ez baitaki etorkizunaren berri, profezi izpiriturik ez duelako³¹. Argudio sendotzat hauxe erraitea dute haiek: "hori faltsua da nik nola izan daitekeen endelegetzen ez dudalako", gauza zailak eta hagitz delikatuak endelegu zirtzilen menpe baleude eta haiek endelega ditzaten utziko balute bezala.

Nik ez ditut hemen argimenik gabeak komentzitu nahi, hori alferlana baita³², baizik eta Aristotelesi aitortaraztea gizonen, beren obrek behar duten temperamentua daukatenean, anitz gauza jakin ditzaketela, haiez zentzu berezirik ukan ez arren eta inori ikasi gabe:

Multi etiam propterea quod ille calor sedi mentis^c in vicino est, morbis vesaniae implacantur aut instinctu lymphatico infervescunt, ex quo Sibillae efficiuntur, et

Baccgae, et onmes qui divino spiraculo instigari creduntur, cun scilicet id, non poeta etiam praestantior erat dum mente alienaretur. Et quibus nimius ille calor remissus ad mediocritatem fit, ii prosus melancholici quidem, sed longe prudentiores³³. Hitz hauekin klarki aitortzen du Aristotelesek, burmuina sobera berotzen zaielako, anitz gizonak etorkizuna jakin ere jakiten dutela, sibilen antzera; eta hori, Aristotelesek dioenez, ez da sortzen eritasunaren kausaz, bero naturalaren ezberdintasunagatik baizik³⁴. Eta arrazoia eta kausa hauxe dela argiro frogatzen du exenplu batez, erranez Marko syrakusarra are poeta bikainagoa zela, burmuineko bero handiegiagatik, bere senetik kanpoan zegoenean; eta berriz epeltzera etorri eta gero, bertsogintza galtzen zuela, baina zuhurrago eta jakintsuago gelditzen zela. Beraz, Aristotelesek gauza estrainu hauek kausa nagusia zirela eta, burmuinaren temperamentua onartu ez eze, hau, gauza naturala ez baina jainkozko iradokizuna³⁵ dela diotenei errieta egiten die. Gauza miragarri hauei jainkozkotasunak erran zien lehenbizikoa Hippokrates izan zen: et si quid divinum in morbis habetur, illius quoque ediscere providentiam³⁶, errankizun horrekin medikuei aginduz ezen eriek jainkozkotasunik erraiten balute, jakin zezatela ezagutzen zer diren eta iragartzen zertan geldituko diren³⁷. Baina puntu honetan honexek harritzen nau gehienik: Platoni galdetuz gero ea nondik sort daitekeen aita ber baten seme bitatik batak inork irakatsi gabe bertsogintzan jakitea, eta besteak, poesia artean lanean aritu arren, holakorik ezin egitea, hark ihardesteak ezen poeta jaio zena deabruak hartua dagoela eta bestea ez³⁸. Eta, horrela, arrazoia ukan zuen Aristotelesek hari errieta egiteaz, kontua temperamentura bil baitzezakeen, beste batzuetan egin zuen bezala³⁹.

Zorabiatua, osasunean ikasia izan gabe, latinez mintzatzeak latindar hizkuntzak arima arrazionalari egiten dion kontsonantzia erakusten du. Geroago frogatuko dugunez, bada hizkuntzak asmatzeko argimen berezi eta egokirik; eta latin hitzak eta hizkuntza honek mintzatzeako dituen erak hain arrazionalak dira, eta belarrietan hain kontsonantzia ona egiten dute, non arima arrazionalak hizkuntza hagitz dotorea asmatzeko temperamentua erdietsi bezain laster, berehala harekin topo egiten duen. Eta hizkuntz asmatzaile bik (argimen eta trebetasun berbera edukiz) hitz berberak itxuratu ahal ukaitea erraz aditzen den gauza da, kontsideraturik ezen Jainkoak Adam sortu eta haren aitzinean gauza guztiak ezarri zizkion bezala, bakoitzari erran behar zitzaion izena ezar ziezaiion⁴⁰, ondotik beste gizon bat hobezintasun eta naturaz gaindiko grazia berberaz molda baleza, nik orain hau galdetzen dut: baldin Jainkoak honi gauza berberak ekar baliezazkio, ukan behar zuten izena eman ziezaien, nolakoak lirake? Nik ez dut dudarik egiten Adamen izen berberekin asmatuko lituzkeela; eta arrazoia hagitz argia da, zeren biek gauzaren izaerari begiratu beharko batzioketen⁴¹, eta hori bat besterik ez zen. Honela topo egin zezakeen zorabiatuak latin hizkuntzarekin eta hartan mintzatu osasunean zegoenean ikasi gaberik ere; zeren, eritasunean haren burmuinaren temperamentu naturala deusezturik, latin hizkuntzaren asmatzaileak zuena bera eskura baitzezakeen zati batean, eta hitz berberak asmatu (baina ez, ordea, horrenbeste kontzertu eta dotorezia etengabearekin, hor, deabruak mihia darabilelako seinalea agertzen delako, Elizak bere exortzistei irakasten dien bezala)⁴².

Hauxe berau dio Aristotelesek gertatu zaiela haur batzuei, jaio bezain laster hitz espresu batzuk erran zituztela eta ondotik berriz ixildu zirela⁴³; eta bere garaiko filosofo arruntei errieta egiten die, ondorio horren kausa naturala jakin gabe, hor deabruaren eskua ikusi uste zutelako. Haurrak jaiotzean mintzatzeako eta gero berriz ixiltzeko arrazoia eta kausa ez zuen Aristotelesek behin ere aurkitu, horri buruz hainbat gauza erran zituen arren; baina ez zitzaion endeleguan behin ere sartu hura deabruaren

imintzinoa zatekeela, ez eta naturaz gaindiko ondorioa ere, filosofo arruntek pentsatzen duten bezala. Izan ere, horiek, filosofia naturaleko gauza sotil eta delikatuak inguratutik aurkitzen direnean, gutxi dakitenei ulertarazten diete Jainkoa edo deabrua direla ondorio arraro eta miragarrien autoreak, haiek horien kausa naturalak ez jakin ez ulertzen dituztelako.

Hazi hotz eta lehorretik sortzen diren haurrak, eta halakoak dira zahartzaroan izanikoak, jaio eta handik egun eta hilabete gutxiren buruan hasten dira gogoetan eta filosofatzen; zeren tenperamentu hotz eta lehorra, geroxeago frogatuko dugunez, arima arrazionalaren obretarako txit egokia baita⁴⁴, eta denborak, egun eta hilabete ugariak egin beharko zuketena, burmuinaren bat-bateko tenplantzak bete zuen, horrexek aurrea hartuz, horretarako diren anitz kausarengatik. Beste ume batzuk, dio Aristotelese⁴⁵, jaio bezain laster hizketan hasi zirela, eta ondoan ixildu zirela harik eta mintzatzeko behar den ohiko adin egokira heldu arte; eta ondorio horrek lehenago sehiaraz, gainerako ero eta zorabiatuez, eta osasunean hura ikasi gabe supituki latinez mintzo zen hartaz erran dugun kontu eta arrazoi berbera du. Eta haurrek, beren amaren sabelean daudenean eta behin jaio eta gero, eritasun berberok paira ditzaketela, ezin ukatzeko gauza da.

Emakume zorabiatuak iragartzea nola izan zitekeen, hobeki adieraz niezaioke nik Ciceroni filosofo natural hauei baino. Zeren gizonaren natura zifratzean, honetara erran baitzuen: animal providum, sagax, multiplex, acutum, memor, plenum rationis et consilii, quem vocamus hominem⁴⁶. Eta, bereziki, honela dio: gizon batzuen naturak etorkizunaren berri jakiten beste batzuei abantaila daramakiela: est enim vis et natura quaedam quae futura praenuntiat; quorum vim atque naturam ratio nunquam explicuit⁴⁷. Filosofo naturalen errakuntza hemen datza, ez kontsideratzean (Platonek egin zuen bezala) gizona Jainkoaren irudira egina izan zela, eta haren jainkozko aurrikuspenaren⁴⁸ partaide dela, eta denborazko hiru diferentziak orojakiteko ahalmenak dituela: iraganerako oroimena, presentekorako zentzuak, eta etorkizunerako irudimena eta entelegua. Eta gizon batzuek iraganiko gauzez oroitzen beste batzuei abantaila daramakieten bezala, eta beste batzuek presentekoa jakiten, era berean anitz dira, etortzeko dagoena asmatzen trebetasun natural handiagoa dutenak ere⁴⁹. Arima arrazionala ustelezina zela Ciceron sinestarazi zuten argudio handienetako bat hau izan zen, eriek etorkizuna nolako segurtasunaz erraiten zuten ikustea, eta bereziki hil-hurran zeudenek⁵⁰. Baina profezi izpirituaren eta argimen natural honen artean bada ezberdintasunik, Jainkoak profeten ahoz dioena hutsezina baita, haren hitz adierazi berezia delako, eta gizonak bere irudimenaren indarrekin iragartzen duenak, aldiz, ez du halako segurtasunik.

Emakume zorabiatu hark bera ikustera sartzen ziren pertsonen aurkitzen zituen bertute eta bizioak deabruaren arterioa zela ziotenek, bekite Jainkoak gizonei nolabaiteko grazia naturaz gainekoa ematen diela zeintzuk obra diren Jainkoarenak eta zeintzuk deabruarenak bereiztu eta jakiteko, eta hori Jaun Done Paulok jainkozko dohainen artean sartzen du, discretio spirituum⁵¹ deiturik; eta horrekin ezagutzen da deabrua ala aingeru onen bat ote den ukitzera heldu zaiguna. Anitzetan deabrua etortzen baita, aingeru onaren antzaz, gu engainatzera, eta beharrezkoa da grazia eta naturaz gaineko dohain hau hura ezagutu eta onetik bereizteko*. Dohain honetatik urrunago daudeke filosofia naturalerako argimenik ez dutenak (zientzia hau eta Jainkoak goitik ematen duen naturaz gainekoa ahalmen beraren gainera jausten direlako, hots, endeleguan), egia baldin bada (gehienbat) Jainkoak erabakitzen duela graziak bakoitzaren izaera onaren arabera banatzea, gorago erran dudan bezala.

Jakob hiltzeko puntuan zelarrik, hori baita arima arrazionalak etorkizuna ikusteko libreenik duen denbora, hura ikustera bere hamabi semeak sartu zitzaizkion eta bat bederari bere bertute eta bizioak erran zizkion eta haien eta haien ondorengoen gainera gertatzeko zena profetizatu zuen⁵². Hau Jainkoaren izpirituan egin zuela egia da. Baina jainkozko Eskriturak eta gure fedeak hori segurta ez baliezagute, zertan ezagut lezaketeko filosofo natural horiek hori Jainkoaren obra zela eta emakume zorabiatuak bera ikustera sartzen zirenei agertzen zizkien bertute eta bizioak, aldiz, deabruaren indarrez erraiten zituela, kasu hau, alde behintzat, Jakobaren gisakoa izan arren?*

Horiek pentsatzen dute arima arrazionalaren natura eta deabruak duena elkarrengandik arras urrun daudela eta haren ahalmenak (endelegua, irudimena eta oroimena) beste genero erabat ezberdinekoak direla. Eta engainaturik daude. Zeren arima arrazionalak gorputz hagitz ongi antolatua eratzen badu, Adamena zen bezalakoa, deabrurik abisatuenak baino pixka bat gutxiago besterik ez daki; eta gorputzetik kanpoan, hark bezainbat ahalmen delikatu dauzka. Eta deabruak etorkizuna asmatzen badute, seinaleren batzuen bidez aieruak eta gogoetak eginez, horixe bera egin dezake arima arrazionalak ere gorputzetik bere burua askatuz doan neurrian edo gizona aurikusmenaz⁵³ hornitzen duen tenperamentu ezberdintasun hura eskuratzen duenean. Eta, horrela, zailtasun berbera du endeleguak deabruak sotiltasun hauek nola jakin ditzakeen aditzeko, edo horiek arima arrazionalaren gainera egozteko. Horiei ez zaie endeleguan sartzen badiratekeela gauza naturaletan seinale batzuk, horiexen bidez etorkizuna jakiteko, eta nik diot badirela iragana eta oraina asmatzeko aieruak, eta etortzekoa antzemateko, bai eta Zeruko zenbait sekretu hautemateko ere: invisibilia enim ipsium, a creatura mundi, per ea quae facta sunt, intellecta, conspiciuntur⁵⁴. Horretarako ahalmenik duenak erdietsi egingen du, eta bestea Homerok erran zuenaren gisakoa izanen: "iragana konprenitzen du ergelak, baina ez etortzekoa". Baina abisatu eta diskretua Jainkoaren tximinoa da⁵⁵, anitz gauzatan imitatzen baitu; eta horiek hainbesteko bikaintasunez egin ditzakeen arren, halere Harekin nolabaiteko antza du haren atzetik joatean.

V [1594.eko VIII.a]

Non frogatzen baita hiru kalitate bakar hauetatik, bero, hezetasun eta lehortasunetik, jalgitzen direla gizonaren baitan diren argimen ezberdintasunak oro

Arima arrazionala gorputzean delarik, ezinezkoa da obra ezberdinak eta kontrakoak egitea baldin eta horietako bakoitzerako tresna berezirik [ez] badu. Hau argiro ageri da animali ahalmenean, horrek kanpoko zentzuetan zenbait obra egiten baitu, horietako bakoitzak bere eraketa berezia duelako: bat begiek dute, beste bat belarriek, beste bat gustuak, besteak usaimenak eta beste bat ukimenak¹. Eta horrela ez balitz, ez legoke genero bakarreko obrak besterik, edo guztia ikustea litzateke, edo dastatzea, edo ukitzea, tresnak egintza baterako eta ez gehiagorako ahalmena mugatzen eta aldatzen duelako.

Kanpoko zentzuetan nabari eta argiro gertatzen den honetatik atera dezakegu barrukoetan barna zer dagoen. Animalia bertute honekin berarekin endelegatzen, irudikatzen eta gogoratzen dugu; baina egia bada obra bakoitzak bere tresna berezia behar duela, nahitanahiez*, han barnean, burmuinean, endelegurako organoa egon beharra dago, eta irudimenerako organoa, eta beste ezberdin bat oroimenerako². Zeren burmuin guztia era berean antolaturik balego, oro oroimen, edo oro endelegu, edo oro irudimen bailitzateke. Eta hagitz obra ezberdinak direla dakusagunez gero, beraz, nahitanahiez tresna ezberdintasunik ere izan beharra dagoke. Baina behin burua irekirik eta burmuinaren anatomia egin eta gero, dena antzeko gai homogeneoz osaturik dago,

bestelako zati heterogeneorik gabe. Lau sabel txiki besterik ez dira ageri, eta horiek guztiok, ongi begiraturik, osaera eta figura berbera dute, tartean elkarren irudiko ez den gauzarik gabe.

Horien erabilera eta probetxamendua zein den, eta buruan zertarako balio duten, ez da mugatzeko erraza; zeren Galeno eta anatomistak, bai modernoak eta bai antzinakoak ere, hori jakiten ahalegindu dira, eta batek ere ez du zehazki ez partikularki erran zertarako balio duen eskuineko bentrikuluak, ez eta ezkerrekoak ere, ez bi hauen erdian kokaturik dagoenak, ez eta laugarrenak ere, zerebeluan ezarria denak, buruaren atzeko aldean. Erran zuten bakararra, beldurrez bada ere, izan zen lau barrunbe hauek bizitzaren izpirituak egosi eta animalia bilakatzen zireneko ofizinak³ zirela, gorputzaren atal guztiei zentzu eta mugimendua emateko; obra horretan behin Galenok erran zuen erdiko bentrikuluak lehentasuna zuela, eta beste pasarte batean, aldiz, iruditu zitzaion azkena zela eraginkortasun eta balio handienekoa⁴. Baina doktrina hau ez da egiazkoa eta ez dago filosofia natural onean oinarriturik**. Ez baitira bi obra giza gorputzean hain kontrario eta elkarri hainbat eragozten diotenik, nola diren arrazoitzea eta janariak egostea; eta horren arrazoia da behatzeak animalia izpirituetan gelditasuna, sosegua eta argitasuna eskatzen dituela, eta egostea abarrots eta zalaparta handiz egiten da, eta obra horretatik anitz lurrun jaikitzen dira, animalia izpirituak uhertu eta ilunduz, eta horren kariaz arima arrazionalak ezin ikus ditzake figurak⁵. Eta Naturak ez zuen hain zuhurtzia urria, toki berean elkarri horrenbeste higuin dioten bi obra elkartzeko. Aitzitik, Platonek⁶ eratu gintuenaren zuhurtasuna eta jakitea gorai patzen ditu, gibela eta burmuina elkarrengandik hain urrun ezarri zituelako, alimentuak nahastean egiten den hotsarekin eta horiek animalia izpirituetan lurrunek sortarazten duten iluntasun eta belztasunarekin, arima arrazionalari bere gogoeta eta pentsabideetan eragotz ez liezaioten. Baina Platonek filosofia honetaz oharririk egin ez balu ere, hori esperientziatz ordu oro dakusagu, gibela eta urdaila burmuinetik hain saihesturik egon arren, zeren behin jaten amaitu eta gero, eta geroago ere, ez baita gizon bat ere estudia dezakeenik.

Egia erran, badirudi puntu honetan laugarren bentrikuluak bizi-izpirituak egosi eta aldatzeko zeregina duela, errana dugun xederako animalia izpiritu bilakatzeko, eta horrexegatik aldendu zuen horrenbeste Naturak beste hiruretatik, eta zerebelu bihurtu, banaturik eta dirudien bezain urrundurik, bere obrarekin gainerakoen behaketa eragotz ez zezan. Nik ez dut dudarik egiten Naturak aurreko hiru bentrikuluak egin zituela gogoeta egiteko eta filosofatzeko, eta hori klarki frogatzen da estudio eta behaketa nagusietan beti buruaren alde horrek min ematen duelako, hots, hiru barrunbe horiei dagokienak. Argudio honen indarra ezagun da kontsideraturik ezen, gainerako ahalmenak beren obrak egiteaz nekaturik, betiere horietan ihardun duten tresnek ematen dutela mina; sobera ikusteaz begiek eta luzaz ibiltzeaz oin-zolek min ematen duten bezala.

Orain zailtasuna hau jakitea da, ea bentrikulu hauetarik endelegua zeinetan datzan, zeinetan oroimena eta zeinetan irudimena; zeren, hain elkarrekin eta auzorik daudenez gero, erraniko argudioaz, ez eta beste ezein aieruz ere, ez baita hori bereizten ahal, ez eta ezagutzerik ere. Halere, endeleguak oroimena present egon gabe ezin obra dezakeela kontsideratuz, (hari figurak eta fantasmak irudikatuz, oportet intelligentem phantasmata speculari ⁷ delakoaren arabera), ez eta oroimenak harekin batera irudimenak ez badihardu, lehenago argiturik utzi dugunez, aise konprenituko dugu hiru ahalmen hauek bentrikulu bakoitzean elkarrekin direla, eta ez dagoela endelegua bakarrik batean, ez eta oroimena bakarrik bestean, ez eta irudimena hirugarrenean ere, filosofo arruntek pentsatu duten bezala. Ahalmenen batze hau giza gorputzean egin ohi da bata ezin obra dezakeenean besteak lagundu gabe, lau bertute naturaletan ageri den bezala: tractris,

retentrix, concoctrix, expultrix; eta elkarren premia dutenez gero, Naturak leku berean bildu zituen, eta ez zituen banatu ez eta apartatu ere.

Baina, hau egia baldin bada, nolako xedeaz egin zituen Naturak hiru bentrikulu eta haietariko bakoitzean elkartu zituen hiru ahalmen arrazional osoak, aditzeko^a eta oroimen-egintzak egiteko bat aski baldin bazen? Honi erantzun dakioke zailtasun berbera duela ea Naturak bi begi eta bi belarri zergatik egin zituen jakiteak, horietako bakoitzean ikusteko eta entzueko ahalmen osoa baitago, begi bakarraz ere ikus daitekeenez gero. Honi ihardesten zaio erranez ahalmenak animalia hobetzeko ordenatzen direla, eta zenbat eta haien kopurua handiagoa izan, are seguruago dagoela haren hobakuntza, zeren inoiz bat edo bi falta baitaitezke, eta on da geldi daitezen genero bereko obrak, horiekin obratzeko. Medikuek erresoluzioa edo alde bateko perlesia⁸ deritzoten eritasunean, eskuarki ukituriko aldean den bentrikuluaren obra galtzen da; eta beste biak salborik eta zauri gabe gelditzen ez balira, gizona ergel eta arrazoimenik gabe geldi liteke; eta horrekin guztiarekin ere, bentrikulu bakarra falta duelako, urritasun handia ezagun zaio, bai endeleguaren eta bai irudimen eta oroimenaren obretan; bi begiekin behatu ohi zuenari, haietariko bat hauts baliezaiote, ikusmena murriztuz lekiokoen bezala. Hortik klarki aditzen da bentrikulu bakoitzean hiru potentziak osorik daudela, bentrikulu bakar baten zauritik hirurak ahultzen direlako.

Hiru bentrikuluek osaera bera dutela eta haietan ez dagoela inolako zati ezberdintasunik ongi aditurik, ezinbestekoa dugu lehen kalitateak tresnatzat hartzea, eta haiek zenbat izan, beste horrenbesteko argimen ezberdintasun genetiko egitea; zeren arima arrazionalak (gorputzean dagoenean) horretan lagun diezaiokoen gorputz-organorik ukan gabe obra dezakeela pentsatzea, filosofia natural ororen aurka baitoa*. Baina diren lau kalitateetatik (beroa, hoztasuna, hezetasuna eta lehortasuna) mediku guztiek hoztasuna kanpora egozten dute, arima arrazionalaren obra guztietarako alferrekoa delakoan. Eta esperientziaz gainerako ahalmenetan hala dirudi; zeren, beroaren gainera igonez gero, gizonaren ahalmen guztiek beren obrak dorpeki egiten baitituzte: ez urdailak egos dezake jakia, ez barrabilek egin dezakete hazi umekorrik, ez giharreek gorputza mugi, ez eta burmuinak ere gogoetarik egin. Eta, horrela, erran zuen Galenok⁹: frigiditas enim officiis omnibus animae aperte incommodat; erran balu bezala: "hoztasunak arimaren obra guztiak alferrik galtzen ditu", gorputzean bero naturala epeltzeko besterik ez du balio, horrenbeste erre ez dezan. Baina Aristotelesek bestela deritzo, dioela¹⁰: est certe roboris efficacior sanguis qui crassior et calidior^b est; vim autem sentiendi intelligendique obtinet plenior qui tenuior atque frigidior est; erran balu bezala: "odol lodi eta beroak gorputz-indar ugari egiten ditu, baina mehe eta hotza edukitzea gizonaren endelegu handiaren kausa da"; hortik klarki ageri da hoztasunetik sortzen dela gizonaren baitako argimen ezberdintasun handiena, hots endeleguarena.

Orobat galdetzen du Aristotelesek¹¹ ea zergatik herrialde hagitz beroetan bizi diren gizonak, konparazioz Egipton, argitsuago eta jakitunagoak diren leku hotzetakoak baino. Eta galdera horri erantzuten dio erranez eskualdeko bero handiegiak burmuinaren bero naturala gastatu eta urritzen duela eta hura hotzik uzten, eta horregatik hango gizonak, izan ere, oso arrazionalak izan daitezkeela; eta, kontrara, airearen hoztasun handiak burmuinaren bero naturala indartzen duela, eta ez diola gutxitzeko biderik ematen. Eta horretara dio burmuin oso beroa dutenek ezin dagiketela gogoetarik eta filosofatu ere ez; aitzitik, urduriak dira eta ez dute finko irauten iritzi berean. Eta badirudi Galenok errankizun hori aipatzen duela¹² dioenean gizona aldakorra izateko eta unean uneko iritzia ukaitzeko kausa, burmuin berokoa izatea dela; eta, aitzitik, errankizun berean fermu eta iraunkor egotea burmuinaren hoztasunak egiten duela. Baina, egia erraitzeko, kalitate horretan ez du argimen ezberdintasun bat ere egiten; Aristotelesek berak ere ez

zuen erran nahi ukan odol hotzak, nagusi denean, endelegu hobea egiten duela, berotasun gutxiago duenak baizik. Egia da gizona aldakorra izatea berotasun handia ukaitetik sortzen dela, horrek burmuinean diren figurak altxa eta irakinarazten baititu, eta obra horregatik arimari gauzen anitz irudi agertzen zaizkio, berei behatzera gonbidatuz, eta guztiez gozatzeko, batzuk utzi eta beste batzuk hartzen ditu. Hoztasunean alderantziz gertatzen da, figurak hertsatzen dituelako, altxatzen utzi gabe, gizona iritzi batean fermu eginarazten duela; deirik egiten dion beste bat irudikatzen ez zaiolako. Hoztasunak horixe du: mugimenduak eragozte, ez soilki gorputzeko gauzenak, baina figurenak eta espezieenak¹³ ere bai, filosofoek izpiritualak direla diotenak, horiek burmuinean mugiezin bilakaraziz; eta fermutasun honek gehiago dirudi dorpezia trebetasun ezberdintasuna baino. Egia da, ordea, badela beste trebetasun ezberdintasun bat endelegua txit heldurik egotetik sortua, eta ez burmuina hotza edukitzeagatik.

Beraz, lehortasuna, hezetasuna eta beroa gelditzen dira ahalmen arrazionalaren tresna gisa. Baina ezein filosofok daki zehazki argimen ezberdintasun bakoitzari bere kalitatea ematen. Heraklitok honela erran zuen: splendor siccus, animus sapientissimus¹⁴, errankizun horrekin lehortasuna gizona arras jakintsua izateko kausa dela aditzera emanez; baina ez zuen deklaratu nolako jakintza motan. Gauza bera aditu zuen Platonek erran zuenean¹⁵ gure arima gurputzera ezin jakintsuago etorri zela, eta hartan aurkitu zuen hezetasun handiagatik dorpe eta ergel egin zela; baina adina aurrera joan ahalean hura gastatu eta lehortasuna erdiestean, lehendik zeukan jakituria agertzen du. Adimenik gabeko animalien artean (dio Aristotelesekin) zenbat eta beren temperamentuan hoztasun eta lehortasun handiagoa eduki, hainbat eta zuhurragoak dira, inurriak eta erleak diren bezala, horiek, zuhurtzian, gizon hagitz arrazionalen lehiakide dira eta¹⁶. Hortik landa, adimenik gabeko animalia bat bera ere ez dago urdea bezain hezea, ez eta horrek baino argimen urriagoa daukanik ere¹⁷; eta horrela, Pindaro izeneko poeta batek, Beotiako jendeaz truffatzeko, honela erran zuen: dicta sues fuit gens Baetia vecors¹⁸. Odolak ere, hezetasun handiagatik, dio Galenok, egiten dituela gizonak ergel¹⁹. Eta halakotzat, Galenok berak kontatzen duenez²⁰, jotzen zituzten irriz komikoek Hippokratesen semeak²¹, eta bero natural handia zutela ziotseten, berori substantzia heze eta oso lurruntsua izanik. Lan hau ukan behar dute gizon jakintsuen semeek: geroago erranen dut arrazoia eta horren kausa zertan datzan²². Halaber, ditugun lau humoreetan ez dago bat bera ere malenkonia bezain hotz eta lehorra denik; eta letretan izaniko gizon goraiatuak oro, Aristotelesekin dioenez, malenkoniatsuak izan dira²³.

Azkenean guztiak bat datoz lehortasunak gizona oso jakintsu egiten duelakoan; baina ez dute deklaritzen zein ahalmen arrazional laguntzen duen gehien. Esaia profeta izan zen izena eman zion bakarra, erran zuenean: vexatio dat intellectum²⁴. Tristurak eta nahigabeak gastatzen eta ahitzen baitu, eta ez soilki burmuinaren hezetasuna, baina hezurak ere idortzen ditu; eta kalitate horrekin endelegua zorrotzago eta zoliago egiten da. Eta hori nabariro froga daiteke, kontsideraturik ezen anitz gizon, pobrezian eta nahigabetan ezarririk, errankizun miresgarriak erraitera eta izkiriatzera ailegatu zirela, eta ondoren, fortuna hobera, ongi jatera eta edatera etorririk, ez zutela handik hara jakin nola mintzo, biziera atseginak, kontentuak, gertakari onak eta gauza guztiak norbere gogara egiteak burmuina lasaitzen eta hezitzen du. Hippokratesek erran zuena, alegia: gaudium relaxat cor²⁵; erran balu bezala: "pozak eta alaitasunak bihotza hedatzen du, eta beroa eta gizentasuna ematen dio". Eta hori gauza erraza da berriz ere frogatzeko, zeren, baldin tristurak eta nahigabeak haragiak idortzen eta ahitzen baditu, eta arrazoi horregatik gizonak endelegu handiagoa hartzen, egia ere baita, haren aurkakoak,

alaitasunak, burmuina hezatu eta endelegua behehitu behar duela²⁶. Argimen mota hau erdietsiz doazenak berehala makurtzen dira denborapasak, gonbiteak, musikak eta irrisolasak egitera; eta kontrakotik ihes egiten, behiala atsegin eta kontentu ematen zientetik. Hemendik jakinen du jada jende arruntak gizon jakitun eta bertutetsuak, kargu handiren batera igon eta gero (lehenago behartsu eta apala izanik) zer arrazoiz eta kausaz ohiturak eta pentsamoldea berehala aldatzen dituen. Eta hori da temperamentu berria eskuratu duelako, heze eta lurruntsu, horrekin lehen oroimenean zeuzkan figurak borratzen eta endelegua dorpetzen baitzaizkio²⁷.

Hezetasunetik zail da zer nolako argimen mota jaio daitekeen jakitea, arrazoimenari hainbeste kontra egiten dionez gero. Galenok uste duenez behintzat, gure gorputzean soberazko hezetasuna duten humore guztiek gizona lerdotzen eta ergeltzen dute. Eta honela, erran zuen²⁸: *animi dexteritas et prudentia a bilioso humore proficiscitur; integritatis et constantiae erit auctor humor melancholicus; sanguis, simplicitatis et stupiditatis; pituitae natura ad morum cultum nihil facit; erran balu bezala: "arima arrazionalaren zuhurtzia eta maina ona koleratik jaiotzen da; gizona oso, zuzen eta beti bat izatea melankoliazko humoretik datorkio; memelo eta zozoa izatea, odoletik; gorroaz, aldiz, ez da arima arrazionala deusetarako baliatzen, lo egiteko ez bada"*.

Beraz, odolak (hezea delako) eta gorroak alferrik galtzen dute arrazoimena. Baina hau gogoeta egiteko ahalmen edo argimen arrazional aktiboez aditzen da, eta ez oroimenaren gisako pasiboez, berau hezetasunaren menean baitago, endelegua lehortasunararen menean dagoen bezala. Eta oroimena ahalmen arrazional deitzen dugu, bera gabe endeleguak eta irudimenak deus balio ez dutelako²⁹. Guztiei silogizatzeko gaia eta figurak ematen dizkie, Aristotelesen harako esaldi harekin bat: oportet intelligentem phantasmata speculari³⁰. Eta oroimenaren ofizioa fantasma hauek gordetzea da, endeleguak haiei behatu nahi liekeenerako; eta oroimena galtzen bada, ezinezkoa dute gainerako ahalmenek obratzea. Eta oroimenaren ofizioa gauzen figurak gordetzea dela, eta ez beste, berak hor asmazio propiorik ukan gabe, honela adierazten du Galenok: *ac memoriam quidem recondere ac servare in se ea quae sensu et mente cognita fuerint, quasi cellamꝑ quamdam et receptaculum eorum, non inventricem*³¹. Eta honetarako delarik, klarki aditzen da hezetasunaren menean dagoela, honek burmuina beratzen baitu, eta figura, inprimatu barrurantz sakatzeaz egiten delako³².

Hau frogatzeko, argudio nabarmena dugu haurtzaroa, adin horretan gizonak oroimenez gainerako guztietan baino gehiago ikasten baitu, burmuina ezin hezeagorik edukirik. Eta, honela, Aristotelesek galdera hau egiten du³³: *cur seniores amplius valeamus, iuniores otius discamus?* Erran balu bezala: "zergatik dugu endelegu handia zaharretan eta gaztetan errazago ikasten dugu?" Eta horri ihardesten dio erranez zaharren oroimena beren bizitzaren ibilbide luzean ikusi eta entzun dituzten gauzen figurez arras beterik dagoela, eta horrela, gehiago erantsi nahi denean, ezin errezihi dezaketela, ez baita hori sartzeko leku hutsik; baina mutilena, duela gutxi jaio direnez gero, arras okupatu gabea da, eta horregatik berehala hartzen dute erraiten eta irakasten zaien guztia. Eta aditzera emateko, goizeko oroimena arratsekoarekin konparatzen du, erranez goizean hobeki ikasten dugula, ordu hartan oroimena hutsik jaikitzen delako, eta arratsean gaizki, egun hartan gure baitatik iragan den guztiaz beterik dagoelako. Problema honi ez dekio Aristotelesek erantzuten*. Eta arrazoia oso argia da; zeren oroimenean diren espezieek eta figurek lekua betetzeko gorputza eta kopurua balute, horrek erantzun ona lirudike; baina zatiezinak eta izpiritualak direnez gero, ezin bete ez huts dezakete dauden lekua; aitzitik, esperientziaz dakusagu zenbatenez oroimena egunero figura berriak hartuz erabiliago, are gaiago egiten dela.

Problemaren erantzuna arras argi dago ene doktrinan. Eta, izan ere, zaharrek endelegu handia dute lehortasun handia daukatelako, eta oroimenik ez, hezetasun urridunak direlako; eta arrazoi horregatik burmuinaren substantzia gogortu egiten da eta horrela ezin errezibi dezake figuren endelegua, argizari gogorrek zigiluaren figura nekez eta argizari bigunak, aldiz, aise onartzen duen bezala³⁴. Mutilei aitzitik gertatzen zaie, burmuinean duten hezetasun handiagatik endelegu urrikoak baitira, baina oroimen handikoak, burmuinaren biguntasun handiari esker, zeren hor, hezetasunaren kausaz, kanpotik ailegatzen diren espezieak eta figurak ongi endelegatzen baitira, erraz, sakon eta ederki itxuraturik.

Oroimena goizean arratsean baino errazagorik dagoela ezin uka daiteke; baina ez da hori gertatzen Aristotelesek dakarren arrazoiagatik, baizik eta iragan den gaueko loak burmuinak hezatu eta sendotu duelako, eta egun osoko itzarraldiak lehortu eta gogortu. Eta honela, Hippokratesek hauxe dio: qui noctu bibere appetunt, iis admodum sitientibus, si supra dormierint, bonum; erran balu bezala: "gauetz lehorre handia dutenei, lo eginez hura kendu egiten zaie"³⁵. Loak haragiak hezatu eta gizona gobernatzen duten ahalmen guztiak sendotzen dituelako, eta loak horrelako eragina duela Aristotelesek berak aitortzen du³⁶.

Doktrina honetatik klarki inferitzen da endelegua eta oroimena elkarren aurkako ahalmen bereziak direla; eta halatan, oroimen handiko gizonak endelegu gutxikoa izan behar du, eta endelegu handikoak ezin eduki dezake oroimen onik, ezinezkoa baita burmuina batera lehor eta heze izatea nagusiki*. Esakune honetan oinarritu zen Aristoteles oroimena eta gomutamena** ahalmen ezberdinak direla frogatzeko; eta argudioa honela eratzten du³⁷: "Gomutamena handia dutenak endelegu handiko gizonak dira, eta oroimen handia erdiesten dutenak, aldiz, endelegu urrikoak; beraz, oroimena eta gomutamena elkarren aurkako ahalmenak dira". Nagusia³⁸ nire doktrinan faltsua da, gomutamena handia dutenek endelegu urria eta irudimen handia dutelako, geroago frogatuko dudana bezala; baina txikia hagitz egiazkoa da, nahiz eta Aristotelesek ez zuen aurkitu endeleguak oroimenarekin duen etsaigoa zertan funtsatzen den.

Berotasunetik, hirugarren kalitatetik alegia, irudimena jaiotzen da, horrezkero burmuinean ez baita beste ahalmen arrazionalik gelditzen, ez eta hari emateko beste kalitaterik ere³⁹. Bestaldetik, irudimenari dagozkion zientziak eriek burtzoraldietan erraiten dituztenak dira, eta ez endeleguari edo oroimenari dagozkionak; eta zorabioa, mania eta malenkonia burmuinaren grina beroak direnez gero, hori argudio handia da irudimena funtsean berotasuna dela frogatzeko.

Gauza bakar batek egiten dit eragozpen, hots, irudimena endeleguaren, eta oroimenaren ere, aurkakoa izateak; eta arrazoiak ez dator esperientziarekin batean. Burmuinean bero eta lehortasun handia ongi elkar daitezkeelako, eta beroa eta hezetasuna ere bai, gradu trinkoan; eta kausa horregatik gizonak endelegu handia eta irudimen handia eduki zitzakeen, eta oroimen handia irudimen handiarekin. Eta, egiazki, mirariz ez bada ez da aurkitzen irudimen handiko gizon bat aldi berean endelegu edo oroimen ona duenik⁴⁰. Eta horren kausa dateke endeleguak behar duela burmuina zati sotil eta hagitz finez osaturik egotea, lehenago Galenoren bidez frogatu genuenez⁴¹, eta bero handiak finena gastatu eta ahitzen du, lodia eta lurtarra utzirik. Arrazoi berberagatik irudimen ona ezin elkar daiteke oroimen handiarekin, bero handiegia burmuinaren hezetasuna deusezten eta hura gogor eta lehor uzten duelako, eta horrela ezin jaso ditzake errazki figurak⁴².

Beraz, gizonaren baitan hirutariko argimen ezberdin besterik ez dago, horiek jaio ahal izateko hiru kalitate baizik ez denez gero. Baina hiru ezberdintasun unibertsal hauen azpian beste anitz ezberdintasun berezi gordetzen dira, beroak, hezetasunak eta

lehortasunak ukan ditzaketen trinkotasun-graduen kausaz. Halere, hiru kalitate hauen zernahi gradutatik ez da segitzen argimen berezi ezberdinik, lehortasunak, beroak eta hezetasunak erdietsi ahal duten trinkotasun handiak animala ahalmena bera deusez baitezake, Galenoren harako errankizun harekin bat: *omnis inmodica intemperies vires exsolvit*⁴³. Eta horrela da egiazki; ezen, endelegua lehortasunaz baliatzen bada ere, hori hainbestekoa izan daiteke, non haren obrak suntsiaraz baitiezazkioke; eta hori da Galenok eta antzinako filosofoek onartzen ez dutena; aitzitik, badiote ezen baldin zaharren burmuina hotz ez baledi, ez liratekeela behin ere iraungiko, lau gradutan lehor egin balitez ere⁴⁴. Baina ez daude zuzen, irudimenean frogatuko dugunagatik; haren obrak beroaz egiten diren arren, behin hirugarren gradua iragan eta gero, hondatzen hasten delako. Eta gauza bera egiten du oroimenak hezetasun handiarekin.

Hiru kalitate horien trinkotasunaren kausaz zenbat ezberdintasun sor daitezkeen ezin erran daiteke orain partikularki, harik eta aitzinerago endeleguaren, irudimenaren eta oroimenaren obra eta ekintza guztiak kontatu arte. Baina, bitartean, jakiteko da endeleguaren hiru obra nagusi direla: lehena inferitzea da, bigarrena bereiztea eta hirugarrena hautatzea; eta hortixek eratzen dira hiru endelegu mota ezberdinak. Beste hirutan oroimenetik abiatzen gara; izan ere, gauzak erraz errezibitzen baina gero dena berehalaxe ahanzten zaion oroimenik baita; beste bat nekez ohartzen da eta luzaz gordetzen du; hirugarrenak aise errezibitzen eta ahanzteko denbora luzea behar ukaiten du. Irudimenak hagitz ezberdintasun gehiago dauzka, hirurak baititu, endeleguak eta oroimenak bezala, eta gradu bakoitzetik beste hiruna sortzen dira. Eta honetaz geroago are xehekiago mintzatuko gara, bakoitzari bereziki doakion zientzia bedera eman diezaioguna.

Baina argimenaren beste hiru ezberdintasun kontsideratu nahiko lituzkeenak estudiantzen dutenen baitan trebetasun mailak direla aurkituko du. Batzuek isuri naturala dute ikasten ari diren artearen behakuntza klar eta errazetarako, baina arlo ilun eta hagitz delikatueta sartuz gero, soberan dago maisuak exenplu onekin haiei figura egitera saiatzea, ez eta berek beren irudimenarekin beste bat egitea, ez baitute horretarako gaitasunik. Maila honetan daude zernahi fakultatetako letratu zital guztiak; horiek, beren arteko gauza errazetan endelega daitezkeen guztia erraiten dute, baina behin arras delikatueta etorririk, mila ergelkeria erraiten dituzte.

Beste argimen batzuk maila gorago batera igoten dira, izatez bigunak baitira, eta artearen erregela eta kontsiderazio guztiak haiengan inprimatzeko errazak, bai argiak, ilunak, errazak eta zailak ere; baina doktrina, argudioa, ihardespena, duda eta bereizketa, dena eman behar zaie eginik eta jasorik. Horiek asko dakiten maisu onengandik entzun behar dute zientzia, eta liburu ugari ukan, eta horietan eten gabe estudiantu; zeren irakurtzetik eta lan egitetik gelditzen diren heinean, are gutxiago jakinen baitute. Horiengan Aristotelesen harako errankizun famatu hura egiazta daiteke: *intellectus noster est tamquam tabula rasa in qua nihil est depictum*⁴⁵, jakin eta ikasi behar duten guztia lehenago beste bati entzun behar diotelako, haren gainean inolako asmaziorik egin gabe.

Hirugarren mailan Naturak hain argimen hobezinak egiten ditu, ezen ez baitute maisurik behar berei irakats diezaienik⁴⁶, ez eta nola filosofatu behar duten erran diezaienik ere; zeren doktoreak iradokitzen dien kontsiderazio batetik haiek ehun ateratzen baitituzte, eta deus erran gabe ahoa zientziaz eta jakintzaz handitzen zaie. Argimen hauek Platon engainatu eta gure jakitea nolabaiteko gomutamen mota⁴⁷ dela erranarazi zioten, gizonen kontsideraziora sekula etorri ez zenaz mintzatzen eta erraiten entzunik. Honelakoek zilegi dute liburuak izkiriatzea, eta beste batzuek ez⁴⁸. Zeren zientziek egun bakoitzean areago gehitu eta hobakuntza handiagoa ukan dezaten behar den

ordena eta kontzertua hauxe baita, orain bizi garenon asmazio berriak antzinakoek izkiriaturik utzi zutenari eranstea; nor bere denboran gisa honetara eginez gero arteak haziko liratekeelako, eta jaiotzeko dauden gizonek lehenago bizi zirenen asmazio eta lanaz gozatuko luketelako⁴⁹. Asmamenik ez duten gainerakoei errepublikak ez lieke onetsi behar libururik izkiria lezaten, ez eta inprimatzen utzi ere; autore handien erran eta errankizunetan biribilean ibili eta haiek behin eta berriz errepikatu besterik egiten ez dutelako, eta hemendik zerbait ebatsiz eta handik beste zerbait hartuz, ez dago liburu bat egiten ez duenik.

Argimen asmatzaileei Toscanako mintzairaz kapritxosoak⁵⁰ erraiten zaie, ibiltzeko eta alhatzekoi maneran ahuntzarekin duten eiteagatik. Berau ez da behin ere leku lauetan pausatzen; nahiago du beti harkaitz eta goialdetatik bakarka ibili, eta amildegia sakonetara burua atera; hortik ezein bide zidorri ez jarraitzeko eta lagunik ere nahi ukan gabe. Honelako propietatea aurkitzen da arima arrazionalean ere burmuin ongi antolatu eta tenplatua daukanean: ez da inoiz ezein behakuntzatan pausatzen, eta dena da urduri ibiltzea, jakiteko eta aditzeko gauza berrien bila⁵¹. Gisa honetako arimaz egiaztatzen da Hippokratesen erran hura: *animae deambulatio, cogitato hominibus*⁵². Zeren bai baitira beste gizon batzuk behakuntza batetik sekula jalgitzen ez direnak, munduan aurkitzeko gauza gehiago direla pentsatu ere egin gabe. Hauek ardiaren propietatea dute, joaldunaren oinatzetatik behin ere ateratzen ez dena, toki desertu eta bide gabeetatik ibiltzera ausartzen ez dena, baizik eta zidor arras zanpatuetatik, norbait aitzindari duela. Argimen ezberdintasun biok maiz gertatzen dira letra-gizonen artean. Batzuk jasoak eta ohiko iritzitik kanpokoak dira; gauzak bestela epaitzen eta tratatzen dituzte; beren ustea erraiteko burujabe dira; eta ez darraizkio inori. Beste batzuk barnebilduak dira, apalak eta txit sosegatuak, ez dira beren buruez fidatzen eta, dirudienez, jarraiburu duten autore larri batengana errendatuak, horren erran-errankizunak zientzia eta frogatzat dituztela, hortik hastantzen den guztiari huts eta gezur iritiz⁵³. Argimen ezberdintasun hauek biok elkaturik probetxu handikoak dira. Izan ere, artalde handi baten erdira artzainek dozena bat ahuntz ezartzen duten bezala, ardiak altzarazi eta pauso lasterraz zapaldu gabeko larre berriez gozatzera eraman ditzaten, era berean komeni da giza letretan argimen kapritxoso batzuk izatea, ardi-endeleguei naturaren sekretu berriak erakuts diezazkieten, inoiz entzun gabeko behakuntzak emanaz, haietan ari daitezten. Zeren era honetara arteak haziz baitoaz, eta gizonek egunik egun are gehiago jakiten baitute.

VI [1594.eko IX.a]

Non ezartzen baitira duda eta argudio batzuk iragan den kapituluko doktrinaren aurka eta horien erantzuna

Sokratesen jakituria gaurdaino hain ospatua izateko arrazoietakoa bat hau izan zen, Apolloren Orakuluak hari munduko gizonik jakintsuena iritzi ondoren, honela erran zuela: *hoc unum scio, me nihil scire*¹; eta errankizun hori, bera irakurri eta ulertu duten guztiek uste ukan dute hala erran zuela, Sokrates gizon erabat umila eta giza gauzen gaitzeslea zelako, eta, jainkozko gauzeekin konparatuz, gainerako guztia inolako izaterik eta baliorik gabea iruditzen zitzaiolako. Baina egiazki engainaturik daude, umiltasunaren bertute hau ez baitzuen antzinako ezein filosofok erdietsi, eta zeri zen ere ez zekien, harik eta Jainkoa mundura etorri eta hura irakatsi arte. Sokratesek sentitu eta adierazi nahi ukan zuena giza zientzien segurtasun urria izan zen², eta, dakien heinan, filosofoaren endelegua zein urduri eta beldurti dagoen, esperientziaz dena zalantzaz eta argudioz beterik dagoela ikusirik eta, bestaldearen beldurrik gabe, ezin baieztatu daitekeela deus, eta horregatik honela erran zen³: *cogitationes mortalium timidae, e incertae providentiae nostrae*. Eta gauzen egiazko zientzia ukan behar duenak fermu eta soseguz egon behar du, engainaturik dagokeelako beldurrik eta susmorik

gabe; eta gisa honetan ez dagoen filosofoak egia handiz erran eta baieztza dezake ez dakiela deus ere.

Kontsiderazio berberau ukan zuen Galenok erran zuenean: scientia est conveniens, firma et nunquam a ratione declinans cognitio: eam neque apud philosophos, praesertim dum rerum naturas perscrutantur, invenies, multo sane minus in re medica; immo, ut verbo expediam, ne ad homines quidem venit ⁴. Honen arabera, gauzen egiazko ezagutza inguru hartan gelditu zatekeen, eta gizonari etorri zitzaion nolabaiteko ustea etorri zitzaion, horrek bera ezbaian darabilela, baieztatzen duena egia den ala ez beldurrez*. Baina honetan Galenok are partikularkiago ohartarazten du filosofia eta medikuntza direla gizonak darabiltzaten zientzietarik zalantzakorrenak. Eta hori egia baldin bada, zer erranen dugu tratatzen ari garen filosofiaz, hor endeleguaz arima arrazionalaren ahalmen eta trebetasunak bezain gauza ilun eta zailean endeleguaz anatomia egiten delarik**, gai horretan hainbeste zalantza eta argudio eginez, on ez baita doktrina laurik gelditzen, hartan oinarritzeko.

Horietako bat, eta nagusia bera, guk endelegua ahalmen organikoa egitea izan da, irudimena eta oroimena bezala, eta lehortasuna duen burmuinari obratzeko tresnatzat Aristoteles⁵ eta haren segizioko guztien doktrinatik hain urrun dagoen gauza bat ematea ere bai; eta horiek endelegua gorputzeko organoetatik kanpoan ezartzean, erraz frogatzen zuten arima arrazionala hilezina zela eta, gorputzetik jalgi ondoren, betiko zirauela. Eta, aurkako iritzia eztabaidagarria izanez, atea hertsirik gelditzen da, hori frogatzerik izan ez dadin⁶. Hortik landa, endelegua ez zela ahalmen organikoa frogatzeko Aristotelesek oinarritzat erabili zituen arrazoiek hain efikazia handia dute, non ezin baitaiteke besterik konkludi. Zeren* ahalmen honi natura ezagutu eta endelegatzea baitoakio, eta munduan diren gauza material guztiena izatea; eta baldin bera balego gauza korporalen batekin loturik, harexek oztopatuko lioke gainerakoan ezagutza⁷; kanpoko zentzuetan dakusagunez; dastamena mingots badago, mihiak ukitzen duen guztia zapore berbera baitu; eta baldin humore kristalinoa berde edo hori badago, begiak epaitzen duen guztia kolore bereko baitago⁸. Eta horren kausa hauxe da, intus existens prohibet extraneum⁹. Aristotelesek badio, halaber, ezen baldin endelegua gorputzeko organoren batekin nahasirik balego, qualis litzatekeela¹⁰; zeren bero edo hotzekin elkartzan dena, nahitaez beroa atxiki behar zaiola. Eta endelegua bero, hotz, heze edo lehorra dela erraitea predikazio gaitzesgarria da filosofo naturalen belarrietan.

Bigarren duda nagusia Aristotelesek eta peripatetiko guztiek endelegutik, irudimenetik eta oroimenetik kanpoan beste bi ahalmen ezartzea da, gomutamena eta zentzu komuna¹¹ alegia, harako erregelaren arauz: potentiae cognoscuntur per actiones¹². Haien ustez, endelegu, irudimen eta oroimenaren obretatik kanpoan badira beste bi, hagitz ezberdinak; beraz, bost gizonaren argimena bost ahalmenetatik sortzen da, eta ez soilki hiruretatik honaino frogatu dugunez. Era berean, errana dugu iragan den kapituluan, Galenoren iritziz, oroimenak ez duela burmuinean besterik egiten gauzen espezieak eta figurak gordetzea baino, kutxak arropa eta hara sartzen duten gainerako guztia gordetzen eta jagoten duen eran. Eta konparazio horrekin ahalmen horren ofizioa aditu behar badugu, premiazkoa da beste ahalmen arrazional bat ezartzea figurak oroimenetik atera eta endeleguari irudikaraz diezazkion, kutxa ireki eta haren barnekoa ateratzen duenik ere behar den bezala.

Honetatik landa, endelegua eta oroimena elkarren kontrako ahalmenak zirela errana dugu, eta bata eta bestea aurkan ari zirela*, bata burmuinean lehortasun handia eta besteak hezetasun eta biguntasun handia eskatzen zuelako. Eta hau egia baldin bada,

zergatik erran zuen Aristotelese¹³ eta Platonek haragi bigunak dituzten gizonen endelegu handia dutela, biguntasuna hezetasunaren ondorio izanik?

Errana dugu, halaber, oroimena, ona izateko, premiazkoa zela burmuina bigun izatea, figurak hartan zanpatze-bidez zigilatu behar direlako, eta baldin gogor balego ez lukete seinalatzen ahalko. Egia da, ordea, ezen figura berehala errezibitzeko, burmuinak biguntasuna eduki behar duela; baina, espezieak luzaz kontserbatzeko, guztiek diote premiazkoak direla gogortasuna eta lehortasuna, kanpoko gauzetan dirudien bezala, gauza bigunean inprimaturik dagoen figura erraz ezabatzen baita, baina lehor eta gogorrean ez dela behin ere galtzen. Eta horrela, anitz gizon dakuskigu gauzak oroimenetik hagitz errazki hartzen, baina berehala ahanzten zaie; eta Galenok, horren arrazoa emanez¹⁴, bazioen halakoek hezetasun ugariarekin, burmuinaren substantzia jariakor eta ez sendo dutela; eta horregatik figura behingoan borraraten zaie, uretan zigilatzen duenari bezala. Beste batzuek, aldiz, neke dute oroitzea, baina behin ikasi dutena ez zaie inoiz ere ahanzten. Eta horrela, ezinezkoa dirudi erran genuen oroimen ezberdintasun hura egoteak: errazki ikastea eta luzaro kontserbatzea¹⁵.

Endelegatzeko zaila da, halaber, burmuinean hainbeste figura elkarrekin zigilatzen badira, nola liteke batzuek besteak ez borraratzea. Zeren, ezko puska bigun batean zenbait figuraren zigiluak inprima balitez, egiazki batzuek besteak borraratuko bailituzkete, figurak elkarrekin nahasiz. Eta oraindik zailtasun handiagoa dakar jakiteak ea nondik heldu den, oroimenak, zenbat eta arituago, are errazago errezibitzen dituela figurak, egia izanik ariketak, eta ez soilki gorputzekoak, haragiak ihartzen eta xukatzen dituela, eta hagitz gehiago izpirituzkoak.

Era berean, ulertzeko zaila da nola irudimena endeleguaren aurkakoa izan daitekeen (baldin konpontzeko beste kausa pisutsuagorik ez badago bero handiak burmuinaren atal sotilak deuseztea baino¹⁶, eta lurrekoak eta lodiak gelditzea); zeren malenkonia gure gorputzeko humore lurarren eta lodienetako bat baita, eta Aristotelese¹⁶ dioenez, beste ezeinez ez da horrenbeste baliatzen endelegua nola hartaz egiten den. Eta zailtasuna are handiagoa da kontsideratuz malenkonia humore lodia, hotza eta lehorra dela, eta kolera, aldiz, substantziaz fina, eta temperamentuz bero eta lehorra; eta horrekin guztiarekin, malenkonia egokiagoa da endelegurako kolera baino. Eta horrek arrazoimenaren kontrakoa dirudi; zeren humore honek¹⁷ endelegua bi koalitaterekin laguntzen baitu eta bakar batekin kontraerraiten dio, beroarekin alegia; eta malenkoniak lehortasunarekin laguntzen du, eta ez gehiagorekin, eta hoztasunarekin eta substantziaren loditasunarekin kontraerraiten, hots, endeleguak gehienik gaitzesten duenarekin. Eta horrela Galenok argimen eta zuhurtzia handiagoa eman zion kolerari malenkoniari baino¹⁸.

Azkenean galde egiten du ea nondik etor daitekeen lanak eta ikasten etengabe aritzeak anitz gizon jakintsu egitea, horiek hasieran erraiten ditugun kalitate horien izaera ona falta ukan arren, eta irudimenarekin ekinean ihardunez, lehen ez zekizkiten egia franko erdiestera heltzen baitira. Eta ez zeukaten haietarako behar zen temperamentua; eduki balute ez baitzatekeen hura landu beharko.

Eragozpen hauek guztiok eta beste anitz ere iragan den kapituluko doktrinaren aurka doaz. Zeren filosofia naturalak ez baitu zientzia matematikoen bezalako hastapen egiazkorik, horietan medikuak eta filosofoak (batera matematikaria baldin bada) beti ere froga egin baitezake; baina medikuntzaren artearen arabera sendatzera heltzen denean, horretan anitz errakuntza aurkituko ditu, eta ez beti beraren erruz (matematikan beti ongi asmatzen zuen eta), bere artearen segurtasun urriagatik baizik. Eta, beraz, Aristotelese¹⁹ honela erran zuen: non ideo malus medicus si non semper sanet, dum nihil omisserit eorum quae sunt ex arte, erran balu bezala: "bere artearen diligenzia

guztia egiten dituen medikua, beti senda ez baleza ere, ez da horregatik artelari txartzat hartu behar". Baina berorrek balegi matematikan errakuntzarik, ez luke inolako desenkusarik, zeren zientzia honetan berak manatzen dituen diligentzia guztia eginik, ezinezkoa baita ez asmatzea. Hortaz, doktrina honen froga egin ez badezagu ere, ez zaio erru guztia gure argimenari egotzi behar, ez eta dioguna faltsua dela pentsatu ere.

Lehen* duda nagusiari^a ihardesten zaio erranez ezen baldin endelegua gorputzetik aldendurik balego eta ez balu ikustekorik beroarekin, hoztasunarekin, hezetanarekin eta lehortasunarekin ez eta gorputzeko gainerako kalitateekin ere, hortik segituko litzateke gizon guztiek endelegu berdina luketela eta orok arrazoituko luketela berdinzki. Eta esperientziaz badakusagu gizon batek beste batek baino hobeki endelegatzen duela eta gogoeta ere hobeki egiten duela. Beraz, endelegua ahalmen organikoa izateak eta batengan beste batengan baino jarrera hobea ukaiteak dakar hori; eta ez da beste ezein arrazoirengatik. Arima arrazional guztia, gorputzetik aldendurik, hobeintasun eta jakituria berekoak direlako²⁰.

Aristotelesen doktrinari darraizkionek, gizon batzuek beste batzuek baino hobeki arrazoitzen dutela esperientziaz ikusirik, itxurazko ihesa asmatu zuten, erranez: "batek beste batek baino hobeki gogoeta egitea ez duela kausatzen endelegua ahalmen organikoa izateak eta gizon batzuegan burmuina beste batzuegan baino hobeki ezarria egoteak, baizik eta giza endeleguak, arima arrazionalak gorputzean dagoeno, irudimeneko figura eta fantasmak premia duela, eta horien faltaz endelegua gogoetak gaizki egitera datorrela, eta ez bere erruz, ez eta materia gaizki antolatuarekin batera egoteagatik"²¹. Baina erantzun hau Aristotelesen beraren doktrinaren aurkakoa da, berak frogatzen baitu²² zenbat eta oroimena urriagoa izan, endelegua hainbat hobea dela, eta zenbat eta oroimena mailaz goragoa, are flakoagoa dela endelegua (eta gauza bera frogatu dugu lehenago irudimenaz). Eta hori berresteko Aristotelesek galdetzen du ea zein den zaharrak garenean hain oroimen txarra eta hain endelegu handia, eta gazte garenean alderantziz gertatzeko kausa, hots, oroimen handikoak eta endelegu urrikoak izatea²³. Honetaz esperientziak gauza bat erakusten du, eta honela ohartarazten du Galenok: eritasunean tenperamentua eta burmuinaren eraketa ona hondatzen direlarik, maiz endeleguaren obrak galtzen dira eta oroimen eta irudimenarenak salbu gelditzen²⁴; eta hori ez litzateke gertatuko baldin endeleguak berez tresna berezia ez balu, beste ahalmenek dutenetik kanpoan. Honi ez dakit nik zer ihardets dakioken*, egintzaz eta ahalmenaz osaturiko harreman metafisikoren batez ez bada, horrekin zer erran nahi duten berek ere ez dakitela, eta haiak endelegatzen dituen gizonik ez da. Deusek ere ez dio gizonaren jakituriari kalte handiagorik egiten zientziak nahasteak baino, eta filosofia naturalari dagokiona metafisikan tratatzeak, eta metafisikari dagokiona filosofia naturalean.

Aristoteles** oinarritzen deneko arrazoiak pisu gutxikoak dira, ez baita hortik segitzen, endeleguak gauza materialak ezagutu behar dituelako, ez duela organo korporalik ukan behar²⁵. Zeren organoa eratzeko balio duten gorputz-kalitateek ez baitute ahalmena aldatzen, ez eta haietatik fantasmarik jalgitzen: horiek sensible positum supra sensum, quod non causat sensationem²⁶ gisa hartu behar dira. Hau klarki argi da ukimenean, lau kalitate materialez osaturik egonez eta bere baitan zenbatekotasuna eta biguntasuna edo gogortasuna edukiz, horrekin guztiarekin eskuak badazagu gauza bat bero ala hotz dagoen, gogorra ala biguna, edo handia ala txikia den. Eta eskuan den bero naturalak nola ez dion ukimenari eragozten harriaren berotasuna ezagutzen galdetuz gero, erantzun dezakegu erranez organoa eratzeko balio duten kalitateek ez dutela organoa bera aldatzen, eta horietatik ez dela ateratzen berberak ezagutzeko espezierik. Era berean, begiari dagokio gauzen figura eta zenbateko guztia ezagutzea. Eta badakusagu

begiak berak bere figura eta kopuru duena; eta hura osatzen duten humore eta mintzetarik batzuek koloreak dituzte eta beste batzuk argiak eta gardenak dira; eta horrek guztiak ez du eragozten ikusmenetik aitzinean ezartzen zaizkigun gauza guztien figurak eta kopuruak ezagut ditzagun. Eta horren kausa da humoreek eta mintzek, figurak eta kopuruak begiaren eraketarako balio dutela; eta gauza hauek ezin dezakete begiaren ikusteko ahalmena aldaraz, eta horrela ez dute eragozten ez oztopatzen kanpoko figurak ezagutzea***. Gauza bera diogu endeleguaz ere: bere tresna propioak, materiala den eta harekin batera dagoen arren, ezin konpreni dezakeela, harengandik ez baita espezie endelegagarrikerik ateratzen, hura aldaraz dezakeenik²⁷; eta horren kausa da intelligibile positum supra intellectum non causat intellectionem²⁸. Eta horrela, kanpoko gauza material guztiak ulertzeko libre gelditzen da, horretan nor behaztopa ez duelarik. Aristoteles oinarritu zeneko bigarren arrazoa iragana baino arinagoa da. Zeren ez endelegua ez eta beste ezin akzidente izan baitaiteke qualis, kontutan harturik berez, ezein ere kalitateren subjektu ezin izan daitekeelako; eta horrela, axola gutxi du endeleguak organotzat burmuina ukaiteak lehen lau kalitateen temperamentuarekin, horregatik qualis deitua izateko, zeren burmuina beroarena, hotzarena, hezetasunarena eta lehortasunarena baita, eta ez endeleguarena²⁹. Peripatetikoek, endelegua ahalmen organiko egitearren hilezintasuna frogatzeko zegoen oinarri bat kentzen dela erraitean, ematen duten hirugarren oztupoari guk diotsogu badirela hori egiteko beste argudio fermuagoak, eta horiez arituko gara honi darraion kapituluan³⁰.

Bigarren argudioari erantzuten zaio erranez obren edozein ezberdintasunek ez duela horregatik ahalmen ezberdintasunik ekartzen, zeren, aitzinerago frogatuko dugunez, irudimenak hain egintza bitxiak egiten ditu, non esakune hori filosofo arruntek pentsatzen duten bezain egiazkoa balitz, edo berek ematen dioten interpretazioa balu, burmuinean hamar edo hamabi ahalmen gehiago bailirateke. Baina obra hauek guztiok arrazoi generiko batean egokitzen direnez gero, ez dute irudimen bat besterik argudiatzen, gero anitz ezberdintasun partikularretan zatikatzen dena, egiten dituen egintza ugarien arrazoiagatik. Espezieak objektuen presentzian edo horien absentsian osatzeak ez du ahalmen generiko ugaritasunik argudiatzen, nola diren zentzu komuna eta irudimena, baina ez eta partikularrenik ere³¹.

Hirugarren argudioari erantzuten zaio erranez oroimena ez dela burmuinaren biguntasun bat besterik, (nolabaiteko hezetasunarekin) irudimenak jasotzen duena hartu eta gordetzeko prestatua, izkiriatzeko paper zuri eta leunak duen proportzio berean*. Zeren, eskribauak ahantzi nahi ez dituen hitzak paperean izkiriartzen dituen bezala, eta izkiriatu eta gero haiek berriz irakurtzen, era berean ulertu behar da irudimenak oroimenean izkiriartzen dituela bost zentzuek eta endeleguak ezagutu zituzten gauzen figurak, eta berak fabrikatzen dituen beste batzuk ere bai³². Eta haiez oroitu nahi duenean, dio Aristotelese³³, berriz begiratzen eta behatzen diela. Konparatzeko era honetaz baliatu zen Platon erran zuenean ezen zahartzaroko oroimen urriaren beldur, presaka ari zela beste bat egiten, paperezkoa (zein baita liburuena), haren lana gal ez zedin, eta gero hura irakurri nahi ukanen zuenean, zeinek gogorarazi ukan zezan. Hauxe bera egiten du irudimenak: oroimenean izkiriatu eta hartaz gogoratu nahi duenean irakurtzen hasi. Errankizun honekin asmatu zuen lehena Aristoteles izan zen³⁴; eta bigarrena Galeno, honela erran zuena: pars enim animae quae imaginatur, quaecumque ea sit, haec eadem recordari videtur³⁵.

Honela argi ageri da zergatik kasu handiz irudikatzen ditugun gauzak oroimenean ongi finkatzen diren, eta arinkeriaz kontsideratzen ditugunak berehala ahanzten zaizkigun. Eta eskribauak, letra ona egiten duenean, hura erraz irakurtzen asmatzen duen bezala,

horrela gertatzen zaio irudimenari ere, indarraz zigilatzen duenean, figura burmuinean ongi seinalaturik gelditzen baitzaio, bestela, kasik ezin ezagutzkoa izanik. Hauxe bera gertatzen da antzinako izkribuetan ere, zati batzuk osorik eta beste batzuk higiturik daudelarik, ezin irakur baitaitezke ongi, anitz zati eta arrazoi asko ezagueraz ateratzen ez badira. Gauza bera egiten du irudimenak ere, oroimenean zenbait figura galdu eta beste batzuk gelditzen direnean. Hortixek sortu zen Aristotelesen errakuntza, gomutamena, arrazoi horregatik, oroimena³⁶ ez bezalako ahalmena zela pentsatuz; eta bestalde, gomutamena handia dutenak endelegu handikoak³⁷ direla ere erran zuen, hau ere faltsua izanik, irudimena (gomutamena egiten duena) endeleguaren aurkakoa delako. Hortaz, gauzen oroimena ukan eta haiek jakin eta gero beraiez gogoratzea irudimenaren obra da, izkiritazea eta hura berriz irakurtzea eskribauaren obra den bezala, eta ez paperarena. Eta, horrela, oroimena ahalmen pasibotzat eta ez aktibotzat gelditzen da, paperaren leuntasuna eta zurtasuna erraztasuna besterik ez den bezala, hartan beste batek izkiria dezan.

Laugarren dudari erantzuten zaio ez duela ikustekorik argimenarekin haragiak gogor edo bigunak ukaiteak baldin eta burmuinak kalitate berbera ez badu, horrek, anitzetan dakusagunez, gorputzaren gainerako atalek ez bezalako temperamentua ukaiten baitu. Baina biguntasun berean bat badatoz, endelegurako aieru txarra dateke, eta irudimenerako ez hobea; eta ezpere, kontsidera ditzagun emakumeen eta haurren haragiak, eta eridenen dugu gizona koenei biguntasunez aitzineratzen dietela; eta horrekin guztiarekin gizonak emakumeek baino argimen hobea ukaiten dute. Eta horren arrazoi naturala da ezen haragiak bigun egiten dituzten humoreak gorroa eta odola direla, biok hezeak baitira, jadanik ohartarazi dugunez; eta hauez Galenok errana du gizonak ergel eta lerdo egiten dituztela; eta haragiak gogortzen dituzten humoreak kolera eta malenkonia direla, eta horietatik gizonak duten zuhurtzia eta jakituria sortzen dela³⁸.

Beraz, haragiak bigun ukaitea aieru txarragoa da lehor eta gogorak ukaitea baino. Eta horrela, gorputz osoan temperamentu berbera duten gizonengan hagitz gauza erraza da nolako argimenaren duten asmatzea haien haragiaren biguntasun edo gogortasunagatik; gogor eta latzak badira, endelegu ona edo irudimen ona erakusten dutelako, eta bigunak izanez gero, aurkakoa, hots, oroimen ona eta endelegu urria eta are irudimen txikiagoa³⁹. Eta burmuinarekin bat ba ote datorren aditzeko, ileak kontsideratu behar dira; horiek lodiak, beltzak, latzak eta ugariak direnean, irudimen onaren edo endelegu onaren aieru ona da, eta mehe eta bigunak badira, oroimen handiko argudioa da eta ez gehiagorena⁴⁰. Baina ileak halakoak direnean endelegua ala irudimena ote den berezi eta jakin nahiko lukeenak, kontsideratu behar du ea mutikoa nolako den irri egitean; grina horretan anitz aurkitzen baita irudimenari buruz⁴¹.

Irriaren arrazoia eta kausa zein den aztertzen anitz filosofo lehiatu dira, eta batek ere ez du erran gauza ulergarririk. Baina guztiok bat heldu dira odola gizonari irri eragiten dion humorea delakoan⁴²; nahiz eta inork ez dioskun humore honek zein kalitate gehiago daukan besteek baino, hortik gizona irribarretsu egiteko. Desipientiae quae cum risu fiunt, securiores; quae vero cum solitudine periculosiores; Hippokratesek erraiten balu bezala⁴³: "Eriek ergelkeriak erran eta zorabioan irribarre egiten dutenean, segurtasun handiagoa dute arduratsu eta hersturaz daudenean baino", lehenengo hori odoletik egiten baita, zein baita humore arras ona, eta bigarrena malenkoniatik.

Baina tratatzen ari garen doktrinan oina berriz ezarririk, aise endelega daiteke kasu honetan jakin nahi den guztia. Irriaren kausa, ene aburuz, irudimenak, kontura hagitz ongi datorren egintza edo erranen bat ikusi edo entzunez, eginten duen onespenean bat besterik ez da; eta ahalmen hori burmuinean dagoenez gero, gauza horietako batek poza

ematen dionean, berehala eragiten dio, eta haren ondotik gorputz osoko giharreei mugiarazten. Eta horrela, anitzetan erran zorrotzak onesten ditugu burua makurtuz, irudimena arras ona denean ez baita bera edozein erranekin asebetetzen, kontura hagitz ongi heldu direnetakoa ez bada; eta eraginkortasun urrikoa besterik ez bada, pena gehiago hartzen du poza baino. Hemendik dator irudimen handiko gizonak, mirariz ez bada, ezin irriz ikustea; eta are ohargarriagoa dena, oso graziosoek, kontakatiluek eta goitzen-emaileek ez diete behin ere irrik egiten berek erraiten dituzten grazia eta kontuei, ez eta besteei entzuten dizkietenei ere; zeren hain irudimen fina dutenez, beren kontuek ere ez baitiete haiek nahiko luketen eraginik sortarazten. Honi erantsi behar zaio, graziak, neurri on eta asmo egokia edukitzeaz gainera, berria eta sekulan entzun gabea izan behar duela. Eta hau ez dagokio soilki irudimenari, gizona gobernatzen duten beste ahalmenei baizik; eta horrela, badakusagu urdaila, alimentu berbera bi aldiz usatu bezain laster, hura gaitzesten duela; ikusmenak ere, figura eta kolore berbera; entzumenak kontsonantzia berbera, den onena izanik ere, eta endeleguak behakuntza berbera. Hortixek heldu da dohaintsuak berak dioen graziari irrik ez egitea, ahotik erran baino lehen ondo baitaki zer erranen duen.

Hemendik konkluditzen dut ezen oso irribarretsua, oro irudimen urrikoak direla; eta horrela, edozein graziak eta kontuk, den hotzera izanik ere, txit ongi eragiten diela. Eta odolak hezetasun handia daukanez (eta horrek irudimena alferrik galtzen zuela errana dugu), hortaz, hagitz odoltsua arras irribarretsua dira. Horixe dauka hezetasunak, biguna eta leuna denez gero, beroari indarrak kendu eta horrenbeste erretzen uzten ez diona, eta beraz, beroa lehortasunarekin hobeki aurkitzen da, horrek obrak zorrotzen dizkiolako; eta bestalde, hezetasun handia den lekua, hor beroa ahula delako seinalea izaten da, ez baitu hura ezereztan ez eta gastatzen ere. Eta hain bero ahularekin ezin obra dezake irudimenak⁴⁴. Hortik inferitzen da endelegu handiko gizonak ere hagitz irribarretsua direla, irudimena erabat falta dutelako; Demokrito handi hartaz⁴⁵ irakurtzen den bezala, eta nik ikusi eta ohartu naizen beste anitez ere bai. Beraz, iritik ezagutuko dugu endelegua ala irudimena ote den haragi gogorreko gizonak edo mutilek, ile beltz, ugari, gogor eta latza dutenek. Horrela ba, ez zen ongi ibili Aristoteles doktrina honetan.

Bosgarren argudioari ihardesten zaio erranez burmuinean bi eratako hezetasuna dagoela: bata airetik sortzen da (elementu hau nahasturan nagusi gelditu zenean)⁴⁶ eta bestea gainerako elementuak elkarrekin oratu zireneko uretik heldu da. Burmuina lehen hezetasunarekin bigun balego, oroimena hagitz ona izanen da: figurak errezibitzeko erraza eta haiek luzaro edukitzeko ahaltsua. Aireko hezetasuna arras oliotsua eta koipez betea delako, eta horretan espezieak atxikimendu handiz tratatzen dira, oliotan egindako pinturetan ageri den bezala, eguzkitan eta uretan ezarri arren batere kalterik hartzen ez dutelarik; eta izkriburen baten gainera olio isurtzen badugu, ez da behin ere borratzen, aitzitik, higatua eta ezin irakur daitekeena, olioarekin irakurgarri egiten da, distira eta gardentasuna emanez. Baina burmuinaren biguntasuna bigarren hezetasunetik sortua bada, argudioa oso ongi limurtzen da; zeren erraz errezibitzen badu, arintasun berberarekin borratzen da figura, espeziak tratatzen direneko uraren hezetasunak koipetasunik ez duelako. Bi hezetasun hauek ileetan nabarmentzen dira: airetik heldu denak koipetsu, olioaz eta gantzaz beterik ezartzen ditu; eta urak, ordea, heze eta oso lauak.

Seigarren argudioari erantzuten zaio erranez gauzen figurak ez direla burmuinean inprimatzen zigiluaren figura argizarian bezala, baina barnerago sartuz, atxikirik gelditzeko, hala nola txoriak likan eta euliak eztian bezala. Figura horiek gorputzik gabeak baitira eta, beraz, ezin nahas daitezke, ez eta batzuek besteak ustelaraz ere.

Zazpigarren eragozpenari erantzuten zaio erranez figurek burmuinaren substantzia oratzen eta biguntzen dutela argizaria erhien artean beratzen den moduan. Eta bestalde, bizitzaren izpirituek atal gogor eta lehorrak bigundu eta hezatzeko bertutea dute, kanpoko beroak burdinarekin egiten duen bezala; eta oroimenetik zerbait hartzen denean bizitzaren izpirituak burmuinera igoten direla, lehenago frogaturik utzia dugu⁴⁷. Eta gorputzeko eta izpirituko ariketa guztiek ez dute lehortzen, aitzitik, medikuek diotenez, neurriz eginak loditu egiten du⁴⁸.

Zortzigarren argudioari erantzuten zaio erranez bi eratako malenkoniak direla. Bata naturala, odolaren kondarra dena, horren temperamentua hotza eta lehortasuna izanik, substantzia oso lodiarekin, eta horrek ez du argimenerako deus balio, baina gizonak erhel, dorpe eta irribarratsu egiten ditu, irudimenik ez dutelako. Eta atra bilis edo kolera errea deritzona, zeinez Aristotelesek⁴⁹ erran baitzuen gizonak ezin jakintsuago egiten dituela, horren temperamentua ozpina bezain anitza izanik: batzuetan bero-eragina du, lurra sustatuz, eta beste batzuetan hozten; baina betiere lehorra eta substantzia txit finekoa da. Ciceronek aitortzen du argimen geldokoa zela, bera malenkoniatsu errea ez zelako⁵⁰; eta egia dio, zeren hala izan balitz ez baitzukeen hain bokantza ederra ukanen, malenkoniatsu erreek oroimenik ez dutelako, horrexeri baitagokio aparatu handiz mintzatzea. Beste kalitate bat ere badu, endeleguari biziki laguntzen diona, azabatxea bezain distiratsua izatea, eta distira horrekin burmuinaren barnean argi ematen du figurak ongi ikus daitezen. Eta haxe da Heraklitok sentitu zuena honela erraiten: *splendor siccus animus sapientissimus*^{51*}. Distira hori ez du malenkonia naturalak, aitzitik, bere belztasuna hildumatua da. Eta arima arrazionalak burmuinaren barnean figurak eta espezieak ikusteko argia behar duela, aitzinerago frogatuko dugu.

Bederatzigarren argudioari ihardesteko, erraiten da gogoaren zuhurtzia eta trebetasuna, Galenok dioenez, irudimenari dagozkioa, eta horrekin etorkizuna ezagutzen dela. Eta horrela, Ciceronek hau erran zuen⁵²: *memoria praeteritorum, futurorum prudentia*; erran balu bezala: "oroimena iraganarena da eta zuhurtzia etorkizunarena".

Gogoaren trebetasunari gatzelaniaz agudeza in agilibus erraiten zaio, eta beste hitzez solertzia⁵³, maltzurkeria, finezia eta engainuak; eta horrela, hau erran zuen Ciceronek: *prudentia est calliditas quae ratione quadam potest delectum habere bonorum et malorum*⁵⁴. Era honetako zuhurtziaren eta trebetasunaren peitu dira endelegu handiko gizonak, irudimen falta dutelako; eta horrela dakusagu esperientziaz endeleguari dagozkion letretan letratu handi direnengan, horiek, hortik aterata, ez dutela deus balio munduaren amarrukerietan harremanik ukaiteko.

Zuhurtzi mota hau, Galenok hagitz ongi erran zuenez, koleratik sortzen da. Izan ere, Hippokratesek bere adiskide Damagetori kontatzen zionean nola eriden zuen Demokrito⁵⁵, hura bisitatzera eta sendatzera joan zitzaionean, izkiriatu zuen landan zela, platano baten gerizpean, bernutsik eta zapatarik gabe⁵⁶, harri baten aurkan etzanik, eskuan liburu bat zuela eta animalia hil eta zatikatuez inguraturik. Eta Hippokratesek, hartaz mira eginik, galde egin zion ea zertarako balio zuten animalia haiek hala, eta horri erantzun zion bilatzen ari zela ea zein humorek egiten zuen gizona oker, amarrutsu, maltzur eta gogoetatsu, eta eriden zuela (basapiztia haien anatomia eginez) kolera zela hain propietate txarraren kausa; eta gizon maltzurrez mendekatzeko, nahiko lukeela haiekin egin azeriarekin, sugearekin eta tximinoarekin egina zuena⁵⁷. Era honetako zuhurtziari gizonek gorrotagarri iritzi ez eze, horretaz jaun Done Paulok honela dio: *prudentia carnis inimica est Deo*⁵⁸. Eta horren arrazoa Platonek ematen du, dioenean: *scientia quae est remota a iustitia calliditas potius quam sapientia est appellanda*; erran balu bezala: "ez da arrazoirik justiziatik urrundurik dagoen zientzia

jakituria dei dadin, maltzurkeria edo malizia baizik⁵⁹. Eta horretaz baliatzen da beti ere debrua gizonen gaitz egiteko: ista sapientia non est de sursum descendens, sed terrena, animalis et diabolica; jaun Done Jakuek erran balu bezala⁶⁰: "jakituria hau ez da goitik jaisten, aitzitik, lurtarra da, ezgizatiarra eta deabruzkoa".

Bada beste jakituri mota, zuzen eta bakuna, eta horrekin gizonen ongia ezagutzen dute eta gaizkia gaitzesten. Eta hori, Galenok dioenez⁶¹, endeleguari dagokio, ahalmen horretan ezin baitagoke malizia, jukutria ez maltzurkeriarik, eta ez daki gaizkia nola egin daitekeen ere: hor guztia da zuzentasun, justizia, xalotasun eta argitasuna. Argitasun era hau erdiesten duen gizona zuzen eta bakun aurkitzen da; eta horrela, Demostenesek, Eskinoren aurka egin zuen hitzaldi batean epaileen onginahia erakarri nahirik, zuzen eta bakun deitu zituen, haien ofizioaren bakuntasunari adi⁶², zeinez Ciceronek honela erran zuen: simplex est officium atque una bonorum omnium causa⁶³. Jakituri mota honetarako tresna egokia da malenkoniaren hoztasun eta lehortasuna; baina atal oso mehe eta finez osaturik egon behar du.

Azken dudari erantzuten zaio erranez ezen gizonak jakin nahi duen egiaren bati behatzen hasi eta gero bera erdiesten ez duenean, burmuinakhorretarako komeni den temperamentua falta duela; baina behakuntzan zati batean egonez gero, berehala heldu zaio buruari bero naturala (zein baitira bizitzaren izpirituak eta arterietako odola) eta burmuinaren temperamentua igoten da, behar den punturaino ailegatu arte⁶⁴. Egia da espekulazio gehiegiak batzuei kalte eta beste batzuei probetxu egiten diela; zeren burmuinari komeni den berotasun puntura heltzeko gutxi falta zaionean, behatzen denbora laburra egon beharra dago; eta handik iragaten bada, endelegua laster hondatzen da bizitzaren izpirituen presentzia handiegiarekin, eta horrela ez du egia asmatzen. Hortik dakuskigu anitz gizon bat-batean hagitz ongi diotenak, baina gogoeta egin ondoan deus balio ez dutenak. Beste batzuek endelegua hain behean dute (hoztasun edo berotasun handiegiagatik), non beroak buruan luzaro egon behar baitu, horrela temperamentua falta dituen graduetera igon dadin; eta horrela, gogoeta egin ondoren bat-batean baino hobeki erraiten dute.

VII*

Non erakusten den, arima arrazionalak lau lehen kalitateen temperamentuaren premia duen arren, bai gorputzean egoteko eta bai gogoeta era arrazoiketa egiteko ere, ez dela horregatik inferitzen ustelkor eta hilkizuna denik

Gauza jakintzat eduki zuen Platonek¹ arima arrazionala gorputzik gabeko substantzia izpirituala zela, usteltzeko eta hilkizun ez zena, basa animaliena ez bezala; eta horrek, behin gorputzetik jalgirik, beste bizitza hobe eta lasaiagoa du, baina endelega bedi (dio Platonek)² gizona arrazoimenaren arabera bizi izan bada, zeren, bestela, hobe bailuke arimak gorputzean betiko gelditu, Jainkoak gaiztoak gaztigitzeko darabiltzan oinazeak pairatu baino.

Konklusio hau hain goren eta katolikoa izanik, berak bere argimenaren zorionarekin erdietsi bazuen, merezi onez du goitizenez Platon dibinoa. Baina dirudien bezalakoa izanik ere, hau ez zitzaion behin ere Galenori endeleguan sartu; aitzitik, susmagarritzat eduki zuen, gizon zentzuduna burmuina berotzean zorabiatzen eta medicina hotzak ematean bere senera zetorrela ikusirik. Eta horrela, erran zuen³ pozik zegokeela baldin Platon bizirik balego, hari galdetzeko ea nola izan zitekeen arima arrazionala hilezina, beroarekin, hotzarekin, hezetasun eta lehortasunarekin hain erraz aldatzen delarik; are gehiago ikusirik ezen gorputzetik alde egiten duela sukar handiren bategatik, edo gizonak odol asko galtzen duenean, edo zikuta edanez eta bizitza kendu ohi duten

gorputzaren beste aldaketa batzuegatik; eta hura, Platonek dioen bezala⁴, batere gorputzik gabea eta izpirituala balitz, ez lioke beroak (kalitate materiala izanik) bere ahalmenak galaraziko, ez eta haren obrak porroskatuko ere.

Arrazoi hauek Galeno nahasi zuten eta gogoia sortarazi ere bai platondarren batek horiek argi ziezazkion; eta uste dut bere bizitzan ez zuela holakorik eriden, baina behin hil eta gero esperientziak erakutsi zion bere endeleguak erdiesterik ukan ez zuena⁵. Eta horrela, egia da gure arima hilezina delako segurtasun ezin okertuzkoa ez dela giza arrazoietatik hartzen, eta, areago, hura ustelkorra dela frogatzen duen argudiorik ere ez da. Zeren bai batzuei eta bai besteei erraz erantzun baitakieke: Jainkoagan dugun fedek ez bestek egiten gaitu seguru eta fermu arimak betiko eta sekulako dirauelakoan⁶. Baina Galenok ez zuen arrazoirik ukan hura hain argudio arinekin baztertzeko, zeren ez baita ongi ateratzen filosofia naturalean tresnaren baten bidez egin behar diren obrak ongi buruturik atera ez direlako, hortik agente nagusiak falta ukaitea. Bere arteari ongi doakion pintzela duelarik, irudiak ongi egiten dituen pintatzaileak ez du errurik pintzel txarrekarekin figurak borroturik eta delineaizio txarrekoak egiten dituenen; eta ez da argudio ona pentsatzea eskribauak eskuan akatsen bat zuela ongi ebakirik luma faltaz, zotz batekin izkiriatu behar ukan zuelako.

Unibertsoan diren obra miragarriak eta zer nolako jakituria eta aurrikuspenaz eginik dauden kontsideraturik, Galenok munduan Jainkoa bazela atera zuen ondorioz, gorputzaren begiez hura ez dakusagun arren; eta hartaz hitz hauek erran zituen: *Deus nec factus est aliquando, cum perenniter ingenitus sit ac sempiternus*⁷. Eta beste leku batean dio giza gorputzaren fabrika eta eraketa ez zuela arima arrazionalak ez bero naturalak egiten, Jainkoak edo halako inteligentzia txit jakintsuren batek baizik⁸. Eta hortik Galenoren aurkako argudio bat molda daiteke, horren ondorio txarra deseginez. Gisa honetara: "hik susmatzen duk arima arrazionala ustelkorra dela, burmuinak, ongi tenplaturik baldin badago, gogoeta arras ongi egiten eta filosofatzen ere jakiten duelako, eta komeni baino gehiago berotu edo hozten bada, aldiz, burzoratzen eta mila ergelkeria erraiten dituelako. Hori bera inferitzen duk hire erranez Jainkoarenak diren obrak kontsideratuz gero; zeren baldin gizon bat egiten bada beroa hotzari eta hezetasuna lehortasunari aitzineratzen ez zaizkienean, hagitx argitsu eta diskretu ateratzen baitu, eta herrialdea destenplatu bada, ordea, guztiak ergel eta burugabe ateratzen ditu" (Eta horregatik Galenok berak dio Eskitian ez dela gizon jakintsu bat jalgitzen, mirakuluz ez bada, eta Atenasen, aldiz, guztiak filosofo jaiotzen direla)⁹. Izan ere, kalitate batzuekin obra hauek ongi egiten dituelako, eta kontrarioekin erraturik ateratzen direlako, Jainkoa ustelkorra dela susmatzea ezin aitor dezake Galenok, Jainkoa betierekoa dela erran duenez gero.

Platon beste bide zuhurrago batean barna dabil, erranez ezen, Jainkoa betierekoa, ahalguztiduna eta jakituria infinitukoa izanik ere, bere burua agente naturaltzat daukala bere obretan eta lehen lau kalitateen jarrerara lotzen dela¹⁰, eta halako moldez non gizon guztiz jakintsua eta bere antzeko bat sortarazteko, leku bat bilatu behar baitzuen, mundu osoan zenik tenplatuena, hor airearen beroa hoztasunari, eta hezetasuna lehortasunari aitzineratzen ez zitzaizkielako. Eta horrela, erran zuen: *Deus vero, quasi belli ac sapientiae studiosus, locum qui viros ipsi simillimos producturus esset, electum in primis incolendum praebuit*¹¹. Eta baldin Jainkoak egin nahi balu gizon guztiz jakintsu bat Eskitian edo beste herrialde destenplaturen batean, eta bere ahalguztiz balia ez baledi, nahitaez ergel bat atera liteke lehen kalitateen kontrakotasunagatik; baina ez zuen Platonek inferitu, Galenok egin zuen bezala, Jainkoa aldakor eta ustelkorra zela beroak eta hotzak bere obrak eragozten dizkiotelako. Ondorio bera atera beharra dago arima arrazionalak, burmuin gartsuan dagoelako, diskrezioaz eta

zuhurtziaz usatzerik ez daukanean; horregatik hilkor eta ustelkorra dela pentsatu gabe. Gorputzetik kanporatzea eta sukarr handia eta gizona hil ohi duten gainerako aldaketak ezin pairatzeak, ez du besterik argudiatzen giza gorputzaren egintza eta forma substantziala dela baino¹², eta hartan egoteko jarrera material batzuk behar dituela arimatik duen izaerari egokituak, eta lan egiteko dauzkan tresnak ongi osaturik, ongi baturik egotea, eta haren obrek behar duten tenperamentuaz hornituak; hori guztiori faltatuz gero, nahitaez haiek oker egin eta gorputzetik alde egin behar baitu.

Galenoren errakuntza honexetan datza, filosofia naturalaren hastapenen bidez ea arima arrazionala, behin gorputza falta delarik, ondoan hiltzen den ala ez, kontu hau beste zientzia gorago eta oinarri egiazkoagoak dauzkan bati doakionean, eta horretan frogatuko dugu ez dela argudio ona harena, eta ez dela ongi inferitzen gizonaren arima ustelkorra izatea gorputzean geldi kalitate batzuekin egoteagatik eta kontrakoekin bertatik alde egiteagatik. Eta hau ez da frogatzeko zaila. Zeren arima arrazionalak baino hobakuntza handiagoa duten beste substantzia izpiritual batzuek kalitate materialekin apailaturiko lekuak hautatzen baitituzte, eta dirudenez hor beren gogara bizi dira, eta kontrako jarrera batzuk gertatzen badira, hortik berehala alde egiten dute, horiek ezin pairatuz. Eta, horrela, egia da badirela giza gorputzean jarrera batzuk zeintzuk deabruak hainbeste agoniaz¹³ irrikatzen dituen, non horiez gozatzeagatik¹⁴, horiexek dauzkan gizonagan sartzen baita, eta horrela demoniaturik gelditzen; baina behin ustelduz, kontrako medizinekin aldatuz eta humore beltz, kirats eta satsuak kanporatu ondoan, berez jalgitzen da berriz ere. Hau argi erakusten du esperientziak: Izan ere, etxe handi, ilun, zikin, kirats, triste eta bizilagunik gabea dagoenean, iratxoak hara berehala abiatzen dira; eta hura garbitzen eta leihoak irekitzen badizkiote, eguzkia eta argitasuna sar dakion, laster handik alde egiten dute, batez ere hartan jende anitz bizi bada, eta bertan jolasak eta denborapasak baldin badira, musika-tresnak joaz.

Harmoniak eta proportzio onak deabruari nolako mina eman dion klarki ageri da jainkozko testuak dioenarekin: zeren, Davidek bere harpa hartu eta hura jotzean, berehala jalgitzen baitzen deabrua iheska Saulen gorputzetik. Eta honek bere izpiritua badu ere, nik aditua daukat musikak deabruari berez min ematen ziola, eta ezin zezakeela hura paira. Israelgo Herriak jadanik esperientziaz zekien deabrua musikaren etsaia zela, eta hala aditua zeukatelako erran zuten Saulen morroiek honela: ecce spiritus Dei malus exagitat te: jubeat Dominus noster rex, et servi tui, qui coram te sum, quaerent hominem scientem psallere cithara, ut quando arripuerit te spiritus Domini malus, psallat manu sua et levius feras¹⁵. Eta deabruari dardara eragiten dioten hitzak eta konparazioak diren bezalaxe, eta horiek ez entzuteagatik bere bizilekutat harturik zeukan tokia uzten, era berean, Josefok kontatzen duenez, Salomonek konjuruak egiteko modu batzuk izkiriaturik utzi omen zituen, eta horiekin deabrua presentean jaurtiki ez eze, aitzitik, behin kanporatua izan ondoan, ez zen gorputz hartara berriz itzultzera ausartzen. Salomonek berak sustrai bat erakutsi omen zuen deabruarentzat hain usain kiratsa zuena, non deabruaren sudurretan jarriz gero, berehala kanpora egozten baitzuen¹⁶. Hain da lohia deabrua, hain triste eta gauza garbi, alai eta argien etsai, non Jesu Kristo sartu zenean Gerasiarren herrialdean, Done Mateok kontatzen duenez, deabru batzuk aitzinera etorri zitzaizkion, hilobietatik atera zituzten bi gorpu hiletan sarturik, heiagoraka honela erranez: "Jesus, Daviden semea, zer da gure eta hire artean? Etorri haiz hona ordu baino lehen gure tormentatzera? Otoi eskatzen dizugu, baldin kanpora egozten bagaituk, permiti iezaguk urdalde hartara joatera"¹⁷. Arrazoi horregatik izpiritu satsuak deitzen ditu Eskriturak. Horregatik klarki aditzen da ez duela, soilki, arima arrazionalak jarrerarik eskatzen gorputzean bera itxuratzeko eta haren obra guztien hastapena izateko, baina hartan egoteko ere bai, bere izaerari dagokion leku

aproposean bezala, halaxe behar ditu: zeren deabruak, substantzia are hobezkoak izanik ere, gorputzezko kalitate batzuk gaitzesten dituzte, eta aurkakoeekin jostatzen eta bozkariatzen dira. Beraz, ez da argudio ona Galenorena: "Arima arrazionala gorputzetik sukar handi bategatik joaten da, beraz, ustelkorra da"¹⁸; deabruak ere horixe egiten du (erran dugun gisan), eta ez da hilkorra.

Baina asmo honetan nabarmenen ohartu beharrekoa da deabruak ez dituela, soilki, gorputzezko kalitateekin apaitaturiko lekuak atsegin, horietan bere gogara egoteko, baina ardura handia ematen dion gauzaren bat egin nahi duenean ere, helburu horretarako laguntzen duten gorputzezko kalitateez baliatzen da. Izan ere, neronek galde baneza orain ea deabrua zertan oinarri zitekeen, Eva engainatu nahi zuenean, lehenago suge pozoitsuaren baitan sartzeko, zaldi, hartz, otso eta hain itxura espantagarria ez zuten beste hainbat animalien baitan baino, nik ez dakit nork zer erantzun liezadakeen. Ongisko dakit Galenok ez dituela Moiseren ez Kristo gure berreroslearen erranak eta esapideak onartzen, horiek biok, berak dioenez, frogarik gabe mintzo direlako¹⁹, baina beti jakin nahi ukan dut katolikoren batengandik zalantza honen soluzioa, eta batek ere ez dit eman.

Hori egia da, jada frogaturik utzi dugunez, kolera erre eta kiskalia arima arrazionalari gezurak eta engainuak nola egin irakasten dion humorea dela. Eta basa animalien artean, bat bera ere ez dago humore horretan sugeak bezainbat parte hartzen duenik; eta, horrela, Jainkozko Eskriturak dio guztiak baino maltzur eta mainatiagoa dela²⁰. Arima arrazionalak, inteligentzia guztietarik behekoena izanik ere, badu, halere, deabruak eta aingeruek duten natura bera²¹. Eta, gizona maltzur eta mainatia izateko, arima kolera pozoitsu honetaz baliatzen den bezala, halaber deabrua, basapiztia gaizto haren gorputzean sarturik, are burutsuago eta amarrutsuago egin zen. Filosofatzeko molde honek ez ditu hagitz izutuko filosofo naturalak, horrela izateko itxuraren bat duelako. Baina horien iritzia gehienik asebeteko duena hauxe da, zeren Jainkoak mundua desengainatu eta egia klarki erakutsi nahi zuenean (deabruak egin zuen obraren kontrakoa, alegia) uso itxuraz etorri baitzen, eta ez arrano ez pauma gisa, ez eta figura ederragoa duten beste hegazti batzuen itxuran. Eta horren kausa jakina da, usoak zuzentasunera, lautasunera eta xumetasunera makurrarazten duen humorean parte handia hartzen duelako, eta kolera falta du²², maltzurkeriaren eta gaiztakeriaren tresna berau²³.

Galenok ez du gauza hauetako bat bera ere onartzen, ez eta filosofo naturalek ere. Ezin endelega dezaketelako nola arima arrazionalak eta deabruak, substantzia izpiritualak izanez, alda daitezkeen beroa, hotza, hezetasuna edo lehortasuna bezalako kalitate materialengatik: izan ere, suak egurrean beroa sartzen du, biek atxikitzeke gorputz eta zenbategotasuna dutelako, substantzia izpiritualek falta dutena, hain zuzen. Eta gorputzezko kalitateek substantzia izpirituala alda lezaketela ezinezkotzat emanik ere, nolako begiak ote ditu deabruak, eta arima arrazionalak, gauzen koloreak eta figurak ikusteko, edo nolako usna, usainez ohartzeko, edo nolako entzumena musikarako, edo nolako ukimena bero handiegiaz mintzeko, horretarako guztirako gorputzezko organoak behar izanez gero? Eta, baldin arima arrazionala gorputzetik aldenduz gero, mintzen bada eta oinaze eta tristura izaten badu, ezin dagoke haren izaera aldatu eta usteltzera etorri gaberik. Zailtasun eta argudio hauek tratatu zituzten Galeno eta gure garaiko filosofoak, baina enekiko ez dute konkluditzen.

Izan ere, Aristotelesek erran zuenean substantziak zeukan propietaterik handiena akzidenteent²⁴ subjektu izatea zela, ez zuen hori mugatu gorputzezkora ez eta izpiritualera ere, espezieak, halaber, generoaren propietatearen partaide direlako; eta, horrela, erran zuen gorputzaren akzidenteak arima arrazionalaren substantziara iragaten direla, eta arimarenak gorputzera, eta hastapen horretan oinarritu zen fisionomiaz erran

zuen guztia izkiriatzeko. Are gehiago ahalmenak²⁵ aldarazten dituzten akzidenteak, oro izpiritualak, gorputzik gabe, zenbatekotasunik eta materiari gabeak direla kontutan harturik; eta horrela une batez erditik ugaltzen dira²⁶ eta beirategi batetik iragaten dira hura hautsi gabe, eta elkarren aurkako bi akzidente subjektu beraren baitan egon daitezke²⁷ eduki dezaketen intentsio osoarekin; eta propietate horiengatik Galenok berak zatietzen deitu zituen, eta filosofo arruntek intentsionalak²⁸. Eta honelakoak izanik, egokiro pareka daitezke substantzia izpiritualarekin²⁹.

Nik endelega dezaket ezen arima arrazional gorputzetik apartatuak, eta deabruak ere, ikusmen, usaimen, entzumen eta ukimena ukan dezaketela; eta hori guztia frogatzeko erraza da. Zeren ahalmenak egintzetatik ezagutzen direla egia baldin bada, segur baita deabruak usaimena zuela, Salomonek demoniatuen sudurretan paratzeko manatzen zuen sustrai hura usnatzen zuelako; eta entzumena ere bazuela, Davidek Sauli ematen zion musika entzuten zuelako. Izan ere, kalitate horiek deabruak endeleguarekin biltzen zituela ezin erran daiteke filosofo arrunten doktrinan, ahalmen hori izpirituala baita, eta bost zentzuen objektuak, aldiz, materialak. Eta, horrela, beste ahalmen batzuk bilatu behar dira arima arrazionalen eta deabruagan, horiekin egokiro parekatzeko.

Duda horiek guztiok ongi ateratzen zituen aberats zikoitzaren arimak, zeinez Done Lukasek erraiten baitu ezen infernuan zelarik begiak altxa eta Lazaro ikusi zuela Abrahamen golkoan, eta oihuka honela erran zuela: Pater Abraham, miserere mei: mitte Lazarum ut intingat extremum digiti sui in aquam ut refrigeret linguam meam, quia crucior in hac flamma; erran balu bezala: "Aita Abraham, urrikal zaitez nitaz eta igor iezadazu Lazaro bere erhiaren mokoia uretan busti dezan eta freska diezadan mihia, gaur honetan tormentatzen naiz eta"³⁰. Iraganiko doktrinatik eta letra honek dioenetik ateratzen da arimak infernuan erretzen dituen sua materiala dela, hemen duguna bezalakoa, eta aberats zikoitzari eta beste arimek ere (Jainkoaren erabakiaz) beroarekin min ematen ziela, eta baldin Lazarak balerama pitxar bete ur hotz, atsegin handia senti lezakeela, hartan sarturik. Eta honen arrazoia hagitz argi dago; zeren gorputzean egotea ezin sufri bazezakeen berotasunaren bero handiagatik, eta ur hotza edaten zuenean atsegin bizia sentitzen bazuen, zergatik ez dugu gauza bera ulertuko infernuko suko garrekin loturik dagoenean? Aberats zikoitzak begiak gora altxatzea, eta mihi egartsua, eta Lazaroren erhia, guztiok arimaren ahalmenen izenak dira, Eskriturak azaltzeko erabiliak: bide honetatik ez doazenek, eta filosofia naturalean oinarritzen ez direnek mila burugabekeria erraiten dituzte.

Nolabaiteko endelegurik eza da uste izatea deabruak, edo arima arrazional gorputzetik apartatuak, ezin ezagut ditzakeela bost zentzuen objektuak gorputzezko tresnarik ez izateagatik, zeren arrazoi berberagatik frogatuko baitiet arima arrazional gorputzetik apartatuak ezin endelega, irudika, ez eta oroimenezko egintzarik egin dezakeela. Zeren, gorputzean delarik, behin begiak hautsi eta gero ezin ikus dezakeenez, halaberean ezin gogoeta egin dezake ez eta oroitu ere burmuina hanturik duenean. Izan ere, arima arrazional gorputzetik apartatuak, burmuinik ez daukalako, ezin dezakeela gogoetarik egin erraitea ergelkeria handia da, Abrahamen historia berean frogatzen den bezala: Fili, recordare quia recipisti bona in vita tua, et Lazarus similiter mala; nunc autem hic consolatur, tu vero cruciaris; et in his omnibus inter nos et vos chaos magnus firmatus est, ut hi qui volunt hinc transire ad vos non possint, nec inde huc transire. Et ait: rogo ergo te, Pater, ut mittas eum in domum patris mei: habeo enim quinque fratres, ut testetur illis, ne et ipsi veniant in hunc locum tormentorum³¹. Eta hortik konkluditzen dut ezen bi arima hauek beren artean arrazoiketari aritu ziren bezala, aberats zikoitza bere aitaren etxean bost anaia zituela oroitzen zelarik, eta Abrahamek mundu honetan ukan zuen biziera ona eta Lazaroren nekeak gogora ekarri zizkionez, horretarako burmuinaren

premiarik ukan gabe, era berean ikus dezakete arimek gorputzezko begirik gabe, mihi gabe dasta, sudurrik gabe usna eta nerbio eta haragirik gabe uki; eta hagitzez ere hobeki, konparaziorik gabe. Gauza bera aditzen da deabruaz ere, arima arrazionalaren izaera bera duelako. Eta ezpere, demagun aberats zikoitzaren arimak erdiets zezakeela Abrahamengandik Lazaroren arima mundura haren anaiei predikatzea etortzea, onak izateko komentzitera, hura zen oinaze-lekura joan ez zitezen. Orain nik hau galdetzen dut: Nola asma zezakeen Lazaroren arimak hirira eta horien etxera etortzea? Eta karrikan, beste batzuen konpainian, aurki balitza, beren aurpegiengatik ezagutuko eta haiekin zirenetatik bereiziko ote lituzke? Eta aberats zikoitzaren anaia horiek nor zen eta nork hara bidaltzen zuen galde baliezaiote, ukan ote lezake haien hitzak entzuteko ahalmenik? Gauza bera galde egin daiteke deabruaz, Kristo gure berreroslearen atzetik zebilenean, hura predikatzen entzuten eta egiten zituen mirariak ikusten. Eta biek desertuan ukan zuten eztabaida hartan, nolako belarriez aditzen zituen deabruak Kristok erraiten zizkion hitzak eta erantzunak?

Baina arima arrazionalak oinaze eta tristura baldin badu, horren izaera kontrako kalitateekin aldatzen delako, ez da hortik segitzen ustelkor ez hilkorra denik. Zeren errautsak, lau elementuez eta egintzaz eta ahalmenaz osaturik egonik, ez baita munduan agente naturalik haiek ustelaraz eta beren izaerari dagozkion kalitateak ken diezazkiokeenik. Errautsen tenperamentu naturala, guztiok dakigunez, hotza eta lehorra da; baina sutara jaurtiki baditzagu ere, behin ere ez dute sustraian daukaten hoztasuna galduko, eta uretan ehun mila urtez egonik ere, ezinezkoa da berenezko hezetasun propioarekin gelditzea. Eta honekin, ezin gaudeke aitortu gabe suarekin beroa eta urarekin hezetasuna hartzen dutela; baina bi kalitate hauek, errautsetan, azalezkoak dira eta subjektuaren baitan gutxi diraute, sutatik apartatu eta gero berehala hotz bilakatzen baitira, eta uretatik kendurik ez baitie irauten hezetasunak ordu bat ere³².

Baina duda bat ageri da aberats zikoitz hark Abrahamekin erabili zuen solasaldi eta eztabaida hartan; hots, ea nola jakin zituen Abrahamen arimak are arrazoi delikatuagoak aberats zikoitzarenak baino, lehenago errana bada arima arrazional guztiak (gorputzetik jalgiak) hobezintasun eta jakituria berekoak direla. Eta horri bi era hauetako batez ihardets dakiok. Lehenbizikoa da gorputzean zelarik arimak lorturiko zientzia eta jakintza ez dela galtzen gizona hiltzean; aitzitik, gero hura hobetzen duela, zenbait errakuntzaz desengainaturik. Abrahamen arima bizitza honetatik arras jakintsu abiatu zen, eta Jainkoak, haren adiskidea baitzen, jakinarazi zizkion iradokizun eta sekretu anitzez betea. Baina aberats zikoitzarenak nahitaez ezjakin gertatu behar zuen, alde batetik bekatuagatik, gizonarengan ezjakintasuna sortarazten duelako, eta bestetik aberastasunak pobreziaren aurkako ondorioa dakarrelako³³: honek gizonari argimena ematen baitio, geroago frogatuko dugunez, eta ondasunek, aldiz, kentzen.

Gure doktrinari jarraikiz bada beste ihardespun bat ere, hots, bi arima hauek eztabaidan zerabilten gaia teologia eskolastikoa baitzen, zeren, infernua izanik, han urrikalmendurik egon ote zitekeen jakitea, eta ea Lazaro linbotik infernura iragan ote zitekeen, eta han kondenatuek pairatzen zituzten oinazeen berri emateko, hildakoren bat mundura bidaltzea komeni ote zen, horiek guztiok puntu eskolastikoak baitira, eta horiek trenkatzea endeleguari dagokio, aitzinerago frogatuko dudana bezala³⁴. Eta lehen kalitateen artean batek ere ez du ahalmen hau horrenbeste deusezten, nola bero handiegiak egiten duen, eta harekin ongi tormentaturik zegoen aberats zikoitza. Baina Abrahamen arima leku ezin epelagoan bizi zen, kontsolamendu eta atsegin handia zuen tokian, eta horrela ez zen harritzekoa gogoeta hobeki egitea. Eta hortik konkluditzen dut arima arrazionala eta deabrua kalitate materialez baliatzen direla beren obrak egiteko, eta batzuekin mindu eta kontrakoekin kontentua hartzen dutela, eta arrazoi horregatik

toki batzuetan egon nahi dutela eta beste batzuetatik iheska doazela, ustelkorrak ez izanik ere³⁵.

VIII [1594.eko X.a]

Non argimen ezberdin bakoitzari ematen baitzaio berari bereziki dagokion zientzia, higuingarri eta kontrario duena kendurik

Arte guztiak, dio Ciceronek¹, halako hastapen unibertsal batzuen pean moldaturik daude, horiek ikasketekin eta trabailuekin eskuratu ondoan azkenean erdietsiz; baina poesiaren artea honetan hain da berezia, ezen baldin Jainkoak² edo Naturak gizona poeta egiten ez badute, deus gutxi probetxatzen zaio agindu eta erregelekin neurtitzak nola moldatu behar dituen irakastea. Eta, hortaz, honela dio: *Caeterarum rerum studia, et doctrina et preceptis et arte constant; poeta natura ipsa valet et mentis viribus excitatur, et quasi divino quodam spiritu afflatur*³. Baina honetan ez du arrazoirik Ciceronek; zeren, egiazki, ez baita zientzia ez errepublikan asmatu arerik ere, gizonak, horretarako argimena falta duenean, hori ikasten hasi arren, erdiets dezakeenik, haren agindu eta erregeletan bere bizitza guztian lanean aritu arren; eta bere trebetasun naturalak eskatzen zuenarekin asmatzen badu, ikusiko dugu bi egunetan hura irakasten dabilela. Gauza bera gertatzen da poesian ere, inolako ezberdintasunik gabe: zeren hartarako izaera egokia duena bertsogintzan hasten bada, hobezintasun handiz egiten baititu, eta, bestela, poeta txarra izanen da betiko.

Hau honela izanik, irudi zait honez gero badela garaia jakiteko, arte gisa, nolako zientzia ezberdina dagokion bereziki argimen ezberdin bakoitzari, bat bederak uler dezan argiro (nork bere izaera jakin eta gero) zein artetarako duen jarrera naturalik.

Oroimenaz erdiesten diren arteak eta zientziak ondoko hauek dira: gramatika, latina eta beste zernahi hizkuntza; jurisprudentziako erretorika; teologia positiboa; kosmografia eta aritmetika.

Endeleguari dagozkionak hauek dira: teologia eskolastikoa; medikuntzaren teorika; dialektika; filosofia naturala eta morala; jurisprudentziaren praktika, abokatutza deitua.

Irudimen onetik figuran, korrespondentzian, harmonian eta proportzioan mamitzen diren arte eta zientzia guztiak sortzen dira. Hauek dira: poesia, bokantza, musika, predikatzen jakitea, medikuntzaren praktika, matekatika, astrologia, errepublika bat gobernatzea, arte militarra; pintatzea, marraztea, izkiriartzea, irakurtzea, gizon grazioso izatea, goitizen-emailea, dotorea, in agilibus zorrotza izatea, eta artelariak itxuratzen dituzten argimen eta amarru guztiak; bai eta jende arruntak miresten duen grazia bat ere, hau da, hiru izkiriartzaileri batera gai ezberdinak diktatzea, eta guztiak txit ongi ordenaturik ateratzea.

Honetaz guztiaz ezin egin dezakegu erakuspen nabarmenik, ez eta gauza bakoitza banan-banan frogatzerik, ez balitzateke behin ere bukatuko. Baina hiruzpalau zientzian kontua eginik, gainerakoetan arrazoi berak balioko duke.

Oroimenari dagozkiola erran ditugun zientzien katalogoan, latin hizkuntza eta munduko nazio guztiek hitz egiten dituzten gainerakoak eman ditugu. Eta hori ezein gizon jakintsuk uka dezake; zeren hizkuntzak izan baitziren gizonak bilatu zuten asmaketa bat, beren artean komunikatu eta batzuek besteei beren kontzeptuak azaltzeko, eta hor ez dago beste misteriorik ez hastapen naturalik, lehen asmatzaileak elkarrekin bildu eta, beren gogara, Aristotelesek dioenez⁴, eleak eratu eta bakoitzari bere erran-nahia ematea baizik. Handik hainbat hitz sortu ziren eta mintzatzeko hainbeste molde, kontu eta arrazoirik gabeak, ezen oroimen ona eduki ezik, ezina baita beste ezein ahalmenez elkar konprenitzerik.

Hizkuntzak eta mintzatzeko manerak ikasteko, irudimenak eta endeleguak zein desegoki diren, haurtzaroak frogatzen du klarki, zeren hura gizona bi ahalmen horiez gabetuenik dagoen adina izan arren, halere, Aristotelesek dioenez⁵, haurrek edozein hizkuntza

hobeki ikasten baitute gizon nagusiek baino, hauek arrazionalagoak badira ere. Eta inork erran gabe, esperientziak berak erakusten digu hori argiro; izan ere, badakusagu ezen baldin hogeita hamar edo berrogei urteko bizkaitar⁶ bat Gaztelara bizitzera badator, ez duela inoiz erdara ikasten, eta mutila baldin bada, bi edo hiru urtetan Toledon jaioa dirudiela. Gauza bera gertatzen da latin hizkuntzan eta munduko gainerako guztietan ere, mintzaira guztiek arrazoi⁷ berbera dutelako. Hortaz, oroimenak gehienik erreinatzen duen eta endelegu eta irudimenik gutxien daukan adinean, hizkuntzak hobeki ikasten badira oroimena falta eta endelegua sobera dagoenean baino, egia da horiek oroimenarekin eskuratzen direla eta ez beste ezein ahalmenaz.

Hizkuntzak, Aristotelesek dioenez⁸, ezin atera daitezke arrazoiz, eta ez dautza gogoeta ez arrazoiketari; eta, horrela, beste bati entzun behar zaio elea eta horrek duen errannahia, eta oroimenean gorde. Eta honekin frogatzen du ezen baldin gizona gor jaiotzen bada, nahitaez mutu izan behar duela, izenen artikulazioa ez eta asmatzaileek eman zieten errannahia beste bati ezin entzun diezazkiokelako.

Hizkuntzak gizonen gogara eta apetaz eginak, eta ez besterik, direnez gero⁹, argiro inferitzen da zientziak mintzaira guztietan irakats daitezkeela, eta edozeinetan erran eta azaltzen dela besteak sentitu nahi zuena. Eta, horretara, autore nagusietarik inor ere ez zen joan atzerriko hizkuntzaren bila bere kontzeptuak adierazteko; aitzitik, grekoek grezieraz izkiriatu zuten, erromatarrek latinez, hebrearrek hebraieraz, eta mairuek arabieraz; eta honelaxe egiten dut neure espainieraz ere, hizkuntza hau beste zeinahi baino hobeki dakidalako¹⁰. Erromatarrek, munduko jaunek bezala, nazio guztiek elkarrekin komunikatzeko hizkuntza komuna eduki behar zela ikusirik, eta berek, justizia eske eta beren gobernazioari zihoazkion gauzak eskatzera zetozkienak entzun eta ulertzeko, manatu zuten beren inperioko leku guztietan eskola izan zedila¹¹, hartan latin hizkuntza irakasteko; eta horrela iraun du gaurdaino.

Egia da teologia eskolastikoa endeleguari dagokiola, ahalmen horren obrak bereiztu, inferitu, arrazoitu, epaitu eta hautatzea direnez geroztik; zeren ahalmen honetan ez baita deus besterik egiten eragozpenengatik dudatzea, bereizmenez erantzutea, eta erantzunaren aurka ondorio onean ateratzen dena inferitzea baino, eta berriz erantzutea, harik eta endelegua sosegatu arte.

Baina puntu honetan eskain daitekeen frogarik handiena hau da, latin hizkuntza teologia eskolastikoarekin nolako zailtasunarekin elkartzen den adieraztea, eta nola, ordinariozki, ez den gertatzen norbera latindar handia eta batera eskolastiko sakona izatea. Eta honezkero horretaz ohartu diren kurioso batzuk, ondorio hori miretsirik, hori hola izateko arrazoiak eta kausa bilatzera saiatu ziren, eta beren kontutik aurkitu zuten ezen teologia eskolastikoa hizkuntza laño eta arruntez izkiriaturik egonik eta latindar handiek belarria Ciceronen tankera zapoetsu eta dotorera eginik daukatenez, ezin daitezkeela hartara ongi molda. On lukete latindarrek hori egiazko kausa balitz, erabileraz belarria behartuz, haien eritasunak erremedioa bailuke. Baina benetan mintzatuz gero, buruko mina da gehiago, belarriko mina baino.

Latintzale handiek nahitaez oroimen handia daukate, zeren bestela ez bailirateke berena ez duten hizkuntzan horrenbeste nabarmenduko. Eta oroimen handia edukitzea eta zorionekoa izatea pertsonarengan endelegu handi eta eta goratuaren erabat aurkakoa denez, atzera egin eta puntutik eraisten du; eta hortixek heldu da horrenbesteko endelegu goratu eta zentzuzkoa ez duenak (ahalmen honi bereiztea, inferitzea, arrazoitzea, epaitzea eta hautatzea baitagozkio) teologia eskolastikoan maila gorarik ez erdiestea. Arrazoi honekin honela konkludi ez dezanak irakur bitza Done Tomas, Eskoto, Durardo eta Cayetano, fakultate honetako lehenak alegia¹², eta haien obretan anitz xehetasun delikatu aurkituko ditu, latin oso lau eta arruntean izkiriatuak. Eta

horren kausa hau besterik ez zen izan, hots, autore horiek haurtzarotik oroimen erabat ahula ukan zutela latin hizkuntzan abantailoski aritzeko; baina behin dialektika, metafisika eta teologia eskolastikora etorririk, orain dakusagun guztia erdietsi zuten, endelegu handia zutelako.

Teologo eskolastiko batez nik badakit erraiten (eta hura ezagutu eta tratatu zuten beste anitzek ere) fakultate horretako lehenetako bat izanik ere, ez zuela dotoretasunik erraiten ez eta Ciceronen gisako klausula biribilik ere, baina katedran irakurtzen zuenean dizipuluek nabaritzen zioten latin gutxi eta arrunta zerabilela. Eta horrela, kontseilu eman zioten -doktrina honen berri ez zuten gizonak izanik- sekretuki teologia eskolastikoaren estudioari tarte batzuk kendu eta enplega zitzala haiek Ciceron irakurtzen. Eta hark, adiskide onen aholkua zela ezaguturik, hura erremediatzera saiatu zen, eta ez soilik ezkutuki, baina agerriz ere bai, eta De Trinitate¹³ gaia, edo Jainkozko Hitza nola haragitu zen, irakurtzen bukatu bezain laster latinezko eskola entzutera sartzen zen. Eta ohartzekoa zen, horrela aritu zen denbora luzean, ezer berririk ez ikasteaz gainera, lehendik zekien latin arrunta ere kasik galdu zuela, eta horregatik gaztelaniaz irakurtzera beharturik egon zen.

Pio IV.ak galdetu zuenean zein teologo nabarmendu zen gehienik Trentoko Kontzilioan, erran zioten aparteko espainol teologo bat izan zela, haren bereizmena, argudioak, erantzunak eta xehetasunak miresgarriak baitziren. Eta Aita Sainduak hain gizon seinalatua ikusi eta ezagutu nahirik, Erromara etortzeko mandatua bidali zion, Kontzilioan gertatu zenaren berri eman ziezaion. Eta hari, Erroman zelarik, anitz mesede egin zizkion; horien artean burua estaltzeko erran zion eta, eskutik harturik, paseoan eraman zuen Santangeloko gazteluraino, eta oso latin dotorean han, sendoago egiteko, egiten zituen obrak azaldu zizkion, arlo batzuetan bere iritzia eskatuz. Eta hain larriturik ihardetsi zionean, latinez ez baitzekien, non Espainiako enbaxadorea (garai hartan Don Luis de Requesens, Gaztelako Gomendadore Nagusia zena) haren fabore atara zen bere latinarekin, Aita Saindua beste gai batekin distraitzeko. Azkenean, Aita Sainduak bere Ganbarakoei erran zien hain latin gutxi ulertzen zuen gizon batek ezin jakin zezakeela hainbeste teologia, erraiten zuten bezala¹⁴. Eta oroimenaren obra den hizkuntza honetan, eta irudimen onari dagozkion eraikuntza arloetan, frogatu zuen bezala, endeleguari doazkion gauzetan tentatu izan balu, jainkozko kontsiderazioak erran ziezazkiokeen¹⁵.

Irudimenari dagozkion zientzien katalogoaren hasieran poesia jarri genuen, eta ez beharbada edo kontsideraziorik ezaz, baizik eta adierazteagatik zein urrun diren endelegutik neurtitzak egiteko etorri handia dutenak. Eta horrela aurkituko dugu latin hizkuntzak teologia eskolastikoarekin bat egiteko duen zailtsun berbera dagoela (eta konparaziorik gabe hagitzek ere handiagoa) ahalmen honen eta neurtitzak egiteko artearen artean. Eta hain da endeleguaren aurkakoa, ezen baldin inor hartan nabarmenki agertuko balitz, ahalmen honi dagozkion zientzia guztiei adio egin bailiezaieke; bai eta latin hizkuntzari ere, irudimen onak oroimen handiarekin duen aurkakotasunagatik.

Lehenbizikoaren arrazoia ez zuen Aristotelesen erdietsi. Baina ene errankizuna esperientzia batekin baieztatzen du, dioela¹⁶: Marcus, civis Syracusanus, poeta erat praestantior dum mente alienaretur; erran balu bezala: "Marko sirakusarra poeta hobea zen bere senetik aterea egoten zenean". Eta horren arrazoia da, poesiari doakion irudimenaren diferentziak berotasunean hiru gradu galtzen dituelako; eta hain kalitate trinko honek, lehenago erran dugun bezala, alferrik eta arras galtzen du endelegua. Eta horretaz ongi ohartu zen Aristoteles bera, zeren, behin Marko sirakusarra tenplatu eta gero, endelegu hobea zuela erraiten baitu, baina ez zituela bertsoak hain ongi moldatzen, irudimenaren diferentzia honek berorik ezarekin obratzen baitu. Eta hori

Ciceronek falta zuen, bere kontsulaldiko egintza heroikoak eta berak gobernatua izatean Erromak ukan zuen zorioneko jaiotzea bertsotan izkiriatu nahi zituenean honela esatean: O fortunatam natam me consule Romam! ¹⁷ Eta Juvenalek Ciceronek bezalako argimena zeukan gizon batek poesia zientzia higuingarri zuela ezin endelegatuz, satiraz hura zirikatu zuen, zioela: "Marco Antonioren aurkako filipikak bertso zirtzil honen tonuan erran bahitu, ez hukeen bizitza galduko".

Are okerrago asmatu zuen Platonek erran zuenean¹⁸ poesia ez zela giza zientzia, jainkozko iradokizunak baizik, zeren, poetak beren senetik at, edo Jainkoaz beterik¹⁹, ez zeudenean ezin bertsorik egin zezaketelako, ez eta gauza bikainik erran ere. Eta arrazoi batekin frogatzen du, erranez gizonak, bere senean dagoeno, ezin dagikeela bertsorik. Baina Aristotelesek²⁰ mokoka egiten dio [Platonek] dioenean poesiaren artea ez dela giza trebetasuna, jainkozko iradokizunak baizik, eta onartzen du bere senean dagoen eta erabateko zentzua daukan gizona ezin izan daitekeela poeta; eta horren arrazoa hau da, endelegu handia dagoenean, nahitaez irudimenik ezak egon behar duela, beroni baitagokio bertsogintzarako artea²¹. Eta horretaz are froga handiago eman daiteke jakinik ezen Sokratesek poesi artea behin ikasi eta gero haren manu eta erregela guztiekin, ezin zezakeela batere bertsorik ere egin. Eta, halere, Apoloren orakuluak munduko gizonik jakintsuen iritzi ziola.

Eta horrela gauza egiazkotzat daukat bertsogintzarako etorri handia lukeen mutilak, eta kontu gutxirekin anitz [errima] kontsonante lor litzakeenak, eskuarki arrisku handia du latin hizkuntza, dialektika, filosofia, medikuntza eta teologia eskolastikoa eta endeleguari eta oroimenari dagozkion gainerako arteak eta zientziak goi mailaz ikasteko. Eta horrelaxe dakusagu esperientziaz: zeren honelako mutil bati nominatibo bat buruz ikas dezan ematen baldin badiogu, ez baitu ez eta bizpahiru egunetan ere; eta komediaren bat jokatzeko bertsotan izkiriaturiko paper plegua bada, ordea, begirada pare bat egin eta berehala finkatzen zaio buruan. Hauek burua galtzen dute zalduntza-liburuak irakurtzearren, Orlando, Boscán, Montemayorren "Diana" eta beste zenbait horrelako; hauek guztiok irudimenezko obrak direlako²². Eta zer erran genezake organoko kantuz²³ eta kaperako maisuez, horien guztion argimena latinerako eta endeleguari eta oroimenari dagozkion gainerako zientzia guztietarako ezin desegokiagoa dela besterik? Kontu berbera dauka soinua jotzeak eta musika genero guztiek ere.

Ekarri ditugun hiru adibide hauen medioz, hots, latinarenaz, teologia eskolastikoarenaz eta poesiarenaz, endelegatuko dugu doktrina hau egiazkoa dela eta banaketa ongi egina dugula, gainerako arteez froga erakutsi partikularrik egin ez arren.

Izkiriatzek ere irudimena nabarmentzen du. Eta, horrela, endelegu handiko gizon gutxik egiten du letra ona, eta anitz exenplu ditut nik oharturik kontu honi buruz. Bereziki, teologo ezin jakintsuago bat ezagutu nuen, zein, nolako letra txarra egiten zuen ikusteaz ahalketurik, ez baitzen ausartzen inori gutunik izkiriatzera, ez eta igortzen zizkiotenei erantzutera ere, harik eta, sekretuki, bere etxera maisu bat ekartzea erabaki zuen arte, era arrazonagarriren batez irakats ziezaion, pasamodukoa izateko. Eta hartan anitz egunez lanean ari izan arren, denbora arras galdu zuen, ez baitzuen deus probetxuzkorik egin; eta horrela, etsipenez, bertan behera utzi zuen, irakasten zion maisua espantatu baitzen bere fakultatean hain jakintsua zen gizon hura izkiriatzeko hain ezgaia izateagatik. Baina nik, oso ongi izkiriatzek irudimenaren obra dela segurki dakidanez gero, hori ondorio naturaltzat hartu nuen. Eta inork hori ikusi eta ohartu nahi balu, kontsidera bitza Unibertsitateetan jatekoa irabazteko, letra oneko paperak kopiatzen dituzten estudiantek, eta aurkituko du horiek gramatika gutxi dakitela, dialektika gutxi eta filosofia urria, eta medikuntza edo teologia estudiantuz gero, ez

dutela deus ere sakontzen. Eta horrela, lumaz zaldi hagitx ongi moldatuaren irudia, jas oneko gizona eta letra apaindura edo marrak pintatzen lekikeen mutila, ez da ezein ere letra motaren aitzinean jarri behar, baina pintatzaile on batekin, arterako daukan izaera erraz diezaion.

Ongi eta erraztasunaz irakurtzeak ere halako irudimen moldea salatzen du. Eta hagitx nabarmena baldin bada, ez da denbora letretan alferrik eman behar, mutil horri, bizimodua irabazteko, prozesuak irakurraraztea baizik. Honetan bada gauza bat ohartzekoa, eta hauxe da, gizon batzuk grazioso, esatari eta goitizen-emaile egiten dituen irudimenaren diferentzia gizonak erraztasunez irakurtzeko behar duenaren aurkakoa dela. Eta, horrela, arras umoretsua denak ezin ikas dezake irakurtzen, oztopoz eta gezur erranka ez bada.

Lehenean²⁴ jokatzen jakitea, eta egiazko eta gezurrezko enbiteak egitea, garaiz nahi izatea eta nahi ez izatea²⁵, eta aieruz aurkakoaren puntua asmatzea, eta deskartatzen jakitea irudimenari dagokion obra da. Gauza bera da ehunen jokoa eta trunfoa²⁶, Alemaniako lehena bezainbatekoa ez bada ere. Eta ez du, soilki, argimenaren diferentzia hau erakusten eta frogatzen, baina gizonaren bertute eta bizio guztiak ere agertzen ditu, zeren joko honetan une bakoitzean beste hautabide batzuk ere eskaintzen baitira, hor gizonak, bestelako gauza handiagoetan ari balitz, halaber eginen lituzkeenak erakusten dituelako²⁷.

Irudimena gehienik erakusten duten gauzetako bat xake jokoa da, eta horregatik, trikimailu delikatuak edo taulatuan hamar edo hamabi lantze elkarren ondoan erdiesten dituenak peril du endeleguari eta oroimenari dagozkien zientzietan (hiru edo lau ahalmen elkarrekin biltzen ez baditu bederen, jadanik ohartarazi dugunez). Eta nik ezagutu nuen teologo eskolastiko ezin jakintsuago batek doktrina hori jakin balu, dudan zuen gauza batez ohartuko zatekeen. Horrek maiz bere zerbitzari batekin jokatzen zuen; eta, galtzen zuenean, lotsaturik erran ohi zion: "Zer da hau, Urlia? Zuk ez dakizu latinik ez dialektikarik, ez eta teologiarik ere, ikastera saiatu bazara ere, eta niri irabazten didazu, Scotoz eta Done Tomasez beterik nagoen honi? Izan ote daiteke zeuk nik baino argimen handiagoa edukitzea? Ez dut besterik sinesten ahal, deabruak trikimailu horiek iradokitzen dizkizula baino". Eta misterio hura honetan zetzan, nagusiak endelegu handia zeukala, eta horrekin Scotoren eta Done Tomasen xehetasunetaraino heldu zen, baina xake jokoa egiteko behar den irudimenaren diferentzia hori falta zuen; eta zerbitzaria, aldiz, endelegu eta oroimen urrikoa zen, baina irudimen oso delikatukoa.

Liburuak oso ongi antolatuta, gela ederki txukundu eta isatsaz ekortua, eta gauza bakoitza bere tokian ezarria eta iltzean zintzilikatuta dituzten estudianteez endeleguari eta oroimenari hagitx aurka doakien irudimenaren diferentzia daukate. Argimen horrextaraino heldu dira gizon aratz eta ongi apainduak, arropako iletsoen bila ari eta jantziaren zimurrekin mintzen direnak²⁸. Egia da hau irudimenetik sortzen dela; zeren bertsotan ez zekien eta zarpail zebilen gizona amoratzen baldin bada, Platonek dioenez²⁹, berehala poeta bilakatu eta arras txukun eta garbi ibiltzen baita; zeren maitasunak burmuina berotu eta lehortzen baitu, horiek irudimena azkartzen duten kalitateak izaki³⁰. Gauza bera seinalatzen du Juvenalek haserreaz, grina horrek ere burmuina berotzen baitu: si natura negat, facit indignatio versum³¹.

Graziosoek, esatariek, gaitizen-emaileek eta matraka³² ematen dakitenek duten irudimenaren diferentzia endeleguaren eta oroimenaren aurkakoa da arras. Eta horrela, ez dira behin ere ongi ateratzen gramatikarekin, dialektikarekin, teologia eskolastikoarekin, medikuntzarekin ez eta legeekin ere; in agilibus, ordea bai, zorrotzak dira, egiten hasten diren edozein gauza egiteko trebeak, beti mintzatzeko prest eta

kontuari erantzuteko. Hauek jauregian zerbitzatzeko egokiak dira, ararteko eta kausen prokuradore izateko, merkatari eta tratalari izateko, saldu eta erosteko, baina ez letretarako gai. Hauekin jende arrunta arras engainatzen da, gauza guztietarako hain trebe direla ikusirik; eta, horretara, iruditzen zaie ezen letretara emanak balira, gizon handiak atera litezkeela; eta, egia erran, ez dago horietarako argimen desegokiagorik.

Mintzaten hasteko denbora luzea behar duten mutikoek mihian hezetasun handiegia dute, eta burmuinean ere bai³³, baina denbora iragatean hura behin gastatu eta gero, eleder bikain eta biziki hiztun onak egiten dira, hezetasuna gutxitzean etorri ohi zaien oroimen handiarengatik. Eta, antzinatik dakigunez, horixe gertatu zitzaion Demostenes hizlari entzutetsu hari, zeinez errana baitugu Ciceron espantatu zela, mutikotan mintzatzeko zuen zakartasuna goitik behetik, nagusitan ukan zuen eledertasunagatik³⁴.

Ahots ona ukan eta eztarritik hagitz gurguriatzen duten mutilak ere arras ezgai dira zientzia guztietarako; eta horren arrazoia da hotz eta heze direla, eta bi kalitate horiek, batera daudenean, arestian erran dugunez, alde arrazionala alferrik galtzen dute. Ikasgaia zehazki eta maisuak dioen bezala atera eta halaxe errepikatzen duten ikasleek oroimen oneko seinalea erakusten dute, baina hori endeleguak ordaindu beharko du.

Doktrina honetan problema eta duda batzuk eskaintzen dira, eta horien erantzunak menturaz argi handiagoa emanen du diogunaren egia ulertzeko.

Lehena hau da: nondik heldu da latindar handiak jakituri arloan harrogo eta hantustetsuago izatea endeleguari doazkion letra motetako gizon hagitz jakintsuak baino? Hainbesteraino non, atsotitzak gramatikari zerik den adierazteko honela erraiten duen: *grammaticus ipsa arrogatia est*; erran balu bezala: "gramatikaria harrokeria hutsa besterik ez da".

Bigarrena da: zertan izan behar du latin hizkuntzak hain bateragaitza espainolen argimenerako, eta, aldiz, hain natural frantsesen, italiarren, alemanen, ingelesen eta Iparrean bizi diren gainerakoentzat? Haien obretan dirudien bezala: "latin onari esker autorea atzerritarra dela baitakigu, eta barbaro eta gaizki erabilia denean hura espainola dela ateratzen baitugu.

Hirugarrena hau da: latinez erraiten eta izkiriitzen diren gauzak, nola eta zergatik dira belarrirako atseginagoak, puztuagoak eta dotoreagoak beste edozein hizkuntzatan baino, hura biziki ona izanik ere, lehenago erran badugu mintzaira guztiak haiek asmatu zituztenen apeta eta gogoaren araberakoak besterik ez direla, naturan oinarririk ukan gabe?

Laugarren duda hau da: nola uler daiteke endeleguari doazkion zientzia guztiak eta oroimenik ez dutenek liburuetan ikasi eta irakur ditzaketenak latinez izkiriaturik egotea, eta arrazoi horregatik horiei latin hizkuntza bateraezina gertatzea?

Lehen problemari erantzuten zaio erranez ezen gizon bat endelegurik gabea ote den jakiteko, ez dela seinale seguruagorik hura harro, hantu, buruiritzi, ondrazale³⁵, puztu eta zeremoniaz beterik ikustea baizik. Eta horren arrazoia da horiek guztiok berotasun-gradu bat besterik eskatzen ez duen irudimen ezberdintasunaren obrak direla, eta horrekin bat datorrela oroimenak eskatzen duen hezetasun handia, hau deusezteko indarririk ez duelako³⁶. Aitzitik, dudagabeko aierua da, noiz eta gizon bat izaeraz umila, bere buruaren eta bere gauzen gaitzesle, eta bere buruaz ez harrotu eta ez alabatzeaz gainera, besteek ematen dizkieten laudorioekin mindu eta ohorezko leku eta zeremoniekin haserretzen baita, halakoa ongi erakuts dezaketela endelegu handiko eta irudimen eta oroimen urriko gizontzat. (Erran dut izaeraz umila: zeren, halakoa arterioz baldin bada, seinalea ez baita egiazkoa³⁷). Eta, gramatikariak oroimen handiko gizonak direnez gero, harekin batera irudimen ezberdintasuna eginez, nahitaez endelegurik gabeak dira, atsotitzak dioen bezala³⁸.

Bigarren problemari erantzunez, Galenok gizonen argimena haiek bizi diren eskualdearen temperamentuaren bidez bila zebilela erran zuen³⁹ Iparpean diren guztiak endelegurik gabeak direla; eta Iparpearen eta beroaldearen artean kokatuak ezin zuhurragoak direla. Eta egoera hori zehazki gure eskualdeari doakio, eta hori egiazkoa da. Zeren Espainia ez baita Iparpeko lekuak bezain hotza, ez eta beroaldea bezain beroa. Errankizun berbera dakar Aristotelesek galdetzen duenean⁴⁰ ea herrialde hagitz hotzetan bizi direnek zergatik duten endelegu urriago beroagoetan jaio direnek baino; eta erantzueran oso gaizki tratatzen ditu flandriarrak, alemanak, ingelesak eta frantsesak⁴¹, horien argimena hordiena bezalakoa dela erranez, eta arrazoi horregatik ezin galde ez jakin dezakete gauzen izaera. Horren kausa horiek burmuinean eta gorputzaren gainerako aldeetan duten hezetasun handiegian datza, horrelaxe erakusten baitute haien aurpegiaren zuritasunak eta ilearen kolore urrezatuak eta, mirariz ez bada, aleman bursoil bat ezin aurkitzeak. Hori dela eta, guztiak luzeak eta garai haziak dira, hezetasun handiagatik, horrek haragiak hedarazten dituelako. Hori guztia espainolen artean alderantziz gertatzen da: beltzantxak dira, ile beltza, gorputz ertainekoak, eta gehienak burusoil dakuskigu; eta jarrera hori, Galenok dioenez⁴², burmuina bero eta lehor izatetik sortzen da. Eta baldin hori egia bada, nahitaez ukan behar dute urria oroimena eta handia, aldiz, endelegua; eta alemanek oroimen handia eta endelegu urria. Eta horrela, batzuek ezin jakin dezakete latinik, eta besteek erraz ikasten dute. Iparpean bizi direnen endelegu txikia frogatzeko Aristotelesek dakarren arrazoia hau da, eskualdearen hoztasun handiak bero naturala barnealdera antiparistasiz⁴³ gibelarazten duela, eta ez diola hedatzen uzten. Horrela hezetasun eta bero handia dauka, eta hortiek biltzen zaizkio hizkuntzetarako oroimen handia eta irudimen handia, horrekin erlojuak egin, ura Toledora igonarazi, eta makinamendu eta argimen handiko lanak asmatzen dituzte⁴⁴, eta horiek espainolek ezin fabrika ditzakete, irudimena falta dutelako. Baina behin dialektikan, filosofian, teologia eskolastikoan, medikuntzan eta legeetan sartuz gero, xehetasun handiagoak erraiten ditu espainiar argimen batek bere ele basa landu gabean atzerritar batek baino, zeren horiek, izkiriartzen duten dotoretasun eta politasunetik ateraz gero, ez baitute deus erraiten asmazio edo bikaintasunik duenik⁴⁵. Eta doktrina hau frogatzeko, honela dio Galenok⁴⁶: in Scithiis, unus vir factus est philosophus: Athenis autem multi tales: erran balu bezala: "Eskitian (Iparpeko probintzia berau) miraz ateratzen da gizon filosofo bat, eta Atenasen, aldiz, guztiak zuhur eta jakintsu jaiotzen dira". Baina ipartar horiek filosofiarekin eta erran ditugun gainerako zientziekin bateraezinak izanik ere, ordea, hagitz ederki moldatzen dira matematikan eta astrologian, irudimen ona dutelako.

Hirugarren problemaren erantzuna Platon eta Aristotelesen arteko arazo hagitz sonatuaren menean dago. Batak dioenez⁴⁷, badira izen egoki batzuk naturalki gauzak adierazten dituztenak, eta argimen handia behar da horiek aurkitzeko; eta iritzi hori faboratu egiten du jainkozko Eskriturak erranez Adamek Jainkoak aitzinean ezarri zion gauza bakoitzari komeni zitzaion izena ezartzen ziola⁴⁸. Baina Aristotelesek ez du onartu nahi ezein hizkuntzatan denik, izen edo mintzatzeko manerarik, gauza naturalki adierazten duenik, izen guztiak itxurazkoak eta gizonen apeta eta borondateaz eginak direlako⁴⁹. Eta horrela, esperientziaz, badirudi ardoak hirurogei izen baino gehiago dituen eta ogiak beste horrenbeste, hizkuntza bakoitzean berea, eta batzuek ezin baieztatu daiteke naturala eta egokia denik, hura munduko gizon guztiek lerabilketelako. Baina guztiarekin ere, Platonen errankizuna are egiazkoagoa da. Zeren, lehen asmatzaileek hitzak beren gogara eta borondateaz itxuratu zituztela ontzat emanik ere, hura nahikunde arrazionala izan baitzen, belarriarekin komunikatua, gauzaren

naturarekin, ebakitzeko grazia eta atseginarekin, hitzak ez labur ez luze egin gabe, haiek ebakitzeko unean ahoan itsustasunik erakutsi beharrik gabe⁵⁰, azentua bere leku egokian ezarriz, eta hizkuntzak, dotore eta ez barbaroa⁵¹ izan dadin, ukan behar dituen beste baldintza batzuk ere gorderik. Platonen iritzi berekoa zen espainiar zaldun bat, denbora emateko zalduntza-liburuak izkiriartzen zituena, haren irudimen bereziak gizona fikzio eta gezurretara gonbidatzen baitzuen. Horretaz kontatzen da ezen bere obretan erraldoi furfuriatsu bat sartu zuela eta anitz egunetan ibili zela haren fiertasunari zegokiokeen izen bat asmatzen, eta ez zuela inola ere aurkitu, harik eta, egun batez, bere adiskide baten etxean karta-jokoan ari zelarik, ostatuko jaunari honela erraiten entzun arteraino: "Ea mutiko, tra qui tantos⁵² mahai honetara", Zaldunak, traquitantos izen hori entzutean, berehala egin zion kontsonantzia ona belarrietan eta, luzaroago iguriki gabe, altxatu zen, erranez: "Jaunok, nik ez dut gehigo jokutzen, aspaldian ari bainaiz izen baten bila, moldatzen ditudan zirriboro horietan sartu dudan erraldoi furfuriatsu bati ongi lihoakiokeena, eta ezin ukan dut bera kausitu etxe honetara etorri arte, betiere fabore oro errezibitzen dudan lekura"⁵³. Zaldun honek erraldoiari Traquitantos deitzeko kuriositate bera ukan zuten latin hizkuntzaren lehen asmatzaileek ere, eta horrelaxe eriden zuten belarrietarako hain kontsonantzia oneko mintzaira hori. Horregatik ez da espanturik egin behar latinez erraiten eta izkiriartzen diren gauzak belarrirako hain ongi, eta gainerako hizkuntzetan hain gaizki, gelditzeagatik, haien lehen asmatzaileak barbaroak izan ziren eta.

Azkena ipini beharra ukan dut hartara heldu izan diren anitzen pozerako, soluzioa hagitx erraza baita. Zeren endelegu handia dutenak ez baitaude oroimenez erabat gabeturik; izan ere, hori ukan ezik, ezinezkoa luke endeleguak gogoeta egitea, ez eta arrazoitzea ere, espekulatzeko gaia eta fantasmak ahalmen horrek dauzkalako. Baina lortzeko zaila izanez, latin hizkuntzan hobakuntzan erdiets daitezkeen hiru graduetatik (ongi ulertzea, izkiriartzea eta mintzartzea) ezin iragan daiteke lehenengotik, gaizki eta behaztopaz ez bada⁵⁴.

IX [1594.eko XI.a]

Non frogatzen den eleder izatea eta mintzatzeko politasuna ezin egon daitezkeela endelegu handiko gizonengan

Jende arruntari gizon bat hagitx jakintsua eta zuhurra dela gehienik sinestarazten dioten dohainetako bat bera bokantza handiz mintzartzen entzutea da: gauzak erraiteko dotoretasuna izatea, hitz gozo eta zaporetzuak ugari erabiltzea, anitz exenplu ekartzea, behar diren xederako egokiro moldatuak¹. Eta hori, egia erran, oroimenak irudimenarekin berotasunezko gradu eta erditan egiten duen elkartzetik sortzen da, bero horrek burmuinaren hezetasuna ezin deusez baitezake eta horrek figurak altxa eta irakinarazteko balio du², eta hortik anitz kontzeptu eta erraiteko gauza ugari agertzen dira.

Elkartze honetan ezin aurki daiteke endelegua, lehenago erran eta frogatu dugunez, ahalmen honek beroari erabateko aihergoa diolako, eta hezetasuna ezin jasan baitezake. Eta doktrina hori eskuratu balute atenastarrek, ez ziratekeen hainbeste espantatuko Sokrates bezalako gizon jakintsu batek mintzartzen ez jakiteaz³; eta hark zenbat zekien aditzen zutenek erraiten zuten haren hitzak zur arrunt eta leundu gabez eginiko kutxak bezalakoak zirela kanpotik, baina behin ireki eta gero, haien barnean irudi eta pintura miresgarriak zeudela.

Ezjakintasun berean egon dira, Aristotelesen iluntasunaren eta estilo txarraren arrazoia eta kausa eman nahirik, hura berariaz egiten zuela erran zutenak, eta haren obrek autoritate handiagoa ukan zezaten mordoilo izkiriartu zituela, hitzak eta mintzatzeko manerak hain ordenamendu txarrean ezarriz. Eta Platonen jokabide gogorra eta izkiriartzeko laburtasuna,

haren arrazoi en iluntasuna, esaldiaren osagaien antolamendu txarra kontsideratzen baditugu, horren kausa hori baizik ez dela aurkituko dugu^{4*}.

Eta zer, Hippokratesen obrak irakurtzen baditugu, izen eta aditzen laburdurak, haren erran eta errankizunen antolamendu txarra, haren arrazoen lotura txarra, haren doktrinaren hutsuneak betetzeko eskaintzen duen urritasuna! Zer gehiago, bere adiskide Damagetori luzeki azaldu nahirik ezen Artaxerxek, persiarren erregeak, dei eragin ziola, nahiko zuen urre eta zilar guztia prometatuz eta bere erresumako handikien artean edukiko zuela (honen gainean anitz eskari eta erantzun izanik) honela erraitea besterik: Persarum rex nos accersivit^a, ignarus quod apud me maior est sapientiae ratio quam auri. Vale; erran balu bezala: "persiarren erregeak dei eragin zidan, nik jakituria urrea baino maiteago dudala jakin gabe"⁵. Baina gai hori eskuartearen har baleza Erasmok, edo haren irudimen eta oroimen oneko beste edozein gizonek, hura hedatzeko ez zatekeen aski izanen esku bat paper⁶.

Baina nor ausart liteke doktrina honen exenplua Jaun Done Pauloren argimen natural handian ezartzera, eta erran hura endelegu handiko eta oroimen gutxiko gizona zela, eta ezin zitzakeela (bere indarrekin) hizkuntzak jakin ez eta haietan dotoreziaz eta politasunez mintza, berberak honela erran ez balu: nihil me minus fecisse a magnis apostolis existimo, nam etsi imperitus sum sermone, sed non scientia⁷; erran balu bezala: "aitortzen dut ez dakidala mintzatzen, baina zientzia eta jakiturian apostolu handietarik batek ere ez dit itzalik egiten". Eta argimen ezberdintasun hau hain zen egokia Ebangelioa publikatzeko, non ezin baitzitekeen hauta beste bat hoberik. Zeren publikatzailea eleder eta hitzetan apaindura handia ukaitea ez baitzen komeni, kontutan harturik garai hartako hizlarien indarra ageri zela entzuleei gauza faltsuak egiakotzat ulertaraztean; eta jende arruntak on eta probetxuzkotzat hartzen zuena, haien beren artearen aginduez baliatuz, kontrakoa sinestarazten zioten, eta defendatzen zuten hobe zela behartsua aberatsa baino, eri egotea osasunean izatea baino, eta ergela izatea jakintsua izatea baino; eta beste gauza batzuk, garbiki uste arruntaren aurka zirenak. Arrazoi horregatik deitzen zituzten hebrearrek gevañin, erran nahi baita engainatzaileak. Gauza bera iruditu zitzaion Caton Nagusiari, eta arriskugarri iritzi zion horiek Erroman egoteari, erromatar inperioaren indarrak armetan oinarriturik zeudela ikusirik, eta horiek jadanik sinestarazi ziela ona zela erromatar gazteriak armak alde batera utzi eta jakituria mota horretan aritzea; eta horrela, luza gabe, Erromatik erbesterarazi zituen, hartan gehiago izan ez zitezen⁸.

Izan ere, baldin Jainkoak predikari eleder eta hitz dotoreduna bilatu balu, eta hura Atenasera edo Erromara sartu, erranez juduek Jerusalemen gizon bat, Jainko egiazkoa zena, gurutzean iltzatu zutela, eta bere borondate propio eta atseginez hil zela bekatariak berrerostearren, eta hirugarren egunean berpiztu zela, eta zerura igan zela, non orain den. Zer pentsatu beharko zuten entzuleek gai hori hizlariak beren artearen indarraz sinestarazten dituzten ergelkeria edo huskeria horietako bat zela besterik? Beraz, Done Paulok honela erran zuen⁹: non enim misit me Christus baptizare, sed evangelizare; non in sapientia verbi, ut non evacuetur crux Christi; erran balu bezala: "ez ninduen Kristok bidali bataiatzera, predikatzaera baizik, eta ez ele ederrez, entzuleek pentsa ez zezaten Kristoren gurutzea hizlariak sinestarazten dituzten huskerietako bat zela". Jaun Done Pauloren argimena egokia zen lanbide honetarako; endelegu handia zuelako, bai sinagogetan eta bai jentilen artean, legean prometatutako Mesia Jesu Kristo zela defendatu eta frogatzeko, eta ez zela beste baten esperoan egon behar. Eta, horrekin, oroimen gutxikoa zen; eta horregatik ezin mintza zitekeen dotoreziarekin hitz gozo eta atseginez. Eta hauxe zen Ebangelioaren publikazioak behar zuena¹⁰.

Honegatik ez dut erran nahi Done Paulok hizkuntzen dohaina ez zuenik, baizik eta guztietan berearen gisara¹¹ mintzo zela. Eta ez daukat, halaber, aditurik, Kristoren izena defendatzeko, haren endelegu handiaren indarrak aski zirenik, Jainkoak hartarako eman zion grazia eta laguntza partikularra tartean izan ez balitz. Hau sentiarazi besterik ez dut nahi, hots, naturaz gaineko dohainek hobeki obratzen dutela natura onaren gainean eroriz, berez dorpe eta ergela den gizonaren baitan baino. Hau ukitzen du Done Hieronimoren doktrina hark, Isaiaz eta Jeremiaz egiten duen aitzinsolasean dakarrenak, galde eginez Jeremiaren eta Isaiaren ahoz mintzo zena Izpiritu Saindua bera izanik, ea zein zen bata izkiriartzen dituen hitzak hain dotorezia handiz proposatzen dituen bitartean, Jeremia ia mintzaten ere ez jakitearen arrazoia. Eta duda horri ihardesten dio erranez Izpiritu Saindua profeta bakoitzak aritzeko duen molde naturalari egokitzen zaiola, horregatik graziak haien natura aldatu gabe eta profetia nolako mintzairaz publikatu behar duten irakatsi gabe. Eta, horretara, jakiteko da Isaia leinu handiko zalduna zela, gortean eta Jerusalemeko hirian hezia, eta horrexegatik zuela mintzatzeko dotorezia eta politasuna; baina Jeremia, aldiz, Jerusalemeko baserrialdean jaioa eta hezia zen, Anatotites izenekoan, eta, baserritar gisa, iharduteko arrunt eta traketsa; eta tankera berberorrez baliatu zen Izpiritu Saindua jakinarazi zion profezian. Gauza bera erran behar da Jaun Done Pauloren epistolez ere: haiek izkiriatu zituenean Izpiritu Saindua harengan zela, errakuntzarik egin ez zezan; baina mintzaira eta hitz egiteko moldea Done Paulok berez zuena zela, izkiriartzen zuen doktrinarako propio eta egokitua¹², zeren egia eta teologia eskolastikoak hitz ugaritasuna gaitzesten baitute¹³. Teologia positiboari hagitz ongi doakio hizkuntzen trebetasuna eta mintzatzeko dotorezia eta politasuna. Zeren ahalmen hau oroimenari baitagokio, eta erran eta errankizun katoliko mordoa besterik ez da, doktore sakratuetatik eta jainkozko Eskrituratik hartuak, eta ahalmen honetan gordeak; gramatikari batek Virgilio, Horatio, Terentio eta irakurtzen dituen gainerako latindar autoreen loreekin egiten duen bezala, zeren horrek, haiek aipatzeko aukera ezaguturik, laster Ciceronen edo Quintilianoren pasarte batekin ateratzen baita, horrela entzuleei bere jakintza erakutsiz. Irudimena eta oroimena elkarrekin biltze hau erdiesten dutenek, eta beren fakultatean jada erranik eta izkiriaturik dagoen guztiaren garaua bildumatzeko lanean saiatzen direnek, eta aukera egokian hori hitz ordenamendu handiz eta mintzatzeko molde atseginez dakartenean, [miresgarriak dira baina]b zientzia guztietan asmatu dena hainbeste denez gero, horien sakontasuna handia dela iruditzen zaie doktrina honen berri ez dutenei. Eta, egia erran, azal-azalekoak dira, zeren erraiten eta baieztatzen dutenaren oinarrietan tentatzen etorri gero, duten hutsunea agertzen baitute. Eta honen kausa da, ezen hainbeste erraiteko konturekin eta hainbeste hitz dotoreekin ezin elkar daitekeela endelegamendua, hari baitagokio egia errotik jakitea. Hauez erran zuen jainkozko Eskriturak: Ubi verba sunt plurima, ibi frequenter egestas¹⁴; erran balu bezala: "hitz jariora duen gizona, eskuarki endelegu eta zuhurtziarik gabea da". Irudimen eta oroimen elkartasun hau lortzen dutenak adore handiarekin sartzen dira jainkozko Eskritura interpretatzera, eta hebreera asko, anitz greko eta latin dakitelako, iruditzen zaie bidea jadanik ibilia dutela letraren egiazko izpiritua ateratzeko. Eta egiazki galdurik dabilta: batetik jainkozko testuaren hitzek eta horko mintzatzeko manerek beste anitz erran-nahi dauzkatelako, Ciceronek latinez zekizkienez landa; eta bestetik, halakoei endelegua falta zaielako, ahalmen hau baita izpiritu bat katolikoa ala okerra den igartzen duena¹⁵. Ahalmen honek bereiz baitezake (naturaz gaineko graziarekin) letra bati darizkion bizpahiru adieratatik, egiazkoena eta katolikoena zein den.

Engainuak, Platonek dioenez, ez dira behin ere gertatzen gauza ezberdin eta hagitx bestelakoetan, baina eite handia duten anitz gauza elkartzen direnean¹⁶. Zeren ikusmen zoli baten aitzinean ezarriko bagenitu gatz pixka bat, azukrea, irina eta karea, guztia ehoa eta bahetua, eta gauza bakoitza bereiz, zer egin lezake dastamenik ez lukeen gizonak, begiekin hauts horietako bakoitza okertu gabe ezagutu beharko balu, erranez, "hau gatz da", "hau, azukrea", "hau, irina" eta "hau, karea"? Ene ustez, zalantzarik gabe, engainatuko litzateke, gauza horien elkarren artean duten eite handiagatik. Baina pila batean garia balitz, beste batean garagarra, beste batean lastoa, beste batean lurra eta beste batean harria, segur da ez litzatekeela pila bakoitzari izena ematerakoan, ikusmen laburra baleuka ere, bakoitzak hain figura ezberdina ukanik. Eta badakusagu gauza bera gertatzen dela egunero teologoek jainkozko Eskriturari ematen dizkioten adiera eta izpirituetan ere: bizpahiruri behatuz gero, lehenbiziko begiraldian guztiek katoliko itxura ukaiten baitute, letrari ederki egokituz, eta halere ez dira hala izaten, eta Izpiritu Sainduak ere ez zuen hura erran nahi.

Adiera horietatik onena hautatu eta okerra gaitzesteko, egia da ez dela teologoa oroimenaz ez eta irudimenaz baliatzen, endeleguaz baizik. Eta, horrela, nik diot teologo positiboak eskolastikoari galdetu behar diola eta eskatu, adiera haietatik, ongien deritzona hauta dezala, biharamunean Inkisizioan jaiki nahi ez badu. Kausa horregatik diote hereseek hain gorroto handia teologia eskolastikoari, eta hura mundutik apartatzera saiitzen dira, bereiztera, inferitzera, arrazoitzera eta iriztera saiatur egia jakitera heldu ohi baita, eta gezurra aurkitzera¹⁷.

X [1594.eko XII.a]

Non frogatzen den teologiaren teorika endeleguari dagokiola, eta predikatzea, haren praktika baita, irudimenari

Aski problema galdetua da (eta ez, soilki, jende letratu eta jakintsuaren aldetik, gizon arruntak ere horretaz ohartu baitira, egunean-egunean horren galdera eginez) ea zein den arrazoa eta kausa, teologo bat eskoletako gizon handia¹ izanik, eztabaidatzeko zorrotza, erantzuteko erraza, eta izkiriatzeko eta irakurtzeko doktrina miresgarriduna bada ere, behin pulpitura aupaturik predikatzen ez jakiteko; eta bestaldetik, predikari trebe gertatu denak, eleder, grazioso eta jendea ondolik daramanak ez ohi daki teologia askorik, mirariz ez bada. Horregatik ez dute ontzat ematen ondorio hau: "Urlia teologo eskolastiko handia da, beraz predikari ona dateke"; eta alderantzizkoa ere ez dute hobesten: "Predikari handia denez gero, teologia eskolastiko ugari jakin behar du"; ondorio bata eta bestea desegiteko edozeini aterabide gehiago agertuko baitzaizkio buruan dituen ileak baino.

Batek ere ez dio orain arte galdera honi ihardespenerik egin, ohikoaz landa, hots, dena Jainkoari eta haren grazien banaketari egozte. Eta hagitx ongi iruditzen zait, ez baitakite kausa zehatzagoa zein den. Duda honen erantzuna nolabait iragan den kapituluan emanik utzia dugu, baina ez komeni bezain zehazki; eta hura zen teologia eskolastikoa endeleguari dagokiola. Orain baina, badiogu eta halaxe frogatu nahi dugu predikatzea (haren praktika, alegia) irudimenaren obra dela; eta burmuin berean endelegu zorrotza eta irudimen handia elkartzea zaila den bezala, halaberean ezin batera daiteke norbera teologo eskolastiko handia eta predikari famatua izatea. Eta teologia eskolastikoa endeleguaren obra dela lehenago agerian utzia dugu, hark latin hizkuntzarekin zuen aihergoa frogatuz; horrexegatik ez da beharrezkoa izanen hartara berriz ere itzultzea. Adierazi nahi dudana bakarra da predikari onek duten grazia eta txairotasuna, zeinekin entzuleak berenganatzen eta horiek pozik eta adi edukitzen baitituzten, hori guztia irudimenaren obra dela, eta horren zati bat oroimen onarena ere bai².

Eta nik hobeki azaldu eta eskuarekin ukiazteko, lehenik premiazkoa da gizakia animalia arrazionala, elkarkoia eta politikoa³ dela suposatzea; eta haren izaera artearekin are baterago etor zedin, antzinako filosofoek dialektika asmatu zuten, hari irakasteko nola arrazoitu behar zuen, nolako arau eta erregelekin, nola definitu behar zituen gauzen izaerak, nola bereiztu, banatu, inferitu, arrazoitu, epaitu eta hautatu, obra horiek gabe ezin baitagoke ezein ere egile. Eta elkarkoi eta politiko izateko, mintzatu beharra zeukan eta gainerako gizonei bere gogoan sortzen zituen gauzak adierazi; eta horiek ordena eta kontzerturik gabe azal ez zitzan, beste arte bat asmatu zuten, erretorika deritzotena⁴, eta horrek, bere arau eta erregelekin solasa edertzen dio hitz politekin, erraiteko manera dotoreekin, afektu eta kolore graziosoekin⁵.

Baina dialektikak gizonari zientzia bakarrean gogoeta egiten irakasten ez dion bezala, baizik eta guztietan, ezberdintasunik egin gabe, era berean erretorikak mintzatzera irakasten du teologian, medikuntzan, lege-jakintzan, arte militarrean eta gizonek tratatzen dituzten gainerako zientzia eta solasaldietan ere. Eta halatan, dialektikari bikaina edo hizlari porrokatu bat itxuratu nahi bagenu, ezin kontsidera liteke zientziak oro jakin gabe, guztiak haren jurisdikziokoak baitira, eta haietako edozeinetan erabil litzake bere arauak⁶; eta ez medikuntzan bezala, honek mugaturik baitu zein materiaren gainean tratatu behar duen; ez eta filosofia naturala, moralak, metafisika, astrologia eta gainerakoak ere. Eta, hortaz, honela erran zuen Ciceronek⁷: oratorem, ubicumque constiterit, constitere in suo; eta beste leku batean honela dio: in oratore perfecto inest omnis philosophorum scientia⁸. Eta kausa honegatik erran zuen Ciceronek berak ezin zitekeela artista zailagorik aurki, hizlari hobezina baino⁹; eta are arrazoi handiagorekin erranen zukeen baldin zientzia guztiak partikular batean elkartzeko dagoen aihergoa jakin balu.

Antzinan hizlari-izena eta lanbidea hartu eta altxatuak ziren jurisperituak, abokatutzaren hobasunak munduko arte guztiak ezagutu eta horietan aditua izatea eskatzen baitzuen, legeek guztiak obligatzen dituztelako eta, arte bakoitzak berez duen defentsioa jakiteko, guztien bana-banako berri izatea behar delako¹⁰, eta honela, Ciceronek erran zuen¹¹: nemo est in oratorum numero habendum qui non sit omnibus artibus perpolitus. Baina zientzia guztiak ikastea ezina zela ikusita, alde batetik bizitzaren laburtasunagatik eta bestetik gizonaren argimena hain mugatua delako, hura bertan behera utzi zuten¹², defendatzen duten arte haren perituen erranak sinesteari aski iritziz, besterik gabe.

Kausak defendatzeko era honen ondotik ebangelioaren doktrina etorri zen, eta hori hizlaritzaren artearekin hobeki sinestaraz zitekeen munduan diren zientzia guztiak baino, egiazkoena eta zinezkoena zelako. Baina Kristo gure berrerosleak Done Paulori hura ez zezala in sapientia verbi¹³ predika manatu zion, jendeek pentsa ez zezaten hura gezur ongi ordenatua zela, hizlariak beren artearen indarraz sinestarazten zituzten beste haien antzera. Baina behin fedea errezibitu eta gero, eta aspaldiko urteetatik, orain ederki permititzen da leku erretorikoekin eta ongi erranaz eta mintzatzear baliatzea, ez baitago orain Done Paulok predikatzen zuen garaiko traba hura; eta badakusagu probetxu handiagoa egiten duela hizlari hobezinaren dohainak dauzkan predikariak, eta hari jende gehiago darraiola, haiez baliatzen ez denak baino. Eta horren arrazoiak arras argia da. Zeren baldin antzinako hizlariak herriko jendeari gauza faltsuak egiazkotzat sinestarazten bazizkioten, beren arau eta erregelez baliatuz, are hobeki onartuko dute entzule kristauek jadanik aditua eta sinetsia dutena arterioz azaldurik. Eta bestalde, Jainkozko Eskriturak, nolabait, gauza guztiak dauzka, eta hura egiaz interpretatzeko zientzia guztiak behar dira, erran hain sonatu haren bidetik: missit ancillas suas vocare ad arcem¹⁴.

Hau ez zaie gure garaiko predikariei agindu behar, ez eta abisatu hori egin dezaketela, zeren beren estudio partikularra (beren doktrinarekin egin nahi duten probetxuaz landa) gai ona bilatzea baita, horri Jainkozko Eskrituratik, doktore sakratuengandik, poetengandik, historialariengandik, mediku eta legelariengandik¹⁵, ekarririko anitz errankizun dotore egokiro aplikatzeko, hor zientzia bat ere barkatu gabe, jarioz mintzatuz, dotoretasunez eta hitz eztekin; eta horrekin guztiarekin gaia ordu bete luzatzen eta hedatzen dute, eta bi ere bai, behar izanez gero. Hauxe bera dio Ciceronek betetzen zuela bere garaiko hizlari hobezinak bere lanbidean: *vis oratoris professioque ipsa bene dicendi hoc suscipere ac polliceri videtur, ut omni de re quacumque sit proposita, ab eo ornate copioseque dicatur*¹⁶.

Beraz, hizlari hobezinak eduki behar dituen graziak eta kondizioak oro irudimenari eta oroimenari dagozkiola froga bageneza, aditua dukegu haiek erdiets litzakeen teologoa predikari handia litzatekeela; baina Done Tomasen eta Scotoren doktrinan sartuz gero, hartaz deus gutxi dakike, hori endeleguari dagokion zientzia delako; ahalmen horretan nahitaez urritasun handia eduki behar baitu.

Zer diren irudimenari dagozkion gauzak eta nolako seinaleekin ezagutu behar diren atzean erranik utzi ditugu, baina orain berriz aipatuko ditugu, oroimena freskatzeko. Figura ederra, asmo eta egokitzapen ona osa lezakeen guztia, oro irudimenaren graziak dira, apaindurak, goitzenak, gaitzizenak eta konparazioak diren bezala¹⁷.

Hizlari hobezinak egin behar duen lehenbiziko gauza da, gaia eskuartean daukalarik¹⁸, argudio eta errankizun egokiak bilatzea da, hura luzatu eta frogatu ahal izateko¹⁹; eta ez nolanahiko hitzekin, belarriei kontsonantzia egiten dietenekin baizik. Eta, horrela, hauxe erran zuen Ciceronek: *oratore eum esse puto qui, et verbis ad audiendum iocundis, et sententiis accommodatis ad probandum, uti possit*²⁰. Egiazki hau irudimenari dagokio, hor hitz graziosoen kontsonantzia baitago, eta errankizunen asmo ona ere bai.

Hizlari hobezinak eskas izan behar ez duen bigarren grazia asmamen handia ukaitea da, edo irakurketa handia²¹. Zeren aurkez dakioken edozein gai anitz erran eta errankizun egokirekin luzatu frogatu behar badu, irudimen txit gora eduki behar baitu, ehiza-txakur gisa ehizia eskura ekar diezaion; eta zer erranik ez lukeenean, hura asma lezan, egiazki hala balitz bezala. Horrexegatik errana dugu lehenago beroa zela irudimenean obratzen zuen tresna, kalitate horrek figurak altxa eta irakinarazten dituelako, horrela haietan ikusteko den guztia agertuz. Eta, bestela, are gehiago kontsideratu beharra dago: irudimenak badu indarririk, izan daitekeen figura bat beste batekin konposatzeko ez eze, baina ezin daitezkeenak ere, Naturaren ordenaren arabera, elkartzan ditu eta horiekin urrezko mendiak^b eta idi hegalaria egitera heldu dira²².

Norbere asmamenaren lekuan, hizlariak anitz irakurtzeaz balia daitezke, irudimena falta ukanez gero; baina, azken buruan, liburuek irakasten dutena emari finitua eta mugatua da²³, eta norbere asmamena iturri onaren gisakoa da, beti, behin eta berriz, ur freskoa ematen duena. Lehendik irakurria gogoan atxikitzeke oroimen handia eduki behar da, eta hori entzuleen aitzinean erraztasunaz kontatzeko, ezin egin daiteke ahalmen berbera eduki gabe; eta, horrela, hau erran zuen Ciceronek²⁴: *is orator erit (mea quidem sententia), hoc tan gravi dignus nomine, qui quaecumque res inciderit quae sit dictione explicanda, prudenter, copiose, ornate et memoriter dicat*; erran balu bezala: "hizlari horrek, hain izen handia mereziko luke, eskain dakioken edozein gairen gainean mintzatzeko gai balitz, zuhurtziaz (entzuleei, lekuari, denborari eta aukerari egokitzuz, alegia), oparo, buruz erraniko hitz gozo eta zaporetsuen apainketaz". Zuhurtzia, lehenago erran eta frogatu dugunez, irudimenari dagokio; hitz eta errankizunen bilduma,

oroimenari; apaindura eta apailaketa, irudimenari; eta hainbat gauza trabatu eta gelditu gabe erraitea, egia da oroimenarekin egiten dela.

Ciceronek erran zuenari buruz, hots, hizlari onak buruz mintzatu behar duela eta ez izkribuz, jakiteko da ezen Antonio de Lebrija maisuak, zahartzaroan hain oroimen urria zuenez gero, bere ikasleei paper batetik irakurtzen ziela erretorika ikasgaia; eta haren fakultatean hain ageria izanik eta bere intentzioa hain ongi frogaturik zuenez gero, ez zuen inork hartan txarrik ikusten. Baina jasan ezinekoa izan zen, ordea, hura apoplexiaz supituki hil zenean, Alcalako Unibertsitateak haren hiletako sermoia predikari famatu bati gomendatzea, eta horrek ahal bezain ongi asmatu eta prestatu zuen erran beharrekoa. Baina hain denbora laburra izanik, ez zuen buruz ikasteko astirik ukan; eta horretara, papera eskuan harturik pulpitura joan omen zen, eta hasteko, hau erran zuen: "gizon handi honek egin ohi zuena, bere ikasleei irakurriz, haren gisara horixe berori egitea dakart nik pentsaturik, zeren haren heriotza hain supituki gertatu zenez, eta haren hiletan nik predikatzeke agindua hain presakakoa, ezen ez da betarik izan erraitea komeni zena estudiatzeko, ez eta hori oroimenean biltzeko ere. Bart gauean lantzea eduki dudana paper honetan dakart izkiriaturik: beraz, zeuen mesede horiei erregutzen diet hori pazientziaz entzun eta ene oroimen urria barka dezatela". Baina entzuleei izkribuz eta papera eskuan predikatzeke era horri hain gaitz iritzi zioten, non guztia irribarre eta marmara izan baitzen. Eta, horrela, hagitz ongi erran zuen Ciceronek hizlariak buruz mintzatu behar zuela eta ez izkribuz²⁵. Predikari horrek, egiazki, ez zuen asmamen propiorik: guztia liburuetatik atera behar zuen eta, horretarako, estudio eta oroimen handia behar da. Baina asmamena bere burutik hartzen dutenek, ez dute estudiatu behar, ez denborarik, ez eta oroimenik ere, guztia erranik eta bildurik aurkitzen dutelako. Horiek entzuleei bizitza osoan predikatuko diete hogeitun urte lehenago erran zutenarekin topo egin gabe; eta asmamenik gabeek bi garizumatan²⁶ moldiztegiko liburu guztiak lardaskatzen dituzte, dituzten kartapazio eta paper guztiak agortuz, eta hirugarrenean premiazkoa dute entzule berriengana iragatea, erran ez diezaieten: "oraingoan ere igaz bezala predikatzen ari da".

Hizlari onak bete behar duen hirugarren propietatea asmatuaz baliatzen jakitea da, erran eta errankizun bakoitza bere lekuan ezarriz, guztia proportzioz ukitutuz, bata besteari egokiro doakiolarik. Eta honela, Ciceronek hau erran zuen²⁷: dispositio et ordo et distributio rerum quae demonstrat quid quibus in locis collocandum sit; erran balu bezala: "ezarrera ez da besterik entzuleei erran behar zaizkien erranak eta errankizunak banatzeko gorde behar den ordena eta kontzertua baino, zer non ezarri behar den erakutsiz, horrela, gainerakoekin kontzertatuz, figura ona ekar dezan". Eta grazia hori, naturala ez denean, lan handia eman ohi die predikariei, zeren, liburuetan erraiteko anitz gauza aurkitu ondoren, ez baitiote guztiak erraz igartzen gauza bakoitzaren mihiztadurari. Egiazki, ordenatzeko eta banatzeko propietate hau irudimenaren obra da, figura eta egokitasuna erakusten baititu.

Hizlari onak ukan behar duten laugarren propietatea (eta guztietarik inportanteena) ekintza da, horrekin, erraiten dituzten gauzei izatea eta arima ematen dietelako; eta horrekin entzuleak hunkitu eta biguntzen dute, azaldu nahi dietena egia dela sinestaraziz: Eta, horrela, Ciceronek hau erran zuen²⁸: actio, quae motu corporis, quae gestu, quae vultu, quae vocis confirmatione ac varietate moderanda est; erran balu bezala: "ekintza moderatu behar da erranak eskatzen dituen mugimenduak eta keinuak eginez; boza goratuz eta beheratuz; haserretuz eta gero lasaituz; batzuetan presaka mintzatuz, beste batzuetan astiki; agirika eginez eta balakatuz; gorputza alde batetik bestera eraginez; besoak bilduz eta hedatuz; barrezka eta negarrez; eta aukera onean txaloa joz". Grazia hau hain da garrantzi handikoa predikariengan, ezen berarekin bakarrik, asmamen ez banaketarik gabe ere, munta gutxiko gauza arruntez ere entzuleak

espantatzeko moduko sermoia egiten baitute, ekintza daukalako, beste izenez izpiritu edo ebakera ere deitua.

Honetan gauza nabarmena da, eta hor ageri da grazia honek zenbat egin dezakeen. Eta hauxe da: duten ekintza eta izpiritu handiagatik ongi diruditen sermoiek, behin paperean paratu eta gero, ez dute deus balio, eta ezin irakur daitezke; eta horren kausa da lumarekin ezinezkoa dela mugimenduak eta keinuak pintatzea, zeinekin pulpitan hain ongi ziruditen. Beste sermoi batzuek hagitz ongi dirudite kartapazioan baina, predikatzen direnean, ezin entzun daitzke, haien pausoek behar duten ekintza ematen ez zaielako. Horrexegatik erran zuen Platonek²⁹ mintzatzeko tankera arras ezberdina dela ongi izkiriatzeko eskatzen duenetik; eta, horrela, anitz gizon dakuskigu, hagitz ongi mintzatu arren, gutun bat gaizki egiten dutenak, eta beste batzuk, ordea, izkiriatu txit ongi eta arrazoitu arras gaizki egiten dutenak. Hori guztiori ekintzan bildu behar da; eta egia da ekintza irudimenaren obra dela, hartaz erran dugun guztiak figura, egokitasuna eta kontsonantzia ona egiten duelako.

Bosgarren grazia goitzenak ematen eta enenplu eta adibide onak ekartzen jakitea da³⁰; eta entzuleek hori beste edozein baino atseginago dute, enenplu on batekin doktrina errazki ulertzen dutelako, eta hura gabe guztia galdu egiten zaie. Eta horrela, Aristotelesekin galde egiten du³¹: *cur homines, in orando, exemplis et fabulis potius gaudent quam commentis?* Galdetuko balu bezala: "Zergatik hizlariei adi dagozkienek atseginago dituzte haiek adierazi nahi dutena frogatzeko dakartzaten enenpluak eta alegiak, egiten dituzten argudio eta arrazoiak baino?" Eta horri erantzuten dio enenplu-alegiekin gizonen hobeki ikasten dutela, zentzuari dagokion frogaketa delako, eta argudio eta arrazoiarekin ez hain ongi, obra horrek endelegu handia behar duelako. Horregatik Kristo^d gure berrerosleak bere sermoietan hainbat parabola eta konparazio erabiltzen zituen, haiekin jainkozko sekretu ugari aditzera ematen zituelako. Egia da, alegiak³² eta adibideak itxuratze hau irudimenarekin egiten dela, figura baita eta egokitasun eta eite ona dakarrelako.

Hizlari onaren seigarren propietatea mintzaira ona, propioa³³ eta afektatu gabea ukaitea da, hitz politak, eta mintzatzeko anitz era graziosoak, eta ez dorpeak; eta aurretik ere maiz hitz egin dugu grazia horiez, horren parte bat irudimenari eta beste parte bat oroimen onari dagozkiela frogatuz.

Hizlari onak eduki behar duen zazpigarren gauza da Ciceronekin dioena: *instructus voce; actione et lepore*³⁴. Boz sendo eta ozena, entzuleen belarrietarako atsegina; latzik ez duena, erlastua eta mehea izan gabe. Eta hau bularraren eta eztarriaren tenperamentutik, eta ez irudimenetik, sortzen dela egia izanik ere, egia da, halaber, irudimen ona sortzen den tenperamentu beretik, berau berotasuna baita, sortzen dela, boz ona ere. Eta daramagun saio honetarako, hagitz komeni da hau jakitea, zeren teologo eskolastikoen, tenperamentu hotz eta lehorrekoak izanik, ezin eduki baitezakete bozerako organo onik, eta hori pulpiturako falta handia da. Eta horrelaxe frogatzen du Aristotelesekin, zaharregan hoztasunagatik eta lehortasunagatik enenplua eginik³⁵; boz ozen eta sendoa ukaiteko, bero handia behar du, bideak hedatzeko, eta hezetasun moderatua, haiek samurtu eta biguntzeko. Eta honela, Aristotelesekin galdera hau egiten du³⁶: *cur omnes qui natura sunt calidi magnam vocem emittere solent?* Galde egin balu bezala: "Zergatik dute bero diren pertsona guztiek boz sendoa?" Eta horrela dakusagu, aitzitik, emakume eta xikiratuen baitan, horiek, beren tenperamentuaren hoztasun handiagatik, Galenok dioenez, eztarria eta boza hagitz delikatuak dute eta³⁷. Horrela ba, boz onen bat entzun dezagunean, jakinen dugu erraiten bularraren bero eta hezetasun handietatik sortzen dela; eta bi kalitate horiek, burmuineraino ailegatzen badira, endelegu ona

alferrrik galtzen dute, eta oroimen ona eta irudimen ona egiten dute, horiexek baitira predikari onak entzuleak pozteko darabiltzan ahalmenak.

Hizlari onaren zortzigarren propietatea, Ciceronek dioenez³⁸, mihia solte, bizia eta ongi trebatua ukaitea da; eta grazia hori ezin eror daiteke endelegu handiko gizonengan, azkarra izateko berotasun handia eta lehortasun moderatua eduki behar dituelako; eta hau ezin gerta daiteke malenkoniatsuengan, horrelakoxe naturalak baitira, errekontzaz.

Hala frogatzen du Aristotelesekin, galdetzen duenean³⁹: *quam ob causam qui lingua haesitant melancholico habitu tenentur?* Erran balu bezala: "Zergatik mintzatzean gelditzen diren guztiak konplexioz malenkoniatsu izaten dira?" Eta problema horri arras gaizki ihardesten dio erranez malenkoniatsuek irudimen sendoa dutela, eta mihia ezin joan daitekeela mintzatzen hark diktatzen dion bezain laster, eta horrela behaztoparazi eta erorarazten duela. Eta kausa ez da hori; baizik eta malenkoniatsuek ahoan beti edukitzen duten ur franko eta txu ugaria, eta jarrera horregatik mihia heze eta arras lasai izaten dutelako; eta hori klarki ageri da zein maiz txu egiten duten kontsideraturik.

Arrazoi berbera eman zuen Aristotelesekin galdetu zuenean⁴⁰: *quae causa est ut lingua haesitantes m aliqui sint?* Erran balu bezala: "Nondik heldu da batzuk mintzatzean gelditzea?" Eta erantzun zuen horiek mihia hagitz hotz eta heze izaten dutela, eta bi kalitate horiek hura oztoparazi eta elbarri ezartzen dutela, eta horrela ezin jarraiki dakiokela irudimenari. Hori erremediatzeko, ardo pixka bat edatea probetxuzkoa dela dio, edo entzuleen aitzinean arrazoitzen hasi baino lehen oihu eder batzuk egitea; mihia bero eta lehor dadin. Baina, era berean, badio Aristotelesekin mintzatzen ez jakitea sor daitekeela mihiak bero eta lehortasun handia edukitzetik; eta koleratsuen adibidea ezartzen du, zeren horiek, haserre daudenean, ez baitute mintzatzen asmatzen, eta grina eta haserrikerik gabe daudenean, aldiz, hagitz elederrak izaten dira; gizon patxadatsuak ez bezala, bakean egonik mintzatzen ez dakitenak, baina haserrez bokantza handiko solasak erraiten dituzte.

Eta horren arrazoia arras argi dago. Zeren beroak irudimenari, eta mihiari ere, laguntza ematen diola egia den arren, baina sobera denean alferrrik galtzera eraman ditzake: batari erran eta errankizun zorrotzak ez etortzeagatik, eta mihiari lehortasun handiegiagatik artikulatzen ez uzteagatik. Eta horrela badakusagu ezen ur pixka bat edanik, gizona hobeki mintzo dela. Koleratsuek, soseguan daudela, hobeki hitz egiten dute mihiak eta irudimen onak behar duten berotasun-puntua orduantxe daukatelako; baina haserre direnean, beroa behar baino gorago igoten da eta irudimena hondatzen du. Patxadatsuek, haserre gabe daudenean, burmuina arras hotz eta hezea dute, eta horregatik ez dute anitz erraitekorik, eta mihia hagitz lasaia hezetasun handiagatik; baina haserre eta koleratan daudenean, beroa puntuz igoten da eta irudimena goititzen du, eta hortik zer erran anitz ukaiten dute, eta mihiak ez die trabarik egiten, jadanik berotua dutelako. Hauek ez dute bertsogintzarako etorri handirik, burmuin hotzekoak izaki; baina behin sumindu eta gero, beraiek haserrikerazi dutenen aurka bertso hobeak eta errazkiago egiten dituzte; eta honi buruz honela erran zuen Juvenalek: *si natura negat, facit indignatio versum*⁴¹.

Eta mihiaren eskasia honegatik ezin izan daitezke endelegu handiko gizonak hizlari onak izan, ez eta predikariak ere; eta bereziki ekintzak batzuetan goraki eta beste batzuetan ixilago mintzatzea eskatzen duelako, eta mihia tratatua dutenak ezin mintza daitezke goraka eta oihuka ez bada; eta horixe da entzuleak gehienek nekarazten dituen gauzetako bat. Eta, horrela, hau galdetzen du Aristotelesekin⁴²: *cur homines lingua haesitantes loqui nequeant voce sumissa?* Erran balu bezala: "Zergatik hitz egitean gelditzen diren gizonak beti goraka ari dira eta ezin mintza daitezke ixilago?" Eta problema honi hagitz ongi ihardesten dio erranez hezetasun handiagatik aho-sabaiari atxikirik dagoen mihia hobeki askatzen dela oldarrez indar gutxirekin baino. Lantza

arras berdea puntatik harturik altxatu nahi duenaren gisakoa da hori, kolpe batez eta oldarrez hobeki altxatzen baitu, pixkanaka goitituz baino.

Iruditzen zait aski frogatu dudala hizlari hobezinak eduki behar dituen berezko propietateetarik gehienak irudimen onetik sortzen direla, eta zenbaitzuk oroimenetik ere bai. Eta gure garaiko predikari hoberenek, grazia horiek berak dauzkatelako, entzuleak kontentuan dituztela egia izanik, hortik ongi segitzen da predikari handia litzatekeenak teologia eskolastiko gutxi jakinen duela, eta eskolastiko handiak ez dakikeela predikatzen, endeleguak irudimenarekin eta oroimenarekin duen kontrakotasunagatik.

Ongi zekusan esperientziaz Aristotelesek, hizlariak filosofia natural eta morala, medikuntza, metafisika, jurisperizia, matematika, astrologia eta gainerako arte eta zientzia guztiak ikasten bazituen ere, guztiotarik ez zekiela loreak eta errankizun jakinak besterik, haietako baten arrazoa eta kausa endelegatu ere egin gabe. Baina hark pentsatzen zuen gauzen teorika eta propter quid-a ez jakitea hartara emana ez izatetik heldu zela. Eta horrela, galde egiten du: *cur hominem philosophum differe ab oratore putamus?* Erran balu bezala: "Zertan uste dugu desberdintzen dela filosofoa hizlariarengandik, biak filosofia ikasiak izanik?"⁴³ Eta problema horri erantzuten dio erranez filosofoak bere ikasketa guztia ezartzen duela edozein ondorioen arrazoa eta kausa jakiteko, eta hizlariak ondorioa besterik ez duela nahi. Eta, egia erran, horren kausa* hauxe besterik ez da, filosofia naturala endeleguari dagokiola, eta hizlariak ahalmen horren peitu dira eta, horrela, filosofiaz ezin jakin zezaketen gauzen azala besterik.

Ezberdintasun berbera dago teologo eskolastikoaren eta positiboaren artean: batak bere fakultateari ukitzen dionaren arrazoa baitaki; eta besteak proposamen ikertuak, eta ez besterik.

Eta hau honela izanik, biziki gauza arriskugarria da predikariak kristau jendeari egia irakasteko ofizio eta aginpidea ukaitea, eta entzuleek hura sinetsi beharra, eta hari egiak erroitik jakiteko ahalmena falta izatea. Erran diezaiekegu, gezurrik gabe, Kristo gure berreroslearen harako hura: *sinite illos: caeci sunt et duces caecorum; caecus autem, si caeco ducatum praestet, ambo in foveam cadunt* ⁴⁴. Ezin jasanezkoa da ikustea zer nolako ausarkeriarekin hasten diren predikatzen teologia eskolastikoaz deusik ere ez dakitenak, eta bera ikasteko berezko trebetasunik ez dutenak⁴⁵. Hauez biziki kexu da Done Paulo, dioela⁴⁶: *finis autem praecepti est charitas de corde puro et conscientia bona et fide non ficti, a quibus quidem aberrantes, conversi sunt in vaniloquium volentes esse legis doctores, non intelligentes nec quae loquuntur nec de quibus affirmant; erran balu bezala: "Jainkoaren legearen xedea karitatea da, bihotz xahu eta garbikoa, kontzientzia onekoa eta gezurrik gabeko fedekoa; hiru gauza horietarik hastanduz gero, guztiak alferreko ele hutsak dira, legeko doktore izan nahirik, aditzen ez dutelarik zertaz mintzo diren ez eta zer dioten ere"*.

Teologo alemanen, ingelesen, flamenkoen, frantsesen eta Iparrean bizi diren gainerakoen hitzontzikeriak eta parleriak kristau entzuleak alferrik galdu zituzten hain mihi trebetasun handiarekin, predikatzeko hainbeste apaindura eta graziarekin⁴⁷, egia erdiesteko endelegurik ez ukaiteagatik⁴⁸. Eta hauek endelegurik gabeak direla lehenago frogaturik utzia dugu Aristotelesen iritziarekin, hartarako ekarri genituen beste anitz arrazoi eta esperientziez gainera. Baina ingeles eta aleman entzuleak oharturik baleude Done Paulok erromatarrei izkiriatu zienaz (haiek ere beste predikari faltsuek hertsaturik zeudelarik), menturaz ez ziratekeen hain laster engainatuko⁴⁹: *rogo autem vos, fratres, ut observetis eos qui dissensiones et offendicula praeter doctrinam quam vos didicistis faciunt, et declinate ab illis; hujusmodi enim Christo domino nostro non serviunt, sed suo ventri; et per dulces sermones et benedictiones seducunt corda innocentium; erran*

balu bezala: "anaia eneok, Jainkoaren amorearren otoitz egiten dizuet gogoan ukan ditzazuela partikularki zuek ikasia duzuen doktrinatik landa beste bat irakasten dizuetenak; eta aparta zaitezte haietatik, ezen halakoek ez dute zerbitzatzen Jesu Kristo gure jauna, baina beren bizioak eta zentzueria; eta hain eleder eta hizlari on direnez gero, beren hitzen eta arrazoen ez-titasunaz gutxi dakitenak engainatzen dituzte".

Hortik landa, lehenago frogatua dugu irudimen handia dutenak koleratsuak direla, maltzurak, gaizkinak eta amarrutiak, eta beti egoten dira gaiztakeriara makurturik eta hori maina eta zuhurtzia handiaz egiten dakite. Bere garaiko hizlariez honela galdetzen du Aristotelese⁵⁰: cur oratorem... callidum appellare solemus; tibicinem, hystrionem, hoc appellare nomine non solemus? Erran balu bezala: "Zergatik erraiten diogu hizlariari maltzur, eta ez musikariari edo antzezleri?" Eta zailtasun hau handiagoa litzateke Aristotelese⁵⁰ baleki musika eta antzezkizuna irudimenaren obrak direla. Eta problema horri ihardesten dio erranez musikariak eta antzezlariak ez dutela beste helbururik beraiek entzuten dituztenei poza ematea baino; hizlariak, ordea, beretzat zerbait erdietsi nahi du, eta horregatik jukutriak eta amarruak erabili beharra dauka, entzuleek haien xede eta helburua endelega ez dezaten.

Honelako propietateak zituzten predikari faltsu haiek ere, Apostoluak Korintokoei izkiriatzean aipatzen dituenek⁵¹. Timeo autem ne sicut serpens Evam seduxit astutia sua, ita corrumpantur sensus vestri... Nam eiusmodi pseudoapostoli sunt operari subdoli, transfigurantes se in apostolos Christi; et non mirum: ipse enim Satanas transfigurat se in angelum lucis, non est ergo magnum si ministri eius transfigurentur velut ministri iustitiae; quorum finis erit opera ipsorum; erran balu bezala: "Beldur naiz nolazpait, ene anaiok, sugeak bere fineziaz eta maltzurkeriaz Eva engainatu zuen bezala, ez ote dizkizueten zentzua eta sena ere nahasiko... zeren gezurrezko apostolu horiek azerisalda⁵² bezalakoak baitira, engainupean mintzo diren predikariak; saindutasunaren itxura ederki antzezten dute, Jesu kristoren apostolu dirudite eta deabruaren dizipuluak dira; eta horrek argizko aingeru itxura hain ongi egiten dakienez, naturaz gaineko dohaina behar da nor den igartzeko; eta maisuak hori egiten hain ongi dakienez, ez da aski haren doktrina ikasi zutenek ere berdin egitea; horien fina ez beren obrak besterik izanen". Propietate hauek guztiok ongi aditzen da irudimenaren obrak direla, eta Aristotelese⁵⁰ hagitz ongi erran zuela hizlariak maltzur eta amarrutsuak direla beti berentzat zerbait erdietsi nahi dutelako.

Lehenago errana dugu irudimen sendoa daukatenek temperamentu arras beroa dutela; eta kalitate horretatik gizonaren hiru bizio nagusi sortu ohi dira: harrokeria, gormantkeria eta haragikeria. Eta horregatik erran zuen Apostoluak: eiusmodi enim Christo domino nostro non serviunt, sed suo ventri. Eta horrela, horiek lanean ari dira Jainkozko Eskritura beren berezko okerdurarekin bat etor dadin, gutxi dakitenei aditzera emanaz apezak ezkon daitezkeela, eta ez dela zertan egon behar garizuma eta baraurik, eta ez dela komeni konfessoreari Jainkoaren kontra egiten ditugun bidegabeak aitortzea ere⁵³. Eta maina horrez baliatuz, Eskritura gaizki erabiliz, obra gaiztoak eta bizioak bertute irudiarazten dituzte eta jendeak haiek saindutzat edukitzea.

Eta berotasunetik hiru makur hauek eta hoztasunetik kontrako bertuteak sortzen direla Aristotelese⁵⁰ frogatzen du⁵⁴, dioenean: et quoniam vim eamden morum obtinet instituendorum; mores enim calidum condit et frigidum, omnium maxime quae in corpore nostro habentur; idcirco nos morum qualitate afficit et informat; erran balu bezala: "berotasunetik eta hoztasunetik sortu ohi dira gizonaren ohitura guztiak, bi kalitate hauek gure izaera beste ezeinek baino gehiago aldatzen dutelako". Eta hortixek heldu da irudimen handiko gizonak komunzki gaiztoak eta biziotsuak izatea, beren buruei berezko makurraren ondotik joaten uzten dietelako, eta gaizki egiteko argimena

eta trebetasuna dutelako. Eta, horrela, galdera hau egiten du Aristotelesek⁵⁵: cur homo, qui adeo eruditione praeditus est, animantium omnium iniustissimum sit? Galde egin balu bezala: "Zergatik da gizona, hain jakituria handikoa izanik, animalia guztietarik injustuena?" Eta problema horri erantzuten dio erranez gizonak argimen handia eta irudimen ederra duela, eta hortixek izaten duela gaizki egiteko anitz asmabide; eta bere izaeraz atseginak gogoko dituenek, eta guztien gainetik abantaila eta zorion handiagoa ukaitea, nahitaez ofentsatu beharra duela, gauza hauek anitzi laidorik egin gabe ezin erdiets daitezkeelako.

Baina ez problema ezartzen jakin zuen Aristotelesek, ez hari komeni bezala erantzuten. Hobe zukeen galdetu balu ea zergatik gaiztoak komunzki argimen handikoak izaten diren, eta, horien artean, zenbat eta trebetasunik handiago ukan, are bilaukeria handiagoak egiten dituzten, arrazoizkoa izanez ezen argimen eta trebetasun onak gizona lehenago lerrarazten duela bertutera eta ontasunera, bizio eta bekatuetara baino. Horren erantzuna da ezen bero handia dutenak irudimen handiko gizonak direla, eta kalitateak berak argitsu egiten ditu, eta horrexek ditu gonbidatzen gaizto eta biziotsu izatera. Baina endelegua nagusi denean, ordinariozki gizona bertutera makurtzen da, ahalmen hori hoztasun eta lehortasunean datzalako, eta kalitate horietatik anitz bertute sortzen dira, hala nola kontinentzia, apaltasuna eta tenperantzia; eta berotik, aldiz, aurkakoak.

Aristotelesek filosofia hori erdietsi balu, jakinen zukeen honela dioen problemari erantzuten⁵⁶: cur genus id hominum quod dionisiacos technitas, id est, artifices bacchanales. aut histriones appellamus, improbis esse moribus magna ex parte consueverunt? Galdetu balu bezala: "Zergatik beren biziera komediak antzetzuz, ostatariak, harakinak eta gonbit eta oturuntza guztietan jatekoak ordenatzeko aurkitzen direnak, komunzki gaizto eta biziotsu izaten dira?" Eta problema horri erantzuten dio erranez ezen, bakanal-ofizio horietan ihardun beharragatik, ez zutela ikasteko erarik ukan; eta horrela bizitza inkontinentziaz iraganez, horri pobreziak ere lagunduz, anitz gaitz ohi dakarrenak⁵⁷. Baina, egia erran, ez da hau arrazoaia, baizik eta antzeztea eta Bakoren festei ordena ematea gizona halako bizimodura gonbidatzen duen irudimen ezberdintasunetik sortzen dela; eta irudimen ezberdintasun hau berotasunean datzanez, guztiek urdail eder-ederrak dauzkate, jan eta edateko apetitu handiarekin. Horiek, letretara emanak balira ere, ez lukete hortik batere probetxurik aterako; eta aberatsak izanik ere, halaber, ofizio horien zale lirateke, beheragoak izan arren, argimenak eta trebetasunak norbera bakoitzari egokitasunez dagokion artera baitakar. Eta, horrela, galde egiten du Aristotelesek⁵⁸: cur in iis studiis quae aliqui sibi delegerint, quamquam interdum pravis, libentius tamen quam in honestioribus versantur? Verbi gratia praestigiatores aut mimos aut ribicinos se potius esse quam astronomos aut oratores velit qui haec sibi delegerint? Erran balu bezala: "Zergatik egoten dira antzezle eta tronpetari izatearren burua galtzen duten gizonak, eta ez dute gogoko hizlari edo astrologo izatea?" Eta problema horri hagitz ederki erantzuten dio, erranez gizonak berehala sentitzen duela berezko jarrera zein artetarako duen, bere barnean hori zeinek erakutsi badaukalako; eta, beraz, Naturak bere keinadez hainbesteko indarra dauka, non arte eta ofizio hori ikasten duenaren duintasunarekin bat ez badator ere, hartara ematen baita, eta ez beste ihardupide ohoragarri batzuetara.

Baina argibide molde hau predikatzeke lanbiderako txarretsi dugunez, eta trebetasun ezberdintasun bakoitzari partikularzki doazkion letrak eman eta banatu behar dizkiogunez gero, komeni da seinalatzea zer argimen mota eduki behar duen predikatzeke ofizioa konfidatu behar zaionak, kristau errepublikak honexetan baitu ardura handiena. Eta, horrela, jakiteko da ezen, Naturak higuin duela endelegu handia irudimen eta oroimen handia elkarrekin biltzea lehenagotik frogaturik utzi badugu ere,

halere, ez dela erregela hain unibertsalik arte guztietan bere salbuespen eta falentzia⁵⁹ ez duenik. Obra honen azkenurreko kapituluan hagitz zabalik frogatuko dugu ezen, Natura sendo dagoenean eta eragozten ez dion kausarik ez bada, argimen diferentzia hain hobezina egiten duela, non sujet berean endelegu handia eta irudimen eta oroimen handia biltzen duen, elkarren kontrakoak izan eta berezko kontrastasunik ez balute bezala. Hauxe zen predikatze ofiziorako trebetasun berezi eta komenigarria, hartara etor litezkeen anitz lagun baleude. Baina, aipaturiko lekuan erranen dugun bezala, hain dira gutxi, non bat besterik ez baitut aurkitu, kontsideratu ditudan ehun mila argimenen artetik. Eta horrela, premiazkoa izanen da argimen diferentzia ezagunago bat bilatzea, iragan den hori bezain osamaitua ez bada ere.

Eta horrela, jakiteko da mediku eta filosofoen artean eztabaida handiak izaten direla ozpinaren, kolera izekiaren eta errautsen tenperamentu eta kalitateak aurkitzeko, gauza hauek batzuetan beroaren ondorioa eta beste batzuetan hotzarena dakartela ikusirik. Eta horrela, iritzi ezberdinetan banatu ziren⁶⁰. Baina egia da izekidura jasaten duten eta suak ahitu eta higatu dituen gauzek orok askotariko tenperamentua ukaiten dutela: gaiaren parte gehiena hotza eta lehorra da, baina badira beste parte tartekatu batzuk arras sotil eta delikatuak, eta hain irakite eta berotasun handia dute, non neurri txikitik egonik ere, obratzeko eraginkorrakoak baitira gaiaren gainerako guztiak baino. Eta horrela, badakusagu ozpinak eta malenkoniak izekiduraz lurra ireki eta hartitzen dutela, beroagatik, eta ez dutela hersten, umore horietatik parte gehiena hotza izan arren. Hortik inferitzen da malenkoniatsuek izekiduraz endelegu handia irudimen handiarekin elkartzten dutela; baina guztiak oroimenik gabeak dira izekidurak burmuinean egin zien lehortasun eta gogortasun handiagatik. Horiek predikari izateko onak dira, gutxienez aurki daitezkeen hoberenak, aipatu ditugun hobezin haiez landa. Zeren oroimena falta badute ere, duten asmamen propioa hain handia denez, irudimenak berak balio die oroimen eta gomutamentzat, eta erraiteko figurak eta errankizunak ematen dizkie, inoren premiarik ukan gabe. Baina hori ezin egin dezakete sermoia hitzez hitz ikasirik dakartenek, hortik ateraz gero berehala galdurik gelditzen baitira, aitzinera iragateko materia zeinek eman ez dutelarik. Eta malenkoniak izekiduraz endelegurako gisa horretako tenperamentua, hoztasun eta lehortasuna eta irudimenerako berotasuna daukala Aristotelesekin dio, era honetara⁶¹: *homines melancholici varii inaequalesque sunt, quia vis atrae bilis varia et inaequalis est, quippeque vehementer tum frigida tum calida reddi eadem possit; erran balu bezala: "Gizon malenkoniatsuek izekiduraz anitz eratakoak eta ezberdinak izaten dira itxuraketan, kolera izekia hagitz ezberdina izaten delako: batzuetan bero-bero ezartzen da, eta beste batzuetan erabat hotz"*.

Temperamentu honetako gizonak ezagutzeko seinaleak biziro nabarmenak dira. Aurpegiaren kolorea berde-beltz edo errauskara dute; begiak oso izekiak (horiengatik erran zen: "Begian odola daukan gizona da")^{62*}; adats beltza eta burusoilak; haragiak mehe, latzak eta ilez beteak; zainak hagitz zabalak. Arras solas onekoak dira eta atseginak, baina haragikoiak, harroak, burgoituak, ernegariak, maltzurak, tolestuak, iraintzaile, gaizki egiteko lagunak eta mendekatiak. Hau aditu behar da malenkonia bizten denean; baina hoztuz gero, berehalaxe sortzen dira haiengan aurkako bertuteak^{**}: kastitatea, Jainkoaren beldurra eta Harenganako gurkera, karitatea, bihozberatasuna eta beren bekatuen aitortpena aintziri eta negarrekin. Arrazoi horregatik taigabeko borrokan eta gatazkan bizi dira, lasaitasunik eta sosegurik gabe: batzuetan haiengan bizioa gelditzen da nagusi, eta beste batzuetan bertutea. Baina falta horiekin guztiokin ere, horiexek dira predikatze ministeriorako argitsuenak eta trebeenak munduan diren zuhurtziako gauza guztietarako, egia erdiesteko endelegua dutelako, eta hura sinestarazteko irudimen handia ere bai.

Eta ezpere, dakusagun bada zer egin zuen Jainkoak gizon bat bere amaren sabelean fabrikatu nahi ukan zuenean, munduari Haren Semearen etorrera iragartzeko gai izan zedin, eta Kristo legean prometaturiko Mesia zela frogatu eta sinestarazteko talentua ukan zezan⁶³. Eta aurkituko dugu, hura endelegu eta irudimen handikoa eginez, nahitaez (ordena naturala gordez) koleraz izekia atera zuela. Eta hau egia dela aise uler daiteke Eliza jazartzeko zerabilen su eta furfuria^S, eta hura konbertiturik ikusi zutenean sinagogek hartu zuten nahigabea kontsideraturik, garrantzi handiko gizona galdu eta kontrako aldekoek hura eskuratua zutenez gero. Era berean ulertzen da hura mintzatzean eta bera atxilotzen zuten prokontsul eta epaileei ihardesteko zerabiltzan kolera arrazionalzko erantzunengatik, bere burua eta Kristoren izena hain trebetasun eta abilezia handiz defendatuz, non guztiak konkluditzen baitzituen. Era berean, ez zen mihi onekoa ez eta hitz egiteko egokiegia, propietate hori, Aristotelesek zioenez, malenkoniatsuek izekiduraz ohi zutelako⁶⁴. Berak (konbertitu baino lehen) zituela aitortzen dituen bizioek ere temperatura hori erakusten dute. Blasfemaria zen, iraintzaile eta jazarlea; eta hori guztia berotasun handitik sortu ohi da. Baina koleratsu izekia zela erakusten duen seinalerik argiena, berberak bere barnean zeukala aitortzen duen taigabeko borroka hartatik hartzen da, goiko eta beheko atalen artean, zioela: *video aliam legem in membris meis repugnantem legi mentis meae et ducentem me in captivitate peccati*⁶⁵. Eta frogatu dugunez, Aristotelesen iritziz, borroka berbera dute malenkoniatsuek izekiduraz. Egia da, ordea, batzuek azaltzen dutela, eta oso ederki azaldu ere, borroka hau sortzen zela jatorrizko bekatuak izpirituaren eta haragiaren artean egin zuen desordenatik. Baina hainbestekoa eta hain handia heldu zen, ene ustez, atrabiliak bere eraketa naturalean zeukan ezberdintasunetik, zeren David errege profeta, jatorrizko bekatuaren partaide izanik ere, ez baitzen Done Paulo bezainbat arrenkuratzen; aitzitik, bazioen beheko atala arrazoimenarekin kontzertaturik aurkitzen zuela Jainkoarekin poztu nahi zuenean: *cor meum et caro mea exaltaverunt in Deum vivum*⁶⁶. Eta azkenurreko kapituluan erranen dugunez, Davidek Naturak egin ditzakeen natura guztietarik hoberena zuen; eta horrek, filosofo guztien iritziaz bat frogatuko dugunez, komunzki gizona bertutetsu izatera makurtarazten du haragiarekiko kontraerrian handirik gabe.

Beraz, predikari izateko hautatu behar diren argimenak, lehenik, endelegu handia irudimen eta oroimen handiarekin elkartzen dutenak dira, zeinen seinaleak azkenurreko kapituluan ekarriko ditugun. Hori falta denean, horren lekuan izekidura malenkoniatsuek direnak heldu dira. Horiek endelegu eta irudimen handiak elkartzen dituzte; baina oroimenik ez dute, eta horrela ezin eduki dezakete hitz bilduma handirik, ez eta entzuleen aitzinean jario handiz predikatu ere. Hirugarren lekuan endelegu handiko baina irudimen eta oroimenik gabeko gizonak datoz; horiek desgrazia handiz predikatuko dute, baina egia irakatsiko dute. Azkenak (eta predikatze ofizioa nik horiexei gomendatuko nieke) oroimen handia irudimen handiarekin elkartzen dutenak dira, endelegu gutxikoak izanik. Hauexek ohi daramatzate entzule guztiak beren ondotik, haiek adi-adi eta pozik edukiz; baina gutxien uste dugunean Inkisizioan itzartzen dira⁶⁷. Zeren *per dulces sermones et benedictiones seducunt corda innocentium*⁶⁸.

XI [1594.eko XIII.a]

Non frogatzen den legeen teorika oroimenari dagokiola;
eta abokatzea eta epaitzea, zein baita haren praktika, endeleguari;
eta errepublika bat gobernatzea, irudimenari

Espainiar hizkuntzan ez da misterio gabea ezen letratu^l izena letragizon guztientzako hitz komuna izanik, hala teologoentzat nola legelari, mediku, dialektiko, filosofo,

hizlari, matematikari eta astrologoentzat, guztiarekin ere, "Urlia letratua da" erraiten denean, orok konprenitzen dugu, kontsentimendu komunean, hura lanbidez legeetan aditua dela, hori haren deitura propioa eta berezia balitz bezala, eta ez besteena².

Duda honen erantzuna, erraza izanik ere, komeni den bezala emateko, lehenik jakin beharra da legea zerik den eta zer nolako beharkia duten fakultate hori ikasten hasten direnek, ondoan, epaile edo abokatu izanez, hartaz usatzeko.

Legea, ongi behatuz gero, legegilearen borondate arrazionala besterik ez da, horren bidez bere errepublikan maiz gertatzen diren kasuak zer gisa erabakitzea nahi duen azalduz, menekoak bakean kontserbatzeko eta horiei nola bizi behar duten eta zeretik gorde behar duten erakusteko. Borondate arrazionala erran dut, ez baita aski Erregeak edo Enperadoreak, legearen kausa efiziente direnek, beren borondatea edozein molde azaltzea hura lege izan dadin, zeren bidezkoa eta arrazoizkoa ez baldin bada, ezin dei baitaiteke lege, eta izan ere ez da, arima arrazionalik ez lukeena gizona ez litzatekeen bezalaxe. Eta horrela, akordaturik dago erregeek beren legeak gizon arras jakintsu eta adituekin elkar harturik egitea, haiek zuzentasun, berdintasun eta ontasuna eraman dezaten, eta menekoek haiek gogo onez hartu eta haiek gorde eta konplizera behartuagorik egon daitezten. Legearen kausa materiala errepublikan ordinarioriki gertatzen diren kasuez egitea da, Naturaren aginduaren arabera³, eta ez ezinezko gauzez edo bakanki gertatu ohi direnez. Azken kausa gizonaren bizitza ordenatzea da eta hari erakutsi zer egin behar den eta zeretik gorde behar duen, arrazoibidean jarririk, errepublikako bakea kontserba dadin. Honegatik agindu ohi da legeak hitz argiekin izkiriatzea, eta ez ele nahasgarri, ilun eta balio anitzekoekin; zifra⁴ eta laburpenik gabe; eta hain nabarmen eta ageri, non haiek irakur ditzan edozeinek erraz endelega eta oroimenean eduki ditzan⁵. Eta inork haien berri ez dakiela erran ez dezan, publikoki pregonarazten dituzte, haiek hauts ditzana gartzigatu ahal izateko.

Hortaz, legegile onek beren legeak bidezkoak eta argiak izan daitezten ukaiten duten ardura eta diligenza kontutan harturik, epaile eta abokatuei manatua diete ezen nemo in actionibus vel iudiciis suo sensu utatur, sed legum auctoritate ducatur; erran balu bezala: "agintzen dugu ezekin epailek ez abokatuk erabil dezala bere endelegua eta ez dadila sar legea bidezkoa den ala ez jakitera, eta ez diezaiola beste adierarik eman letraren jarrerak adierazten duenaz landa"⁶. Hortik segitzen da jurisperituek testua legetik eraiki behar dutela eta eraikuntza horri darion adiera hartu, eta ez besterik.

Beraz, doktrina hori gogoan edukiz, gauza hagitz argia da zergatik erraiten zaion legelariari letratu, eta ez gainerako letragizonei. Eta da letretara emana delako, erran nahi baita ez duela bere endeleguaren arabera iritzia emateko askatasunik, baina nahitaez letraren jarrerari jarraiki behar diola⁷. Eta horrela aditurik dutelako, lanbide honetako peritu handiak ez dira ausartzen kasuaren erabakipena egitera, beren hitz propioekin hori erabakitzen duen legea aitzinean ez baldin badute. Eta inoiz bere buruz mintzo badira, beren dekretu eta arrazoia Zuzenbideari atxiki gabe, hori beldurrez eta lotsaz egiten dute; eta horrela esaera oso erabili hau daukate eredu: erubescimus dum sine lege loquimur, erran balute bezala: "orduak epaitzeko eta kontseilatzeke lotsa gara, hori erabakitzeko legea aurrean ez dugunean".

Teologoen ezin dei daitezke letratu (erran-nahi honetan) zeren Jainkozko Eskrituran littera occidit, spiritus autem vivificat⁸. Hagitz misteriotsua da, figuraz eta zifrez betea, iluna eta ez da guztientzat nabarmena. Haren hitzek eta mintzatzeko manerek erran-nahi arras ezberdina dute hirueledun arruntek⁹ dakitenetik. Horrexegatik, letra itzuli eta gramatikazko itzulpenari darion adiera har dezana anitz errakuntzatan eroriko da.

Medikuek ere, atxikitzeke, ez dute letrarik. Izan ere, baldin Hippokratesek eta Galenok eta fakultate honetako gainerako autore pisutsuek gauza bat erraiten eta baieztatzen

badute, eta esperientziak eta arrazoimenak aurkakoa erakusten, ez dute haiei jarraitzeko obligaziorik. Medikuntzan esperientziak arrazoimenak baino indar handiagoa duelako, eta arrazoimenak autoritateak baino¹⁰. Baina legeetan alderantziz gertatzen da, haien autoritatea eta haiek dekretatzen dutena are indar eta kemen handiagokoa baita horien aurka egin daitezkeen arrazoi guztiak baino.

Hori horrela izanik, jadanik irekia dugu bidea legeek eskatzen duten argimena erakusteko. Zeren legegizonak endelegua eta irudimena loturik eduki behar baditu legeak dioenarekin deus kendu eta erantsi gabe, egia da ahalmen hau oroimenari dagokiola, eta lan egin behar duela Zuzenbideak dauzkan lege eta erregela kopurua jakiteko, eta haietako bakoitzaz banan-banan oroitzeko, eta buruz haren esapidea eta erabakipena aipatzeko, horrela, kasua agertzen denean, hura zein legek eta zein formaz eta maneraz mugatzen duen jakin dezaten. Hori dela eta, irudi zait legelariarentzat argimen ezberdintasun hobea dela oroimen handia eta endelegu urria ukaitea, endelegu handia eta oroimen urria ukaitea baino. Zeren bere argimenaz eta trebetasunaz baliatu beharra ez badu, eta diren lege guztien kopuru handia kontutan hartu behar badu, batzuk besteetatik hain desaxikiak, hainbeste falentzia, muga eta gehipenekin, hobe baita oroimenez jakitea gerta daitezkeen gauza bakoitzerako Zuzenbidean zer dagoen erabakirik, endeleguarekin nola erabaki litekeen gogoeta egitea baino; zeren bata beharrezkoa baita, eta bestea kasuari ez doakiona, ez baitu balio behar beste ezein iritzik legearen erabakipenak baizik. Eta horrela, egia da jurisperiziaren teorika oroimenari dagokiola, eta ez endeleguari ez eta irudimenari ere. Horren kariaz, eta legeak hain positiboak direnez, eta legelariak endelegua legegilearen borondateari hain loturik daukatenez gero, eta haiek legearen erabakipena segurtasunez jakin gabe beren dekretua ezin tarteka dezaketenez, auzilariren batek kontsulta egiten dienean, jende arruntaren lizentzia dute honela esateko: "kasu horretaz neure liburuetan begiratuko dut"; baina medikuak, eritasunen baten erremedioa eskatzen diotenean, hori erran baleza, edo teologoak kontzientziaz kasuetan, beren fakultatean gutxi dakiten gizontzat edukiko lituzkete. Eta horren arrazoia da bi zientzia horiek hastapen orokorrak, eta definizioak, dauzkatela, horien azpian kasu partikularrak direlarik; baina jurisperizian, ordea, lege bakoitzak kasu bakarra dauka, ondotik darraionarekin ikustekorik ukan gabe, biak titulu beraren azpian izan arren. Horregatik lege guztiak jakin behar dira eta haietako bakoitza banan estudiatu, eta oroimenean bereziki gorde.

Baina horren kontra, Platonek arreta handiz ohartzeko gauza bat seinalatzen du¹¹, hots, haren garaian susmagarri zeritzotela anitz lege buruz zekizkien letratuari, esperientziaz ikusirik halakoak ez zirela epaile eta abokatu onak, haien hantusteak prometatzen zuenez. Eta ondorio horren kausa ez zukeen asmatu, ez baitzuen hain leku komenigarrian hura erran. Esperientziaz ikusi zuen bakarria izan zen oroimen handiko legelariak, kausa bat defendatzera edo epaia ematera heltzean, ez zutela Zuzenbidea komeni bezain ongi aplikatzen. Ondorio horren arrazoia eta kausa, ene doktrinan, ez da emateko zaila, oroimena endeleguaren kontrakoa dela gogoan izanik, eta legeen egiazko interpretazioa egiteko, haiek hedatu, urritu eta beren aurkako eta kontrakoekin osatzeko, bereiztu, inferitu, arrazoitu, iritzi eman eta hautatu egin behar da; eta obra horiek, lehenago maiz erran dugunez, endeleguarenak dira, eta oroimen handiko letratu batek ezinezkoa luke horiek egitea. Oroimenak, lehenago ohararazi dugunez, ez du buruan beste ofiziorik gauzen figurak eta fantasmak zintzoki gordetzea besterik. Baina, izan, endelegua eta irudimena dira haiekin obratzen dutenak. Eta letratuak arte guztia oroimenean baldin badauka, eta endelegua eta irudimena falta baditu, ez du epaitzeko eta abokatzeko trebetasun handiagorik Kodeak edo Digestoak baino; horiek, beren baitan Zuzenbidearen lege eta erregela guztiak besarkatu arren, horrekin guztiarekin ezin baitezakete izkribu bat ere egin.

Hortik landa, legeak haren definizioan erran zen bezalakoa izan behar balu ere, baina, mirariz ez bada, nekez aurkitzen dira gauzak endeleguak janzten dituen hobasun guztiekin. Legea bidezkoa eta arrazionala, gerta daitekeen guztia aurrikus dezakeena eta bera hitz argiz izkiriartzea, duda eta kontrakorik gabe, eta adiera bat baino gehiago ez edukitzea, beti ezin erdiets daiteke, azken finean, giza kontseiluarekin ezarria delako, eta horrek ez du indarrrik etorkizun dagoen guztia ordenatzeko¹². Eta hori egunero ageri da: zeren behin lege bat akordio eta kontseilu handiarekin egin eta gero, (handik laster) bera desegiten hasten dira, hura publikatu eta hartaz baliatu ondoan, mila eragozpen aurkitu direlako, kontsulta egin zenean inork antzeman gabeak.

Beraz, Zuzenbideak abisu egiten die errege eta enperadorei beren legeak emendatu eta zuzentzeko ahalke izan ez daitezten, azken buruan gizonak baitira, eta beraz ez da miresteko okertzea. Batez ere, ezein legek ezin har baititzake hitzez ez esapidez erabakitzen duen kasuaren zirkunstantzia guztiak, gaiztoen maltzurkeria eginak asmatzeko delikatuagoa delako, zintzoek haiek nola epaitu behar dituzten aurrikusteko baino; eta horrela, erranik dago¹³: neque leges nec senatus consulta ita scribi possunt ut omnes casus, qui quandoque inciderint, comprehendantur; sed sufficit ea quae plerunque accidunt contineri; erran balu bezala: "ezin izkiria daitezke legeak, gerta litezkeen kasu guztiak bere baitan eduki ditzaten; aski da eskuarki gertatzen direnak erabakitzea". Eta baldin beste batzuk gerta balitez, hitz bereziekin halaxe erabakitzeko legea ez dutenak, ez da Zuzenbidea hain erregela eta hastapen gabea, non epaileak edo abokatuak, inferitzeko endelegu ona baldin badu, ez duen egiazko erabakipena eta defentsa aurkituko, eta hori nondik atera. Beraz, arazoak legeak baino gehiago badira, premiazkoa da epaileak edo abokatuak endelegu handia ukaitea, haiek berriz egiteko, eta ez nolana, baizik eta, haien kontsonantzia onagatik, Zuzenbideak kontraerranik gabe har ditzan. Hau ezin dezakete egin oroimen handiko letratuak, arteak ahoan ebakirik eta mastekaturik jartzen dizkien kasuak ez badira, gehiago egiteko abileziarik ez dutelako. Buruz anitz lege dakizkien letratuari goitizenez bere dendan haztamuka ebakiriko anitz zaia dauzkan arropa zahar saltzaile erran ohi diote; horrek, norbaitek eskatzen dion neurrikoa emateko, guztiak probarazten dizkio, eta bat ere ongi ez badoakio, handik eroslea bidaltzen du. Baina endelegu oneko letratu jostun onaren parekoa da, eskuan aitzurra eta etxean oihal pieza dauzka eta; eta horrek, neurria harturik, zaia, hura eskatzen dionaren taiura ebakitzen du. Abokatu onaren aitzurra endelegu zorrotza da, eta horrekin kasuari neurria hartu eta hura erabakitzen duen legeaz janzten du, eta hori osorik eta hura erabakitzeko hitz propioekin aurkitzen ez badu, Zuzenbidearen betatxu eta zatikoekin hura defendatzeko jantzia egiten dio.

Horrelako argimena eta trebetasuna erdiesten dituzten legelariei ez zaie letratu erran behar. Ez baitute letra itzultzen, ez eta legearen formazko hitzetara makurturik egoten ere; aitzitik, badirudi legegile edo lege-aholkulariak direla, zeintzuei legek berek eskatzen eta galdetzen baitiete zer erabaki behar duten. Zeren haiek legeak interpretatu, murriztu, hedatu eta haietatik salbuespenak eta falentziak ateratzeko ahalmena eta aginpidea badute, haiek zuzenduz eta emendatuz, ongi erranik dago legegile diruditela.

Honelako jakiteaz erran zen¹⁴: scire leges non hoc est verba earum tenere, sed vim ac potestatem habere; erran balu bezala: "Ez beza inork pentsa legeak jakitea horiek izkiriaturik dauden hitzak buruan edukitzea dela, haien indarrak noraino heltzen diren eta zer erabakitzen duten endelegatzea baizik". Zeren haien arazoia anitz aldaketaren menean baitatza zirkunstantziengatik, hala denboraren, nola pertsonaren, lekuaren, moduaren, materiaren, kausaren eta gauzaren arabera; eta horrek guztiak legearen erabakipena aldarazten du. Eta epaileak, edo abokatuak, legeak hitzez ezin erran dezakeena bertatik ateratzeko, kendu edo ezartzeko endelegurik ez badu, letrari jarraikiz

errakuntza handiak eginen ditu. Hortaz, erran zen¹⁵: verba legis non sunt capienda iudaice; erran balu bezala: "legearen hitzak ez dira hartu behar juduen gisara", letra itzuli eta hitzez hitzezko adiera hartuz, alegia.

Erranikoagatik konkluditzen dugu abokatusa endeleguaren obra dela, eta baldin letratuak oroimen handia badu, ez duela deus balio epaitzeko ez abokatzeko bi ahalmen horien elkarrenganako higuinagatik. Eta horixe da, Platonek oharrarazten duenez¹⁶, oroimen handiko letratuak auziak ongi ez defendatzeko eta Zuzenbidea komeni den bezala ez aplikatzeko arrazoia.

Baina doktrina honetan eragozpen bat ageri da, eta itxura denez, ez da arina. Izan ere, endelegua baldin bada kasua ezartzen duena hura erabakitzen duen legean bertan, hura bereiziz, mugatuz, hedatuz, inferituz eta kontrako partearen argudioei erantzunez, nola izan daiteke endeleguak hori egitea oroimenak aurrean Zuzenbide osoa jartzen ez badio? Zeren, gorago erran dugunez, manaturik baitago ezen nemo in actionibus vel iudiciis suo sensu utatur, sed legum auctoritate ducatur. Honen arauz, lehenik Zuzenbidearen lege eta erregela guztiak jakin beharra dago, kasuari ongi doakionari eskua luzatu baino lehen; izan ere, oso endelegu oneko abokatusa legeen jaun handia dela erran dugun arren, halere, haren arrazoi eta argudio guztiek fakultate horren hastapenei atxikirik joan behar dute, horiek gabe haiek ondorio eta balio gabeak baitira; eta hori egin ahal izateko, oroimen handia ukan behar da, hain lege kopuru handia, liburuetan izkiriaturik dagoena, gorde eta eduki dezan.

Argudio honek frogatzen du ezen abokatusa hobasuna ukaiteko beharrezkoa dela harengan endelegu azkarra eta oroimen handia elkartzea, eta nik hori aitortzen dut; baina erran nahi dudana da, endelegu azkarra oroimen handiarekin batera ezin aurki daitekeenez gero, elkarren arteko higuinagatik, hobe dela abokatusa endelegu handia eta oroimen txikia ukaitea, ezen ez oroimen handia eta endelegu urria. Zeren oroimen faltarako anitz erremedio baitira, hala nola liburuak, taulak, hiztegiak eta gizonek aurkituriko beste imintzio batzuk; baina endelegua falta bada, hori ezin erremedia daiteke inola ere.

Hortik landa, Aristotelese¹⁷ dio endelegu handiko gizonek, oroimen urrikoak izan arren, gomutamen handia ohi dutela, eta horrekin behin ikusi, entzun edo irakurri dutenaz halako aieru zirriborrozkoa ukaiten dute, baina hartaz gogoeta eginik, oroimenera ekartzen dutela. Eta Zuzenbide guztia endeleguari erakusteko hainbat erremedio ez balego ere, egon, hainbeste arrazoitan oinarrituriko legeak daude, non antzinakoek, Platonek dioenez, legeri zuhurtzia eta arrazoimen erraiten ziotela¹⁸, eta horregatik endelegu handiko epaileak edo abokatusak, juzkatuz edo kontseilu ematean, legea aitzinean ukan ez arren, gutxitan oker zitezkeen, enperadoreek legeak egiteko erabili zuten tresna berengan zeukatelako. Eta horrela, anitzetan gertatzen da (argimen oneko) epaileak epaia legearen erabakia jakin gabe ematea, eta gero liburuetan hura izkiriaturik erideitea. Eta gauza bera dakusagu gertatzen zaiela abokatusi ere beren iritzia haztamuka ematen dutenean.

Zuzenbidearen legeak eta erregelak, ongi ikusirik, jatorrizko iturriak dira, eta hortixek ateratzen dituzte abokatusen argudioak eta arrazoiak, nahi dutena frogatzeko. Eta egia da obra hau endeleguarekin egiten dela; eta abokatusa ahalmen hori falta badu edo urri badauka, ez du behin ere jakinen argudio bat eratzen, Zuzenbide osoa buruz jakin arren. Hori klarki dakusagu gertatzen zaiela hizlaritza estudiatzen dutenei, horretarako trebetasuna falta dutenean: izan ere, Ciceronen Topikoak buruz ikasi arren (iturri horiei baitarizkie problema bakoitza baiezko eta ezezko aldetik frogatzeko dauden argudioak), sekula ez dute jakiten arrazoi bat eratzen; eta beste batzuk, argimen eta trebetasun handikoak, mila argudio egitera heldu dira, behar den xederako egokituak. Hauxe bera

gertatzen zaie oroimen handiko legelariei: horiek Zuzenbide osoa zehaztasun handiarekin buruz erranen dute baina halere, ez dakikete, dauden lege kopuru hain handitatik, argudio bat ateratzen beren intentzioa oinarritzeko. Aitzitik, badira beste batzuk, Salamancan gaizki estudiantu arren, eta libururik eta pasatu ere egin gabe, abokatutzan mirariak egiten dakitenak.

Hemendik aditzen da nolako axola handia duen errepublikak zientzietarako argimenen azterketa eta hautapen hau egoteaz; zeren batzuek, arterik gabe, egin behar dutena jakin eta endelegatzen baitute, eta beste batzuek, arau eta erregelaz kargaturik, praktikak eskatzen duen trebetasunik ezaz, mila zentzugabekeria egiten dituzte. Beraz, epaitzea eta abokatzeta bereiziz, inferituz, arrazoituz eta hautatuz egiten bada, arrazoizkoa dateke legeak ikasten has dadinak endelegu ona ukaitea; horrelako obrak ahalmen horri baitagozkio, eta ez oroimenari ez eta irudimenari ere. Eta on dateke ulertzea nola jakin daitekeen mutila argimen diferentzia honetara heldu den ala ez. Baina lehenago komeni da argitzea endeleguak nolako kalitateak dauzkan eta bere baitan zenbat diferentzia besarkatzen dituen, horietarik legeak zeini dagozkion bereziki jakin dezagun.

Lehenbizikoaz den bezainbatean, jakiteko da ezen, endelegua gizonaren ahalmen nobleena eta duintasun handienekoa izanik ere, horregatik ez dela beste bat egiari buruz hura bezain erraz engaina daitekeenik. Hau hasi zen Aristoteles frogatzen erranez¹⁹ zentzua beti izaten dela egiazkoa, baina endeleguak, gehienbat, gaizki arrazoitzen duela. Eta hori esperientziaz ezagun da; zeren, horrela ez balitz, izan ote litezke filosofo, mediku, teologo eta legelari larrien artean gauza bakoitzari buruz hainbat eztabaida, hain esapide ezberdin, epai eta iritzi, egia bat besterik ez denean?

Zentzuek beren objektuez hain segurtasun handia ukaitea eta endelegua berearekin hain engainaeraza izatea nondik heldu zaien, ederki endelega daiteke bost zentzuen objektuek eta horiek ezagutzeko espezieek²⁰ naturaz izate benetakoa, fermu eta egonkorra dutela kontsideratuz, ezagutuak izan baino lehen ere; baina endeleguak behatzeko duen egia, berberak egiten eta eratzen ez badu, ez dauka berez ezein izaki formalek: guztia bere osagaietan deusezturik eta solte dago, harri, lur, zur eta teilatan banaturiko etxea bezala, zeren horiekin eraikinean irudimen txarraz hura altxa lezaketen gizonak bezainbat errakuntza egin bailitezke. Gauza bera gertatzen da egia eratzean endeleguak egiten duen eraikinean ere: argimen ona duena ez bada, gainerako guztiek hastapen berberekin mila zentzugabekeria egingen dituzte eta. Hemendik heldu da gizonen artean hainbeste iritzi izatea gauza berberari buruz, nork bere endeleguan dauzkan bezainbat erakuntza eta figura egiten baititu. Bost zentzuak errakuntza eta iritzi hauetarik landa gelditzen dira, zeren ez begiek egiten dute kolorea, ez dastamenak zaporeak, ez eta ukimenak kalitate ukigarriak ere: hori guztia Naturak egina eta eratu du bakoitzak bere objektua ezagutu baino lehen.

Gizonak, endeleguaren egoera triste honetaz abisaturik ez daudenez, beren ustea fidatuki ematera ausartzen dira, segurtasunez beren argimenaren manera zein den eta egia ongi ala gaizki eratzen duen ere jakin gabe. Eta ezpere, galde degiegun letragizon batzuei, beren iritzia anitz argudio eta arrazoirekin izkiriatu eta berretsi ondoan, beste denbora batean esapidea eta ustea mudatu dutenei, noiz edo nola adi lezaketen egiazko erakuntza egitera asmatu ote duten. Lehen aldian berberak aitortzen dute erratu zirela, lehenago erran zutenari uko egiten diote eta. Bigarrenean, nik diot beren endeleguan konfiantza txikiagoa eduki behar dutela, behin egia gaizki eratu zuen ahalmenak, haren jabea argudio eta arrazoietan hain fidaturik egonik, berriz ere hala egin dezakeelako susmoa baitago, arrazoi berbera izanik; are gehiago esperientziaz ikusiz hasieran egiazko iritzia ukan eta gero, beste batek, txarragoa eta gertagaitzagoak, jabea asebetetzea.

Haiek beren endeleguak egia ongi eratzten duelako seinale askizat daukate hura bere gogoko figura hari atxikia ikustea, eta halako moldez eratzera mugiarazten eta konkludiarazten duten argudioak eta arrazoiak egotea. Eta egiazki engainaturik daude, endeleguak bere iritzi faltsuekin, behealdeko ahalmenek beren objektuaren diferentziakin banan-banan ukaiten duten proportzioa bera duelako. Zeren medikuei galde eginen bagenie gizonak usatzen dituztenetarik ea zein jaki den hoberena eta zaporetsuena, nik uste dut²¹ erranen luketela ez dela bat ere (gizon destenplatu eta urdail txarrekoentzat) osoki on edo txarrik, hura eroriko litzatekeen urdailaren araberakoa baizik; izan ere, Galenok dioenez²², badira urdail batzuk behikiarekin hobeki egoten direnak oilo edo amuarrainekin baino, eta beste batzuk arraultza eta esnea gaitzesten dutenak, eta horiengatik burua galtzen dutenak ere bai. Jatekoak apailatzeko maneran ere, batzuek haragia erre nahi dute eta beste batzuek egosia, eta erreketan batzuek atsegin dute haragia odola dariola jatea eta beste batzuek kiskalia eta ikaztua. Eta are ohartzeko da, egun gogo eta zapore handiz ahoratzen den jakia, bihar gaitzesten eta beste txarrago bat hobesten dute. Hau guztia aditzen da urdaila on eta sanorik dagoenean. Baina medikuek pika edo malazia²³ deitzen duten gaitzaldian eroriz gero, hor giza izaerak gaitzesten dituen gauzen nahikundeak gertatzen dira; halakoak gustuz hobe baiteritze igeltsuari, lurrari eta ikatzei, oilokiei edo amuarrainei baino.

Ugaltzeko ahalmenari iraganez gero, horretan ere beste hainbeste gogo eta aldaki aurkituko ditugu: Izan ere, gizon batzuek emakume itsusia irrikatzen dute eta ederra, aldiz, gaitzesten; beste batzuei poztasun handiagoa ematen die ergelak jakintsuak baino; lodia hastio dute eta mehea maite dute; zetak eta apainduriak min ematen diete, eta piltzar-zarpaz jantziriko emakumeagatik galtzen dute burua. Hau aditzen da ugaltze-alderdiak osasunean egonik; baina malazia deitzen dugun urdaileko gaitzaldian eroriz gero, aberekeria ikaragarriak ohi dituzte gogoko.

Gauza bera gertatzen da zentzumenarekin ere. Zeren kalitate ukigarrietarik, gogor, bigun, latz, leun, bero, hotz, heze eta lehorrak, batek ere ez ditu ukimen guztiak asebetetzen; gizon batzuek ohe gogorrean bigunean baino hobeki lo egiten dutelako, eta beste zenbaitek biguna gogorra baino atseginago.

Gustu eta nahikunde pitxi ugari hauek guztiok endeleguak egiten dituen erakuntzan dautza. Zeren ehun letragizon bildu eta galderaren bat proposatzen badiegu, bakoitzak iritzi partikular bana egin eta bestela arrazoitzen baitu: argudio berbera bati iruditzen zaio arrazoi sofistikoa²⁴, beste bati gertagarria, eta beste bati froga balitz bezala konkluditzen dio²⁵. Eta ez du, soilki, endelegu ezberdinetan ugaritasuna, baina oraindik badakusagu esperientziaz arrazoi ber batek endelegu bat denbora batean konkludiarazten duela, eta beste batean ez. Eta horrela, egunero ikusi ohi dugu gizonak iritzia mudatzen dutela: batzuek, denborarekin endelegu delikatuagoa eskuratuz, lehen haiek oker zerabiltzan arrazoirik eza ezagutzen dute; eta beste batzuek, burmuinaren temperamentu ona galdurik, egia gaitzetsi eta gezurra onesten dute. Baina burmuina malazia deritzogun eritasunean erortzen bada, han iritzi eta erakuntza estrainioak aurkituko ditugu: argudio faltsu eta flakoek indar handiagoa egiten dute sendoek eta hagitz egiazkoek baino; argudio onari erantzutea aurkitzen diote, eta txarraren aitzinean errendatzen dira; egiazko ondorioa atera deneko premisetatik faltsua ateratzen dute; argudio estrainio eta zentzugabeko arrazoiekin beren irudimen txarrak frogatzen dituzte*.

Gizon larri eta askojakinak, horretaz oharturik, beren ustea ematen dutenean ahalegintzen dira haren oinarritzko arrazoiak ixiltzeko. Zeren gizonak zin-zinez sinesten baitute giza autoritatearen balioa hura oinarritzen deneko arrazoiaren indarraren araberakoa dela; eta argudioak konkluditzeko hain indiferente direnez, endeleguen

aniztasunagatik, bakoitzak arrazoi horri bere baitako argimenaren arabera ohi deritzo. Eta, hortaz, seriotasun handiagotzat edukitzen da "honela uste dut hartara bultzatzen nauten arrazoi batzuegatik", horretarako zein argudiotan oinarritu diren azaltzea baino. Baina beren esapidearen arrazoiak esatera behartzen dituztenean, ez dute argudiorik bat ere uzten, den arinena izan arren; zeren berek uste ez dutenak konkluditzen baitu eta eragin handiagoa egiten hagitz onak baino. Eta horretan ageri da gure endeleguaren miseria handia, batetik eratu eta banatu, argudiatu eta arrazoitu egin arren, bestetik, konkluditu ondoan, bere iritzia egiazkoa ote den jakiteko froga eta argirik ez duelako. Teologoek honelako segurtasunik eza ohi dute fedezkoak ez diren gaietan. Zeren, hagitz ongi arrazoitu ondoan, ez baita dudagabeko frogarik ez begien bistako gertaerarik arrazoi onena zein den agertzen duenik; eta, horrela, teologo bakoitzak ahal duen oinarri hoberenaren araberrako ustea du: eta kontrako aldearen argudioei itxuraz erantzunez gero, handik ohorez ihes egiten du, eta ez da gehiago iguriki behar. Baina, mediku edo kapitain generalaren koitadua! Hor, oso ongi arrazoitu eta kontrakoaren oinarriak desegin ondoan, gertakizunaren zain egon behar delako; eta hori, ona baldin bada, hura jakintsutzat gelditzen, eta txarra bada, orduan guztiek uste dute arrazoi txarretan oinarritu zela.

Elizak proposatzen dituen fedeko gauzetan ezin daiteke egon errakuntzarik bat ere; zeren konpreniturik giza arrazoiak zein dudagarriak diren eta gizonak zein erraz engainatzen diren, Jainkoak ez zuen nahi ukan hain gauza gorak eta garrantzi handikoak haien erabakimen hutsean geldi zitezen; aitzitik, Haren izenean bizpahiru lagun bildurik (Elizaren solemnetasunarekin), berehala haien erdian ezartzen da egintzaren mahaiburutzat, eta hor ongi erraiten dutena onesten, errakuntzak baztertzen eta giza indarrekin erdiets ezin daitekeena goitik iradokitzen die²⁶. Eta, horretara, fedeko gaietan egiten diren arrazoiak kontua da begiratzea ea frogatzen edo inferitzen duten Eliza katolikoak erraiten eta aldarrikatzen duen gauza bera; zeren, hortik haien kontrako ezer ateratzen bada, horiek, faltarik gabe, txarrak baitira. Baina gainerako kontuetan, endeleguak irizteko askatasuna duenean, ez da molde asmatuak zein arrazoiak konkluditzen duen jakiteko, ez eta endeleguak egia ongi noiz eratzen duen ere. Ezin daiteke oinarririk har elkarrekin egiten duten kontsonantzia onean besterik; eta hau argudio engainagarria da, gauza faltsu anitzek hagitz egiazkoek baino egiantz handiagoa eta onespen zabalagoa ukaiten dutelako.

Medikuek eta arte militarra gobernatzeko dutenek beren arrazoiak frogatzat gertakizuna²⁷ eta esperientzia dauzkate. Zeren baldin hamar kapitainek anitz arrazoiarekin bataila ematea komeni dela onartzen badute, eta beste horrenbestek ezetz badiote, gertatuko denak iritzi bata berretsiko du eta aurkakoa gaitzetsiko. Eta baldin bi medikuek beren artean eztabaidan badihardute ea eria hilko ala biziko ote den, hura senda edo hil dadinean agertuko da zeinek zekartzan arrazoirik hoberenak. Baina horrekin guztiarekin ere, gertakizuna ez da frogarik asko; zeren ondorio batek anitz kausa dituenek, ongi gerta baitaiteke batagatik hala izatea eta arrazoiak kontrako beste kausa batean oinarriturik egotea.

Era berean badio Aristotelesekin²⁸ nolako arrazoiak konkluditzen duten jakiteko, on dela iritzi komunari jarraitzea, zeren anitz gizon jakintsuk gauza bera esatea, eta guztiek arrazoi berberekin konkluditzea, konkludigarriak direlako argudioa da (topikoa bada ere) eta egia ongi eratzen dutela. Baina ongi begiratu gero, hori ere froga engainagarria da; endeleguaren indarretan nolakoak zenbatekoak baino gehiago balio duelako: ez baita gorputzeko indarretan bezala gertatzen, pisu bat altxatzeko anitz elkartzen direnean anitz ahal dutela, eta gutxi direnean, gutxi ahal dutela. Baina egia oso ezkutua erideiteko, hobe da endelegu delikatu bat halako ez diren mila baino; eta horren kausa da endeleguek ez dutela elkar laguntzen, eta anitzekin ez dela bat egiten, gorputzaren

bertutean bezala. Eta, hori dela eta, honela erran zuen jakintsuak: multi pacifici sint tibi, et consiliarius unus de mille; erran balu bezala: "Ukan itzak anitz adikide, eskuetara heldu behar balitz defenda hazaten; baina kontseilua hartzeko, hauta ezak milatik bat"²⁹. Eta esapide hori Heraklitok ere aipatu zuen, zioela: unus mihi instar est mille³⁰. Auzi eta kausetan letratu bakoitzak Zuzenbidean oinarri hoberena ezar dezakeen gisako iritzia ukan ohi du; baina biziki ongi arrazoitu eta gero, ez du arterik segurtasunez jakiteko haren endeleguak justiziak behar duen erakuntza egin ote duen. Zeren baldin abokatu batek Zuzenbidearekin frogatzen badu demandatzen duen honek justizia bere alde duela, eta beste batek, Zuzenbide berberarekin, ezetz defendatzen badu, zer bide da bi abokatuotarik arrazoi hobekak zeinek eraten dituen jakiteko? Epailearen epaiak ez du frogatzen egiazko justizia, eta horri ezin erran dakioke gertakizuna, haren epaia ere iritzia delako, eta horrela bi abokatuetakoa batena bermatu besterik ez da egiten; eta letratuen kopurua uste berean handitzea ez da haiek botatzen dutena egia dela pentsatzeko argudioa, zeren jadanik errana eta frogatua dugu anitz endelegu murriz, egia hagitz ezkutaturen bat erideiteko bil badaitez ere, ez direla behin ere bakar baten bertute eta indarren heinekoak izanen, hura mailaz arras goratua bada.

Eta epailearen epaiak ez duela froga ez argibiderik ematen klarki ageri da beste goragoko epaitegi batean hura deusezten eta bestela epaitzen dutelako. Eta are txarrago, gerta baitaiteke beheko epaileak goikoak baino endelegu hobea izatea, eta haren iritzia arrazoiarekin baterago etortzea. Eta goiko epailearen epaia justiziaren froga ez izatea gauza nabarmenagoa da, zeren autu berberetatik, deus ere kendu eta gehitu gabe, eta epaile berberengandik, egunero ikusten dugu elkarren aurkako epaiak ateratzen direla; eta behin okertu zena, bere arrazoietan hain fidaturik egonik, susmatzekoa da hurrengoan ere halaxe eginen dela, eta horrela gutxiago fidatu behar da haren epaian, zeren qui semel est malus³¹..., etab.

Abokatuak, epaileek duten endelegu suerte ugaria eta haietako bakoitza bere argimenari doakion arrazoiarekin loturik egoten dela ikusirik, eta denbora batean argudio batekin konkluditzen dutela eta hurrengo egunean aurkakoarekin, auzi bakoitza baiezko eta ezezko aldetik defendatzera ausartzen dira; batez ere esprirentziaz ikusirik era bietatik erdiesten dutela epaia beren alde. Eta, horrela, hagitz ongi egiaztatzen da Jakituriak erran zuena: cogitationes mortalium timidae, eta incertae providentiae nostrae³².

Honetarako erremedioa, beraz, jurisperiziaren arrazoiek froga eta esperientziarik falta dutenez gero, epaile eta abokatu izateko endelegu handiko gizonak hautatzea da, halakoan arrazoiak eta argudioak, Aristotelesekin dioenez³³, esperientzia bera bezain egiazko eta fermuak direlako. Eta hautapen hau eginik, badirudi errepublika bere ofizialeek justizia administratzen dutelakoan segur geldituko litzatekeela. Eta gutzietan multzoan eta haien argimenaren froga egin gabe sartzera utziko balitzaie (orain usatzen den bezala) beti agertuko dira azaldu ditugun itsuskeriak.

Legeak estudiantu nahi dituenak fakultate horrek behar duen endelegua ba ote duen ezagutzeko seinaleak lehenago erranak ditugu nolabait. Baina oroimena freskatzeko eta hori areago frogatzeko, jakiteko da ezen irakurtzera emanaz gero letrak berehala ezagutu eta ABCan³⁴ salteaturik bakoitzak nola duen izena lezakeen mutikoak oroimen handia ukaitzeko seinalea duela, horrelako obra, egiazki, ez baitu endeleguak ez eta irudimenak egiten; aitzitik, oroimenaren ofizioa da gauzen figurak gorde eta haietako bakoitzaren izena behar denean aipatzea. Eta oroimen handia badu, lehenago frogatua dugu horri endelegurik eza darraiola.

Errana dugu, halaber, errazki izkiriatzeak eta marra eta letra onak egiteak irudimena salatzen zutela. Eta, horretara, egun gutxitan eskua ongi ezarri eta lerroak zuzen, eta letra berdintsu eta forma eta figura onarekin egin litzakeen mutikoa, hori jadanik

endelegurako aieru txarra dela, obra hori irudimenarekin egiten delako, eta bi ahalmen horiek lehen erran eta ohartarazi dugun aurkakotasuna dutelako.

Eta baldin gramatikara emanik, hura trabailu gutxirekin ikas baleza, eta denbora laburrean latin ona egin eta gutunak dotoretasunez izkiria balitza, eta Ciceronen klausula biribilak atxiki balekizkio, ez da behin ere epaile ez abokatu ona izanen, oroimen handia duelako seinalea delako, eta mirari handiz ez bada, endelegu urrikoa dateke. Baina hura legeak ikastera saiatzen bada eta Eskoletan anitz egunetan iraneuz gero, irakurle³⁵ handia izanen da eta entzule franko darraizkioke, latin hizkuntza katedrarako grazia handikoa delako, eta itxura onez irakurtzeko anitz alegazio behar dira eta lege bakoitzean beraren gainean izkiriaturik dagoen guztia metatzea; eta horretarako oroimena premiazoagoa da endelegua baino. Eta katedran, legearen egiazko adiera ateratzeko, bereizi, inferitu, arrazoitu, iritzi eta hautatu behar dela egia izanik ere, azken buruan, kasua hobekien iruditzen zaion gisan paratzen du, eta eztabaidagarria eta aurkakoak bere gogara ekartzen ditu, eta epaia nahi duen bezala ematen, inork kontra erran gabe; horretarako aski baita erdi mailako endelegua ukaitea. Baina abokatu batek aktoreari laguntza ematen dionean, beste batek akusatua defendatzen duenean eta beste letratu batek epaile izan behar duenean, hori auzi bizia da³⁶, eta hor ez da aurkakorik gabe aritzean bezain ongi mintzatzen.

Eta baldin mutikoak gramatika ongi gaindi ez baleza, susmatzekoa da endelegu ona ukan dezakeela. Eta susmatzekoa dela diot, hortik ez baita nahitaez inferitzen latina ezin ikasi zuenak endelegu ona duela, lehenago frogatua izanez irudimen sendoko mutilek ez dutela inoiz arrakastarik ukaiten latin hizkuntzarekin.

Baina hau dialektikak ager dezake, zientzia honek endeleguarekin ukitze-harriak³⁷ urrearekin duen proportzio bera duelako. Eta, horrela, egia da, arteak entzuten dituen hilabete batean edo bitan eragozpenik gabe gogoeta egiten hasten ez bada, eta tratatzen den gaian argudioak eta erantzunak agertzen ez bazaizkio, ez duela endelegurik bat ere. Baina zientzia hori ongi gaindituko balu, hori legeek behar duten endelegua duelako argudio dudagabea litzateke; eta, horretara, horiek ikastera berehala joan daiteke, gehiago luza gabe. Halere, nik neuk hobe neritzoke lehenago arteen ikastaro osoa entzuteari; zeren dialektika, endelegurako, ez baita gehiago basamando baten lau zangoetan ezartzen ditugun trabak baino: haiekin zenbait egunez ibili eta gero, ibilera pausatu eta dotorea hartzen du eta. Ibilera horixe bera hartzen du endeleguak ere bere eztabaidetan, lehenik dialektikaren erregela eta aginduekin trabatu eta gero.

Baina aztertzen ari garen mutil horrek latinarekin arrakastarik ez eta dialektika komeni bezala gainditu ez badu, ikertzekoa da ea irudimen ona duen, legeetatik landa egotz dezagun baino lehen. Zeren honetan bada sekretu handi bat, eta on da errepublikak horren berri jakitea. Alegia, badirela letratu batzuk, katedran jarririk, Zuzenbidearen interpretazioan mirariak egiten dituztenak, eta beste batzuk abokatutzan; eta eskuan makila ezarririk, ez dute gobernatzeko abilezia handiagorik, legeak xede hartarako egin ez balira baino. Eta, aitzitik, badira beste batzuk, Salamancan ikasi zituzten hiru lege gaizki jakinekin, behin gobernaritzan hasiz gero, non ez baita munduan gauza hoberik. Eta zenbait kurioso harriturik dago ondorio horrekin, hori nolako kausatik etor daitekeen asmatu ezinik, eta horren arrazoa da gobernatzea irudimenari dagokiola, eta ez endeleguari ez eta oroimenari ere.

Eta hori horrela dela hagitz klarki frogatzen da kontsideraturik errepublikak ordenaz eta kontzertuaz eraturik egon behar duela, gauza bakoitza bere lekuan dela, guztiak elkarrekin figura eta egokitasuna egin dezan, eta lehenago anitzetan frogatu dugu hau irudimenaren obra dela. Eta ez litzateke hobe letratu handia gobernadore paratzea, gorra musika-epaile ezartzea baino.

Baina hau komunzki aditu behar da, eta ez erregela unibertsal gisa. Zeren jadanik frogatua dugu badela modua Naturak endelegu sendoa irudimen handiarekin elkartzeko; eta horrela ez du higuinik ukanen abokatu handia eta batera gobernadore ospetsua izateak. Eta geroago erakutsiko dugu ezen Naturak, lor ditzakeen indar guztiekin eta materia ongi apailatuarekin egonik, oroimen handiko, endelegu handiko eta irudimen ugariko gizona eginen duela; eta hori, legeak ikasirik, irakurle ospetsua izanen dela, abokatu handia eta maila bereko gobernadora. Baina Naturak horrelako hain gutxi egiten dituzenez, non erregela unibertsaltzat jo daitekeen.

XII [1594.eko XIV.a]

Non frogatzen baita medikuntzaren teorika, partez oroimenari

eta partez endeleguari, eta praktika, aldiz, irudimenari

Arabiarren medikuntza loratu zen garaian, izan zen hartan mediku txit famatua, bai irakurtzeko kontuan eta bai izkiriatzeko, argudiatzeko, bereizteko, ihardeste eta konkluditzeko kontuetan ere: eta hartaz aditzen zen (abilezia halakoxe handia baitzuen) hildakoak berpiz eta edozein eritasun senda zezakeela. Eta gauzak hain alderantziz gertatzen zitzaizkion, non ez zuen eri bat esku artean hartzen, hura alferrik galtzera utzi gabe; eta horregatik, ahalkeztu eta iraindurik, fraide sartu zen, bere fortuna txarraz kezaka, hori nondik, nola eta zergatik etor zekiokoen konprenitu ezinik. Eta esenplu freskoagoek onspen handiagoa egiten eta zentzua hobeki komentitzen dutelako, mediku larri askoren iritziz, Juan Argenterio, gure garaiko mediku modernoak, abantaila handia hartu zion Galenori sendatzeko artea metodo hobera eramanez; eta horrekin guztiarekin ere praktikan hain zoritxarrekoa omen zenez, haren eskualdeko eri bat bera ere ez zen harekin sendatzera ausartzen, harekiko gertaera txarren beldur.

Dirudienez, jende arruntak hori miresteko lizentzia du, ikusirik esperientziaz (eta ez aipatu ditugun hauen kasuan, baina begi artean dakartzagun beste anitzen baitan) ezen, medikua letratu handia zenean, arrazoi berberetatik sendatzeko ezgai dela. Eta ondorio horren arrazoiak eta kausa ematera Aristoteles saiatu zen, baina ez zuen hura asmatzerik ukan. Hark pentsatzen zuen bere garaiko mediku arrazionalak sendatzen ez asmatzea haiek gizonaz zuten ezaguera komunetik zetorkiela, partikularitasunaren izaera jakin gabe; enpirikoek^a ez bezala, horien estudio eta diligentzia gizonen bana-banako propietateak jakitea baitzen, unibertsalaz bat ere axolatu gabe. Baina ez zuen arrazoirik ukan, zeren batzuk eta besteak singularrak sendatzen aritzen baitira, eta ahal duten guztia saiatzen izera partikular hori aurkitzeko. Eta horrela, zailtasuna ez datza hau jakitean besterik, ea zergatik mediku hagitz letratuak, bizitza osoan sendatzen ihardun arren, ez diren praktikarekin ongi ateratzen; eta besteek, idiotek¹, aldiz, eskoletan medikuntzaz ikasi zituzten hiruzpalau erregelekin, hagitz ere denbora laburragoan hobeki sendatzen ikasten duten. Duda honen egiatzko erantzunak ez du zailtasun txikia, ez baitzuen Aristotelesekin hura erdietsi, hartaz nolabait zerbait erran arren. Baina gure doktrinaren hastapenetan sendoki oinarrituz, osorik emanen dugu bera.

Eta horrela, jakiteko da medikuaren hobasuna bi gauzatan datzala², haren artearen xedea erdiesteko hain premiazkoak, nola behaztopatu gabe ibiltzeko bi zango baitira behar. Lehena da metodoz gizona komunki sendatzeko arauak eta erregelak jakitea, bana-banakoarengana jaitsi gabe; bigarrena, eri kopuru handia luzaro sendatzen eta begien bistaz ezagutzera saiaturia izatea. Zeren gizonak ez baitira elkarrengandik hain ezberdin, non ez diren anitz gauzatan bat etortzen, ez hain bat eginik non ez diren haien artean halako berezitasun batzuk aurkitzen, ezin erran, ez izkiria, ez irakats, ez eta bil daitezkeenak ere, horrela arte gisa ezartzeko, baina horiek ezagutzea beroriek maiz ikusi eta tratatu zituztenei besterik ez doakie.

Hori erraz uler daiteke kontsideratuz ezen, gizonaren aurpegia hain atal gutxiz osatua delarik, hots, bi begiz, sudur batez, bi masailaz, aho eta kopeta banaz, Naturak hainbat

eraketa eta konbinazio egiten dituela, halako moldez, non ehun mila gizon elkartzen badira, bat bederak bere aurpegia hain singular eta propio duen, eta miraria izanen da haietako biga aurkitzea erabateko antzarekin. Gauza bera gertatzen da lau elementu eta lehen lau kalitateekin ere, bero, hotz, hezetasun eta lehortasunarekin alegia, horien harmoniaz gizonaren osasuna eta bizia osatzen delarik. Eta honelako atal kopuru txikiarekin Naturak hainbat proportzio egiten ditu, non ehun mila gizon sortzen badira, horietako bakoitza bere osasun hain berezi eta berari egokituarekin jalgiten den, eta baldin Jainkoak mirakuluz eta ustekabean lehen kalitate horien proportzioa alda baliezaie, guztiak eri geldituko lirateke, kontsonantzia eta proportzio berean ezbalira. Eta hortik bi ondorio inferitzen dira nahitaez. Lehenbizikoa da eri den gizon bakoitzak bere proportzio bereziaren arabera sendatu beharra dagoela, halako moldez, non medikuak ez badu hura itzultzen hark lehen zituen humore eta kalitateen kontsonantziara, ez baita sendaturik gelditzen. Bigarrena da, hau komeni den bezala egiteko, beharrezkoa dela medikuak eria osasunean maiz ikusi eta tratatzea, pulstua hartuz eta nolako gernua duen ikusiz, bai eta haren aurpegiaren kolorea, eta haren tenplanta ere bai; eri gerta dadinean, haren osasunetik zenbat urundu den juzkatzeko eta, sendatzean, noraino itzuli behar duen jakin dezan.

Lehenbizikorako (artearen teorika eta eraketa jakin eta endelegatzeko) Galenok dio endelegu azkarra eta oroimen handia eduki behar direla³. Zeren medikuntza, alde batetik arrazoimenean baitatza, eta bestetik esperientzian eta historian; lehenbizikorako endelegua behar da, eta, besterako, oroimena. Eta bi ahalmenok goi mailan elkarganatzea hain zaila denez, nahitaez gelditu behar du medikuak teorikan ments; eta horrela anitz mediku latindar eta greziar handi dakuskigu, anatomista bikain eta sendabelarretan arras adituak (oroimenaren obretan, alegia), baina edozein ondorioren arrazoa eta kausa ikertzeko argudio eta eztabaidetan sartuz gero (horiek endeleguari baitagozkio), hor ez dakite deus ere.

Beste batzuei alderantziz gertatzen zaie, artearen dialektika eta filosofian argimen eta trebetasun handia nabari duten arren, behin latin eta grekoan, belar eta anatomian sartuz gero, ez dira hortik inoiz ongi ateratzen, oroimenik gabeak direlako. Arrazoi honexegatik erran zuen Galenok⁴: *mirum non est, in tanta hominum multitudine qui in medica et philosophica exercitatione studioque versantur, inveniri tan paucos qui recte in illis profecerint*; erran balu bezala: "ez dut mira egiten medikuntzan izaten den gizon multzo handian hain gutxi arrakastaz jalgitzeaz". Eta horren arrazoa emanez, badio ezen ia ez dela aurkitzen zientzia honek behar duen argimena, ez hura bikaintasunez irakasten duen maisurik, ez eta arretaz eta zinez hura ikasten duenik ere. Baina arrazoi eta gauza hauekin guztiokin Galeno itsuan dabil, ez baitaki zehazki zertan datzan ezain gizon medikuntzarekin ongi ezin ateratzea. Baina zientzia honek behar duen argimena gizonengan ia ez dela aurkitzen aipatzean, egia erran zuen, orain erranen dugun bezain bereziki egin ez bazuen ere: endelegu azkarra oroimen handiarekin elkartzea hain zaila denez gero, ez dela bat ere ongi ateratzen medikuntzaren teorikarekin; eta endeleguaren eta irudimenaren artean (eta azken hau praktikari eta segurtasunaz sendatzen jakiteari dagokiela frogatuko dugu orain) higuina izaten delako mirestekoa da mediku bat teorikan eta praktikan aditu handia aurkitzea, bai eta anitz teorika dakien praktikari handia izatea ere.

Eta medikua partikularrak ezagutu eta sendatzeko darabilen ahalmena irudimena izatea, eta ez endelegua, frogatzeko gauza erraza da erabat, Aristotelesen doktrika onarturik. Horrek dioenez, endeleguak ezin ezagut baititzake singularrak, ez bata besteagandik bereiztu, ez denbora eta lekua ezagutu, ez eta gizonak elkarren artean ezberdintzen dituzten beste berezitasun batzuk ere, nor bere gisara sendarazten dutenak. Eta horren arrazoa da (filosofo arruntek diotenez) endelegua ahalmen izpirituala izatea eta

singularregatik ezin aldatzea, horiek materiaz beterik daudelako; horrexegatik erran zuen Aristotelese⁵ zentzua singularrena dela, eta endelegua unibertsalena. Beraz, sendabideak banako singularrei egin behar bazaizkie, eta ez unibertsalei (sortezinak eta ustelezinak baitira), sendatzeko ahalmen inpertinentea da endelegua.

Zailtasuna orain hauxe da: zergatik endelegu handiko gizonak ezin eduki dezakete singularretarako kanpo-zentzu onik, hain ahalmen ezberdinak izanik? Eta arrazoia ezin argiagoa da, kanpo-zentzuek ongi ezin obra dezaketelako, haiekin batera irudimen onak ez badihardu. Eta hauxe frogatu behar dugu Aristotelesen iritzitik⁶; hark, irudimena zerik den argitu nahirik, kanpo-zentzuak eraginiko mugimendua dela diosku eta: koloreak (gauza koloreztatutik ugaltzen denak) begia aldarazten duen bezala, halaberean kolore berberori, humore kristalinoan dagoena, irudimenean are barnago sartzen da: eta hor lehenago begian zen figura bera egiten du. Eta galde eginez ea bi espezie horietarik zeinekin egiten den singularraren ezagutza, filosofo guztiek diote (eta hagitz ongi), bigarren figurak aldarazten duela irudimena, eta bietatik kausatzen dela notizia, harako erran komun haren arabera: ab objectob et potentia paritur notitia⁷; baina lehenbizikotik, humore kristalinoan dagoenetik, eta ikusmenetik ez da ezagutzarik batere egiten irudimena ohartzen ez bada. Eta hori medikuek frogatzen dute argiro erranez ezen baldin eri bati haragia ebaki edo erretzen badute, eta horrekin guztiarekin minik egiten ez badiote, hori irudimena behakuntza sakonen batean murgildurik oharkabe egoteko seinalea dela⁸. Eta holaxe dakusagu esperientziaz osasuntsuengan ere, zeren irudipenen batez oharkabeturik daudenean, ez aitzinean dituzten gauzak ikusi, ez deitu arren entzun, ez jaki zapoetsu edo mingotsari gusturik hartzen baitiote, jaten badute ere.

Horregatik egia da irudimenak egiten duela bana-banako gauza partikularren irizpena eta ezagutza, eta ez endeleguak ez eta kanpoko zentzuek ere; eta hortik hagitz ongi segitzen da teorika handia lekikeen medikua, edo endelegu azkarra edo oroimen handia dauzkana, nahitaez praktikari urria izanen dela, ukan behar duen irudimen eskasiagatik, irudimen handia ezin elkar baitaiteke endelegu eta oroimen azkarrekin. Eta kausa honegatik inor ezin atera daiteke medikuntzan hagitz aditua, ez eta osabideetan erratu gabe ibil ere; zeren, obran mainguka ez aritzeko, artea jakin behar baitu, eta irudimen ona eduki, hura bete ahal ukaiteko; eta jada frogatua dugu bi gauza hauek bateraezinak direla.

Behin ere ez da medikua heldu eritasun bat ezagutu eta sendatzera, lehenago bere baitan, tazituki, Darii silogismo bat⁹ egin gabe, enpirikoa bada ere; eta lehen premisaren onespina endeleguari dagokio, eta bigarrenarena irudimenari. Eta horrela, teorikari handiak eskuarki txikian okertzen dira, eta praktikari nagusiak nagusian. Honela erran bageneza bezala: "humore hotz eta hezeen peko sukar oro medizina bero eta lehorrekin sendatu behar da" (kausaren agerpena harturik); "gizon honek pairatzen duen sukar hau humore hotz eta hezeen pean da"; "beraz, medizina bero eta lehorrekin sendatu behar da". Premisa nagusiaren egia endeleguak ongi frogatuko du (unibertsala baita) erranez ezen hotzak eta hezetasunak, epeltzeko, bero eta lehortasuna eskatzen dutela, kalitate bakoitza bere aurkakoarekin ahultzen delako. Baina txikia frogatzera datorrenean, jadanik ez du endeleguak deus balio, partikularra eta besteren jurisdikziokoa delako, eta horren ezagutza irudimenari dagokio, kanpoko bost zentzuetatik eritasunaren seinale propioa eta bereziak hartuz. Eta agerpena sukarretik edo berorren kausatik hartu behar bada, hori ezin jakin dezake endeleguak. Irakasten duen bakararra da arrisku handiena salatzen duenetik hartu beharra dagoela. Baina agerpenetarik zein den handia, irudimenak ez bestek daki, sukarrak egiten dituen kalteak sintomarenekin eta kausarekin parekatuz, eta bertutearen indar handi edo txikiarekin.

Ezagutza hau erdiesteko, irudimenak ezin erranezko propietateak dauzka, eta horiekin ezin erran eta ezin endelega daitezkeen gauzak zuzen asma ditzake, ez baita horietarako arterik ere. Eta horrela, badakusagu medikua eria bisitatzera sartzen; eta ikusmenaz, entzumenaz, usaimenaz eta ukimenaz ezinezkoa dirudiena lortzen du. Halako moldez non, mediku horri galde bageniezaio ea nola asma zezakeen hain ezagutza delikatua, ez bailuke jakinen horren arrazoia eman, dohain hori irudimenaren aberastasunetik sortzen baita, beste izenez solertzia deitua, horrek, ohiko seinale segurgabe, aieruzko eta erro gutxikoekin begiaren hertsirekian gauzen mila ezberdintasun erdiesten dituelako, eta horiexetan dautza sendatzeko indarra eta segurtasunez iragartzea.

Gisa honetako solertzia falta dute endelegu handiko gizonak, hori irudimenaren atala baita; eta horrela, seinaleak begien aitzinean ukanik, eritasuna zerik den abisatzen dietenak, horiek ez diete zentzuetan inolako aldaketarik eragiten, irudimenik gabeak direlako. Behin mediku batek oso ixilean galdetu zidan ea zergatik izan zitekeen berak, iragartzeko erregela eta kontsiderazio guztiak jakin-nahi handiz estudiatu eta haiez ederki jabeturik egon arren, egiten zituen iragarpenetan behin ere ezin asmatzea. Eta gogoan dut ihardetsi niola ahalmen batekin medikuntzaren artea ikasten zela, eta beste batekin zela hura betearazten. Horrek endelegu ona zuen, baina irudimena falta. Baina doktrina honetan zailtasun handi bat datza. Hauxe: nola ikas dezakete irudimen handiko medikuek medikuntzaren artea endelegu faltan badira? Eta hura hagitz ongi dakitenek baino hobeki sendatzen dutela egia bada, zertarako hura Eskoletan ikastera joatea?

Honi erantzuten zaio erranez lehenik medikuntzaren artea jakitea hagitz garrantzizkoa dela, gizonak bizpahiru urtetan ikasten baitu antzinakoek bi milatan erdietsi zutena. Eta gizonak hori esperientziaz eskuratu beharko balu, hiru mila urtez bizi beharko luke, eta medizina esperimenteratuz (haien kalitatean jakin aitzin) lehenik ezin konta ahala gizon erho lezake; baina hori guztiori gairi liteke mediku arrazional eta saiatuen liburuak irakurri gero, horiek haiek beren bizitzan zehar eriden zutenaren berri ematen dutelako, mediku berriek gauza batzuk segurtasunez erabil ditzaten, eta besteetatik gorde daitezkeen, pozoitsuak direlako.

Hemendik landa, jakiteko da arte guztietako gauza komun eta arruntak txit argiak eta ikasteko errazak direla, eta obran horiek dutela garrantzi handiena; baina bestetik, gauza pitxienak eta delikatuenak ilunenak izan ohi direla, eta sendatzeko ez hain premiazkoak. Eta irudimen handiko gizonak, bestalde, ez daude endeleguz eta oroimenez erabat gabeturik; eta horrela, bi ahalmen horien eskasiaz ere, medikuntzako premiazkoena ikas dezakete, hori argiena baita, eta beren irudimen onari esker, eritasuna eta horren kausa hobeki dazagute oso arrazionalak baino. Eta bestetik, irudimenak erdiesten du aplikatu behar den sendabidearen okasioa, ia praktika osoa dohain horretan datza eta; horretara, Galenok erran zuen¹⁰ medikuaren izen berezia inventor occasionis zela; eta, izan ere, egia da denbora, lekua eta okasioa¹¹ ezagutzen jakitea irudimenaren obra dela, horrek figura eta egokitasuna agertzen baititu.

Orain zailtasuna hau jakitean datza, ea diren irudimen ezberdintasun anitzetarik zeini doakion medikuntzaren praktika, segur baita ez direla guztiak komeni arrazoi partikular berean. Eta horri beha egon beharrak izpirituan trabailu eta neke handiagoa eman dit gainerako guztiek baino; eta horrekin guztiarekin ere oraino ezinezkoa gertatu zait ukan behar duen izena ematea, salbu bertsoak eta koplak egiteko behar den irudimenak duen berotasuna baino gradu bat gutxiagotik sortzen dela.

Eta honexetan ere ez nago arras segur. Izan ere, oinarritzen naizen arrazoia da nik praktikari on iritzi diedanak, guztiak saiatzen direla pixka bat bertsogintzan, eta ez dutela beren behakuntza goi mailara igoten, eta haien bertsoak ez direla miresgarri izaten. Baina hori gerta daiteke, halaber, berotasuna poesiak eskatzen duen puntutik pasatua delako; eta arrazoi honegatik baldin bada, hain bero handiak burmuinaren

substantzia pittin bat txigortu behar du, bero naturala sobera deuseztu gabe. Halere, aitzinago pasatzen bada, ez du horregatik argimen ezberdintasun txarrik egiten medikuntzarako (endelegua irudimenarekin errekontzaz elkartzen duelako), baina irudimen hori ez da ni bila nabilena bezain ona sendatzeko; zeren horrek gonbidatzen baitu gizona belagile, sineskeriazale, mago, engainatzaile, kiromantiko, judiziari¹² eta igarle izatera, zeren gizonen eritasunak hain ezkutuak direnez eta beren mugimenduak hain sekretu handiarekin egiten dituztenez gero, beti ibili beharra baita asmatzen bakoitza zer den.

Irudimen ezberdintasun hau Espainian aurkitzeko zaila da, lehenago frogatu dugunez, herrialde honetako bizilagunek oroimen eta irudimenik ez baina endelegu ona dutelako. Iparraldearen pean bizi direnen irudimenean ere ez du medikuntzak ezertarako balio, arras geldoa eta nagia delako. Erlojuak, pinturak, buruorrazak eta gizonaren zerbitzurako munta gutxiko beste merkekeria batzuk egiteko besterik ez du balio. Egipto da bere bizilagunengan irudimen ezberdintasun hau sortarazten duen herrialde bakarra.

Eta horrela, historialariak aspertu gabe ari dira kontatzen ijitoak¹³ zer nolako belagileak diren, eta gauzak ongi asmatzeko eta beren premietarako erremedioak erideteke zein prest dauden¹⁴. Josefok, Salomonen jakituria handia goraiatzeko, honela dio¹⁵: tanta fuit sapientia et prudentia quam Salomon divinitus acceperat, ut omnes priscos superaret, atque etiam aegyptios, qui omnium sapientissimi habentur. Platonek dioenez¹⁶, halaber, egiptoarrek munduko gainerako gizon guztiak gaintzen dituzte jatekoa irabazteko jakintzan, irudimenari dagokion trebestasuna berau. Eta hau egia dela klarki ageri da, irudimenari datxezkion zientziak oro Egipton asmatu zirelako, hau da, matematika, astrologia¹⁷, aritmetika, perspektiba, judiziaritza¹⁸ eta beste horrelako batzuk¹⁹.

Baina ni arazo honetan gehienik komentitzen nauen argudioa hau da, ezen Frantzisko Valois-koak, Frantziako erregeak, eritasun luze batek joa zelarik, eta bere etxe eta Gorteko medikuek ez ziotela erremediorik ematen ikusirik, sukarra handitzen zitzaion bakoitzean ezinezkoa zela mediku kristauak sendatzen jakitea, eta haiengandik ez zuela behin ere erremediorik espero. Eta horrela, behin, bere burua oraindik sukarrarekin zekusalako amorruez, manatu zuen Espainiara mezulari bat igor zezatela, Enperadore gure jaunari^c, mediku judu bat²⁰ bidal ziezaion eskatzera, bere gortean zuen hoberena, aditua zuenez, hark haren eritasunari erremedioa emanen baitzion, arte hartan halakorik baldin bazen behintzat. Eskari hartaz Espainian irri nahikorik egin zuten, eta guztiak konkluditu zuten sukarrak harturiko gizon baten nahikeria zela; baina guztiarekin ere, Enperadore gure jaunak agindu zuen halako mediku bat bila ziezaiotela, halakorik izanez gero, haren bila erresumatik kanpora joan behar bazuten ere. Eta aurkitu ez zutenean, mediku kristau berri bat²¹ igorri zion, horrekin erregearen nahikeria beteko zuelakoan. Baina mediku hori Frantzian eta erregearen aitzinean zelarik, bien artean hizketaldi txit irrigarria gertatu zen, eta hartan medikua kristaua zela agertu zen, eta horrexegatik ez zuen nahi ukan hark senda zezan. Erregeak (mediku hura judua zelako ustean), solasbidez galde egin zion ea ordurako nekatua zen legean prometaturiko Mesiaren esperoan egoteaz.

Medikuak: Jauna, ni ez nago juduen legean prometaturiko Mesiaren esperoan.

Erregeak: Horretan hagitx zuhurra zara, haren etorrera ezagutzeko jainkozko Eskrituran ohartarazirik zeuden seinaleak konplituak baitira jadanik duela anitz egun.

Medikuak: Egun kopuru hori ongi kontaturik dugu kristauok, zeren gaur mila bostehun eta berrogeita bi urte direla etorri baitzen, munduan hogeita hamahiru urte egon eta horien buruan gurutzean hila izanez, eta hirugarrenean berpiztu zen, ondoren zeruetara igoteko, orain den lekura.

Erregeak: Hortaz, zu kristaua zara?

Medikuak: Bai, jauna, Jainkoaren graziaz.

Erregeak: Orduan itzul zaitetz ordu onez zeure herrira, mediku kristauak sobera baititut nik neure etxe eta gortean. Ni judua zinelakoan nengoen, ene ustez, sendatzeko trebetasun naturala horiexek dute eta!

Eta horrela, handik bidali egin zuen, hari pultsua eman nahi gabe, gernua ikustera utzi gabe, eta haren eritasunari buruz hitzik bat ere erran gabe. Eta gero Konstantinopolira²² mezu bat igorri zuen judu baten bila, eta horrek asteme-esne hutsaz sendatu egin zuen.

Frantzisko erregearen irudipen hau, neronek pentsatzen dudanez, arras egiazkoa da; eta hala dela aditua daukat, zeren, lehenago frogatu dudan bezala, burmuinaren destenplantza bero handietan irudimenak gizona osasunean dagoenean ezin dagikeena erdiesten baitu. Eta irudi ez dezan hau besterik gabe erran dudala, horretarako oinarri naturalik ukan gabe, jakiteko da gizonen aniztasuna, bai gorputzaren eraketan eta bai argimenean eta arimaren kondizioetan ere, sortu dela tenperatura ezberdineko herrialdeetan bizitzetik eta kontrako urak edatetik, eta guztiek jaki berberak ez usatzetik;

eta horrela, Platonek hau erran zuen²³: alii ob varios ventos et aestus, et moribus et specie diversi inter se sunt; alii ob aquas; quidem propter alimentum ex terra prodiens; quod non solum in corporibus melius ac deterius, sed in animis quoque id genus omnia patere non minus potest; erran balu bezala: "gizon batzuk beste batzuk ez bezalakoak dira kontrako aireez haizeztatzen direlako, edo bestelako urak edaten dituztelako, edo guztiek janari berberak hartzen ez dituztelako; eta ezberdintasun hori ez da, soilki, aurpegian eta gorputzaren eraketan, baina arimaren argimenean ere bai".

Hortaz, nik neuk orain froga baneza Israelgo herria anitz urtetan Egipton kokaturik egon zela eta, handik ilki ondoren, irudimen ezberdintasun hau egiteko egoki diren urak edan eta jakiak jan zituela, Frantziako erregearen iritziaren froga egina genuke, eta bide batez jakinen dugu nolako gizon-argimenak hautatu behar diren Espainian medikuntzarako.

Lehenbizikoaz den bezainbatean, jakiteko da ezen, Abrahamek seinaleak eskatu zituenean aditzeko berak edo beraren ondorengoek ukan beharko zutela prometatutako zitaion herrialdea, Testuak dio, lo zetzala, Jainkoak erantzun ziola, erranez²⁴: scito praenoscens quod peregrinum futurum sit semen tuum in terra non sua; et subiicient eos servituti et affligent quadringentis annis; veruntamen gentem cui servituri sunt ego iudicabo; et post haec egredientur cum magna substantia; erran balio bezala: "Jakizu, Abraham, zure ondorengoek ibiltari izan beharko dutela atzerrietan, eta morrontzaz zer jasan emanen dietela lauhun urtez; baina edukazu segurtzat nik jujatuko dudala haiek azpiratuko dituen jendea eta morrontza hartatik askatuko ditudala eta ondasun handiak emanen dizkiedala".

Profezia hori bete egin zen, baina Jainkoak, zenbait arrazoiengatik, hogeita hamar urte gehiago gaineratu zituen; eta, hortaz, jainkozko testuak honela dio²⁵: habitatio autem filiorum Israel, qua manserunt in Aegypto, fuit quadringentorum triginta annorum, quibus expletis eadem die eggressus est omnis exercitus Domini de terra Aegipti; erran balu bezala: "Israelgo herria Egipton lauhun eta hogeita hamar urtez egon zen; eta horiek bete ondoan, egun berean Jaunaren armada guztia ilki zen gatibutasunetik". Baina letra honek Israelgo herria Egipton lauhun eta hogeita hamar urtez egon zela nabarmenki dioen arren, glosa batek argitzen du aditzen dela urte hauek izan zirela Israel hara eta hona ibilian aritu zen denbora guztia, harik eta herrialde propioa ukan arte, baina Egipton ez zela berrehun eta hamar urtez besterik egon. Argitasun hori, ordea, ez dago ongi Done Eztebe lehen martiriak juduekin ukan zuen arrazoiketan erran zuenarekin;

hots: Israelgo herria Egiptoko morrontzan lauhun eta hogeita hamar urtez egon zela²⁶. Eta berrehun eta hamar urteko egotaldia aski bazen ere Israelgo herriari atxiki zekizkion

Egiptoko kalitateak, halere, handik kanpoko egotaldia ez zen denbora galdua argimenari doakionez. Zeren morrontzan, tristuran, oinazean eta besteren herrietan bizi direnek kolera erresumindu handia sortzen baitute, mintzatzeko libertaterik eta beren irainez mendekatzeko askatasunik ez dutelako; eta humore hori, txigorturik dagoenean, maltzurkeriaren, solertziaren eta maliziaren tresna da. Eta horrela, esperientziaz ageri da ez dela ohitura ez kondizio txarragorik esklabuarena baino, horren irudimena beti lanpeturik ariko baita bere jaunari kalte zer gisaz eginen eta morrontzatik nola libratuko den asmatzen.

Hortik landa, Israelgo herria ibili zen lurraldea ez zen osorik arrotza ez urruna Egiptoko kalitateetatik, izan ere, haren miseria eta antzutasunari adi, Jainkoak Abrahami prometatu zion beste bat emanen ziola, erabat oparo eta joria. Eta hau gauza txit jakina da, bai filosofia naturalean eta bai esperientzian ere, eskualde antzu eta flakoek, ogitsu ez direnek eta fruitu emaile urriek, argimen zorrotzeko gizonak ahanzten dituztela; eta, bestetik, herrialde gizen eta emankorrek gizon sendoak, animoso eta gorputzeko indar handidunak sortarazten dituztela, baina hagitz dorpeak argimenez. Greziaz behin ere ez dute historialariek bukatzen, kontatzen dutenean zein eskualde egokia den trebetasun handiko gizonak hazteko; eta, bereziki, Galenok dioenez, Atenasen inoiz ez zela gizon ergel bat ateratzen, mirariz ez bazen; eta ohartarazten zuen horixe zela Grezia guztiko lurrik urriena eta antzuena²⁷.

Eta horrela, Egiptoko eta Israelgo herria ibili zen beste probintzietako kalitateengatik atera egin daiteke hagitz argimen zorrotzekoa egin zela herri hori. Baina jakin beharra dago ea zergatik Egiptoko tenperaturak hazten duen irudimen ezberdintasun hau. Eta hori gauza ezin argiagoa da, eskualde horretan eguzkiak biziki erretzen duela jakinez gero, eta kausa horregatik bertan bizi direnek burmuina txigortua eta kolera kiskalia daukate, horixe baita maltzurkeriaren eta solertziaren tresna. Hori dela eta galde egiten du Aristotelesek²⁸: cur blasis pedibus sunt ethiopes et aegyptii? Erran balu bezala: "Zergatik dira Etiopiako beltzak eta Egiptoko naturalak hankoker, musuzabal eta sudur motzak?" Eta problema horri ihardesten dio erranez eskualde horretako bero handiegiak gorputz-adar horien substantzia txigortu eta bihurtzen duela, hedea sutondoan laburtzen den bezala, eta arrazoi berberagatik ileak ere laburtzen zaizkie, eta horrela horiek kizkur eta bihurtu ere izaten dira. Eta herrialde beroetan bizi direnak herrialde hotzetakoak baino jakitsuagoak direla, jadanik frogaturik utzia dugu Aristotelesen iritziarekin, hark honela galdetzen baitu²⁹: cur locis calidis homines sapientiores sunt quam frigidis?; erran balu bezala: "nondik heldu da herrialde beroetan gizonak jakitsuago izatea hotzetan baino?" Baina ez problema erantzuten daki, ez bereizten du jakiturien artean. Lehenago frogaturik utzi baitugu gizonengan bi zuhurtzia mota direla. Batz Platonek hauxe erran zuen: scientia quae est remota a iusticia, calliditas potius quam sapientia est appellanda; erran balu bezala: "justiziatik apartaturik dagoen zientziari, hobe da maltzurkeria erraitea jakitua baino". Bada beste bat ere, zuzentasun eta xalotasunez egina, tolesdurarik eta engainurik gabea; eta honexeri erraiten zaio egokitasunez jakitua, beti ere justiziari eta zuzentasunari atxikirik doalako³⁰: Herrialde arras beroetan bizi direnak lehen motako zuhurtzian dira jakitunak, eta Egiptokoak halakoxeak dira.

Dakusagun orain, behin Israelgo herria Egiptotik jalgi eta basamortuan emanik, zer nolako jakiak jan zituen, eta nolako urak edan zituen, eta zer nolako tenplantza zuen ibili zen lekuko aireak, endelega dezagun ea arrazoi horregatik gatibutasunetik atera zuten argimena mudatu ala bera berretu ote zuten. Berrogei urtez, dio Testuak³¹, eduki zuela Jainkoak herri hau manarekin mantentzen³²: jaki hain delikatu eta gozoa, gizonen munduan ordurarte inoiz jan ez zutena, eta halatan, Moisek haren fintasun eta ontasuna

ikusirik, manatu zion bere anaia Aaroni hartaz ontzi bete bildu eta arka foederis-ean³³ gorde zezala, herri honen ondorengoek, prometaturiko lurrean izatean, ikus zezaten beren gurasoak basamortuan zebiltzanean mantendu zituen ogia, eta zein ordain gaiztoa eman zioten hainbeste erregaliaren trukean. Eta alimentu hori ikusi ez genuenok nolakoa izan behar zuen ezagut dezagun, on da azal dezagun Naturak egiten duen mana nolakoa den³⁴; eta haren gainean are fintasun handiagoa erantsiz, haren ontasuna osorik irudika genezake.

Mana sortzen duen kausa materiala lurrin hagitz delikatua da, eguzkiak bere berotasunaren indarrak lurretik altzarazten duena; eta hori, eskualdearen goialdean³⁵ paraturik, egosi eta hobatzen da, eta gaueko hotza heldu denean, gatzatu eta pisuarekin zuhaitzen eta harrien gainean erortzen da berriro, eta hortik hartu eta eltzeetan gordetzen dute, jateko. Erran, mel roscidum et aereum erraiten diote, ihintzarekin duen eiteagatik eta airez egina delako. Kolorea zuria du eta zaporea ezia bezain gozoa; itxura martorriaren gisakoa³⁶. Eta horrelakoxeak dira Jainkozko Eskriturak Israelgo herriak jan zuen mana haren gainean azaltzen dituen seinaleak; eta horregatik biek izaera bera zutelako susmoa dut. Eta Jainkoak sortzen zuenak are substantzia delikatuagoa bazuen, are hobekiago baitetsiko dugu geure iritzia; baina nik beti aditua daukat Jainkoa bitarteko naturaletara egokitzen dela, horiekin nahi duena egin dezakeenean, eta Naturak falta duena bere ahalguztiarekin emendatzen du. Eta hau diot, zeren basamortuan mana jatera ematea (horrekin adierazi nahi zuenaz landa)³⁷ lurraren jarreran oinarriturik zegoela baitirudi, horrek gaur egun ere munduko manarik hoberena sortarazten duelako. Eta horrela Galenok dio Libano mendian (handik urrun ez dena) hura arras ugari eta txit hautatua hazten dela; eta nekazariak beren denborapasetan kantatu ohi dute Jupiterrek lur hartan eztizko euria eragiten duela. Eta Jainkoak mana hura mirakuloski hazten zuela egia izanik ere, hain kopuru handitan halako ordu eta egun jakinetan, halere, izan zitekeen hark gurearen izaera bera ukaitea; Moisesek harrietatik atera zuen urak ukan zuen bezala, eta Eliak bere hitzarekin zerutik jaitsarazi zuen suak bezala, naturalak baitziren, mirariz ekarriak izan arren.

Jainkozko Eskriturak pintatzen duen mana ihintza bezalakoa zela dio³⁸: quasi semen coriandri, album, gustusque simile cum melle³⁹; erran balu bezala: "Jainkoak basamortuan euri gisa egin zuen manak martorriaren haziaren antzeko itxura zuen, zuria zen eta zaporez ezia bezalakoa". Eta ezaugarri berberak dauzka Naturak sortzen duen manak berak ere.

Alimentu honen temperamentua, medikuek diotenez⁴⁰, beroa da, eta atal sotil eta oso delikatuaz osatua. Eta horrelako eraketa ukan behar zuen hebrearrek jan zuten manak ere; eta horrela, haren fintasunaz kexatuz, honela erran zuten: anima nostra iam nauseat cibo isto levissimo; erran balu bezala: "gure urdailak jadanik ezin paira dezake gehiago alimentu arin hau". Eta honen filosofia zen haiek urdail sendoak zeuzkatela, baratzuri, tipula eta porruetara eginak; eta* hain indar urriko alimentua jatera etortzean, guztia kolera bilakatzen zitzaie. Eta horregatik Galenok manatzen du⁴¹ bero natural handia duketen gizonek ez dezatela eztirik ez beste alimentu arinik jan, usteldu eginen baitzaizkie eta, egosi beharrean, kedarra bezala txigortuko zaizkielako. Hauxe bera gertatu zitzaien hebrearrei ere manarekin: guztia kolera kiskali bihurtzen zitzaien; eta, horrela, guztiak lehor eta iharturik zebiltzan, alimentu horrek haiek lodiarazteko mamirik ez zeukalako**: anima nostra arida est: nihil aliud respiciunt oculi nostri nisi manna⁴²; erran balu bezala: "Agor eta idor da gure arima, eta gure begiek manaz besterik ez dute ikusten".

Jaki honen ondoan edaten zuten ura haiek eskatzen zuten bezalakoa zen; eta aurkitzen ez bazuten, Jainkoak Moiseri egur bat⁴³ erakusten zion, halako bertute jainkozkoa zuena, non ur lodi eta gazieta jaurtikiz, haiek fin eta zapore oneko bihurtzen baitzituen; eta urik ez zenean, Moisek Itsaso Gorria hamabi gurpidetan irekitzeko erabili zuen makila hartu eta, harekin harriak joz, handik haien nahiaren arabera ur iturri fin eta zaporetsuak ilkitzen ziren⁴⁴; eta hainbatez erran zuen Jaun Done Paulok⁴⁵: petra consequente eos; erran balu bezala: "harriko ura haien gogara zebilela", handik gozo, fin eta zaporetsu jalgirik.

Eta haiek urdaila ur lodi eta gaziak edatera eginik zeukaten. Zeren Galenok kontatzen duenez⁴⁶, Egipton urak, edan ahal izateko, irakin egiten zituztela, txarrak eta ustelak zirelako. Eta hain ur finak edanez, ezin egon zitezkeen haiek kolera bilakatu gabe, indar urria zutelako. Kalitate berberak, dio Galenok⁴⁷, eduki behar dituztela bai urak eta bai jaten dugun alimentu soliduak ere, urdailean ongi egosteko eta usteltzeke egoteko. Eta baldin urdaila sendoa bada, hari egokiro doazkion jateko sendoak ere eman behar zaizkio; eta ahula eta delikatu bada, alimentuek ere holakoxeak izan behar⁴⁸. Horixe bera begiratu behar da urean; eta horrela dakusagu esperientziaz, zeren gizon bat ur lodiak edatera eginik badago, ez baitu behin ere ur finekin hura asetzen, ez eta urdailean sentitzen ere; aitzitik, lehortasun handiagoa ematen diote, zeren urdailaren bero handiegiak haiek sartu bezain laster erre eta ezerezen baititu, sendotasunik ez dutelako. Basamortuan gozaten ziren aireaz erran dezakegu, halaber, sotil eta delikatu zela, zeren mendietatik eta lagunik gabeko lekuetatik ibiliz, une bakoitzean hura fresko, garbi eta inolako ustelkeriarik gabe gertatzen baitzitzairen, ezein ere tokitan gelditzen ez zelako. Eta beti ere epela zuten, egunez eguzkiaren aitzinean hodei bat ezarri eta gehiegi beroten uzten ez ziolako, eta gauean suzko habe bat, hura epelarazteko⁴⁹. Eta era honetako aireaz gozatzeak, Aristotelesekin dioenez⁵⁰, argimena biziki azkartzen du.

Kontsidera dezagun bada orain, zer nolako hazi delikatu eta txigortua egin zuketenerri horretako gizonzkoek mana bezalako jakia janean, erran ditugun urak edanez eta hain aire aratz eta garbia arnastuz, eta nolako hileroko odol sotil eta delikatu egin zuketenerri hebrear emakumeek. Eta oroit gaitezen Aristotelesekin erran zuenez⁵¹, ezen hileroko odola sotil eta delikatu izanez, hartatik sortuko zen mutila gero argimen handiko gizona izanen zela. Eta trebetasun handiko haurrak sortzeko, gurasoek jaki delikatuak jateak nolako munta duen, obra honetako azken kapituluan frogatuko dugu*. Eta hebrear guztiek hain jaki izpiritu eta delikatu bera jan, eta ur berbera edan zutelako, haien haur eta ondorengo guztiak zorrotz eta argimen handiko atera ziren mende honetako gauzetarako⁵².

Behin Israelgo Herria, erran dugun bezalako argimen hain handiarekin, prometaturiko lurrean jarri eta gero, ondoren hainbeste trabailu, gosete, etsaien inguraketa, menpekotasun, morrontza eta tratu txar etorri zitzaizkion, halako molde non Egiptotik eta basamorturik aipatu dugun temperamentu bero, lehor eta kiskali hura atera ez balute ere, bizitza txar horretan eginen zuten. Etengabeko tristurak eta pairuak bizitasunaren izpirituak eta arteri odola burmuinean, gibelean eta bihotzean elkarrarazten dituelako; eta han batzuk besteen gainean daudelarik, txigortzera eta kiskaltzera datoz. Eta, horrela, anitzetan sukarrak altxatzen dira; eta ohikoa izaten da malenkonia errekontzaz egitea (zeinez gaurko eguneraino ia guztiek parte hartzen baitu) Hippokraterek dioenari adi: metus et maestitia diu durans, melancholiam significat⁵³.

Kolera kiskali hau, lehenago erran dugunez, solertziaren, maltzurkeriaren, amarruaren eta maliziaren tresna da*; eta hau medikuntzaren aieruetara egokitua da, eta harekin ongi asmatzen da eritasuna, haren kausa eta duen erremedioa. Hori dela eta, Frantzisko

erregeak ezin hobeki aipatu zuen, eta erran zuena ez zen zorabioa eta are gutxiago deabruaren asmazioren bat; aitzitik, hainbeste egunetako sukar handiarekin eta bere burua eri eta sendabiderik gabe ikusteko tristurarekin burmuina txigortu eta irudimena puntuz goratu zitzaion; eta lehenago frogatu dugunez, horrek behar duen tenperamentua badu, gizonak behin ere ikasi ez zuena erraiten du supituki.

Baina erran dugun guztiaren aurka eragozpen hagitz handia agertzen da. Izan ere, Egipton egon eta basamortuko manaz, ur eta aire delikatuez gozatu zirenen semeak edo ilobak mediku izateko hauta balitez, badirudi Frantzisko erregearen iritzia egia izan litekeela, erran ditugun arrazoiengatik. Baina manaren, uraren eta airearen bertute haiek eta haien asabek Babiloniako gatibualdian pairaturiko neke eta trabailuen jarrerak haien ondorengoek gaur eguneraino kontserbatzea gauza endelegaezina da. Zeren Israelgo herria Egipton egon zen lauhun eta hogeita hamar urteetan, eta basamortuko berrogeietan haren haziak trebetasunezko jarrera haiek eskuratu ahal ukan bazituen, hobeki gal zitezkeen, eta are errazago, basamortutik jalgi zirenetik iragan diren bi mila urteotan; are gehiago behin Espainiara etorri eta gero, Egiptotik hain kontrakoa den eskualdera, non jaki ezberdinak jan eta hangoak baino tenperamentu eta substantzia txarragoko urak edan baitituzte. Hori dauka gizonaren eta edozein animaliairen eta landareren izaerak: bizi den lurreko ohiturak berehala hartu eta beste batetik zekartzanak galtzea; eta bera kokatzen duten edozein gauzatan, egun gutxiren buruan hura kontraerranik gabe egiten du.

Giza leinu batez kontatzen du Hippokratesek⁵⁴ behe mailako jende arruntagandik bereizteko, beren nobletasunaren erakusgaitzat burua luzexka ukaitea hautatu zutela; eta figura hori arterioz egiteko, haurra jaio bezain laster emaginek axola ukaiten zuten haren burua oihalez eta troxaz herstekeo, halako seinalea ezarri arte. Eta arterio horrek horrenbeste ahal zuen, non izaera bilakatu baitzen, zeren denboraren ibilian, jaiotzen ziren haur noble guztiek jadanik burua luzexka ateratzen baitzuten. Hori dela eta, emaginen artea eta diligentzia gelditu zen. Baina Natura libre eta aske utzi zuten gero, jadanik arterioz hertsatu gabe, pixkanaka hark lehen egin ohi zuen figurara itzuliz joan zen.

Halaxe gerta zekiokkeen Israelgo herriari ere: izan ere, Egiptoko eskualdeak, manak, ur delikatuak eta tristurak haren hazian argimen-jarrera haiek eginik ere, behin arrazoi eta kausa horiek eten eta kontrakoak etorririk, egia da manaren kalitateak pixkanaka galdu eta beste ezberdin batzuk erdietsiz joan beharko zirela, biziko ziren eskualdearen, janen zituzten jakien, edanen zituzten uren eta arnastuko zituzten aireen arabera.

Duda honek, filosofia naturalean, zailtasun txikia du. Zeren badira akzidente batzuk momentu batean sartu eta subjektuaren bizitza osoan dirautenak, haiek ezin galduz. Badira beste batzuk, desegiteko, sortzeko behar zuten adina denbora gastatzen dutenak; eta batzuetan gehiago edo beste batzuetan gutxiago, agentearen ihardueraren eta hura jasaten duenaren jarreraren arabera. Lehenbizikoaren adibide gisa, jakiteko da gizon bati eragin zioten ikara handiaren ondorioz, desitxuraturik gelditu zela, kolorea galdurik, defuntu bat balitz bezala; eta horrekin bizitza osoan iraun ez eze, baina sortarazten zituen hurrek ere kolorea bera ateratzen zuten, eta hori kentzeko erremediorik ezin aurki. Kontu horren arabera, litekeena da Israelgo herria Egipton egon zen lauhun eta hogeita hamar urteetan, basamortuko berrogeietan eta Babiloniako gatibualdiko hirurogeietan, harrezkero hiru mila urte baino gehiago behar izatea harik eta Abrahamen haziak manak eragin zizkion argimen-jarrerak osoki galdu arte; ikarak une batez eragin zuen kolore txarra kentzeko ehun urte baino gehiago behar izan zirelako.

Baina doktrina honen egia errotik endelega dadin, premiazkoa da honi buruz egiten diren eta inoiz guztiz askatzen ez diren bi galdera erantzutea. Lehena hau da: Nondik heldu da, zenbat eta jakiak finagoak eta zapoetsuagoak izan (hala nola oiloak eta

eperrak, kasu), are lasterrago datorkiola urdailari horiek gaitzestea eta haiez higuina ukaitea? Eta, aitzitik, badakusagu gizonak behikia urte osoan jaten inolako nekerik gabe; eta hiruzpalau egunetan etengabe oiloak janez gero, bosgarrenean ezin usain ditzake urdaila nahasi gabe. Bigarren duda hau da: Zergatik gari-ogia eta aharikia, oilokia edo eperkia bezain substantzia oneko eta hain zapoetsuak izan ez arren, horregatik ez ditu urdailak inoiz gaitzesten, haiez bizitza osoan usa bagintez ere? Baina ogia falta denean, gainerako alimentuak ere ezin jan ditzakegu, eta ez digute hain zapore onik ematen. Bi duda hauei erantzuten lekikeenak aise endelegatuko du zergatik Israelgo herriaren ondorengoek ez dituzten oraino galdu manak hazian sartu zizkien jarrera eta akzidenteak, eta ez zaizkien hain laster bukatuko arrazoi horregatik etorri zitzaizkien argimenaren zorrotzasuna eta solertzia.

Bi hastapen dira filosofia naturalean, seguruak eta oso egiazkoak, eta horiexei darizkie duda hauen erantzuna eta aterabidea. Lehena da gizona gobernatzeko duten ahalmen guztiak biluzik eta haien objektuak dauzkan kondizio eta kalitate guztiez gabeturik daudela, haren ezberdintasun guztiak ezagutu eta iritzia ukan dezaten⁵⁵. Horixe dute begiek, zeren, beren baitan figura eta kolore guztiak hartu behar dituztenez, haiez osoki gabetu behar baitziren; izan ere, horiak balira (larumina dutenengan bezala), ikusiko lituzketen gauza guztiek kolore berbera luketela irudituko litzaiekeelako. Mihiak ere, dastamenaren tresnak alegia, zapore guztiez gabeturik egon behar du; eta gozo edo mingots dagoenean, esperientziaz dakigu jaten eta edaten dugun guztiak zapore berbera duela. Gauza bera gertatzen da entzumenaz, usaimenaz eta ukimenaz ere. Bigarren hastapena da sorturiko gauza guztiek berenez eta naturalki beren kontserbazioa nahi dutela, eta betiko irauten ahalegintzen direla, Jainkoak eta Naturak eman zien izaera inoiz buka ez dadin, ondoren izaera hobea ukanen badute ere. Hastapen honengatik, ezaguera eta zentzua duten gauza natural guztiek beren osaera naturala aldatzen eta usteltzen dien guztia gaitzesten dute, eta hartatik ihes egiten.

Urdaila biluzik dago eta munduko jaki guztien substantzia eta kalitatez gabeturik, begia kolore eta figurarik gabe dagoen bezalaxe; eta haietariko bat jaten dugunean, urdailak hura bentzutzen badu ere, halere, alimentuak berak urdailari jazartzen dio (hasieran haren aurkakoa baita) eta bere tenperamentua eta substantzia aldarazten eta usteltzen dio; ez baita agente hain sendorik, eraginez gero, ondorioa pairatzen ez duenik. Eta alimentu hagitik fin eta zapoetsuek urdaila erabat aldarazten dute: batetik, haiek apetitu eta gustu handiz egosi eta besarkatzen dituelako; eta bestetik, hain sotilak eta hondakinik gabeak izanik, urdailaren substantzian bustitzen direlako, hortik ezin jalgirik. Beraz, urdailak sentitzen duenean alimentu horrek bere izaera aldarazten eta gainerako elikagaiekin duen proportzioa kentzen diola, hura gaitzestera dator, eta janen badu, anitz saltsa eta apetitu egin behar zaizkio, engainatzeko.

Hori guztia ukan zuen manak hasieratik: eta hain jaki fin eta zapoetsua izan arren, azkenean Israelgo herria nekarazi zuen; eta horrela, erran zuten⁵⁶: anima nostra iam nauseat super cibo isto levissimo; eta Jainkoak hainbeste fabore eginiko herriak honelako arregura egitea ez zen egoki, harako erremedioa emana baitzien, hots, manari haien gogoko zapore eta apetitu guztiak edukiaraztea, irents zezaten: panem de caelo praestitisti eis, omne delectamentum in se habentem⁵⁷. Eta horregatik haietako anitzek gogo onez jan zuten, beren hezurak, nerbioak eta haragia manatan eta haren kalitateetan hain bustirik edukirik, non antzekotasunagatik jadanik ez baitzuten besterik nahi⁵⁸. Gauza bera gertatzen da, orain jan ohi dugun gari-ogiarekin eta aharikiarekin ere. Jaki lodi eta substantzia ona ez dutenak (behikia adibidez) kondar ugarikoak izaten dira, eta urdailak ez ditu hartzen finak eta zapoetsuak bezain gutzios, eta horrela haiez aldarazteko denbora luzeago behar ukaiten du.

Hortik segitzen da ezen, manak egun batean egiten zuen aldaketa usteltzeko, beharrezkoa zela kontrako jakiak hilabete osoan jan beharra; eta kontu horren arabera, manak berrogei urtetan hazian sarrarazi zituen kalitateak desegiteko, lau mila eta gehiago behar direla. Eta ezpere, exenplu gisa demagun, Jainkoak Egiptotik Israelgo hamabi leinuak atera zituen bezala, atera zitzakeela Etiopiatik hamabi gizon beltz eta hamabi emakume beltz, haiek gure eskualdera ekarriz. Zenbat urte beharko zuketan beltz horiek eta horien ondorengoek kolorea galtzeko, zuriekin nahasten ez baziren? Niri iruditzen zait anitz urte beharko ziratekeela, zeren lehen ijitoak Egiptotik Espainiara etorri zirela berrehun urte iragan arren⁵⁹, haien ondorengoek ez dute horregatik galdu haien gurasoek Egiptotik atera zuten argimena eta jakituria, ez eta kolore gorri-beltza ere. Hainbestekoa da giza haziaren indarra bere baitan kalitate ongi erroturen bat errezibitzen duenean. Eta beltzek Espainian beren ondorengoei kolorea komunikatzen dieten bezala (haziagatik, Etiopian egon ez arren), era berean Israelgo herriak, hartara etorritz, komunika diezaike bere ondorengoei argimenaren zorrotzetasuna Egipton egon gabe eta manarik jan ez arren; zeren ergela edo jakintsua izatea ere gizonaren akzidentea baita, zuria edo beltza izatea bezala⁶⁰.

Egia da, halere, ez direla orain duela bi mila urte lehenago bezain zorrotz eta jakitunak; mana jateari utzi ziotenetik haien ondorengoak hori pixkanaka eta orain arte galduz joan direlako, kontrako jakiak usatu, Egipto ez bezalako eskualdean egon eta basamortukoak bezain ur delikatuak edaten ez dituztelako; eta jentilen ondorengoekin nahasi direlako, horiek argimen diligentzia hori gabeak izanik. Baina ezin uka daiteke ez dutela oraino hura erabat galdu.

XIII [1594.eko XV.a]

Non deklaritzen den nolako trebetasun ezberdintasunari dagokion arte militarra, eta nolako seinaleekin ezagutu behar den argimen mota hau eduki dezakeen gizona

Zergatik (galdetzen du Aristoteleseki)¹, adorea bertuterik gorena ez delarik, justizia eta zuhurtzia handienak izaki, guztiarekin ere, bai errepublikak eta ia gizon guztiek, erabateko akordioan, estimatzenago dute adoretsua, eta beren bularraren barruan horri ohore handiagoa egiten, justu eta zuhurrei baino, berauek kargu eta ofizio handikoak izan arren? Aristoteleseki problema honi erantzuten dio erranez ez dela munduan erregerik beste bati gerra egiten ez dionik edo harengandik hartzen ez duenik; eta adoretsuek gloria eta enperadoregoa ematen diotenez, eta bere etsaiengandik mendekatzen eta bere Estatua kontserbatzen diotenez, ohore handiagoa egiten diote, ez bertute gorenari, justiziari alegia, baina probetxu eta fabore handiena ematen dienari. Zeren, adoretsuak horrela trata ez balitzate, nola aurki litzakete erregeek kapitain eta soldaduak gogo onez beren biziak haien ondasun eta Estatua gordetzearren arriskatzeko prest?

Asiarrez kontatzen da² jende hura bere buruaz bantatzen zela, arras adore handiko iritziz; eta galde egiten zitzaizenean ea zergatik ez zuten erregerik eta legerik ukan nahi, ihardetsi zuten legeek koldar bilakarazten zituztela, eta ergelkeria zeritzotela gerraren periletan jartzea bestek bere Estatua are hedatuago egitearren; nahiago zutela berek berenez borroka egin eta berberak garaipenaren probetxua eramatea. Baina hau gizon barbaroen erantzura da, eta ez jende arrazionalarena, honek ongi aditzen baitu errege, errepublika eta legerik gabe ezin dela gizonak bakean bizitzea.

Aristoteleseki erran zuena ongi ohartarazirik dago, baina bada erantzura hobea. Izan ere, Erromak bere kapitainak halako garaipen eta ospakizunetan ohoratzen zituenean, ez zuen horrekin garaitzailearen adore hutsa golardatzen, baina, aldi berean, armada bakean eta abenikoan sustatu zuen justizia, eginak burutzeko erabili zuen zuhurtzia, eta

ardoa, emakumeak eta sobera jatea kentzean egin zuen tenperantza, horrek zentzua nahasi eta kontseiluak okerrarazten dituelako. Hortaz, zuhurtzia kapitain jeneralaren baitan bilatu behar da lehenago, eta bera saritu, adorea eta kemena baino³; zeren, Vegeciok erran zuen bezala, kapitain hagitz adoretu gutxik asmatzen dute egintza onak egiten; eta horren kausa da zuhurtzia gerran beharrezkoagoa izatea eraso egiteko ausartzia baino⁴. Baina hau zer eratako zuhurtzia den ez zuen Vegeciok behin ere asmatu, ez eta seinatzen jakin ere, zer nolako argimen ezberdintasuna eduki behar duen milizia gobernatu behar duenak. Eta ez naiz harritzen, ez baitzen aurkitu horretarako behar zen filosofatzeko molde hau aurkitu ez zelako. Egia da, ordea, hau ikertzea ez doakiola darabilgun saioari, hots, letrek eskatzen dituzten argimenak hautatzeari. Baina gerra hain arriskugarria eta hain kontseilu handikoa izanik, eta Erregeak hain du beharrezko jakitea nortaz fidatu behar den hari bere ahalmena eta Estatua uzteko, argimen ezberdintasun hau eta bere ezaugarriak seinalatzean ez baitiogu errepublikari zerbitzu txikiagoa eginen, pintatu ditugun gainerakoetan baino.

Eta, horretara, jakiteko da malizia eta milizia izenean bertan ia batera datozela, eta badutela, halaber, definizio berbera. Zeren malizia-ren a orde z i jarriz gero, milizia sortzen baita, eta milizia-tik malizia errazki. Maliziaren propietateak eta izaera nolakoak diren, Ciceronek dakartza, erranez⁵: malitia est versutia et fallax nocendi ratio: erran balu bezala... "malizia gaizki egiteko arrazoi makur, maltzur eta mainatsua besterik ez da". Eta, horrela, gerran ez da besterik etsaiari ofentsa nola egin eta haren zelatetatik nola anparatuko diren jakitea baino. Hori dela eta, kapitain general batek eduki dezakeen propietaterik hoberena etsaiarekin maliziatia da, eta haren mugimenduak oro fin onera eramaten ez uztea, ahal lezakeen txarrenera baizik, eta hartarako prestatu. Non credas inimico tuo in aeternum... In labiis suis indulcat, et in corde suo insidiatur ut subvertat te in foveam; in oculis suis lacrymatur, et si invenerit tempus non satiabitur sanguine⁶; erran balu bezala: "Behin ere zeure etsaia baitan sinesterik ez har; zeren hitz eztiak erranen baitzikizu, eta bere bihotzean zu hiltzeko zelatak jartzen ari da; negarra darabil begietan, eta artea atzeman ahal badeza, ezin aseko da zure odolaz".

Honetaz exenplu nabarmena dugu Jainkozko Eskrituran⁷. Zeren Israelgo herria Bethulian inguraturik eta egarriz eta gosez nekaturik zegoela, Judit emakume famatu hura jalgi baitzen, Holofernes hiltzeko asmoarekin; eta asiriarren armada aldera ibiliz, begiraleek eta zainek atzeman zuten. Eta nora zihoan galdetuz, honela ihardetsi zien: "Zuek inguraturik dituzuen hebrearren alaba naiz, eta haiengandik iheska nator, zuen eskuetara emanak izanen direla jakin baitut, eta gaizki erabiliko dituzuela, beren buruak zuen urrikalkizunaren aitzinean eman nahi ez dituztelako; hortaz, neure baitan gogoeta egin dut eta Holofernesengana etortzea erabaki, jende burugogor horren sekretuak agertu eta soldadu bat bera ere galdu gabe nondik sar dakiekeen erakusteko". Eta Judit Holofernesen aitzinera etorririk, lurrean ahozpeparatu eta, eskuak elkarturik, hura adoratzen hasi zen, ezein gizoni munduan inoiz erran zaizkion hitzik engainuzkoenak erranez, halako molde non Holofernesek eta haren Kontseiluko guztiek egia ziotsela sinetsi baitzuten. Baina hark, bihotzean zekarrena ahantzi gabe, parada egokia bilatu eta burua moztu zion.

Adiskideak kontrako kondizioa du eta, beraz, beti ere hura sinetsi beharra dago. Eta, horrela, hobe zukeen Holofernesek Akior sinetsi ukan balu; haren adiskidea baitzen, eta inguraketa hartatik desohorez atera ez zedin axolaturik erran zion: "Jauna, jakizu lehenik ea herri horrek bere Jainkoaren aurka bekatu egin duenentz, zeren horrela baldin bada, Hark berak eskuetara emanen baitzizu konkista dezazun; baina Haren grazian baldin bada, jakizu Hark defendatuko dituela eta ez ditugula garaitzen ahalko". Eta Holofernes abisu hartaz haserretu zen, gizon sinesbera, emakumetara emana eta

ardankoa izanik, hiru gauza horiek deusezten baitute arte militarrean behar den kontseilua. Eta horretara erran zuen Platonek⁸ kartagotarrek zuten lege hark gogobetetzen zuela, haren bitartez agintzen zutelako, kapitain generalak, armadan zegoenean, ez zezala ardorik edan; edari horrek, Aristotelesek dioenez⁹, gizona argimena nahasten eta adore handiegia ematen baitie, Holofernes agertu zen bezala Akiorri erran zizkion hitz furfuriatsu haietan.

Beraz, gezur eta engainuetarako behar den argimena, bai egiteko eta bai horiek aditu eta duten erremedioa aurkitzeko, Ciceronek¹⁰ azaldu zuen, versutia izenaren jatorria ekarriz, erranez versor, -aris hitz honetatik heldu dela; trebeak, maltzurak, tolestuak eta buruginak direnek engainua berehala asmatu eta gogoeta erraz egiten dakitelako. Eta horren exenplua Ciceronek berak eman zuen, zioela: Chrisippus, homo sine dubio versurus et callidus: versutus appello quorum celeriter men versatur¹¹.

Berehala erdi-erdian ongi asmatzeko propietate hau solertzia da eta irudimenari dagokio. Bero handitan mamitzen diren ahalmenek obra berehala egiten baitute; eta horregatik endelegu handiko gizonak ez dute deus balio gerrarako, ahalmen hori beren obran oso geldoa delako, eta zuzentasunaren, xalotasunaren, sinpletasunaren eta bihozberaren adiskidea, eta horrek guztiorrek gerran kalte handia egin ohi du. Eta hortik landa, ez dakite maltzurkeria ez azpikerien berri, ez eta ulertzen nola egin daitezkeen ere. Horiek adiskideekin tratu ukaiteko on dira, horrelakoen artean ez baita behar irudimenaren zuhurtzia, endeleguaren zuzentasun eta xalotasuna baizik; horrek tolesdurarik eta inori kalte egitea onartzen ez duelako. Baina etsaiarekin ez dute deus balio, hori beti engainuekin eraso egiten saiatzen delako, eta harengandik babesteko, beharrezkoa da argimen berdina ukaitea. Eta horrela abisatu zien Kristo gure berrerosleak bere dizipuluei, zioela¹²: ecce mitto vps sicut oves in medio luporum: estote ergo prudentes sicut serpentes, et simplices sicut columbae; erran balie bezala: "Hona, nik igortzen zaituztet zuek, ardiak otsoen artera bezala: zareten bada zuhur sugeak bezala, eta sinple, usoak bezala". Zuhurtzia etsaiarekin usatu behar da, eta xalotasuna eta sinpletasuna adiskidearekin.

Beraz, baldin kapitainak bere etsaia sinetsi behar ez badu eta hark beti engainatu nahi duela pentsatu behar badu, nahitaenahiez igartzeko irudimen ezberdintasuna eduki behar du, zuhurra eta estalkiren baten petik heldu diren engainuen berri dakikeena; zeren horiek aurkitzen dituen ahalmenak berak, ez bestek, asma baititzake haietarako erremedioak ere.

Irudimenaren beste ezberdintasun bat, dirudienez, ezin garaituzko indarrak menerarazteko, argimenak eta makinamenduak itxuratzen dituen da, borroka-zelaia ordenatu eta eskoadroi bakoitza bere lekuan ezartzen duena, eraso egin eta erretiratzeko aukera ezagutzen duena eta etsaiarekin tratuak, akordioak eta kapitulazioak egiten dituen. Eta horretarako guztirako endelegua hagitz desegokia da, belarriak ikusteko bezalaxe. Horrela, dudarik gabe, nik uste dut arte militarra irudimenari doakiola, kapitain on orok egin behar duena horrekin kontsonantzian, figuran eta eta egokitasunean baitago.

Orain zailtasuna gerran partikulari zer nolako irudimenaren ezberdintasunaz aritu behar den seinalatzean datza. Eta honetan ez nuke jakinen segurtasunez erabakitzen, hori jakintza txit delikatua baita; baina horrek medikuntzaren praktikak baino bero gradu bat gehiago eskatzen duela susmatzen dut, eta kolera osoki erretzera daramala. Hau klarki ageri da, kapitain arras trebe eta maltzurak guduan hasi eta borrokan aritzeko zale eta gogotsu ez direlako; aitzitik, gezur eta engainuekin gauzak arriskurik gabe beren gogara egiten dituzte. Eta propietate horrek Vegecio gehiago poztu zuen beste ezeinek baino: boni enim duces, non aperto praelio in quo est commune

periculum, sed ex occulto semper attentant ut, integris suis, quantum possunt hostes interimant, certe aut terreant; erran balu bezala: "kapitain onak ez dira kanoi desmontatuekin borroka egin, zelai-guduak manatu eta etsaiari eraso egiten diotenak, trikimailuz eta mainaz, soldadu bat ere galdu gabe hura suntsitzen dutenak baizik"¹³.

Era honetako argimenaren probetxua ongi aditua zuen Erromako Senatuak. Izan ere, ukan zituzten kapitain famatu batzuk anitz gudutan garaile gelditu arren, Erromara beren balentrien ohorea eta gloria hartzera zetozenean, gurasoek beren semeengatik, seme-alabek aitengatik, emazteek senarengatik eta anaia-arrebek anaiengatik egiten zituzten negarrak hainbestekoak ziren, non ez zen gozaten jolas eta denborapasekin gudian hilik gelditurikoen errukiagatik. Horregatik Senatuak erabaki zuen hain kapitain adoreturik ez bilatzea, ez eta erasotzeko zalerik ere, baizik eta gizon pixka bat beldurti eta hagitz mainatiak, Quinto Fabio bezalakoak. Zeinez izkiriitzen da ez zuela erromatar armada ezein ere zelai-gudutan arriskatzen, mirariz ez bazen, batez ere Erromatik urrun zenean, han gertaera gaitzean ezin erdiets baitzezakeen berehalako sokorrurik: han dena zen etsaiari luzaraztea eta engainu eta mainak bilatzea, haiekin egintza handiak eta anitz garaipen lortuz, soldadurik bat ere galdu gabe. Hori Erroman guztien bozkario handiarekin errezibitua izaten zen, handik ehun mila soldadu ateratzen bazituen, horiexek berak ekartzen zituelako, eritasunez hiltzen zirenak izan ezik. Enniok dioenez, jendeek oihuka honela erraiten zioten: unus homo nobis cunctando restituit rem; erran balute bezala: "batek, etsaiari luzaraziz, munduaren jabe egiten gaitu eta geure soldaduak itzultzen dizkigu"¹⁴. Eta harrezkero zenbait kapitain hura imitatzen ahalegindu dira; eta haren argimena eta maina ukan ez zutelako, maiz borrokatzeko aukera pasatzen utzi zuten, eta hortik kalte eta eragozpen handiagoak sortu ziren bat-batean gudian hasi balira baino.

Era berean kartagotarren kapitain famatu hura ere ekar dezakegu exenplutan, zeinez Plutarco¹⁵ hitz hauek izkiriatu baitzituen: "Hanibalek, garaipen handi hau erdietsi zuenean, liberaltasunez, ordainik gabe, italiar izeneko anitz preso aske utz zitezela agindu zuen, haren gizatasunaren eta barkamenaren ospea herrien artean heda zedin, haren argimena bertute horietatik oso urrun bazegoen ere. Hura, berez, gogorra eta ankerra zen; eta bere lehen haurtzarotik halaxe diziplinatu zutelako, ez zuen legerik ez ohitura zibilik ikasi, gerrak, hilketak eta etsai arteko traizioak baizik. Hori dela eta, kapitain hagitz krudela izatera etorri zen, eta gizonak engainatzeko oso maliziatia, eta etsaia nola engaina beti arduraturik eta prest. Eta borroka ageriaz ezin garai zezakeenean, engainuen bila aritzen zen, oraingo gudu honetan nabarmendu zen bezain arina, lehen ere Sempronioaren aurka Trebia ibaitik hurbil egin zuen erasoan bezalaxe".

Argimen mota hau daukan gizona ezagutzeko seinaleak biziki estrainioak eta begiragarriak dira. Eta horrela, Platonek dioenez¹⁶, tratatzen ari garen abilezia molde honetan oso jakintsua litzatekeen gizona ezin daiteke adoretu izan, ez eta kondizio onekoa ere. Aristotelesek dioten bezala¹⁷, zuhurtzia hoztasunean datzalako, eta kemena eta adorea gerotasunean; eta bi kalitate hauek elkarri higuina diotenez eta aurkakoak direnez, ezinezkoa da gizon bat aldi berean kementsua eta zuhurra izatea. Horregatik kolera erre beharra dago, harik eta atrabilis¹⁸ egin arte, gizona zuhurra izan dadin. Baina malenkonia mota hau den lekuan (hotza delako) handik laster beldurra eta koldarkeria¹⁹ sortzen dira. Beraz, maltzurkeriak eta mainak beroa eskatzen dute, irudimenaren obra direlako; baina ez adoreak bezainbateko graduak. Eta, horretara, trinkotasunean elkarri kontraerraiten diote. Baina honetan bada gauza ohargarria: lau bertute moraletatik (justizia, zuhurtzia, sendotasuna eta tenperantzia), lehenbiziko biek argimena eta tenperamentu ona behar dute haiek praktikan erabili ahal izateko. Zeren baldin epaile batek justiziaren puntua erdiesteko endelegurik ez badauka, probetxu gutxi

eginen du nori bere ondasuna emateko dukeen borondateak: asmo onarekin oker joka eta bere jabeari ken baitiezaioke. Gauza bera aditzen da zuhurtziaz ere; zeren, gauzak ongi ordenaturik egiteko, borondatea aski balitz, ez bailukete gizonak obra on ez txarrik bat ere oker eginen. Ez dago lapurrik ikusia izan gabe ebastera ahalegintzen ez denik; ez eta kapitainik bere etsaia garaitzeko zuhurtzia eduki nahi ez duenik ere. Baina ebasteako argimenik ez duen lapurra, mainaz berehala atzeman da, eta irudimena falta duen kapitaina laster izaten da garaitua.

Sendotasuna eta tenperantzia gizonak bere eskuan dauzkan bi bertute dira, horretarako jarrera naturala falta duenean ere. Izan ere, nork bere bizia gutxietsi eta adoretu izan nahi badu, hori erraz egin dezake; baina jarrera naturalaz adoretu denari, Aristotelesek eta Platonek hagitx ederki diotenez, ezinezkoa zaio zuhur izatea, hala nahi ukan arren. Hortaz, honen arabera, ez dago higuinik zuhurtzia kemen eta adorearekin bat egitean; zeren zuhurrak eta jakintsuak aditua du arimagatek ohorea utzi behar duela, eta ohoreagatik bizia, eta biziagatik ondasuna; eta bete ere, horrela betetzen du²⁰. Hemendik heldu da nobleak, hain ohoretsuak izanik, hain adoretuak izatea, eta ez dago gerran haiek baino trabailu handiagorik pairatzen duenik (anitz erregaliarekin haziak izan arren), inork koldarrak direla ez erraitearen truke. Horregatik erran zen: "Jainkoak libra zaitzala aitoren semeagandik egunez eta fraideagandik gauez", bata, ikusia izateagatik, eta besteak, ezagut ez dezaten, kemen berretuarekin borroka egiten dutelako.

Arrazoi honexetan oinarritzen da Maltako erlijioa²¹: hortaz, gizon adoretua izateko, nobleziak nolako munta duen jakinik, bere konstituzioan manatzen du bere habitukoak oro bai aitaren eta bai amaren alderik aitoren seme izan daitezela, kausa horregatik iruditzen baitzaie bakoitza bi jatorriengatik borrokatuko dela.

Baina aitoren seme bati erran baliezaiote soldaduak borroka-zelaiaren presta eta etsaiari eraso egiteko modua antolatzeke, hartako argimenik ez balu, mila burugabekeria erran eta eginen lituzke, zuhurtzia ez baitago gizonen esku; baina ateka bat gordetzeko mana baliezaiote, hartaz ongi fida litezke, izaeraz koldarra izan arren.

Platonen errankizuna ulertu behar da gizon zuhurra bere joera naturalari darraionean, hura arrazoimenarekin zuzendu gabe. Eta horrela, egia da gizon oso jakintsua ezin izan daitekeela adoretu izaera naturalaz; zuhur bihurtzen duen kolera erreak berak aldi berean hura beldurti eta koldar egiten duelako²².

Argimen ezberdintasun hau erdiets dezakeen gizonak ezin eduki dezakeen bigarren propietatea biguna eta kondizio onekoa izatea da. Irudimenarekin anitz amarru lortu eta edozein errakuntza eta hutsengatik armada bat gal daitekeela dakielako, horri behar den kasua egiten dio. Baina jakite urriko jendeak ardurari arrenkura erraiten dio; gaztiguari krudeltasun; barkamenari bihozberatasuna, eta gaizki egindako gauzak pairatu eta estaltzeari kondizio ona; eta hau, egia erran, sortzen da gizonak ergelak izatetik, gauzen balioa ez aditzetik, eta nondik gidatu behar diren ez ulertzetik; baina zuhurrek eta jakintsuek ez dute pazientziarik, eta ezin paira ditzakete gaizki gidaturiko gauzak, berenak ez badituzte ere: eta horregatik laburki bizi dira eta izpirituko min askorekin.

Eta, horrela, Salomonek hau zioen²³: *dedi quoque cor meum ut scirem prudentiam atque doctrinam, erroneque et stultitiam, et agnovi quod in his quoque esset labor et afflictio spiritus, eo quod in multa sapientia multa sit indignatio, et qui addit ad scientiam addit ad dolorem*; erran balu bezala: "ni ergela eta jakintsu izan nintzen eta orotan lana badela aurkitu nuen; baina bere endeleguari jakituria handia demaionak, gero kondizio txarra eta oinazeak bereganatzen ditu". Eta hitz horietan badirudi Salomonek aditzera eman nahi duela pozago bizi zela ergela zelarik, jakituria eman ziotenean baino.

Eta hori horrela da egiazki, ergelak lasaiago bizi baitira, deusek pena ez haserrikerik ematen ez dielako, eta ez dute pentsatzen inork jakiturian aurrea hartzen dienik ere; eta halakoei jende arruntak zeruko aingeruak erraiten die, ikusirik haiek ez dituela ezerk mintzen, ez eta haserretzen, ez eta gaizki eginikoengatik errieta ematen, eta orotatik kontu gutxi eginik pasatzen direla. Eta baldin kontsidera balitzate aingeruen jakituria eta kondizioa, ikus lezakete hori hitz zatarra dela eta Inkisizio-kasua ere bai; zeren ezaguera-adina dugunetik hil arte ez baitute besterik egiten gaizki eginikoengatik errietan aritu eta egin behar dugunaz abisatzea baino. Eta beren izpirituzko mintzairaz hitz egiten digutenez (gure irudimenari eraginez) beren iritzia hitz materialekin erranen baligute, aspergarri eta kondizio txarrekozat edukiko genituzke; eta ezpere, oroit gaitezen zer iruditu zitzairen aingeru hura, Done Mateok aipatzen duena, Herodesi eta haren anaia Filiporen emazteari, haren errieta ez entzuteagatik burua moztu zioten eta²⁴.

Egokiago litzateke, jende arruntak ergelki zeruko aingeruak deitzen dituen gizon horiez lurreko astoak direla erraitea. Izan ere, adimendurik gabeko animalien artean, Galenok dioenez²⁵, ez da lerdoagorik ez eta argimen urriagoa duenik astoa baino, oroimenean gainerako guztiak gaintzen dituen arren²⁶; ez du ezerein ere zamarik ukatzen, eta horregatik inolako kontraerrian gabe eramaten dute; ez du ostikorik ematen, ez hozka egiten, ez da iheskorra ez eta gaizkina ere; makilaz jotzen dutenean ez da haserretzen, hitz batez, bera behar duenaren poz eta gogarako eginga da osoki. Propietate hauek berak daukate jende arruntak zeruko aingeruak deitzen dituen gizonen ere; biguntasun hori ergelak eta irudimenik gabeak izatetik heldu zaie, eta haserremena ahul izatetik. Eta hau gizonaren baitan falta arras handia da eta gaizki osaturik dagoela salatzen du. Munduan ez da izan aingerurik ez gizonik Kristo gure berrerosleak baino kondizio hobetik ukan duenik; eta egun batez tenplura sarturik, zigor-kolpe ederrak eman zizkien han merkaduriak saltzen aurkitu zituenek. Eta hori gertatzen da haserremena arrazoimenaren berrero eta ezpata delako²⁷. Eta gaizki eginiko gauzengatik errieta egiten ez duen gizonak, ez du hori egiten ergela delako edo haserremena falta duelako.

Beraz, gizon jakintsua ez da biguna izaten, mirariz ez bada, ez eta gaiztoek hura nahiko luketen kondiziokoa ere. Eta horrela, Julio Zesarren historia izkiriartzen dutenak espantaturik daude ikusiz soldaduek nola paira zezaketen hain gizon latz eta zakarra; eta hori heldu zitzaion gerrak eskatzen duen argimena edukitzetik.

Argimen ezberdintasun hau erdiesten dutenek daukaten hirugarren propietatea beren buruen apainduraz arduragabe izatea da. Ia guztiak narratsak, lohiak, galtzak eroriak eta zimurrez beteak dituzte, kapa gaizki jantzia, soineko zaharraren zale izaten dira, eta ez ohi dute jantzia behin ere aldatu nahi²⁸.

Lucio Florok kontatzen duenez, propietate hau zeukan Viriato kapitain famatu hark, sorterriz portugaldarra, eta hartaz erraiten eta baieztatzen du (haren apaltasun handia goraiatuz) bere pertsonaren apaindurak hainbeste gutxiesten zituela, non ez zen haren armada osoan soldadu bakar bat bera baino gaizkiago jantzirik zebilenik²⁹. Eta, egia erran, hura ez zen bertutea, eta ez zuen berariaz egiten, bilatzen ari garen irudimen ezberdintasun hau daukatenean berezko ondorioa baizik.

Julio Zesarren narrakeriak guztiz engainatu zuen Ciceron. Zeren, guduaren ondoan Ponpeioren aldekoekin zergatik joan zen galdeturik, Makrobiok kontatzen du hau erantzun zuela: praecinctura me fefellit; erran balu bezala: Julio Zesar gizon narratsa zela eta gerrikorik inoiz ez zekarrela ikusteak engainatu ninduen", eta soldaduek, horregatik, arropa nasai deitzen omen zuten. Eta horrek bultzatu beharko zukeen ulertzeko hark bazeukala gerrarako kontseiluak eskatzen zuen argimena; Silak ongi asmatu zuen bezala (Tranquiloc kontatzen duenetik), zeinek Julio Zesarrek umetan

zerabilen narraskeria ikusirik, erromatarrei abisu eman baitzien, erranez: cavete puerum male praecinctum; erran balie bezala: "gorde zaitezte, erromatarrok, gerria gaizki ezarria duen mutilagandik"³⁰.

Hanibalez historialariek ez dute inoiz bukatzen arropa-zapatak janzteko zuen arduragabekeria kontatzen, eta zein arreta urria zuen txukun eta garbi ibiltzeko*. Kapako iletxoekin (nabarmenki) haserratztea, eta galtzak ongi tiraturik egoteaz eta soinekoa zimurrik egin gabe ongi ezartzeaz ardura handia erabiltzea, kilate eskaseko irudimen ezberdintasun bati dagokio³¹, eta endeleguaren kontra erraiten du, bai eta gerrak eskatzen duen irudimen ezberdintasunaren aurka ere.

Laugarren seinalea burua soil ukaitea da. Eta horren arrazoia txit argi dago. Irudimen ezberdintasun hau buruaren aurreko aldean datza, gainerako guztiak bezala³², eta bero handiegiak buruko larrua erre eta ileek iragan behar dituzten bideak hersten ditu; eta bestalde, horiek sortzen dituen gaia, medikuek diotenez, burmuinak elikatzeko orduan egiten duen gorotza da, eta hango su handiarekin guztiak gastatzen eta suntsitzen dira, eta horrela horiek sortzeko gaia falta izaten da³³.

Eta Julio Zesarrek filosofia hori erdietsi balu, ez zatekeen hainbeste ahalketuko burusoil izateaz; hark, hura estaltzearren, trebeki ekarrarazten baitzituen kopetarantz garondora erortzeko ziren ileak. Eta Tranquilok dioenez, ez zuen deusetan ere atsegin handiago hartzen Senatuak erramu-koroa beti ere buruan ekartzeko manatze zionean baino, soilunea estaltzeko besterik ez bazen ere³⁴. Bestelako soilunea sortzen da burmuina gogorra, lurtarra eta osaera lodikoa izatetik³⁵, baina hori gizonak endelegurik, irudimenik eta oroimenik ez ukaiteko seinalea da.

Irudimen ezberdintasun hau erdiesten dutenak ezagutzeko bosgarren seinalea da hitz gutxi eta errankizun ugarikoak izatea. Eta horren arrazoia da ezen, burmuina gogor eta lehorra izanik, nahitaez oroimen falta behar ukan behar dutela, hitz jariora horrexeri dagokiolako. Anitz erraiteko aurkitzea sortzen da oroimenak irudimenarekin berotasunaren lehen graduan egiten duen elkartasunetik. Elkartasun hau ahalmen bietan erdiesten dutenak komunzki oso gezurtiak izaten dira, eta behin ere ez zaie faltatzen zer erran eta zer konta, jendea bizitza osoan haiei adi egon arren.

Irudimen ezberdintasun hau erdiesten dutenek daukaten seigarren propietatea prestuak izan eta hitz zikin eta dorpeekin nabarmenki mintzea da. Eta, horretara, badio Ciceronek³⁶ gizon hagitz arrazionalak Naturaren prestutasuna imitatzen dutela, horrek ezkutuan ezarri baitzituen gizonaren premiak hornitzeko, baina ez edertzeko, egin zituen alderdi itsusi eta lotsagarriak, eta horietan ez du uzten begiak paratzen ez eta belarriek haien izenak paira ditzaten ere. Hau irudimenari ongi egotz dakiok, eta alderdi horien itxura txarrarekin irain egiten dela erran ere bai. Baina azken kapituluan ondorio horren arrazoia ematen dugu, bera endelegura biltzen dugularik; eta prestutasunik ezak min ematen ez dienak endelegugabetzat jotzen ditugu. Eta arte militarrek eskatzen duen irudimen ezberdintasunarekin ia endelegua elkartzen denez gero, horregatik kapitain onak ezin prestuagoak dira. Eta, horrela, Julio Zesarren historian prestutasun-egintza bat aurkituko da, ezein gizonak munduan egin duenik handiena*. Izan ere, Senatua sastakadaz bera hiltzen ari zirenean, herioagandik ezin ihes zegikeela ikustean, bere burua lurrera jaurtiki zuen, eta enperadore-jantziarekin apailatu zen, halako moldez, non hil eta gero prestutasun handiz etzanik aurkitu baitzuten, bernak eta begiei min eman ziezaieketen gainerako alderdiak estalirik.

Zazpigarren propietatea, eta guztietarik garrantzizkoena, kapitain generala ongi zorionekoa eta dohatsua izatea da; eta seinale horretan argiro adituko dugu badituela arte militarrek behar dituen argimena eta trebetasuna. Zeren, bene-benetan, ez dago deus gizona eskuarki hain asturugaitz egiten duenik, eta nahi duten bezala gauzak beti ez

joatea, nola zuhurtziarik gabeak izan eta egintzek behar dituzten bitarteko egokiak ez ezartzea. Eta agintzen zuen guztian hain zuhurtzia handia zuelako, Julio Zesar munduan izan diren kapitainik zorionsuena zen, eta horrela, arrisku handietan bere soldaduei adorea emateko honela erraiten zien: "Ez beldurrik izan, Zesarren fortuna ona zuekin doa eta!"

Filosofo estoikoek aditua zuten ezen, izan, lehen kausa bat, betierekoa, ahalguztidun eta mugagabeko jakituriaduna bazen bezala, haren obra miresgarrien ordena eta kontzertuagatik ezaguna, era berean badela beste bat, sengabe eta tentugabea, ordenarik, arrazoirik eta jakituriarik gabeko obrak egiten dituen, zaletasun irrazionalarekin gizonei aberastasunak, karguak eta ohorea kentzen dizkielako. Fortuna izen honekin deitu zuten, beren gauzak forte egiten zituzten laguna zela ikusiz, horrek beharbada erran nahi baitu, hots, pentsatu gabe, zuhurtziarik gabe, gidatzeko kontu eta arrazoirik ukan gabe³⁷. Haren ohiturak eta mainak adierazteko, emakume itxuran pintatzen zuten, errege-makila eskuan, begiak estalirik, bola biribil baten gainean zutik jarria, gizon ergelez lagundurik, guztiak bizitzeko modurik eta arterik gabe. Emakume itxuraren bitartez haren arinkeria eta jakite urria ohartarazten zuten; errege-makilarekin aberastanuen eta ohorearen andere izatea aitortzen zioten; begiak estalirik ukaiteak aditzera ematen zuen dohain horiek banatzeko duen tentu txarra; bola biribilaren gainean zutik egoteak erran nahi du egiten dituen faboreetan zer nolako fermutasun txikia duen: horiek ematen dituen erraztasun berberarekin berriz kentzen ditu, ezertan ere egonkortasunik eduki gabe³⁸.

Baina hartan aurkitu zuten txarrena hau da, gaiztoei fabore egin eta onei, ordea, jazarri egiten diela, ergelak maite eta jakintsuak gaitzesten, nobleak beheratzen eta doilorrak goratzen, itsusia atsegin eta ederrak ikaratu egiten duela. Eta propietate horretan fidaturik, beren fortuna ona ezagutzen duten anitz gizon egintza ero eta zentzugabeak egiten ausartzen dira, eta hagitz ondorio onak darraizkie, eta beste gizon batzuk, aldiz, osoki zentzudun eta jakintsuak izan arren, zuhurtzia handiz gidaturik doazen gauzak ere, ez dira ausartzen eginetan ezartzera, esperientziaz baitakite horiek ondoren okerragoak ukaiten dituztela.

Fortuna jende zitalaren zein adiskide handia den Aristotelesek frogatzen du, galdetzen duenean³⁹: *cur divitiae, magna ex parte, ab hominibus pravis potius quam bonis habeantur?*; erran balu bezala: "Zergatik, batez ere, aberastasunak gaiztoen eskuetan egoten dira eta pobrezia, aldiz, onen artean?" Eta problema horri honela ihardesten dio: *an quia fortuna caeca est; discernere sibi atque seligere quod melius non potest; erantzun balu bezala: "fortuna itsua dela eta ez duela hoberena hautatzeko bereizmenik"*. Baina erantzura hau ez dagokio hain filosofo handiari. Zeren ez baita Fortunarik gizonei aberastasunik ematen dionik; eta halakorik balitz ere, ez du arrazoirik ematen zergatik beti gaiztoei mesede egiten eta onak gaitzesten dituen azaltzeko⁴⁰. Galdera honen egiazko erantzuna gaiztoak arras argitsuak izatean datza, salduz eta erosiz engainatzeko irudimen handia baitute, ondasuna handitzen dakitelako, bai eta hori nondik erdietsi behar den ere; eta onek, aldiz, ez dute irudimenik, eta horietariko anitzek gaiztoak imitatu nahi ukan dituzte eta, diruarekin tratu eginez, egun gutxitan beren ondasuna galdu zuten.

Hori ohartarazi zuen Kristok gure salbatzaileak ere⁴¹ bere jaunak kontu hartu zion etxezain haren trebetasuna ikusirik, haren ondasunaren atal eder batekin gelditurik, administrazioa kitatzeko eskatu zionean. Eta zuhurtzia hori (txarrerako izan bazen ere) Jainkoak goraiatu zuen, zioela: *quia filii hujus saeculi prudentiores filiis lucis in generatione sua sunt; erran balu bezala: "zuhurragoak dira mende honetako semeak beren asmazio eta mainetan Jainkoaren aldekoak baino"*. Hauek, komunzki, endelegu

onekoak direlako, eta ahalmen horrekin haren legeaz zaletzen dira, baina irudimena falta dute, eta ahalmen horri dagokio munduan bizitzen jakitea. Eta, horrela, anitz lagun moralki onak dira gaiztoak izateko trebetasunik ez dutelako. Erantzuteko era hau errazago eta nabarmenagoa da. Eta berau asmatu ez zutelako, filosofo naturalek Fortuna bezalako kausa ergel eta desegokia itxuratu zuten, hari gertakari onak eta txarrak egozteko, eta ez gizonen zuhurgabekeriari edo haien jakituria handiari.

Lau jende modu aurkitzen dira errepublika bakoitzean (inork bilatu nahi balitu): badira gizon batzuk jakintsuak izan baina hala ez diruditenak; beste batzuek hala dirudite, baina ez dira; eta beste batzuk ez hala dira ez eta hala irudi ere⁴². Badira gizon ixilak, mintzatzeko geldoak, erantzuteko astunak, dotoreziarik eta hitz apainik gabeak, eta beren baitan irudimenari doakion ahalmen naturala daukate, eta horrekin ezagutzen dute egin behar dutenaren denbora eta okasioa, hura zein bidetatik gidatu behar duten, inori komunikatu eta adierazi gabe. Hauei jende arruntak zoriontsu eta fortuna oneko erraiten die, iruditzen baitzaie jakituria eta zuhurtzia txikiarekin dena eskura heldu zaiela. Aitzitik, badira mintzatzeko eta erraiteko eledertasun handia darabilten gizonak, tratu eragile handiak, mundu osoa gobernatzen saiatzen diren gizonak, eta diru gutxiarekin jaten irabaz litekeelako itxura egiten dute, eta jende arruntaren ustez ez dago hori besterik jakin behar, eta, obrara heldurik, guztia eskuetan desegiten zaie. Hauek Fortunaz arrenkurutzen dira eta itsu, ero eta basa erraiten diote, zuhurtzia handiz egiten eta ordenatzen dituzten gauzei fin onik ematen ez dielako. Eta bere baitarik erantzun lezakeen Fortunarik balego, honela erantzun liezaieke: "Zuek zarete ergel, ero eta okertuak, zuhurgabe izanik burua jakintsutzat daukazuelako, eta bide txarrak erabiliz, gertakari onak nahi dituzuelako". Giza leinu horrek hitzetan eta arrazoietan apaindura eta dotoretasuna ematen duen irudimen ezberdintasuna dauka, berez ez direnaren irudia ukan dezaten.

Hortik konkluditzen dut ezen arte militarrek eskatzen duen argimena eduki eta egin nahi duena lehenik ongi begiratuko lukeen kapitain generala hagitz fortuna oneko eta zoriontsua izanzen dela; eta ezpere, alferrik da garaipenik erdietsiko duela pentsatzea. Jainkoak hargatik borroka egiten ez badu, Israelgo armadekin egiten zuen bezala; eta, horrekin guztiarekin ere, ziren kapitainik jakintsuenak eta zuhurrenak hautatzen ziren, dena Jainkoari uztea komeni ez delako⁴³, ez eta gizona bere argimen eta trebetasunaz fidatzea ere: hobe da guztia elkartzea, ez baita beste Fortunarik Jainkoaz eta gizonaren diligentzia onaz besterik⁴⁴.

Xake-jokoa asmatu zuenak arte militarren ereduak egin zuen, hartan gerrako urrats eta ustekizun guztiak irudikatuz, baten ere falta gabe. Eta joko horretan fortunarik ez den bezala, eta bere aurkakoa garaitzen duen jokalaria ere zorioneko ezin erran dakioken gisan, halaber kapitain garaitzaileari jakintsu erran behar zaio eta garaituari ezjakin, eta ez zorioneko ez fortuna txarreko.

Joko horretan ordenatu zuen lehenbiziko gauza izan zen, behin erregeari mate eginez gero, aurkakoa garaile geldi zedila, horrela adierazteko armada bateko indar guztiak hura gidatzen eta gobernatzen duenaren buru onean ezarriak daudela. Eta hori erakusteko, batari besteari bezainbat pieza eman zizkion, edozeinek, galduz gero, aditurik ukan zezan jakitea falta zuela, eta ez fortuna. Eta hori are nabarmenago ageri da kontsideratzen badugu jokalaria handi batek buru txikiagoko beste bati piezen erdiak eman eta, guztiarekin ere, jokoa irabazten diola. Eta horrelaxe ohartu zen Vegecio, zioela⁴⁵: pauciores numero et inferioribus viribus, superventus et insidias facientes sub bonis ducibus, reportarunt saepe victoriam; erran balu beza: "anitzetan gertatzen da soldadu gutxi eta ahulek asko eta sendoak garaitzen dituztela, anitz gezur eta engainu egiten dakien kapitainak gobernatzen dituenen".

Era berean peoiak atzera ezin itzultzea erabaki zuen, kapitain generalari abisatzeko, trikimailuak ongi kontutan har ditzala, soldaduak ekintzara bidali baino lehen; zeren, oker ateraz gero, lehenago komeni baita beren lekuan hilik gelditzea, bizkarra ematea baino. Soldaduak ez baitu jakin behar ihes egiteko denbora badela ez eta gerran erasotzea haiek gobernatzen dituenaren aginduz ez bada; eta, horrela, bizirik dirauen artean bere ataka gorde behar du, fama txarreko izateko penapean. Horren ondoan beste lege bat ezarri zuen: harrapatua izan gabe zazpi lauki aitzinera doan peoiak damaren⁴⁶ izaera berria har zezala, non-nahitik ibili eta erregearen ondoan eser dadin, pieza askatu eta noble gisa. Hor aditzera ematen da gerran munta handia duela, soldaduak adoretu egiteko, egintza aipagarriak egiten dituztenentzako interesak, alor frankoak eta ohoreak pregonatzea. Eta bereziki ohore eta probetxua haren ondorengoei iragatekoa denean, orduan are kemen eta adore handiagoarekin egiten dute⁴⁷. Eta, horregatik Aristotelesek⁴⁸ badio estimatzenago duela gizonak bere leinuaren izaera unibertsala, bere bizi berezia baino.

Hau ongi aditu zuen Saulek bere armadan bando bat egin zuenean, honela zioena⁴⁹: *virum qui percusserit eum, ditabit rex divitiis magnis, et filiam suam dabit ei, et domum patris eius faciet absque tributo in Israel; erran balu bezala: "Goliat hil dezan edozein soldaduri erregeak anitz ondasun emanen dizkio eta bere alabarekin ezkonduko du, eta haren aitaren etxea petxa eta zerbitzurik gabe geldituko da"*. Bando horrekin bat, bazen Espainian foru bat, zeinek erabakitzen baitzuen bere egintza onengatik ordainez bostehun txanpon hartzea merezi lukeen edozein soldadu (horixe baitzen gerran ematen zen saririk gorena), bai bera eta bai beraren ondorengo guztiak ere libre geldi zitezela sekula eta betiko petxa eta zerbitzuetatik.

Mairuak (xake-jokalari handiak izanik) ordainketan zazpi maila ordenaturik dituzte, peoiak dama izan arte ibili behar dituen zazpi laukien gisara. Eta horrela, ordain batetik bigara, bigatik hirura igonarazten dituzte, zazpira etorri arte, soldaduak egiten dituen egintzen arabera; eta zazpi moduko abantaila hori erdiestea merezitzeko bezain adoretua baldin bada, hori eman eta kausa horregatik septenario edo matasiete⁴⁹ erraiten diote; eta halakoek libertate eta salbuespen handiak ukaiten dituzte, Espainian aitoren semeek bezala⁵⁰.

Horren arrazoia biziki argia da filosofia naturalean. Zeren gizona gobernatzen dutenetarik, ez baita ahalmen bat ere gogo onez obratu nahi lukeenik, aitzinean bera mugiarazteko interesik ez bada. Eta horixe frogatzen du Aristotelesek ugalmenez⁵¹; eta gainerakoetan ere arrazoi bera ari da. Haserrementaren objektua, lehenago errana dugu ohorea eta probetxua dela; eta baldin hori falta bada, berehala bertan behera gelditzen dira kemena eta adorea.

Honetatik guztitik endelegatu da zer nolako signifikantza handia duen zazpi lauki (atxikia izan gabe) aitzineratzen dituen peoiak dama bilakatzeak. Zeren munduan izan eta izanen diren noblezia on guztiak peoi eta gizon bereziengandik sortu eta sortuko baitira, horiek, beren pertsonaren adorearekin halako balentriak eginik, beren buruentzat eta beren ondorengoentzat aitoren seme, zaldun, noble, konde, markes, duke eta errege titulua merezi ukan zutelako. Egia da badirela batzuk, erabat ezjakin eta kontsiderazio gabeak izanik, beren nobletasunak hasiera ukan zuela onartzen ez dutenak, betierekoa baizik, eta odol bilakatua, ez errege berezi baten mesedeaz, jainkozko sortzapen naturaz gainekoaz baizik⁵².

Puntu honen gainean (gaitik pixka bat urrundurik badago ere) ezin nagoke hemen elkarrizketa erran-nahi handiko bat aipatu gabe, Alcalá de Henaresen don Karlos gure

jaun printzearen⁵³ eta Toledoko Suarez doktoarearen artean gertatua, berau bertako gorteko alkatea⁵⁴ zelarik.

Printzeak: Doktorea, zer deritzozu herri honi?

Doktoreak: Oso ongi, jauna, Espainian den zeru eta lur hoberenak dituelako.

P.: Horrexegatik hartu dute medikuek ene osasunerako. Unibertsitatea ikusi al duzu?

D.: Ez, jauna.

P.: Ikusazu, gauza txit gora baita, eta han, diostatenez, zientziak oso ongi irakurtzen dira.

D.: Egia erran, Kolegio eta Estudio berezi bat izateko, ospe handia du; eta horrela, obran zure gorentasunak dioen bezala izan behar du.

P.: Zuk non ikasi zenuen?

D.: Salamancan, jauna.

P.: Eta Salamancan doktorea zara?

D.: Ez, jauna.

P.: Horri gaizki deritzot, Unibertsitate batean ikasi eta beste batean graduatzeari, alegia.

D.: Jakin beza zure gorentasunak Salamancan graduatzeko gastua gehiegizkoa dela, eta horregatik pobreak hartatik ihes egin eta merketara joaten gara, trebetasuna eta letrak ez ditugula gradutik errezibitzen aditurik, estudiantik eta lanetik baizik. Halere ez ziren ene gurasoak hain pobreak, nahi ukan balute, Salamancan gradua eman ez ziezadaten; baina badaki zure gorentasunak Unibertsitate honetako doktoreek Espainiako aitoren semeen frankeziak berak dituztela⁵⁵, eta naturaz hala garenoi salbuespen horrek min ematen digu, gure ondorengoei behinik behin.

P.: Ene asabetarik zein erregek egin zituen zure leinukoak aitoren seme?

D.: Ezeinek ere ez, zeren, jakin beza zure gorentasunak Espainian bitariko aitoren semeak direla: batzuk odolezkoak dira eta beste batzuk pribilegiozkoak. Ene modura odolezkoak direnek ez zuten beren noblezia erregeren eskutik jaso, eta pribilegiozkoek, ordea bai⁵⁶.

P.: Hori enetzat endelegatzeko hagitz zaila da, eta poztuko nintzateke hitz argiekin erranen bazenit; zeren ene errege-odola (enengandik kontatzen hasirik, eta gero ene aita, eta haren ondoan ene aitona, eta horrela gainerakoak hurrenez hurren) azkenean Pelaiorengan amaitzen baita, hura Roderiko⁵⁷ erregearen heriotzaz gero errege hautatu zutelako, lehen hala ez bazen ere. Eta zure leinua ere horrela kontatuko bagenu, ez ote genuke azken buruan aurkituko aitoren seme ez litzatekeen bat?

D.: Ezin ukatuzkoa da gogoeta hori, gauza guztiek hasiera ukan dute eta.

P.: Hortaz, nik orain galdera hau egiten dut: nondik hartu zuen aitoren semetasuna zure nobletasunari hasiera eman zion lehenbiziko hark? Berak ezin zezakeen bere burua aska, ez eta ordurarte haren aurrekoek erregeari ordaindu behar zizkieten petxa eta zerbitzuetatik salbuets, hori ebastea baita, eta indarraz errege-ondarearekin altxatzea, eta ez da arrazoi odolezko aitoren semeek horrelako hasiera doilorra ukan dezaten. Beraz, argi dago erregeak hura askatu eta aitoren semetasun haren mesedea egin ziola. Ezperez, esadazu zeuk nondik heldu zitzaion.

D.: Biziki ongi konkluditzen du zure gorentasun horrek; eta horrela egia da ez dela egiazko aitoren semetasunik erregeak egin ez denik⁵⁸. Baina odolezko aitoren seme erraiten diegu beren hasieraren oroitzapenik ez dutenei, izkribuz ere zein denboratan hasi zen ez zein erregek mesede hori egin zuen jakiten ez denean; eta errepublikak iluntasun hori are ohoragarriagotzat dauka, kontrakoa bereziki jakitea baino (Etab.).

Errepublikak ere aitoren semeak egiten ditu; zeren, gizon adoretu, bertute handiko eta aberats bat agertzen denean ez baitzaio ausartzen hura erroldan sartzeraz⁵⁹, horri laido iritiz, eta bere pertsonagatik merezi duela askatasunean bizi, ohiko jende arruntarekin

berdinu gabe. Onespen hori, seme-alaba eta ilobengana iraganez, nobletasun eginez joaten da; eta erregearen kontrako eskubidea hartuz doaz. Hauek ez dira bostehun txanponetako aitoren semeak⁶⁰; baina hori ezin froga daitekeenez, halakotzat hartuak dira.

Aitoren seme (= hidalgo) izen hau asmatu zuen espainolak ongi eman zuen aditzera ekarri dugun doktrina. Haren iritziz, gizonak bi eratako jaiotzak dituztelako: bata naturala da, eta horretan guztiak berdinak dira, eta bestea izpirituala. Eta gizonak egintza heroikoren bat edo bertute edo balentria harrigarriren bat egiten duenean, orduan berriro jaiotzen da, eta guraso hobeak eskuratzen ditu, eta lehenago zeukan izaera galtzen du: atzo Petriren semea eta Antsoaren iloba deitzen zen⁶¹; orain bere obren semea deitzen da (eta hortxe du bere jatorria gaztelau errefrauak, nor bere obren semea dela dioena)⁶². Eta obra on eta bertute handikoei Eskriturak zerbait (= algo)⁶³ eta bizio eta bekatuei ezer ez (= nada)⁶⁴ deritzenez gero, izen hori, aitoren semeak (= hijodalgo) eratu zuen; orain hau erran nahi duena: "Bertute harrigarriren bat egin zuenaren ondorengoa, haren kausaz bai berak eta bai beraren ondorengo guztiek erregeren edo errepublikaren eskuz sarituak izatea merezi baitzuten beti eta sekulako". Partidaren legeak⁶⁵ dioenez, hijodalgo-k 'ondasunen seme' erran nahi du. Eta ondasun mundutarrak aditzen bada, ez du arrazoirik; izan, kontaezineko aitoren seme pobreak badirelako⁶⁶, eta kontaezineko aberatsak ere bai, aitoren seme ez direnak. Baina horrekin bertute deitzen ditugun ondasunen seme erran nahi badu, erran dugun signifikantza bera dauka. Gizonak, naturazkoaz gainera, ukan behar duten bigarren jaiotzaz, esenplu nabaria ageri da jainkozko Eskrituran, hor Kristo gure salbatzaileak Nicodemus-⁶⁷ errieta egiten baitio, legeko doktorea izanik, gizonak berriz jaio behar zuela ez zekielako, horrela izate hobe eta naturalak baino guraso ondratuagoak ukaiteko. Eta horrela, gizona, egintza heroikoren bat egiten ez duen denbora guztian, signifikantza honetan, ezerezaren seme deitzen da, haren asabengatik aitoren seme izena badu ere.

Eta doktrina honen gainean elkarrizketa bat kontatu nahi dut hemen, kapitain arras ondratu baten eta bere leinuaz biziki preziatzen zen zaldun baten artean gertatua; eta horretan ikusiko da ondra zertan datzan, eta nola jadanik guztiek duten bigarren jaiotza honen berri. Bada, kapitain hau zaldunen artean zelarik, soldaduek Italian ohi dituzten lasaitasunaren eta askatasunaren gainean mintzatzen, haietariko batek, egin zion galdera batean, zuka⁶⁸ egin zion, herri hartakoa zela, ondasun urriko gurasoen seme eta auzo gutxiko herrixka batean jaioa zela kontutan harturik. Kapitainak, hitzaz mindurik, honela erantzun zion, ziola: "Jauna, jakin beza vuestra señoría Italian askatasunaz gozatu diren soldaduak ezin egon daitezkeela ongi Espainian eskua ezpatara daramatenen aurka diren lege anitzengatik". Beste zaldunek, señoría deitzen ziola ikusirik irria ezin atxikiz egon ziren; eta zaldunak, hartaz gorriturik, honela erran zien: "Jakín bezate zuen mesede horiek Italiako señoría Espainian mesedea dela, eta jaun kapitaina herri hartako usuario eta ohiturara moldaturik datorrenez gero, señoría diotso mesede erran behar dionari". Eta honi erantzunez kapitainak erran zuen: "Ez nazala eduki zure señoría hain gizon ergeltzat, Italian nagoela Italiako mintzairara eta Espainian nagoela Espainiakora egokitzen ez baneki bezala. Baina niri Espainian zuka eginen didanak, gutxienez Espainiako señoría izan behar du, bestela oso gaizki eginen baitzait". Zaldunak, erdi mozturik ihardetsi zion, ziola: "Baina, nola, jaun kapitaina, ez ote zara halako tokian jaioa? Eta Urliaren seme? Eta, horrenbesterekin, ez ote dakizu nor naizen ni eta ene asabak?" "Jauna, erran zuen kapitainak, ongi dakit zure señoría oso

zaldun ona dela eta zure gurasoak ere halaxe izan zirela; baina ni eta ene eskuineko besoa, orain aitatzat ezagutzen dudana, zu eta zure leinu guztia baino hobeak gara⁶⁹.

Kapitain honek gizonen duten bigarren jaiotza aipatzen zuen, ni eta ene eskuineko besoa, orain aitatzat ezagutzen dudana, erran zuen eta. Eta bere buru onarekin eta ezpatarekin halako obrak egin zitzakeen, bere pertsonaren balioa eta zaldunaren nobletasuna berdintzeko adinakoak.

Gehienetan (dio Platonek)⁷⁰ elkarren aurkakoak izaten dira legea eta Natura; zeren, haren eskutik gizon bat jalgirik, kemen ezin zuhurragoarekin, buruargitsu, eskuzabal, burujabe eta mundu guztia agintzeko argimenarekin, eta Amiklaren etxean jaioa zelako (oso behe mailako bilaua berau), legeak Naturak emaniko ohore eta askatasuna kendu zizkion; aitzitik, beste batzuk dakuskigu, zeinen argimen eta ohiturak esklabu eta morroi izateko ordenatu baitziren, jaunskilen etxeetan jaiotzeagatik legez jaundurik geldituak. Baina bada gauza bat aspaldiko mila mendeetan ohartarazi gabea, arras kontsideratzekoa izan arren: mirariz ez bada, ez direla gizon hagitx egitanditsuak, edo zientzia eta armetarako argimen handikoak, agertzen, herrixka edo baserri lekuetan jaiotze gabeak, eta ez hiri handi-handietan. Eta jende arruntak, hain ezjakina denez, leku txikietan jaiotzea kontrako argudiotzat hartu ohi du; eta horren esenplu nabarmena jainkoen Eskrituran dugu: Israelgo herriak, Kristo gure salbatzailearen handitasunez espantaturik, honela erran baitzuen: a Nazareth potest quidquam boni exire? Erran balu bezala: "Nazaretetik deus onik jalgi ote daiteke?"

Baina erran dugun kapitain honen argimenera itzuliz, hark endelegu handia elkartu beharko zuen arte militarrek eskatzen duen irudimen ezberdintasunarekin; eta horrela, elkarrizketa horretan doktrina asko azaldu zuen, eta hortik atera dezakegu zertan datzan gizonen balioa errepublikan estimatuak izateko.

Iruditzen zaidanez, sei gauza eduki behar ditu gizonak osoro prestua deitu ahal izateko; eta horietarik falta dukeen edozeinekin haren izaera gutxietsirik geldituko da. Baina ez daude guztiak gradu berberaz eraturik eta ez dauzkate balio eta kilate berak ere.

Lehenbizikoa eta nagusia norbere pertsonaren balioa da, zuhurtzian, justizian, kemenean eta adorean. Honek aberastasunak eta maiorazkoak egiten ditu, eta honexetatik sortzen dira leinu argiko deiturak; hasiera honetan dute jatorria munduko noblezia guztiak. Eta ezperez, goazen Espainiako etxe nagusietara eta aurkituko dugu ia guztietan gizon bereziengan oinarritzen direla, horiek, beren pertsonen balioarekin, beren ondorengoek orain dutena irabazi zutelako.

Gizona ohoratzen duen bigarren gauza, pertsonaren balioaz gainera, ondasuna da, ez baitakusagu, hori gabe, errepublikak inor estimatzen duenik⁷¹.

Hirugarrena da haren asaba zaharren noblezia eta antzinakotasuna. Ongi jaioa eta leinu argikoa izatea bitxi oso estimatua da, baina akats handia du: berak bakarrik probetxu urria du, bai noblearentzat eta bai gainerako behartsuentzat ere⁷². Ez baita ona jateko, ez edateko, ez arropak edo zapatak janzteko, ez emateko, ez eta fidatzeko ere; aitzitik, gizona hiltzen balego bezala biziarazten du, diren erremedioez gabetuz bere premiak betetzeko. Baina aberastasunarekin batera, ez da ohorerik horrekin pareka daitekeenik. Batzuek nobletasuna guarismoen kontuetako zeroarekin konparatu ohi dute, horrek ez baitu berez deus balio; baina beste zenbaki baten ondoan, hura igonarazten du.

Gizona estimagarri egiten duen laugarrena da kargu edo lanbide ohorezkoren bat ukaitea. Eta, bestaldetik, ezerk ez du gizona horrenbeste beheratzen nola jatekoa eskulanean irabazi beharrak⁷³.

Gizona ohoratzen duen bosgarren gauza deitura ona eta izen graziaduna ukaitea da guztien belarrietan kontsonantzia egiteko, eta ez Majagranzas edo Majadero deitzea, nik dazaguzkidan batzuk bezala⁷⁴. Espainiaren Historia Orokorrean irakurtzen denez,

Frantziako bi enbaxadore Alfontso bederatzigarrenari bere alabetarik bat eskatzera etorri zirenean, beren jaun Filipe erregearekin ezkon zedin, haietako bata txit ederra zen eta Urraca zeritzon, eta bestea ez zen hain polita baina Blanca zuen izena. Eta biak enbaxadoreen aitzinean jarririk, guztiek aditurik zuten Doña Urraca hartuko zutela, zaharrena eta ederrena zelako, hobeki apailaturik egonik; baina enbaxadoreek bakoitzaren izena galdetu zutenean, Urraca deitzeak min eman zien, eta Doña Blanca hautatu zuten, "izen hori Frantzian bestea baino hobeki errezibitua izanen zela" erranez. Gizona ohoratzen duen seigarrena da bere burua ongi apaindurik ukaitea, ongi jantzirik ibiltzea eta anitz zerbitzarirekin lagundurik egotea.

Espainiako aitoren semeen ondorengo onak, beren pertsonen balioagatik eta egin zituzten balentria ugariei esker, gerran ordaintzat bostehun txanpon biltzen zituztenenak dira; eta etorki hori ez dute argitu ahal ukan izkiriartzale modernoek, zeren bestek izkiriaturiko eta erraniko gauzak ez badira, ez baitu batek ere kautako asmamenik. Aristotelesek⁷⁵ oroimenaren eta gomutamamenaren artean ezartzen duen ezberdintasuna hau da: oroimenak lehen zekien zerbait galdu badu, ez du ahalmenik hartaz berriz oroitzeko, hura berriz ikasten ez badu; baina gomutamamenak grazia berezia dauka, hots, zerbait ahantziz gero, deus gutxi gelditzen bazaio, hartaz gogoeta eginik, galdua zuena berriro aurkitzen du. Eta soldadu onen alde mintzo den forua edozein izanik ere, jadanik galdua da, bai liburuetan eta bai gizonen oroimenean ere. Baina hitz hauek gelditu dira: "Bostehun txanpon biltzeko aitoren semea, Espainiako foruaren arabera eta sortetxe ezagunekoa"; eta horien gainean gogoeta eginez eta arrazoituz errazki aurkituko dira hitz lagunak.

Antonio de Librijak [sic]vendico, -as hitz honen signifikatza ematean⁷⁶, "norberetzat biltzea" adierazten duela dio; erran balu bezala: "ordain edo eskubide gisa norberari zor zaiona eskuratzea"; orain mintzatzeko molde berrian "erregeagandik gajeak edo abantailak eskuratzea"⁷⁷. Eta Gaztela Zaharrean "Urliak ongi jaso du bere lana"⁷⁸ erraitea, hura ederki ordaindua denean, hain da erabilia, non jende hagitz landuak ez baitu mintzatzeko era eskuragarriagorik. Signifikantza horretan oinarritu zen "mendekatu" erraitea norbaitek beste batek egin dion laidoa ordaintzen duenean⁷⁹; laidoari, metaforaz, zorra erraiten zaiolako. Horren arabera, "Urli bostehun txanpon biltzeko aitoren semea da" horrek orain erran nahiko du hura soldadu oso adoretu baten ondorengoa dela, hark, bere balentriengatik, bostehun txapon bezalako ordainsari gora eskuratzea merezi ukan zuela; eta bera, Espainiako foruaren arabera, askaturik gelditu zen bai bera eta bai beraren ondorengo guztiak, erregeari petxu eta zerbitzurik pagatzetik. Eta sortetxe ezaguneko izateak ez du beste misteriorik haxe baino: soldadu bat bostehun txanpon biltzen zituztenen kopuruan sartzen zenean, erregearen liburuetan soldadu horren izena ezartzen zen, bera zein tokitan jaioa eta nongo auzoa zen eta haren gurasoak eta senideak nor ziren, hain mesede handia egiten zitzaion haren segurtasunerako; gaur egun Simancasen dagoen Becerro liburuan⁸⁰ ageri den bezala, hor Espainiako kasik nobleteria guztiaren hasierak izkiriaturik aurkitzen direlarik. Diligentzia bera egin zuen Saulek Davidek Goliat erho zuenean: berehala Abner bere kapitainari manatu ziola jakin zezala de qua stirpe decendit hic adolescens⁸¹; erran balu bezala: "jakidazu, Abner, nolako gurasoen seme eta senitartekoa den mutil gazte hori, edo Israelgo zein etxetakoa". Antzinan sortetxe etxeari erraiten baitzioten, bai bilauarenari eta bai aitoren semearenari ere⁸².

Baina digresio hau egin dugunez gero, premiazkoa dugu daramagun saiora itzultzea, jakin dezagun nondik heldu den xake-jokoan (miliziaren erretratua dela dioguna) galduz gero gizona beste edozeinetan baino ahalke handiagoa izateaz, hor interesik eta jokoa saririk ukan ez arren; eta nondik hel daitekeen begira daudenek jokalariek baino

trikimailu gehiago ikustea, gutxiago jakin arren. Eta kontua are zailagotzen du jokalaria batzuek baraurik bazkalondoan baino trikimailu gehiago erdiesteak eta beste batzuek, aldiz, bazkaldu eta gero hobeki jokatzek.

Lehen zalantzak ez du zailtasun handirik, zeren jadanik esana dugu gerran, eta xake-jokoan ez dela fortunarik, eta ezin erran daiteke "zeinek asmatuko lukeen": hor dena da galtzen duenaren ezjakintasuna eta axolagabekeria, eta irabazten duenaren zuhurtzia eta arreta. Eta gizona argimen eta trebetasun gauzetan garaitua izatea, hor estakuru eta aitzakiarik eman ezinik, bere ezjakintasunaz besterik, nahitaez gorritzekoa da; arrazionala eta ohorezalea delako, eta horregatik ezin paira dezake ahalmen horren obretan bestek abantaila hartzea.

Eta horrela, Aristotelesek⁸³ galdetzen du zergatik antzinakoek ez zuten onetsi sari seinalaturik egotea besteak zientzietan garaituko lituzketenentzat eta horiek ezarri zituzten jauzkari, lasterkari, palankari eta borrokari hoberenarentzat. Eta honi erantzuten dio esanez goputzezko borroka eta lehiaketetan ontzat ematen dela epaileak paratzea, bata besteari egiten dion soberania juzkatzeko; zeren garaileari saria erraz eman baitiezaioke, begiz hagitz erraza delako jakitea nork egiten duen jauzi luzeago eta nor dabilen abiadura handiagoz. Baina zientzian oso zaila izaten da endeleguz neurtzea nork nor gainditzen duen, hain gauza izpiritual eta fina izanik; eta baldin epaile batek sari bat maliziaz eman nahi balu, ez lukete guztiek hala endelegatuko, begira daudenen zentzurako hain epai ezkutua delako. Erantzun honez landa, Aristotelesek beste bat ematen du, hobe, esanez gizonak ez direla bereziki mintzen besteek jaurtiki, borrokan egin, lasterka edo jauzi egitean aurrea hartzen dietelako, grazia horietan basa animaliek ere gainditzen gaituztelako; baina pazientziaz ezin sufri dezakete beste bat zuhurrago eta jakitsuago dela iriztea⁸⁴; eta horregatik, epaileenganako gorrotoa hartzen dute eta haiez mendekatzen ahalegintzen dira, maliziaz laidotu nahi ukan zituztela pentsatuz. Eta kalte horiek saihesteko, ez zuten utzi, alor arrazionalari doakionean, epaile ez saririk egon zedin. Hortik inferitzen da gaizki egiten dutela Unibertsitateek, lizentzietan, examina hoberenak egin litzatenentzat, epaileak izendatu eta lehen, bigarren eta hirugarren mailako sariak ematen dituztenean⁸⁵. Zeren Aristotelesek esan dituen eragozpenak egunero gertatzeaz landa, ebangelioaren doktrinaren kontrakoa* baita gizonak lehiakide paratzea ea nor izanen den lehena jakiteko. Eta garbi ageri da hau egia dela, zeren, egun batez, Kristo gure salbatzailearen dizipuluak bidez zebiltzala, beren artean ari izan ziren ea nor izanen zen haietarik handiena; eta jadanik ostatuan zirenean, Maisuak bidean zertaz aritu ziren galdetu zien; baina haiek, zakarrak izanik ere, ongi endelegatu zuten ez zela sori galdera hura, eta horrela Testuak badio ez zirela hura erraitera ausartu. Baina Jainkoari deus ezin ezkuta dakiokenez, honela esan zien⁸⁶: si quis vult primus esse, erit omnium novissimus et omnium minister; esan balu bezala: "Baldin inork lehen izan nahi badu, guztietako azkenen izanen da eta guztien zerbitzari". Kristo gure salbatzaileak farisauak gaitzesten zituen zeren amant autem primos accubitus in caenis et primas cathedras in Sinagogis⁸⁷.

Graduak era honetara banatzen dituztenek oinarriztat darabilten arrazoi nagusia hau da, ikasleek nor bere ondorioaren arauz saritu behar dutela aditurik, ez dutela lorik eginen ez eta janen ere ikasketak ez uzteagatik, eta hori bertan behera geldituko litzatekeela baldin eta langilearentzat saririk ez eta alfer eta lotara joanikoarentzat gaztigurik ere ez balitz. Baina hori arrazoi oso arin eta itxurazkoa da, eta aurretik errakuntza handia du, hots, zientzia beti ere erdiesten dela liburuetan lan eginez eta hura maisu onengandik entzunez, behin ere leziorik galdu gabe. Eta ez dira ohartzen ezen ikasleak, estudiantzen dituen letrek eskatzen duten argimena eta trebetasuna ez badauka, alferrik dela burua

gau eta egun liburuetan hausten aritzea. Eta errakuntza da, era honetan, bi argimen mota elkarren lehian dabiltzala, hau bezain ezberdinak izanik: batak, oso fina delako, estudiatu eta liburu bat ikusi ere egin gabe, zientzia momentu batez erdiesten du; eta besteak, zakar eta dorpea delako, bizitza osoan lan egin arren, ez du inoiz deus jakiten. Eta epaileak datoz (gizonak) lehentasuna ematera Naturak trebe egin eta lanik egin ez zuenari, eta azken lekua argimenik gabe jaino baina ikasteari behin ere utzi ez zionari, batak letrak liburuak hostokatuz eskuratu eta besteak lotan galdu balitu bezala. Hau bi lasterkariri saria eman nahi baliote bezala da, eta batak zango on eta arinak ukan eta besteari hanka bat falta balitzaio. Unibertsitateek zientzietan onartuko balituzte haietarako argimena dutenak eta ez besterik, eta guztiak berdina balira, biziki ona litzateke sari-gaztiguak egon litezen, argi legokeelako gehiago lekikeenak gehiago lan egin zukeela, eta jakite urrikoa jostetan ibilia zatekeela.

Bigarren zalantzari ihardesten zaio esanez begiek, figurak eta koloreak ikasteko argia eta klartasuna behar duten bezala, halaberean irudimenak ere argia behar duela barne hartan, burmuinean, oroimenean diren fantasmak ikusteko. Klartasun hori ez du eguzkiak ematen, ez kriseiluak edo kandelak, bihotzean sortu eta gorputz osoan zehar banatzen diren bizi-izpirituak baizik. Honekin jakin beharra da beldurrak bizi-izpiritu guztiak bihotzera daramatzala eta burmuina ilupean eta gorputzaren gainerako aldeak hotzik uzten dituela; eta hori dela eta, honela galdetzen du Aristotelese⁸⁸: cur voce et manibus et labio inferiori tremant qui metuunt? Esan balu bezala: "Zergatik beldur direnei ahotsa, eskuak eta beheko ezpaina dardaraz dabilzkie?" Eta horri erantzuten dio beldurrarekin bero naturala bihotzera biltzen dela eta gorputzaren alde guztiak hotzik uzten dituela, eta hoztasunaz lehenago esana dugu (Galenoren iritziz)⁸⁹ horrek arimaren fakultate eta ahalmen guztiak trabatzen dituela eta ez diela obratzera uzten. Honekin klarki dago jadanik bigarren zalantzaren erantzuna; zeren xakeko jokalaria galtzeko beldur dira, ohorezko joko baina eta, esan dugun bezala, hartan fortunarik ez ukaitea iraingarria gertatzen; eta bizi-izpirituak bihotzera bildurik, irudimena dorpe gelditzen da hoztasunagatik, et fantasmak ilunpean, eta bi arrazoi horiengatik jokoan ari denak ezin obra dezake ongi. Baina begira daudenak, hor deus ez doakienez, eta galtzeko beldurrik ere ez, jakite urriagoarekin trikimailu gehiago erdiesten dituzte, haien irudimenak bero handiagoa eduki eta figurak bizi-izpirituaren argiarekin argiturik daudelako.

Egia da argi handiegiak irudimena ere itsuaraz dezakeela. Eta hori gertatzen da jokalaria, besteek irabazten dutela ikusiz, ahalketurik eta mindurik dagoenean, orduan haserrearekin bero naturala handitu eta behar baino gehiago argitzen duelako. Eta horretatik guztitik at gelditzen da begira dagoena. Hortik sortzen da munduan sobera ikusiriko ondorioa: gizonak bere burua gehiago erakutsi eta bere letra eta trebetasunak adierazi nahi dituen egunean, egun horretan inoiz baino gaizkiago egiten duela. Alderantziz, badira beste gizon batzuk, hersturan jarriarik, nabarmentasun handia egiten dutenak, eta hortik jalgirik deus ez dakitenak. Eta horren guztiaren arrazoia oso argi dago. Zeren buruan bero natural handia daukanari, hogeita lau ordutan aurkaritza-lezio bat egin behar izanez, sobera daukan bero natural horren parte batek bihotzera ihes egin dio, eta horrela burmuina epelik gelditzen zaio; eta jarrera honetan, honi darraion kapituluan frogatuko dugunez, gizonari erraiteko anitz eskaintzen zaio. Baina oso jakintsua denari eta endelegu handia daukanari, hersturan jarri gero, beldurrarekin ez zaio buruan bero naturalik, eta horretara, argirik ezaz ez du bere oroimenean aurkitzen zer esan⁹⁰.

Baldin kapitain generalen gainean mihia ezartzen dutenek, horien trikimailuak eta zelaian ematen duten ordena kondentatuz, kontsidera balezate hori, ikusiko lukete nolako aldea dagoen gerrari etxetik begira egotetik hartan egiazki borroka-jokoan aritzera, erregeak bere eskuan utziriko armada galtzeko beldurrarekin.

Ez dio kalte txikiagoa egiten beldurrak medikuari sendatzeko tenorean. Zeren horren praktika, lehenago frogatu dugunez, irudimenari baitagokio, eta horrek hoztasunarekin beste ezein ahalmenek baino min handiagoa hartzen du, horren obra berotan datzalako. Eta, horrela, esperentziaz ageri da medikuek jende arrunta hobeki sendatzen dutela printzeak eta jaunak baino⁹¹.

Egun batez letratu batek galde egin zidan (nik asmazio hauek nerabiltzala jakinik) ea zergatik ongi ordaintzen zioten negozioan lege eta anitz zuzenbide-ohar bururatzten zitzaizkion, eta bere lanarekin konturik ez zutenekin, aldiz, bazirudien zekien guztiak ihes egiten ziola. Eta horri erantzun nion esanez interesa haserremenari dagokiola, eta hori bihotzean datzala⁹², eta pozik ez badago, ez dituela gogo onez bizitzaren izpirituak ematen, zeintzuen argiarekin oroimeneko figurak ikusi behar diren; baina asebeterik dagoenean, bero naturala pozik ematen du, eta horrela arima arrazionalak nahikoa argitasun dauka buruan izkiriaturik dagoen guztia ikusteko.

Falta hau dute, bada, endelegu handiko gizonak: urriak eta arras interesatuak izatea⁹³. Eta horiengan are nabarmenago da letratu haren propietatea; baina, ongi begiratzuz gero, hura justizi egintza dela dirudi: inoren ardantzean lanean ari denak ordaindua izan nahi ukaitea. Arrazoi bera dabil medikuen artean ere; horiei, ongi ordainduak direnean, anitz erremedio gogoratzen baitzaizkie, eta bestela, horiei ere artea ihesi doakie, letratuari bezala. Baina hemen gauza bat ohartarazi behar da, garrantzi handikoa; hots, medikuaren irudimen onak momentu batez asmatzen duela zer komeni den, eta hari astiro begira hasiz gero, berehala datozkio mila eragozpen, etenik zer egin ez dakiela, eta bitartean erremediorako okasioa iragaten da. Eta horretara, ez da inoiz komeni mediku onari gomendatzea zer egin behar duen ongi begiratzeko, baina egin dezala hasieran iruditu zaion lehenbizikoa; zeren atzean frogatua baitugu espekulazio handiak bero naturalaren puntua igonarazten duela, eta hainbeste haz daiteke, non irudimena honda baitezake. Baina hura beheraturik daukan medikuari ez dio kalterik egingen luzaro beha egoteak; beroa burmuinera igoten denean, ahalmen horrek behar duen puntua erdietsiko duelako.

Hirugarren dudak, esanikoagatik, ihardespén ezin argiagoa du. Zeren xake jokoan aritzeko irudimen motak halako berotasun puntua eskatzen baitu, amarruak erdietsiko badira; eta baraurik ongi jokatzten duenak orduantxe dauka behar duen berotasun maila; baina bazkariaren berotasunarekin premiazko puntu hori gora igoten da, eta horrela gutxiago jokatzten du. Alderantziz gertatzen zaie bazkalondoan ongi jokatzten dutenei: janariekin eta ardoarekin berotasuna igonik, horrela baraurik falta zuen puntua erdiesten du eta.

Eta, horrela, komeni da Platonen pasarte bat zuzentzea⁹⁴, zeinetan erraiten baitu Naturak zuhurtziaz urrundu duela gibela burmuinetik, janariak, beren lurruneekin, arima arrazionalaren behakuntza nahas ez dezaten. Eta horrekin endeleguari dagozkion obrak adierazten baditu, oso ongi dio; baina ez du ikustekorik irudimen ezberdintasun batzuekin. Eta hori esperentziaz klarki ageri da gonbite eta oturuntzetan: zeren behin bazkari erdia pasa eta gero gonbidatuak graziak, txantxak eta irri-hitzak erraiten hasten dira; eta hasieran batek ere ez zuen aurkitzen zer esan. Baina bazkaria amaitzean kasik ezin daiteke mintza, irudimenak eskatzen duen berotasuna puntuz igona delako. Irudimena gora dakien jan eta pixka bat edan behar dute, ordea, errekontzaz malenkoniatsu direnek; holakoek burmuina kare bizia bezalakoa dutelako, hori eskuan harturik ukitzeko hotz eta lehor baitago, baina edariren batekin bustiz gero, ezin pairatzeko beroa sortarazten du⁹⁵.

Zuzendu beharra dago, halaber, Platonek dakarren kartagotarren lege hura⁹⁶, zeinen bidez kapitainei, gerran zeudela, ardoa edaten galarazten baitzieten, eta gobernarietara ere

bai, beren magistratu-aldiko urtean. Eta Platonek hori lege hagitz zuzentzat daukan arren, hura etengabe laudatuz, bereizketa egin behar da. Epaitzeko obra, lehenago esan dugunez, endeleguari dagokio, eta ahalmen horrek beroa gaitzesten du eta horretarako ardoak kalte handia egiten dio. Baina errepublika bat gobernatzea, auzi bat hartu eta epaia ematea ez bezalakoa da, eta irudimenari dagokio, eta honek beroa eskatzen du; eta premiazko puntura etortzen ez bada, gobernariak ongi edan dezake ardo pittin bat hartaratzeko. Gauza bera aditzen da kapitain generalaz, horren kontseilua ere irudimenaz egin behar delako. Eta berotasun naturala gauza beroren batekin igonarazi behar bada, deusek ez du hori ardoak bezain ongi egiten; baina neurritz edan beharra dago, ez baita alimenturik gizonari hain argimen handia ematen edo kentzen dionik, nola edari honek egiten duen. Eta horretara, komeni da kapitain generalak jakitea nolako irudimena duen: ea falta zaion beroa emendatzeko jan eta edan behar dutenetakoa ote den, ala baraurik egon. Honexetan baitatza bakarrik amarru bat erdiestea edo galtzea.

XIV [1594.eko XVI.a]

Non adierazten den errege ofizioari dagokion trebetasun ezberdintasuna eta nolako seinaleak ukan behar dituen argimen mota hau lukeenak

Salomon Israel bezalako herri hain handi eta ugariaren errege eta buruzagi hautatu zutenean, Testuak dio¹, hura erreinatu eta gobernatu ahal izateko, Zeruari jakituria eskatu ziola, eta ez besterik. Eta eskari hori Jainkoak hain atsegin handiz hartu zuen, non munduko erregerik jakintsuena egin baitzuen, eta horri gutxi iritzirik, ondasun eta gloria handiak eman zizkion, haren eskea beti ere berretuz. Hortik klarki inferitzen da gizonaren baitan izan daitekeen zuhurtzia eta jakituriarik handiena, horixe dela errege ofizioa funtsatzen duen oinarria; eta konklusio hori hain egiazkoa eta benetakoa denez, ez da bera frogatzeko denbora gastatzen ibili beharrik. Komeni da, soilki, erregea izateko artea, errepublikak behar duen bezala, nolako argimen ezberdintasunari dagokion, eta halako argimena eta trebetasuna lituzkeen gizona ezagutzeko seinaleak hona ekartzea.

Eta, beraz, errege ofizioak munduko gainerako arteak gainditzen dituzenez, egia da, halaber, eskatzen duela Naturak egin dezakeen argimen ezberdintasun handiena ere. Hau zein den ez dugu orain arte erran, gainerako arteei beren ezberdintasunak eta moduak banatzen lanpeturik ibili garelako. Baina jadanik esku artean daukagunez gero, jakiteko da giza espeziean diren bederlatzi temperamentuetatik², batek ez bestek, Galenok dioenez³, egiten du gizona osoki zuhur, naturalki erdiets daitekeen gehiena⁴; eta hor lehen kalitateak halako pisu eta neurriaz daudenez, berotasunak ez du hoztasuna gainditzen, ez hezetasunak lehortasuna; aitzitik, berdintasun osoan eta konforme aurkitzen dira, egiazki kontrakoak izan eta aurkaritza naturala ez balute bezala. Eta hortik tresna bat heldu da, arima arrazionalaren obretarako hain egokitua, eta horrekin gizonak iraganiko gauzetarako oroimen akatsgabea erdiesten du, etorkizuna ikusteko irudimen handia eta bereizteko, inferitzeko, arrazoitzeko, epaitzeko eta hautatzeko endelegu handia⁵.

Kontatu ditugun gainerako argimen ezberdintasunetatik batek ere ez du bikaintasun osorik; zeren baldin gizonak endelegu ederra badu (lehortasun handiagatik) ezin ikas baititzake irudimenari eta oroimenari dagozkion zientziak; eta irudimen ona badu (bero handiagatik) ezgai gelditzen da endelegu eta oroimenaren zientzietarako; eta oroimen handia ukanez gero (hezetasun ugaria dela eta), lehenago errana dugu zein ezgauza diren oroimentsuak zientzia guztietarako. Bilatzen ari garen argimen ezberdintasun honek ez bestek erantzuten die arte guztiei hein berean.

Zientzia bati gainerakoei bera ezin eransteak zenbat kalte egiten dion Platonek seinalatu zuen, erranez haietako bakoitzaren bana-banako bikaintasuna guztien berri ukan eta

haiek jakitearen menean dela⁶. Ez dago letra mota bat beste batetik hain ezberdina, bera ongi jakiteak haren bikaintasuna laguntzen ez duenik.

Baina zer dela eta, argimen ezberdintasun hau arreta handiz bila ibili arren, ez dut Espainian bat besterik aurkitu? Hortik aditzen dut hagitz ongi erran zuela Galenok⁷, Greziatik landa ametsetan ere Naturak ez duela egiten gizon tenplatu bat, ez eta zientzia guztiek behar duten argimenaz hornitua. Horren arrazoa Galenok berak dakar, erranik Grezia dela munduan den eskualderik epelena, non aireko beroak ez baitu gainditzen hoztasuna, ez eta hezetasunak lehortasuna ere⁸. Eta epeltasun horrek gizonak biziki zuhur eta trebe egiten ditu zientzia guztietarako, eta halaxe dirudi, handik jalgi diren gizonetako kopuru handia kontsideratuz: Sokrates, Platon, Aristoteles, Hippokrates, Galeno, Theofrasto, Demostenes, Homero, Thales Miletokoa, Diogenes ziniakoa, Solon eta kontaezineko beste anitz jakintsu, historietan aipatuak. Eta horien obrak zientzia guztiez beterik aurkituko ditugu; eta ez beste probintzietako izkiriataleak bezala, horiek medikuntzaz edo beste nolanhiko zientziaz izkiriaturen badute, mirariz ez bada, ez baitutuzte gainerako letrak deitzen, laguntza eta fabore eman diezaieten: guztiak urri eta emaririk gabekoak dira, arte guztietarako argimenik ez dutelako.

Baina Grezian gehienik espantatzen nauena da, emakumeen argimenak letrei hain aiher handia dien arren (geroago frogatuko dugunez), hainbeste andre greko zientzietan hain nabarmen egoteak, gizon hagitz arrazionalekin lehiakide izateraino helduak; hala irakurtzen da Leontiaz, emakume ezin jakintsuagoa bera, zeinek bere garaiko filosofo handiena Theofrasto zelarik, haren aurka izkiriatu baitzuen, haren filosofian anitz oker ohartaraziz.

Eta munduko beste eskualdeetara begiratzen badugu, ia ez da haietatik jalgi argimen bat aipagarriarik. Eta horren kausa da leku destenplatueta bizitzea; zeren gizonak horregatik egiten baitira itsusi, argimenez dorpe eta ohitura txarreko. Eta horrela, galdera hau egiten du Aristotelesek⁹: cur efferi, et moribus et aspectibus, sunt qui in nimio vel aestu vel frigore colunt? Galde egin balu bezala: "Zergatik arras leku hotz edo arras beroetan bizi diren gizonetan, gehienak aurpegiz hagitz itsusiak eta ohitura txarrekoak ote dira?" Eta problema horri ezin ederkiago erantzuten dio erranez¹⁰: "temperatura onak ez dakarkiola soilki grazia onik gorputzari, baina argimenari eta trebetasunari ere probetxu egiten diela". Eta soberazko hotz-beroek Naturari gizona ongi itxuraturik ateratzea eragozten dioten bezala, arrazoi berberetatik deusezten da arimaren harmonia¹¹ eta argimenez dorpe egiten.

Hau ongi aditurik zeukaten grekoek, munduko nazio guztiei barbaroak erraiten baitzieten, haien moldagaiztasuna eta jakituria urria ikusirik¹². Eta horrela, badakusagu, Greziatik kanpoan jaio eta ikasketak egiten dituztenetarik, filosofoak baldin badira, bat ere ez dela heltzen Platon eta Aristotelesen mailara; medikuak badira, Hippokratesen eta Galenoren gisakoak izatera; hizlariak izanez gero, Demostenesen parera; eta poetak badira, Homero bezalakoak. Eta, horrela, gainerako zientzia eta arteetan grekoek beti ukan dute lehentasuna, inork kontra erran gaberik. Aristotelesen problema, gutxienez, ongi betetzen da grekoen baitan. Egiatzki munduko gizonik ederrenak direlako, eta argimen gorenekoak ere bai; baina dohakabeak izan dira, turkoen etorreraz armaz zapalduak, menperatuak eta gaizki tratatuak. Horiek letrak atzerrirarazi zituen eta Atenasko Unibertsitatea Paris Frantziakora pasarazi zuen, orain den lekura¹³; eta horretara, lantzen ez direlako, orain galtzen ari dira gorago kantatu ditugun gisako argimen bikainak. Greziaz landako gainerako eskualdeetan, Eskolak izan eta letrak landu arren, ez da horietatik gizon hagitz nabarmenik bat ere atera. Aski pentsatzen du medikuak egin duela, bere argimenaz, Hippokratesek eta Galenok erranikoa erdietsi

badu; eta filosofo naturalak bere burua asetzat dauka Aristoteles endeleгатzen duela iruditzen zaionean.

Baina horrekin guztiarekin ere, ez da erregela unibertsala Grezian jaiotzen diren guztiak nahitaez tenplatu eta jakintsu izatea, eta gainerakoak destenplatu eta ergelak. Zeren Anakarsis, Eskitian sortua, Galenok berak kontatzen duenez¹⁴, grekoen artean argimenez miresgarria izan baitzen, barbaroa izanik ere; eta harekin eztabaidan ari zen filosofo batek, Atenasen jaiotak, haserrez honela erran zion: "Habil hortik, barbarokide". Anakarsisek erantzun zion, zioela: patria, mihi dedecori est; tu vero patriae; erran balio bezala: "nik sorterria laidagarri diat, hi, aldiz, laidagarri hau sorterriak¹⁵, zeren Eskitia hain eskualde destenplatu izanik eta han hainbeste ergel hazten direlarik, ni jakintsu atera nintzen, eta hi, Atenasen, argimenaren eta jakituriaren lekuan, sortua izanik, astoa haiz".

Beraz, ez da desesperatu behar tenperatura honetaz, ez eta pentsatu ez dela aurkitu ahala Greziatik kanpoan: are gutxiago Espainian, ez baita eskualde arras destenplatu. Izan ere, nik bat aurkitu dudan arrazoi berberetatik, beste anitz ere izanen dira, horien berri enegana etorri ez eta horiek examinatzerik ezin ukan dudan arren. Horregatik on dateke gizon tenplatu ezagutzeko seinaleak hona ekartzea, hura aurkitzen den tokian bera estal ahal izan ez dadin¹⁶. Seinale asko jartzen dituzte medikuek argimen ezberdintasun hau aurkitzeko; baina nagusiak eta hura hobekienik adierazten dutenak honi darraizkionak dira.

Lehena, Galenok dioenez¹⁷, ilea sub-rufo¹⁸ ukaitea da, kolore hau zuriaren eta gorriaren nahastea izanik eta, adina iraganik, areago urretatzen da. Eta horren arrazoiak hagitx argi dago. Zeren ilea egiten den kausa materiala, medikuek diotenez¹⁹, lurrin lodia bat baita, burmuinak, elikatzean, egiten duen egosketatik harrotua; eta atal horrek nolako kolorea daukan, halakoxea hartzen dute beren irazkinek ere. Eta burmuinak bere osieran gorro asko badauka, ile zuria ateratzen da; kolera handia edukiz gero, azafrak kolorekoa; alabaina, bi humore hauek erdi bana nahasirik daudenean²⁰, burmuina tenplaturik gelditzen da berotasun, hoztasun, hezetasun eta lehortasunean; eta ilea gorri, bi muturretan partaide. Egia da Hippokratesek²¹ dioela kolore hori, Iparraldepean bizi diren gizonengan (hau da, ingeles, flandestar eta alemanen baitan) sortzen dela hotz handiak zuritasuna erretzetik, eta ez guk diogun arrazoietatik. Eta, beraz, seinale honetan ohartu beharra dago, biziki engainagarria delako.

Argimen ezberdintasun hau erdiesten duen gizonak eduki behar duen bigarren seinalea, Galenok dioenez²², sotil eta itxuraz aterea izatea da, grazia oneko eta txairoa, hari begiratzean begiek atsegin har dezaten, bikaintasun handiko figura gisa. Eta arrazoiak hagitx garbi dago. Zeren Naturak indar handiak eta hazia ongi zoriturik badauka beti egiten baitu, litezkeen gauzetarik, hoberena eta bere generoan osoena; baina indarretan eskas dagoenean, maiz burmuina ongi eratzera saiatzeko da, hori arima arrazionalaren jarleku nagusia delako, eta falta gorputzaren gainerako alderdietan gelditzera ahalegintzen da: Eta horrela anitz gizon baldres eta itsusi dakuskigu, baina arras argimen finekoak.

Gizon tenplatuak eduki behar duen gorputzaren neurria, Galenok dioenetik²³, ez dago Naturak mugaturik; handia, txikia eta luzera ertainekoa izan daitekeelako (hura eratu zen denboran egon zen hazi epelaren kopuruaren arabera). Baina argimenari doakionez, gizon tenplatuetan neurri ertaina hobe da handia edo txikia baino; eta bi muturretako batera makurtu behar bada, hobe da txikitara handitara baino, lehenago frogatu dugun bezala, hezur eta mami asko ukaiteak, Platonen eta Aristotelesen iritziz, argimenari kalte handia egiten diolako. Honekin bat etorritik, filosofo naturalek galdetu ohi dute²⁴

cur homines qui brevi sunt corpore, prudentiores magna ex parte sunt quam qui longo? Erran balute bezala: "Zergatik, gehienbat, gizon txikiak zuhurragoak izaten dira luzeak baino?" Hori frogatzeko, Homero aipatzen dute, zeinek erraiten baitu Ulises osoki zuhurra dela eta gorputzez txikia; eta, bestaldetik, Ajax, arras zozoa eta neurritz luzea. Galdera honi oso gaizki erantzuten diote, erranez "arima arrazionalak, toki urrian bildurik, obratzeko indar handiagoa duela", esaldi txit sonatuaren arabera: virtus unita fortior est se ipsa dispersa; eta aitzitik, gorputz luze eta zabalean dagoenean, ez du bertuterik aski hura mugitu eta animatzeko. Baina arrazoa ez da hori, baizik eta gizon luzeek beren osakeran hezetasun handia dutela, eta horrek haragiak biziki hedakor egiten dizkie eta bero naturalak beti ere eragin ohi duen hanturaren meneko. Gorputz txikia dutenen baitan alderantziz gertatzen da: lehortasun handiagatik haien haragiak ezin luza daitezke, ez eta bero naturalak haiek zabal ez hedaraz ere, eta horregatik neurritz labur gelditzen dira²⁵. Eta lehen kalitateen artean, lehenago frogatua dugu batek ere ez dituela arima arrazionalaren obrak gehiago hondatzen hezetasun handiak baino, ez eta endelegua hainbeste pizten nola lehortasunak egiten duen.

Gizon tenplata ezagutzeko hirugarren seinalea, dio Galenok²⁶, bertutetsu eta ohitura onekoa izatea dela. Zeren gaiztoa eta biziotsu izatea, Platonek dioenez²⁷, gizonak kalitate destenplaturen bat ukaitetik sortzen da, eta horrek bekatu egitera bultzatzen du; eta bertutearen arabera obratu behar badu, lehenago bere jaugin naturalari uko egin behar dio. Baina puntualki tenplata litzatekeenak, horrela legokeen bitartean, ez du diligentzia hori egin behar, ez baitiote beheko ahalmenek deus eskatuko arrazoiaren kontra; eta, beraz, Galenok dioenez, tenperatura hori leukeen gizonari ez diezaiogun inoiz tasarik ezarjan eta edan behar dituen gauzetan, zeren ez baita behin ere ateratzen medikuntzaren arteak seinala liezaiokeen kopuru eta neurritik²⁸. Eta ez du askiesten Galenok horiei osoki tenperante erraitea, baina arimaren gainerako grinetan ere badio ez zaizkiola leundu behar; haren haserrea, haren tristura, haren atsegina eta poza beti ere arrazoimenaz neurtuak direlako. Hortixek heldu da horiek beti osasunean egotea, eta sekulan ez eririk, zein baita laugarren seinalea. Baina honetan ez du Galenok arrazoirik. Ezinezkoa baita gizon bat eratzea bere ahalmen guztietan akatsgabea, gorputz tenplata den bezala²⁹; eta haserremena eta nahimena arrazoimena baino gorago ez jalgitzea, bekatu egitera bultzatuz. Eta, beraz, ez da komeni ezein gizon, denik tenplatuena izanik ere, bere jaugin naturalari jarraitzen uztea, hura eskutik hartu eta arrazoimenaz zuzendu gabe.

Hau erraz endeleगतzen da burmuinak, arrazoimenaren tresna egokia izateko, eduki behar duen tenperamentua kontsideraturik; eta bihotzak eduki behar duena haserremenak gloria, agintea, garaipena eta oroien nagusi izatea irrika ditzan³⁰; eta gibelak eduki behar duena jakiak egosteko; eta barrabilek eduki behar dutena giza espeziea iraunarazi eta aitzinera bultzatzeko. Burmuinaz lehenago maiz erran dugu hezetasuna eduki behar duela, oroimenerako, eta lehortasuna endelegurako, eta beroa irudimenerako. Baina hainbestekin ere, haren tenperamentu naturala hoztasuna eta hezetasuna da; eta bi kalitate hauen trinkotze eta murrizteagatik, batzuetan bero erraiten diogu, beste batzuetan hotz, beste zenbaitetan heze eta besteetan lehor; baina behin ere ez da gelditzen nagusiki hotz eta heze izatetik. Gibelak (nahimena datzan tokiak) berezko tenperamentutzat dauka, nagusiki, beroa eta hezetasuna, eta hortik ez da sekula gelditzen, gizonak bizirik dirauen artean³¹; eta inoiz hotz dagoela baldin badiogu, hori da haren obrek behar dituzten bero-gradu guztiak ez dauzkalako. Bihotzaz (zein baita haserremenaren tresna) Galenok dio³² bere izaeraz hain beroa dela, ezen, animalia bizirik dagoenean erhia haren barrunbeetan sar bageneza, ezin paira genezakeela une batez erre kiskali gabe. Eta batzuetan hotz deitzen badugu ere, ez da sekula aditu behar

hala dela nagusiki, kasu hori ezinezkoa delako, baizik eta haren obrek behar duten adinako beroa daukala. Barrabiletan (nahimenaren beste partea datzan tokian) arrazoi berberak balio du, haien berezko temperamentua, nagusiki, beroa eta lehortasuna delako³³. Eta inoiz erraiten badugu gizonak barrabilak hotzik dituela, ez da hori absolutuki ez nagusiki endelegatu behar, ugalmenak behar duen trinkotasuna falta duela baizik.

Hemendik klarki inferitzen da ezen, gizonak, ongi eraturik eta antolaturik baldin badago, nahitaez bihotzean bero handiegia eduki behar duela, bestela haserremena arras murrizturik gelditzeko penapean, eta baldin gibela beroegia ez bada, ezin ditzake janariak egos, ez eta odolik egin, elikadurarako; eta barrabilak hotz baino beroago ez balira, gizona ezindurik gelditzen da eta ernaltzeko indarrrik gabe. Hortaz, atal horiek diogun bezain sendo izanik, nahitaez aldatu behar da burmuina bero handiarekin, horixe baita arrazoimena gehienik nahasten duen kalitateetako bat³⁴. Eta are okerrago: borondatea, libre izanik, minberatu, behe aldeko alderdiaren apetei amore eman eta haietara makurtzen da³⁵. Kontu honetan, badirudi Naturak ezin egin dezakeela gizon bat bere ahalmen guztietan akatsgabe, eta bera bertutera makurtua atera.

Gizonaren izaerari zein aurkakoa zaion bertutera makurturik gertatzea klarki frogatzen da lehenbiziko gizonaren eraketa kontsideratzean, hura giza espezie osoan izan den bikainena (Kristo gure Salbatzailearen ondoan) eta hain artegile handiaren eskuek eginga izanik, horrenbesterekin ere, Jainkoak naturaz gaindiko kalitate bat sar ez baliezaio, ezinezkoa zatekeen, haren izaeraren hastapenen mende geldituz, gaizkira okertu gabe egotea*. Eta Jainkoak Adam haserremen eta nahimen akatsgabeek egin zuela ongi aditzen da; zeren *crescite et multiplicamini, et replete terram*³⁶ erran eta manatu zienean, egia da ugaltzeko ahalmen sendoa eman ziela eta ez zituela hotz egin, lurra gizonez betetzeko agindu zenez gero, eta obra hori ezin egin daiteke bero handirik gabe. Ez zion bero txikiagorik eman elikamenari, horrekin galduriko substantzia hornitu eta haren lekuan beste bat berregin behar baitzuen; honela erran zion eta: *ecce dedi vobis omnem hermbam afferentem semen super terram, et universa ligna quae habent in semetipsis sementem generis sui, ut sint vobis in escam*³⁷. Zeren baldin Jainkoak eman balizkie gibela eta urdaila hotz eta bero txikiarekin, egia da ezin zezaketela janaria egos ez eta munduan bederatziehun eta hogeita hamar urtez bizirik iraun ere.

Era berean, bihotza indartu eta haserremen egokia eman zion, errege eta jaun izateko eta mundu guztiaren gainean agintzeko; eta erran zion: *subiicite terram et dominamini piscibus maris et volatilibus caeli et universis animantibus quae moventur super terram*³⁸. Eta bero handia eman ez balio ez zukeen kemenik ez autoritaterik edukiko aginte, manu, gloria, maiestate eta ohorea ukaiteko. Haserremena murrizturik edukitzeak printzeari zer nolako kaltea egiten dion bereziki aipatu beharra dago; kausa bakar honegatik bere menekoek ez baitiote beldurrik ukanen, ez obeditu ez eta gurtuko ere.

Behin haserremena eta nahimena indartu eta gero, erran ditugun atalei hainbeste beroa emanez, arrazoimenera iragan zen, eta burmuin bat egin zion hain hotz eta heze eta hain gai finarekin, non arimak harekin gogoeta egin eta filosofa baitezake, eta goitik helduriko zientziaz balia ere bai*. Zeren gorago erran eta frogatua dugunez Jainkoak gizonei naturaz gaindiko zientziaren bat emateko, lehenik argimena eratzen diela, eta (bere eskutik emaniko) jarrera naturalekin hori errezibitu ahal ukaiteko gai egiten ditu. Eta, horretara, hau dio jainkoizko testuak: *et cor dedit illis excongitandi, et disciplina intellectus replevit illos*³⁹.

Beraz, haserremena eta nahimena, bero handiagatik, hain boteretsua izanik eta arrazoimena, aldiz, hain ahula eta aurka jarkitzeko hain murrizta, Jainkoak naturaz

gaindiko kalitate batez hornitu zuen, teologoek jatorrizko justizia deitua⁴⁰, horrekin behe alderdiko bultzadak hertsatzeko; eta alde arrazionala nagusi gelditu zen; eta gizona bertutera makurtua. Baina gure lehen aita-amek bekatu egitean, kalitate hau galdu zuten, eta haserremena eta nahimena beren izaeran gelditu zen, arrazoimena baino gorago, erraniko hiru atalen sendotasunagatik, eta gizona pronus ab adolescentia sua ad malum⁴¹. Adam nerabezaroan sortua izan zen, medikuek diotenez⁴², guztietarik epelenean, hain zuzen; eta adin hartaz geroztik gaizkira makurturik egon zen, grazian eta jatorrizko justizian egon zen denbora laburrean izan ezik.

Doktrina honetatik inferitzen da, filosofia natural onean, ezen, gizonak bertutezko egintzaren bat egin behar badu haragiari kontra eginez, ezinezkoa dela hori obratzea graziaren kanpoko laguntzarik gabe, beheko ahalmenek obratzeko darabiltzan kalitateak eragin handiagokoak direlako. Eta "haragiari kontra eginez" erran dut, zeren gizonarengan antz bertute baitira haserremena eta nahimena ahul izatetik datozenak (nola baita kastitatea gizon hotzarengan); baina hau gehiago da obratzeko ezintasuna ezen ez bertutea. Hori dela eta, Jainkoaren laguntza partikularra gabe geure izaera ezin garai dezakegula Eliza katolikoak irakatsia ez izanik ere, filosofia naturalak berak diosku*. Izan ere, graziak gure borondatea konfortatzen du. Hortaz, Galenok erran nahi zuena izan zen gizon tenplatuak tenperatura on hau ez daukaten gainerakoak bertutez gainditzen dituela, behealdeak horrenbeste bultzatzen ez duelako.

Temperatura honetakoen bosgarren propietatea oso bizitza luzea ukaitea da, gizonak eritzen dituzten kausei eta ajeei jarkitzeko hagitz sendoak direlako. Eta haxe da David errege profetak erran nahi zuena⁴³: dies annorum nostrorum in ipsis septuaginta anni; si autem in potentibus, octoginta anni, et amplius eorum labor et dolor; erran balu bezala: "Gizonak eskuarki hirurogeita hamar urte bizi dira; eta azkarak laurogei bizi badira, handik hara hilez bizi dira". Eta azkarrak deitzen ditu tenperatura honetakoak, beste guztiek baino gehiago jasaten dituztelako bizitza laburtzen dituzten kausak.

Galenok⁴⁴ ematen duen azken seinaleaz dio horiek ezin zehurragoak direla, iragan gauzetarako oroimen handikoak, etorkizun dagoena erdiesteko irudimen bizikoak eta endelegu handia dutela gauza guztietan egia jakiteko. Ez dira gaiztoak, maltzurak ez eta buruginak, hau temperamentua biziotsu izatetik sortzen delako⁴⁵.

Honelako argimena, egiazki, ez zuen Naturak egin, latin, dialektika, filosofia, medikuntza, teologia ez legeak ikasteko, zientzia horiek oro erraz ikas ditzakeen arren, ez baitio horietako batek ere ahalmen osoa beteko. Errege ofizioak ez bestek erantzun diezaioke bere neurrira, eta erreinatzen eta gobernatzen enplegatu beharra dauka soilik. Hau erraz adituko da gizon tenplatuez kontatu ditugun propietate eta seinale guztiez gogoeta eginik, bakoitzetik errege-makilari zenbat komeni zaion eta gainerako zientzia eta arteei zein desegoki zaien kontsideratuz.

Erregea ederra eta begietarako atsegina izatea bere menpekoak bera oniriztera eta maitatzera gehien bultzatzen duten gauzetakoa da. Platonek dioenez, maitasunaren xedea edertasuna eta neurri ona delako⁴⁶; eta baldin erregea itsusia eta jas txarrekoa bada, ezinezkoa da beretarrek estima dioten; aitzitik, laidoa hartzen dute gizon akas dun eta Naturaren dohainik gabeak erreinatzen eta manatzen dielako.

Bertutetsu eta ohitura onekoa izateak nolako garrantzia duen ongi konpreni daiteke. Zeren bere sujeten bizitza ordenatu eta haiei arrazoimenaren araura bizitzeko erregelak eta legeak eman behar dizkienak, komeni da berak ere beste horrenbeste egitea; zeren, erregea nolakoa, halakoak izaten baitira handiak, ertainak eta txikiak ere⁴⁷. Eta bestalde, bide honetatik bere manamenduek aginpide handiagoa ukanen dute, eta haiek gorde ez ditzatenak titulu hobearekin gaztiga ditzake.

Gizona gobernatzen duten ahalmen guztietan (ugalmen, elikamen, hasarreman eta arrazoimenean) bikaintasuna ukaitea hobeki komeni zaio erregeari beste ezein egileri baino. Zeren, Platonek dioen bezala⁴⁸, ongi ordenaturiko errepublikan ezkontzalariek egon beharko lukete, arterioz ezkontzeko pertsonen kalitateak ezagutzen lekiketenak, gizon bakoitzari neurritz dagokion emakumea emateko, eta emakume bakoitzari bere gizon berezia; eta diligentzia horrekin ezkontzaren xede nagusia ez litzateke inoiz zapuztuko. Izan ere, esperientziaz dakusagu ezen lehen senarrarekin haurdun gelditu ahal izan ez zuen emakumeak, beste batekin ezkondu bezain laster, ondorengoak ukan zituela; eta anitz gizonek lehen emaztearekin haurrik ez baina beste batekin ezkondu ondotik berehala ukan zituztela. Platonek dio arte hau, batez ere, komeni zela erregeen ezkontzetan; zeren, erresumaren bake eta sosegurako hainbeste garrantzia duenez printzeak legezko seme-alabak ukaitea, horiei Estatuaren ondorengotza uzteko, gerta liteke, erregea haztamuka ezkondu, emazte antzuekin topo egitea, eta horrekin bizitza osoan ezindurik legoke, ugaltzeko esperantzarik gabe; eta ondorengorik gabe hiltzean, berehala sortu ohi dira gerra zibilak norik agindu behar duen erabakitzeko.

Baina Hippokratesek arte honetaz diosku⁴⁹ gizon destenplatuak behar dutela, eta ez pintatu dugun tenperamentu bikaina dutenek. Hauek ez dute emakumerik hautatu behar ez eta beren neurrirakoa zein den bilatu, nolana hikoarekin ezkondu ere, Galenok dioenez⁵⁰, laster ondorengoak ukanen dituztelako. Baina aditu behar da emakumea osasunean egon eta, Naturaren ordenaren arabera, emakumeak izorratu eta erditu ohi diren adinekoa izanez gero. Beraz, ugalkortasuna hobeki dagokio erregeari beste ezein egileri baino, erran ditugun arrazoiengatik.

Elikamena, gozozale, jatun eta edankoa bada, dio Galenok⁵¹ gibela eta urdailak beren obrei komeni zaien tenperatura ez edukitzetik heldu dela; hori dela eta, gizonak lizunkoi, eribera eta arras bizitza laburreko egiten dira. Baina atal horiek tenplaturik eta eduki behar duten eraketarekin, Galenok berak dio ez dutela janari eta edari gehiago irrikatzen bizitza sustengatzeko behar dena baino. Eta propietate hori hain du erregeak munta handikoa, ezen Jainkoak zorionekotzat baitu halako printzea erdiesten duen herrialdea: *beata terra cuius rex nobilis est et cuius principes vescuntur in tempora suo ad reficiendum et non ad luxuriam*⁵².

Haserremanaz, trinkoa eta murrizta bada, dio Galenok, bihotza gaizki eraturik egoteko aierua dela, eta haren obren bikaintasunak behar duen tenperatura ez ukaitea. Eta bi mutur horiek falta behar ditu erregeak beste edozein eragilek baino gehiago. Zeren haserrekotasuna eta botere handia elkarrekin biltzea ez baitzaie menekoei komeni; eta ez dago ongi, halaber, erregeak hira murrizta ukaitea, zeren bere erresuman gaizki eta atrebentziaz eginiko gauzei kasurik egiten ez badie, ez baitira sujetek haren beldur izanen, ez eta gurtuko ere; eta hortik kalte handiak heldu ohi zaizkio errepublikari, erremediatzeko zailak. Baina gizon tenplatu izanik, arrazoi handiarekin haserretzen da, eta komeni denean baketsua ere izaten. Eta propietate hau erregearengan aitzinetik erran ditugun guztiak bezain premiazkoa da.

Arrazoimena (irudimena, oroimena eta endelegua) erregearengan beste inoren baino gehiago akatsgabe izateak nolako munta duen klarki frogatzen da. Zeren baitirudi gainerako zientzia eta arteak giza argimenaren indarrekin erdiets eta praktikan jar daitezkeela; baina erresuma bat gobernatzeko, hura bakean eta abenikoan gordetzeko, erregeak horretarako zuhurtzia naturala ukaitea ez eze, baina beharrezkoa da, halaber, Jainkoak bere endeleguaz hari bereziki sorotsi eta gobernatzera lagun diezaion. Eta horrela senalatzeko du jainkozko Eskriturak, dioela: *cor regis in manu Domini*⁵³.

Halaber, anitz urtetan bizitzea eta beti ere osasunean egotea komenigarriago zaio errege onari beste edozein egileri baino. Haren iharduna eta lana ororentzako ongi unibertsala

delako; zeren hori eramateko osasunik ez badu, galdurik gelditzen baita errepublika osoa.

Ekarri dugun doktrina hau guztia argiro berretsiko litzateke baldin aurki bageneza, historia egiazkoaren bidez, noizbait gizon ospetsu bat erregetzat hautatua zela eta erran ditugun seinale eta baldintza horietarik bat ere falta ez balu. Eta egiak haxe dauka: ez duela inoiz argudiorik falta froga gisa.

Jainkozko Eskriturak kontatzen du⁵⁴ ezen, Jainkoa Saulekin haserre zegoenean honek Amalek-i bizia barkatu ziolako, agindu ziola Samueli Bethlehamera joan zedin eta, Israelgo errege, Isaik zituen zortzi semeetarik bat gantzu zezan. Eta gizon saindu hark Jainkoa Eliab hautatuko zuelakoan, neurritz luzea baitzen, honela galdetu zion: num coram Domino est Christus eius?⁵⁵ Eta galdera hori honela erantzun zion: ne respicias vultum eius, nec altitudinem staturae eius, quoniam abieci eum. Nec iuxta intuitum hominis ego iudico: homo enim videt ea quae parent, Dominus autem intuetur cor; erran balu bezala: "ez iezaiozu, Samuel, begira, Eliaben luzetasun handiari begira, ez eta duen gizontzar-soinari, Saulez eskarmentua harturik bainago: zuek gizonok kanpoko seinaleez epaitzen duzue, baina nik ene herria gobernatzeko behar diren zentzu eta zuhurtziari begiratzen diot". Samuel, hautatzen ez zekielako beldurturik, aitzinera joan zen manatu zitzaionaz, beti ere jainkoari galde eginez, banan-banan, zein nahi zuen erregetzat gantzu zezan. Eta batek ere asebetetzen ez zuenez, honela erran zion Isairi: "Menturaz seme gehiago ote dituk aitzinean ditugunok baino?" Eta hark erantzun zion erranez beste bat gelditzen zitzaiola ganadua alhatzen, baina gorputzez txikia zela, hari errege-makilarako huts bat zela iritzi. Baina Samuelek, luzetasun handia ez zela ezaugarri ona jadanik abisaturik zegoenez, haren bila igorraz zuten. Eta ohartzekoa da, jainkozko Eskriturak, hura nola errege gantzutu zuten kontatu baino lehen, zer dioen: erat autem rufus, et pulcher aspectu decoraque facie. Surge, et unge eum, ipse enim est; erran balu bezala: "Ile gorrikoa zen, eta ikusteko ederra. Jaiki hadi, Samuel, eta gantzu ezak erregetzat, ezen horixe bera nahi baitut nik". Hortaz, Davidek kontatu ditugun seinaleetarik lehenbiziko biak zituen: ile gorria eta ongi aterea, eta gorputzez ertaina.

Bertutetsu eta ohitura onekoa izatea, haxe baita hirugarren seinalea, ongi konprenitzen da, Jainkoak hartaz hau erran baitzuen: inveni... virum iuxta cor memum⁵⁶. Eta anitzetan bekatu egin zuen arren, ez zuen horregatik bertutetsu izateko izena eta ohitura galtzen*. Eta ohituraz gaiztoa denak ere, obra moral on batzuk egin arren, ez du horregatik gaizto eta biziotsu izena galtzen.

Bere bizitzaren ibilbide guztian osasunez bizi izan zela froga daitekeela dirudi. Zeren, haren historian, eritasun bakarra aipatzen baitzaio⁵⁷, eta hori urte askotan bizi direnen berezko jarrera zen: berotasun naturala murriztua zuelako, ohean ezin berotzea, eta hori erremediatzeko harekin neskatila eder bat etzanarazten zuten, beroa eman ziezaion. Eta, horrekin hainbat urtetan bizi zen, Testuak dioenez⁵⁸: et mortuus est in senectute bona, plenus dierum et divitiis et gloria; erran balu bezala: "Eta David hil zen zahartze on batean, egunez, ondasunez eta ospez betea", gerran hainbeste trabailu eta bere bekatuengatik hainbeste penitentzia egin arren. Eta horren arrazoa zen tenplatua eta ongi eratua izatea: eta horregatik jarritzen zitzaien gizonaren bizitza eritzen eta laburtzen duten kausei.

Haren zuhurtzia eta jakituria handiez ohartu zen Saulen zerbitzari hura, erran zuenean⁵⁹: "Jauna, musikari handi bat dazagut, Isairen semea, bethlehendarra, borrokarako adoretua, bere arrazoiengan zuhurra eta begirako ederra". Erraniko arrazoiengatik, egia da David gizon tenplatua zela, eta halakoei errege-makila zor zaiela, horien argimena Naturak egin dezakeen hoberena delako.

Baina doktrina honen aurka eragozpen bat ageri da, oso handia bera. Hau da: zergatik, Jainkoak Israelgo argimen eta trebetasun guztiak ezaguturik, eta gizon tenplatuak errege-ofizioak behar duen zuhurtzia eta jakituria daukatela jakinik, zergatik egin zuen lehenbiziko aukeran ez zuen horrelako gizon bat bilatu? Aitzitik, Testuak dioenez⁶⁰, Saul hain zen luzea, non sorbaldetatik gora Israelgo Herri osoa gainditzen zuen; eta seinale hau filosofian naturalean argimenerako aieru txarra izateaz gainera, Jainkoak berak, frogatu dugunez, Samueli agirika egin zion, Eliaben garaiera luzeak eraginik, Saul erregetzat gantzutu nahi zuelako.

Baina duda honek Galenok erranikoa⁶¹ egia dela deklaratu du, hots, Greziatik landa ametsetan ere ez dela gizon tenplatu bat aurkitzen. Zeren, Israel bezalako herri handi batean ez baitzuen Jainkoak bat aurkitu erregetzat ahutatzeke: baina David hazi eta handitu arte iguriki behar izan zen. Eta bitartean Saul hautatu zuen, Testuak dioenez Israel guztiko handiena zelako; baina egiazki haren ontasunak handiagoa izan behar zuen jakituriak baino, eta horrek bakarrik ez du balio erreinatu eta gobernatzeke. Bonitatem et disciplinam et scientiam doce me, zioen David errege profetak⁶², ikusirik ez diola erregeari probetxurik egiten bera on eta bertutetsua izateak, horrekin batera zuhurtzia eta jakituriarik ez badu.

David erregearen esenplu honekin badirudi aski berretsirik genuela geure iritzia: Baina Israelen beste errege bat ere jaio zen, zeinez erran baitzen: ubi est qui natus est rex iudeorum?⁶³ Eta baldin froga bageneza hura ilegorria, gizon jentila, gorputz ertainekoa, bertutetsua, osasuntsua eta zuhurtasun eta jakituria handikoa izan zela, horrek ez lioke gure doktrinari kalterik egiten. Ebangelariak ez ziren arduratu Kristo gure salbatzailearen eraketa kontatzen, tratatzen zutenari buruz ez zihoalako. Baina hori endelegatzeko gauza hagitx erraza da, gizona puntualki tenplatu izatea berez eduki dezakeen bikaintasun osoa baita; eta Izpiritu Sainduak hura eratu eta antolatu zuenez, egia da hura eratu zeneko kausa materialak, ez eta Nazareteko destenplantzak ere⁶⁴, ezin jarki ziotela, ez eta obra errarazi ere (beste agente natural batzuei bezala), aitzitik, nahi zuena egin zuen, gizon ezin hobea fabrikatzeko ahalmen, jakintza eta borondaterik falta ukan ez zuelako. Are gehiago, haren etorrera, Berak erran zuenez⁶⁵, gizonagatik trabailuak pairatu eta hari egia irakastea izan zela kontutan harturik; eta lehenago frogatua dugu tenperatura hau dela bi gauza horietarako tresna naturalik hoberena.

Eta, hortaz, egia delakoa daukat Publio Lentulo prokontsulak Jerusalemetik Erromako Senatuari izkiriatu zion azalpen hura, honela dioena:

"Gure denboretan gizon bat agertu zen, oraino bizi dena, bertute handikoa, Jesu Kristo deitua, eta horri jendeek egiazko profeta deitzen diote, eta haren dizipuluek Jainkoaren semea dela diote. Hilak berpizten eta eritasunak sendatzen ditu; garaieraz ertaina eta zuzena da, eta oso ikusgarria; haren aurpegian daukan erreberentzia hain da handia, non begiratzen diotenen burua makurtzen baitute hura maitatzen eta haren beldur izaten. Ileak hur ongi zorituaren kolorekoak ditu; belarrietaraino leunak dira; belarrietatik sorbaldetaraino argizari kolorekoak dia, baina are distira handiagoa darie. Kopetaren eta buruaren erdialdean arroila dauka, nazaretarren gisara. Kopeta laua du, baina osoki lasaia; bisaia zimurrik eta beltzunerik gabea, kolore moderatuarekin lagundurik; sudurra eta ahoa ezin ditzake inork arrazoiz gaitzets; bizarra ugaria du eta ileen antzekoa, baina erditik ebakia; begirada hagitx xaloea eta serioa du; begiak urdinak eta argiak. Errieta egiten duenean, ikaratzen du, eta zuzentzen duenean atsegin ematen. Maitagarria da; alegera da, seriotasunez; ez dute inoiz irriz ikusi, negarrez bai. Eskuak eta besoak arras ikusgarriak ditu. Solasean poz handia ematen du, baina horretan gutxitan aritzen da, eta aritzen denean hagitx umila da. Bistaz eta iritziz pentsa daitekeen gizonik ederrena da".

Azalpen honek gizon tenplatuaren hiruzpalau seinale dauzka. Lehena da ilea eta bizarra hur ongi zorituaren kolorekoa zuela, eta, ongi begiraturuz gero, gorri belzkara da; eta kolore hori eduki behar zuen, Jakinkoak, Kristoren figuran, sakrifikatzeke manatzen zuen zekorrek⁶⁶. Eta Zeruan, halako Printzeari zor zitzaion garaipen eta handitasunarekin, sartu zenean, haren haragipenaren berri ez zekiten aingeru batzuek honela erran zuten: *quis est iste qui venit de Edom, tinctis vestibus de Bosra?*⁶⁷ Galde balegite bezala: "Nor da lur gorritik datorren hau, jantziak gauza berberaz tindaturik?" Zeuzkan ile eta bizar gorriei begiraturuz, eta bera seinalatzen zuen odolari adi.

Gutun horrek, halaber, inoiz ikusi zen gizonik ederrena dela aipatzen du, eta horixe da gizon tenplatuak ukan behar duten bigarren seinalea. Eta, horrela, iragarririk zuen hori Eskritura Sainduak bera ezagutzeko: *speciosus forma prae filiis hominum*⁶⁸, eta beste leku batean honela dio: *pulchriores sunt oculi eius vino et dentes eius lacte candiores*⁶⁹. Eta gorputzaren edertasunak eta eraketa on horrek munta handia zuen guztiek hura onets zezaten eta gauza gaitzesgarri gabea izan ez zedin; eta, horrela, gutunak dioenez guztiak makurtzen ziren hura maitatzera. Badio, halaber, gorputzez ertaina zela; eta ez Izpiritu Sainduak, nahi ukan balu, hura handiagoa egiteko gaia falta ukan zuelako, baina arima arrazionala anitz hezur eta mamiz zamaturuz gero, lehenago frogatu dugunez, (Platon eta Aristotelesen ustez) argimenari kalte handia egiten zaiolako.

Hirugarren seinalea ere, hots, bertutetsu eta ohitura onekoa izatea, badakar gutun horrek; eta juduek, gezurrezko lekukoekin ere, ez zioten kontrakoa frogatu ahal, ez eta ihardetsi ere galdetu zienean: *quis vestrum arguet me de peccato?*⁷⁰ Eta Josefok, haren historiari zor zion fideltasunagatik, hartaz⁷¹ dioenez, bazirudien beste izaera bat zuela gizonarenaz gainera, haren ontasun eta jakituria kontutan harturik.

Luzaro bizitzea da Kristo gure salbatzaileaz ezin egiazta daitekeen bakarra, hain gazterik hil zelako; zeren haren ibilbide naturalean utzi balute, laurogei urte baino luzarago biziko baitzatekeen. Izan ere, basamortuan berrogei egunez beren gauekin jan eta edan gabe egon zitekeena, hil eta eritu ere egin gabe⁷², hobeki defenda zitekeen bera aldaraz eta min eman liezaioketen beste kausa arinagoetatik. Nahiz eta egintza hau miraritzat eta ezin gerta daitekeen gauzatat jotzen den.

Erregeez ekarri ditugun bi exenplu hauek aski ziren errege-makila gizon tenplatuari zor zaiela adierazteko, eta horiexek dutela ofizio horrek behar duen argimena eta zuhurtzia. Baina bada beste gizon bat Jainkoak bere eskuekin eginga, sorturiko gauza guztien jaun eta errege izan zedin. Eta halaber ilegorri, gizon jentil, bertutetsu, osasuntsu, bizitza luzeko eta ezin zuhurrago atera zuen. Eta hori frogatzeak ez dio gure iritziari kalterik egingen.

Platonek gauza ezinezkotzat dauka⁷³ Jainkoak ez Naturak tenperatura txarreko herrian gizon tenplatu bat egin ahal ukaitea; eta, horretara, badio ezen, Jainkoak lehenbiziko gizona hagitik jakintsu eta tenplatu egiteko, toki bat bilatu zuela, non airearen berotasunak ez zuen hoztasuna gaunditzen, ez eta hezetasunak lehortasuna ere. Eta jainkozko Eskriturak (berak errankizun hau aurkitu zuen lekuan alegia)⁷⁴ ez dio Jainkoak Adam lurreko Paradisuaren barnean sortu zuela (aipatzen duen leku ezin epelagoan, alegia), baizik eta hura eratu eta gero han ezarri zuela: *tulit ergo dominus Deus hominem et posuit eum in paradysum voluptatis ut operaretur et custodiret illum*⁷⁵. Zeren Jainkoaren ahalmena infinitua eta haren jakituria neurrigabea izanik, eta giza espezieak eduki zezakeen bikaintasun osoa emateko borondatearekin, sinestekoa da hura sortzeko erabili zuen lur zatiak, ez eta bera hazi zeneko damaskoan soroaren destenplantzak ez ziotela jarki ahal tenplaturik atera ez zezan. Platonen, Aristotelesen eta Galenoren iritzia Naturaren obrei doakie⁷⁶, eta beronek batzuetan herrialde

destenplatueta ere kausitzen du gizon tenplatu bat sortzen. Baina Adamek ilea eta bizarra gorrixka zituela (zein baita gizon tenplatuaren lehenbiziko seinalea), arras gauza argia da; zeren, ezaugarri hain nabarmen horri begiratuz, Adam izena jarri zioten, eta horrek erran nahi du, Done Hieronimok interpretatzen duenez, homo rufus⁷⁷.

Gizon jentil eta hagitz ongi eratua izatea, zein baita bigarren seinalea, ez dago, halaber, ukatzerik, Jainkoak hura sortu eta gero, Testuak honela dioelako: vidit Deus cuncta quae fecerat, et erant valde bona⁷⁸. Beraz, egia da ez zela Jainkoaren eskuetatik itsusi eta gaizki itxuraturik atera; zeren Dei perfecta sunt opera⁷⁹. Batik bat, Testuak zuhaitzez begirako ederrak zirela dioelako⁸⁰: nolakorik eginen zuen Adam, Jainkoak hura xede nagusitzat eta munduaren jaun eta lehen buru izateko eginik zeukanen!

Bertutetsu, jakintsu eta ohitura onekoa izatea, zein baita hirugarren eta seigarren seinalea, hitz haietatik ateratzen da: faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram⁸¹. Zeren, antzinako filosofoen arauz⁸², gizonak Jainkoarekin duen eitea sustraitzen den oinarria bertutea eta jakintza baita; eta, beraz, Platonek dioenez⁸³, Jainkoak zeruan hartzen dituen bozkariarik handienetako bat lurrian gizon jakintsu eta bertutetsua laudatzen eta handiesten entzutea da, halakoa beraren erretratu bizia delako. Aitzitik, haserre egoten da ergel eta biziotsuak estimatuak eta ohoratuak direnean, Jainkoaren eta horien artean den irudirik ezagatik⁸⁴.

Osasunean eta anitz egunetan bizitzea, zein baitira laugarren eta bosgarren seinaleak, ez da frogatzeko zaila; bere bizian bederatzehun eta hogeita hamar urte bete zituen eta.

Eta, horrela, honez gero konkludi dezaket ezen gizon ilegorria, gizon jentil, gorputz ertainekoa, bertutetsu, osasuntsu eta bizitza luzekoa, hori nahitaez ezin zuhurragoa dela eta errege-makilak eskatzen duen argimena daukala⁸⁵.

Bide batez, endelegu handia irudimen eta oroimen oparoarekin nola elkar daitekeen erakutsi dugu. Halere, beste molde bat ere bada⁸⁶, gizona tenplatu izan gabe; baina Naturak horrelako hain gutxi egiten dituzenez, nik ez dut bi besterik aurkitu aztertu ditudan argimen guztien artean. Gizona tenplatu ez denean, endelegu handia irudimen eta oroimen ugariarekin nola elkar daitekeen konprenitzeko erraza da, mediku batzuen iritzia jakinik, horiek diotenez irudimena burmuinaren aurreko aldean baitago, oroimena atzekoan eta endelegua erdikoan⁸⁷. Eta gauza bera erran daiteke guri iruditzen zaigunaz ere⁸⁸. Baina ongi asmatutako obra da, burmuinak, Naturak eratzen duenean, piper bihi bat bezalakoa izanik, bentrakulu bat hazi berozkoa, beste bat osoki hezea eta erdiko hagitz lehorra egitea⁸⁹. Baina, tira, kasu hori ez da ezinezkoa.

XV [1594.eko XVII-XXII.a]

Non ekartzen den gurasoek seme-alaba jakintsuak eta letrek behar duten argimenekoak nola sortarazi behar dituzten.

Kapitulu ohargarria da

Gauza hagitz mirezgarria da ezen, Natura guztiok dakigun bezalakoa izanik, zuhur eta trebea, arterio, jakintza eta ahalmen handikoa, eta gizona berak hainbeste ahaleginez egiten duen obra, halere, jakintsu eta zuhur bat egin duen baterako, kontaezineko argimengabeak sortzea. Eta ondorio horren arrazoi eta kausa naturalen bila ibiliz, neure kabuz aurkitu dut gurasoak ez direla ugaltze-egintzara etortzen Naturak ezarritako ordenaz eta kontzertuaz, eta ez dakizkitela beren seme-alabak zuhur eta jakintsu ateratzeko gorde behar diren kondizioak ere. Zeren, nolana hiko herrialde tenplatu edo destenplatueta, hagitz gizon argitsu bat sort daitekeen arrazoi beragatik, halako beste ehun mila aterako dira, gauzen ordena berbera gordez gero. Hau arteaz erremedia ahal bageneza, errepublikari egin lekiokkeen mesederik handiena egin geniezaioke¹.

Baina materia honek duen zailtasuna da bera hitz deduzko eta onestuekin ezin tratatzea, gizonak berez duten ahalkeak eskatzen duen bezala; eta, arrazoi beragatik, premiazko diligentzia edo oharpenen bat egin gabe utz bageneza, egiazki dena alferrik galduko litzateke². Hortaz, goi mailako anitz filosofoen ustea da gizon jakintsuek eskuarki seme-alaba oso ergelak sortarazten dituztela, haragizko egintzan haurrak aitaren jakituria atera dezan egin beharreko diligentzia garrantzitsu batzuk, onestasanagatik, egin gabe uzten dituztelako.

Ugaltzeko instrumentuak aitzinean agertzen zaizkienean begiek duten berezko ahalke honen arrazoa, eta horien izenak aditzean belarriek hartzen duten minaren kausa bilatzen ahalegindu dira antzinako filosofo batzuk, Naturak alderdi haiek hain diligentzia eta arta handiarekin eta hain garrantzi handiko xederako, giza leinua hilezina egiteko alegia, egin zituela espantaturik, zeren, halere, gizona zenbat eta jakintsuago eta zuhurragoa izan, are gehiago hondatzen baita haiei beha eta haien izenak entzuten dituenen. Ahalkea eta onestasuna, dio Aristotelesek³, endeleguaren grina berezia dela; eta ugalkuntzaren izen eta egintzekin saminduko ez litzatekeena egiazki ahalmen hori gabea⁴ litzateke, erran genezakeen bezala, ez duela ukimenik eskua surtan ezarririk erretzen ez dena. Aieru honekin eriden zuen Caton Nagusiak Manilio, gizon leinargia, endelegu urrikoa zela, bere andreari bere alabaren aitzinean musu ematen ziola informatu ziotelako; eta horrexegatik Senatuan zuen lekutik atera eta ezin zuten komentzitu senadore kopuruaren artean onets zezan⁵.

Honetaz oharturik, Aristotelesek problema bat egin zuen, galdetuz⁶: cur homines rem agere veneream cupientes, confiteri se cupere maxime pudet; bibendi aut edendi aut aliquid eiusmodi faciendi desiderio cum teneantur, confiteri non pudet? Erran balu bezala: "Zergatik ahalke da gizona, haragizko egintzarako gogoia duenean, hori adierazteko, eta jan edo edan nahi duenean, edo gisa honetako beste gauza bat egiteko, ez du hori azaltzeko eragozpenik?" Eta problema horri hagitik gaizki erantzuten dio erranez: an quod rerum plurimarum cupiditates necessariae sunt, et nonnullae, nisi expleantur, interimunt; rei autem venereae libido superfluit, et abundantiae index est; erran balu bezala: "badela gizonaren bizirako beharrezko gauza frankoren gogoia, eta batzuk hain munta handikoak, non obran ezartzen ez balira, hura hilko bailukete; baina maitasunezko egintzarako nahikundeia gehiago da oparotasunaren seinale, urritasunarena baino". Baina, egia erran, problema hau faltsua da, eta erantzuna ere bai. Zeren ez baita soilki gizona lotsa emakumeagana joateko gogoia duela adierazteko, baina jateko, edateko eta lo egiteko ere bai; eta irazkin bat kanporatzeko gogoia ukanez gero, ez da hori erraitera ausartzen lotsaz eta ahalkez ez bada, eta horrekin lekurik sekretuenera doa, inork ikus ez dezan. Eta badakuskigu gizon erabat herabeak, pixa larri handia izanik, hori ezin dagiketenak norbait haiei so badago, eta bakarrik utziz gero, puxiakak gernua berehala askatzen du. Eta hauek gorputzean sobera dagoena kanporatzeko gogoak dira; eta hori obran ezar ez baledi, gizona hil liteke, eta hagitik lasterrago jan eta edan gabe egoteagatik baino; eta baten batek beste baten aitzinean erraiten edo egiten badu, Hippokratesek dioenez, ez dago bere senean⁷.

Gernuak puxikarekin duen proportzio bera du, Galenok dioenez⁸, haziak hazi-hodiekin. Zeren gernu ugariak puxikari ertagiten dion bezala, handik egotz dezan, era berean eragiten die hazi ugariak hazi-hodieki. Eta gizona eta emakumea hazia barruan luzaro edukitzeagatik ez direla eritzen eta hiltzen Aristotelesek pentsatzea mediku guztien iritzien aurka doa, Galenoren ustez batik bat, beronek erran eta baieztatzen duenez⁹, anitz emakume, gaztetan alargunik gelditurik, konortea eta mugimendua, pultsua eta

arnasa galtzera etorri zirela, eta horren ondoan bizia ere bai. Eta Aristotelesek berak¹⁰ kontatzen ditu gizon kontinenteek arrazoi beragatik pairatzen dituzten eritasun ugariak. Problemaren egiazko erantzuna ezin eman daiteke filosofia naturalean, ez baitu hori bere barrutikoa. Eta, hortaz, goragoko beste zientzia batera iragan beharra dago, metafisika deitzen dutenera. Eta horretan Aristotelesek¹¹ dio arima arrazionala adimen guztietarik behereena dela; eta aingeruek duten izaera generiko berekoa delako, ahalketurik dago basa animaliekin kidetasunik duen gorputz batean sarturik egoteagatik¹². Eta, horretara, jainkozko Eskriturak (misterioa zeukan gauza gisa) ohartarazten du ezen, lehen gizona biluzik zegoenean, ez zela lotsatzen; baina bere burua horrela ikusirik berehala estali zela¹³. Eta une hartan ezagutu zuen bere ogenagatik hilezintasuna galdua zuela, eta gorputz aldagarri eta ustelkorra zuela, eta instrumentu eta alderdi haiek eman zitzaizkiola bera nahitaez hilko eta bere lekuan beste bat utzi beharko zuelako; eta bizitzeko zeukan denbora apur hura kontserbatzeko, jan eta edan behar zuela, eta beregandik irazkin txar eta kiratsak egotzi beharko zituela. Eta lotsa are handiagoa hazi zitzaion ikusirik ezen aingeruek, zeintzuekin berak harremanak zituen, hilezinak zirela eta ez zutela jan ez edan ez eta lorik ere egin behar bizia gordetzeko, eta ez zutela batzuek besteak sortarazteko instrumenturik ere, baina guztiak elkarrekin sortuak izan zirela, ezein materiatik atera gabe eta usteltzeko beldurrik gabe. Horretatik guztitik begiak eta belarriak ikasirik ateratzen dira; eta horrela arima arrazionalari min eta lotsa ematen dio, gizonari, hilgarria eta ustelkorra zelako, eman zizkioten gauzak¹⁴ burura ekartzeak¹⁵. Eta erantzun egokia hauxe dela argi ageri da. Zeren, Jainkoak, judizio unibertsalaren ondoan arima pozteko eta gloria osoa emateko, haren gorputzari aingeru-propietatez hornitu beharko baitu, hari sotiltasun, zalutasun, hilezintasun eta distira emanaz. Arrazoi horregatik ez dute jateko eta edateko premiari ukanen, basa animalien gisara. Eta Zeruan honela izanik, ez dira lotsa izanen beren buruak larrugorritan ikusteagatik, orain ere Kristo gure salbatzailea ez haren Ama ahalke ez diren bezala; aitzitik, gloria akzidentala dute, belarria eta begiei min eman ohi zieten alderdi haien erabilera jadanik bukatu dela ikustean.

Hortaz, belarriaren onestasan natural hau kontutan harturik, gai honetako hitz gogor eta latzen gainetik iragaten eta hura mintzatzeko molde bigunez itzulunguruak egitera saiatu naiz, eta hala ari ahal izan ez den lekuan, irakurle prestuak barkatu beharko nau. Zeren gizonak argimen txit fineko atera daitezen gorde behar den manera arte bikain bilakatzea errepublikak gehien behar dituen gauzetako bat baita. Areago, gainera, arrazoi beragatik bertutetsu, gizon jentilak, osasuntsuak eta bizitza hagituz luzekoak jaiko direla kontutan izanik.

Kapitulu honen materia lau atal nagusitan^a banatzea iruditu zitzaidan, erran behar denari argitasuna emateko eta irakurlea nahas ez dadin. Lehenbizikoa da, ugaltzeko, gizonak eta emakumeak eduki behar dituzten kalitateak eta tenperamentua erakustea. Bigarrena gurasoek nolako diligentziak egin behar dituzten haien haurrak gizonezkoak eta ez andrazkoak ilki daitezen. Hirugarrena, nola sortuko diren jakintsu eta ez ergel. Laugarrena, nola hazi behar diren, behin jaio eta gero, argimena kontserba dakien.

[I. ATALA] [1594.EKO XVII.A]

Beraz, lehen puntura etorririk, jadanik Platonez errana dugu errepublika ongi ordenatuan ezkontzalariek izan beharko luketela¹⁶, ezkonarazi behar lituzketen pertsonen kalitateak ezagutzen lekiketenak, gizon bakoitzari neurritz dagokion emakumea eta emakume bakoitzari bere gizon berezia emateko. Eta gai horretan hasi ziren lanean Hippokrates eta Galeno, eta arau eta erregela batzuk eman zituzten zein emakume den ugalkor eta zeinek haurrik ezin egin dezakeen jakiteko, eta zein gizon den ugaltzeko ez gai eta zein potente eta umekor. Baina honetaz guztiaz arras gutxi erran

zuten eta ez komeni bezain xeheki, nik behar dudan xederako behinik behin. Horregatik, arte hau bere hastapenetatik hasi beharko da, behar duen ordena eta kontzertua laburki emanez, nolako aita-amen elkartzetik ateratzen diren haurrak jakintsu eta zeinetatik ergel eta dorpe jakiteko.

Honetarako, lehenik halako filosofia partikularra jakin behar da, hura, arte honetan adituentzat hagitik nabarmen eta egiazkoa den arren, jende arrunta hor oso arduragabe baitabil, eta hori ongi jakitearekin loturik dator lehen puntuaz erran behar den guztia. Izan ere, gizona, ikusten diogun eraketazkoa dela iruditzen bazaigu ere, ez da ezberdintzen emakumeagandik, Galenok dioenez¹⁷, ez bada ernaltze-atalak gorputzetik kanpoan dituelako. Zeren neska baten anatomia egiten badugu, bere barnean bi barrabil, bi hazi-hodi dauzkala aurkituko baitugu, eta umetokiak giza zakilaren eraketa bera duela, inolako xehetasunik falta ukan gabe.

Eta hau hain da egiazkoa, non Naturak gizon betegin bat fabrikatzen bukatu eta gero, hura emakume bilakatu nahiko balu, ez bailuke beste lanik ukanen ugaltzeko-instrumentuak barnera itzultzea baino; eta, emakume eginik, hura gizon bilakarazi nahi ukanez gero, umetokia eta barrabilak kanpora egoztea besterik ez luke egin behar. Hau maiz gertatu zaio Naturari, bai umea gorputzean zein kanpoan egonik; eta historiak horrelakoez beterik daude, baina halere, zenbaitek uste ukan du hori fantasiatzkoa zela, poetek kontu hori esku artean zerabiltenez gero. Baina egiazki horrelaxe gertatzen da: Naturak maiz eme bat egin du eta hala izan da hilabete batez edo bigaz bere amaren sabelean, eta ugaltze-atalei nonbaitetik berotasun handia etorririk, horiek kanpora jalgi eta gizonetzko bilakaturik gelditzea. Eta aldaketa hau bere amaren sabelean gertatu zaionari, gero ere, argiro ezagutzen zaio berak darabiltzan mugimendu batzuetan, gizonetzkoen sexuari ahalkegarri zaizkionak: emeak, marimutilenak, ahots bigun eta eztiak; eta halakoak emakume-lanak egitera makurtuak izaten dira, eta komunzki bekatu higuinarian¹⁸ erortzen dira. Eta aitzitik, anitzetan, Naturak gizonetzkoa egina duenean, bere ugaltze-organoak kanpoan dituela, hotzaldia etorririk, haien barnera sartzen zaizkio; eta eme eginik gelditzen da. Eta jaio eta gero ezagun du gizon-areia duela, bai mintzatzeko moldean eta bai bere mugimendu eta obra guztietan ere. Honek frogatzeko zail dirudi; baina egiazko historialari anitzek diotena kontsideraturik, sinesterraza da oso. Eta behin jaio eta gero emakumeak gizon bilakatu direla entzuteak ez du jada jendea ikaritzen; antzinako anitz autorek egiatan kontatzen dutenaz landa ere, hori Espainian duela urte gutxi gertatua delako¹⁹. Eta esperientziak erakusten duenak ez du eztabaidarik ez aurkako argudiorik onartzen.

Ugaltzeko organoak barnean edo kanpoan zer arrazoiz sortzen diren, edo emea eta ez gizakumea zergatik agitzen den, gauza arras argia da, beroak gauza guztiak hedatu eta zabaltzen dituela eta hotzak horiek gelditzen eta apaltzen dituela jakinez gero: Eta horrela, filosofo eta mediku guztien ondorioan²⁰, hazia hotz eta hezea baldin bada, emea eginen dela eta ez gizona, eta bero eta lehorra izanez gero, gizona sortuko dela eta ez emea. Eta hortik klarki inferitzen da ez dagoela emakumearekiko hotz dei daitekeen gizonik, ez eta emakume berorik ere gizonarekiko.

Emakumeak, ugalkorra izateko, dio Aristotelesek²¹, hotz eta heze izan behar duela; horrelakoa ez balitz, ezinezkoa bailitzateke hilabetekoa etortzea ez eta esnea ukaitea ere, horrekin haurra bere sabelean bederatzi hilabetetan eta jaio ondoko bi urtetan elikatzeko: guztia agortu eta ahituko litzaiokeelako. Eta filosofo eta mediku guztiek diotenez²², umetokiak giza haziarekin daukan proportzioa, lurra gariarekin edo beste nolana hiko haziarekin daukan bera da. Eta badakusagu ezen, baldin lurra hotz eta heze ez baldin badago, ez direla laborariak ausartzen ereitera, eta hazia ere ez dela han atxikirik gelditzen; eta lurren artean, zenbat eta hoztasun eta hezetasun handiagoa ukan,

are direla ugalkorrago eta fruitukorrago, esperientziaz ageri den bezala, Iparreko lekuak kontsideraturik (Ingalaterra, Flandes eta Alemania), horiek fruitu guztietan duten oparotasunak horren arrazoia eta kausa ez dakitenak miraz utzirik. Eta horrelako herrietan ezein emakume, ezkonduz gero, ez da inoiz erditu gabe gelditzen, eta ez dakite han antzu izatea zer den: hoztasun eta hezetasun handiagatik guztiak umekor eta ugalkor direlako²³. Baina emakumeak, ernari gelditzeko, hotz eta heze izan behar duela egia izanik ere, halere, gerta daiteke soberaz hazia itotzea, ogiak euri gehiegirekin galtzen diren bezala, eta hotz handia denean ere ezin haz daitezke. Hortik konprenitzen da bi kalitate hauek nolabaiteko neurria gorde behar dutela, hortik igonez edo jaitsiz gero ugalkortasuna galtzen delako.

Hippokratesek umekortzat dauka²⁴ sabela epel duen emakumea, baldin hor beroak hoztasuna gaintzen ez badu, ez eta hezetasunak lehortasuna ere; eta horretara, badio sabel arras hotzak dauzkaten emakumeak ez direla ernaltzen, ez txit hezeak, ez eta arras bero edo lehorrak dauzkatenak ere. Baina arrazoi beragatik, emakumea eta haren ugaltze-organoak epelak balira, ezinezkoa litzateke ernaltzea, eta are gutxiago emakume izatea; zeren bera hasieran eratu zeneko hazia epela izan balitz, organoak kanpora jalgi eta gizon eginik geldituko baitzatekeen; eta horrekin bizarra hazi eta ez zitzaiokeen hilabetekoa etorriko; aitzitik, Naturak egin zezakeen gizakumerik bikainena izanen zatekeen. Era berean, ezin izan daiteke umetokia, ez eta emakumea ere, nagusiki bero; zeren, bera sortu zeneko haziak tenperatura hori baleuka, gizakume jalgiko zatekeen eta ez eme. Beraz, egia da, inolako faltarik gabe, emakumea ugalkor egiten duten bi kalitateak hoztasuna eta hezetasuna direla. Gizonaren izaerak, sortu eta kontserbatu ahal izateko, elikadura handia behar duelako. Eta, hori dela eta, badakusagu, basa animalien artean diren emeatarik bati ere ez zaiola hilabetekoa etortzen emakumeari bezala. Hori dela eta bera osoki hotz eta heze egin beharra izan zen, horrela anitz gorro-odol sor zezan, gero bera ezin gastatu eta ahituz. Gorro-odola erran dut, hauxe baita esnegintzarako egokia; eta, Galenok eta Hippokratesek²⁵ diotenez, umea hortixek elikatzen da sabelean dagoen denbora guztian. Eta epela balitz, anitz odol desegoki sortuko luke esnegintzarako; eta guztia urtuko luke gizon epelak egiten duen bezala, eta horrela ez litzateke deus sobera geldituko umea elikatzeko. Horregatik egiazat daukat, eta ezina da, ezein ere emakume epela ez bero izatea: guztiak hotzak eta hezeak dira. Eta ezperez, erran biezadate medikuek zergatik ezein emakumeri ez zaion bizarra hazten eta guztiei hilabetekoa etortzen zaien, osasunean daudenean; edo zer dela eta, bera sortu zeneko hazia epela edo beroa izanik, emea jalgi zen, eta ez gizakume.

Baina emakume guztiak hotz eta hezeak direla egia izanik ere, ez daude guztiak, ordea, hoztasun eta hezetasun gradu berean: batzuk lehenean daude, beste batzuk bigarrean eta beste zenbait hirugarrenean. Eta horietako edozeinetan geldi daiteke ernari, baldin gizona geroago erranen dugun berotasun-proporzioaren arauzkoa baldin bada. Emakumearen baitako hiru hoztasun eta hezetasun gradu hauek nolako seinaleekin ezagutu behar diren eta zein lehenengoan, zein bigarrean eta zein hirugarrenean dagoen, orain arte ez du ezein filosofo ez medikuk erran. Baina kalitate horiek emakumeengan egiten dituzten ondorioak kontsideraturik, trinkotasunaren arrazoiak bana ditzakegu, eta horrela aise endelegatuko da. Lehenengoa, emakumearen argimen eta trebetasunagatik; bigarrena, ohitura eta izaeragatik; hirugarrena, ahots lodi edo meheagatik; laugarrena, haragi ugari edo urriengatik; bosgarrena koloreagatik; seigarrena, biloengatik; zazpigarrena, edertasun edo itsustasunagatik.

Lehenengoari doakionez, jakiteko da ezen emakumearen argimena eta trebetasuna burmuinaren tenperamentuari darraiola (eta halaxe frogaturik utzi dugu lehenago), eta ez beste ezein organori, egia izan arren, halere, umetokiak eta haren barrabilek²⁶ gorputz osoa aldarazteko duten indarra eta kemena hainbestekoa izanez, hauek bero eta

lehorrak, edo hotz eta hezeak badira, edo beste nolanhiko tenperaturakoak, gainerako atalak ere, Galenok dioenez, gisa berekoak izaten direla²⁷. Baina umetokiaren aldarreei atxikienik dagoen organoa, mediku guztiek diotenez²⁸, burmuina da, hain kidetasun handia zertan oinarritu aurkitzen ez badute ere. Egia da, esperientziaz, Galenok frogatzen duela²⁹ behin urdeme bat zikiratu eta gero, berehala otzandu, gizendu eta haragia xamur eta zapoetsu egiten zaiola, eta barrabilekin, jateko, txakurkia bezalakoa dela. Hortik konprenitzen da umetokia eta horren barrabilak efikazia handikoak direla gorputzaren gainerako atalei beren tenperamentua: burmuinari batik bat, haiek bezala hotz eta hezea baita, horrexegatik beren artean (eitegatik) ibilbidea erraza izanik.

Eta baldin gogoan badugu hoztasuna eta hezetasuna alde arrazionala hondatzen duten kalitateak direla eta, horien aurkakoek, beroak eta lehortasunak, hura hobetu eta handitzen dutela, hala aurkituko dugu ezen argimen eta trebetasun handia erakutsiko lukeen emakumeak hoztasun eta hezetasuna ukanen dituela lehen graduan; eta arras tuntuna balitz, hirugarrenean izateko aierua da; eta bi mutur horietan partaide denean, ageri da bigarren graduan dela. Emakumea beroa eta lehorra izan daitekeela eta bi kalitate hauei darraizkien argimena eta trebetasuna eduki ditzakeela pentsatzea errakuntza handia delako³⁰; zeren bera sortu zuen hazia gehien bat bero eta lehorra izan balitz, gizakume jalgiko baitzatekeen, eta ez emea; eta hotz eta heze izan zelako, hai zuzen, jaio zen emakume eta ez gizon.

Doktrina honen egia klarki ageri da, munduan izan zen lehenbiziko emakumearen argimena kontsideratuz gero: Jainkoak bere eskuekin egina izan arren, eta bere sexuan hain bikain eta ongi asmatua, ondorio jakina baita Adamek baino anitzez gutxiago zekiela. Eta deabrua, hori endelegaturik, tentatzera joan zitzaion; eta ez zen ausartu gizakumearekin arrazoiketan hastera, haren argimen eta jakituria handiaren beldur zelako. Eta Evari Adamekin berdin izateko falta zuen jakitate guztia bere erruagatik kendu ziotela erraitea ezin froga dezake inork, artean bekatu egin ez zuelako. Beraz, lehenbiziko emakumeak hainbeste argimena ez ukaiteko arrazoia Jainkoak bera hotz eta hezea egina izatetik heldu zitzaion, horixe baita umekor eta erditzailea izateko behar den tenperamentua, eta jakituriari kontra egiten diona; eta Adam bezain epel atera balu, ezin jakintsuagoa zatekeen, baina hala ezin erdi zitekeen ez eta hilabetekoa etorri, naturaz gaindiko bidetik izan ezik.

Izaera horretan oinarritu zen Jaun Done Paulok hau erran zuenean: *mulier in silentio discat cum omni subiectione; docere autem mulieri non permitto neque dominari in virum, sed esse in silentio; erran balu bezala: "ez dut nahi emakumeak irakats dezan, baizik eta dagoen ixilik eta ikas dezan eta bere senarraren menean egon dadin"*³¹. Baina hau aditzen da emakumeak bere egoera naturalaz gainera beste izpiriturik ez graziarik ez duenean; baina goitiko dohainen bat erdiesten badu, orduan ongi mintza eta irakats dezake. Izan ere, badakigu, Israelgo herria zapaldurik eta asiriarrak inguratua zenean, Judith emakume ezinago jakintsuak dei eragin ziela Kabri eta Karmi apezpei, eta errieta egin zien, ziotzela³²: "Nondik jasan daiteke Oziak erraitea ezen bost egunen buruan laguntzarik heldu ez bazaio, Israelgo herria asiariarrei eskuetara emanen diela? Ez ote dakusazue hitz horiek Jainkoa haserrera bultzatzen dutela, eta ez urrikaltzera? Zer da, bada, gizonak Jainkoaren urrikalmenduari epe mugatua ezartzea eta beren gogara Hari zein egunetan sorotsi eta askatu behar dituen seinalatzea?" Eta agiraka egin eta gero, Jainkoa nola otzandu behar zuten eta eskatzen ziotena Beragandik eskuratzeko modua erakutsi zien. Deborak ere³³, hura bezain emakume jakintsuak, Israelgo herriari irakasten zion Jainkoari nola eskerrak eman behar zizkion bere etsaien aurka erdietsiriko garaipen handiagatik. Baina emakumea bere egoera naturalean geldituz, haren argimenak higuin ditu letra eta jakituri era guztiak. Hori dela eta, Eliza katolikoak

arrazoi handiz debekaturik dauka ezein emakumek predikatzea ez inor konfesatzea, ez irakastea; haien sexuak ez baitu zuhurtziarik ez diziplinarik onartzen³⁴.

Emakumearen ohitura eta izaeragatik ere igartzen da bere temperamentua nolako hoztasun eta hezetasun graduan duen. Zeren argimen zorrotzarekin zakar, latz eta gozakaitza bada, orduan hoztasun eta hezetasunaren lehen graduan baitago. Eta egia izanez (lehenago frogaturik utzi dugunez) izaera txarra³⁵ beti ere irudimen onari datxekiola, honelako hoztasun eta hezetasun puntua duenak ez du deus ere oharkabean pasatzen uzten; guztiaz ohartzen da eta errieta egiten du, eta horrela ezin jasanekoa da*. Hainak solasturi onak izaten dira, ez dira gizonak ikusteaz espantatzen, eta ez daukate zerbitzari gaiztotzat lausenguren bat erraiten diena**. Aitzitik, emakumea izaera onekoa izateak, hari ezerk ere arrenkurarik ez emateak, noiznahi irri egiteak, ezertaz ere ez kezkatzeak eta arras ongi lo egiteak hoztasun eta hezetasunaren hirugarren gradua salatzen du. Animuaren soberazko biguntasuna komunzki gutxi jakitearen konpainian ibiltzen baita. Bi mutur horien partaide dena bigarren graduan dagoke.

Ahots gogorra, sendoa eta latza, dio Galenok³⁶, bero eta lehortasun handiaren seinale dela; eta lehenago ere hala frogatua dugu Aristotelesen iritziarekin. Hortik endeleगतuko dugu ezen, baldin emakumeak gizonaren gisako ahotsa badu, hotz eta hezea dela lehen graduan; eta oso delikatua izanez gero, hirugarrenean dela; eta bi muturren partaide bada, emakume-mintzo naturala ukanen duela eta bigarren graduan izanen. Mintzoak barrabilen pean nolako menekotasuna duen gero frogatuko dugu, gizonaren seinaleak ukituko ditugunean.

Emakumearen soberazko haragiak ere hoztasun eta hezetasun handiko argudioak dira, gantza eta lodiera, medikuen erranetan, animaliangan arrazoi horregatik sortzen direlako. Eta, aitzitik, mehe eta iharra izatea hoztasun eta hezetasun urrikoa izateko aierua da. Eta haragi ertainak ukaitea, ez gutxi ez asko, emakumea hoztasun eta hezetasunaren bigarren graduan dagoelako seinale gertua da. Horien biguntasunak eta laztasunak ere bi kalitate hauen graduak erakusten ditu: hezetasun handiak haragiak bigundu egiten ditu; urriak, laztu eta gogortzen ditu; eta ertainak era onekoak ditu egiten.

Aurpegiaren eta gorputzaren gainerako atalen koloreak ere bi kalitate horien trinkotasuna eta murrizpena agertzen ditu. Emakumea hagitx zuria izatea, dio Galenok³⁷, hoztasun eta hezetasun handiko seinalea dela; eta, bestetik, beltzarana eta berdebelxka dena hoztasun eta hezetasunaren lehen graduan dela; eta horien bi muturretatik egiten da bigarren gradua, eta ezagun da, batera bigun eta gorria delako³⁸. Bilo ugaria eta bizar pixka bat ukaitea seinale nabarmena da hoztasunaren eta hezetasunaren lehen gradua ezagutzeko. Zeren, ileen eta bizarraren sorrera jakinik, mediku guztiek erraiten baitute berotik eta lehortasunetik heldu direla; eta beltza badira, horrek bero eta lehortasun handia adierazten du. Aurkako tenperatura emakumea arras bizargabea, bilo eta ileskarik gabea denean igartzen da. Hoztasun eta hezetasunaren bigarren graduan dagoenak bilo pixka bat du, baina horaila eta urreztatua.

Itsustasunak eta edertasunak ere lagundu egiten dute emakumeak hoztasun-hezetasunean dituen graduak ezagutzera. Lehen graduan, inoiz gutxitan jalgitzen da emakume ederrik, mirariz ez bada; zeren, bera eratu zuen hazia lehorrik zegoenez, horrek eragotzi zion ongi itxuraturik ateratzen. Buztinak behar den umidura eduki behar du eltzegileak hari itxura eman eta harekin nahi duena egin dezan, eta gogor eta lehorrik dagoenean, ontziak itsusi eta gaizki moldatuak ateratzen ditu. Halaber, soberazko hoztasun eta hezetasunatik, dio Aristotelesek, egiten dituela Naturak emakumeak itsusi, zeren hazia hotz eta hagitx urtsua baldin bada, ezin ongi molda baitaiteke, gogortasunik ez daukalako; ikusi ohi dugunez, buztin bigun-bigunaz ontzi gaizki itxuratuak egiten diren bezala. Hoztasun eta hezetasunaren bigarren graduan emakumea txit ederra

jalgitzen da, gai ongi prestatutik eta Naturari obedientetik egina delako. Eta seinale hori, berez bakarrik, emakumea umekorra izateko argudio nabaria da; zeren egia baita Naturak hura egitean asmatu zuela, eta, beraz, sinesteko da erditzeko behar den temperamentua eta eraketa eman ziola. Eta, horrela, ia gizon guztiei neurritz dagokie eta guztiek haren irrika dute. Ez dago gizonaren baitan bat ere ahalmenik bere objektuaren ontasun edo gaiztotasuna igartzeko aieru edo seinalerik ez daukanik. Urdailak jangaiak dastamenaz, usaimenaz eta ikusmenaz ezagutzen ditu; eta, horretara, jainkozko Eskriturak dioenez, Evak begiak zuhaitz debekatuan ezarri zituen eta jateko leuna zela iritzi zion. Ugalmenak ere umekortasun-seinaletzat emakumearen edertasuna dauka; eta, hura itsusia bada, gaitzesten du, aieru horri esker Naturak hura gaizki egin eta ez ziokeela eman haurrak egiteko temperamentua aditurik³⁹.

[1594.EKO XVIII.A]

Nolako seinaleekin ezagutzen den gizon bakoitza zein berotasun eta lehortasun gradutan dagoen

Gizonak ez du bere temperamentua emakumeak bezain mugaturik; izan ere, bero eta lehorra izan daiteke (eta temperatura hauxe da, Aristotelesek pentsatzen duenez, sexu honi gehien komeni zaiona), eta bero eta hezea, eta epela ere bai. Baina hotz eta hezea, eta hotz eta lehorra ezin onar daiteke (gizona osasunean eta zauririk gabe dagoenean); zeren emakume bero eta lehorrik, ez bero eta hezerik, ez epelik ez dagoen arrazoi beragatik, era berean ez da gizonik hotz eta heze, ez hotz eta lehorra denik, emakumeekin konparatuz, gero erranen dudan moldeaz ez bada.

Gizon bero eta lehorrak, eta bero eta hezeak, eta epelak ere, bere temperamentuan emakumeak hoztasun eta hezetasunean dituen hiru graduak berak ditu; eta horretara, premiazkoa da aieruak ukaitea gizona zein gradutan dagoen haztatzeko, horren arabera doakion emakumea eman dakion. Eta, beraz, jakiteko da ezen emakumearen temperamentua eta zeukan hoztasun eta hezetasun gradua igartzeko erran genituen hastapen berak erabili beharko ditugula zein gizon den bero eta lehor, eta zein gradutan den, jakiteko.

Eta gizonaren argimena eta ohiturak barrabilen temperamentutik igartzen dela erran baikenuen, Galenok dioen⁴⁰ gauza ohargarri bat aipatu beharra dago; eta gizonaren barrabilek gorputzaren atal guztiei gogortasun eta temperamentua emateko daukaten bertute handia adieraztera emateko, bihotzak baino munta handiagoa dutela dio. Eta horren arrazoa ematen du erranez organo hori bizitzeko hastapena dela eta ez besterik; baina barrabilak ongi eta ajerik gabe bizitzeko hastapenak direla.

Eta gizonari atal hauek, txikiak badira ere, kentzeak zenbat kalte egiten dion frogatzeko ez da anitz arrazorik beharko. Izan ere, esperientziaz dakusagu berehala ilea eta bizarra erortzen zaiola; eta ahots gogor eta sendoa mehe bilakatzen zaio; eta horrekin indarrak eta bero naturala galtzen ditu, eta emakumea balitz baino egoera txarrago eta urrikgarriagoan gelditzen da. Baina gehienik ohartu behar dena da ezen, gizona zikiratu baino lehen, argimen eta trebezia handia bazuen, behin barrabilak moztu eta gero hura galtzen duela, burmuinean bertan zauri nabarmenen bat jasan balu bezala. Eta hori begien bistako argudioa da barrabilek gorputzaren atal guztiei temperamentua eman eta kentzen diotela frogatzeko⁴¹. Eta ezperez, kontsidera dezagun, nik maiz egin dudanez, letretan saiatzen diren mila irenduetarik ez dela bat bera ere haien jabe ateratzen; eta musikan, zein baita haien ohiko lanbidea, are nabariago izaten da zein gozakaitzak diren; eta horren kausa da musika irudimenaren obra izatea, eta ahalmen horrek bero handia eskatzen du, eta haiek hotz eta hezeak dira. Hortaz, egiazki, argimen eta trebetasunari esker aterako dugu barrabilen temperamentua. Eta, beraz, irudimenaren obretan zorrotz ager litekeen gizonak beroa eta lehortasuna hirugarren graduan ukanen ditu; eta baldin gizonak gauza handirik ez baleki, beroari hezetasuna atxiki zaiolako

seinalea da hori, horrek beti alde arrazionala alferrik galtzen du eta; eta areago berretsiko da baldin oroimen handia badauka.

Hirugarren graduako gizon bero eta lehorren ohitura arruntak hauek dira: adorea, hantustea, liberaltasuna, lotsagabekeria, eta txairotasun eta hagitz xarma onarekin ibiltzea; eta emakume-kontuetan ez dute traba ez neurririk ukaiten. Bero eta hezeak alaiak, irrikorak eta denborapasen lagunak dira; egoera xumekoak dira eta erabat atseginak; ahalketiak eta ez dira emakumetara arras emanak.

Ahotsak eta mintzoak biziki salatzen du barrabilen temperamentua⁴²: eta lodia eta latz xamarra denean, gizona hirugarren graduan bero eta lehorra izateko aierua da, eta mehea, maitakorra eta oso fina bada, berotasun urri eta hezetasun handiko seinalea da, gizon zikiratuengan ageri den bezala. Eta beroarekin hezetasuna elkartuko lituzkeen gizonak ahots lodia baina mehea eta ozena ukanen du.

Hirugarren graduan bero eta lehorra den gizonak haragi gutxi dauzka, gogor eta latzak, nerbioz eta giharrez eginak, eta zainak hagitz zabalak; eta, aitzitik, haragi ugari, leun eta bigunak ukaitea hezetasuna edukitzeko aierua da, eta horregatik bero naturalak dena zabaldu eta hedarazten du.

Larru-kolorea ere, berau beltzarana, errea, berde-belxka eta hausgara bada, gizona berotasun eta lehortasunaren hirugarren graduan izateko aierua da; eta haragi zuri-gorriak badauzka, horrek bero urria eta hezetasun ugariagoa salatzen du.

Ilea eta bizarra da, ordea, gehienik begiratu behar den seinalea, bi gauza hauek arras atxikiak baitira barrabilen temperamentuari. Eta baldin ilea ugari, beltz eta lodia bada, izterretatik zileraino batik bat, barrabilek berotasun eta lehortasun handia edukitzeko seinale dudagabea da⁴³; eta sorbaldetan zenbait zurda baditu, are gehiago berresten dira. Baina ilea, bizarra eta biloa gaztaina, bigun, fin eta urria direnean, ez du hain bero ez hezetasun handia iragartzen barrabiletan.

Gizon osoki bero eta lehorrak ez dira hagitz ederrak ateratzen, mirariz ez bada; aitzitik, itsusiak eta gaizki moldatuak dira; beroak eta lehortasunak, Aristotelese⁴⁴ Etiopiakoez dioen bezala, aurpegikera okerrarazten dutelako, eta horrela itxura txarreko jalgitzen dira. Baina bestetik, ongi aterea eta txairoa izateak bero eta hezetasu ertaina erakusten du, eta horregatik gaiak Naturak egin nahi duenari obeditzen dio; eta horrela egia da gizonaren edertasun handiak ez duela berotasun handirik salatzen.

Gizon tenplatuaren seinaleez luzaz mintzatu gara iragan den kapituluan; hori dela eta, ez dira hemen berriz ere aipatu beharko. Dena den, komeni da ohartzea ezen, medikuek berotasun gradu bakoitzean hiru trinkotasun maila ezartzen dituzten bezala, gisa berean gizon tenplatuaren baitan ere beste hiruren luzera eta zabalera ezarri behar dela⁴⁵; eta hirugarrenean legokeenari, hostasun eta hezetasunerantz, jadanik hotz eta heze iritziko zaio, zeren gradu batez erdibitzen denean, beste baten antza hartzen baitu. Eta hau egia dela klarki ageri da, Galenok⁴⁶ gizon hotz eta hezea ezagutzeko dakartzan seinaleak gizon tenplatuarenak berak baitira, apur bat murrizagoak; eta horrela, jakintsua da, manera onekoa, bertutetsua: mintzo argia du, eta ezta; zuria da, haragi on eta bigunekoa, eta bilorik gabea, eta baldin zerbaixka badu, urria eta urre kolorekoa da. Gisa honetakoak oso ilegorriak dira, eta aurpegiz eder. Baina horien hazia, dio Galenok⁴⁷ urtsua dela eta ernaltzeko ezgai. Hauek ez dira emakumeen lagun handiak, ez eta emakumeak haienak ere.

[1594.EKO IX.A]

Zein emakumek zein gizonekin ezkondu behar duen
haurdun gera dadin

Ezkondurik egon eta erditzen ez den emakumearengan Hippokratesek⁴⁸ manatzen du bi diligentzia egin behar direla jakiteko ea bere erruz ote den ala senarraren hazia

ernaltzeko ezgai ez delako. Lehenbizikoa intsentsuz edo estorakez⁴⁹ behetik keztatzea da, jantzia gorputzari ongi hertsiz eta zaiak zorutik herrestan egonik, halako manieraz non lurrunik eta kerik bat ere handik atera ez dadin; eta handik apur batera intsentsuaren zaporea ahoan nabaritzen gero, seinale gertua da ez erditzea ez dela haren erruagatik, keak umetokiaren bideak irekiak aurkitu baitzuten, hortik sudur eta ahoraino etorri. Bestea da baratxuri buru bat, bizitaraino zuritua, hartu eta umetokiaren barnean ezartzea emakumeak lo egin nahi duen garaian; eta biharamunean ahoan baratxuriaren zaporea senti badeza, hura umekorra da inolako dudarik gabe⁵⁰. Baina bi frogak hauek, Hippokratesek dioen ondorioa egin balezate ere, hau da, lurruna barneko aldetik ahoraino sartzea, ez du frogatzen senarraren antzutasun absolutua ez eta emaztearen umekortasun osoa ere, bien arteko egokitasun txarra baizik. Eta horrela, emaztea senarrarekiko bezain antzua da senarra emaztearekiko; eta hori esperientziaz egunero ikusi ohi dugu, gizona beste batekin ezkondu ondoren, seme-alabak ukaiten dituelako. Eta filosofia natural hau ez dakitenak gehienik harritzen dituen gauza da, inpotentzi arrazoa aipatuz biak elkarrengandik banatzen direnean, eta senarra beste emakume batekin eta emaztea beste gizon batekin ezkondu, biek ondorengoak ukaiteak. Eta horren kausa da badirela gizon batzuk emakume batekin ugaltzeko ez dutenak, baina beste batentzat ahaltsu eta umekorrak dira; esperientziaz urdailean dakusagun bezala: jaki baterako gizonak apetitu ona baitu, eta beste baterako, jaki hobea izan arren, hilk bezala dagoen artean.

Gizonak eta emakumeak ondokorik izateko nolako egokitasuna eduki behar duten, Hippokratesek dio, honela⁵¹: nisi calidum frigidum et siccum humidum, modo et aequabilitate respondeat nihil generabitur; erran balu bezala: "emakumearen umetokian bi haziak elkar ez balitez, bata beroa eta bestea hotza, edo bata hezea eta bestea lehorra, trinkotasun gradu berean, ez da deus ere sortuko". Gizonaren eraketa bezalako obra miregarri batek epeltasuna behar duelako, hori beroa hoztasunari aitzindu gabe, ez eta hezetasuna lehortasunari ere; eta horregatik, gizonaren hazia beroa eta emakumearena ere gisa berekoa denean ez da sorkuntzarik egingen.

Behin doktrina hau onetsirik, har dezagun orain, esanplu gisa, lehen graduko emakume hotz eta hezea, zeinen seinaleak ziren, erran genuen bezala, oharria, izaera txar eta ahots gogorrekoa, haragi gutxikoa, berdebeltza, iletsua eta itsusia izatea. Hau erraz geldituko da ernari izaera oneko, ahots bigun eta ezti, haragi zuri eta bigun ugari, ile gutxi, ilehori eta aurpegiz eder litzatekeen gizon ergel batekin. Emakume hau, halaber, gizon tenplatu batekin ere ezkon daiteke, horren hazia, erran genuenez, Galenoren iritzi⁵², hagitik ugalkorra eta zernahi emakumerentzat egokia delako; berau osasunean eta adin egokian egonez gero, bistan da. Baina, horrekin guztiarekin ere, ernaltzeko arraz gaitza da; eta izorra gelditzen bada, dio Hippokratesek, bi hilabete geroago egotzi egiten duela, ez baitauka odolik bai bera eta bai haurra bederatzi hilabetez elikatzeko. Baina hau erraz erremedia daiteke emakumea ugaltze-egintzara ailegatu baino lehen maiz bainatuz; eta bainuak ur gozo eta epelekoa izan behar du, horrek, Hippokratesek dioenez⁵³, emakumearen egiazko tenperatura egiten baitu, haragiak nasaitu eta hezaraziz (zein baita lurrak eduki behar duen epeltasuna gari garauak sustraiak atera eta lurri atxikitzeko); eta ondorio handiagoa ere egiten du, hots, jateko gogoia piztea; eta lurruntzea debekatzen du eta bero naturala aregotzen; eta horregatik anitz gorro-odol metatzen du horrekin bederatzi hilabetez haurra mantentzeko.

Hirugarren graduan hotz eta heze den emakumearen seinaleak tuntuna eta izaera onekoa izatea da; haragi ugari dauka, bigun eta zuria, ez du ile ez bilorik eta ez da eder-ederra. Honek hirugarren graduko gizon bero eta lehorrarekin ezkondu behar du, haren hazia hain sutu eta irakina denez, arraz toki hotzean erori behar baitu han atxiki eta erroak ateratzeko: hazi horrek iturri-belarren kalitatea du, zeinek uraren barnean ez bada ezin

sort baitaitezke. Eta bero eta lehortasun apalagoa baleuka, umetoki hain hotz eta heze horretan erortzea ez litzateke garia aintzira batean ereitea baino hobea. Honelako emakumeak, Hippokratesek kontseilatzen duenez⁵⁴, ezkondu aitzin mehetu eta gantzak urritu behar ditu. Baina orduan ez da komeni hain gizon bero eta lehorrarekin elkartzea, ez baitu tenplanta onik eginen ez eta izorra geldituko.

Bigarren graduan hotz eta heze litzatekeen emakumeak erran ditugun seinaleetan neurria dauka, edertasunean izan ezik, hor goren maila baitu. Eta, horrela, umetsu eta erdikorra izateko aieru nabaria da grazia eta itxura onekoa aterea izatea. Hori neurritz ia gizon guztiei doakie: lehen-lehenik bigarren graduko bero eta lehorrari, eta gero epelari, eta horren ondoan bero eta hezeari.

Erran ditugun gizon-emakumeen konbinazio eta elkarketa hauetatik guztietatik haurrak jakintsu atera daitezke, baina lehenbizikotikoak arruntagoak dira. Gizonaren haziak hoztasun eta hezetasunera makurtarazten badu ere, amaren etengabeko lehortasunak eta hain hazkurri gutxi emateak aitaren akats hori zuzendu eta ontzen duelako.

Eta filosofatzeko manera hau argitara jalgi ez delako, ezin ukan diote filosofo natural guztiek honela dioen problemari erantzun⁵⁵: cur plerique stulti liberos prudentissimos procrearunt? Erran balu bezala: "Zergatik gizon ergel gehienek haur jakintsu-jakintsuak sortarazten dituzte?" Eta horri erantzuten diote gizon ergelak haragizko egintzan zinzinez saiatzan direla eta ez direla beste inolako behakuntzaz oharkabetzen; eta gizon hagitz jakintsuek osoki bestela jokutzen dute, horiek haragizko egintzan ere egiten ari direnaz kanpoko gauzak irudikatzen ari ohi direlako, eta horregatik hazia ahuldu eta haur mentsak egiten dituzte, bai ahalmen arrazionalan eta bai naturaletan ere⁵⁶. Baina honela filosofia natural gutxi dakiten gizonak erantzuten dute. Gainerako elkarketetan iguriki behar da harik eta emakumea adin bikainarekin xukatu eta lehortu arte, hura neskaxa garaian ezkondu gabe⁵⁷. Seme-alabak ergelak eta jakite urrikoak ateratzea honexetan baitatza: guraso gazteegien hazia hagitz hezea da, haien duela gutxi sortu zirelako; eta gizona soberazko hezetasuna daukan materiaz egiten bada, nahitaez argimenez dorpe atera beharko du.

[II. ATALA] [1594.EKO XX.A]

Nolako diligentziak egin behar diren, gizonetzkoak, eta ez emakumezkoak, atera daitezen

Haur jakintsuak eta letretarako trebeak ukaiteko poza nahi duten gurasoek ahalegindu behar dute gizonetzkoak sort daitezen; zeren emakumezkoek, beren sexuaren hoztasun eta hezetasunagatik, ezin erdiets baitezakete argimen sakonik. Dakusagunez, trebetasun itxuraz zenbait gai arin eta errazez besterik ez dira mintzatzen, hitz komun eta hagitz ikasiekin; baina letretan sarturik, ezin ikas dezakete latin pixka bat besterik, eta hori oroimenaren obra delako. Baina zakartasun horren errua ez da emakumeena, haien eme egin zituzten hoztasun-hezetasunek baizik, hots, lehenago frogatu dugunez, argimen eta trebetasunari kontra egiten dioten kalitate horiek berak.

Salomonek, zein gizon zuhur gutxi dagoen kontsideraturik eta ez dela emakumerik bat ere sortzetik argimenaz eta jakituriaz horniturik, honela erran zuen⁵⁸: virum unum de mille reperi, mulierem ex omnibus non inveni; erran balu bezala: "mila gizonetan bat atzeman dut zuhur, baina emakume ororen artean ez dut bat ere kausitu zuhurtziaz hornitua". Beraz, sexu horretatik ihes egin behar da eta haurra gizonetzko jaiotzeko ahaleginak egin behar dira, letrek behar duten argimena horretan besterik aurkitzen ez delako. Horretarako, lehenik beharrezkoa da kontsideratzea ea Naturak nolako tresnak ordenatu dituen giza gorputzean egiteko honetarako, eta kausetan zer ordena gorde behar den, nahi dugun xedea erdiesteko.

Eta horrela, jakiteko da giza gorputzean diren anitz irazkin eta humoreen artean, Galenok aipatzen duenez⁵⁹, bakar batez baliatzen dela Natura, gizonen leinua buka ez dadin. Hau irazkin bat da gazura edo odol serosoa deitua, eta gibelean eta zainetan sortzen da, lau humoreek (odolak, gorroak, kolerak eta malenkoniak) ukan behar duten forma eta substantzia erdiesten duten denboran. Honelako isurkia darabil naturak jakia⁶⁰ urtzeko eta zainetatik eta bide hertsietatik iraganarazteko, mantenua gorputzaren parte guztietara eraman dezan. Behin obra hori bukatu eta gero, Naturak berak hura bi giltzurrunez hornitu zuen, horien ofizioa bakarra gazur hori berengana erakarri, beren bideetatik puxikara eraman eta hortik gorputzetik kanpora jaurtikitzeko, eta hori, gizona, irazkin horrek ekar liezaiokeen laidotik libratzeko. Baina sortarazteko kalitate batzuk zituela ikusirik, bi zainez hornitu zuen, haren parte bat barrabiletara eta hazi-hodietara eraman zezaten, odol pixka batekin, horrekin giza espeziari komeni zaion hazia egin dadin. Eta, horretara, eskuineko giltzurrunean zain bat ezarri zuen⁶¹, eta hortixek egiten da eskuineko hazi-hodia. Beste zaina ezkerreko giltzurrunetik jalgitzen da eta ezkerreko barrabilean amaitzen, eta era horretan egiten da ezkerreko hazi-hodia⁶².

Irazkin horrek nolako kalitateak dauzkan eta, horiek direla medio, hazia sortzeko komenigarria zergatik den, dio Galenok berak⁶³, heldu dela gazi izateak ematen dion laztasun eta erresuminetik, eta horrekin hazi-hodiak kitzikatzen ditu eta animalia mugiarazten du ugalketa erdiestera, oharkabetu gabe; hori dela eta gizon hagitz lizunkoiei latinez salaces erraiten zaie, horrela hazian gatz anitz daukatela erran nahirik⁶⁴.

Horrekin Naturak beste gauza bat egin zuen, arreta handiz kontsideratzekoa; hots, eskuineko giltzurrunari eta eskuineko barrabilari bero eta lehortasun handia eman zien, eta ezkerreko giltzurrunari eta ezkerreko barrabilari hotz eta hezetasun handia. Horregatik, eskuineko barrabilean lantzen den hazia bero eta lehorra ateratzen da, eta ezkerreko barrabilekoa hotz eta heze⁶⁵.

Naturak, giltzurrun, barrabil eta hazi-hodietako temperamentu ugaritasun honekin zer erdietsi nahi duen gauza arras argia da, historia hagitz egiazkoen bidez jakinik ezen munduaren hasieran, eta anitz urte geroago ere, emakumeak beti bi haurrez erditzen zirela sabel beretik, eta bata gizakume eta bestea emakume sortzen zela⁶⁶; eta helburuz hura zen gizon bakoitzak bere emaztea ukan zezan, eta emakume bakoitzak bere gizona, giza leinua berehala ugaltze zedin. Beraz, eskuineko giltzurrunak eskuineko barrabilari gai bero eta lehorra eman ziezaiola erabaki zuen, horrek, bere bero eta lehortasun handiarekin, hazi bero eta lehorra egin zezan, horrekin gizakumea sortarazteko. Emea sortarazteko, horren aurkakoa ordenatu zuen, ezkerreko giltzurrunak gazur hotz eta hezea igor ziezaiola ezkerreko barrabilari, honek, bere hotz eta hezetasunarekin, hazi hotz eta hezea egin zezan, hortik nahitaez emakume eta ez gizakume sortarazteko*.

Baina, behin lurra gizonez bete eta gero, irudi du jatorrizko ordena eta kontzertu hau deuseztu eta sorkuntza erdibitu dela; eta are okerrago dena, gizakume bat sortzen denerako, komunzki sei edo zazpi emakume sortu ohi dira. Horregatik aditzen da, Natura jadanik nekaturik dagoela, edo tartean errakuntzaren bat dela, hark nahi zuen bezala obratzera oztopatzen diona**. Errakuntza hori zein den aitzintxeago erranen dugu, haurra okerrik gabe gizakume izan dadin gorde behar diren baldintzak dakartzagunean.

Eta horrela, badiot ezen, gurasoek xede hori erdietsi nahi badute, arta handiz sei diligentzia egin behar direla. Horietariko bat elikagai bero eta lehorrak jatea da; bigarrena, horiek urdailean ongi egosten ahalegintzea; hirugarrena, ariketa ugari egitea; laugarrena, ugaltze-egintzara ez etortzea harik eta hazia egosia eta ongi heldua egon

arte; bosgarrena bere emaztearekin hilebetekoa heldu baino lau edo bost egun lehenago harremanak ukaitea; seigarrena, hazia umetokiaren eskuinaldera erortzen ahalegintzea. Eta erranen dugun bezala horiek bete eta gero, ezinezkoa da emakumea sortaraztea.

Lehenbiziko baldintzaz den bezainbatean, jakiteko da urdail onak jakia egosi eta eraldatzen duela eta lehenago zituen kalitateetatik erazten duela, baina ez dizkiela inoiz haiek guztiz kentzen. Zeren baldin urazak jaten baditugu, zeinen kalitateak hoztasun eta hezetasunak diren, haietatik sortuko den odola hotz eta hezea izanen baita, eta gazura hotz eta heze, eta hazia ere hotz eta hezea; eta ezta baldin bada, zeinen kalitateak beroa eta lehortasuna diren, hartatik eginen den odola bero eta lehorra izanen da, eta gazura bero eta lehorra eta hazia beroa eta lehorra; ezinezkoa baita, Galenok dioenez⁶⁷, jan aitzin jatekoak zeuzkan substantzia eta kalitateen arauzko zaporerik humoreek ez ukaitea. Hortaz, egia baldin bada gizakume-sexua heldu dela bera eratzeko denboran hazia bero eta lehorra izan zelako, egiazkoa da, halaber, komeni dela gurasoek jateko bero eta lehorrak usatzea haurra gizonezko izan dadin.

Egia da sortarazteko manera honetan badela arrisku handi bat; izan ere, hazia arras bero eta lehorra izanik, lehenago maiz errana dugu nahitaez gizakume gaizkile, maltzur, asmotsu eta anitz bizio eta gaitzetara makurtua sortaraziko dela. Eta horrelako gizonak, eskutik loturik eduki ezik, arriskugarriak dira errepublikarako; eta, beraz, hobe litzateke sort ez balitez. Baina horrekin guztiarekin ere, ez da gurasorik faltako "jaio bedi ene semea gizon eta izan dadila ohoin"⁶⁸; zeren melior est iniquitas viri quam mulier bene faciens⁶⁹. Baina hau aise erremedia daiteke jaki epelak eta bero-lehortasunak apur bat gutxitzen duten hazkurriak usatuz, edo haien prestaketagatik edo haiei espezia batzuk gehituz. Horiek, Galenok dioenez⁷⁰, oiloak, eperrak, usakumeak, frankolinak⁷¹, usoak, birigarroak, zozoak eta antxumeak dira; eta Hippokratesek dio horiek jan behar direla errerik hazia berotu eta lehortzeko⁷². Eta jateko ogiak galbera eta zuria izan behar du, irin-florearekin egina, gatz eta anisarekin oratua, ogi beltza hotz eta hezea delako, geroago frogatuko dugun bezala, eta hagitz kaltegarria argimenerako. Edariak ardo zuria izan behar du, urdailak onetsiko lukeen neurrian uraz nahasia; eta epeltzeko erabiltzen den ura ere, komeni da gozo eta hagitz fina izatea.

Erran dugun bigarren diligentzia zen jateko horiek neurri apalean jatea, urdailak menera ditzan: zeren, jatekoak beren izaera propioaz bero eta lehorrak izan arren, bero naturalak ezin egos ditzakeenean hotz eta heze bilakatzen dira; eta horrela, gurasoek ezta jan eta ardo zuria edan arren, jaki horietatik hazi hotza eginen dute, eta hortik emea sortaraziko da, eta ez gizakume.

Arrazoi horregatik jende noble eta aberats gehienek anitzez ere alaba gehiago seme baino ukaiteko neke hau pairatzen dute; zeren beren urdailak ezin gasta dezakeena jaten eta edaten dutelako, eta jatekoak bero eta lehorrak izanagatik, espeziaz, azukrez eta eztiz kargatuak, kopuru handitan direlako gordindu egiten dituzte eta ezin menera ditzakete. Baina sorkuntzari kalterik larriena egiten dion gordintasuna ardoarena da, edari honek, hain lurrunkor eta sotila izanik, bai bera eta bai gainerako hazkurriak ere hazi-hodietara gordinik joanarazten dituelako, hor haziak, behar bezala egosi eta heldurik egon gabe, gizona faltsuki kitzikatuz. Eta, beraz, Platonek kartagotarren errepublikan aurkitu zuen lege bat laudatzen zuen⁷³, horren bidez gizon ezkonduak, ez eta horren emazteak ere, sortarazteko egintzari lotzea pentsatzen zuten egunean ardorik edatea galeratzen zutelako, horrekin endelegatuz edari horrek haurraren gorputzaren osasunari kalte egiten ziola eta aski kausa zela hura biziotsu eta ohitura txarreko atera zedin. Baina neurritz edaten bada, inolako jakitik ez da hain hazi ona egiten (daramagun xederako) nola egiten baita ardo zuritik, bereziki argimen eta trebetasuna emateko, guk gehien nahi dugunerako, alegia.

Erran dugun hirugarren diligentzia neurriko ariketa baino areago egitea da; horrek haziaren soberazko hezetasuna ahitzen, berotzen eta xukatzen duelako. Horrexegatik egiten da gizona sortarazteko hagitz ugalkor eta ahaltsu; eta, aitzitik, nagikerian egotea eta haragiak ez mugiaraztea, hazia gehienik hozten eta hezaten duten gauzetariko bat da. Hori dela eta, jende aberats eta dirudunak alabaz gehiago kargatzen dira langile pobreak baino.

Eta, horretara, Hippokratesek kontatzen du⁷⁴ Eskitiako gizon nagusiak hagitz ematuak, maritxuak, atsogizonak, emakume-lanak egitera emanak direla hala nola eskobatu, harrikoa egin eta ogia oratzea. Eta, horrekin, sortarazteko ahalgabeak ziren, eta semeren bat sortzen bazitzaien, hura irena edo hermafrodita gertatzen zen. Eta horretaz ahalketu eta iraindurik, Jainkoari sakrifizio handiak egin eta anitz dohain eskaintzea erabaki zuten, horrela trata ez zitzala otoituz, edo erremedia zezala falta hura, hartarako ahala baitzuen. Baina Hippokrates haiez burlatzen zen, erranez ez dela bat ere ondoriorik gertatzen miresgarria eta jainkozkoa ez denik, bide horretatik kontsideratu behar bada; zeren, haietarik zernahi bere kausa naturaletara bilduz gero, azken buruan Jainkoagana etortzen baikara, munduko agente guztiek Haren bertutez obratzen dutelako; baina badira zenbait ondorio zuzenki Jainkoarengana bildu beharrekoak (eta horiek dira ordena naturaletik kanpo gelditzen direnak) eta beste batzuk zeharka, lehenik xede hartarako ordenaturik dauden kausa naturalak kontutan hartuz⁷⁵. Eskitiarrak bizi ziren eskualdea, dio Hippokratesek, Iparpean datzala, eta ohi baino hotzago eta hezeagoa dela, eta hango laino ugariengatik, nekez ageri dela eguzkia, mirariz ez bada. Gizon aberatsak beti ere zaldiz ibiltzen dira, ez dute inolako ariketarik egiten, eta beren bero naturalak gasta dezakeena baino gehiago jaten eta edaten dute⁷⁶, eta horrek guztiak hazia hotz eta heze egiten du. Eta arrazoi horregatik anitz eme sortarazten zituzten. Eta gizakumerik sortzen bazitzaien, lehen erran dugun izaerakoa ateratzen zen. "Jakizue (erran zien Hippokratesek) horren erremedioa ez dela, besterik gabe, Jainkoari sakrifizioak egitea, baizik eta, horrekin batera, oinez ibili, gutxi jan eta gutxiago edan eta ez ibiltzea beti alferkerian. Eta, argiago endelega dezazuen, egizue kontu eskualde honetako jende pobreak eta zeuen esklabuez ere, horiek ez baitiote Jainkoari sakrifiziorik egiten, ez dohainik eskaintzen, zerekin ez dutelako, eta horrez gainera, haren izen sainduaz birao eta kontaezineko irainak egiten dizkiote, han fortuna txarra eman zielako. Eta hain gaiztoak eta biraotiak diren arren, sortarazteko ezin ahaltsuagoak dira; eta haien haurretarik, gehienak gizakume eta sendo ateratzen dira, eta ez maritxu, iren edo hermafroditak zuenak bezala. Eta horren arrazoia da haien gutxi jaten dutela, ariketa ugari egiten eta ez direla zuek bezala zaldiz ibiltzen, eta horregatik hazi bero eta lehorra egiten dute, eta horrelakotik gizakumea sortzen da, eta ez emakumea⁷⁷".

Ez zuen Faraoiak filosofia hau endelegatu, ez eta haren Kontseilukoek ere; honela erran zuen eta⁷⁸: venite, sapienter opprimamus eum ne forte multiplicetur, et si ingruerit contra nos bellum, addatur inimicis nostris. Eta Israelgo herria hainbeste haz ez zedin, edo, gutxienez, anitz gizakume sortu ez zitezen, haren beldurrik handiena horixe baitzen, hartu zuen erremedioa izan zen hura gorputz-lan anitzekin zapaltzea, eta jatera porru, baratxuri eta tipulak ematea; eta erremedio horrekin hain gaizki zihoanez, Jainkozko Testuak honela dio: quantoque opprimebant eos tanto magis multiplicabantur et crescebant⁷⁹. Eta eriden zitekeen erremediorik hoberena hauxe zelakoan, gorputz-lana berretu zien; eta deus probetxu gutxi egiten zion, su handia itzaltzeko hartara anitz olio edo koipe jaurtiki balu bezala. Baina hark filosofia natural jakin balu, edo haren Kontseilukoren batek, garagar ogia, urazak, meloiak, kalabazak eta pepinoak⁸⁰ eman beharko zizkiekeen jatera, eta ongi jan eta edanik alferkeria handitan eduki, haiei lan egitera utzi gabe. Horrela hazi hotz eta hezea eginen baitzuket, eta hartatik emakume

gehiago sortuko ziren gizakume baino, eta denbora gutxitan bizia laburtuko ziekeen, nahi ukan balu. Baina haragi egosi ugari, anitz baratxuri, porru eta tipulekin, eta gisa hartara lan eraginez, hazi bero eta lehorra egiten zuten, eta bi kalitate horiekin areago kitzikatzen ziren sorkuntzarako eta beti gizakumeak sortarazten zituzten.

Egia hau berresteko, Aristotelesek problema bat egiten du, galde eginez⁸¹: cur genitura in somnis iis profluere solet qui aut labore lassescunt aut tabe consummuntur? Erran balu bezala: "Zergatik langileek eta hektikoek⁸² anitz hazi-isurketa pairatzen dute lo dautzanean?" Eta problema horri, egiazki, ez daki ihardesten, anitz gauza erranik ere, ez baitu batek ere ongi asmatzen. Eta horren arrazoia da gorputz-lanak eta sukarrak hektikoak hazia berotu eta lehortzen dutela, eta bi kalitate hauek hura latz eta erresumingarri egiten dute; eta lotaldian obra natural guztiak indartzen direnez, problemak dioena gertatzen da. Hazi bero eta lehorra zein ernalkor eta erresumingarria den Galenok ohartarazten du, dioela⁸³: et fecundissima est, ac celeriter ab initio protinus ad coitum excitat animal: petulca est et ad libidinem prona.

Laugarren baldintza zen hazia ongi pausaturik, egosirik eta ongi heldurik egon arte sorkuntza-egintzari ez lotzea. Zeren, lehenagoko hiru diligentziak iragan arren, ez baitakigu oraino eduki behar duen bikaintasunera etorria ote den; batik bat, komeni da lehenago, zazpi edo zortzi egunetan, hurrenez hurren, erran ditugun jakiak usatzea, barrabilek han beste hazkurri batzuetatik egina zen hazia beren elikaduran gasta dezaten, eta azaltzen ari garena gerta dadin.

Baratzainek gorde nahi dituzten haziekin egiten dituzten diligentzia berak egin behar dira giza haziarekin ere, ernalkor eta ugalkorra izateko: zoritu, xukatu eta idortu arte igurikitzea, komeni den sasoi eta unea baino lehenago zuhaitzetik kentzen badituzte, hurrengo urtean lurrera emanez gero ezin erne daitezkeelako. Arrazoi horregatik ohartua naiz haragizko egintza maiz usatzen den lekuetan, sorkuntza gutxiago dagoela kontinentzia gehiago den tokian baino; eta emakume publikoak, beren hazia egosi eta zoritu arte egoten ez direlako, ez dira inoiz izarra gelditzen. Hortaz, komeni da zenbait egunez igurikitzea hazia pausatu, egosi, zoritu eta sasoi onera heldu arte; zeren bide honetatik beroa, lehortasuna eta substantzia ona gehiago irabazten baititu, galdu baino. Baina, nola jakinen dugu hazia komeni den bezala ba ote dagoen, hori hain munta handiko kontua izanik? Hau erraz konprenitzen da, gizonak bere emaztearekin harremanik ukan gabe iraganiko egunengatik eta haragizko egintzarako duen kilikadura eta gogo handiagatik; hori guztia heldu da hazia jadanik ernalkor eta ugalkorra egotetik. Bosgarren baldintza da gizona haragizko egintzari emakumeari hilabetekoa etorri baino sei edo zazpi egun lehenago lotzea, gizakumeak gero elikatzeko anitz hazkurri behar duelako*. Eta horren arrazoia da haren tenperamentuaren berotasun eta lehortasunak gastatzen eta ahitzen dituela ez soilki amaren odol ona ez eze, baina irazkinak ere bai; eta horrela, badio Hippokratesek⁸⁴, "gizakumeaz izarra den emakumea kolore oneko eta ederrik dagoela"; mutikoak bere bero handiarekin aurpegia itsustu eta hura lertzoz bete ohi duten irazkin guztiak jaten dizkiolako. Eta hain jatuna denez gero, on da halako odol-bilketa edukitzea, harekin elikatzeko. Eta hori esperientziak klarki erakusten du; mirariz ez bada, ez baita gizakumerik sortarazten hilabetearen⁸⁵ azken egunetan izan ezik.

Alderantziz gertatzen da emeaz izarra denean, haren sexuaren hoztasun eta hezetasun handiagatik hagitz gutxi jan eta anitz irazkin egiten dituelako. Eta, hortaz, emeaz ernaldutako emakumea itsusi eta lertzotsutsu egoten da, eta mila zikinkeria jateko apeta izan ohi du, eta behin erditu eta gero bi aldiz egun gehiago beharko ditu xahutzeko, gizakumeaz erditu balitz baino. Eta izaera horrexetan oinarritu zen Jainkoa Moiseri manatu zionean⁸⁶: "mutikoaz erdituko zen emakumea odoltsu izan zedila astebetetz, eta

ez zedila sar tenpluan harik eta hogeita hamahiru egun iragan arte, eta emeaz erdituz gero, bi astez zikin izan zedila, eta ez zedila tenpluan sar hirurogeita sei egun bete arteraino"; beraz, xahupen-denbora bikoiztu egin zuen erditzea emearena zenean. Eta horren kausa da, sabelean egon zen bederatzi hilabeteetan, bere tenperamentuaren hoztasun eta hezetasun handiagatik, gizakumeak baino bi aldiz irazkin gehiago egin zituelako, eta substantzia eta kalitate arras gaiztokoak; eta horrela, Hippokratesek ohartarazten du hagitz gauza perilosa dela emeaz erditu den emakumeari xahupena etetea⁸⁷.

Hau guztia erran dut hilabetearen azken egunak gordetzeak munta handia duelako kontura, haziak jateko elikadura handia aurki dezan; zeren, sortarazteko egintza hilabetekoa bukatu bezain laster egiten bada, ez baitu, odolik ezaz, hartuko. Baina abisaturik egon behar dute gurasoek ezen, bi haziak (gizakumearena eta emakumearena) aldi berean elkartzen ez badira, (Galenok dioenez) ez dela bat ere sorkuntzarik eginen, senarrarena hagitz umekorra izan arren⁸⁸. Horren arrazoia hurrengo kontu batean emanen dugu. Eta horrela, egia da kontatu ditugun diligentzia guztiak emakumeak ere egin behar dituela, bestela, haren haziak, gaizki antolaturik, sorkuntza deuseztuko duelako. Horregatik komeni da bata besteari iguritzea egintza berean hazi biak elkar daitezen. Eta horrek garrantzi handia du lehenbiziko aldian, eskuineko barrabila eta horren hazi-hodia, Galenok dioenez⁸⁹, lehenago kitzikatzen eta hazia ezkerrekoak baino lehenago ematen duelako; eta lehenbiziko aldian sorkuntza egiten ez bada, bigarrenean jada peril da emea sortaraz dadin, eta ez gizakumea. Bi hazi hauek honexetan dira ezagun: batetik bero-hoztasunean; bestetik kopuruan, anitz ala gutxi izatean; eta hirugarrena laster ala berandu irteteagatik. Eskuineko barrabilaren hazia irakinik jalgitzen da, eta hain da beroa, non emakumearen umetokia kiskaltzen baitu, ez da kopuru handikoa eta berehala jaisten da. Aitzitik, ezkerrekoaren hazia epelago ateratzen da, kopuruz ugari eta, hotz eta lodia denez, berantiarra da jalgitzeko.

Azken baldintza zen bi haziak, senarrarena eta emaztearena, umetokiaren eskuinaldera eror daitezen ahalegintzea. Toki horretan, Hippokratesek dioenez⁹⁰, gizakumeak egiten direlako, eta ezkerrekoan emeak. Eta horren arrazoia Galenok dakar erranez umetokiaren eskuianaldea arras beroa dela gibelarekin, eskuineko giltzurrunarekin eta eskuineko hazi-hodiarekin duen auzotasunagatik, atal horiek, erran eta frogatu dugunez, bero-beroak baitira. Eta haurra gizakume gertatzeko arrazoi guztia hura eratzeko denboran bero handia izatean datzanez, egia da munta handia duela hazia toki horretan ezartzeak. Eta hori erraz eginen du emakumeak, behin sortarazteko egintza iragan eta gero, eskuineko alderantz etzanez, burua behean eta oinak goian ezarriz. Baina ohean egun batean edo bitan egon behar du; zeren umetokiak ez baitu hazia berehala atxikitzen, harik eta zenbait ordu iragan arte⁹¹.

Emakumea izarra gelditu den ala ez jakiteko seinaleak oso nabari eta argiak dira nornahirentzat. Zeren, zutiturik, ondoan hazia eroriko balitz, egia da (Galenok dioenez) ez dagoela haurdun⁹². Baina honetan bada gauza bat kontsideratzeko: ez dela hazi osoa emankor eta ugalkorra. Zeren haren parte bat oso urtsua baita, eta horren ofizioa da hazi nagusia mehetzea, bide hertsietatik iragan ahal izateko; eta, behin haurdun gelditu eta gero, Naturak hori egotzi eta parte ernalkorra gordetzen du. Eta ezagutzen da ura bezalakoa eta kopuru gutxikoa delako. Sortarazteko egintza iragan ondoren, emakumea zutitzea hagitz arriskugarria da; eta, horrela, Aristotelesek⁹³ kontseilatzen du lehenik gorotz eta gernua kanporatzeko, altxatu beharrik izan ez dezan.

Jakiten deneko bigarren seinalea da, ondoan, biharamunean, emakumeak sabela hutsik sentitzen duela, zilborraren inguruan batez ere. Eta horren arrazoia hauxe da, umetokia, haurdun egon nahi duenean, arras zabal eta hedaturik dagoela, egiazki zakilak duen

hantura eta puztasun berbera baitu, era honetan dagoenean leku handia betetzen duelako; baina haurdun gelditzeko puntuan, dio Hippokratesek⁹⁴, berehala uzkurto eta kiribildu egiten dela, hazia bildu eta handik kanpora atera ez dadin, eta horrela anitz toki huts uzten ditu. Eta hori azaltzeko, emakumeek erraiten dute "ez zaiela triparik gelditu", horren mehe gelditu baitira.

Horrekin batera, berehala haragizko egintza eta senarraren biguntasunak gaitzesten dituzte, umetokiak jadanik badaukalako nahi zuena. Baina seinalerik seguruena, dio Hippokratesek⁹⁵, hilabetekoa ez etortzea dela, eta bularrak handitzea, eta jakien higuin ukaitea.

[III. ATALA] [1594.EKO XXI.A]

Nolako diligentziak egin behar diren semeak argitsu eta jakintsuak atera daitezen

Baldin lehenik jakiten ez bada argimen eta trebetasun handiko gizona nolako arrazoiak eta kausaz sortzen den, ezinekoa da horretarako artea egitea, zeren horren hastapenak eta kausak elkartu eta ordenatuzetik ailegatzan baita helburu hau erdiestera, eta ez bestela.

Astrologoek aditua dute ezen mutila halako izarren eraginaren pean sortua delako, etortzen dela diskretu, argitsua, ohitura on edo txarrekoa, zoriotsua izatera eta gizonengan egunero ikusten eta kontsideratzen ditugun kondizio eta berezitasunen jabe. Eta hori egia balitz, ezin liteke hortaz arterik batere era; zeren hori ausazko kasua bailitzateke, eta ez gizonen hautara emana⁹⁶. Filosofo naturalek, Hippokratesek, Platonek, Aristotelesek eta Galenok bezala, uste dute ernaltzean jasotzen dituela gizonak ohiturak⁹⁷, eta ez jaiotzeko unean. Zeren orduan izarrek haurra gaingiroki aldatzen baitute, beroa, hoztasuna, hezetasuna eta lehortasuna emanez, baina ez bizitza osoan oinarritzen deneko substantziarik, lau elementuek, suak, lurak, aireak eta urak, egiten duten bezala; ezen horiek, osatu horri bero, hoztasun, hezetasun eta lehortasunaz gainera, kalitate horiek bizitzako ibilbide osoan zehar gorde eta kontserba diezazkion substantzia ere ematen baitiote. Eta horrela, haurren sorkuntzan axola handiena honexek du: haiek osatzen dituzten elementuek argimenerako behar diren kalitateak edukitzea; zere horiek osaketan sar daitezkeen pisu eta neurrian, horrelaxe iraun behar baitute nahasketan; eta ez zeruaren aldaketek.

Horiek zein elementu diren eta haurra moldatzeko emakumearen umetokian zer gisaz sartzan diren, Galenok dio⁹⁸ gainerako gauza naturalak osatzen dituztenak berberak direla; baina lurra jaten ditugun jaki solidoetan (ogi, haragi, arrain eta fruituetan kasu) ezkutaturik heldu dela; ura edaten ditugun edarietan; airea eta sua natura-ordenaz nahasirik dabilzala dio, eta gorputzean pultsuaz* eta arnasketaz⁹⁹ sartzan direla. Lau elementu hauetatik, geure bero naturalaz nahasi eta egosirik, haurraren sorkuntzarako behar diren bi hastapenak egiten dira, hots, hazia eta hilabeteroko odola. Baina gehienik bildu behar direnak, daramagun helbururako, jaten ditugun jaki solidoak dira; hauek beren baitan lau elementuok, guztiok, dauzkatelako, eta hauetatik haziak gorpuzkera eta kalitate handiagoak hartzen ditu, edaten dugun uretik eta arnasten dugun su eta airetik¹⁰⁰.

Eta honela, erran zuen Galenok¹⁰¹, seme jakintsuak sortarazi nahi dituzten gurasoek irakur zitzatela berak, de alimentorum facultatibus, izkiriatu zituen hiru liburu, eta han kausituko zituztela hori egiteko jaki egokiak; eta ez zuen ura eta gainerako elementurik aipatu, munta txikiko gai gisa. Baina ez zuen arrazoirik ukan, urak hagitzaz gehiago aldarazten baitu gorputza aireak baino, eta jaten ditugun jaki solidoak baino puskaz gutxiago; eta hazia sortzeari doakionez, gainerako elementu guztiak baturik bezain

inportantea da. Horren arrazoia da (Galenok berak dioenez¹⁰²), barrabilek, elikatzeke, zainetatik odolaren gazur-aldea ekartzen duela, eta zainek gazur hori gehiena edaten dugun uretik hartzen dutela. Eta urak gorputza aireak baino gehiago aldarazten duela Aristotelesekin frogatzen du¹⁰³, galdetuz "zein da urak aldatzeak osasunean hainbesteko aldakuntza eragiteko kausa, eta aire kontrarioak arnastean horrenbeste ez sentitzeko". Eta horri erantzuten dio urak gorputza elikatzen duela, eta aireak ez. Baina honela ihardestean ez zuen arrazoirik ukan; zeren aireak ere, Hippokratesen ustez, urak bezala elikadura eta substantzia ematen baitu¹⁰⁴. Eta horrela, Aristotelesekin beste erantzun hobe bat aurkitu zuen erranez ez duela ezein leku ez herrialdek aire propiorik. Zeren egun Flandesen dena, ipar haizeak joz gero, bizpahiru egunetan Afrikan baita; eta Afrikan dena, hego haizea ibiliz gero, iparraldera itzultzen duelako; eta egun Jerusalemen dena, ekialdeko haizeak jotzen duelarik, mendebaldeko Indietara jaurtikitzen duelako. Eta hori ezin gerta daiteke uretan, ez baitira jalgitzen herrialde beretik, eta horrela herri bakoitzak bere ur berezia du, jaiotzen eta iragaten den lurreko meatzeen arabera. Eta gizona, ur mota batera ohiturik dagoela, beste bat edanez gero gehiago aldatzen da jaki eta aire berriekin baino. Eta horrela, seme biziki jakintsuak sortarazi nahi lituzketen gurasoek ur delikatuak, gozoak eta tenperamentu onekoak edan behar dituzte, sorkuntzan erratzeko penapean.

Hego haizetik, dio Aristotelesekin¹⁰⁵, begira gaitezela sorkuntza aldian, lodia delako eta hazia izugarri hezitzen duelako, eta emea sortarazten du, eta ez gizakumea. Baina Mendebalari^o etengabeko laudorioak egiten dizikio, eta ohorezko izen eta epitetoak ezartzen¹⁰⁶; eta hari "epela", "lurraren ernatzailea" eta "Elisioko Zelaietatik datorrena" erraiten dio. Baina, aire hagitz delikatuak eta tenperamentu onekoak arnastea eta halako urak edatea munta handikoa dela egia izanik ere, are garrantzitsuagoa da jaki sotilak eta argimena behar dituen tenperaturakoak erabiltzea; horietatik odola sortzen delako, eta odoletik hazia, eta hazitik umea¹⁰⁷. Eta baldin jatekoak delikatuak eta tenperamentu onekoak baldin badira, odola ere halaberean egiten da, eta halako odoletik, halabereko hazia, eta halako hazitik, gisa bereko burmuina ere. Eta atal hau tenplatua eta gai sotil eta delikatuaz osatua izanik, argimena ere, dio Galenok, halaberekoa izanen dela¹⁰⁸; zeren gure arima arrazionala, ustelezina izan arren, beti ibiltzen baita burmuinaren erabakiei atxikirik, eta horiek gogoeta egin eta filosofatzeko premiazko direnak ez badira, mila zentzugabekeria erraiten eta egiten ditu.

Beraz, endelegu handiko umeak (Espainiako argimen arruntena bera) sortzeko, gurasoek jan behar dituzten jakiak hauek dira: lehenik galbera-ogia, irin florez egin eta gatzaz oretua: hau hotza eta lehorra da, eta zati sotil eta hagitz delikatuduna. Beste bat (Galenok dioenez¹⁰⁹) gari gorriska edo latzaz egiten da, eta hori mantenu handia eman eta gizonak gihartsu eta gorputz indar handikorik egin arren, hezea eta zati arras loditakoa denez, endelegua alferrik galtzen du. Gatzaz oretua erran dut, gizonak erabiltzen dituzten hazkurrietatik ez baitu batek ere hain endelegu ona egiten, nola mineral honek egiten duen. Hura hotz da eta gauzetan dagoen lehortasunik handienekoa; eta Heraklitoren errankizuna gogoan badugu, honela erran zuen: splendor siccus, animus sapientissimus; eta horrekin adierazi nahi zigun gorputzaren lehortasunak arima ezin jakintsuago egiten duela. Izan ere, gatzak hain lehortasun handia daukanez, eta argimenerako hain egokia denez, ezen jainkozko Eskriturak "zuhurtzia" eta "jakituria" izen honekin deitzen du^{110*}.

Eperrek eta frankolinek galbera-ogiaren, antxumearen eta moskatel ardoaren substantzia eta tenperamentu bera dute; eta gurasoek, horiez usatuz (atzean oharrarazi dugun gian), endelegu handiko umeak eginen dituzte.

Eta oroimen handiko haurren bat ukan nahi balute, jan bitzate, sortarazteko ekintzari lotu baino zortzi edo bederatzi egun lehenago, amuarrainak, izokinak, lanproiak, bisiguak eta aingirak; eta jaki horietatik hazi heze eta hagitz likina eginen dute. Atzerago erran dugunez, bi kalitate hauek oroimena hartzeko erraz eta figurak luzaro kontserbatzeko biziki iraunkor egiten dute¹¹¹.

Uso, antxume, baratxuri, tipula, porru, errefau, piperrauts, ozpin, ardo zuri, ezti eta espezia mota guztietatik hazia bero eta lehor egiten da, eta zati oso delikatuekin. Elikagai hauetatik sort litekeen haurra irudimen handikoa litzateke; baina endelegu gabea, bero handiagatik, eta oroimenik gabekoa, lehortasun handiagatik. Hauek oso kaltegarriak izaten dira errepublikarentzat, beroak anitz bizio eta gaitzetara makurtarazten dituelako, eta argimena eta animua ematen die horiek betearazteko¹¹²; baina eskupean harturik, zerbitzu gehiago hartzen ditu horien irudimenetik endelegu eta oroimenetik baino**.

Oiloak, kapoia, txahalkia, Espainiako ahari zikiroa substantzia ertainekoak dira; ez baitira jaki delikatuak ez eta arruntak ere. Espainiako ahari zikiroa erran dut, Galenok, berezikuntzarik egiteke, substantzia txar eta arruntekoa dela dioelako¹¹³; eta ez du arrazoirik. Zeren, Italian, berak izkiriatu zuen lekuan, hori haragi guztietarik zirtzilena izanik ere, gure eskualde honetan, larren ontasunagatik, hori substantzia ertaineko jakien artean kontatu behar baita. Elikagai horietatik sortaraziko liratekeen hurrek endelegu arrazonagarria, oroimen arrazonagarria eta irudimen arrazonagarria ukanen dute; eta horregatik ez dute zientzietan hagitz sakonduko, ez eta gauza berririk asmatuko ere. Hauez lehenago errana dugu bigunak eta errazak direla haiengan artearen erregela eta kontsiderazio guztiak, argiak, ilunak, errazak eta zailak inprimatzeko; baina doktrina, argudioa, erantzuna, ezbaia eta bereziketa, dena eman behar zaie eginik eta prestatuak.

Behiki, mandoki, urdai, ogi-mami, gari latzeko ogi, gazta, oliba, ardo beltz eta ur gazitik hazi lodi eta tenperamentu txarreko eginen da***. Hortik sortuko den semeak zezen batek bezainbat indar ukanen ditu, baina furfuriatsua izanen da eta argimen basaduna. Hortik heldu da baserriko gizonen artean seme zorrotz eta letretarako trebetasunarekin mirariz besterik ez ateratzea: guztiak dorpe eta zakar sortzen dira, substantzia arrunteko elikagaiez mamituak direlako. Eta hiritarren artean aitzitik gertatzen da, eta badakusagu horien hurrek argimen eta trebetasun handiagoa dutela¹¹⁴.

Baina gurasoek seme jentil, jakintsu eta ohitura oneko zinez sortarazi nahi balute, ugalkuntza baino sei egun lehenago, ahuntz-esne ugari jan behar dute¹¹⁵, hazkurri hau, mediku guztien iritziz, gizonak usatzen dituzten guztietarik hoberena eta delikatuena delako; uler bedi, osasunean egonik eta oreka egokian doakienean. Baina Galenok dio¹¹⁶ egosirik eta eztiarekin jan behar dela, hori gabe perilosoa eta ustelerra delako. Horren arrazoia honetan datza: esneak hiru elementu besterik ez dauka: gazta, gazura eta gurina. Gazta lurrari doakio, gazura urari eta gurina aireari. Gainerako elementuak nahasten eta kontserbatzen zituen sua, behin errapeetatik jalgi eta gero, hats bilakatu zen, oso mehea zelako. Baina ezti pixka bat erantsiz gero, sua bezain beroa eta lehorra izanik, esnea lau elementurekin gelditzen da, eta horiek gure berotasun naturalaren eraginez nahasi eta egosirik, hortik hazi hagitz delikatu eta tenperamentu onekoa egiten da. Hartatik sort daitekeen semea, gutxienez, endelegu handikoa izanen da, eta ez du oroimen ez irudimenik faltako¹¹⁷.

Aristotelesekin, doktrina honetan ez zegoelako, ez zion erantzun honela galdetuz egiten duen problema bati¹¹⁸: "zergatik basa animalien kumeek (gehienbat) beren gurasoen ezaugarriak eta kondizioak ateratzen dituzte, eta gizakumeek, aldiz, ez?" Eta hori esperientziak dakusagu horrelaxe dela; zeren guraso jakintsuengandik haur hagitz

ergelak ateratzen dira, eta guraso ergelengandik, haur arras begiratuak; eta guraso bertutetsuengandik, ume gaizto eta biziotsuak; eta guraso biziotsuengandik, ume bertutetsuak; eta guraso itsusiengandik, haur ederrak; eta guraso ederrengandik, haur itsusiak; eta guraso zuriengandik, seme-alaba beltzaranak; eta guraso beltzaranengandik, seme-alaba zuri eta gorriak. Eta aitama berberengandik, bata ergela eta bestea begiratu, bata itsusia eta bestea ederra, bata kondizio onekoa eta bestea txarrekoa, bata bertutetsua eta bestea biziotsua. Eta kastako behor on bat, estaltzeko, halako zaldira eramaten bada, jaiotzen den zaldikoak bere gurasoetara ematen du, bai itxuran eta kolorean, eta bai animuaren ohituretan ere.

Problema honi arras gaizki erantzun zion Aristotelesek, erranez gizonak haragizko egintzan irudipen batzuk ukaiten dituela eta hortixek heldu dela haren haurrak hain nahastekaturik jalgitzea; baina basa animaliek, ugaltzeko denboran oharkabetzen ez direnez eta irudimena gizonarena bezain bortitza ez dutenez gero, beti ere gisa bereko kumeak ateratzen dituztela¹¹⁹. Erantzueraz honek beti asebeste ditu filosofo arruntak, eta hori berresteko Jakoben historia dakarte; ezen horrek kontatzen duenez, ganaduen asketan makila pintatu batzuk ezarririk, arkumeak pikardaturik irten baitziren¹²⁰. Baina probetxu gutxi egiten die sakratuan babes hartzeak, historia horrek mirakuluzko egintza bat kontatzen duelako, Jainkoak horretan sakramenturen bat gordetzeko egina, eta Aristotelesen erantzueraz moldegabea da guztiz; eta ezperez, ahalegin bitez orain artzainak saio hori egitera eta ikusiko dute ez dela gauza naturala.

Halaber, hor zehar kontatzen denez, behin andre bat komeni baino seme beltzaranago batez erditu omen zen, irudimena erretratu batean ageri zen aurpegi beltz batean zerabilelako, eta hori burla handizat daukat; eta menturaz egia baldin bada halaxe erditu zela, nik diot hura sortarazi zuen aitak pinturako figuraren kolore berbera zuela.

Eta are argiago gera dadin zein txarra den Aristotelesek eta horri darrazikionek dakarten filosofia, gauza nabarmen gisa jakin behar da sortarazteko egintza arima begetatiboari dagokiola, eta ez sentimenezkoari edo arrazionalari¹²¹; zeren zaldiak arrazionala gabe sortarazten baitu, eta landarea sentimenezkorik gabe¹²². Eta baldin fruituz beteriko zuhaitz bati behatzen badiogu, hartan gizakumeetan baino aldakortasun handiagoa aurkituko dugu: sagar bat berdea eta beste bat gorria, bata txikia eta bestea handia, bata biribila eta bestea gaizki itxuratua, bata oso eta bestea ustel, bata gozo eta bestea mingots; eta baldin aurtengo fruitua igazkoarekin parekatzen badugu, bata eta bestea hagitz ezberdinak eta aurkakoak dira. Eta hori ezin egotz dakioke irudimenaren ezberdintasunari, landareek ahalmen hori ez dutelako.

Aristotelesen errakuntza hagitz nabarmena da bere doktrinan bertan. Hark dioenez, gizonaren haziak egiten baitu sorkuntza, eta ez emakumearena; eta haragizko egintzan gizonak hazia isuri besterik ez du egiten, itxura eta figurarik gabe, lurtean garia jaurtikitzen duen nekazariaren antzera. Eta gari garaua egun batzuk iragan arte sustraitzen, eta hostoak eta kanabera sortzen ez dituen bezala, era berean, dio Galenok¹²³, ez dela umekia sortzen giza hazia umontzian erori bezain laster, aitzitik, hogeita hamar eta berrogei egun behar izaten direla osatzeko¹²⁴. Hori horrela izanik ere, zertara dator kontura aitak haragizko egintzan zenbait gauza irudikatzen aritzea, umekiaren eraketa handik egun batzuk iragan arte hasten ez bada? Are gehiago kontutan harturik eraketa egiten duena ez dela aitaren arima ez eta amarena, hazian bertan den beste hirugarren bat baizik; eta hura, begetatiboa ez beste denez gero, ez du irudimena edukitzeko ahalmenik: tenperamentuaren mugimendu naturalei segitu baizik ez du egiten, besterik egin gabe. Ene ustez, gizonaren haurrak hainbeste figuratakoak sortzen direla eta hori gurasoen irudimen ugariagatik dela erraitea, gari batzuk handiak eta beste

batzuk txikiak hazten direla, nekazaria, haiek ereiten zituenean, irudipen ezberdinetan ari zelako erraitea bezalakoa da¹²⁵.

Aristotelesen iritzi txar honetatik kurioso batzuek inferitzen dute adulteroaren umeek emakume adulteroaren senarraren eitea dutela, harenak izan ez arren. Eta haien arrazoa ageria da; haragizko egintzan adulteroek senarra irudimenean darabiltelako, hura hara etorri eta epaskoan aurkituko ote dituen beldurrez. Argudio berberagatik senarraren haurrek adulteroaren aurpegia ateratzen dutela inferitzen dute, harenak ez badira ere; emakume adulteroak, bere senarrarekin haragizko egintzan dabilenean, irudimenean beti bere lagunaren figura ikusten duelako. Eta beste andre hori, erretratuko figurari beha ari zelako, ume beltz batez erditu zela aitortzen dutenek, onartu beharko dute kurioso horiek erran eta frogatu dutena, horrek guztiak kontu eta arrazoi berbera duelako. Hori, ene irudiko, burla eta gezur handia da, baina hagitz ongi inferitzen da Aristotelesen iritzi okerretik.

Hippokratesek problema honi hobeki erantzun zion erranez eskitiar guztiek ohitura berberak eta aurpegiko figura bera dituztela; eta antzekotasun horren arrazoa ematean erran zuen¹²⁶ guztiek jaki berak jaten dituztela, ur berberak edaten dituztela eta era berean jantzirik dabilzala, bizitzeko ordena berbera gorderik. Adimenik ez duten animaliek ere, arrazoi berberagatik, kumeak beren antz eta irudi berezira sortarazten dituzte, beti alhadura bera erabili eta era bakarreko hazia egiten dutelako. Aitzitik, gizonak, egunero jaki ezberdinak jaten dituenaz gero, hazi ezberdina egiten du, bai substantzian eta bai temperamentuan ere. Eta filosofo naturalek hori frogatzen dute honela dioen problemari erantzutean: "zergatik adimenik gabeko animalien gorotzek ez dute gizonarenak adinako usain txarrik?" Eta diote¹²⁷ ezen adimenik gabeko animaliek beti ere hazkurri berberaz usatu eta anitz ariketa egiten dituztela; eta gizonak hainbat jaki eta hain substantzia ugaritakoak jaten dituenaz, ezin menara ditzake eta usteltzera ere heldu dira. Giza haziak eta animalienak kontu eta arrazoi berbera dute, bi-biak hirugarren egosaldiko irazkinak direlako. Gizonak usatzen dituen jatekoen ugaritasuna ezin uka daiteke, eta aitortzekoa da, halaber, hazkurri bakoitza hazi ezberdin eta berezi bilaka daitekeela. Eta horrela, egia da gizonak behikia edo tripotxa jaten duen egunean hazi lodi eta temperamentu txarrekoa egiten duela, eta horregatik hortik sortuko den umea itsusi, ergel, beltz eta izaera txarreko jalgiko da; eta kapoi- edo oilo-paparra jan badeza, hazi zuri, delikatu eta temperamentu onekoa egingen du; eta horregatik hortik sor daitekeen semea gizon jentila, jakintsua eta izaera hagitz atseginekoa izanen da.

Hortik, ondorioz, ateratzen dut ez dela haur bat ere jaiotzen bere gurasoek bera sortarazi aurreko egunean jan zuten jakiaren kalitate eta temperamentuak ateratzen ez dituenik. Eta bat-bederak jakin nahi balu nolako jakiz eratu zen, bere urdailak kidetasunik handiena zein hazkurriekin duen kontsideratu besterik ez du egin behar, eta huraxe dateke, faltarik bat ere gabe.

Filosofo naturalek, halaber, galdetzen dute¹²⁸: "zein da arrazoa gizon jakintsuen seme-alabak maiz ergel eta argimenik gabe atera daitezen?" Eta problema horri arras gaizki erantzuten diote erranez gizon jakitsuak txit onestu eta ahalkekorrak direla, eta horregatik haurra behar duen bikaintasunaz ateratzeko haragizko egintzan premiazko diren diligentzia batzuk egin gabe uzten dituztela. Eta hori guraso dorpe eta ergelekin frogatzen dute, zeren, ugaltzeko unean beren indar eta ahalegin guztiak ezartzen dituztenez gero, haur guztiak argi eta jakintsu jalgitzen baitzaizkie. Baina hau filosofia naturalik gutxi dakiten gizonen erantzuerak da. Egia da, ordea, komeni den bezala erantzuteko, lehenik gauza batzuk suposatu eta frogatu behar direla; horietako bat da arrazoimena haserremenaren eta nahiamenaren aurkakoa dela, eta halako maneraz, baldin gizon bat hagitz jakintsua bada, ezin izan daiteke adoretzu, gorputz-indar

handiko, jatun handia ez eta sortarazteko ahalduna ere; arrazoimenak eta nahimenak eskatzen dituztenak arras aurkakoak direlako.

Adore eta kemen naturala, dio Aristotelesek, eta egiazki hala da¹²⁹, berez berotasuna dela; eta zuhurtzia eta jakituria, ordea, hoztasun eta lehortasuna. Eta halaxe dakusagu klarki esperientziaz: hagitz adoretsuak arrazoirik gabeak direla, hitz gutxitakoak, ez dituztela burlak jasaten eta berehala gorritzen direla, eta hori erremediatzeko eskua berehala ezpatara daramatela, ez baitute beste ihardespelik erraiteko. Baina argimena erdiesten dutenek anitz arrazoi, erantzura eta goitizen zorrotzak edukitzen dituzte, eta horiekin pausatzen dira, eskuetara etorri gabe. Honelako argimena egotzi zion Salustiok Ciceroni, mihi luzea eta zango arras arinak zituela erranez; eta horretan arrazoa ukan zuen, hainbeste jakituria ezin etor baitzitekeen armetarako koldarkeriara baizik¹³⁰. Hortixek etorri da goitzenekin trufazeko manera bat, honela dioena: "Ciceron bezain adoretsua da eta Hektor bezain jakintsua", gizon ergel eta koldarra adierazteko.

Ez dio animala ahalmenak hori baino kontrakar txikiagoa egiten endeleguari. Zeren gizonak, gorputz indar handikoa denean, ezin ukan baitezake argimen delikaturik; eta horren arrazoa da beso eta zangoen indarra burmuina gogor eta lurtarra izatetik sortzen dela. Eta lurraren hoztasun eta lehortasunagatik endelegu ona eduki zezakeela egia izanik ere, halere, substantzia lodikoa izateak alferrik galtzen du hura. Eta bidenabar beste kalte bat egiten du: hoztasunagatik kemena eta adorea galtzen delako; eta horretara, indar handiko gizon batzuk ikusi ditugu, hagitz koldarrak izaten.

Arima begetatiboak arima arrazionalarekin duen aurkakotasuna guztietarik nabarmenena da. Haren obrak, elikatzea eta ernaltzea, bero eta hezetasunarekin, kontrako kalitateekin baino hobeki egiten direlako; eta hori esperientziak klarki erakusten du, haurtzaroan zein indartsu eta zahartzaroan zein ahul eta murrizta den kontsideratuz. Eta umezaroan ezin obra dezake arima arrazionalak, eta hondar aroan, bero eta hezetasunik ez dagoenean, bere obrak zoragarriro egiten ditu. Hortaz, gizonak ugaltzeko eta anitz jaki egosteko zenbat eta ahaltzuagoa izan, are gehiago galtzen du arrazoimena.

Horrexerri doakio Platonek dioena¹³¹, ez dela gizonaren baitan humorerik arrazoimena hazi ugalkorrek bezainbeste deusezten duenik; neurtitzak egiteko arteari ez besteri ematen diola laguntza dio¹³². Eta horixe da esperientziaz egunero dakusaguna: gizon bat amoriotan behin sartzen hasiz gero, berehala poeta bilakatzen dela; eta lehen zikin eta fardela bazen, laster arduratzen dela galtzen zimurrekin eta kapako iletxoekin. Eta arrazoa da obra hauek irudimenari dagozkiola, hau maitasunaren grinak ekarri duen bero handiarekin hazi eta puntuz igoten delako. Eta maitasuna aldakuntza beroa dela klarki ageri da maiteminduari eragiten dion kemen eta adoreagatik, eta jateko gogoak kendu eta lo egitera uzten ez diolako. Baldin errepublika seinale hauetan ohartuko balitz, Unibertsitateetatik estudiante adoretsu eta armazaleak, maiteminduak, poetak eta hagitz garbi eta txukunak egotziko lituzke; horiek ez baitute inolako letra motatarako argimenik ez trebetasunik ukaiten. Erregela horretatik Aristotelesek¹³³ errekontzaz malenkoniatsu direnak salbuesten ditu, horien haziak, umekorra izan arren, argimena kentzen ez duelako.

Azkenik, gizona gobernatzen duten ahalmen guztiek, biziki indartsuak badira, arrazoimena deusezten dute. Eta hemendik heldu da, gizona hagitz jakintsua denean, eskuarki koldarra izatea, gorputz indar gutxikoa, jatun txarra eta ugaltzeko ezgai. Eta horren kausa da, bera jakintsu egiten duten kalitateek, hoztasunak eta lehortasunak alegia, horiexek berek ahularazten dizkiotela beste ahalmenak; gizon zaharregan ageri ohi denez, halakoek, kontseilu eta zuhurtziarako izan ezik, ez baitute gehiagorako indar ez adorerik.

Behin doktrina hau jakinik, Galenoren ustez¹³⁴, zernahi animalia beteginen sorkuntza gerta dadin¹³⁵ bi hazi behar dira, bata eragile eta eratzaille eta bestea elikadura emanen diona. Sorkuntza bezalako gauza delikatuak ezin menera baitezake berehala odola bezain jaki lodi bat ondorioa handiagoa izan arte; eta hazia hazi-atalen egiazko alimentua dela Hippokrates, Platon eta Galenorengandik hagitx gauza errezibitua da; zeren, haien iritziz, odola hazi bilakatzen ez bada, ezinezkoa baita nerbioak, zainak eta arteriak mantendu ahal izatea. Eta, horrela, Galenok dio¹³⁶ zainetatik barrabiletara den ezberdintasuna hau dela, barrabilek berehala hazi ugari egiten dutela, eta zainek gutxi eta astiro. Hortaz, Naturak hain eite handiko alimentuaz hornitu zuen, aldakuntza txikirekin eta irazkinik egin gabe, beste hazia elika zezan; eta hori ezin gerta zitekeen haren elikadura odoletik egin behar balitz. Hornidura bera, dio Galenok¹³⁷, egin zuela Naturak gizonaren birsorkuntzan eta oilaskoa eta arraultzetatik jalgitzen diren gainerako hegaztienean; horietan badakusagu bi gai direla, zuringoa eta gorringoa, bata hortik oilaskoa sortzeko eta bestea hortik elikatzeke haren erakuntzak dirauen denbora guztian. Arrazoi beragatik gizonaren sorkuntzan ere bi hazi behar dira, bata hortik umea egiteko eta bestea haren erakuntzak dirauen denbora guztian elikadura eman diezaion.

Baina Hippokratesek gauza hagitx kontsideratzekoa dio¹³⁸; eta da "ez duela Naturak aurrez erabakirik bi hazietatik zeinek izan behar duen eragile eta eratzaillea ez zeinek balio behar duen elikadurarako". Maiz emakumearen hazia gizonarena baino eraginkorragoa izaten delako; eta horrela gertatzen denean, birsorkuntzak horrexek egiten eta senarrarenak elikadurarako balio du. Beste batzuetan gizakumearena da ahaltsuago eta umekorragoa, eta emakumearenak elikatu besterik ez du egiten. Doktrina honetara ez zen Aristoteles etorri, eta ezin zuen endelegatu zertarako balio zuen emakumearen haziak; eta, horretara, hartaz mila zentzugabekeria erran zituen: "ur pixka bat bezalako zela, sortarazteko bertute eta indarrik gabea". Eta hori horrela balitz, ezinezkoa litzateke emakumeak gizonarekin solasean aritzea, aitzitik, haragizko egintzatik iheska lebilke, emakumea hain onestua eta obra hori, aldiz, hain lohia eta dorpea izanik; eta hortik egun gutxitan giza leinua bukatuko litzateke eta mundua Naturak haziriko animalia guztietarik ederrenik gabe geldituko.

Eta horretara, Aristotelesek¹³⁹ galde egiten du ea zergatik ote den haragizko egintza Naturak animalien pozerako ordenatu zituen gauza guztietarik gozoena. Eta problema horri ihardesten dio erranez ezen Naturak gizonen irauaraztea hain zinez nahi zuenez, hargatik hainbeste atsegin ezarri zituela obra horietan, horrela, hartarako interes handiarekin mugiturik, birsortzeko egintzari gogo onez lot zekizkion; eta halako pizgarririk ez balitz ez litzateke gizon ez emakumerik ezkondu nahi lukeenik, eta ez litzaioke emakumeari gehiago interesatuko bederatzi hilabetetan haurra sabelean ekartzea hainbeste atsekabe eta minekin, eta erditzeko garaian bizi galtzeko arriskuan egon; eta horregatik premiazkoa litzateke errepublikak emakumeak ezkontzera behartzea, giza birsorkuntza buka dadin beldurrez¹⁴⁰.

Baina Naturak gauzak leunki egiten dituenek, emakumeari hazi kitzikagarri eta ugalkorra egiteko tresna guztiak eman zizkion, horrekin gizakumeaganako apeta ukan eta harekiko josalean atsegin har zezan: eta Aristotelesek diozen kalitatetakoa izanik, lehenago hura gaitzetsi eta harengandik ihes eginen luke, bera maitatu baino. Horixe frogatzen du Galenok¹⁴¹ basa animaliekin exenplua eginez; eta, horrela, badio urdemea zikiratua baldin bada, behin ere ez duela ordotsa gogoko, eta ez duela onartzen beragana etortzen denean. Gauza bera klarki gertatzen zaio behar baino tenperamentu hotzagoa duen emakumeari: ezkontzeko eskatzen badiogu, ez baita haren belarrietarako gauza gaitzesgarriaririk. Eta gizakume hotzari beste horrenbeste gertatzen zaio, hazi umekorrik ez daukalako.

Emakumearen hazia Aristotelesek dioen bezalako balitz, ezin izan liteke alimentu egokia izan. Zeren elikadura eraginkorraren azken kalitateak erdiesteko, elikatu behar duenarekin gisa bereko eitea eduki behar direlako. Eta hura jadanik landua eta asimilaturik ez baletor, geroago hura ezin eskura lezake, gizakumearen haziak ez baitu tresna edo ofizinarik (nola baitira urdailak, gibela eta barrabilak) bera egosi eta asimilatzen. Horrexegatik aurrikusi zuen Naturak animalia birsorkuntzan bi hazi egon zitezkeen; horiek nahasirik, ahaltuenak erakuntza egin eta besteak mantenu gisa balio ukan zezan. Eta hau egia dela klarki ageri da, zeren beltz batek emakume zuri bat izarra uzten badu, eta gizon zuri batek emakume beltza, bi eratatik ateratzen baita haurra mulato.

Doktrina honetatik ateratzen da egia dela benetako anitz istoriok kontatzen dutena: txakur batek, emakume batekin harremanak ukanik, hura ernaldu zuela; eta gauza bera egin zuela hartz batek basoan aurkitu zuen neskatila batekin; eta beste emakume bati tximino batek bi ume eragin zizkiola; eta beste emakume bat itsas bazterretik paseatzen zebilela, uretatik arrain bat jalgi eta hura ernaldu zuela. Jende arruntari, ordea, zail egiten zaio endelegatzea nola gerta zitekeen emakume horiek gizon betegin eta arrazoidunez erditzea haiek sortarazi zituzten aitak animaliak izanik. Honi ihardesten zaio erranez emakume haietariko bakoitzaren hazia umearen eragile eta eratzaila izan zela, ahaltuagoa zelako, eta horrela giza espeziearen ezaugarriekin itxuratu zuela; eta basa animalia hazia, hain indar handirik ez zuelako, alimenturako besterik ez zuen balio. Eta basapiztia irrazional horien haziak giza haziari alimentu eman ziezaiokeela konprenitzekoa da. Zeren emakume haietarik zein-nahik harzkia edo txakurkia, egosirik edo errerik, jan baleza, harekin elika zitekeen, aharia edo eperkia janez gero bezain ongi izan ez arren. Gauza bera geratzen zaio giza haziari ere, umearen erakuntzan duen egiazko elikadura beste giza hazia baita; baina hau falta delarik, horren lekua animalia haziak bete dezake. Halere, istorio horiek ohartarazten dute elkartzeko horietatik jaioriko haurrek, beren ohitura eta egoeretan, sorkuntzaz ez zirela naturalak izan nabarmentzen zutela.

Erraniko guztitik (pixka bat luzatu bagara ere) jadanik problema nagusirako erantzuerak atera dezakegu. Hots, gizon jakintsuen haurrak ia beti beren amen hazitik egiten direla, aitena, erran ditugun arrazoiengatik, sortarazteko antzua delako eta birsorkuntzan alimenturako besterik balio ez duelako. Eta emakumearen hazitik egiten den gizona ezin izan daiteke argitsu, ez eta trebetasunik eduki ere, sexu horren hoztasun eta hezetasun handiagatik¹⁴². Horregatik egia da ezen, seme diskretu eta azkarra ateratzen bada, bere aitaren hazitik egina izateko aieru dudagabea dela; eta dorpe eta ergela bada, bere amaren hazitik moldatua dela igartzen da. Horixe aipatu zuen jakintsuak erran zuenean: *filius sapiens laetificat patrem, filius vero stultus maestitia est matris suae*¹⁴³.

Litekeena da, halaber, (noizbait) gizon jakintsuaren hazia eragilea eta eratzaila izatea, eta emakumearen alimenturako gertatzea. Baina hortik sort litekeen haurra jakite urrikoa litzateke; zeren, hoztasuna eta lehortasuna endeleguak behar dituen bi kalitate direla kontutan izanik, halere nolabaiteko neurri eta kopuruan eduki behar dira; eta hortik iraganez gero, probetxu baino kalte gehiago egiten du, gizon hagitik zaharregan ageri denez, hoztasun eta lehortasun handiagatik horiek erortzen eta mila burugabekeria erraiten ikusten baititugu. Demagun bada gizon jakintsuari hoztasun eta lehortasun egokian bizitzeko hamar urte gelditzen zitzaizkiola, iraungi aitzin. Horren hazitik seme bat sortaraz baledi, hamar urteak arte trebetasun handikoa litzateke, bere aitaren hoztasun eta lehortasun egokiaz gozatzeagatik, baina hamaikagarrenean laster hasiko litzateke iraungitzen, bi kalitate horiek eduki behar duten puntutik iragateagatik. Eta horixe da esperientziaz zahartzaroan sorturiko semeengan dakusaguna: hartzaroan

hagitz bizkorrak direla, eta gero gizon arras ergelak eta bizi laburrekoak izaten direla; hazi hotz eta lehorraz egin zirelako, horrek biziaren erdia jadanik iragana baitzuen.

Orobat, aita irudimeneko obretan jakintsua bada eta, bere bero handiagatik, hirugarren graduako emakume hotz eta hezearekin ezkondua izanez gero, elkartze honetatik aterako den semea arras ergela izanen da bere aitaren hazitik sortzen bada, hain sabel hotz eta hezean egon eta hain odol destenplatutik elikatua izateagatik.

Alderantziz gertatzen da aita ergela denean, halakoaren haziak eskuarki bero eta hezetasun handiegia daukalako. Hartatik sorturiko haurra hamabost urteak arte zozoa izanen da, aitaren soberazko hezetasunaren parte bat erdiesteagatik¹⁴⁴, baina kontsistentziaren adinean zehar hura gastaturik, hartan gizon ergelaren hazia epelago eta hezetasun urriagorekin egoten baita¹⁴⁵. Argitasunerako laguntza ematen dio, halaber, lehen mailako emakume hotz eta heze baten sabelean, hain hoztasun eta hezetasun urriarekin bederatzi hilabetez egoteak, han hainbesteko gosea eta elikadura falta handia pairatu behar zuelarik¹⁴⁶.

Hau guztia komunzki erran ditugun arrazoiengatik gertatzen da. Baina bada halako gizonen leinu berezia, zeinen ugaltze-atalek, hain indar eta azkartasun handikoak izanik, alimentuei beren kalitate onak kendu eta substantzia txar eta lodi bilakarazten dituzten; hori dela eta, jaki finak jan arren, sortarazten dituzten haur guztiak zakar eta dorpe ateratzen dira. Alderantziz, beste batzuek, alimentu lodi eta tenperamentu txarrekoak usatu arren, haiek meneratzeko hain boteretsu direnez, mandokia eta urdaia janik, argimen hagitz fineko haurrak egiten dituzte. Eta, horrela, egia da badirela gizon ergelen leinua eta gizon jakintsuen kasta ere. Eta beste batzuk eskuarki ero eta zentzurik gabe sortu ohi dira.

Gai hau erro-errotik endelagatzera saiatzan direnei duda batzuk agertzen zaizkie, baina horien erantzuna hagitz erraz aurkitzen da iragan den doktrinan. Lehena hauxe da: nondik heldu da haur bastartak gehienetan beren aiten irudikoak izatea, eta ehun ume legezkotatik laurogeita hamarrek beren amen figura eta ohiturak ateratzea? Bigarrena: zergatik seme sasikoak komunzki gizon jentilak, animoso eta hagitz bizkorrak ateratzen dira? Hirugarrena: zergatik emagaldu batek, ernaldurik dagoenean, haurra galtzeko edari pozoitsuak edan eta anitzetan odola atera arren, ez du behin ere umea egozten; eta emazte ezkonduak, bere gizonaz izorra bada, kausa arinekin haurra galtzen du?

Lehen dudari Planonek¹⁴⁷ ihardesten dio erranez inor ez dela bere borondate propio eta atseginez gaiztoa izaten, aitzinetik bere tenperamentuaren biziotik zirikatua izan gabe; eta gizon lizunkoien adibidea ematen du, horiek, anitz hazi ugalkor edukiz, ilusio handiak eta anitz min pairatzen baitituzte, eta hortik, grina horrek nekaturik, emakumeak bilatzen dituzte, berengandik egozteko. Horiez Galenok¹⁴⁸ dio ugaltze-atalak arras bero eta lehor dituztela, eta horregatik hazi ezin erresumingarriago eta ernalkorragoa egiten dutela. Hortaz, berea ez duen emakumearen bila doan gizona jadanik hazi ugalkor, egosi eta ongi apailatu hartaz beterik doa; eta horrekin nahitaez birsorkuntza egin behar da, parekotasunean, gizakumearen hazia beti eraginkorragoa izaten delako; eta baldin haurra aitaren hazitik egiten bada, nahitaez haren eitea ukan beharko du.

Legezko haurrengan alderantziz gertatzen da, gizon ezkonduak emaztea beti aldamenean dutelako, ez dute inoiz igurikitzen hazia zoritu eta ugalkor bilakatu arte, baina den kitzikadurarik arinenaz beregandik egozten dute, oldar eta inarrospen handiarekin; eta emakumeak haragizko egintzan geldidanez, haien hazi-hodiek ez dute behin ere hazia ematen, egosirik eta ongi apailaturik dagoenean izan ezik, eta neurri handitan daukatenean. Horregatik birsorkuntza beti emakume ezkonduak egiten dute eta senarraren haziak alimenturako balio die. Baina batzuetan bi haziek bikaintasun

bera eduki eta elkarren artean ihardukitzen dute, halako moldez non ez bata ez bestea ateratzen diren erakuntzarekin, eta haurra moldatzen da aitaren ez amaren eiteik ukan gabe. Beste batzuetan badirudi akort jarri eta berdintasuna erdibanatzen dutela: aitaren haziak sudurra eta begiak egiten ditu, eta amarenak ahoa eta kopeta. Eta are gauza miresgarriagoa, maiz gertatu baita haurrak belarri bata aitarena eta bestea amarena ateratzea, eta begiak ere erdibanatzea. Baina aitaren haziak guztiz nagusitzen bada, semeak haren figura eta ohiturak ateratzen ditu; eta amaren hazia ahaltsuagoa denean, arrazoi berberak balio du¹⁴⁹. Horregatik, semea bere hazi berezitik egin dadin nahi duen aitak bere emazteagandik zenbait egunez urrundu behar du, hura egosi eta zoritu arte egonez, eta orduan egiazki berak eginen du birsorkuntza eta haren emaztearen haziak alimenturako balioko.

Erranikoagatik, bigarren dudak ez du kasik zailtasunik bat ere. Seme sasikoak eskuarki hazi bero eta lehorrez egiten direlako, eta tenperatura honexetatik, lehenago maiz frogatu dugunez, sortzen dira kemena, adorea eta irudimen ona, eta mundu honetako zuhurtzia horrexerri dagokio. Eta hazia egosia eta ongi apailaturik egonik, Naturak hartaz nahi duen guztia egiten du, eta pintzelaz pintatzen ditu¹⁵⁰.

Hirugarren dudari ihardesten zaio emagalduen ernaltzea ia beti gizakumearen hazitik egiten dela, eta idor eta arras ugalkorra denez, umetokiari erro sendoekin datxekiola. Baina emazte ezkonduen ernaltzea, bere hazi propiotik egiten denez, haurra txit errazki limurtzen da, heze eta urtsua delako, edo Hippokratesek dioenez; plena mucoris¹⁵¹.

[IV. ATALA] [1594.EKO XXII.A]

Behin eraturik eta jaiorik egon eta gero, haurren argimena kontserbatzeko egin behar diren diligentziak

Gizona osatzen duen materia hain aldagarri eta ustelkorra denez, formatzen hasten den puntu berean hasten da, halaber, desegiten eta aldatzen, horren aurka deus ere ezin eginez; horregatik erran zen: nos nati continuo desinimus esse¹⁵². Eta horretara, Naturak aurrez prestatu zuen giza gorputzean lau ahalmen natural izan zitezen: erakarmena, edukimena, egosmena eta egozmena; eta horiek, jaten ditugun elikagaiak egosiz eta aldaraziz, galduriko substantzia berrornitzen dute, haren lekuan beste bat etorriz¹⁵³. Hortik endelegatzen da probetxu gutxi dela haurra hazi delikatutik egitea baldin ondoko jatekoak ere kontutan edukitzen ez badira; zeren, behin erakuntza bukatu eta gero, ez baitzaio haurrari gelditu hasieran bera eratu zuen hazi-substantzia hartatik deus ere. Egia da lehenbiziko hazi hark, ongi egosia eta apailatua izan bazen, hainbeste indar eta kemena daukanez, jakiak egosiz eta aldaraziz, txarrak eta lodiak izan arren, beren tenperamentu eta substantzia onera dakartzala; baina kontrako elikagaiak sobera erabiliz, umeak bera eratu zuen hazitik hartu zituen kalitate onak gal litzake.

Eta horretara Platonek¹⁵⁴ erran zuen gizonaren argimena eta haren ohitura onak gehienik hondatzera daramatzaten gauzetarik bat jan-edanetako heziera txarra zela. Beraz, kontseilatzen du haurrei elikagai eta edari delikatu eta tenperamentu onekoak eman diezazkiegula, nagusi izan daitezenean txarra gaitzesten eta ona hautatzen jakin dezaten. Eta honen arrazoa hagitz argia da. Zeren hasieran burmuina hazi delikatutik egin bazen, eta atal honek egunero gastatuz eta higituz badoa eta jaten ditugun jakiekin berrornitu behar bada, egia da horiek lodi eta tenplantza txarrekoak badira, horiez sopra usatuz gero burmuina haien izaera bereko eginen dela. Eta horrela, ez da aski haurra hazi onetik eginga izatea, bera eratu eta jaio ondoan janen dituen jakiek ere kalitate berak edukitzea baizik. Horiek zein diren jakitea ez da zaila izan, kontutan hartzen badugu grekoak munduan izan diren gizonik diskretuenak izan zirela, eta, beren haurrak argitsu eta zuhur bilakatzeko elikagaiak eta janariak bilatuz, egiazki hoberenak eta egokienak eridenean zituzketela: izan ere, argimena sotil eta delikatua izateko, burmuinak zati sotil

eta tenplantza onekoez osaturik egon behar badu, gainerakoen gainetik bi kalitate hauek lituzkeen alimentua usatzea komeniko da nahi dugun xedea erdiesteko.

Eztiarekin egosiriko ahuntz-esneaz erran zuen Galenok¹⁵⁵, Greziako mediku guztien iritiz, gizonak jaten dituzten alimentu guztietarik hoberena zela; zeren hagitz substantzia neurritzkoa ukanez gainera, haren berotasuna ez baitzaio hoztasunari aitzintzen, ez eta hezetasunak lehortasuna gaintitzen ere. Horregatik lerro batzuk lehenago errana dugu seme jakintsu, jentil eta ohitura onekoa zinez sortarazi nahiko luketen gurasoek ugalkuntza baino sei edo zazpi egun lehenago eztiarekin egosiriko anitz ahuntz-esne jan zezatela. Baina alimentu hau Galenok dioen bezain ona izanik ere, anitzez gehiago egiten dio argimenari jakia zati sotilez osatua izateak substantzia neurritzkoa izateak baino; zeren burmuina elikatzeke materia zenbat eta finagoa izan, are egiten baita argimena zoliago¹⁵⁶. Hori dela eta, grekoek esnari gazta eta gazura ateratzen zioten (haren osararen bi elementu lodiak, alegia) eta parte butirosoa¹⁵⁷ uzten zuten, aire-izaera daukana. Horixe ematen zieten hurrei jatera, eztiarekin nahasirik, argitsu eta zuhur egiteko ahaleginean. Eta hau egia zela klarki ageri da Homerok kontatzen duenagatik¹⁵⁸. Elikagai honetatik landa, hurrek galbera-ogiaz, ur hagitz delikatuaz, ezti az eta gatz pixka batekin eginiko zopak jan beharko dituzte. Baina olioaren ordeaz (berau endelegurako arras txar eta kaltegarria baita), ahuntz-esnearen gurina ezarriko dute, horren tenperamentu eta substantzia argimenerako egokiak direlako.

Baina jateko arau honetan hagitz eragozpen handia dago. Hurrek, jaki hain delikatuaz usatuz gero, ez dute indar handirik ukanen airearen oldarrei jarkitzeko, eta ezin defenda daitezke eriarazten dituzten gainerako elgaitzetatik. Eta, horretara, jakintsu ateratzeagatik, osasun ahularekin haziko dira eta ez dira anitz urtez biziko.

Eragozpen honek eskatzen digu ea nola haz litezkeen hurrak argitsu eta zuhur, eta arte honek ez diezaiola haien osasunari kontra egin. Eta hori aise kontzerta daiteke baldin eta gurasoak hemen erranen ditudan erregela eta manu batzuk praktikan ezartzera ausart badaitez. Eta jende dirudunak beren hurrak hazteko engainaturik daudenez, eta horiexek baitira materia honetatik beti mintzo direnak, lehenik arrazoa eta kausa eman nahi diet azaltzeko zergatik haien seme-alabei, haurtzainak eta maisuak ukanik eta letretan ardura handiz lan egin arren, zientziak hain gaizki atxikitzen zaizkien, eta hori nola erremedia daitekeen horregatik bizitza laburtu eta osasunari kalterik egin gabe.

Hippokratesek dioenez¹⁵⁹, zortzi gauzak hezaten eta gizentzen dituzte gizonaren haragiak. Lehena alferkerian eta aisian bizitzea da; bigarrena, luzaz lo egitea; hirugarrena, ohe bigunean etzatea; laugarrena, ongi jan eta edatea; bosgarrena hagitz babestuak eta ongi jantzirik egotea; seigarrena, beti zaldiz ibiltzea; zazpigarrena, bere borondatea egitea; zortzigarrena, jolas, denborapasa eta poza eta atsegina ematen dizkioten gauzetan axolatzea. Eta hori guztia hain egia nabarmena denez, Hippokratesek erran ez balu ere, inork ezin uka lezake.

Soilik duda egin liteke ea jende dirudunak beti ere bizimolde hau gordetzen ote duen; baina hala egiten duela egia izanez gero, ongi inferi dezakegu haren hazia heze-hezea dela eta hartatik sortaraziriko hurrek nahitaez soberazko eta gehiegizko hezetasunarekin atera behar dutela; eta hori gastatu eta ahitu beharra dago, batetik kalitate horrek arima arrazionalaren obrak alferrik galtzen dituelako, eta bestetik (medikuek diotenez) gizona egun gutxitan eta osasun gaberik bizi arazten duelako¹⁶⁰. Honen arauz, argimen ona eta gorputzaren osasun fermuak bi-biek kalitate bera eskatzen dute, lehortasuna alegia; horregatik, hurrak jakintsu bilakarazteko agindu eta erregelek berek balioko dute haiei osasun handia eman eta luzaz bizi arazteko.

Komeni da, hortaz, guraso dirudunen haurra jaió bezain laster (haren haragiek haurtasunari komeni zaion baino hoztasun eta hezetasun handiagoa daukatela kontu eginik), hura ur gazi beroarekin ikuztea, horrek, mediku guztiek deritzotenez¹⁶¹, haragiak lehortu eta xukatzen baititu, eta nerbioak fermu ezartzen, mutikoa sendo eta gizaseme eder eginez, eta burmuinaren soberazko hezetasunagatik hura argitsu egiten eta anitz eritasun nagusitatik libratzen du. Aitzitik, bainua ur gozo eta beroarekin izanez gero, haragiak hezitzen dituela eta, Hippokratesek¹⁶² dio, bost kalte egiten dituela: *carnis effaeminationem, nervorum imbecillitatem, mentis torporem, profluvia sanguinis, animi defectionem*; erran balu bezala: "ur gozo eta beroak gizona ematen du, nerbioak flakutzen dizkio, ergel bilakarazten, eta odol-jario eta zoraduretarako prestatzen". Baina haurra amaren sabeletik lehortasun handiegiarekin ateratzen bada, biziki komeni da bera ur bero eta gozoarekin ikuztea; eta horrela, badio Hippokratesek: *infantes diu sunt calide lavandi, quo minus tentent colvulsiones, ipsique crescant et melioris coloris fiant*; errankizun horren bidez haurrak ur beroarekin anitzetan ikuzteko manatz, horrela pasma ez daitezen¹⁶³, errazago hazi eta kolore onekoak egin daitezen¹⁶⁴. Egia da hau beren amaren sabeletik lehorrik jalgitzen diren hurrez aditzen dela, horiei komeni baitzaie beren tenperatura txarra zuzentzea aurkako kalitateak aplikatuz.

Alemanek, dio Galenok¹⁶⁵, ohitura omen zuten beren haurrak jaió bezain laster ibaian ikuztea, irudi baitzitzaian, sutegitik ateratzen den burdina gorria ur hotzetan sarturik sendoago egiten den bezala, halaberean haurra amaren sabeletik izekitan atera eta hain ur hotzetan ikuziz are indar eta kemen handiagokoa egiten zela. Galenok hori alimaleko basakeriatzat kondentzen zuen, eta arrazoi handiarekin; bide honetatik larrua gogor eta hertsia eginen baitzatekeen, eta airearen oldarrek ez zuketean aise aldaraziko, baina gorputzaren barnean sort litezkeen irazkinek minduko lukete, hura zabalik eta irekirik egon ez eta nondik jario eta jalgi ez luketelako¹⁶⁶. Erremedio hobe eta seguruagoa da hezetasun sobera duten haurrak ur bero eta gaziarekin ikuztea; zeren, gehiegizko hezetasuna behin gastatu eta gero, osasunetik arras hurbil geldituko baitira, eta larruaren bideak hertsiz ez dira nolanhiko okasioan minduko, ez eta barneko irazkinak hain hertsirik gelditzen, non ez duten jalgitzeko bide irekirik. Eta Natura hain boteretsua denez, bide publiko bat kentzen badiote, hartarako beste bat bilatzen du, eta guztiek huts eginez gero, badaki bide berriak egiten kalte egiten diona handik egozteko. Eta, horretara, bi muturretatik, osasunari gehiago komeni zaio larrua gogor eta hertsia xamarra ukaitea, bigun eta irekia baino.

Bigarrenik, komeni da, behin haurra jaió eta gero, hura haizeen eta airearen aldakuntzen lagun egin dezagun, beti babespean eduki gabe, bestela ahul, eme, ergel eta indar gutxiko bilakatuko baita, eta hiru egunetan hilko. Hippokratesek dioenez¹⁶⁷, ezerk ez ditu haragiak horrenbeste ahultzen, nola leku epeletan, bero-hotzetatik gordeetan egoteak. Halaber, osasunerako ez da erremedio hoberik gorputza haize guztietara, beroetara, hotzetara, hezeetara eta lehorretara moldatzea baino; eta horretara, Aristotelesekin galde egiten du ea zergatik galeretan bizi direnek osasun eta kolore hobea duten, padura-lurretan¹⁶⁸ bizi direnek baino. Eta eragozpena areago hazten da, kontsideratzen bada pairatzen duten biziera txarra, zoruan jantzirik lo eginez, zoharditan, eguzkitan, hotzetan eta uretan, hain gaizki jan eta edanez. Gauza bera galde daiteke artzainez ere, horien osasuna gizonek dutenik sendoena izanik. Eta horren kausa da airearen kalitate guztiekin jadanik adiskidetu direla, eta Natura ez da ezertaz ere harritzen. Aitzitik, argi dakusagu gizon bat bere burua ongi zaintzen eta eguzkiak, hotzak, gaueroak eta hotzak jo ez dezan ahalegintzen denean, hiru egunetan ahiturik dagoela, eta hargatik honela erran liteke: *qui diligit animam suam in hoc mundo perdet*

eam¹⁶⁹. Airearen aldakuntzetatik inor ezin gorde baitaiteke; eta, hortaz, hobe da guztitara ohitzea, gizona artagabe egon dadin, beti ere kezka bizi gabe. Jende arruntaren okerra hau pentsatzean datza, haurra hagitza bigun eta delikaturik jaio dela eta ez duela jasanen bere amaren sabeletik, (hain bero handia dagoen tokitik) aire hotzaren lekura iragatea, horrek kalte handia egin gabe. Eta, egia erran, engainaturik daude, zeren Alemanian, hain hotza izan arren, haurrak bero-berorik ibaian sartzen zituzten; eta hori arras egintza basa izan arren, ez zitzaizen txarrik egiten, ez eta hiltzen ere.

Komeni den hirugarren gauza da unide gazte bat bilatzea, temperamentu bero edo lehorrekoa, edo (gure doktrinaren arauetz) lehen gradu hotz eta hezea, mentura txarrean¹⁷⁰ hazia, lurtean lo egitera ohitua, gutxi jatera eta gaizki jantzerak, gauaropean, hotzetan eta berotan ibiltzerak ohitua. Hainak esnea arras fermu eta airearen gorabeheretara usatua eginen du, eta hartaz elikaturik haurraren atalek fermutasun handia erdietsiko dute. Eta diskretu eta zuhurra baldin bada, argimenari probetxut handia eginen dio; honen esnea arras mehe, bero eta lehorra delako, eta bi kalitate horiekin zuzenduko da haurrak amaren sabeletik atera zituen hoztasun eta hezetasun handiak. Umearen indarretarako esne aritua edoskitzeak nolako munta duen, klarki frogatzen da zaldietan, horiek, goldaketan eta eultzitzen arituriko behor usatuen kume direnean, hagitza lasterkari onak gertatzen eta lanean luzaro ohi dira; eta baldin amak beti jolasean eta larrean alhatzen ari badira, lehenbiziko lasterketan ezin daitezke zutik egon. Beraz, unidearekin ordena hau eduki behar da: erditzea baino lau edo bost hilabete lehenago etxera ekarri eta izorrak usatzen dituen jaki berberak jatera ematea; lehenago jan zituen hazkurri txarretatik berak eginik zituen odola eta gainerako humoreak gastatzeko denbora ukan dezan, eta haurrak, jaio eta gero, bere amaren sabelean elikatzeke eduki zuen esne berbera edoski dezan, edo, gutxienez, jaki berekin egina.

Laugarrenez, ez da haurra ohe bigunean lo egitera ohitu behar, ez hagitza arropaturik ekartzea, ez eta jatera anitz ematea ere; hiru gauza hauek guztiek, Hippokratesek dioenez, haragiak ukatzen eta lehortzen dituztelako, eta aurkakoek gizentzen eta zabaltzen¹⁷¹. Eta hau eginez gero, lehortasunaren kausaz¹⁷² haurra argimen handiarekin hazi eta anitz egunez biziko da. Eta bestela, eder, lodi, odolez betea eta zozo bilakatuko da; eta jarrera horri Hippokratsek atletiko erraiten dio, eta arras perilo deritza¹⁷³.

Errezeta* eta bizitzeko ordena honekin berarekin hazi zen munduan inoiz izan den gizonik jakintsuena, Kristo gure salbatzailea alegia, gizona zen aldetik; honegatik salbu, Nazaretetik kanpoan jaio zelako, menturaz haren amak ez zuela aldamenean ur gazirik ukan bera ikuzteko. Baina hori juduen ohitura zen eta Asia guztikoa ere bai, mediku jakintsu batzuek sartua, horrela haurrei osasuna emateko; eta, horretara, hau dio profetak: Et quando nata es in die ortus tui, non est praecisus umbilicus tuus, et aqua non es lota in salutem, nec sale salita, nec involuta pannis¹⁷⁴. Baina, gainerakoaz den bezainbatean, jaio bezain laster hasi zen hotzarekin eta airearen beste aldakuntzekin adiskidantza egiten. Eta haren lehenbiziko ohea zorua izan zen, gaizki jantzirik, Hippokratesen errezeta gorde nahi ukan balu bezala. Handik egun gutxitara harekin Egiptora joan ziren oinez, bero handiko lekura, eta hantxe egon zen Herodes bizi izan zen denbora guztian. Haren amak, honela ibiliz, zinez esne ongi aritua eta airearen aldakuntzetara moldatua emanen ziokeen.

Jatera ematen ziona grekoek beren haurrei argimena eta jakituria emateko eriden zuten jakia izan zen. Hori, lehenago erran dugunez, esnearen zati butirosoa zen, eztiarekin jaten zena. Eta, honela, Isasiak hau erran zuen: Butyrum et mel comedet, ut sciat reprobare malum et eligere bonum¹⁷⁵. Eta hitz horiekin badirudi profetak aditzera eman nahi zuela, hura egiazko Jainkoa bazen ere, batera gizon betegina izan behar zuela

eta, jakituria naturala eskuratzeko, gizonen gainerako semeen diligentziak berak egin behar zituela. Nahiz eta honek endelegatzeko zaila dirudien, eta burugabekeria ere bada pentsatzea, Kristo gure salbatzaileak mutikotan gurina eta ezitia janagatik txarra gaitzesten eta ona hautatzen jakin beharko zuela, berak. Jainkoa izanik, mugagabeko jakituria ukan eta, gizona zen aldetik, bere ahalmen naturalaren arauz errezihi zezakeen goitiko zientzia guztia emana zuelarik. Horregatik, egia da bere amaren sabelean bazekiela hogeita hamahiru urte zituenean bezainbat, eta gurinik ez ezirik jan gabe, ez eta giza jakituriak behar dituen beste bide naturalez baliatu gabe ere.

Baina, horrekin guztiarekin, indar handia egiten du profetak troiarrek eta grekoek beren haurrei argitsu eta zuhur egiteko eman ohi zieten jaki bera seinalatua ukaiteak, eta ut sciat reprobare malum et eligere bonum... erraiteak, horrela aditzeko, hazkurri haiengatik Kristo gure salbatzaileak (gizona zen aldetik) are jakituria erdietsi handiagoa eskuratu zuela aurkako beste jaki batzuk usatu balitu baino; edo premiazkoa dateke ut partikula hura azaltzea hitz horiekin mintzatzean zer erran nahi zuen jakiteko¹⁷⁶.

Eta, horretara, Kristo gure salbatzailearengan bi natura zirela suposatu behar dugu, egia den bezala eta gure fedeak irakasten digunez: bata jainkozkoa, egiazko Jainkoa zen aldetik; eta bestea gizatiarra, arima arrazionalaz eta gorputz elementatuaz¹⁷⁷ osatua, gizonen gainerako semeek daukatena bezala eratua eta antolatua.

Lehenbiziko naturaz den bezainbatean, ez da Kristo gure salbatzailearen jakituriak tratatu behar, hura infinitua izanik, gehipen edo urripenik gabea, beste ezein gauzaren pean egon gabe, zeren, Jainkoa zenez gero, bere amaren sabelean hogeita hamahiru urte zituenean bezain jakintsua baitzen, eta halakoxea zen ab aeterno.

Baina bigarren naturari doakionez, jakiteko da Kristoren arima, Jainkoak hura sortu zuen unetik, zorionekoa eta gloriosoa izan zela. gaurko egunean dagoen bezala; eta Jainkoaz eta haren jakituriak gozatzen baitzen, egia da ez zuela ezertan ere ezjakintasunik; aitzitik, bere ahalmen naturalean eduki zezakeen goitiko zientzia guztia ukan zuen. Baina, horregatik, egia da ezen, gloria gorputzaren tresnei komunikatzen ez zitzaien bezala (giza leinuaren berrerospenaren kausaz), goitiko jakituria ere ez, ez baitzegoen burmuina horniturik ez antolaturik arimak tresna horrekin gogoeta egin eta filosofoa zezan beharko lirakekeen kalitate eta substantziekin. Zeren obra honen hasieran erran genuenaz oroitzen bagara, Jainkoak gizonen artean gratis datas banatzen dituen graziak eskuarki eskatzen baitute, bai berek aritzeko behar duten tresna eta bai berak hartu behar dituen subjektua, dohain bakoitzari premiazko zaizkion kalitate naturalez horniturik egotea. Eta hori horrela da arima arrazionala gorputzaren egintza delako, ez baitu obratzen haren gorputz-tresnez baliatu gabe.

Kristo gure salbatzailearen burmuinak (haurra eta jaio berria zelarik) hezetasun handia zeukan, adin horretan hori gauza naturala eta hala izatea komeni delako; baina hain kopuru handikoa izanik, haren arima arrazionalak ezin zezakeen naturalki gogoeta egin ez eta filosofoa ere tresna harekin; eta, horretara, goitiko zientzia ez zen gorputzeko oroimenera iragaten, ez irudimenera, ez endelegura, hiru ahalmen horiek (jadanik frogaturik utzi dugunez) organikoak direlako eta eduki behar zuketan bikaintasunarekin ez zeudelako. Baina, denborarekin eta adin nagusiarekin burmuina lehortuz zihoakion neurrian, arima arrazionalak, halaber, egunez egun goitiko jakituria areago nabarmenduz zihoan, haren gorputz-ahalmenei ere komunikatuz.

Eta, naturaz gaindiko zientzia honez landara, beste bat ere bazuen, haurrek entzuten, ikusten, usnatzen, dastatzen eta ukitzen dutenetik hartua¹⁷⁸; eta hau, egiazki, Kristo gure salbatzaileak gizonen gainerako seme-alabek bezala eskuratzen zuen¹⁷⁹. Eta gauzak ongi ikusteko begi onak, eta hotsak entzuteko belarri onak behar zituen bezala, arrazoi beragatik burmuin ona behar zuen onaren eta txarraren artean bereizteko. Eta,

hortaz, egia da, hain jaki delikatuak jatearekin, haren burua egunez egun hobeki antolatuz zihoala, jakituria handiagoa erdietsiz; halako manieraz, ezen baldin Jainkoak kendu balio goitiko zientzia hiru aldiz bere biziaren harian, zer eskuratu zuen ikusteko, aurkituko genukeen hamar urte zituenean bost zituenean baino gehiago zekiela, eta hogeit zituenean gehiago hamarrekin baino, eta hogeita hamahirurekin hogeirekin baino gehiago.

Eta doktrina hau egiazkoa eta katolikoa dela ebangelioaren testuak letraz frogatzen du, dioela: Et Jesus proficiebat sapientia et aetate et gratia apud Deum et homines¹⁸⁰. Jainkozko Eskriturak har ditzakeen anitz adiera katolikoen artetik, nik beti hobesten dut letrari datzekiona hitz eta eleei beren erran-nahi naturala kentzen diena baino.

Burmuinak eduki behar dituen kalitateak zein diren, eta nolako substantzia, jada erranik dugunez, Heraklitoren iritziz, lehortasunak arima ezin jakintsuago egiten zuela¹⁸¹; eta Galenoren errankizunaz¹⁸² frogatu dugu burmuina substantzia hagitz delikatuaz osaturik dagoelarik, argimena sotil egiten duela. Lehortasuna Kristo gure salbatzailea adinarekin erdietsiz zihoan, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte idortuz eta haragiak xukatuz eta gehiago jakinez joaten garelako. Burmuinaren atal sotil eta delikatuak indartuz zihoazkion Isaia profetak erran zituen jaki haiek janez; zeren une bakoitzean elikatu eta zerion substantzia hornitu behar bazuen, eta hori jakien bitartez, eta ez beste inolako manieraz, egin behar bazuen, egia da beti ere behikia edo urdaia jan balu, egun gutxitan burmuina lodi eta tenperamentu txarreko eginen zitzaiokeela, eta horrekin haren arima arrazionalak ezin gaitzets zezakeen txarra eta ona hauta, mirari bidez eta bere jainkotasunaz baliatuz izan ezik. Baina, Jainkoak hori bide naturaletatik eramanik, jaki delikatu horiek usa zitzala manatu zuen, eta horietatik elikatuz burmuina tresna hagitz ongi antolatua eginen zen, eta horrela, jainkozko edo goitiko zientziaz baliatu gabe ere, naturalki ona gaitzets eta ona hauta zezakeen, gizonen gainerako seme-alabek bezala¹⁸³.

Laudetur Christus in aeternum*

SUARI BURUZKO ERANSKINA

"Baina geure osaeran genuen su galdua hornitzeko, sua pultsu eta arnasbidetik sartzen delako hau ez da aise endelegatzeko gauza, eta esperientziak ere ez digu erakusten¹. Galenok ere ezin zuen asmatu sua, Ilargiaren ahurtasunean egonik, nola jaits zitekeen, peripatetikoek iritziz, mistoen sorkuntza eta kontserbaziora, horietako anitz lurraren azalean ez eze, baina itsasoaren sakontasunean, eta beste batzuk lurraren barrunbeetan; are gehiago haren gogo naturala gora igotea izanik, airea baino arinago delako, eta ez behera joatea, bortxa handiren bat eginez izan ezik. Eta, horrela, sua zati ttiki-ttikitan zatiturik zegoelako itxura egin zuen, atomo gisa, eta airearekin nahastura arin batekin loturik zegoela, gauza naturalen kontserbazioa eta sorkuntza sokorritzeko².

Baina, egia esan, Galenoren iritzia faltsua da, eta are gehiago Aristotelesena, suzko esfera Ilargiaren ahurtasunean jartzeagatik. Egiazki, Jainkoak eta Naturak ez baitute inoiz gauza alfer eta xedegaberik egiten³. Eta suak, Ilargiaren ahurtasunean egonik, ez duke ezertarako balio. Beraz, Jainkoak ez zuen sortu, eta sortu bazuen, ez zuen halako tokian ezarri. Eta han dagoelarik ez duela ezertarako balio gauza hagitz argia da, sutatik erdiets daitezkeen probetxu guztiak banan-banan aztertuz.

Lehen-lehenik, ez du argitzen, ez berotzen eta ez dario kerik ere, hauexek baitira berak non-nahi ere den bere burua erakusteko dituen aieru bereziak, eta horiek gabe alferrik eta hutsalik erraiten da inon surik badela. Eta mistoak ere ez daude harez osaturik, Jainkoak xede nagusi horretarako sortu zituen eta. Eta ezpere, erran biezadate peripatetikoek: gizona bere amaren sabelean, arraina itsasoaren sakontasunean, eta landarea lurpean sortzen direnean, nola daki [suak] noiz eta nora joan behar duen, eta nola jaisten den bere joera naturalaren kontra, eta itsasoan den bezainbat urak bera iraungi gabe? Irudi zait suari ematen ez bazaio bera zuzen eta goberna dezakeen endelegu handi bat, ezin daitekeela bestela egin ez eta adi ere. Argumentu honek biziki komentzitu zuen Galeno, eta Hippokrates areago, xaloki honela erran zuen eta: omne enim quod inter caelum et terram est, spiritu repletum est⁴. Zeren arrazoi eta zentzu guztietatik kanpo iruditu zitzaion sua airearen gainean ezartzea, ikusirik animalien eta landareen sortzapena eta kontserbazioa ezin egin daitekeela egin hor sua present egon gabe. Eta ni harritu egiten nau medikuntzan eta filosofia naturalean zentzutik eta arrazoimenetik hain urrun den gauza bat Galenok erraiteak, Hippokratesek erran zuenaren aurka, hura hain adiskide handia ukanik.

Bigarren argumentua Aristotelesen erran egiazko hartan oinarritzen da, honela dioena: inter corpora simplicia solus ignis nutritur⁵. Eta elikadura hori ez du lurak behar, ez urak, ez aireak; haiek berenez kontserbatzen direlako, inoren laguntzarik gabe. Baina sua gairen bat gastatzen eta suntsitzen aritzen ez bada, berehala itzaltzen da; Aristotelesek erran zuen bezala, ke izekia besterik ez baita, eta kerik ez den lekuan ezin dagoke garririk. Kea aire-izaerazkoa baita, eta elementu horretatik (Hippokratesek erran zuenez) mantentzen da sua, non-nahi izanik ere, eta honela zioen: spiritus nutrimentum praebet igni, quo si ignis privetur, vivere non possit. Eta horretara da egiazki; airea nagusi duten mistoak baitira sua elikatzen dutenak, hala nola bikea, erretxina, olio, bilgorra, gantza, ezkoa eta egurra; eta ura eta lurra nagusi diren tokietan hura hiltzen dute. Eta hau honela izanik, zein gai da bere baitan Ilargiaren ahurtasunean den bezainbat su kopurua daukana? Zeren, hain agente anker eta eragilea izanik, bera sortu zenetik sei mila urte hauetan jadanik gastatua eta iraungia zukeen airearen, lurraren eta uraren esfera guztia, atzera egin ezinean.

Honi peripatetikoek ihardets liezaioke (ene irudiz) suak bere esferan ez duela iharduerarik, ez duela berotzen, ez argitzen, ez kerik ateratzen eta ez duela gairik bat ere gastatzen bere elikaduran, eta Aristotelesek erran zuena hemen dugun su elementatuaz

aditu behar dela. Eta erantzuera horretan argudioak indarra duela aditzen dut, horren alde ez zentzuak ez endeleguak laguntzen duten gauza bat ihardetsarazten dielako; aitzitik, klarki kondenatzen ditu, diotenaz ez baitute behin ere esperientziarik ukan, ez ikusi, ez eta ukitu, erretzen duen ala ez jakiteko, eta filosofia naturalean zentzua falta denean, berehala bukatzen dira endeleguaren gogarte onak eta horien lekuan irudimena sartzen da, urrezko mendien eta idi hegalarrien itxurak egiten. Eta galde badegiegu peripatetikoei ea zergatik airearen erdialdea guztiz hotza den, guztiek erantzuten dute ezen, hotza suaren bero handitik iheska joanez, leku hartan bildu eta trinkotzen dela antiparistasiaren bidez⁶. Hortaz, erantzuera honen arauz, suak bere esferan dagoelarik ere berotzen du, hotzak haren berotasunetik ihesi egiten baitu. Peripatetikoek mintzaira komuna da, halaber, airetik su egiten dela eta sutatik aire⁷. Eta horren kausa galdetuz gero, diote sua airearekin berotasunean bat datorrela eta hezetasunean haren kontrakoa dela, eta suak, bere lehertasunarekin airearen hezetasuna hondatuz, hura su erraz bilakarazten duela⁸. Baina hori ez da gertatzen ura su eginez; zeren lehenik elkarren kontrako bi kalitate usteldu behar baitira (zein baitira hoztasuna eta hezetasuna) bere forma sartu baino lehen, eta horretan nahitaez luzatu beharra dago. Halaber, elementu soilek beren esferan iharduerarik ez badute, ezinezkoa dateke mistoak sortu ahal izatea. Misturan elkartzean haietako batek ere bere indarrak galduko ez lituzkeelako, egia izanik elementu bakoitzak haiek bere kontrakoaren iharduerarekin galdu behar dituela; eta soila delarik batek ere iharduerarik ez badu, nahastura laster bukatuko litzateke, *mixcibilium alteratorum unio*⁹ baita. Eta elementu soilek, nahasturara etorririk, iharduerarik baldin badute, nola dakik beren esferan hura ez zutela? Era berean, faltsuki diok Aristotelesen errankizun hura, *inter corpora simplicia solus ignis nutritur*¹⁰ dioena, hemen dugun su elementatuaz aditzen dela. Egia baita, hark proposamen hau ezarri zueneko liburuak, *De generatione et corruptione* izenekoak, lau elementu soilen mugimendu eta aldaketei doazkiela, eta ez mistoenei. Eta ezperere, erran biezadate peripatetikoek zergatik hemen dugun suak erretzen, argitzen eta kea ematen duen, eta su soilak ez. Egiaz, mistoak misturan nagusi gelditu den elementuaren mugimendu eta kalitateei baitarraie; eta hark horrelako kalitateak ez baleuzka, horiek ez lirateke mistoetan ere kausituko.

Hirugarren argumentua honetan oinarritzen da, ezinezkoa baita su-garririk egotea kerik ez bada. Haren izaera eta natura, Aristotelesek erran zuenez, *fumus incensus* zelako. Eta keak kalitate hau dauka: jalgitzeko tximinia eta arnasbiderik ezbadauka, berak bere burua ito eta garra hiltzen du; bentosaren barnean¹¹ izekitzen den suan ageri den bezala, arnasbidea falta duenean, berehala itzaltzen da eta. Beraz, suzko esfera ke izekia besterik ez bada, nola liteke Ilargiaren ahurtasunean kortserbatzea arnasbiderik gabe? Batez ere, (Aristotelesek dioenez) kea erretzen den gauzaren lurrezko eta airezko aldea besterik ez dela kontutan izanik.

Laugarren argumentuak Aristotelesen erran hagitz ospetsu eta egiazko batean hartzen du oina: barneko mundu hau izarren eta zeruen, bereziki Ilargiaren eta Eguzkiaren, mugimendu eta aldaketen bidez gobernatzen dela, horiek gabe ezinezko bailitzateke iragatea, ez eta lurra fruitu ematea ere¹². Eta baldin suzko esfera hori zeruaren eta airearen artean balitz, naturalki ezin egin liteke; neguaren eragin hotz eta hezeek beheko horiek ezin iragan ez aldaraz litzaketelako, zeren, lehenik, sua hoztu eta hezatu beharko bailukete, eta suak airea, eta aireak lurra. Izan ere, suak hainbeste hoztasun eta hezetasun gaindi dezakeela erraitea, non, berotu gabe hoztu, eta idortu gabe hezatu ahal duen, beti ere su geldituz, nik ez dut uste munduan izan denik hori baieztera ausart daitekeen filosoforik. Zeren, Aristotelesen iritziaren arauz, gainerako elementu guztiak bestelakotu eta beren lehen kalitateak galdu eta aurkakoak eskura baititzakete, usteldu

gabe, sua izan ezik¹³. Eta horretara, guztiak ustel daitezkeela, baina hori ez, hezetasunik ezin errezibi dezakeelako, eta munduan bera baino agente beroagorik ez delako. Lurra, hotz eta lehorra izan arren, bero eta heza daiteke, beti ere lur iraunez; eta ura, hotz eta heze bada ere, hainbeste bero sor dezake, non erre eta kiskaltzen duen, bere natura galdu gabe; eta badakusagu aireak bere baitan zeruko aldaketa guztiak errezibitzen dituela, zeru iraunez. Soilki suak ezin dezake hori egin itzali edo bera aldarazten duena gainditu gabe. Eragozpen bera dute eragin bero eta lehorrek ere, guregana iragateko, lehenik berotu eta sua lehen zegoena baino gehiago idortu behar dutelako, eta suak airea, eta aireak gu. Hortaz, sua, soil eta bere leku naturalean delarik, jadanik dagoena baino beroago eta idorrigo jar daitezkeela erraitea burugabekeria handia da; baina berotasun gradu bat eskuratzeko, beste bat hoztasunean galdu behar da, eta sua goren mailan berorik bazegoen, ez zeukan hoztasun-gradurik bat ere eragin beroak haren gainetik iragan zirenean. Peripatetikoek erran lezaketen bakarra hau da, eraginek airea aldarazten dutela, baina ez sua, irudi lekiekeena baino okerragoa dena, alegia.

Baina suaren materia hau tratatzen hasi garenez gero, ona izanen da bera bukatu eta filosofo naturalak orain arte sortu diren beste anitz okerre desengainatzea. Eta horietariko bat sua munduan den gauzarik arinena dela pentsatzea; eta hortik etorri zitzaizen hura airearen gainean ezartzea¹⁴. Eta baldin ongi kontsidera badezagu, klarki eriden dezakegu sua gauzarik pisuena dela edo, gutxienez, gauzak pisutsu izateko kausa dela, beren elikaduran arin eta porotsu egiten zituen airea kenduz, eta beherako gogoia duela eta ez gorakoa.

Oinarritzen naizen lehen arrazoia da esperientziaz ikustea ezen zernahi suren garrak bi mugimendu natural dituela, eta horiek gabe ezin bizi daitezkeela une batez ere: bata goranzkoa da, eta horrekin bere elikaduran egiten dituen irazkinak kanporaten ditu; eta bestea beheranzkoa, elikatze behar duen hazkurria hartzeko. Mugimendu hau ezin dezake uka ezin filosofo naturalek; zeren bi kriseilu hartzen baditugu, bata hila eta ketan, eta bestea izekia eta goian ezarria, klarki ikusiko baitugu garra kriseilu bizitik ketik behera jaisten dela itzaliaren metxan atxiki arte. Eta baldin Jainkoak kandela izeki bat ezar baleza Ilargiaren ahurtasunetik Lurraren erdiraino, garra distantzia hori guztia inolako bortxarik gabe jaitsiko litzateke. Galenok eta gainerako filosofo naturalek goranzko mugimendua naturalena dela dioten arren, guztiak arras engainaturik daude, goranzko piramidea egiten duen igoera hura keari dagokiolako, eta horri garra, ezin arinagoa izanik, loturik aurkitzen da. Eta hori argi frogatzen da ikusiz kea galduz doan heinean, garra beheratuz eta iraungiz doala.

Bigarren argumentua ateratzen da esperientziaz ikustetik ezen sua gainerako elementuak baino nagusiago duten misto guztiak oso astunak direla eta lurrezkoak baino pisu handiagoa dutela. Eta ezpere, gogoeta begite peripatetikoek mineral eta medikuek su potentzial¹⁵ deitzen dituzten guztiez; eta suak bezala erretzen eta kopuru txikitari pisu handia dutela aurkituko dute. Eta sua dioten bezain arina balitz, egia litzateke bera nagusi duten mistoak ere halaxe liratekeela. Eta hori ezin uka daiteke, airea nagusi duten mistoek, hura arina izanik, uraren gainean igeri egiten dute eta; eta Aristotelese¹⁶ zuhaitzen exenplua dakar, eta horietatik ebano beltza ateratzen du, airea falta eta anitz lur daukalako uretan murgiltzen dena. Bada, zer arrazoi da sua airea baino arinago bada, suzko mistoak uretan hain arin murgil daitezten, eta ez, ordea, airezkoak?

Hirugarren argumentua da ikustea eta kontsideratzea hats bero eta lehorra zein laster igoten den gorantz, kea adibidez, eta nolako oldarraz itzultzen da beherantz sua piztu eta egiten bada. Eta ezpere, erran biezadate peripatetikoek nola eta zein kausa materialez egiten den tximista, eta argi ikusiko dugu sua arina ez baina astuna dela. Tximista egiteko kausa materiala (dio Aristotelese¹⁶, kearen izaerako hats bero eta lehorra da, arina izanik gora igona eta, antiparastiaren bidez, hodeiekin nahasirik eta

mugimenduarekin su bilakatu zena¹⁷. Hori horrela bada, nola izan daiteke, arina zelako gora igon zen hatsa, behin izeki eta su egin eta gero, jaitsi eta bere haserre eta abiaduraz dorre bat erditik haustea, gora igoteko bi kausa izan arren eta jaisteko bat ere ez?

Honi peripatetikoek ihardets liezaiokete (gaizki alabaina) tximistaren jaitsapen hura gogorra dela eta bera hertsirik zeukan hodeitik kanporatzeak eraginik. Baina hori ezin erran dezakete. Lehenago ez baitio hodeiak jalgitzen uzten, eta hain hertsirik dagoelako tximistak berak hausten du hodeia eta handik kanpora jalgitzen. Baina, egia baldin bada, hatsa, behin egin eta gero, hain arina dela, zergatik ez du hodeia haren gainetik hausten, hura haren toki naturala izanik? Nik, egia erraiteko, neure endeleguarekin ezin konpreni dezaket hodeiak, hain lurrin biguna izanik, halako sumindura handiarekin hats izekian hain kolpe handia nola eman dezakeen, hura jaitsarazi eta lurpean zazpi estadiotan sartuz¹⁸. Zeren, pisutsuak berez oldarra besterik ez daukan eta ezin eduki dezakeen bezala, hau Lurraren erdiranzkoa izanik, horrela arinak dena gora jotzen du eta ezin dezake inor bultza beherantz.

Hortaz, tximista gora igoteko, hiru kausa dira: lehena, hatsa; bigarrena, sua; eta hirugarrena hodeia; eta jaisteko ez dago bat ere. Horregatik sinetsirik nago (norbaitek ni desengainatu arte) sua anitzez pisuagoa dela lurra baino, eta horren toki naturala honi darraion kapituluan erranen da¹⁹.

Hirugarren puntuaz den bezainbatean, zein baitzen suzko esfera naturalki Lurraren erdian datzala erraitea eta baieztatzea²⁰, hori hagitz ongi inferitzen da sua munduko gauzarik pisutsuena dela frogatzetik. Are gehiago, sua toki horretan ezarri gero, gauzak zein ederki egokitzen diren ikusiz eta zenbat eragozpen sortu diren Ilargiaren ahurtasunean ezartzetik kontsideratuz. Suaren elikadura, kearen egozte eta oldarren sorkuntza inolako eragozpenik gabe egiten da. Suak beragana gauza guztiak erakartzeko bertutea daukalako eta Lurraren hutsune guztiak airez eta urez beterik daudelako. Berekin hiru elementu hauek (lurra, ura eta airea), aise nahasi, egosi eta eraldatzen ditu, eta haietatik bere burua elikatzeke hazkurria egiten (kasurako, sufrea eta kresala), eta kea ateratzeko bide eta haizetatzeke arnasbide handiak dauzka. Eta horren argumentu nabarmena Pozzuoli-n diren Vulcanoren Errementaldegiak, Napoli ondokoak, hor suzko aintzira eta mendiak ageri baitira. Eta hauek ikus daitezkeen gisara, Lurraren biribiltasunean beste anitz izanen dira, hor sua bere elikadurari egokituriko mila mineral moetarekin mantentzen delarik. Eta su hori hemen lekorean mantentzen den bezala, erraz endegatuko dugu han Lurraren erdian gertatzen dena, zeren ez baitut nik dudarik egiten suzko mendi eta aintzira hauek moeta berekoak direla, eta menturaz haren arnasbideak ere bai.

Bigarren argumentuak suzko esfera Lurraren erdian ezartzera gonbidatzen eta are bortxatu ere egiten nau, ikusirik iritzi honek nolako kontsonantzia ona egiten duen Eliza katolikoak infernuko suaz irakasten digun guztiarekin²¹. Teologo guztiek diotenez, su hori hemen dugunaren moeta berekoa delako, kalitate berberak edukiz, eta Jesu Kristo infernuetara jaitsi zen, su hori zetzan tokira. Eta ez da sinesteko, Jainkoak hura ezin arinagoa eginga bazuen (haren izaera halakoxea baitzen), Lurraren erdian edukitzeke bortxa hura egin ziezaiokeenik, haren toki naturala Ilargiaren ahurtasuna izanik, han Jainkoak arimak eta deabruak Lurraren erdian bezain errazki tormenta baitzitzakeen; bereziki hura munduaren erakuntzaren lehen egunetik sortu zuela kontutan harturik, orduan elementu bakoitzari bere toki naturala emanik, bati ere bortxarik egin gabe.

Eta Jainkoak munduan dakusagun makina hau²² eratu bezain laster suzko esfera sortu zuela ezin uka daiteke, honen arauz: *ite, maledicti in ignem aeternum qui paratus est diabolo et angelis eius ab origine mundi*²³. Era berean, fedeak irakasten digu munduak suz bukatu behar duela, honen arauz: *qui venturus...** Eta iritzi honen hastapenetik

klarki segitzen da, Lurra finitua izanik (eta gainerako elementuak ere bai) eta suaren iharduera infinitua, eta haietatik bere elikadurarako beti gastatuz berronitu ezinik, azkenean nahitaez suntsitu behar baita, honen arauz: omne finitum per ablationem finiti tandem consumitur. Suaren iharduera infinitua dela erran dut, beti ere erregaiak eransten dizkiotelako: eta etengabeki iraunen du beti, jakintsuak erran zuenarekin bat: ignis vero nunquam dicit "sufficit"²⁴.

Jainkoak suzko esfera sortu eta hura Lurraren erdian ezarri zuela eta elikatu beharra daukalako ustean, erantzun argi eta egiakoa ateratzen zaio problema aski arruntari, zeini honaino ezein medikuk ez filosofo naturalek ihardetsi ahal izan dion, horretan zinez saiatu badira ere. Alegia, ea zergatik putzuak udan hotz eta neguan bero egoten diren.

Aristotelesek eta haren segizioko guztiek dioten eta baieztatzen duten bezala, hotzak udan Eguzkiaren berotasun handitik ihes egiten du, eta seguruago egoteko, putzu eta haitzuloetan sartzen da, eta hor, ura aurkiturik, hoztu egiten du bera; eta gauza bera egiten du beroak neguan bere kontrakotik iheska. Ihardespen honek, faltsua izateaz gainera, Aristoteles beraren doktrinaren kontra erraiten du; eta Galenok harritu egiten nau, hark Hippokratesen ventres hieme et natura calidissimi sunt 25 aforismoaren iruzkina egitean hura berme gisa aipatzen zuelako, erantzuera hori arras egiazkotzat onartuz. Eta horretara, jakiteko da kanpoko bost zentzuen artean, ukimena (dio Aristotelesek) premiazkoa dela gizonaren eta gainerako animalien bizitzarako, eta beste laurak apaintzeko eta osamaitzeko balio dutela; izan ere, dakusagunez, dastamen, usaimen, ikusmen eta entzumenik gabe, gizona bizi daiteke, baina ukimenik gabe, ordea, ez, horren ofizioa (Aristotelesek dioenez) kaltegarri dena ezagutzea, hartatik ihes egiteko, eta lagungarria ere bai, hari jarraitzeko. Eta iruditzen zait hotzak eta beroak hori guztia egiten dutela, ukimenik eta animali ezaguerarik eduki ez arren²⁶. Bigarrena Aristotelesen beste hastapen baten kontra mintzo da, peripatetikoek biziki ospatua; hots, akzidentea ezin iragan daitekeela subjektu batetik bestera usteldu gabe. Eta haren erantzuerak onartzen du hotza, udan bere aurkakoa, beroa, heldu zaiola ezaguturik, airean zehar ihesi doala putzuan sartu arte, eta handik uretara, segurtasun handiagoa ukaiteko²⁷. Hirugarrenak filosofiaren hastapen bati egiten dio kontra: subjektu batean bi kontrario elkartzuz gero, batak bestea ahultzen duela. Eta Aristotelesen iritzi horretan, nahitaez onetsi behar da beroa edo hotza are trinkoago egiten dela bere aurkakoa heldu zaionean eta aurretik antiparistasirik izan gabe²⁸.

Galeno²⁹ ere, problema honi erantzuten ahalegindu zen, ez baitzegoen pozik Aristotelesen doktrinarekin; eta horrela, putzuen ura beti temperatura berekoa dela erran zuen, baina guk ukimen ezberdinarekin ukitzen dugulako, neguan bero eta udan hotz iruditzen zaigula. Eta exenplu aski egokiarekin frogatzen du, erranez ezen gizonak bainuaren barnean gernu egiten badu, bere gernuak berak hura hozten duela, eta kanpoan, aldiz, berotzen. Baina erantzuera honek harexen doktrinari kontra egiten dio; zeren ventres hieme et vere calidissimi sunt delako aforismo hura azaltzean, egiazki neguan udan baino bero handiagoa dugula erraiten baitu, eta halaxe dio aforismoak berak. Eta iturri onek (dio Hippokratesek³⁰) udan hotz eta neguan bero egon behar dute. Eta hori esperientziak klarki erakusten digu eskuarekin berarekin bi putzutuan froga eginez, bata sakona eta bestea azala; eta argi ikusiko dugu putzu sakoneko ura udan hotzago dagoela, eta azalekoa, berriz, bero. Eta gure esperientziak erakusten duenak ez du arrazoirik onartzen.

Hippokratesek problemari Galenok baino hobeki erantzun zion, eta egiazko konponbidetik hurbilago ibili zen, erranez ezen udan, Eguzkiaren bero handiarekin, lurra arras ireki eta harro dagoela; eta Eguzkiak lurraren barrunbeetan sarturik dagoen airea deitu eta erakartzen duela, eta jalgitzeko denboran, mugimenduarekin, ura hozten

duela, oihal batekin haizeztatuko balute bezala. Neguan kontrara gertatzen da; eguraldiaren hoztasun handiarekin lurraren poroak hersten direlako, eta horrela airea barnean gelditzen da, geldi eta eragin gabe. Ura eta airea hozteko, horiek eragiteak, eta berotzeko, geldi egoteak nolako munta duten, Hippokratesek berak frogatzen du, sakontasun bereko bi putzutan esperientzia eginez, eta horretara, badio putzu hagitz erabiliak ur hotza duela, eta erabili gabeak beroa³¹.

Baina problemaren benetako erantzua, izan, hauxe da, Lurraren erdian datzan suaren elikaduratik anitz hats eta ke bero eta lehor ugari goititzen direla, eta horiek, udan, Hippokratesek zioen bezala, lurra irekirik dagoelako kanpora jalgitzen dira lurraren barrunbeetan gelditu gabe; eta urak, bere izaera beragatik hotza denez, bere hoztasuna kontserbatzen du, ez baita bera nork berotu. Neguan aitzitik gertatzen da: eguraldiaren hoztasun handiagatik lurra hertsirik dagoenez, lurraren zulo eta barrunbeetan, zeinetan ura dagoen, keak geldiarazten ditu, horrela ura berotuz; tximiniaren bidea itxiz gero, etxe osoa kez eta berotasunez betetzen dela ikusi ohi dugunez, behin hura ireki eta gero, berriz ere hozteko.

Laugarren puntu nagusia zen sua gizonaren sorkuntzan eta kontserbazioan aurkitzen dela Ilargiaren ahurtasunetik jaitsi gabe, Lurraren erditik igon gabe eta, Galenok erran zuenez, pulstutik eta arnasketatik sartu gabe ere. Eta horretarako jakiteko da gizonaren bero naturala ez dela qualitatis³² predikamenduan ezarri ohi diren akzidenteetatiko bat, baina su formalezko gar bat, kriseiluaren edo kandela izeki baten garra den moeta eta manera berekoa.

Izan ere, gizonaren bizia kontserbatzeko egin behar diren diligentzia berberak behar dira kandela bat izekirik eta hil gabe mantentzeko. Kandelak, ongi kontsideratzen badugu, lau gauza behar ditu: lehena bilgor edo ezkoa mantentzeko; bigarrena, keak egozteko arnasbidea ukaitea; hirugarrena, aire hotza sartu eta horrek neurritz putz egin diezaion; laugarrena, airea indarrez ez ibiltzea. Gauza horietarik edozein falta izanez gero, garra berehala itzaltzen da. Hauxe bera, deus kendu eta erantsi gabe, behar du gure bero naturalak ere. Eta horretaz erran zuen Galenok bi mugimendurekin kontserbatzen dela, bata beheanzkoa, elikadura hartzeko, eta bestea goranzkoa, bere elikaduratik sortzen diren keak eta irazkinak kanporatzeko³³. Eta garra biltzen duen eta, hura ez deusezteko, neurritz putz egiten duen aire hotza sartzea ez zuen Galenok erran beharrik; esperientziak berak erakusten baitigu odola falta delarik bero naturala hiltzen dela; eta gizonaren ahoa hertsiz gero ito egiten dela; eta bainu oso berotan ezarriz gero, aire hotzik ezaz hil ohi dela; eta anitz ariketa eta eguraste handiarekin deusezten dela.

Eguraste handia erran dut, neurritzkoak gure bero naturala izekitzen duelako, eta, horrela, Aristotelesek, medikua ez bazen ere, sukarra duena ez dadila para haizeak jotzen duen lekuan, sukarra areago biz ez dakion: *Aeger febricitans jacere debet in motus quoad maxime fieri potest, et quiescere; nam certum est ignem marcescere ubi a nullo movetur. Ne adversus flatui cubet; quoniam flatus excitat ignem, et ignis ex parvo magnus assurgit. Obvelandus aeger operiendusque propterea est, quia si nullum igni concedatur spiraculum extinguetur. Nec veste quidam exui debet donec sudari caeperit* ³⁴.

Aristotelesek dioen honek guztiak, eta Galenok gure bero naturalaz erran duenak, aurrez suposatzen du kriseiluarena bezalako garra dela, eta ez bero akzidentea: Horrek elikatu beharrik ez baitu; eta ez ditu sursum eta deorsum³⁵ bi mugimendu horiek, ez eta aire hotzarekin haizeztatzeko premiarik ere, horrek behingoan hilko bailuke, eta zenbat eta estaliago eta babestuago, are hobeki kontserba liteke. Baina garra izanik, behin arnasbideak kenduz gero, eta aire hotza sartu eta irten gabe, berehala hiltzen da. Eta, horretara, Galenok, esperientzia honen premiapean, gure gorputzaren barnean kriseilu

bat egin zuen, bere metxa eta olio izekiarekin, hemen lekorean dakusagun bezala; eta horrela, erran zuen: cor ut funiculus est, sanguis ut oleum, pulmo ut organum ir quo est oleum³⁶.

Bidenabarrean, ezin utz dezaket Galeno gaitzetsi gabe, zeren Platon, Hippokrates eta Aristotelesen iritzia izan arren, gure barneko gar horrek bere elikaduran gure substantzia eta oinarrizko hezetasuna gastatzen eta suntsitzen duela, halere, erran zuen hirurak engainatzen zirela, harena bezalako argimen handiak ezduin zituen bizpahiru arrazoik bultzaturik. Lehena da erraitea zernahi gauzaren bero naturalak bera daukan subjektua kontserbatzen, mantentzen, handitzen eta hobetzen duela; hortaz, ez du hura gastatzen ez suntsitzen, hori bero arrotzarena da eta ez naturala. Bigarrenak segurtatzen du ezen baldin gure gorputzaren atalak giroak deuseztuko ez balitu, eta bero naturalak eduki behar lukeen puntua gorde baleza, gizona bizi osoan jan eta edan gabe balego ere, ez litzatekeela urrituko. Hirugarrena, baldin bero naturalak bere elikaduran oinarrizko hezetasuna gasta baliezagu³⁷, hortik segituko litzateke zenbat eta beroa handiagoa izan, areago gastatuko gintuzkeela; eta ez da horrela gertatzen, neguan hagitz ugaria den arren, gutxiago gastatzen gaituelako. Laugarren arrazoa gure bero naturalak per accidens suntsitzen gaituela eta per se kontserbatzen gaituela diotenen aurka doa, baina hori ezin erran daiteke, ez baitu agente batek ere per accidens ezer egiten, aldi berean beste zerbaite per se egin gabe³⁸; eta berotzea ez bada, ezin egin dezake beste ezer, eta hori ezinezkoa da, ezein berok bere materia propioa ezin bero dezakeelako.

Lehenbiziko arrazoiari ihardesten diogu ezen lau ahalmen naturalak gu kontserbatzen, mantentzen, handitzen eta hobetzen gaituztenak direla, gar izeki hartaz baliatuz, horrekin bentrikuluan kiloa³⁹, gibelean odola, bularretan esnea, hezurretan muina eta hazi-hodietan hazia egiteko; eta bero naturalak ezin lezake gisa horretako ugaritasunik egin, leku guztietan bat bera izanik. Gar izeki hau ahalmen naturaletarako tresna egoki-egokia da, ekarri, atxiki, egotzi eta bereizten duelako⁴⁰; eta obra horiekin ahalmen haiek nahi dutena egiten dute, aldatuz. Eta bitartean oinarrizko hezetasuna gastatzen eta suntsitzen duelako kexa egitea, suarekin eltzekari hagitz onak egiten dituen sukaldaria harekin haserretzea bezalakoa da, egurra gastatzen eta suntsitzen diolako. Galenoren ondorioa, egiaz, ez da ona; jaten ditugun elikagaietatik gure bero naturaletik bezalaxe egiten baita, eta horiek berek hiltzen gaituzte eta alferrik galtzen dute oinarrizko hezetasuna. Bigarren arrazoiak aurretik faltsutasun nabarmena suposatzen du. Gure bero naturalak munduaren tenplantza osoan bi mugimendu dituelako, bata deorsum, elikadura hartzeko, eta bestea sursum, kedarrak edo iraizkinak egozteko. Eta baldin elikadura hartzen badu, nahitaez hura gastatu behar gaitu. Hirugarren argumentua indar urrikoa da. Neguko beroa, handia izanik ere, arras epela eta ahikorra baita; eta egosketak neurritz arras ongi egiten dira, eta trinkotasunez gaizki, sukardunengan ageri den bezala; eta beroa epela izanik, nahitaez gutxi gastatu eta anitz berrornitu behar da. Laugarren arrazoiari ihardesten diogu ezen bero naturalak gure gorputzean per se egiten duen obra, hura elikatu eta bere elikaduran oinarrizko hezetasuna gastatzea dela, munduko su guztiek bezala; eta per accidens obratzen duena ahalmen naturalen tresna izatea dela. Sukaldeko suaren ahalegin nagusia bere elikaduran egurra eta ikatza gastatzea eta suntsitzea den bezala, eta, per accidens, eltzekariak egiten ditu, sukaldariaren trebetasunaz eraldatuak.

Beraz, puntu nagusira itzuliz, guk diogu arimadunek beren osaeran sua formalki dutela eta, horretara, ez dutela premiarik hura kanpotik sar dakien, pultsutik eta arnasketatik, Galenok erran zuen bezala. Eta sua Lurraren erdian ezarririk, misto arimagabeak biziki erraz sortzen dira, sua ailegatzen ez den lekura beroa ailegatzen delako; eta horrek,

lurraren barrunbeetan gelditurik, aise su bilakatzen da, hodeietan hersten denean bezala. Eta, horrela, behar denean ez da sua falta.

Eta gauza arimadunetan zaila zen aditzera ematea lau elementuak haien osieran nola eta noiz sartzen diren; esperientziak erakusten digunez gizona berehala hazitik egiten baita eta haren amaren sabelera ez zen inoiz lurrik, urik, airerik ez eta surik ere sartu. Eta giza haziaren sorkuntza eta hastapena jakin nahi badugu, egiazki hura odoletik egin zen, eta odola kilotik, eta kiloa jaten dugun ogi eta haragitik. Eta ogiaren osiera jakin nahi badugu, aurkituko dugu ogi-irinaz egin zela, eta garia lastotik, eta lastoa lehenago erein zen beste gari bihi batetik. Eta misto arimadunen sorkuntza eta elikaduran mila jira-bira egiten baditugu ere, beti hasi eta bukatu behar dugu hazian, eta ez lau elementuetan: germinet terra herbam virentem et facientem semen, et lignum pomiferum faciens fructum juxta genus suum, cuius semen in semetipso sit super terram⁴¹.

Zailtasun honi Galenok erantzuten dio landareak lau elementuetatik zuzenik elikatzen direla, hots, lur, ur, aire eta lurretik, horiek eraldatzeko eta egosteko urdail sendoak dauzkatelako, eta horrela prestatu animalia beteginei jatera ematen dizkiete, haragia egosi eta erretzen duenaren gisara, gure urdailak egosi ahal ukaiteko. Baina landareek pultsu eta arnasketarik ez dutenez, ezin asma zezakeen nola sua aurki daitekeen landareen elikaduran, sorkuntzan eta beren hazian⁴².

Eta are zailtasun handiagoa egin zioten misto arimagabeek. Hori deklaratzeko, jakiteko da ezen Naturak misto guztien, arimadunen eta arimagabeen, sorkuntzan lau elementuak elkartzeko duen bidea, eta su normala sortzeko, hori Ilargiaren ahurtasunetik jaitsi ez eta Lurraren erditik igon gabe, gauza guztiek deuseztu baino lehen pairatzen duten usteltzea dela, horrekin lau elementuen nahastura askatu eta bakoitza bere aldetik gelditzen baita. Hau, eztabaidarik gabe, mediku eta filosofo naturalek onesten dute; usteltzearen bidez usteltzen diren gauzek lehen zeukaten substantzia modua galtzen dutelako, eta lehor izatetik (Aristotelesekin dioenez) heze izatera iragaten dira, eta hotz izatetik bero izatera⁴³. Gauzak usteltzen dira, dio Aristotelesekin, giroaren beroa usteltzen den gauzaren bero naturala baino handiagoa gertatzen denean: orduan beragana erakarri eta lehen zegoen subjektutik ateratzen du eta; haren ofizioa gainerako elementuak nahasturan besarkaturik edukitzea baitzen. Aldaketa horretatik berehala altxatzen da beroa eta bero gehiago, harik eta suzko garra eratu arte, erre eta kiskaltzen duena, zerutik jaitsia balitz bezala; eta hori Galenok anitz exenplurekin frogatzen du. Eta bereziki kontatzen du uso-gorotz pila bat usteldu zela anitz egunetan Eguzkiak jotzen zuelako, eta gar bizitan izekitzen hasi zela, azkenean hura zetzan etxea erre arte.

Naturaren obretarako, usteltzea hain beharrezkoa denez, hori aurretik gertatzen ez bada, ezinezkoa da deus berririk sortzea, ez elikatzea ez eta gehitzea ere. Baldin giza hazia (eta beste zein-nahi animalia edo landararena) emakumearen sabelan mila egunetan usteldu gabe baldin badago, ez da hortik fitsik sortuko; hazirako ona den substantzia modua gizonaren hezur eta haragirako txarra delako, eta substantzia moeta hori hartzea lehenago hazian ziren elementuak askatu eta berriz ere nahasi eta egosi gabe, ezin izan daitekeen gauza da.

Filosofia hori aipatuz erran zuen Ebangelioak: nisi granum frumenti cadens in terram mortuum fuerit, ipsum solum manet ⁴⁴. Jainkoak mundua sortu zuenean (dio jainkozko Testuak) Lurra urez estali zuen, eta hura ongi blaitu eta gero agertu egin zuen, Eguzkiak bere beroarekin ustel zezan eta usteltze hartatik lurrun su egin zedin, hortik gizona eta gainerako animaliak eta landareak osatzeko; eta horrela, limus hitzak, zein baitzen Adam osatzeko erabiliriko gaia, erran nahi du "lur urez bustia, eta usteldua". Lehenik uraz estali, gero agerian utzi eta erein baino lehenago Eguzkiaren beroarekin usteldu

arte egonez gero lurra zein emankor egiten den, Platonek ohartarazi zuen, Niloren uholdeekin Egiptok zuen emankortasuna kontsideraturik⁴⁵.

Emankortasun bera zuen lurta Paradisua, aldiro lau ibai haiek beren baitatik atera eta lurra estaltzen baitzuten, eta behin beren bidera itzulirik, Eguzkiaren beroarekin hura usteldu eta horrela emankor egiten zelako.

Urdailaren elikaduran are argiago ageri da animalien eta landareen sorkuntzan baino. Eta, horretara, egia da, jaten dugun haragia elikadura eta benetako hazkurria izan dadin, komeni dela lehenago usteldu eta bere bero naturala galtzea, eta bere elementuen lotura ezereztu eta, urdailaren eraginez, beste substantzia modua hartzea, elikatu behar duenaren substantziari egokitua. Horren argumentu nabaria da ikustea ezen haragi maneatua⁴⁶ eltzean zein urdailean hil berria baino arinago egosten dela; eta haragia maneatzea usteltzea eta haien elementuak nahasturatik eta osaeratik apartatzea besterik ez da. Eta horren seinale argia hau da: behin haragia hil eta gero, handik laster kirats pixka bat hartzen du, eta hau orduz eta egunez handituz doa, azkenean ezin sufrituzkoa izan arte; eta horrekin bere atalen banaketa erakusten duen nolabaiteko nasaikeria⁴⁷ azaltzen da.

Gauza bera frogatzen dute bazkaldu eta handik ordu bat edo bitara urdailetik jalgitzen diren korrokadek, horien kiratsa ezin jasanezkoa izanik; baina behin denbora luzeago iraganik zapora eta usain hobearrekin ateratzen dira. Eta ondorio horren arrazoi argi dago, frogatzen ari garen doktrina ontzat emanik; zeren kiratsa darienean, jakiak usteltzearen bukaeran baitaude, eta usain ona dutenean, jadanik usteltasunetik atera eta egosketara iraganak dira, aldaketa horrekin (Hippokratesek dioenez) gauza ustelek beren kiratsa galtzen dutelarik⁴⁸. Gizon osasuntsu eta tenplatuaren gorotz eta irazkinei, arrazoi beragatik, usain txarra darie, usteltzearen bukaeran Naturak jakietatik elikatzeko gai zena atera zuelako, eta hau da egosi eta eraldatu zuen; eta irazkinak, egosteko ezgai izanik, usteltzearen bukaeran egosketa arinekin utzi zituen eta horrek, bere akatsagatik, ezin zituen libratu kiratsetik. Hortik klarki aditzen da, urdail onaren lehenbiziko obra (fusioaren ondoan) jakiak ustelarazi eta beren bero naturala kanpora ateratzea dela (giro ahaltsuagoa den aldetik), eta gero elkarrekin nahasi eta egosi, berak behar duen substantzia moduaren arauz. Hori guztia gogo onez onesten du filosofia naturalak, gauza naturalak espezie batetik bestera aurretik usteltzerik egon gabe ezinezkoa delako⁴⁹.

Honekin laugarren puntu nagusiarekin konplitu dugu; zeren egia baita, beste bat sor dadin usteltzen den gauzak sua eta beroa altxatzen dituela, horiek ez goiko ez beheko esferetatik etorri gabe. Baina azken puntura joan baino lehen, ezin dezaket Aristotelesen errankizun bat gaitzetsi gabe utzi, ekarri dugun doktrinaren aurkakoa eta arrazoi eta esperientzia orotarik kanpokoa baita. Hark dioenez, urdailean egosten diren jakiak, beren bero naturalarekin egosten direla eta ez urdailaren beroarekin; eta erran dugunaren arabera, urdailak jakiekin egiten duen lehenbizikoa haiek usteldu eta beren bero naturala kentzea da. Aristotelesek oinarritzat darabilen arrazoi hau da: arboletatik oraindik zoritzeko biltzen diren fruituak beren bero propioarekin egosten eta zoritzen direla, eta ez haiek kendu ziren arbolaren beroarekin; eta muztioa bere bero propioarekin irakin eta egosten da, eta ez suilaren beroarekin; eta hazia umetokian egosi eta hartatik hazi-atalak egiten dira, eta ez umetokiaren beroarekin. Eta egosketaren arrazoi formala bere bero natural propiotik, eta ez inorenetik, egitea da, beraz, hau egosketa moeta orotara hedatu behar da.

Honi ihardesten zaio Aristotelesek berak erran zuen hastapen harekin, honela dioena: omne quod movetur ab alio debet moveri⁵⁰. Muztioaren eta olioaren irakiteaz, eta arbolatik bilduriko fruituak zoritzeaz, egia da horiek dirakitelatzen eta zoritzen direla lehenago egon ziren

arbolaren bertute eta beroarekin. Zeren arima begetatiboa eta haren bertute naturalak arraz zatigarriak baitira, eta arbolatik mozturik ere anitz egunez diraute galdu gabe. Eta mahatsak aldean azala, hazia eta zurtoinak ditu, eta horrekin batean bere bero naturala ere bai; eta horrek guztiak arima begetatiboa edo mahatsondoaren bertute inprimatua dauka; eta horrekin diraki muztioak, gezia baleztak inprimatu zion bertutearekin mugitzen den bezala, eta ez berearekin. Hau biziki ongi dakite ardogileek: suilean mahats gaizki zapaldua edo erdi osorik ezarriz gero, muztioak sumindura handiagoarekin diraki eta.

Jakiak, urdailean, erran dugun suzko gar horrekin egosten dira, urdailaren substantziari datxekiona, kriseiluaren garra metxari datxekion bezala. Honek, jakiekin tartekaturik, horiek urtzen, ebakitzen, mehetzen, nahasten eta egosten ditu, lau ahalmen naturalen trebetasunaz lagundu eta eraldaturik. Eta, horretara, badiogu ezen egosketaren arrazoi formala ez dela gauza bere bero naturalarekin egostea, inoren bero neurrizko eta epelduarekin baizik; eta hori argi frogatzen da egosketa molde guztietatik ibiliz, zein baitira: maturitas, elixatio et assatio⁵¹. Fruituak arbolaren eta Eguzkiaren beroak zoriarazten ditu; eltzeke haragia hiru berok egosten dute: bata suak du, beste bat eltzearen buztinak eta hirugarrena haragia hurbiletik ukitzen duen urak dauka; haragia ikatzaren beroak erretzen du. Urdailean jakiak urdailaren bero naturalak berak egosten ditu.

Aristotelesi gauzak beren bero naturalarekin egosten direla erranarazi ziona hauxe izan zen, suilean muztioa irakiten eta mahatsondotik apart ardo egiten ikustea. Eta ohartu balitz zainetan odola gibeletik bidaliriko bertutearekin egiten dela, hura apart egon arren, adituko zukeen muztioak suilean mahatsondoaren egosarazteko bertuteaz eta bere bero naturalaz dirakiela, hori guztia aldean ekarri baitzuen mahatsondotik hartu zutenean; zeren omne quod movetur ab alio debet moveri. Eta proposamen eta hastapen egiazko horrek bortxaturik Aristotelesek azkenean aitortu behar zuen nik frogatua dudana; eta horrela erran zuen⁵²: nam et cibi in corpore concoctio elixationi similis est: etenim a corporis calore in humido et caldo fit.

Bosgarren puntu nagusiari doakionez, Done Tomasek⁵³ dio, gauzen sortzapena tratatu zenean, ez zirela airea ez sua bereziki aipatu, hura Moisesek jende arrunt eta sentsualarentzat izkiriatu zuelako, ez baita jende arrunta bi elementu horiez ohartzen; eta arrazoi beragatik ez zituen bereziki aipatu aingeruak kapitulu haietan guztietan. Platonek, Done Augustinek kontatzen duenez⁵⁴, caelum hitz hartaz sua endelegatu zuen, berak zerua suzkoa zelako iritzia zuelako⁵⁵. Rabi Moisesek dioenez, tenebris hitz harekin sua aditzen dela, eta hark bere esfera propioan ez duela argirik ematen⁵⁶. Caietanok⁵⁷, ihardetsiz, Moisesek dioen lezea hitzarekin sua eta airea endelegatu zituela, gorputz zeharargitsuak baitira, argiarekin gardenak eta hura gabe ilunak izanik; eta iluntasunaren kausaz lezeak deitu zituela.

Beste batzuek diotenez, Moisesek airea hitz hauekin aipatu zuen: et spiritus Domini ferebatur super aquas⁵⁸. Eta airea "Jaunaren izpiritua" deitzen dela klarki frogatzen du Daviden 147. psalmo hark: flabit spiritus eius et fluent aquae⁵⁹. Zeren, egia izan arren, mundu honetan sorturiko gauza guztiak Jainkoarenak direla eta guztien jaun absolutua dela, harako haren arauz: Domini est terra et plenitudo eius, halere, Eskriturak batzuk partikularki bereago aipatzen ditu beste batzuk baino, hagitz handiak direlako edo Hura haiez gehiago baliatzen delako. Eta horrela Eskriturak montes Dei deitzen ditu; eta Ebangelioak Kafarnahum Jainkoaren hiria deitzen du, eta ez Nazaret, bere jaioterria, han bere borondatea gehiago konplitu behar zelako. Airez gauza bera erran liteke, horixe baita Jainkoak beheko hauek gobernatzeko darabilen tresna; eta Hippokratesek horrela erran zuen: spiritus hiemis et aestatis causa est: in hieme quidem frigidus et condensatus, in aestate autem mitis et tranquillus, quum et Solis et Lunae et Astrorum omnium cursus per spiritum procedunt⁶⁰. Beste batzuek et spiritus Domini ferebatur

super aquas hitz haiez Izpiritu Saindua adierazten dela diote. Hura biz beti gurekin, amen.

Moisesek Genesian zergatik ez zuen sua aipatu azaltzeko emanen nukeen arrazoia hau da, Jainkoak ez ziela hura gure lehenbiziko gurasoei jakinarazi nahi munduaren hasieran; grazian baitzeuden, eta haiei poza eta atsegina eman nahiago zien pena eta beldurra baino, gartzela eta oinaze hain larri eta betierekoarekin. Eta hori klarki ageri da kontsideratzen badugu egin zuten bekatuagatik errana dugun infernuko sura joan beharko zuketela, baldin Jainkoak barkatu ez balitu; eta aginduaren pena ez da gorputzezko heriotza besterik. Eta horixe bera irudikatu nahi zuen Moisesek Genesian, Adamek bekatu egin ez balu bezala".

GATZARI BURUZKO ERANSKINA

"Baina arras gatz zuria eta anitz gazitzen ez duena hautatu behar da; halakoa zati sotil eta hagitx delikatuez osatua baita, eta aldiz, beltzarana arras lurrezkoa eta destenplatu da eta anitz gazitzen du kopuru txikian.

Elikagaietara, ez soilki gizonek eta basa animaliek jaten dituztenetara, baina landareenetara ere, ezarritako gatzak nolako munta duen, Platonek ohartarazi zuen zioelarik "gatzak ez diola soilki ahoari zapore eta atseginik ematen, baina hazkurriei formazko izatea ematen diela, horiek elika ahal dezaten¹". Akats bat besterik ez du, arras handia bera: gatzik ez denean, ez dela mundu honetan sorturiko gauzen artean haren ordezkorik bat ere. Bizi honetan gizonak bere probetxurako darabiltzan gainerako gauza guztiek beren ordezkoa dute, haiek falta izanez gero: gatzak ordea, bakarrik jaio zen, sortu zen xederako. Izan ere, gari-ogia falta bada, bada garagarrezkoa, zekalezkoa, artozkoa, olozkoa eta galtxurizkoa ere; eta edateko, ardoa falta bada, bada ura, garagardoa, esnea, sagarren eta beste fruitu batzuen zukua; eta jantzeko oihala falta bada, animalien larruak dira, eta horiez jantzi zituen Jainkoak gure lehen gurasoak Lurreko Paradisutik egozteko; eta bestela, mihiseak, zetak, kalamu eta espartzuak. Eta horrela, gainerako gauzetan zehar ibiliz, aurkituko dugu guztiek dutela beren faltak zeinek bete, gatzak izan ezik, bere xederako bakarrik jaio zen eta².

Kristo gure salbatzaileak berezitasun hori aipatuz bere Ebangelioan honela erran zien bere dizipuluei: vos estis sal terrae: si sal evanuerit in quo salietur?³ Erran balu bezala: "ene dizipulu eta Elizako doktoreok, ikusazue lurreko gatzak zaretela, eta zuek galtzen bazarete, gatzaren ordezkorik zertan gazituko dugu kristau herria?" Bai baitaki ez dela ordezkorik. Eta beste Ebangelio batek honela dio: in quo salietur ipsum sal?⁴ Aditzera emateko ezen baldin haiek, gatzak izanik, galtzen badira, beste zertan gazituko ditugu haiek berak? Erran balu bezala: incantatori quis medebitur?⁵ Eta Ebangelioak erran lezake: "Zuek ene Elizako gari-ogia zarete, fededunak elikatzeke eta haiei hazkurri izpiritala eta doktrina emateko; eta zuek gal bazaitetze, beste zertaz elikatuko dugu herria?" Honela erantzun liezaioke: "garagar-ogiaz, zerorrek desertuan egin zenuen bezala"⁶. Baina gatzak ordezkorik ez duenez, bera hautatu zuen Jainkoak dizipuluei beren ofizioa emateko.

Medikuek gatzak hau diote: omnis sal in communi calefacit, discutit, adstringit, siccit, cogit ac densat substantiam corporium quibus adhibetur⁷; eta propietate horiek eduki behar ditu Elizako gatzak litzatekeenak ere, eta halakoxe ondorioak ekarri behar ditu predikari onak kristau entzuleen baitan. Eta bestela, ibili dadila asmamenik dukeena propietate horietariko bakoitzean zehar, eta ikusiko du zein egoki heldu den Jainkoak predikariei gatz iriztea. Baina bada gauza bat ez filosofo naturalek ez gatzaren propietateak bilatzera saiatu diren gainerakoek kontsideratu gabea. Eta hau da: gatz franko daukaten gauzak berehala gatz-gabetu nahi baditugu, halako neurritz, kopuruz eta

halako denborararte gatza ezartzen badiegu, gatz-gabetzen direla, eta puntuz pasatuz gero, gatzun egiten direla. Eta norbaitek horren esperientzia egin nahi balu, aurkituko luke arrain gazitua, itsas uretan (halako denborararte) beratzen ezarrituz gero, arinago gezatzen dela, eta baldin paratzen baditugu bi arrain zati, biak berdintzuk gazitua, bi ontzi ur gozotan, gatz eskukada bat ezarriko diotena arinago gezatuko da bestea baino. Eta asmamen ona leukakeen predikariak kontsiderazio ederra atera lezake pulpiturako, propietate honetatik.

Gatzaz erran ditugun propietate natural hauetan guztiotan, edo haietariko batzuetan bederen, oinarritu bide zen Eliseo, ontzi bete gatzekin halako eskualde bateko ur hilgarriak ondu eta lurra emankor bilakarazi zuenean, lehenago antzu zena⁸. Eta hori frogatzeko erraza da, lehenago bat onesten baditugu inork ezin uka ditzakeen hiru hastapen natural egiazko eta benetakoak.

Lehenbizikoa hau da: lehen kalitateekin egin daitezkeen lau elkartzek edo konbinazioetatik (bero eta hezea, bero eta lehorra, hotz eta hezea, hotz eta lehorra), lehenengoaz mediku eta filosofo guztiek diote beragatik galtzen eta usteltzen direla osoki gauza naturalak. Zeren beroak, hezetasunarekin batean, giroan ezarrituz gero, mistoaren osakeran diren elementuak lasaitzen eta askatzen baititu eta batasunetik ateratzen, eta horrela bakoitza (Aristotelesek dioenez) bere aldetik doa⁹.

Bigarren hastapena da munduko lur guztiak ez direla kalitate berekoak. Batzuk, dio Hippokratesek, hezeak dira, beste batzuk lehorrak, batzuk beroak eta beste batzuk hotzak, batzuk gozoak eta beste batzuk mingotsak, batzuk gezak eta urtsuak eta beste batzuk gaziak, batzuk gordinak eta beste batzuk egosberak, batzuk latzak eta beste batzuk samurrak¹⁰. Eta hori ez zuen Naturak ausaz eta pentsatu gabe egin, aurrikuspen eta arta handiarekin baizik, lurretik mantendu beharko zuten landare eta hazi ezberdin ugariak kontutan edukiz, ez baitute guztiek hazkurri bera usatzen. Baldin bi zehe lurretan (dio Hippokratesek) baratxuriak, urrazak, garbantzuak eta basa ilarrak eraiten badira, baratxuriek, elikatzeke, lurretik garratz eta mina hartzen dute, urrazek gozoa, garbantzuek gazia eta basa ilarrek mingotsa. Eta, beraz, horrela ez da belarrik ez landarerik aurkitzen lurretik bere gogoko eta kideko hazkurria zurruputzen dionik eta besteak, aldiz, familartasun eta gusturik gabeak, uzten ez dituenik¹¹. Baina halako manieraz, non ez baita gelditzen bestelako lur motez ere baliatu gabe; guztiak elkarrekin harturik, Natura bere gisatu eta saltsakaria egin zuelako, hor gozokia, gatz eta garratza ezarrituz, eta beste bat piperra eta espeziak bezala zapore mina duena, moji¹² kazolaren gisara; zeren, bestela, esperientziak erakusten digunez, anitz belar elkarrekin ezarrituz gero, izaera ezberdinekoak izan arren, batzuek besteei bertutea kentzen baitiete. Hippokratesek adierazi nahi zuena da urrazek lur gozotik lau ontza hartzen dutela eta gainerakoetatik adarme bat¹³; eta garbantzuek gazitasunetik bi ontza eta gainerakotik arras gutxi; eta bai halaber gainerako ezberdintasunetik ere. Baina lurra geza eta gatzik batere gabe baldin badago, ez da landarerik hartaz mantentzeko; hazkurriek elikagai izateko duten formazko izatea (Platonek dioenez) gatzetik¹⁴ hartzen dutelako, eta gainerako gozoki eta zaporeen antzera, horiek ez baitute apetitua pizten atseginez gozatzeko besterik. Horregatik, egia da Naturak zaporetsu egin zituen elikagaiek eta fruituek, beren eraketan behar zuten gatz puntua eman diela, beste arrazoirik gabe.

Hirugarren hastapena da landareek beren izaerari familiar zaizkion hazkurrien dastamena eta ezagutza dutela; eta horiek, urrun izanik ere, berengana erakartzen dituzte eta aurkakoetatik ihes egiten dute. Eta Platonek hori deblauki aitortzen du; ezinezkoa iruditzen baitzaio, beren sustraien ondoan hiruzpalau hazkurri mota izanik, landareek berentzat egoki eta kidea hautatzea, gainerakoak utzirik, ezberdinak eta arrotzak

direlako; eta, egosi eta eraldatzen dituztenetatik, garbia eta iragazia atera eta hortixek elikatzea, eta bestea baztertzeko eta berengandik urruntzeko, harik eta gorputzetik egotzi arte¹⁵. Eta errankizun horrek biziki poztu zuen Galeno eta honela erran zuen: Platonem commendo plantas animalium vocabulo nuncupantem: non enim alia ulla de causa germanum atrabere vel sibi ipsis assimilares, quam ob fruitionem et ingenitam eis voluptatem, dicere possumus¹⁶. Eta hitz horiekin Galenok deblauki aitortzen du, Platonekin batera, landareek dastamena dutela eta zapore oneko hazkurriekin atsegin hartzen dutela, beren apetituaren arabera, eta hazkurri txar eta mikatzekin mintzen eta tristatzen direla animaliak balira bezala.

Hiru hastapen hauekin jadanik erantzuera eman diezaiokegu Eliseoren mirarizko egintzari: Zeren gaintik gatzaren ereinez geza eta urtsu baldin bazegoen, gatzarekin zaporetsu eta elikatzeke apailatua egin baitzen; eta airearen bero eta hezetasunagatik (Lurpeko haitzuloetan sarturik) urak gaizto eta usteldurik jalgitzen baziren, gatzaz erran ditugun kalitateekin naturalki erremediatu ziren; eta baldin lurra antzua bazen berak zeukan gatz ugariagatik, gatzarekin berarekin, gaintik ereinik, gezatu zen. Miraria izan zen, ordea, ontzi gatz bakarrarekin Eliseok hainbat lur eta hainbat ur multzoa erremediatzea. Desertuko mirariaren antzera, garagarrezko bost ogi eta bi arrainekin Jainkoak bost mila gizon asetzea, eta hamabi saski sobera gelditzea; eta egintza horretan Naturak ogia eta arrainak ezarri zituen, horien propietatea elikatzea eta hazkurri izatea baitzen.

PARADISUKO ZUHAITZ DEBEKATUARI BURUZKO ERANSKINA

"Burmuinaren tenperatura onak gizona zuhur eta diskretu bihurtzeko, zenbat egin dezakeen ikusirik, medikuek medikamentu bat asmatu zuten halako eraketa eta kalitatea zeukana, zeina bere neurri eta kopuruan harturik, gizona lehen ohi zuen baino hobeki gogoeta egin eta arrazoiarazten duena. Eta confectio sapientium edo confectio anacardina¹ deitu zuten, eta horretan, errezetan ageri denez, behi-gurin freskoa eta ezitia sartzen da, eta grekoek bi hazkurri horiez erran zuten, behin janez gero, endelegua biziki azkartzen zutela. Baina horren osaeran sartzen diren gainerako medizinak kontsideraturik, egia erraiteko, arras bero eta lehorrak dira, eta endelegua eta oroimena alferrik galtzen dute erabat, baina ezin uka dakieke ezen irudimena pizten dutela, mintzatzeko eta goitizenez, konparazioz, maliziaz eta engainuz apropos ihardesteko orduan. Eta gehienek bertsogintzako artera eta gizona hondatzen duten beste trebetasunetara jotzen dute. Eta jende arruntek endeleguaren obren eta irudimenaren obren artean bereizten eta ezberdintasuna ezartzen ez dakienez, izaera hau hartu dutenak lehen baino zorrotzago mintzo direla ikusirik, erran ohi dute endelegu handiagoa erdietsi dutela; eta egiazki ez da horrela; aitzitik, hura galdua dute, eta gizonari ongi ez doakion jakituria mota bat hartu, Ciceronek calliditas² deitu zuena, eta hori justiziaren aurkako jakituria da.

Honela dioen Genesiaren pasarte honetatik quis enim indicavit tibi quod nudus esses nisi quod ex arbore ex quo praeceperam tibi ne comederes comedisti?³ iragaten nintzen bakoitzean, belarrira zetorkidan scientiae boni et mali zuhaitz haren fruituak, hartatik jaten zuenari ezagutza eta abisua emateko propietate naturala zeukala, eta zientzia hura ez zegokiola ongi gizonari, eta Jainkoak ere ez zuela nahi hura jakin zezan, zeren jakituria mota hartaz Done Paulok hauxe erran zuen: prudentia carnis inimica est Deo. Baina Jainkozko Eskriturak hain adiera sakonak dituela eta gutxi dakitenak haren letrarekin engainatu ohi direla ikusirik, pasatzera uzten nuen; harik eta hura irudimenera hainbeste aldiz etortzeaz kezkatutik, pasarte horren azaltzaile guztiak irakurtzea erabaki nuen, ea baten batek hori ukitzen ote zuen ikusteko.

Eta, handik laster, Joseforen obra bat irakurtzen ari nintzenean (De antiquitatibus) aurkitu nuen bazioela ezen "scientiae boni et mali zuhaitz haren fruituak arrazoimenaren erabilera azkartzen eta endelegua zorrotzen zuela, eta propietate horrexegatik izen hori ezarri ziotela, beste zuhaitzari bizitzakoa erran ziotenez, haren fruitutik jaten zuen gizona betierekotzen zuelako, zuhaitz vitae deitu zuten eta⁴. Baina errankari hori ez du Nicolao de Lirak onartzen, zuhaitz haren fruituak, materiala izanik, giza endeleguan, izpirituala izanik, ezin obra zezakeela iruditzen baitzitzaion. Avilakoak ez du Nicolaren gaitzespena absolutuki onesten, bereizketaz baizik. Eta, horrela, dio "giza endelegua ahalmen izpirituala izan arren eta gorputzeko organoekin obratzen ez badu ere, halere, horrekin guztiarekin ezin endelega dezakeela beste ahalmen organiko batzuez baliatuz ez bada, horiek, tenperamentu ona badaukate, endelegua ongi laguntzen baitute eta, bestela, okerrera eramaten; eta halakoxe tenplantzak ezar zezakeen zuhaitz haren fruituak burmuinean, eta arrazoi hargatik gizonak gehiago jakitera etorri⁵. Eta hazkurrien tenplantzak edo destenplantzak jakituria lagundu edo mindu egin dezaketela Eskrituraren pasarte hark frogatzen du⁶: cogitavi in corde meo abstrahere a vino carnem meam, ut animum meum transferrem ad sapientiam. Aristoteles ere aipatzen du De physionomia liburuetan, hark hor erraiten baitu gizonak jaten dituen hazkurrien arrazoiak eta bizi den eskualdearen tenperamentuagatik eta gorputzari eragin ohi dioten gainerako kausengatik gorputzak hartzen dituen aldaketak, arima arrazionalera iragaten direla; eta horrela, dioenez, herrialde hagitz beroetan bizi diren gizonak jakintsuagoak direla eskualde hotzetan bizi direnak baino⁷. Eta Vegeciok⁸

erraiten du bosgarren kliman bizi direnak (zein baitira espainolak, italiarrak eta grekoak) argimen handiko gizonak direla eta arras animosoak. Horren arauz, ederki gerta zitekeen zuhaitz haren fruituak gorputzaren ahalmen organikoak eraldatzeko hain eragin handia ukaitea, non endeleguaren gogoetei ere probetxu egiten baitzien. Eta Adam ezin jakintsuagoa zenez eta bestelako jakituria baten premiarik gabea izanik, "Jainkoak fruitu horren debekua ezarri zion, hura haren ondorengoentzat gordez, horiek, umetan, hartarik janez arrazoimenaren erabilera azkar zezaten".

Baina, egia erraiteko, Testuaren hitzek ez dute azken deklarazio hori onesten. Zeren, ongi begiraturaz gero, erran nahi dute zuhaitzeko fruituak, bere bertute eta eraginarekin, gorputzaren begiak ireki zizkiela eta ez zekitena irakatsi ziela: *et aperti sunt oculi amborum, et cognoverunt se esse nudos*⁹. Eta hori are klarkiago frogatzen da Jainkoak gizonari, bere burua biluzik ikusiz hain ahalketurik aurkitu zuenean, erran zizkion hitzak kontutan edukiz: *quis enim indicavit tibi quod nudus esses nisi quod ex ligno ex quo praeceperam tibi ne comederes comedisti?*

Nemesius Episcopus-ek, *De Natura hominis* izenarekin izkiriatu zuen liburu batean¹⁰ deblauki aitortzen du zuhaitz haren fruituak jakituria emateko propietate naturala zuela, eta egiazki Adami ez zekiena irakatsi ziola. Haren hitzak honako hauek dira: *Et quoniam ei non conferebat ut, ante sui perfectionem, suam agnosceret naturam, prohibuit ne gustaret lignum cognitionis. Erant autem, immo vero nunc quoque sunt in plantis, maximae virtutes: tunc autem utpote in initio mundi creationis, cum essent sinceræ, potissimum habebant operationem. Erat ergo alicuius quoque fructus gustatio asserens cognitionem suae naturae. Nolebāt autem Deus eum suam agnoscere naturam ante perfectionem, ne si cognovisset se multis egere ea curaret quae ad usum corporis pertinent, reliquens curam animi; et propter hanc causam prohibuit ne esset participes fructus cognitionis. Eta hitz horiekin autore honek deblauki aitortzen du zuhaitz haren fruituak halakorik ez zuenari jakituria emateko propietate naturala zeukala; eta hori ez zela soilki munduaren hasiaren gertatzen, hazkurriek giza gorputza eraldatzeko hain eragin handia zutenean, baina orain ere, denboraren ibilaldi luzearekin hondaturik egon arren, badirela anitz fruitu gauza bera egin dezaketanak. Eta gure lehen Gurasoei gauza guztien izaera jakitea ongi ez zegokienez, ez eta behar zituzten gauzen berri jakitea ere, debekua zuhaitz honetan ezarri zion, horren propietatea gizona gorputzaren ardurapean ezartzea baitzen, arimaren behakuntzetatik urrunduz¹¹.*

Deklarazio hau tratatzen ari garen filosofia naturalaren arauzkoa da. Zeren ez baita azkurrik (fruituak bereziki, hauek medikamentu-elikagaiak izanik) burmuina aldarazten ez duenik, Hippokratesek erran zuen haren arauz: *facultas alimenti pervenit ad cerebrum*¹²; eta gizonarengan ezartzen duen trebetasun hori burmuinean sortarazten duen temperamentuaren arauzkoa da, ardoarena den bezalakoa, hori halako neurritz edaten bada gizona argitsu egiten baitu, baina hortik iraganez gero zorarazten.

Eta ez da aditu behar zuhaitz debekatuaren fruituak berehalakoan zientzi ohiturarik ematen zuela, Nicolaok pentsatu zuen bezala; baina zientzia mota horretarako temperamentu egokia, horrekin, ondoan, gizona lehen axolatzen ez zuten gauzak jakitera ailegatzeko. Eta zuhaitz horren fruituak begiak irekiarazi eta ez zekitena jakinarazteko propietatea zuela ezin ukatuzkoa da; hartatik jan bezain laster, Testuak honela dio eta: *et aperti sunt oculi amborum et cognoverunt se esse nudos*. Eta begiak irekiarazi erran dut, zeren (lehenago frogaturik dugun bezala) irudimenak kanpoko zentzuekin sorosten ez badu, batek ere ezin obra baitezake; eta horixe da Hippokratesek erran zuena: *quicumque dolentes parte aliqua corporis omnino dolorem non sentiunt, iis mens aegrotat*; erran balu bezala: "baldin inori kausa mingarrik egin baliezazkiote (hala nola erretzea edo eskua ebakitzea) eta hori guztiz senti ez baleza, egia da irudimena

oharkabean irudipen sakonen batean murgildurik duela"¹³; eta horrek ukimenarekin eta kanpoko gainerako zentzuekin sorosten ez badu, erran dugun bezala, ezin egin dezakete sentsaziorik bat ere.

Eta horretaz anitz exenplu ekar ditzakegu gure artean gertatzen direnetatik, Baina Plutarkok Arkimedesez aipatzen duen batek ongi adieraziko digu. Arkimedes honek gudurako makinak osatu eta itxuratzeko irudimen handia zuen, eta arrazoi horregatik etsaiek hari beldur handiagoa zioten aurkako armada osoari baino. Eta erromatarren artean haren argimena hain estimatua zenez, Marcelok Sirakusako hiria, Arkimedes zen lekua, setiaturik zuenean, hara sartu baino lehen, bere armadari ordenu bat egin zion: ez zedila soldadu bat ere ausar Arkimedes hiltzera, biziaren penapean; iruditzen baitzitzaion ezin eraman zezakeela Erromara harrapakin hoberik hain trebetasun handiko gizon hura baino. Eta hartaz kontatzen da ezen bere makinamenduetan hain lanpeturik ari zela eta begiak lurrean hain sarturik (berak asmatuak figurak hantxe marraturik zituelako), ez zuela ikusten ez entzuten hirian borrokaldian gertatzen zena. Eta beragana erromatar soldadu bat etorririk, galde egin zion ea bera Arkimedes ote zen; eta galdera hori anitzetan egin zion arren, hark ez zion deus ere erantzun, zentzuak hain axolaturik zituenenez gero; eta soldaduak, gizon hura hain antzikabe ikustean arrabiaturik, hil zuen¹⁴.

Honen arauz, egia da gure lehen Gurasoak, bekatu egin aurretik, Jainkozko gauzez gogoeta egiten eta haiei beha ari zirela axolaturik, giza arazoez antzikabe. Eta biluzgorri bazebiltzan ere, ez ziren hartaz ohartzen, eta erran genezake begiak hertsirik zituztela; zeren irekirik zituztela eta ikusmena osasunean zutela egia bazen ere, irudimenik ezagatik itsu bezalakoak ziren, ez baitzuten haiekin obratzerik: Eta fruituak hain eragin handia zuenez, irudimena bere behakuntzatik atera eta bistan ezarri zuen; eta hori klarki adierazten dute Jainkoak, jan ondoan, erran zizkion hitz haiek: "Nork uste duzu, o Adam, irakatsi dizula biluzia zarela, debekatu nizun zuhaitzetik jateak baizik?"¹⁵ Eta hori egin nuen (erran balu bezala) zure poz eta atseginerako, eta orain dakizuna jakitea ongi ez zegokizulako".

Lehenago bi jakituri mota seinalatu ditugu, gogoeta lagun. Bata endeleguari doakio, eta hor gizonak zuzentasunez eta bakuntasunez, errakuntza, gezurrik eta engainurik gabe egiten dituen gauza guztiak sartzen dira. Eta gisa horretako jakituria erakutsi zien Demostenesek epaileei Eskinoren aurka eginiko hitzaldi batean, haien borondate ona erakartzeko ezar ziezaikeen titulurik handiena zuzen eta bakunak deitzea zela iruditu zitzaionean¹⁶. Eta horrela Jainkozko Eskriturak, Job bezalako gizon jakitsu eta bertutetsua *vir rectus et simplex*¹⁷ deitu zuen; zeren okertuak eta maltzurak ez baitira Jainkoaren adiskide: *vir duplex animo, inconstans est in omnibus viis suis*. Gizonaren baitan bada beste jakituri mota bat, irudimenari dagokiona, eta honetaz Platonek hau erran zuen: *scientia quae et remota a iustitia, calliditas potius quam sapientia est appellanda*; erran balu bezala: "gizonak gezur eta engainuz egiten dituen gauzak, arrazoimenak eta justiziak agintzen duenetik kanpokoak, ez dira jakituria, maltzurkeria baizik"¹⁸. Done Lukasek kontatzen duen ethezain hark bere buruarekin egin zuen bakarriketa eta hitzaldi hura zen bezala, ziola: *Homo quidem erat dives qui habebat villicum; et hic diffamatus est apud illum quasi dissipasset bona ipsius; et vocavit illum et ait illi: quid hoc audio de te, redde rationem villicationis tuae, jam enim non potris villicare: Ait autem villicus intra se: quid faciam quia dominus meus aufert a me villicationem? Fodere non valeo, mendicare erubescio: Scio quid faciam: ut cum ammotus fuero a villicatione recipiant me in domus suas, etab. Eta gogoeta horrekin lapurreta hain trebea egin zuen, non Testuak honela dioen: Et laudavit Dominus villicum iniquitatis quia prudenter fecisset; quia filii huius saeculi prudentiores filii*

lucis in generatione sua sunt ¹⁹. Eta hitz horiek jakituri eta zuhurtzi mota bi dauzkate: bata, dio Testuak, argiaren hurrei dagokie, zuzentasun eta bakuntasunezkoa; eta bestea mundu honetako hurrei, tolesdura eta engainuzkoa. Eta argiaren hurrek deus gutxi dakite munduko zuhurtziaz, eta munduko hurrek are gutxiago argiaren jakituziaz. Adam, grazian zegoelarik, argiaren semea zen eta hagitz jakintsua jakituriaren lehen mota honetan; eta haren hobasunerako, Jainkoak ezjakin egin zuen bigarreanean, komeni ez zitzaiolako. Eta zuhaitza mundu honetako zuhurtzia ematen hain eraginkorra zenez gero, haren fruituaz baliatzea debekatu behar izan zitzaion, gorputzaren premiez artarik gabe bizi zedin (Memesiok erran zuen bezala) eta arima arrazionalaren behakuntzetan, aldiz, axolati.

Zailtasuna orain honetan datza, ea zer arrazoiz deitu zuten zuhaitz hau scientiae boni, ematen zuen zuhurtzia eta jakituria gehiago baitziren gaitzerako onerako baino. Honi ihardesten zaio zientzia biok onerako direla haiez beren denboran eta lekuan baliatuz gero; eta horiek hala gomendatu zizkien Jesu Kristok bere dizipuluei munduan zehar predikatzeraz igorri zituenean: ecce mitto vos sicut oves in medio luporum: estote ergo prudentes sicut serpentes, et simplices sicut columbae²⁰. Zuhurtziaz baliatu behar da besteek egin diezazkiguketean gaitzetatik babesteko, eta ez harekin inori irainik egiteko. Hortik landa, filosofo moralek badiote gauza bera on edo txar dei daitekeela hiru manerataraz: onestutzat, baliagarritzat edo atsegintzat harturik²¹. Iragan istorio horretako etxezainak egin zuen lapurreta, ona, baliagarri gisa zen bezala, bere jaunaren ondasunaz jabetu baitzen, eta gaiztoa justiziaren kontra egin zelako, jabeari berea kenduz.

Adam hain ardura handiz estali eta bere burua Jainkoaren aitzinean biluzik ikusteagatik are ahalke handiagoarekin egoteak, Haren manua hausteagatik baino, aditzera ematen dit zuhaitz debekatuaren fruituak irudimena erran dugun gisara bizkortu ziola, eta horrexek irudikatu zizkiola lotsarien egintzak eta xedeak. Baina deklarazio honek dakusagun itxura badu ere, ohikoa hauxe da: quod lignum scientiae boni et mali, non a natura hoc nomen acceperat, sed ab occasione rei postea secutae. Quod magis probo²².
Oharrak

Joanes Uharte Donibanekoaren Argimenen azterketa-ren euskarazko lehen argitarapen honetako ohar gehienak, aipamenen iturriei buruzkoak batez ere, Guillermo Serés jaunaren 1989.eko erdal edizio bikainetik hartu dira. Gainerakoak itzultzaileak erantsi ditu.

I. Aitzinsolasa

1 (Bazterrean) Nemo aerarius simul et lignarius faber sit. Duas enim artes, aut studia duo, diligenter exercere humana natura non potest. ["Ez bedi aldi berean inor errementari eta zurgin izan. Bi lanbide, bi egiteko, ezin ditu gizon bakarrak ongi eraman"] Platon, De legibus.

2 (Bazterrean) Bere argimenearekin bat ez datorren zientzia ikasten duen estudiantea, haren esklabu egiten da. Eta honela dio Platonek: Non decet liberum hominem cum servitute disciplinam aliquam discere. Quippe ingentes corporis labores, vi suscepti, nihilo deterius corpus afficiunt, nulla vero animae violenta disciplina sta-

bilis est. ["Ez dago ongi gizon burujabeak zientzia bat ikasten esklabu bilakatzea. Bortxapeko lanak gorputzerako txarrenak dira eta gutxi dirau arima gatibatzen duen zientziak"] De iusto elkarrizketa.

3 (Bazterrean) Patris evidenti in somnio moniti, ad medicinae studium excolendum venimus. ["Ene aitak izandako amets batek hala kontseilaturik, medikuntza ikastera saiatu nintzen"] Lib. IX, Meth., cap. IV. Kristo mundura etorri baino lehen, demonioek gizonekin askatasun handiko tratua erabiltzen zuten; eta munta gutxiko egia bat erraiten zioten baterako, mila gezur sartu ohi zizkioten.

4 (Bazterrean) Baldok medikuntza utzi behar izan zuen, legeak estudiatzeko: horregatik erran zuen Ciceronek: Qui igitur ad naturae suae non vitiosae genus consilium vivendi omne contulerit, is constantiam teneat; id maxime decet, nisi forte se errasse intelligeret in diligendo genere vitae. [Bere izaera sanoaren araberako bizimodua daramanak irau dezala horrela, horixe baita gehien komeni zaiona, aukera okerra egin duela uste

duenean izan ezik"]. Ciceron, De officiis., I. lib.

Bigarren aitzinsolasa

1 (Bazterrean) Timeo. Aukera bera* egiten zuen Kristo gure salbatzaileak bere dizipuluen artean doktrina aski goia irakatsi nahi zienean; Antzaldaketan gertatu zen bezala, han Done Petri, Done Joanes eta Done Jakue hautatuz. Zergatik hauek eta ez besteak hautatzeko arrazoia hark daki.

* Inkisizioak ohar hau Aukera bera-tik azkeneraino moztu zuen, autore paganoei kristau doktrinekin ukan zezaketan analogia guztiakin bezalaxe.

2 (Bazterrean) "Espainian Naturak ezin elkar ditzake argimen molde bi baino gehiago, eta Grezian hiru".

3 (Bazterrean) Paulus, 1.^a ad Corinthios, XII. kap. [4-11: "Eta dohainen diferentziak badirade, baina Izpiritu ber bat da. Administrazioen diferentziak ere badirade: baina Jaun ber bat. Operazioen diferentziak ere badirade: baina Jainko ber bat da, zeinek egiten baitu guzia guzietan. Baina bat bederari emaiten zaio izpirituaren manifestazionea probetxatzeko. Ezen batari izpirituaz emaiten zaio sapientziatako hitza, eta berzeari ezagutzetako, izpiritu beraren araez. Eta berzeari fedea, Izpiritu harzaz beraz: eta berzeari sendatzeko dohainak Izpiritu harzaz beraz. Eta berzeari, berthuten operationeak: eta berzeari profezia: eta berzeari, izpirituaren diskrezioak: eta berzeari lengoaien dibersitateak: eta berzeari, lengoaien interpretazionea. Baina gauza hau guziak egiten ditu, Izpiritu bat hark eta berak, distribuituz hek partikularki bat bederari, nahi duen bezala." (Leiz.). "Era askotakoak dira dohainak, baina izpiritua bat bakarra; era askotakoak zerbitzuak, baina Jauna bat bakarra; era askotakoak egintzak, baina Jainkoa bat bakarra, guztiei egintza guztietara eragiten diena. Era ezberdinean azaltzen da bakoitzarengan Jainkoak ematen duen Izpiritua, baina beti denen onerako. Honela, bati jakinduriak hitzegitea ematen dio Jainkoak Izpirituaren bidez; beste bati, Izpiritu beraren arabera, ezagueraz hitzegitea; bati, Izpirituaren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati, sendaketak egiteko dohaina; bati mirariak egiteko ahalmena; beste bati, izpiritu faltsua eta benetakoa bereiztea; besteari, hizketa arrotzez mintzatzea, eta beste bati hizketa horren esanahia adieraztea. Hori guztia, ordea, Izpiritu bat berak egiten du, bere dohainak nahi duen bezala bakoitzari emanez" (Elizen arterko biblia.)].

* Uhartek dakarren testuak ministratio Spiritus dakarren arren, Leizarragak, manifestatio Spiritus-en itzulpena egin zuen, Testamentu Berriaren oraingo edizioetan bezalaxe.

** Zati hau Inkisizioak moztu zuen: Nik ez dut dudarik-etik handia da-raino.

4 (Bazterrean) Mathei, cap. XXV [15: "Bat bederari bere antziaren araura" (Leiz.) "Bakoitzari bere trebetasunaren arabera" (L.t.)

5 (Bazterrean) Honen arrazoia naturaz gaindiko zientziek arimari eratxikitzeke duten beharrean datza, arima gorputzaren tenperamentu eta jarrerari loturik egonez. Aristoteles, De anima, II. liburua.

*** 1594.eko testu bilduan ohar hau erantsi zen, pixka bat aldatua: Honen arrazoia da naturaz gaindiko zientziek arima arrazionalean lotu beharra daukatela; eta arima oro gorputzaren tenperamentu eta eraketari loturik dago forma substantzial gisa". Esaldi hau ondoko pasartearekin elkartzen du, honen hasiera aldatuz: "Eta horrela, Jainkoak Adam eta Eva eratu zituenean..."

6 (Bazterrean) Eklesiastikoa, XVII [5-6: "Eta bihotz adimentsua eman zien, eta jakituriaz bete zituen"].

7 (Bazterrean) Serpens tentavit mulierem, in qua minus quam in viro rationem vigere novit. ["Sugeak emakumea tentatu zuen, harengan arrazoimena gizonarengan baino ahulagoa zela jakinik". II Liburua, [Pedro Lombardo-ren]. Sententiarum. dist. 21.

8 (Bazterrean) Divus Thomas, pars 1.^a, quaest. 62, art. 6.

**** Testu honetatik Inkisizioak eta gauza bera gertatzen dela gizonengan ere moztu zuen. Zalantzarik gabe, Uharte arima arrazionalaz ari da, Sant Tomasek dioenez aingeruekin amankomunean daukana.

***** Argimenen hitza kendu zen.

9 Ez dugu inolako frogarik Uhartek Linguae Vasconum Primitiae irakurria zuela pentsatzeko, baina, izan, kurioa da hemen urte batzuk lehenago Etxepare bere herkideak bere liburuaren aitzin-solasean jarririko hitzak hain zehazki errepikaturik agertzea: "eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika... eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abantatzeko..." bukaeran jarririko debile principium melior fortuna sequatur famatuarekin biribildua.

1594.eko bigarren aitzinsolasaren hurrenkina

1 Persio, Saturarum, V, 52-53 ["Mila gizonek, mila iritzi ezberdin, nork berea du, ez dago guztien gogo asebete dezakeenik"]. Itxura denez, bertso hauek Terentioaren Phormio-ren parafraseatzen dute. Pentsamendu hau Horatio (Sat., II, 1-27-28: quot capitum vivunt, totidem studiorum/milia), eta Ovidioren Ars Amandi-n ere aurkitzen da (I,757), eta funtsean euskarazko "buru bezainbat aburu" esaeran laburbiltzen da.

2 ["Natura (= izaera) beroa duenak edan beza ura eta freska bedi"].

3 Espainieraz: cada loco con su tema.

4 ["Gizona, jaiotzen denetik, eritasun hutsa da; hazkuntzan, ezgauza da eta besteren laguntza eske ari da; hazten ari den artean lotsagabea, ezjakina da eta pedagogo-beharra dauka; behin osotasunera heldurik, ausartegia da; beherakoan penagarria da hura bere behialako balentriak, harrokeriaz, kontatzen ikustea... ez da harritzekoa, azken buruan, sorburua amaren umontziaren ustelkerietan izanik"].

5 Jatorrizko testuak Damageto dakar; dirudienez, Espainian garai hartan Demokrito filosofo grekoari gatzelaniaz esaten zitzaion era pitxia.

6 ["Baina ez al haiz konturatzen mundu guztia eri dagoela? Batzuek txakurrak erosten dituzte, beste batzuek zaldiak; beste batzuek anitzen gainean agindu nahi dute, eta ez dira gai beren buruen gainean agintzeko; emazte hartzen dute, eta handik laster bera gaitzesten; maite dute eta gero gorrotatzen; ahalegin handiz seme-alabak sortarazten dituzte, eta hazirik daudenean, kanpora egozten dituzte... Zer da, bada, eromenetik ezertan urruntzen ez den ahalegin hutsal eta absurdu hau?... Barneko gerrak hasten dira, bake-gogorik ez baitute; erregeak kentzen dituzte, beste batzuk, aldiz goratzen; gizonak hiltzen dituzte; lurra zulatzen dute, zilar-bila..."].

7 "Demokrito ez dago zorabiatu; aitzitik, ezin hobeki daki zer irakasten digun".

8 Hemen Uhartek osasun hippokratikoaren hiru baldintzagarri nagusiak biltzen ditu: eguraldia, elikadura eta astrologia.

9 Luk., X, 30: ["Gizon bat jausten zen Jerusalemetik Jerikora, eta eror zedin gaixtaginen artera, eta hek hura biluzirik eta zaurthurik joan zitezen, hura erdi hilik utzirik" (Leiz.); "Gizon bat zetorren behin, Jerusalendik behera, Jerikora, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek erantzi eta zauritu ondoren, erdi hila utzirik aldegin zuten" (Lit. t.)].

10 Bibliako adieran ulertu behar da, hots, sexualki.

11 Uhartek hemen literatur tradizioko ideia emankorretako bat azpimarratzen du, hots, necessitas magistra delakoa, Beharrak zaharra merkatura, Beharra eragile handi edo Asko daki zaharrak, erakutsi beharrak euskal atsoitz ezagunetan adierazia. Ideia hau biziki hedatu zen Erasmoren Adagia-etan (VI, VIII, 5) argitaratu zenetik.

12 Jatorrizko testuak húmido radical dio. Aristotelesek bere De generatione animalium (II, 3, 736 b) "pneuma argitsua" deritzo. Garaiko autoreek sustraizko hezetasuna "giza haziari" esaten zioten. Berau bizitzaren esentziazat zeukaten eta burmuinean sortzen zela uste zuten.

13 Genesisia, III, 15.

14 Antzeko ondorioa ateratu zuen 1982/5/27an Ajuriagerra psikiatra ospetsuak Euskal Herriko Unibertsitateko Honoris Causa doktorea izendatzean egin behar izan zuen maisu-hitzaldian, gizon guztiok honetan edo hartan psikikoki desorekatuak gaudela esan zuenean, hots, nolabait erorik. Hantxe ziren, halaber, Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro Baroja jaunak ere, harekin batera unibertsitatearen ohore hori jasotzeko. Barojatarrak Genevako irakaslearen hitzak aditzean, supituki entzuleen artean zutik jarri eta ateraldi sonatu honekin txalotu zuen: "Mila esker. Ongi ez dakizu gaitatik zer nolako pisua kentzen didazun!"

1594.eko I. Kapituluak

1 Suje: "gaia, kontu, materia".

2 (Bazterrean) In Cratilo: "gauzen esentziak irakatsi eta definitzeko tresna da".

3 Uharte, noski, gaztelaniazko ingenio hitzaz ari zaigu. Gure hizkuntzan latinezko ingenium horrek ondorengorik utzi ez duenez gero, hitz hori argimen gisa itzuli dut. Arrazoi berberetatik ingelesez wit, frantsesez esprit, nederlandera Vernuft eta Wijsgeerheydt eta alemanez Kopf moduko aldaetarako egin behar izan zituzten.

4 Uhartek hemen aipatzen duen partaidetasun hau, gizakia piztia eta aingeruaren bitarteko egiten duena, Platonen Timeo liburuan (89 a eta hurr.) formulatu zen lehen aldiz.

5 Teteto-ren pasarte pare batez ari da (149 b eta 210 b eta hurr.). Platonek hor Sokratesen maieutika eta horren amak izandako emagin ofizioa aipatzen ditu. Timeo liburuan ere (49 a) Platonek hirugarren izate molde bat ukitzen du, jaiotze eta sortze guztien oinarri eta sostengua, hots, ororen "unidea" dena, hori endeleguari aplikatuz.

6 Substantifikoa: "funtsezkoa, substantziala" bere ? ? ? ? -a ematen diona.

7 Endelegu edo ulermena ahalmen aktibo eta sortzaile gisa aurkeztea gaurko ikerlariek Uharteren lanetan gehienik goraiatu duten ikuspegiaren bat da, hizkuntzalaritzaren arloan batik bat. Cfr. Noam Chomsky-ren lanak: Cartesian linguistics, eta Language and mind.

8 "Ez zen oraindik lezerik eta jada sortua nintzen ni... eta mendiskak izan baino lehen, ni erditua nintzen", Erran Zaharrak, VIII, 24-25.

9 Hitzez hitz: "Ene bihotzak hitz eder bat ok egin zuen", baina hebraismo horrek "ene gogoak kontzeptu handitan isuri zen", "ene arima goi mailako pentsamendutan abiatu zen" adierazten du.

10 Garai hartako filosofian akzidente gauza bati bere izaera galdu gabe erants edo ken dakiokkeen nolakotasunari zeritzon: hoztasuna, biguntasuna, kolorea...

11 "Airean mila lerro irudikatzea" esatean, Uhartek "fantasia" edo "irudimena" adierazi nahi zuen.

12 Ikus kapitulu honetako 1. oharra.

13 Hitz hau adiera etimologikoan darabil, grezierazko poliV-etik harturik, hau da, "hiriaren edo errepublikaren barruan gordetzen eta ageri den ordenu ona, hura gobernatzeko diren legeen errespetutik sortua".

14 "Ikasteko eta oroitzeko gaitasuna; hitz bakarraz adieraz dezakegu: argimena". De finibus bonorum et malorum, II, XXXII, 104-105.

15 Aristoteles De memoria et reminiscencia, 450, 20-25. Dirudenez pasarte hau greziar filosofoaren obratxo horretatik dago harturik ia osorik.

16 Galenok (De officio medicorum, I, com. 4) oroimenak sentzazioak gorde egiten dituela dio, hots, ezer asmatzen ez dakien "biltegia" dela.

17 De anima, III, 429 a 10-13.

18 Uhartek behin eta berriro ukitzen du bere obran egia-autoritatea bikote kontrajarria, eta quia magister dixit delakoaren aurka agertzen zen, bide batez egia eta autoritatea

zituen Inkisizioa zeharka kritikatu (Cfr. José Antonio Maravall, *Antiguos y modernos*, Madril, 1966, 455-475. orr.)

19 "Ez ote da jakituria oihuka ari eta ez al du boza zuhurtziak goratzen?" Erran Zaharrak, 6-8.

20 Axularrek Bibliako pasarte hau (Erran zaharrak, 6-8) honela itzuli eta glosatu zuen Gero bere liburuan: Zoaz, nagia, xinhaulriagana, eta kontsidera itzazu haren bideak eta bidexkak, joan-etorriak eta itzulinguak, nekeak eta trabailuak, eta ikasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta betiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark, erakuslerik eta gidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia.

21 "Basoak eta zuhaitzek ezin deus irakats diezadakete, hirian bizi diren gizonek baizik". Apologia, 30 e, 31 c, etab.

22 "Emanen diozu, beraz, bihotz otzana zeure jopuari, justizia egiten jakin dezan, eta ongiaren eta gaizkiaren artean bereizten", I Erregeak, III, 9.

23 "Endelegua ireki zien, Eskriturak uler zitzaaten", Lukas, XXIV, 45.

24 "Bilatu behar dira gizon noble eta adoretuak ez eze, jainkozko zientziak eskatzen dituen dohain naturalak dauzkanak baizik, hau da: argimen zorrotz eta erraza", Legeak (709 b-c).

25 "Gauza handien eta bikainen irudirik bat ere ez dago zentzuen arabera; gorputzik gabeak, handienak eta ederrenak direnez, hauek arrazoimenak ez bestek dakuski argiro eta berez, inolako bitartekotasunik gabe".

26 "Ez da ezer endeleguan lehenago zentzuetan izan ez denik" (De anima, 427 b 15-16). Hastapen hau eskolastikoen dibisa izan zen, bai eta Locke, Leibniz eta beste batzuen ere.

27 Uharte hemen Nikomakorentzako Etika-z ari da, eta bereziki 1095 b 10-15 pasarteaz, eta hor Aristotelesen, gizakiak onaren eta zuzenaren, hots, politikaren "dizipulu" ona izateko duen premia argitzeko, Hesiodo (Lanak eta egunak, 293 eta hurr.) aipatzen du; horretarako baina, bere ohiturek ongi gidatua izan beharra dauka.

28 "Jaintsuak ez du, soilik, hastapen batzuetan oinarrituriko egia jakin behar, horrez gainera hastapen horiei buruzko guztia ere esan behar du". Ibid., 1095 a 32-35.

29 Konfutatu: "kontrako argudioak eman, kontraesanak agertu, beste iritzi baten aurrean bestelako ikuspuntuak agertuz komentziarazi".

30 "Argimenez hoberena gauza guztiak berez ulertzen dituen da".

31 Adibide hau Aristotelesen bere obran erabilirikoaren antzekoa da; cfr. De anima, III. liburua (429 a 15-20).

32 De anima, 430 a, 1-3.

33 Platonek bere Protagoras-ean (341 a) aurkezten dituen sofistetarik bat da; halaber, Karmides-ean (163 d), Menon-ean (96 d) eta Kratilo-n (348 b) agertzen da. Hala ere, Uharte ez da ohartzen Sokrates, aipaturiko pasarte guztietan, Prodikoz nolabaiteko ironiaz mintzo dela, haren maisutasun urriegia aurpegiratuz.

34 Tusculanae, I, iv, 7.

35 "Ez da ezer esaten aurretik jada esana ez denik".

36 De claris oratoribus (XXXI, 121) obran eredu gisa Platon, Aristoteles eta Theofrasto aipatzen ditu.

37 "Hortaz, dena neure konturik ikertu dut, arrazoia gidari harturik; neure irakasleei jarraiki banintzaie, anitz oker egingen nituzkeen", Methodus, IX, iv (Opera, I, col. 449).

38 "Argimenez gorena, eromenarekin lagundua".

39 "Poeta mehe, hegazkor eta jainkozkoa da: ezin kanta dezake Jainkoz beterik ez badago ["entusiasmatu"], bere senetik aterata, buruz bestelakaturik [= "erorik"]. Bere

ohizko senean ezin dagike poemarik ez eta orakulurik esan ere. Homeroz hik esaten dituan gauza miressgarri horiek ez dituk kantatzen jainkozko arteaz besterik" Ion, ibid.

40 "Hau berezko destenplantzaz gertatzen da, ez eritasunaz, ez eta jainkozko iradokizunaz ere". *Problemata*, XXX, 1. (Hau da, Aristoteliar "Problemak" deritzon obran, eskuarki Theofrastori leporatuan.

41 Ahalmenak aipatzean Uhartek hemen izpirituez Galenok eginiko zatibanatze hirukoitza ulertzen du (Cf. *De placitis Hippocratis et Platonis*, VII, 6-8 eta *De temperamentis*, I, 5-9).

42 Lau koalitate hauei (eskema laukoitzaren arabera) lau funtzio dagozkio: egosketa, nahimena, atxikimena eta kanporaketa (cfr. Galenoren *De facultatibus elementorum*), krosis edo nahasketa ona gerta dadin.

43 Irudimena, melankoliarekin elkarlanean, sormen nagusia da. Platonen pasartea Ion-en aipaturikoa da, edo Fedro-n (244 e) antzera agertzen dena.

44 "Moderazioz baitakite". Esaera hau, edonola ere, Done Paulorena da, *Erromatarrei*, XII, 3.

45 16. gutuna: Et ipse Democritus sub ampla ac humillima platano sedebat, in veste crassa citra humeros dessinente, solus, discalceatus, super lapida sede, valde pallidus ac macilentus, promissa barba... (*Epistolae*, op. cit. 575. orr.) Demokrito malenkoniatsu honen deskribaketa geroagoko literatur testuinguru askotan errepikatzen da eta, nolabait, burura Don Quixoteren irudia datorkigu.

1594.eko II. Kapitulu

1 "Gauzak bereizteko aroan" alegia.

2 "Argimena gizonaren gloria den bezala, halaxe da bokantza argimenaren distira", *De claribus oratoribus*, VI, 23. Aristotelesen aipamena, antza, *Etika* da (IV, 1139 a 30-35), hitzez hitzekoa izan ez arren.

3 Argimenak eta eleder izateak, hots, *litterae*-k, gizakiari *scala naturae*-tik gora igoteko aukera ematen diote. Uharteren perpaus hau Humanismoaren esaldi gogokoenetako bat zen, eta liburuaren oinarrietako batekin lotzen gaitu, alegia, gizona mikrokosmotzat hartzearekin.

4 "Ergela bere ahalkerako jaio zen" *Erran Zaharrak*, XVII, 21.

5 "Gizonak, ohoretan zenean, ez du adimendurik izan, abere adimendugabekoen pare eta haien irudiko egin da" *Psalmoak*, XLVIII, 21.

6 *Mateo*, V, 22.

7 Uharte hemen ironia fina darabil bere obraren lehen edizoa kondenatua eta moztua izateko Inkisizioak bere aurka erabili zuen hertsikeriaz kexatzeko. Hartarako ez zen arrazoi nagusirik aipatu, eta inausketa horrekin ez ziren egia moral eta fedezko nagusiak ere salbatu. Aitzitik, Uharteren esaerari darionez, kondena ekarri ziotenak motibo pertsonalak izan ziren, bekaizkeria eta despita batik bat, eta oso bereziki "positibo"arenak (hau da, teologia positiboaren irakaslearenak), Ofizio Sainduko komisaria, hots, Alonso Pretel, argiro adieraziz.

8 *Erran Zaharrak*, XXVI, 4 eta 5.

9 ["Oinetako burdinazko loturak bezala eta eskuinean duen katea bezala, halaxe da ergelentzat zientzia"] *Eklesiastikoa*, XXI, 22.

10 (Bazterrean) "Bere argimenarekin bat ez datorren zientzia ikasten duen estudiantea, haren esklabu egiten da. Eta horrela, badio Platonek: *Non decet liberum hominem...*" [Erregeari lehen argitaraldian egindako aitzinsolasaren bazterrean egindako ohar bera da (2. oharra), 1594.ekotik kendua (Errepublikak, 374 a eta hurr.)].

11 Kausa materialez ari da, hots, humore eta koalitate batzuek beste batzuen gainetik izan dezaketen lehentasunaz. Norbera bizi den herrialdea ere kausa horietako bat izaten da, horrez gainera konplexioa, elikadura, adina eta sexua ahanzteke. Hari beretik, parte

arrazionala hondatzen duten beste kausa batzuk haserrakortasunaren eta atsegimenaren nagusigoa lirateke.

12 ["Loakartuarekin mintzo da ergelari jakituria azaltzen diona"] Eklesiastikoa, XXII, 9.

13 "Ontzi hautsiaren antzekoa, holakoa da ergelaren bihotza: ez du inolako jakituriarik gordetzen" Eklesiastikoa, XXI, 17.

14 ["Etxe hondatua bezalakoa da jakituria ergelentzat, eta zentzugabearen zientzia ulertezinezko hitzetan datza"] Eklesiastikoa, XXI, 21.

15 Hau da, gauzen azken arrazoia edo kausa.

16 Analytica, X, 1181 b 15 eta hurr. (Cfr. Politika I, 1252 b 28-30).

I. Kapituluak [1594.eko III.a]

1 (Bazterrean) De officiis I. Liburua [I, xxviii, 100 eta xxxi, 110].

2 Antzinako adieran, hots, "lana", "ahalegina".

3 (Bazterrean) De fato liburua [I, 1-2].

4 Demostenes, ongi mintzatzen ikasteko, itsas bazterrera joaten omen zen, ahoan harritxoak sartuta, bakarka hitz eta oihu eginez. Antzeko anekdotak kontatzen ditu De or., III, 7, 28; Brut., 9, 35, 73, 254.

5 Esp. dado, fr. dé; dato hitz hau Tartasek darabil XVII. mendean.

6 (Bazterrean) De scientia elkarrizketa [Sokratesen maieutikari buruzko aipamena Teeteto-ren 149 b-an (eta 210 b-an) aurkitzen da].

* Ondoko pasarte hau, "horrela ere berak"tik "gainerako guztia ateratzen dutela"rarte kendu zen.

7 (Bazterrean) "Sokratesen endelegu hutsetik ere egiazta daiteke konparaketa hau, irakatsi, galde eginez egiten zuelako, eta horrela dizipulari berari asmarazten zion doktrina, berak erran gabe" [Bazterreko ohar hau ere kendu zen].

** (Bazterrean) "Giza jakituria ez da gomutamena; eta honela aurrerago Platon kondenatzen dugu, hori erran zuelako". [Behin aurrekoa kendu eta gero horrek zentzurik ez duen arren, 1594.eko edizioan ohar hau kontserbatzen da]. Uharte, bestalde, hori esateko, Aristotelesen De memoria et reminiscencia obran (453 a 10-15) oinarritzen da, bere erara interpretatuz. Geroago pasarte honexetara itzuliko da, argimen "ezberdintasunen" ezaugarriak aipatzeko.

*** Pasartearen hasieratik (Ez dute maisuek) "gogo zutena"rarte kendu zen.

8 Arte edo filosofi ikastaroetara iragan ahal izateko beharrezkoa zen aurretik latin hizkuntzan peritua izatea. Arteak, filosofia edo Humanistika ohiko ikasketak izaten ziren, beste diziplina batzuetan graduatuentzat ere. Medikuntzakoentzat, hasi aurretik, nahitaezko baldintza zen aurretik arteen lau ikastaroak gaindituak izan, edo gutxienez, batxiler izatea. Titulu hau medikuntzan lortzeko, bestalde, ikasleak arte edo filosofian hiru ikastaro egin behar zituen, baina fakultate horretan lizentziatua izanez gero, bi besterik ez ziren behar (cfr. Constituciones del Colegio Mayor de San Ildefonso de Alcalá, in Archivo Histórico Nacional de Madrid, Universidades, sign. 674-f). Hortik Uharte Filosofian lizentziatua zela atera dezakegu, M. de Uriartek emandako datuen argitan, Medikuntzako batxilergoa lortzeko bi ikasturte besterik ez baitzuen egin. Uhartek ikasketak egin zituen garaian Alcalako Unibertsitatea bere goren puntuan zen.

9 (Bazterrean) Lex [III] liburua. Konparaketa legearen egileak mediku onarentzat jarri dituen elementu guztiekin egiten da: berezko gaitasuna, artearen irakaskuntza, irakaskuntza hartzeko leku egokia, gogoeta, lanerako aplikazio etengabea eta denbora (Legea II). Hezkuntza eta nekazaritzaren arteko konparaketa Plutarkok hedarazi zuen (De liberis educandis, 2 b), baina Jaeger-en ustez (Paideia, 285. orr.) sofistika garaitik dator. F. Müller-ek (in "Der hippokratische Nomos ", Hermes, 75, 1940, 104-105 orr.) Platonen Teeteto-rekin paralelo bat jartzen du (167 b-c), sofista eta medikua elkarrekin

konparatuz. Horrek, Müllerrek dioenez, Legea, platondar tratatu horren iturburua ez den arren, mendebaldean dugun kultura kontzeptuaren lekukotasunik zaharrena litzateke.

10 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 4 [egia esan, 5. problema da]. Testu horrek laburki, hauxe dio, txikitan lasterrago ikasten dugula "ezer ez dakigulako" (konpara bedi De anima, III, 429 b 30-43 a 1-2-ko tabula rasa kontzeptu famatuarekin). Problema hauek Uharteren obraren iturrietako bat izan ziren, hogeita hamargarren atalekoak batik bat.

11 (Bazterrean) Hippoc. 1.^o Aphor. Hippokratesen aforismo sonatu honetan ? ? ? ? ? hitza dator (= "abagadune, une egokia"), Uhartek hemen denbora nahikoa deitua.

12 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem. 4 (egiazki 5. problema da; ikus 12. oharra).

13 (Bazterrean) De iusto elkarrizketa [Platonek Politeia-ren pasarte horretan (377 c eta hurr.), Pytagorasek, Xenofanesek et Heraklitok bezala, Homero eta Hesiodoren poesia gaitzetsi eta arbuiatzen du].

14 Abhortatio ad artes addiscendas, IX (Kühn, I, 1-39).

15 Autoreen arabera gizakiaren adinak ezberdinak dira: batzuek lau zatiketa jartzen dituzte, beste batzuek bost, hiru eta, baten batek, bi ere bai. Hippokratsek eta Galenok giza bizitza bost adinetan banatzen dute, eta Uharte zatiketa honi darraio: lehena, haurtzaroa (pueritia), hamalau urterarte; bigarrena, pubertaroa (pubertas), hamalautik hogeita bosterarte; hirugarrena, gaztaroa (iuventus), hogeita hamabost urterarte; laugarrena, heldutasuna (aetas consistendi) berrogeita hamabosterarte eta hortik aurrerakoa, bosgarrena, zahartzaroa (senectutis). Azken biak, ordea, autoreek inoiz bat bakarrean biltzen dituzte.

16 (Bazterrean) "Bigarren adinean, nerabezaroa deituan, gizonak argimen ezberdintasun guztiak biltzen ditu, horiek elkarrekin bil daitezkeen eran, adinik tenplatuena delako; eta horrela, ez da komeni bera iragaten uztea gizonak bizitzeko behar dituen letrak ikasi gabe" Ciceronis de Officiis, 1 [I, xxxiv, 122]. Bestaldetik, Galenoren anitz lekutan berrets dezakegu nerabezaroaren tenpladura, adibidez, De salubris victus ratione, 7: Ut equidem dico aetas temperatissima quae media est inter pueros et adultos; eta De tuenta valetudine, 6: "Optinan namque temperiem in adolescentia corpus obtinet" id. Prognostikoan, etab.

17 Adorea-jakituria bikote hau garai hartako ideialetarik bat da; izan, fortitudo eta sapientia topos klasikoaren itzulpena dugu, jadanik Homeroren baitan agertu, Erdi Aro osoan oparo landu eta XV. mendean sortu berria zen beste topiko batekin nolabait lotua, arma-letrena alegia.

18 (Bazterrean) Genesis, XII [1-2].

19 (Bazterrean) Tu nihil invita dices faciesve Minerva ["Ez duk deus erranen ez eginen Minervaren aurka", Horatio, Ad Pisones, 385] Cfr. Cicero, De officiis, I, xxxi, 110: Nihil decet Minerva, ut aiunt, id est adversante et repugnante natura.

20 Sofistika, hemen "berrikeria, hitzontzikeria" gisa ulertu behar da.

21 (Bazterrean) 8.^o Meth., IV. kap. [Opera, I. lib., 449 orr.]

22 Garrantzi handia zuen ahalmen honek lectio-aren ihardupidean eta, oro har, erretorikan, Erdi Aroan gehien bat erabiliriko testua, Uharteren garaian oraino zirauena, Ad Herennium III.a, liburu sasicicerondarra da.

23 (Bazterrean) De ordine librorum suorum.

24 Hogeita hamahiru urteko adina sinboliko honek (hogeita hamabosten orde) geroago Kristoren tenperamentuaz eginen duen azterketaz du zerikusirik.

25 Esaldi honetan Uhartek esan nahi duena hau da: autore batek bere bizian zehar iritzi ezberdinak ukan dituenean, guk horietatik helduaroan agertuak onartu beharko genituzkeela, eta ez lehenago edo geroagokoak.

26 (Bazterrean) Nec tamen est has aetates annorum numero circumscribere, quemadmodum nonnulli fecerunt; nisi forte in latitudine quadam. Galeni, lib. VI De sanitate tuenda [In Opera, op. cit. II. lib. col. 72 D].

27 (Bazterrean) Principalissimum quidem omnium praedictorum est natura; nam si haec affuerit his qui artibus animum applicant, per omnia paedita penetrare poterunt. Hippoc. De decendi ornatu liburua, 4 ["Jarrera nagusia naturala da; zeren baldin zientzietan diharduetenek hori badute, haien xehetasun guztietan sartu ahalko dira"]. Eta horrela, Baldo legeak ikastera zahartzaroan heldu zen. Eta hartaz burla eginez esan zioten: Sero venis, Balde; in alio seculo eris advocatus ["Berandu zatoz, Baldo; abokatu hurrengo mendean izanen zara"].

28 De senectute, II, v.

II. Kapituluak [1594.eko IV.a]

1 (Bazterrean) Natura facitabilem, ars vero facilem, ususque potentem.

2 (Bazterrean) Primum quidem omnium, natura opus est; natura enim repugnate, irrita omnia diunt ["Lehenik berezko ahalmena behar da; hori aurka izanik, gainerako guztia alferrik izaten baita"] Hippocr., Lex [2, Littré, IV. lib, 638. orr.].

* Ohar hau 1594ko edizioan ez da ageri; ez ordea zentsurak kendurik.

** Zentsurak pasarte hau moztu zuen hemendik (Jende arruntak) puntu eta aparteraino (eman behar). Zentsoreak ez zuen seguraski ongi irakurri, ez baitu Uhartek inon ukatzen jainkoa Natura naturans denik. Horren ordez, beste hau ezarri zen 1594.eko edizioan:

Filosofo naturalek eta letra gabeko jendeak elkarren artean kontu arras eztabaidatu bat darabilte zernahi ondorioren arrazoiaz eta kausaz. Batzuek, argimen eta trebetasun handiko gizona dakusatenean, laster seinalatzen dute Jainkoa autoretzat eta ez dute beste ezein ere kausaz ardurarik ukaiten; eta hagitz arrazoi handia dute, zeren omne datum optimum, et omne dunum perfectum, de sursum est, descendens a Patre luminum [Santiago, I, 17]. Ez da kausa naturalik bat ere (diote filosofoek) bere ondorioak eragiteko hainbeste indarrik ezartzen duenik, Jainkoak bezala. Eta horrela lehen kausak suak baino berotzenago eta urak baino hoztenago eta eguzkiak baino argitzenago duelako erabateko kontsentimendua dute guztiek; eta gure konformazio partikularrean huraxe da Naturarekin goiburuan dagoena eta gizonen argimena kendu eta ezartzen duena. Eta kontsiderazio horretan honela erran zuen David errege profetak: manus tuae, Domine, fecerunt me eta plasmaverunt me. Da mihi intellectum ut discam mandata tua [Psalmoak, CXVIII, 73].

Hauxe berau aitortzen dute antzinako ia filosofo guztiek beren argitasun natural soilarekin, zeren arrazoitze eta gogoeta onak egia honetara baitaramatza, nahitanahiez. Eta horrela, Platonek ulerturik ezen ezin funda zitekeela hiri bat eta, hura eraiki eta gero, gizonak bakean kontserbatzeko lege onak egin ere ez, lege bat ezarri zuen, haren bidez edozein obraren hasieran Jainkoaren laguntza eskatzeko manatuz, Hori gabe ezin baitaiteke gauza bat bera ere egin: Deum in primis ad civitatis constitutionem invocemus, qui utinam audiat, exaudiensque propitius et benignus nobis adveniat una nobiscum civitatem et leges exornatu [ru]s [Legeak, IV, 716 c]. David errege profetak erran zuen gauza bera, hau da: nisi Dominus custodierit civitatem, frustra vigilat qui custodit eam [Psalmoak, CXXVI, 1].

Hippokratesek, emakumeek beren sexuarengatik pairatzen dituzten eritasunak sendatzeko artea metodo bilakatzen ahalegintzen zelarik, hari zailtasun handiko obra zeritzenez, erran zuen: oportet autem eum qui haec recte tractare velit, primum ex diis ordiri, deinde mulierum naturas discernere, itemque aetates eta temperamenta et loca [Bazterrean: De natura muliebr., 1].

Filosofo naturalek, ordea, ezin jasan diezaiekete, edozein ondorioren arrazoia eta kausaren bila dabiltzalarik, Lehenean gelditu eta bigarren kausen kontzertua bilatzeari

eta kontatzeari uztea, horiek ere ondorioren bat sortzeko ordenaturik ez baleude bezala. Eta, horretara, Hippokratesek Diana jainkosaren apezai aurpegirutzen zien ezen neskei beren eritasun larrietan kontseilu ematen zietela tenpluari beren jantzi eta bitxirik preziatuenak eskaintzeko, eta ez zezatela medikuen ardurarik ukan, "haien erremedioa, Hippokratesek dioenez, odola atera edo purgatzea zenean, edo ezkontzea, hartarako adina baldin bazuten" [loc. cit.].

3 Gogoan har oihenarteren Jainkoak, bera langile on izanagati, nahi du lankide atsotitza.

4 Hemen, noski, jende arruntez ari da.

5 (Bazterrean) Lib. I Topicorum. Ohar hau kendu zen, bera sarturik zegoen pasartea ebakitzean.

a eta mesede B₂.

b Jainkoaren borondateagatik B₂.

6 (Bazterrean) "Zientzia bakoitzetik jakin behar da haren hesparrua noraino hedatzen den eta zeintzuk gai dagozkion" Aristoteles, lib. I. Hético., cap. III [Hau da, Nikomakorentzako Etika, 1094 b 20].

7 (Bazterrean) In epistola ad Damagetum. [In Epistolae, op. cit., 575. orr.]

*** Jainkoak sendatu-tik industriak arte zentsurak kendua.

8 (Bazterrean): Domino cooperante et sermone confirmante sequentibus signis. Marci, XVI [v. 20 "Jauna lankidea izanik eta bere predikua ondorengo seinaleekin berretsiz"].

9 (Bazterrean): Job, XXXIII [v.14: "Jainkoa behin mintzo da, eta ez du errana errepikatzen"].

10 (Bazterrean) I. liburua De caelo ["Jainkoak eta Naturak ez dute deus alferrik egiten"; I, iv, 271 a]. Egia esan, esaldi hau, hitzez hitz, batez ere Done Tomas Aquinokoak hedarazi zuen (ikus R. Eisler, Wörterbuch der philosophischen begriffe und Ausdrücke, Berlin, 1904, I, 708, s.v. Natur).

11 Hau da, Natura, natura naturata-tzat jotzen du, hura mende askotan zehar Jainkoaren mandatari kontsideratzen zuen tradizioarekin bat etorritz.

12 (Bazterrean) "Filosofia naturala ez jakiteak mirakuluak ezarrarazten ditu holakorik ez den lekuan".

13 Ikus infra 1575.eko edizio princeps-aren XV. kap. (lau partetan); 1594.eko eraldatuaren XVII-XXII. kapituluak.

14 Unibertsal hitzak hemen "orokor, generiko, zirriborrozko" esan nahi du.

15 (Bazterrean) De physica auscultatione II. liburua [Fisika-ren 199 a 30 pasartea].

16 Uharte hemen Aristotelesek bizidunaz aipatzen dituen ? ? ? ? ? "forma espezifikoa" eta ? ? ? ? ? "izatasuna" kontzeptuez ari da, De anima -ren II. liburuan luzaz garatuez (412 a-b bereziki).

17 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem.

* bertute eta bizio guztiak esaldia zentsuratu eta kendu zen.

18 (Bazterrean) "Hitz desegokiak erabili zituen Hippokratesek hau erraiten: Hominis anima semper producitur usque ad mortem." 6. Epidem., 5. parte, 2. iruzk. ["gizonaren arima hil arte garatuz doa"].

19 (Bazterrean) Hippokrates. Et Galenus, De natura humana, I. liburua. Et Plato in Phedro. [Egia esan, De natura humana-ren IV. liburua da, Galenok iruzkindua, eta Corpus Hippocraticum-ean "tenperamentua'ren nozioa agertzen den lehenbiziko tokia da, hau da, lau humoreren existentzia (ikus J. Jouanna-k lau humoreen historia azaltzeko eginiko lana, in Revue des Etudes Grecques, 1969, XII eta hurr.)].

20 (Bazterrean) Lib. Quod animi mores corporis temperaturam insequantur. [Uhartek berak beheraxego dioskunez, Hippokratesen Aireez, urez eta lekuez-etik, Platonen Timeo-tik eta Aristotelesen Historia animalium eta De partibus animalium-etik Galenok obratxo horretan Argimenen azterketa-rako funtsezkoa gertatzen diren fisio-psikologi

oinarriak ezartzen ditu.]. Galenoren ustez arimak gorputzaren pean daukan menpekotasun hau, Uhartek ontzat hartua, Ofizio Sainduaren begietarako punturik okerrena izan zen. Uhartek, horretaz jabeturik, lehenbiziko edizioan VII. kapitulu idatzi zuen, geroago erabat bahetua izan zitzaiona; geroagoko edizio eraldatuan V. kapitulu berri bat prestatu zuen (honen ondoren ezarri duguna) temperamentuzko menpekotasun hori justifikatzeko asmoz, hots, fisio-psikologia.

21 Eskitiarrei buruzko aipamen hau Aireez, urez eta lekuez liburuan (XVII eta XIX) aurkitzen dugu, haiei indar gutxiko eta emetu iritiz, horren kausa haien bizilekuko geografi eta politika-egoeraren gain jarriz. Eskitiarrak denbora klasikoetan Itsaso Beltzaren iparraldean bizi ziren, oso hedaturik; gaur Kaukason bizi diren osetiarrak haien ondorengoak dira.

22 "Menditar" esan nahi duen hitz hau honelaxe utzi dut, behialako Santander eta gaurko Kantabria herrialdekoak adierazteko esangura berezi horretan.

23 Kontutan izan behar da XVI-XVII. mendeetan gaztelaniaz vizcaíno hitza, berezko "bizkaitarrak" izendatzeaz gainera, oro har, "euskaldun" esanguraz ere erabiltzen zela.

24 Solertia: zerbait egiteko trebetasun, abilezia edo zuhurtasuna.

25 (Bazterrean) Solertiam naturalem in pueris experctare prudentissimi in unaquaque civitate seniores ac iudicare deberent, atque ita dare operam ut suae naturae convenientem artem quisque discat. 9. Liburu. De placitis Hippocratis et Platonis.

1594.eko V. Kapitulu:

1 De diaeta, I, 28 (in Opera, Lyon, 1564, 117. orr.).

2 De diaeta, I, 29. Testuak, egia esan, honela dio: Porro de animae sapientia ac desipientia, hoc modo se res habet. Quod humidissimum est in igne, et siccissimum in aqua, si in corpore temperamentum acceperint, sapientissima sunt. Ex his autem anima temperata sapientissima est, et memoria valentissima praedita. Si vero aliquo ascitamento utens, alterutrum horum augetur auy controbescat, desipientissima redditur, propterea quod quum sic habeant, sufficientissima existunt (Opera, ibid. 118. orr.).

Dakusagunez, Uharte oso baikorra da giza izaeraz "zeren bere sorkuntzan ez baitzitaion gauza bat ere falta izan, harengatik gizonak bere espezieko obrak hagitz ongi egin ez zitzaion". Gizakiaren hobagarritasunaren ideia maiz aipatzen da humanistek giza duintasunaren alde egiteko erabiliriko argudioen artean. Berau gizakia sorkuntzaren erdigune gisa aurkezteko ideiarekin lotu beharra dago, bere baitan bai animalien basa ezaugarriak eta bai aingeruenak bildurik.

3 Galenok Quod animi mores liburuan gauza hauek esaten ditu, gutxi gora behera: Ergo nunc quoque veluti resipiscentes ii, qui vi alimenti hos modestiores fieri, illos proterviores, quosdam nequiores, alios temperatiores et audentes et ignavos et mansuetos et lenes et litigiosos et pervicaces fieri posse aegre concedunt, accedant ad me... Nam et ad moralem philosophiam proficient plurimum, et partis rationatricis facultates ad virtutem provehent; utique tum solertiores, memoriaque valentiores, tum studiosiores prudentioresque effecti... (loc cit., col 1004 C). Pergamoarra, beraz, Uharteren begietarako, fisiologia eta psikologiaren arteko harremanagatik, era berean, "arimen medikua" ere bazen.

4 tresna hitzak hemen "organo" esan nahi du.

5 Aristoteles, Etika Nikomakori, II, 1103 a 25-30. Platonek ere antzeko zerbait dio Legeetan (VII, 792 e). Lehenbiziko edizioan agertzen ez zen kapitulu honetan Uharte askoz ere zuhurrago azaltzen zaigu, eta ez du inolako kezkarik Galeno gaitzesteko.

6 Berriz ere Uharte Aristotelesen Etika-ri datzekio (1103 a 25-27 eta 1106 a 10-11).

7 Kontutan izan Uharte bertuteez ari dela, eta ez ahalmen, izaera edo izpirituez; horregatik ez da harritzekoa geroago beste ikuspegi fisio-psikologiko batzuetan Galenori arrazoia ematea.

8 ["Hemendik pozten naiz Jainkoaren legean, endelegua duen gizon gira; baina beste lege bat dakusat neure gorputz-ataletan, ene buruko legearen aurka borrokan dihardukana eta ni bekatuaren legepean gatibu narabilena. Oi bai gizon zorotzarrekoa ni! Nork askatuko nau heriotzaren gorputz honetatik? Jainkoaren graziak, Jesu Kristo gure jaunaren bitartez. Bitartean neuk arrazoimenarekin Jainkoaren legea zerbitzatzen dut, eta haragiaz, bekatuaren legea"] Erromatarrei, VII, 22-25.

9 Galenok, bere *Artis Medicinalis*, XII-an, (in *Opera*, op. cit. V, col. 206 eta hurreng.), eta beste tratatu batzuetan ere dioenez (adibidez *De temperamentis*, *De usu partium*, etab), burmuinaren hoztasunak eta hezetasunak animalia izpirituen ekontza eragotzi edo ematen dute.

10 ["Izpiritua pronto da, baina haragia flaku"] *Mat.*, XXVI, 41; *Mark.*, XIV, 38.

11 Beharbada *Methodus*-en (IX, iv) edo lehenago aipatu den *Quod animi mores*-en (3. oharra) oinarrizten da.

12 Aristotelesen *Problemata*-z ari da.

13 Hippokratesen *De natura hominis* liburuan (VII eta VIII) urtaroa humore batek beste baten gainean dukeen nagusigoarekin lotzen da, bai eta halako eritasun bereziaren agerrerarekin ere, baina ez da aipatzen nolakotasun batek beste baten gainean eduki beharreko nagusitasuna (monarkhia). Hau Ibn Sina-ren (= Avicenaren) obran (*Fen I*, i, 3. doc. c. 1) aurkitzen dugu, Galenoren pasarte aipatuaz mintzatzean.

14 ["Ai hintz hotz edo irakin! Baina zeren epel baitaiz, eta ez baitaiz hotz ez irakin, bomituren haut neure ahotik"] *Apokalipsia*, III, 15-16.

15 *Problemata*, XXX, 1.: loc. cit. supra.

16 *Quod animi mores: summa quidem siccitas, summam prudentiam parit; promiscua vero humiditati tantum de absoluta prudentia admitet, quantum humiditatis concepit* (loc. cit., col. 997 B); ez da hor ezer esaten hoztasunaz. Bai, ordea, Aristotelesen *De partibus animalium*-ean (II, i). Edonola ere, Uhartek ez du humore nagusia aipatzen, nolakotasun horiek datxezkiona: malenkonia alegia.

17 "Nolakotasunen eztabaida" izenda genezakeen istilu honetan garai hartako filosofo asko murgildu ziren, adibidez Sebastián Fox Morcillo, bere *De naturae philosophia, seu de Platonis et Aristotelis consensione* (Lovania, 1554) aurkako nolakotasunak defendatzen zituena.

18 Uharteren "erremedio hauek", hain izpiritualak direnak batik bat, Galenorengandik jasoak ditu; Hippokratesen *Aforismoei* eginiko iruzkinean adibidez: *Carnes humidus habentibus, fames adhibere convenit. Fames enim exiccat corpora*, (in *Opera*, vol. IV, col. 574). Gainerako erremedioak beheraxego azaltzen ditu.

19 ["Baina gaztigatzen dut neure gorputza eta sujekzionetara erakartzen"] 1 *Korintoarrei*, IX, 27.

20 ["Zergatik beldurrak ahotsari, eskuei eta beheko ezpainari dardara eragiten die? Agian afektu hau beroa goiko ataletatik alde egitean datza, horrela horiek zurbilaraziz"] *Problemak*, XXVIII, 6.

21 *De naturalibus facultatibus*, I, 11.

22 *De alimento*, I, ii.

23 Honen iturri nagusia Galenoren *De usu partium*-ean aurkitzen da (V).

24 *De alimento*, I, 35.

25 *De anima*, 423 b 22-25.

26 Hau da, nerbioen "sare miressgarria" funtzionatzeko gelditzen da, eta horrela ez dira burmuineko animalia izpirituak banatzen.

- 27 ["Gorputzeko atalen batean pairatu arren, minik sentitzen ez dutenek, horiek burua gaixorik daukate"] Aforismoak, II atala.
- 28 Hau da: ez dute bero nahikorik urdaileko prima concoctio-an, pituita edo gorroa sortarazten duenekoan (De usu partium, VII).
- 29 Orduan uste zenez, malenkonia edo melankolia, hau da, ??????????, atra bilis edo behazun beltza, organismorako isurki kaltegarria zen, eta pertsonen izaeran eragin handia zuen.
- 30 ["Zergatik beren argimenagatik, filosofi estudioetan, errepublikaren gobernuan, poemagintzan edo arteetan nabarmenduriko gizonak orok agerian zuten malenkoniatsu izatea?"] Problemata, XXX, 1.
- 31 Artis medicinalis, XLVI (Opera, V, 212).
- 32 Platonen pasarte askotan antzeko aipuak aurki daitezke, esaterako, Politeia-n 403 c, d, 404 b, etab.
- 33 Galeno, Artis medicinalis, XLVI (Opera, V, 214).
- 34 Cfr. Mat., XIX, 12 "eta badira zikiratuak zeruetako erresumagatik beren buruak zikiratu ukan dituztenak".
- 35 Apokalipsia, III, 15-16.
- 36 Oro har, Platonen Politeia-n oinarritzen da, 492 a eta hurr.
- 37 ["Baldin (...) haurtxoak bezalaka ez bazaitezte, ez zarete sarturen zeruetako erresuman"] Mat, XVIII, 3. Halere, Vulgatak ez dio sicut parvulus iste, sicut parvuli baizik.
- 38 Legeak, loc. cit. 785 b eta hurr.
- 39 ["Urteko haurra zen Saul erreinatzen hasi zenean"] 1. Erregeak, XIII, 1. Ez zen hori, noski, haren egiazko adina, buru-heldutasunezkoa baizik, beheraxeago (ibid. 23-24).
- 40 Galeno, De morbis popularibus, III, com. 15 eta Hippokratesen Prognostikoei buruzko iruzkinetan, III, 30.
- 41 ["Baldin suaren hezeena eta uraren lehorrena gorputzean tenperatzen badira, arima hagitik jakintsua da eta oroimen handiaz hornitua"] De diaeta, II, 29.
- 42 Agian Aristotelesen De partibus animalium, II-an oinarritua da, hor hiru animalia horien instintu berezia aipatzen baita. Bibliak ere horien berri ematen du: Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius, et disce sapientiam, qua cum non habeat ducem, nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi. ["Zoaz, oi nagia, xinhaurriagana; ikhusatzu haren bidexkak, eta ikhasazu zuhurtzia. Ez duen arren ez aitzindari, ez irakhasle, ez buruzagirik, udan xuxentzen du bere hazkurria, eta uztaroan biltzen du zer jan" (Erran zaharrak, VI, 6-8)]. Axularrek berak ere bere obran biltzen du pasarte hori: Zoaz nagia xinhaurriagana eta konsidera itzazu haren bideak eta bidexkak, joan-ethorriak eta itzul-inguruak, nekheak eta trabailuak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu..., bai eta beste hau ere, Plinioren Historia Naturalean oinarritua: Erleak hain animalia ttipi eta flakoak egiten du ezitia ezititzeko eta ezkoa argitzeko... Bestalde, Testamentu Berrian, Kristok sugea goraiatzen du: Estote ergo prudentes sicut serpentes, "zaretan bada zuhur sugeak bezala" (Mat., X, 16).
- 43 ["Gizonaren irudimena gaiztakeriara lerratua da nerabazarotik"]
- 44 ["Suak ura garaitzen duenean, arima erotu egiten da"] De diaeta, loc. cit.
- 45 ["Jauna, ez nazazula deit neure egunen erdian!"] Psalmoak, CI, 25.
- 46 ["Hirur gauza zaizkit gaitzak, eta laugarrena ez dakit batere: Arranoaren bidea zeruan, sugearen bidea harriaren gainean, untziaren bidea itsasoaren erdian, eta gizonaren bidea gaztaroan"]. Erran Zaharrak, XXX, 18-19.
- 47 Kontutan izan nola azpimarratzen duen hemen Uhartek arimaren jainkozko jatorria, Inkisizioaren beldur.

48 Jakituriaren Liburua, VII, 19-21. Edonola ere, Vulgataren testuak honela dio: Puer autem eram ingeniosus et sortitus sum arimam bonam (19. b.); et cum essem magis bonus, veni ad corpus incoinquinatum (20. b.), et ut scivi quoniam aliter non possem esse continens esse nisi Deus det [et hoc ipsum erat sapientiae, scire cuius esset hoc donum] adii Dominum. Hor ut scivi-ren lekuan inveni jartzea et hoc ipsum kentzeak justifikatzen du. Aldaturik dago, halaber, quoniam aliter non possem esse continens, horren tokian, quod aliter homo continens esse non potest jarririk. Aldaketa hauek ulertzekoak dira. Ez da hori gertatzen, ordea, inquinatum-en ordez, coinquinatum ezartzean, horrek pasartearen errangura erabat aldatzen duelako. Ez dirudi, bestalde, errakuntza bat denik; aitzitik, beste nonbait bezala, badirudi Uhartek testua berariaz aldatu duela bere tesira hurbiltzeko.

49 ["Ez zaitez oroit ene gaztaroko ogenez eta jakin eskasez"] Psalmoak, XXIV, 7.

50 Gorago esan dugun bezala, inoiz Galenok berak bost adin hauek lautara laburbiltzen ditu (Aforismoak, III, 31): duplices esse senes, in priori senectute esse consistentes (cfr. Hipokratesen Aforismoak, I, 13, Usurbil, 1995, 18. orr.). Zaharrek faciunt ad frigidius conversionem: non consistunt in vigore, non ergo consistentes, sed subsistentes sunt. Bestalde, Uhartek zahartzarora lau bertute kardinalekin apaintzen du: zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta neurritasuna.

51 Aristoteles, De anima, 412 a 27-28.

52 Seguraski Ciceronen De senectute (III, ix) liburuan oinarritzen zen.

53 2. Korintoarrei, XII, 9 ["Beraz guziz gogotik lehen gloriaturen naiz neure infirmitatetan, Kristen puisantza nitan habita dadintzat"].

54 Problemata, XXX, 5.

55 De ortu et interitu ("gaztaroaz eta zahartzaroaz, bizitzaz eta heriotzaz") II, 474 b eta hurr.

56 ["Kretarrak beti gezurti, bestia gaitzak, sabel nagiak"] Tito, I,12.

57 ["Aitzinean ezarri dizkizu ura eta sua: nahi duzunera heda ezazu eskua"] Eklesiastikoa, XV, 17.

58 De anima, III, 427 b 17-18.

59 (Ikus geroago IV-VII. kapituluko 22. eta 25. oharra) Galenok izpirituen "zirkulazioa" bere De placitis [decretis] Hippocratis et Platonis, VII: Sicut vero vitalis spiritus, et in arteriis et in corde gignitur, materia generationis ex inspiratione et humorum exhalatione sumpta, ita animalis ex vitali perfectus concocto oritur; quippe cum oporteret ipsum exquisitissimam omnium immutationem adipisci (in Opera, Op. cit. I. lib. col. 849 C).

60 ["Eztula ematen denean, barrabilak handitzen dira, eta alderantziz"] Izurriteak, II, 1. atala, 6-7.

III. Kapituluak [1594.eko VI.a]

1 Pentsamenaren organoa bihotza dela lehenik defendatu zuena, antza denez, Empedokles izan zen. Hor pentsamendua (nohna) bizi zela zioen, odolaz elikatua.

2 Uhartek, antza, Galenoren De placitis [decretis] Hippocratis et Platonis, VII izeneko tratatua irakurria zuen. Autore horrek hor burmuina arrazoimenaren egoitza dela berresten du.

3 (Bazterrean): Quapropter cor quidem et praecordia maxime sentiunt, sapientia tamen minime participant, sed omnium horum cerebrum causa est ["Horregatik, bihotzak eta diafragmak sentiberatasun bereziaz nabaritzen dute; baina deus ikusteko gutxi dute gogoetarekin, horren arduraduna burmuina da eta"] Hippocr. De sacro morbo, kap. 20.

4 Aristotelesek bihotzaren alde egiten duen leku askotako bat (Uhartek hauek "topikoak" deitzen ditu), De partibus animalium ezagunaz landa, Metafisica, IV, 5, 1009 b dugu.

5 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XI. kap. XI.

6 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XI. kap. [Parvum igitur caput vitiosae constitutionis cerebri proprium est indicium, magnum vero non necessario indicat bonam cerebri composituram] (ibid., 204).

* Uhartek hemen eranskin luze hau tartekatzen du:

Hippokratesek bero handiagatik sortzen den eromen moeta bat^a nola osatu behar den azaltzean, biziki gomendatzen du ez dezala eriak haragirik jan, belarrak eta arraina baizik, eta ez dezala ura besterik, eta baldin gorpuzkera handia, haragi eta koipe ugari badauka, meharaz dezagula. Eta horren arrazoia emanez honela dio: *conducit etiam hominibus ad sapientiam ut minime carnosii sint; nam ad carnis bonam habitudinem ardoris inflammationem, fieri necesse est; cum autem quid huiusmodi anima perpetitur, ad insaniam adigitur* [De alimento, I, 35]; erran balu bezala: "hagitz jakintsu izan nahi badute, komeni zaie gizona haragiz eta koipez zamaturik ez egotea, mehe eta ahulik egotea baizik; zeren haragiaren tenperamentua bero eta hezea baita, eta horrekin arima ezin daiteke zorakeriak egiteke edo erabat ergela izan gabe egon". Eta hori berresteko, urdearen exenplua dakar, animalia guztien artean ergelena, daukan haragi ugariagatik; eta Krisipok erran zuen horren arimak gatz gisa besterik ez zuela balio, gorputza ustel ez zekion. Aristotelesek errankizun hori berresten du, buruan haragi franko daukaten gizonak erabat ergelak direla erranez, eta astoekin konparatzen ditu, animalia hauen burura gainerako guztietara baino haragi gehiago etortzen delako, *ceteris paribus* [De partibus animalium, I]. Baina gorpuzkerari doakionez, bitariko gizon lodiak direla erran behar da; batzuek haragi eta odol ugari daukate, eta horien tenperamentua bero eta hezea da; beste batzuek haragi eta odola falta dute, eta koipe eta gantz franko daukate, horien tenperamentua hotz eta lehorra izanik. Hippokratesen errankizuna lehenbizikoez aditzen da, bero eta hezetasun handiak eta gorputz horietatik altxatzen diren ke eta lurrun ugariak arrazoiketari traba egiten diotelako biziki. Baina hori ez da gertatzen lodi koipedunengan, ezen, horiek guztiok odolgabeak direnez gero, ez baitzaizkie medikuak odola ateratzera ausartzen; eta odola eta haragia falta den lekuan, komunzki, argimen handia izaten da.

Galenok, urdailak burmuinarekin duen adiskidantza eta elkarkidetasun handia aditzera eman nahirik, argimenari eta jakiteari doakionez batez ere, honela erran zuen: *crassus generat crassum intellectum* [Quod animi mores corporis temperaturas sequantur, VIII, in Opera, I, 1003 A]. Eta tripandi koipedunez ari bada, ez du arrazoirik, horiek argimenaz ezin zorrotzagoak direlako. Filosofia honexetan oinarritu bide zen Persio, urdailari ingenii largitor venter [Chol. 10] deitu zionean.

Ezein gauzak, dio Platonek, ez dio traba gehiago egiten arima arrazionalari, eta ez dago haren gogoeta eta arrazoiketa onak alferrik galtzera hala daramatzanik, jakiak egosten diren denboran urdailetik eta gibeletik altxatzen diren keak eta lurrunek baino [Timeo, 70 d]; eta ez da hura behakuntza gorenetan hainbat igonarazten duenik, nola egiten baitute barauak eta gorputza haragi eta odol faltaz ukaiteak; eta hauxe da Eliza katolikoak kantatzen duena: *qui corporali ieunio mentem elevas, vitia comprimis, virtutem largiris et praemia* [Garizumako mezaren prefazioa]. Jainkoak Jaun Done Paulori, zerutik deitzean, egin zion mesede handi hartan, hiru egunetan ez zuen mokaurik jan, behakuntzan zegoela, bere bizio eta bekatuen erdian Jainkoak hari egin zion hain onura eta grazia handi hartan" [2. Korint. XII, 2-9].

a [Cfr. Benjamin Tuterakoak Bagdadez dioena: Bada han dar al-maristan deritzon jauregia, eta haraxe sartzan dituzte beroagatik hirian aurkitzen diren zoro guztiak. Haietako bakoitza burdinazko loturaz kateatzen dute, neguan beren senera etorri arte (Bidaien liburua, Iruñea, 1994, 88. orr.)].

7 (Bazterrean) De natura elkarriketa [75 b].

8 Loc. cit., supra.

9 Beste batzuen artean, in De placitis (op.cit., 847 C-D).

10 Gorago aipatua. Kontutan har, bai aipamen hau eta bai Galenorena kontserbatzen dituela, errepikaturik egon arren. Bazterrean, gainera, hau dio: "Bitariko gizon gizenak dira: batzuk haragiz, hezurrez eta odolez beteak; beste batzuk gizen koipedunak dira, hauek hagitz argitsuak dira".

11 (Bazterrean) IV. liburua De partibus animalium [IV, iv, 16; id. Historia animalium-ean, VII, iv, 7].

12 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 3. [Egia esan, problema honetan erabiliriko adjektiboa adimentsua da (hogeita hamargarren atal osoa, izan, Adimenari buruz-koa da).]

13 Garai hartako espainiar autoreek latinezko ventriculus maiz "ventrecillo" gisa itzultzen zuten, "sabeltxo" alegia, hitz horrek haientzat oraino esangura etimologiko gardena zuela adieraziz; hortaz, adiera berean ulertu behar da hemen bentrikulu hitza, gaur bihotzaren barrunbeak adierazteko besterik ez badarabilgu ere.

14 Uhartek seguraski "figura" edo irudi hori tartekatu nahi zuen, baina ez zuen asmoa burutu, ez baita ezein ediziotan azaltzen. Bestalde, Galenok berak gogorarazten digunez, (De usu partium, VIII, 11) Herofilo izan zen burmuinaren bentrikuluak deskribatu zituen lehenbizikoa, hor arimaren egoitza zetzala uste izanez (Galeno, De hist. phil., liber spurius, XXVIII. kap.).

15 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII. kap.

* Hemendik bi pasarte geroago ageri den intentsitate-maila hutsa izanik arte, zentsurak moztu zuen, animaliengan gizonarengan diren ahalmen edo "behe-zentzumen" berberak direla uste izateagatik. Horren ordezkari ondoko testua ezarri zuen:

Horri ihardesten zaio erranez gizona eta basa animaliak bat datozela lehen lau kalitateen temperamentuan, horiek gabe ezin kontserba daiteke eta; eta, horrela, guztiak lau elementuez osaturik daude, lurrez, urez, airez eta suz; eta hortixek jalgi eta sortzen dira beroa eta hotza, hezetasuna eta lehortasuna. Arlo begetatiboan ere bat datoz; eta horrela, guztiei eman zizkien Naturak elikatzeko behar dituzten organo eta tresnak, hots, zuntz zuzen, zeiharrak eta okerrak, eta lau ahalmen naturalak horiez baliatzen dira. Bat datoz, halaber, sentikortasun-arloan; eta, horretara, nerbio guztiek esku hartzen dute, zentzumenaren organoak izanik. Bat datoz lekuzko mugimenduan ere; eta, horrela, guztiak giharreen jabe dira, berauek baitira Naturak leku batetik bestera mugitzeko ordenatu zituen tresnak. Oroimenean eta fantasian ere bat datoz; eta, horretara, guztiek dute burmuina era berean antolaturik beren obra guztietarako tresnatzat. Gizona animaliengandik bereizten den ahalmena endelegua da, eta horrek bere obrak gorputz organorik gabe egiten ez dituelako eta haren menean ez dagoenez (in ese [ac] conservari) [De anima, 429 b 23-25], Naturak ez zuen deus erantsi giza burmuinaren eraketan.

Baina endeleguak, bere obrarako, gainerako ahalmenen beharra duenez, eta horiek burmuina obratzeko organotzat daukatenez gero, guk diogu ezen giza burmuinak erran ditugun kondizioak eduki behar dituela harekin arima arrazionalak bere obra bereziei doakien bezala obratu ahal ukaiteko. Egia da adimenik gabeko animaliek oroimena eta fantasia dutela, eta beste ahalmen bat ere bai, endeleguaren antzekoa, tximinoak gizonaren eitea duen bezala.

16 (Bazterrean) 1. In oratione suasoria ad bonas artes [I: "Adimenik gabeko deritzegun animaliek ez dutela inolako arrazoiketarik ez dago argi. Eta hitzez adierazten den ahalmena falta badute ere, hots, mintzamina deitua, agian eduki dezakete barnetik mamitzen dena, arrazoimena, eta litekeena da horretan animalia guztiak partaide izatea, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Halere, inork ez du duda egiten gizakiak gainerako animaliei arrazoimenean aurrea hartzen dien"].

17 (Bazterrean) 2. Methodi, VII. kap. ["Ez ditut antzinako filosofoak goretsi nahi, bataz eta ezberdinaz, bataz eta bat ez denaz zenbatekotan eta nolakotan eginiko aurkikuntzengatik, haiek dioten bezala, zeren astoek berek, animaliarik memeloenak omen diren arren, hori izaeraz baitakite"].

18 (Bazterrean) 29.^a sectione, Problem., 6.

19 Ibid., 7. problema. Testuak, gizonak, duen hezkuntza goragoa izan arren, animaliak baino gaiztoagoa dela dio, adimen handiagoa izateak are atsegin gehiago lortzera bultzatzen duelako, horrela bidegabeki ihardutera eramanez.

20 Galeno, Methodi, II, 7: iam aliud, ut numero idem tum vident, tum etiam noscunt ac meminerunt, aliud ut specie (loc. cit. col. 100).

* Pasarte hau eta hemendik kapitulu honen amaierarainoko guztia kendu zen 1594.eko edizioan. Agian argitaratzailearen arduragabekeria hutsagatik izan zen, egilea ordurako hilik baitzegoen.

21 Hazi- edo ugaltze-guruinez ari da; horiek, izan ere, obraren azkenean xehekiago ukitzen ditu.

22 Galeno, De Placitis (in Opera, op. cit. I, col. 847 C).

23 Galeno, op. cit., ibid.

24 Hori gorputzaren lau ahalmenetako bat zen: Quatuor nimirum dicentes totius corporis proprias facultates esse: unam idoneorum tractricem, alteram eorum omnium retentricem, tertiam alteratricem eta quartam quae alieni sit segregatrix. Easdemque facultates effectus esse totius in quovis corpore substantiae, quam etiam constare ex calido, frigido, humido et sicco inter se mistis dicimus (De temperamentis, in Opera, op. cit., I. lib., col. 65 C).

25 (Bazterrean) 1. Aphorism., comment. 7 [Opera, IV, 570].

26 (Bazterrean) De scientia elkarrizketa [Hau da, Teeteto, 195 a].

27 (Bazterrean) De partibus animalium, II. liburua.

28 (Bazterrean) Hippoc. 1. Aphorism.

IV. Kapituluak [1594.eko VII.a]

1 Hitz honekin, betiere oinarritzko nolakotasunez ari den arren, era berean Empedoklesen "lehen elementuak" aipa ditzake (????????, bitzuek ??????? berban sartzen ditu eta. "Bigarren mailako elementuak", oro har, humoreak dira.

* Hemendik ez eta aditzera eman ere arte moztu zuten.

2 Honekin hau esan nahi du: ez dutela behin ere azalpen fisiologikorik eman, teologiko eta metafisiko hutsak baizik.

3 (Bazterrean) De alimento liburua [VIII. kap.].

4 (Bazterrean) De fetuum formatione liburua [Opera, I, cols., 1019-1022].

** Baina-tik lehenago-ra moztua. Esaldia, hortaz, zeren-ekin hasten da, lotura hautsirik. Mozketa honek ez du logikarik, hurrengo perpausean Jainkoa gauza guztien lehen kausatzat aipatzen baita.

5 (Bazterrean) De aere, locis et aquis liburua [XXI]. Eskitiarrez ari da, hain zuzen, eta haien antzutasun eta inpotentziaz.

6 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 4.

7 (Bazterrean) De optima corporis constitutione, IV. kap.

* Eta baldin Jainkoa-tik mila aldrebeskeria sortaraziz-era (oharra eta guztiz) mozturik.

8 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [hots, Timeo, 69 b eta hurr.]. Zentsoreek aurreko pasarte batzuk hobeki irakurri izan balute, konturatuko ziratekeen Platonek berak munduaren sorkuntzan bi "kausa" bereizten zituela, "jainkozkoa" eta "beharrezkoa" (Uharteren "bigarrena") alegia, eta testua hobeki ulertuko.

9 Uhartek erdaraz ere comer leche dakar, euskaldun artzainen artean esnea jan esaten den bezala, hor jan aditzak "elikatu" esan nahi du eta.

** 1584.eko Index-ak aukera hau eman zion, harridurazko esaldi hau kendu ("Arrazoi handia zuen Hippokratesek...!") ala bazterrean Filosofo hauen errankizuna faltsua da ezartzeko. Uhartek gaztelaniazko esaldiaren lekuan latinezko hau jartzea hobetsi zuen: erudita est natura, licet recte facere non ediscerit!, hurrengo lerroan hauxe erantsiz: "Jakintsuak erran zuen berbera, alegia: vade ad formicam, o piger et considera viam eius, et disce sapientiam; quae, cum non habeat ducem nec praeceptorem. praeparat in aestate cibum sibi et copngregat in messe quod comedat; erran balu bezala: gizon alfer eta jakite gutxikoa, hoa inurriarengana eta ikusak zer egiten duen, eta ikasak harengandik jakitua, bidea erakusten dion maisu eta gidaririk ukan gabe, udan bilatzen baitu neguan jan behar duena" (Erran Zaharrak, VI, 6-8). Bibliaren pasarte hau, Axularrek ere dakarrena, lehenago ere aipatu da (ikus 1594.eko V. kapituluko 41. oharra).

a B₂-an txakur ageri da.

10 Erdarazko hollar itzultzeko jarri dut hemen ohondikatu, hots, "oinak lurrean jarri, zapaldu".

11 Makulua: adiera figuratuan, "beti esaten dutena", "betiko kontua", "ihespidea".

* Inkisizioak zuhurtziari, haren bihozberatasunari, haren justiziari eta zatia moztu zuen. Esaldia, beraz, eta haren gobernazioari beha baliezaio gelditu zen.

12 (Bazterrean) Vade ad formicam, o piger, et considera viam eius, et disce sapientiam; quae, cum non habeat ducem neque praeceptorem, praeparat in aestate cibum sibi et cogregat in messe quod comedat. Proverb. VI. kap. [6-8].

** Inkisizioak gogoetak eta zatia kendu zuen.

*** Gauza bera: zuhurtzia eta moztu zioten. Mozketa hauen arrazoa bistakoa da, kontzeptu horiek jasoe gitzat jotzen zituen Elizak pertsonen arima arrazionalaz kanpoan, animalien artean adibidez, erabiltzeko, gizakiaren arima, jainkozko etorkiagatik, gainerako bizidunenetatik erabat bereizirik zeukalako.

13 (Bazterrean) "Behin ehiztari batek zinpean erran zidan belatz bat ukan zuela, ehizan ezin trebeagoa, eta ero bihurtu zitzaiola; eta hura erremediatzeko buruan burdin gori batekin ukitu ziola eta horrela sendatu zela".

14 Platonek uste hori bere obraren anitz pasartetan agertzen du: Apologia, 40 a eta hurr.; Timeo, 89 b-d; Politeia, IV, 435 c, 441 c, X, 611 b eta hurr. Fedon, 78 b eta hurr.

**** Hemen ere zuhurtzia eta kendu zen.

15 Ez da harritzekoa Uhartek puntu honetan Platon ezin onartzea, bestela bere teoria osoa bertan behera gelditu litzaioke eta. Horregatik Galenori darraio.

16 (Bazterrean) "Platonek jainkozko Eskrituratik bere obretan diren errankizun hoberenak hartu zituen, eta horiengatik "jainkozkoa" erran zitzaion" [Platonek Jainkoaren Legearen berri nolabait izan zuela uste zen garai hartan, Done Augustinek greziar filosofoaz bere Jainkoaren Hiria (Civitas Dei, VIII) obran egiten zituen aipamenetan oinarriturik. Ikus José A. Maravall, "La estimación de Sócrates y de los sabios clásicos en la Edad Media española" in Estudios de historia del pensamiento español, Madrid³, 1983, 269-330 orr.].

17 Hau da, arimaren krea zioa aldi berean gertatzen da. Baieztapen dogmatiko hau, eta Uhartek dioena gora-behera, ia hitzez hitz atera daiteke Aristotelesen testuetatik (De generatione animalium, 736 b), beronen ustez gizonari kanpotik datorkion bakarra adimena (? ? ? ?) den arren.

18 (Bazterrean) I. Liburua De posteriorib. resolut. I. kap. [hau da, Analytica posteriora].

19 (Bazterrean) III. Liburua De arima [iv, 430 a 1-2].

* arrunt adjektiboa moztu zioten.

** honetan ere-tik dioenik ere-raino moztu zen.

20 (Bazterrean) "Platonek gizonarengan hiru arima jartzen ditu". De natura elkarrizketa [69 b eta hurr.].

21 Oraingoz hiru arimen tesia onartzen du, baina Aristolesen adieran: elikatzeko arima (begetatiboa) cuius sunt opera generare et alimento uti (II, iv, 415 a 22-26). Tesi hau Erdi Aroko summa guztietan erabat onaturik zegoen. Ikus, adibidez, Done Tomasen Summa theologia, I-II, q. 94, a 2).

22 (Bazterrean) "Hobeki erantzun zuen Hippokratesek, erran zuenean: erudita natura est, licet recte facere non didicerit. De alimento Liburua eta 6. Epidem., 5. zatia, 1. iruzk." [loc. cit. supra, 3. oharra].

23 (Bazterrean) "Hazia eta hileroko odola, eratzen gaituzten material nagusietako bi izanik, bero eta hezeak dira; eta tenperatura horrexegatik dira umeak baboak. Galeno, De sanitate tuenda I. liburua".

* ez dela hori irakasten digun maisurik behar zatia moztu zioten, horrela esaldia herrenka utzirik.

24 Jatorrizko testuak frenesía dakar, hots, "sukar handiak supituki sortaraziriko eromena, hura pasatzean desagertzen dena" (Covarrubias).

** Hemen eranskin hau gaineratu zuen: "Hau berresteko ezin dezaket hemen aipagabe utz 1570. urtean Kordoban gertatu zena (gortea hiri honetan zenean), Luis López zeritzon gortelari ero baten heriotza zela eta. Honek, osasunean, endeleguaren obrak galduak zituen, eta irudimenari zegokionez kontentu handiko graziak eta ateraldiak erraiten zituen. Honi eguzki-elgaitz bat etorri zitzaion, eta horren erdian supituki hainbesteko sen eta diskreziora heldu zen, non Gorte osoa espantarazi baitzuen; arrazoi horregatik sakramentuak eman eta munduko zuhurtasun osoarekin hilburuko azken nahia egin zuen; eta horrela hil zen, Jainkoaren bihozberatasuna gorai patuz eta Hari bere bekatuen barkamena eskatuz. Baina mirespenik handiena sortarazi zuena hauxe izan zen: gizon hagitz zuhur eta diskret bati, ero horren osasuna zaintzeko gomendatua izanik, eritasun berbera atxiki zitzaiola, eta bere senetik arras landa hil zela, zentzuzko gauzarik egin eta erran gaberik. Eta horren arrazoia izan zen, honek osasunean zuen tenperamentua zela zuhurtasunak behar zuena, eta hauxe berau etorri zitzaiola Luis Lopezi eritasunean; eta Luis Lopezek osasunean zuena zetorkiola beste honi eritasunean".

Iriartek, Borgesek eta beste autore batzuek azpimarratu dutenez, pasarte honek Cervantesengan Quixoteren azken kapituluan eragina izan zuen, bai eta Persiles-en ere (III,9). Cervantesek kasu hori bazekiela ageri-agerian dago, "Luis López ero famatu hura" bere Zortzi komedien hitzaurrea-n espreski aipatzen baitu (Madril, 1615).

25 (Bazterrean) "Burmua lehen graduan berotzen denean gizona eleder egiten da eta erraiteko anitz gauza eskaintzen zaizkio. Horrela, ixilak, guztiak burmuin hotzekoak dira, eta hitzontziak, buruberoak".

26 (Bazterrean) "Zorabio hau burmuinaren substantzia n blaitu zen kolera handiak sortu zuen; humore hori poesiarako hagitz aproposa delako. Eta horrela erran zuen Horatiok ezen udan [udaberrian] kolera kanporatuko ez balu, ez liokeela ezein poetak aurrerik hartuko. In Arte poetica [vv 301-303: O ego laevus, -qui purgor bitem sub verni temporis horam- Non alius faceret meliora poemata].

27 Gaztelaniaz honela dakar: "Pues reniego de Dios por amor de vos, y de Santa María por amor de Marigarcía, y de San Pedro por amor de Juan de Olmedo".

28 (Bazterrean) "Sehi hau ez zegoen oraindik arras sendaturik".

29 Iriartek (op. cit. 318-319) Lope de Vegaren bertso batzuk aipatzen ditu, istorio honen zantzua dakartenak: "Que me pasa en este amor / lo que a un paje, que un doctor / sanó de un gran frenesí: / no le agradeció la cura, / porque alegaba que, sano, / era un pobre

cortesano, / siendo un Rey en la locura" (La adversa fortuna de Don Bernardo de Cabrera, 1. eguna, in Doce comedias de Lope, Huesca, 1634).

30 Pertsona zorabiatuak, bai eta malenkoniatsuak ere, azti edo igarle izaten zirelako ustea erabat hedaturik zegoen garai hartan. Praesagium atque divinum dohain hori jadanik Ciceronek aipatzen du bere De divinationem I, 81.

31 Uhartek deabrueri profetizatzeo ahalmena ukatzen dien arren, garai hartako jendeen artean guztiz hedaturik zegoen deabruet mundu honetako eritasunetan esku hartzen zutelako iritzia. Ikus adibidez, Antonio de Torquemadaren Jardin de flores curiosas (III, G. Allegra-ren ed., Madril, 1983, 246-332 orr.); Julio Caro Barojaren "La magia en Castilla durante los siglos XVI y XVII", in Algunos mitos españoles y otros ensayos (Madril, 1944, 185-213 orr.); Luis S. Granjelen "Aspectos médicos de la literatura antisupersticiosa española de los siglos XVI y XVII" in Humanismo y medicina (op. cit. 117-173). Iturri nagusia, ordea, Malleus maleficarum liburua da (1486; vid. I, i, 2.).

32 (Bazterrean) Cum durmiente loquitur qui enarrat stulto sapientiam. Eklesiastikoa, XII. kap. [Oker dakar; egia esan, XXII, 9 da: "Zuhurtziaz zoroari mintzo zaionak lo dagoenari ematen dio solas"].

^c sedimentis B.

33 (Bazterrean) 30. sectione. Problem., 1. ["Anitz dira, [behazunaren] beroak adimenaren egoitzatik duen hurbilatasunagatik, hirak [eta entusiasmoak] menderaturik egon edo sukar-zorabioak pairatzen dutenak; Sibilei, Bakanteei eta jainkoen iradokizunik duten guztiei gertatzen zaienez; eta horrela egonarazten dituen ez da eritasuna, intenperantzia [tenperamentu] naturala baizik. Marko [Marako] Syrakusakoa poeta handia zen burua zorabiatuak zuenean. Eta bero handiegia epeltzen zaienean, malenkoniatsu bilakatzen dira, baina jakintsuago [eta ez hain pitxi, eta beste gizonak gainditzen dituzte bai letretan, arteetan eta bizitza publikoan]. Hemen, kortxete artean jatorrizko testuaren (954 a) aldaki nagusienak jarri dira, Uhartek hainbeste aldiz aipatzen duen pasarte honen bukaera ere erantsiz.

34 (Bazterrean) "Sibilek, Eliza katolikoak onartzen duenez, Aristotelesekin dioen jarrera natural hau zeukaten, eta horren ganean Jainkoak goitik eman zien profezi izpiritua ere bai, ez baitzen nahikoa hain gauza gorenerako argimen natural hutsa, hori arras igona izanik ere" {Uhartek dioena egia da, Elizak sibilak haintzat hartzen zituen haiek, Elizaren Aita batzuen ustez, Jesu Kristoren etorrera profetizatu baitzuten; ikus Lactantio-ren Divinarum institutionum liber I: "De falsa religione", VI (in Patrol. lat. 6. 60 eta hurr.); Done Augustin (Contra Faustum, XIII, xiv); Done Isidoro (s.v. De sybilis, bere Etym.); Done Tomas (Summa theologia, II, 2, q, 2, a 7; id., q 172, a. 6).

35 Hau da, Platon, Fedro-n, 245 a-b; eta lehenago Sofista-n, 265 d.

36 (Bazterrean) I. liburua Prognos., 7 [egia esan, I. kapituluak da: "eritasun hauetan deus jainkozkorik baldin bada, ikasazu hori ere aurrikusten"].

37 (Bazterrean) "Eriak jainkozkotasun hauez mintzo direnean, haien arima arrazionala jadanik gorputzetik askaturik dagoelako seinalea da, eta horrela bat ere ez da eskapatzen".

38 Ikus gorago 35. oharra. Platonek poesi ahalmena tenperamentura bildu zuen gainerako beste aldiak Sofista, 338 d; Gorgias, 480 b eta Timeo, 86 c-d dira.

39 (Bazterrean) "Errakuntza berean erori zen Ciceron: Pro Archia poeta" [VIII, 18: Poetam natura ipsa valere et mentis viribus excitari et quasi divino quodam spiritu inflari. Quare suo jure noster ille Ennius "ssnctos" appellat poetas, quod quasi deorum aliquo dono atque munere commendati nobis esse videantur].

40 Genesis, II, 19 "Jainko Jaunak lurretik egin ondoan beraz lurreko abere guztiak eta zeruko hegaztiak oro, erakarri zituen Adamen aitzinera, ikus zezan zer izen eman zien: eta Adamek abere bakoitzari eman zion izena da zinez haren izena".

41 Platonekin batera (Kratilo, 390 e) gauzaren eta izenaren arteko harreman "naturala"ren alde ageri da Uharte. Geroago (VIII. kap.) horri berrekingo dio, Platonen eta Aristotelesen teoriak kontra jarritz. Azkenean Platoni emango dio arrazoaia, zenbait erreserbarekin izan arren.

42 Uharteren liburua argitaratu eta gero, iruzkin franko sortu ziren zorabiatu batzuk aurretik ikasia ukan gabe latinez mintzo zitezkeelako kontu horri buruz. Andrés Velázquez-ek (bere Libro de la Melancolía-n, Sibia, 1585) gure nafar idazlearen ideia batzuk eztabaidatu zituen, hemenengo hau, besteak beste. Liburuaren hitzaurrean bere obraren gai nagusia hau dela aitortzen du: "baserritar nekazariak, malenkonia ukanik, latinez mintzatu eta filosofiaz tratatzea, ezinezkoa da, barruan deabrua eduki gabe". Velázquez-ek malenkonia eznaturalaren koadro klinikoak aipatzen ditu (Galenoren De atra bile liburuan oinarrituak), hots, furfurua edo keria, otso-eria edo likantropia, gaitz sakratua -epilepsia-, lilura erotikoa eta alu-furfuria, eta ez du deus aurkitzen Uhartek azalduriko zorabiozko nahasmenduekin zerikusirik duenik.

43 (Bazterrean) 11.^a sectione. Problem., 27. [Autore grekoak uste zuenez, hori halako emozio bereziren batez gertatzen zen, hitz batekin elkaturik, belarritik sartu eta haurraren bat-bateko hizketa sortaraziz].

44 Seguraski oraingo aipamen honen iturria Galeno da, De semine, II, v.

45 (Bazterrean) 11.^a sectione. Problem., 27 [loc. cit. supra].

46 (Bazterrean) De divinatione [I, 8: "Animalia aurrikuslea, zuhurra, eranitza, zorrotza, oroitsua, arrazoiz eta aholkuz beterikoa, gizona deitzen duguna"].

47 ["bada ahalmenen bat, izaeraren bat, etorkizuna aurrikusten duena; arrazoiak ez du behin ere azaldu ahal izan ahalmen eta izaera hori"; id. I, 12].

48 Timeo, 47 b-c.

49 Platon, idib. 69 b eta hurr., 89 b, etab. Bai eta Fedro, 246 a; Politeia, IV, 435 c, 441 c; Fedro, 78 b eta hurr.

50 (Bazterrean) Qui valetudinis vitio fuerunt et melancholici dicuntur, habent aliquid in animis praesagiens atque divinum. Cicero, De divinatione [I, 81: "malenkoniatsuek, eritasunean zorabiatuak daudenek, profeziatzko eta jainkozko zerbait dute ariman"].

51 Agian I Joan, IV, 1-ean oinarritzen da: "Maiteak, izpiritu guzia ez dezazuela sinets, baina foroga itzazue izpirituak eia Jainkoaganik diradenez: ezen anitz profeta faltsu etori izan dirade mundura".

* Hemendik (Dohain honetatik) puntu eta bereiz-eraino (gorago erran dudana bezala) moztua. Mozketa honen arrazoaia lehen aipatua da: Uhartek Jainkoarengan bere dohainak banatzeko orduan halako aukera bat uste izatea.

52 (Bazterrean) Genesisia, XLIX. kap.

* Galderaren azken zatia (kasu hau, alde behintzat, Jakobaren gisakoa izan arren) kendu zioten.

h Iruñeko, Bilboko, Valentziako eta Huescako edizioek engainaturik (engañados) hitzaren orde, irakatsirik (enseñados) dakarte.

53 hemen hitz honek "profezi dohaina, iragarmena" erran nahi du.

54 (Bazterrean) Ad Romanos, I. kap. [20: "Ezen haren gauza invisibleak (hala nola haren botere eternala eta dibinitatea) munduaren kreazionetik ikusten dirade, gauza kreatu hautarik konsideratzen diradenean: exkusa gabe diradenentzat"].

55 Genesiaren esaldi famatu hau (I, 26: "Eta erran zuen orduan Jainkoak: egin dezagun gizona geure antz eta irudira") imitatio Dei-ren abiapuntua izaten da, Erdi Aroan zehar Ernazimenduan erabateko indarra zeukana. Uharteren ustez, gizona, Jainkoari jarraitu, "haren atzetik joan", hari behatu eta bera ezagutzeko ahaleginagatik, zatiz behintzat "jainkotu" egiten da, bere burua duinduz.

V. Kapituluak[1594.eko VIII.a]

1 Animali izpiritu eta, beraz, animali "ahalmen" hauek burmuinean dautza: Proprietas [tunicae nervum cum cordis corpore connexae] igitur haec communis cum omnibus sensificis facultatibus, quae a cerebro oriuntur, esse reperitur, ut per nervos ad propria usque instrumenta deferantur... Illi autem sensifici proprie vocantur, qui ad sensum instrumenta mittuntur, aliis quidem, qui movent membra, molliores (De decretis, VII, in Opera, I, 853 C-D).

* Hemen mozketan luze bat hasten da, filosofia natural ororen aurka baitoa zatian amaitzen dena (bi orrialde geroago). Honen lehen zatia honela aldatu zen: "Nahitanahiez, han barnean, burmuinean, irudimenerako organoa eta irudimenerako organoa egon beharra dago. Endelegurako Naturak ez zuen tresnarik egin, arestian erran dugunez, fantasmek horren premia badute ere, geroago frogatuko dugun bezala". Inkisizioaren aurrean, Uhartek, zuhurki, endelegua, intellectus agens, arimaren ahalmenik goraiatuena, organoen menpekotasunetik kanpo uzten du. Fantasmak ordea, hots, irudiak, kanpoko zentzuekin duten menpekotasunagatik eta irudimena oharmentaren eta endeleguaren arartekoa delako, organoen menpe utzi zituen.

2 Gorago esan bezala (III-VI. kapituluko 14. oharra), Herofilo izan zen burmuinaren bentrakuluak azaldu zituen lehenbizikoa (Aristotelesek bere De animalium historia, I, 16-en burmuinaren erdian irgaitzaz aipaturiko "sabeltxoa" alde batera utzirik), hor arimak gorputzean duen egoitza ikusiz (Galeno, De usu partium, VIII, 11). Hagitzez korapilatsuagoak izan ziren arimaren ahalmen ezberdinak bentrakulu horietan kokatzeko ahaleginak, eta hor Erdi Aroko eta Ernazimenduko filosofo eta anatomistek maiz eztabaida luzeetan ihardu zuten. Uharte, bere garaiko anitz medikuren antzera, ez da ausartzen bakoitzaren kokagune zehatza esatera.

3 Hemen ofizina hitzak (etimologikoki opificina, opus-facere-tik) Galenoren "fabrika" esan nahi du.

4 (Bazterrean) VIII. liburua De decret. Hipp. et Plat.; eta VIII. liburua De usu part. [egia esan, De decretis liburua VII.a da: Quin etiam si cerebrum ipsum quomodocunque incidat, non prius sensum et motum amittet animal, quam ad aliquem ventriculum vulnus penetravit. Postremi quidem ventriculi vulneratio maxime omnium animal ledit, secundo loco medii, minima ex anterioribus utrisque noxa contrahitur (loc. cit. col. 848 D). De usu partium-en kapitulua 11.a da.].

** Inkisizioaren mozketagatik, oharra kentzeaz batera, atal hau honela berreginik agertuz: "Halere, behin burua irekirik eta burmuinaren anatomia egin eta gero, dena antzeko gai homogeneoz osaturik dagoela dirudi, natura ezberdineko bestelako zatirik gabe. Eta hala dirudiela erran dut, zeren anitz gauza, Galenok dioenez, Naturak osaturik egin zituelako, duten osaeraren xehatasunagatik zentzuak simple baderitze ere; eta giza burmuinean ere horrela gerta liteke, bistan horrelaxe ez balirudi ere" [Nam unumquodque instrumentarium animalis membrum compositum cum sit ex aliis simplicioribus partibus, proprium quiddam in substantia ita adeptum est, ut nihil aliud in universo animalis corpore simile reperiatur... (De placitis, VI, loc. cit., col. 837 C-D)].

5 Hau da, endeleguak ezin bereiz ditzake irudimenetik datozkion irudiak, Aristotelesek dioenez bezala, pentsamendu oro fantasmek lagundurik dagoela kontutan izanik, ondoren, irudimena bera "fantasmen kateaketa" bat izan daitekeela erantsiz (De anima, 402 b - 403 a). Irudimena "barneko pintatzaile" gisa aurkeztea, jadanik Platonen Filebo obran ageri da (39 b - 40 a).

6 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [Timeo, 71 b].

7 (Bazterrean) Arist. III. lib. De anima [431 a 16-17. "Endelegua irudien menpean dago"].

a Edizio guztietan bigarren ahalmenaren funtzioa, hau da, irudimena, falta da. Seguraski Uharteren konturatu gabeko ahaztura izan zen.

8 Alde bateko perlesia: hemiplegia alegia. Erresoluzioa hitzak, garai hartako medikuntzan, "poroetatik edo beste bideren batetik humorea ezereztu edo lurruntzea" adierazten zuen.

* Mozketa luzea berez honaino heltzeko zen; halere, zentsorearen agindua ez zen edizio eraldatuan horrela bete, honetan Ez baitira bi obra zatitik honaino sartu baitzen. Horren arrazoa, Sanz-ek dioenez, seguraski hau da, Index-ek aipatzen zuen contra toda filosofia natural (= filosofia natural ororen aurka baitoa) pasarte editoreak edo edizioaren zentsoreak, konturatzeke, lehenago azaltzen den en buena filosofía natural (= filosofia natural onean oinarriturik) zatia zela uste izatea.

9 (Bazterrean) Quod animi mores lib. V, kap.

10 (Bazterrean) De partibus animalium II. liburua, IV kap.
b callidior B₂.

11 (Bazterrean) 14.^a sectione. Problem., 15.

12 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII. kap.

13 Espezieak: objektuak bere baitarik bidaltzen dituen imajina edo irudiak, ahalmen egokia hura ezagutzera edo hartaz ohartzera laguntzen dutenak.

14 (Bazterrean) "Galenok hala dio": Quod animi mores lib., V. kap. [in Opera, col. 998 C. "Lehortasun argitsuak, izpiritu ezin jakintsuagoa"]. Eta honela segitzen du: Atque haec potior opinio existimanda est: cum stellas quoque fulgentes simul et siccas animo concipiamus summa praeditas esse prudentia. Beraz, lehorra ez eze, suzkoa ere izan behar du arima eraginkorrek Ilunerako. Baina Galenok azaltzen duenez, arima izarrekin lotzeko nahi hori Heraklitoren testuaren tradizioetik dator, Makrobiok Scipionen Ametsaz egindako iruzkinean zehar iragana, 14, 19 (D-K, 22 A 15), honela dioena: "Heraklitok esan zuen arima izarren funtsezko substantziaren txinpart bat dela" (scintillam stellaris essentiae). Dirudienez, Heraklitoren ustez izarrek eterrezko gune trinkotuak ziren; bestaldetik eter hori jainkozkoa eta arimen jarlekua zelako iritzia oso hedaturik zegoen.

15 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [30 b].

16 De partibus animalium, II, baina autorea, gorago bezala, Galenori darraio (Quod animi mores, VII, cot. cit., 1000 A-B).

17 (Bazterrean) "Horatiok Ulises ez zela ergeldu erraiteko, ez zela urde bilakatu erakusten du".

18 (Bazterrean) "Galenok kontatzen du hori in Oratione suasoria ad bonas artes [VII: "beotiar zentzugabeei urde erraiten zaie"] Pindaroren atala, 83.a da.

19 (Bazterrean) Quod animi mores lib. VI. kap. [VII.a da, loc. cit., supra].

20 (Bazterrean) De natura humana, I. lib. comm. 11.

21 Erdal testuak los hijos dio. Euskaraz, eskuarki "seme-alabak" itzuli beharko litzateke, eta maiz holaxe egin dut, baina garai hartako misoginia-giroan ezin ahantz dezakegu Uhartek ikasketak gizonezkoen arlo berezitat zeuzkala, emakumezkoak hortik kanpoan gelditurik (honetaz ikus II. atalaren hasiera, 1594.eko XX. kap.). Beraz, gaur justiziazko berdintasun-irizpideengatik eta emakumeen duintasun-arrazoiengatik bestela baderitzogu ere, ene ustez, autorea seme hutsez (eta ez alabez ere) ari denean, seme-alabak jartzea orduko testua eta ideologia faltsutzea litzateke. Antzeko anakronismoa genuke, noski, hombre izena gaurko feministek nahiago duten gizaki hitzaz eman bageneza.

22 Zehazki, XV. kapituluaren 3. atalean, hau da, 1594.eko edizioaren XXI. kapituluaren.

23 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 1 [op. cit. 953 a].

24 (Bazterrean) XXVIII. kap. [19: "nahigabeak adimena ematen du"]. Pentsamendu hau euskal atsotitz askotan bildua da: asko daki zaharrak, erakutsi beharrak; beharra, eragile handi; beharrak zaharra merkatura...

- 25 (Bazterrean) 6. Epid. 5. partea, 9. iruzk. [Valentziako ed. 1551, f165. fol. r.]
- 26 (Bazterrean) Cor sapientium ubi tristitia est; cor estultorum, ubi laetitia. Eklesiastes, VII. kap. [5: "Zuhurren bihotza tristura den tokian da, eta zoroena alaitasuna den lekuan"].
- 27 Oroimena nola ari den egiten digun azalpen konkretu honetan aristoteliar oihartzun batzuk heltzen zaizkigu, lehenago Platonek bere Teeteto-n (191 c-d) erabiliak, zentzuen inpresioak grabatzen direneko "argizarizko oholtzua" famatua batik bat (De anima, 430 a).
- 28 (Bazterrean) De natura humana I. lib., 11. iruzk.
- 29 (Bazterrean) "Eta honela Ciceronek, argimenaren izaera definituz, bere definizioan oroimena sartzen du: docilitas et memoria quae fere appellantur uno ingenii nomine ["Ikasteko ahalmena eta oroimena, hitz bakar batez esateko: argimena"]. De fine bono et malo".
- 30 De anima, 402 b-403 a; De memoria et reminiscencia, 449 b-450 a.
g tellam B₂.
- 31 (Bazterrean) De officio medic. I. lib., 4. iruzk. ["Oroimenak bere baitan zentzuek eta buruak ezagutzen dituzten gauzak gordetzen ditu, gordailu edo kutxa baten antzera, deus asmatu gabe"].
- 32 Aristotelesen imajinaz ari da, oroimenean figurak zigilua argizarizko oholtzuan bezala markatzen direla azaldu nahirik.
- 33 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 4. [egia esan, 5. zkia. da].
- * Hemendik aurrera eranskin luze bat hasten da:
- Eta irakurle jakin-mina espanta ez dadin, honelako filosofo handi batek egiazko erantzunak asmatu ez, eta, aldiz, beste batzuek, hura baino argimen apalagoa ukan arren, noizik behin haiek erdiesten eta arrazoi hobeak eratzten dituztelako, jakiteko du ezen Platonek, filosofo handiak (gizonak izanik) anitzetan okertzen direla, edo oharkabean edo kontsideraziorik ezaz, edo dakarten doktrinaren hastapen guztietan ez daudelako, bere obren irakurleei abisu ematen die, horiek hagitx ongi eta arta handiz ikus ditzaten, bere argimen handiaz eta iritzi ugarietz fidatu gabe, baina azter ditzatela haren erranak eta errankizunak, eta ez ditzatela onar aurretik frogatu gabe, oso egiazkoak irudi dakizkiekeen arren. Eta, honela, erran zuen: dicta philosophorum sunt examinanda, nec statim admittenda etiamsi vera videantur [Teeteto, 161 e]; zeren lotsa handia izatekoa baita, Naturak begiak ikusteko eta endelegua endelegatzeko emanak ditudalarik, Aristotelesi eta gainerako filosofoei gauzek nolako figurak eta koloreak dituen galdetzen ibiltzea, eta zer izaera eta natura duten. Ireki itzazue zeuek begiak, dio Platonek [Timeo, 47 b] eta balia zaitezte zeuen argimen eta trebetasunaz, eta ez izan beldurtiak: izan ere, Aristoteles egin zuen Autoreak, horrexek berak sortu zintuzten zuek ere, eta hain argimen handia egin zuenak beste handiago bat ere fabrika dezake, horregatik eskua oso eta zauri gabarik geldituz.
- Horrekin guztiarekin ere, arrazoizkoa da autore handiak benerezio berezitan ukaitea, anitz irakatsi baitziguten. Baina horrek bere tenplanta eta moderazioa eduki behar du, gure argimen eta trebetasuna erabat baztertu gabe. Ikasten duenaren jakintza ez datza irakasten dion maisuari sinestean, haren endelegua doktrinaren egiazkotasunak eta kontsonantzia onak asebetetzean baizik. Eta horrela, Platon medikuekin eta, haien izenean, in verba magistri zin egiten duten guztiarekin, mintzo delarik, honela dio: oportet autem, praeter Hippocratem, considerare utrum ratio disputationis nobis consonet [Fedro, 270 c]; zeren bestela eginez gero ez baikenuke inolako jakiturarik erdietsiko, giza fedea baizik, jakin nahi dugunaren aurkakoa. Eta horri buruz honela erran zuen Aristotelesekin: scire unamquamque rem putamus cum causam cognoscimus et quoniam illius est causa et non contingit aliter se habere [Analytica posteriora, II, ii, 2]. Eta,

hortaz, hori guztiori jakin gabe gelditzen gara geure irakaslearenganako fedea eta deboziozko atxikimendua besterik ez daukagunean.

Eta kontsiderazio hau aitzinerago eraman nahi badugu, kausituko dugu gizonak baduela Aristotelesen, Platonen eta gainerako filosofo naturalen erranak eta errankizunak aztertu eta frogatzeko lizentzia, baina, horrez gainera, baldin deabruak eta aingeruak (munduko filosofo guztiek baino gehiago dakitenak) doktrinaren bat, egiazkoa edo gezurrezkoa, irakastera baletozkio, emanik ditu agindua eta kontseilua halakorik ez sinesteko, aitzinetik haiek frogatu eta haien doktrina egiazkoa ala gezurrezkoa ote den ikusi eta jakin gabe, gai horri buruz egin daitezkeen eragozpenak eta argudioak jarritz. Eta, horrela, Apostoluak, gizonok deabruetz (gure hondamena nahi dutenez) eta aingeru onez (gu gorde eta defendatzen gaituztenez) inguraturik gaudela adituz, eta guztiek beren mintzaira izpiritualean solasten eta irakasten digutela, kontseilu ematen digu sinets ez diezaiegun, harik eta haiek frogatu eta ikertu arte, onak ala gaiztoak ote diren jakiteko, eta, horrela, erran zuen: fratres, nolite credere omni spiritui, sed probate an ex Deo sint [Joan, IV, 1: Anaiok, izpiritu guzia ez dezazuela sinets, baina foroga itzazue izpirituak ea Jainkoaganik direnez.].

Zer enbaxada izan da munduan egiazkoago eta benetakoagorik, eta giza espeziearentzat garrantzi handiagoa ukan duenik, Done Gabriel aingeruak ama birjinari ekarri ziona baino? Eta, guztiarekin ere, lehenik frogatu eta ikertu zuen, eta halako gaiak egin zitezkeen argudio gogorrenak egin zizkion; eta aingeru ona eta horren agurra ere ona zela konpreniturik, erran zion: ecce ancilla Domini: fiat mihi secundum verbum tuum. Eta diligentzia hori konplitu gabe hori egin balu, ez zukeen bere eginbeharra beteko.

Beraz, gure xedera itzuliz, honela dio Platonek: qui positioni non credit reprobare non valet credere debet [Teeteto, loc. cit.]. Eta hitz horiekin aditzera ematen du letretako gizonen artean bitariko argimenak direla; batzuk, zerbait gaitzesteko trebetasunik ez dutenak, eta hauei sinesteko agintzen die, autorearen doktrinak asebate ez balitza ere; beste batzuek gaitzesteko eta konfutatzeko argimena trebetasuna dute, eta hauek beren sinesgogortasunari arrazoia ematera behartzen ditu. Eta Aristotelesek problemari emaniko erantzunak asebetetzen ez nauenez gero, lehen erran dudanagatik beharturik nago erraitera zer arrazoiz ene endeleguak ez duen hura onartu nahi".

34 Aristotelesek bere De anima, 430 a-n darabilen imajina berbera darabil, eta bereziki (ik. lehenagoko oharra) De memoria et reminiscencia, 450 a 30-koa ere, hor gazte eta zaharrek ahalmen hauetarako dauzkaten baliabideak elkarrekin gonbaratzen dira eta.

35 (Bazterrean) V, Aphorism., 27. iruzk. [Begien bistan da Uharteren itzulpen hau erabateko askatasunaz egin duela. Izan ere, Hippokratesen testuak honela dio: "Gauetz edan behar handia etortzen denean, eta egarri eta guzti lo hartuz gero, seinale ona" (Littré-k, IV, 542, hau eransten du: "edan ondoren, seinale ona").

36 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 5 ["Loaren bidezko" sendabide hau Cervantesek aplikatzen dio bere pertsonaia "lehor" eta haserrakorrari, bai uraren bidez ("pareten aurka ganibekadak ematen zituen; eta oso nekaturik zegoenean... pitxer handi bete ur hotz edan eta sano eta sosegaturik gelditzen zen"; I, 5), eta bai loaren bitartez ere: (itzuli ondoren, aipaturiko leku berean) "ez zuen galderarik batere erantzun nahi ukan, baina jaten emateko eta lo egiten utz ziezaiotela, horixe baitzen gehienik arduratzen zuena" (Iriartek adibide gehiago dakartza aipaturiko obran, 325-332. orr.).

* Zentsurak Doktrina honetatik-tik nagusiki-rainoko pasarteak moztu zion.

** Gomutamena hitzarekin latinezko "reminiscencia" adierazten dugu.

37 (Bazterrean) De memoria et reminiscencia liburua [453 a 10-15].

38 Nagusia: Aristotelesen silogismoaren lehen premisa, alegia; txikia, lerro batzuk beherago aipatua, bigarrena da.

39 Beraz, oinarrizko koalitate hau gainerakoak baztertu ondoren esleitzen dio, hurrengo lerroan horren arrazoiak eman arren.

40 Lehendik jarririko eskema kontutan harturik, hots: 1) "Hoztasun" eta hezetasuna: patxadatsua (haurtzaroa); ahalmenik ez. 2) Beroa eta hezetasuna: odoltsua (gaztaroa); oroimena. 3) Beroa eta "lehortasuna": koleratsua (heldutasuna); irudimena. 4) Hotz eta "lehortasuna": malenkoniatsua (zahartzaroa); endelegua.

41 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII kap. [loc. cit. supra, III-VI. kapituluetakako 15. oharra].

42 (Bazterrean) Intemperies quaelibet sola diu durare non potest ["ezein aro txarrek ez dauka luzaro irauterik"]. Galeno, De sanitate tuenda VI. liburua. [Eta honela segitzen du: quando ipsa sibi ipsi alteram ex necessitate adsciscis (in Opera, II, 114. iruzk. A)].

43 (Bazterrean) Aphorism., II. liburua, 20. iruzk. ["gehiagizko aro txar orok indarrak desagertarazten baitu"]. In Opera, IV, 581. iruzk.

44 (Bazterrean) Quod animi mores liburua, V. kap. [Honela dio: Cur igitur non pauci ad extremum usque senium proveci delirarunt, cum haec aetas sicca esse demonstrata sit? Non ob siccitatem, sed ob frigiditatem dicemus (Opera, I, 998 C)].

45 (Bazterrean) De anima III. liburua [430 a. "Gure endelegua orri zuri baten antzekoa da, ganean ezer idatzirik ez duena"].

46 (Bazterrean) "Argimen ezberdintasun bi hauez honela erran zuen Aristotelese: Ille quidem est optimus qui omnia per se intelligit; bonus autem rursus est ille qui bene dicendi obedit. Aetic I. liburua [1095 b. Hoberena da dena berez ulertzen duena; ona, ordea, dakitenak gidaritzat onartzen dituena].

47 Fedro, 249 c. Platonen jaiotzetiko jakite honen aurka Vivesek ere altxatu zuen bere ahotsa bere De anima et vita liburuan (aip. ed. II, 1194. orr.).

48 (Bazterrean) "Arteen asmazioa eta liburuen moldaketa endeleguaz, oroimenaz edo irudimenaz egiten dela dio Galenok; baina gauzen oroimen handia duelako izkiriartzen duenak ezin erran dezake deus berririk". De officio medic. liburua, 4. iruzk.

49 Era honetako esaldiak maiz aditzen ziren orduko kultur giroan. Ikus José Antonio Maravall, Antiguos y modernos, op. cit. 47-72, 294-322 eta passim; José María López Piñero, Ciencia y técnica en la sociedad española de los siglos XVI y XVII, op. cit. 154-168. orr.

50 Garai hartako gaztelaniak italierazko capriccio "apeta, nahikeria" hartu berria zuen, Uhartek aipatzen duen bezala, capra-tik eratorria, "artelanetako ideia berri eta pitxia" esanguran.

i Iruñeko, Bilboko, Valentziako eta Huescako edizioetan pacer "alhatzea" barik, parescer "itxura" ageri da.

51 (Bazterrean) "Argimen ezberdintasun hau teologiarako arras arriskugarria da, hor endeleguak Eliza katolikoak, gure amak, erraiten eta aldarrikatzen duenera estekaturik egon behar du eta".

52 (Bazterrean) 6. Epidem., 5. zatia, 11, iruzk. ["Gizonaren pentsamendua arimaren ibilaldia da"].

53 (Bazterrean) "Argimen ezberdintasun hau teologiarako hagitz ona da, hor jainkozko aginpideari, kontzilio sainduak eta doktore sakratuen ahoz adieraziari, jarraitu behar baitzaio".

VI. Kapituluak [1594.eko IX.a]

1 "Gauza bakarra dakit, ezer ez dakidala". Platon, Apologia, 20 e eta hurr.

2 Sokratesek giza zientzien mugez egin zuen aitorten honek oihartzun handia izan zuen Erdi Aroan; hauxe da Gilson-ek aipatzen duen "sokratismo kristaua" ("Le socratisme chrétien", in L'esprit de la philosophie médiévale, Paris, 1932, 14-15. orr.).

3 (Bazterrean) Sap. cap. IX. [Zuhurtzia, IX, 14: "Ezen gelberak dira gizonen gogoetak, eta gure aitzinerateko oharpenak dira gertakizunik gabeak"].

4 (Bazterrean): Introductorio liburua, V. kap. ["Zientzia ezagutza egoki, fermu eta arrazoimenetik behin ere saihestua ez dena. Ez duzu bera filosofoen artean aurkituko, batez ere gauzen izaera ikertzen dutenean, eta are gutxiago medikuntzan. Hitz gutxitan, ez da oraindik gizonengana heldu"].

* Honen arabera-tik honaino moztu zuen zentsurak.

** Hemen beste mozqueta bat hasten da, hurrengo pasartearen hori frogatzerik izan ez dadin-raino heltzen dena. Horren arrazoia garbi dago, endeleguaren menpekotasun organikoa. Testua, bestalde, erdizka honela birmoldaturik dago: "Gizonek eta adimenik gabeko animaliek burmuina era berean antolaturik edukitzeko arrazoia honetan datza, endelegua, gizonaren baitan basa animaliarena gainditzen duena, ahalmen antolatua ez delako. Eta, gauzak horrela, Naturak ez zuen Naturak giza burmuinaren eraketan hartarako tresnarik".

5 (Bazterrean) De anima III. liburua, IV. kap. [429a-430a].

6 Hau da, endeleguaren menpekotasun organikoa ezin froga daitekeela, garai hartako gehienek eskuarki onartzen zuten tesia, alegia.

* Aurreko Hortik landa-tik honaino (Zeren) testua, aurreko mozketagatik, honela laburtu zen: "Eta hori Aristotelesek klarki frogatzen du erranez ahalmen honi natura ezagutu eta endelegatzea doakiola, eta munduan...".

7 Aristotelesen argudioak endelegua inpresio sentigarrietatik bana daitekeela dio, "gauzak materiatik bana daitezkeen neurri berean" (loc. cit.).

8 De anima, 419 a 10-15.

9 "Barrukoa kanpokoari kontrajartzen zaio".

10 Hau da, oinarizko "nolakotasunetakoren" bat izango lukeela. Berriro ere in De anima, 429 a 25-30.

11 Banaketa boskoitz honen iturria Avizena da, baina bosgarren ahalmena ez da, Uhartek horrela badio ere, "gomutamena" edo reminiscentia, aestimativa baizik (Canon, lib. I, fen. 1. doct. vi, cap. 5).

12 Metafisika, IX, 8.

* Zentsurak pasarte honen hasieratik (Honetatik kanpoan) honaino (ari zirela) moztu zuen.

13 (Bazterrean) De anima liburua [422 b].

14 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII. kap.

15 Vivesek eragozpen berbera azaltzen bere De anima-n (II, ii).

16 Galenok dioenez atal sotil horiek endelegurako egokienak dira: Ingenium quidem igitur subtilem cerebri substantiam indicat; tarditas vero intellectus, crasam (Artis medicinalis, loc. cit. in Opera, V, 206).

17 Hau da, kolerak. Ikus IV-VII kap.ko 26. oharra eta aurreko kapituluko 36.a.

18 (Bazterrean) Animi dexteritas et prudentia a bilioso humore profiscitur; integritatis et constantiae erit auctor humor melancholicus ["Ablezia eta zuhurtzia behazun-humoretik heldu dira; prestutasunaren eta iraunkortasunaren egilea malenkoni humorea da"]. De natura humana I. Liburua, 11. iruzk.

19 (Bazterrean) Topicorum I. liburua [I, 3, a 15-20].

* Pasarte hau guztiau Inkisizioak moztu zuen, hau da Lehen duda-tik jakituria berekoak direlako-raino. Honen arrazoia betikoa da: endelegu organoen menean ezartzea. Edizio eraberrituan emendakin hau ageri da:

"Gizonaren baitan bi endelegu mota kontsideratzen dira. Bata arima arrazionalen den ahalmena da, eta hau arima arrazionala bera bezain ustelezina da, eta horren kontserbazioa eta izatea ez dago gorputzaren menean ez eta horren organo materialen

pean ere; eta ahalmen honi arras ongi doazkio Aristotelesek eginiko argudioak [De anima, III, 429 a 12-18; beste zenbait tokiren artean]. Beste endelegua, komunzki, gizonak behar bezala endelegatu ahal ukaiteko, giza burmuinak eduki behar duen guztiari erraiten diogu; eta erranahi honetan honela erran ohi dugu: Petrik Joanesek baino endelegu hobea du. Baina hori ezin uler daiteke ariman den ahalmenaz, hori gizon guztiengan hobezintasun berekoa delako, beste ahalmen organiko batzuek baizik, eta endelegua horiez baliatzen da bere obretan; eta horietarik batzuk ongi eta beste batzuk gaizki egiten ditu, ez haren erruz, baina bera baliatzen deneko ahalmenak gizon batzuegan ongi eta beste batzuegan gaizki antolaturik daudelako.

Eta hori ezin konpreni daiteke bestela, zeren, esperientziaz dakusagunez gizon batek beste batek baino hobeki arrazoitzen duela, eta gizon berberak adin batean gogoeta ongi egiten duela eta bestean gaizki. Eta burmuinak pairatzen dituen eritasunengatik, atzean frogaturik utzi dugunez, gizon batzuek sena galtzen dute eta beste batzuk hura eskuratzen. Bereziki hetika sukarrean [= tisia] bestelako kalenturetan baino ezagunago izaten da, zeren behin burmuinean kokatzen hasiz gero, eria arrazoitzen eta mintzatzen hasten baita lehen ohi zuen baino diskretasun eta bokantza handiagoarekin; eta zenbat eta eritasuna errotuago, are gehiago hazten dira endeleguaren obrak. Eta seinale horretan antzinako medikuetarik batek ere ez zuen begirik ezarri ez eta kontsideraziorik ere, horren ezagutza hasieran munta handikoa izanik, orduan sendatzeko erraza delako." a [] B2.

20 Hemen, berriz ere, Platonen doktrinari datzekio. Ikus, adibidez, Timeo, 36 d, 47 a; Fedon, 76 d-77 a. Interesgarria da pasarte hau Cervantesen testu honekin alderatzea (Persiles, I, 18): "Arima guztiak beren hastapenetan berdina eta ore berekoak direlako, haien Egileak sortu eta eratuak, eta horiek sartzen dituen gorputzaren kutxa eta tenperamentuaren arabera, halaxe diskretasun handiago edo txikiagoarekin agertzen dira, eta izarrek gehiago makurtarazten dituen zientzia, arte edo abileziei kasu egiten diete eta haien zale izaten". (aip. ed., 133. orr.). Mauricioren hitzaldi honen iturria Uharterengan dela

R. Salinasek aipatu zuen, bere Un gran inspirador de Cervantes-en, op. cit., 157-158. orr.

21 Aristotelesen doktrinaren jarraitzaileen artean Done Tomas Aquinokoak, adibidez, honela dio: nihil potest homo intelligere sine phantasmate (In Aristotelis De sensu et sensato, De memoria et reminiscendis comentatium, R. M. Spiazzi-aren edizioa, Torino-Erroma, 1949, 92. orr.).

22 (Bazterrean) De memoria et reminiscencia liburua [453 a, 15-20; ibid., De anima, III, 432 a 10].

23 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem. 4 [hauxe da, beti bezala, Uharteren problema nagusia].

24 Galeno, De usu partium, XVII.

* Hemendik (ekintza eta ahalmenaz) esaldiaren bukaeraraino (gizonik ez dago) moztu zuen zentsurak, hortxe ageri baita Uhartek metodo fisio-psikologikoaren aldeko hobespena eta orduko metafisikarien endelegu mota bien gaitzespena (aktiboa eta pasiboa), Aristotelesen De anima-n, III, 5, 430 a 10-25), era ilunean bada ere, azaltzen dena. Edizio eraberritan eranskin hau gehitu zen:

"Honi buruz nihaurrek erran nezake ezen, burmuina komeni baino hezeago dagoenean, oroimenaren eusmen eta atxikimena handitzen dela eta fantasmen irudikapena, aldiz, gutxitzen, hau lehortasun distiratsuarekin hobeki egiten delako, hezetasun uher eta ilunarekin baino; eta, horrela ba, endelegua bere obretan huts egitera heldu da, fantasmen laino eta iluntasunagatik. Aitzitik, burmuin lehorrekoek oroimenaren eusmen eta atxikimenean huts egiten dute baina figuren irudikapenean handitzen, lehortasunari elkartzen zaion distira eta argitasunagatik; eta hauxe da endeleguak beharren duena,

Heraklitoren behialako haren arabera: splendor siccus animus sapientissimus [ikus V-VIII. kapituluko 14. oharra]. Eta hezetasunak gauzetan nolako iluntasuna ezartzen duen eta lehertasunak nolako distira eta argitasuna, klarki ageri da gauetan, hego haizeak edo ipar haizeak jotzen dutenean: batak izarrak triste eta ilun ezartzen ditu, eta besteak argi eta distiratsu. Horixe bera gertatzen da oroimenean diren figura eta fantasmekin ere. Eta, horrela, ez da asko endeleguak huts egin edo antzematea haiekin espekulatzen hasten denean, haiek ilun edo argi daudenean, bera ahalmen organikoa izan gabe eta bere baitan faltaren bat ukan gabe.

Filosofo natural batzuek sentitu nahi ukan zuten zeruen ustelezintasuna, eta duten gardetasun eta zeharrargitasuna, eta izarren distira handia, haien osieran zegoen lehortasun handitik heldu zela. Zaharrek arrazoi honegatik egiten dute hain ongi gogoeta eta hain gaizki loa: beren burmuinaren lehortasun handiagatik oro garden eta zeharrargitsu dute, eta fantasmak eta figurak izarrak bezain distiratsu; eta, lehortasunak burmuinaren substantzia gogortzen duenez, horrexegatik ukaiten dute hain oroimen txarra. Aitzitik, gazteak oroimen handikoak dira, lo hobeki egiten eta gogoeta arras gaizki egiten dute, beren burmuinaren hezetasun ugariagatik, horrek hura bigun, opaku, lurruntu eta lainoz eta iluntasunez beterik ezartzen baitu; eta fantasmak uher, ilun eta argitasun urriarekin; eta horiek endeleguaren aitzinean kalitate txar hauekin ipinirik, berau okertzera daramate, objektuaren faltaz, eta ez bere erruagatik.

Endelegua eta oroimen ona elkartzeko Aristotelesek aurkitu zuen zailtasuna honexetan datza; eta ez oroimena emdeleguaren aurkakoa delako. Zeren, ongi kontsideratzen badugu, aurkituko baitugu ez dela ahalmenik emdelegua bere obretan hainbeste laguntzen duenik, nola oroimenak egiten duen; eta, izan ere, baldin figurak eta fantasmak gorde eta irudikatuko lizkiokeenik ez balitz, ez luke inola ere silogizatzeko erarik ukanen, eta materiari ezagatik gizona premian legoke. Eta horretara, Galenok kontatzen du ezen, behiala Asiako izurrite batean gizonak hainbeste oroimen galdu zutenez, nor bere izena ere ez zekiela, eta anitzek lehen zekizkiten letrak eta arteak galdu zituztela, eta berriz ere haiek estudiatu behar ukan zituztela, inoiz ikasi ez balituzte bezala, eta beste batzuek beren hizkuntza propioa galdu eta basa animaliak bezala gelditu zirela, ezin mintzatuz eta deusetan arrazoitzeko modurik ukan gabe, oroimenik ezagatik. Arrazoi horregatik dio Platonek antzinakoek Oroimenari tenplu eta aldareak egin zizkietela, eta hura adoratzen zutela zientzien jainkosatzat: *ac praeter deos quos tu memeras, alios insuper invocare decet, praecipueque Memoriam, in qua dea paecipua orationis nostrae momenta sunt sita, et in theatro satis officio nostro fungit possumus* [Teeteto, 191 c-d]. Eta arrazoi handia du, zeren ahalmen honek zenbat gorde eta kontserbatzen duen, horrenbeste baitaki gizonak ere. Eta geroago frogatuko dugunez, burmuina tenplaturik dagoenean, ezein kalitateren gehiegikeriarik gabe, gizonak emdelegu handia eta oroimen ugaria dauzka, eta egiazko kontrarioak balira, hori ezin izan liteke".

** Zentsurak pasarte hau Aristoteles oinarritzen-tik fantasmarik irteten arte moztu zuen.

25 De arima, 429 a 17-30-ko pasarteaz ari da.

26 ["Zentzuaren sentiberatasunak ez du sentsaziorik sortzen"] Hau da, zentzuaren bidez gauzez ohartzean zentzua ez da ohartzeko duen jarreraz ohartzeko, ez da bere ohartzeko egiturez ohartzeko; bestela esanik, ikusmenarekin ohartzean, adibidez, ez dugu begia ikusten.

Bazterrean hau eransten du: "Empedoklesek bazioen, ahalmenek objektuaren izaera bera ukan behar zutela, hartaz ohartu ahal izateko. Eta, horrela, erran zuen: *sentimus terram tellure, liquorem liquore, aeream aere substantiam, ignem quoque cernimus igne*. ["lurra lurrarekin sentitzen dugu, ura urarekin, airea airearekin eta sua suarekin"]. Eta Galenok errankizun hori onesten du". De placitis, VII. liburua [in Opera, I, 855].

*** Hemen mozketa luze bat hasten da, izkiriatzeko darabilgun paper zuri eta leunak duen proportzio berean-raino doana (hurrengo orrialdean). Arrazoa betikoa da, ulermenari "tresna organiko" bat egokiarazi nahi izatea. Horren lekuan emendakin luze bat ageri da, liburuak dakarren azkena, hurrengo guztiak eranskinak baitira. Honela dio:

"Oroimena bi eratarata kontsidera daiteke: arima arrazionalen loturik dagoen ahalmen gisa, edo Naturak burmuinean fabrikatu zuen organo korporala ukitzen duen heinean. Lehenbizikoa ez da filosofo naturalaren barrutikoa, metafisikariarena baizik, eta harengandik jakin behar da zerik den [hau da, metafisikariak oroimenaren berri eman behar digu, arimaren ahalmen gisa]. Bigarrena hain da ulertzeko zail (gizon bat nola izan daitekeen oroimen handikoa eta beste bat urrikoa, eta Naturak buruan zein tresna egin zuen, iraganikoaz oroitzeko), non filosofo naturalak itxura egin eta adibideak bilatu behar baititu, hura adierazteko egokiagoak, beste egiazko eta benetako batzuk baino.

Platonek, gizon bat oroimen handikoa eta beste bat urrikoa nola den erakusteko, eta bata iraganaz nola oroitzen den klarki eta bereziki eta bestea nahasiki, bi esenplu oso argi bilatu zituen, ex hypothesi horrela ez dena auresuposatuz: *Pone exempli causa, unam ceream effigiem in animis nostris; in hoc amiolem, minorem in alio; in hoc puriores cerae, sordioris duriorisve in aliquo; in quibusdam mollioris; in nonnullis etiam temperatae* [Teeteto, 191 c-d]. Esan balu bezala: "Emazue, itxuraz eta adibide gisa, gizonen arimetan Naturak argizarizko figura bana ezarri zuela; batzuingan txikia eta beste batzuingan handia; batzuingan aratz eta garbia eta beste batzuingan zikin eta zabortsua; batzuingan gogorra eta zulagaitza eta beste batzuingan biguna eta moldagarria; eta begiek, belarriek eta gainerako zentzuek antzeman dutenaren figura zigilu batekin zigilatzen dutela hartan". Anitz argizari dutenek oroimen handia ukanen dute, zigilatze alor handia dutelako; gutxi dutenek, aldiz, oroimen urria ukanen dute, argizaririk ezagatik; argizari zikin eta zabortsua dutenek figurak nahasi eta gaizki seinalaturik eginen dituzte; gogorra dutenek oroimenean gauzak gaizki hartzen dituzte, argizariak figura nekez onesten duelako; biguna dutenak hagitx oroimen onekoak dira eta gauzez erraz ohartzen dira, eta oroimenari gomendatzen diote buruan hartu nahi dutena. Eta honekin, egia da Platonek ez zuela horregatik ulertu Naturak, eratu gintuen denboran, gure arimetan argizaria ezarri zuela, ez eta gizonen oroimena argizariaz egina dela ere, baizik eta hori itxurazko esenplu bat dela, gure ulertzeko traukiltasunari oso ederki egokitua. Eta horri gutxi iritziz, beste esenplu bat ere bilatu zuen, hori gutxiago adierazten ez duena, eskribaua eta paperarena, alegia".

[Platonek adibide famatu hau bere Fedro-n (274 c - 275 b) kontatzen du. Horretan dioenez, egiptoar "eskribau" bat (Teuth) Thamus erregeari mintzo zaio paperaren bikaintasuna goraiatuz ("oroimenaren elixirra"); baina erregeak hura gaitzesten du, esanez "asmakari honek berori erabiltzen ikasten dutenen buruan ahaztura sortaraziko du, horiek beren oroimenaz baliatuko ez direlako... Jakituriatik zure ikasleei itxura besterik ez diezu eskaintzen, ez, ordea, errealitatea". Sokratesen ustez izkribuek ezingo zuten inoiz jakituria iraganarazi, hori hizkuntza mintzatuak ez bestek egin baitzezakeen, "ikasten duenaren ariman zientziaz izkiriitzen baita". Aipaturiko pasarte hau anitz moldez interpretatu bada ere, gehienek iritziz horrekin Platonek idazkera nagusitu aurreko aroko ahozko tradizioen segida berantiarra irudikatu nahi izan zuen; Curtius-ek uste duenez (Literatura europea y Edad Media Latina, Mexiko, 1976, I, 426-427 orr.) pasarte horrek "idazkeraren eta liburuen gutxiespenaren adibide bat" dela, are jakituria sakonagoarekin konparaturik. Ikus, halaber, J.A. Netopoulos, "Mnemosyne in Oral Literature", Transactions and Proceedings of the American Philological Association, LXIX (1938), 476. orr. eta Frances A. Yates, El arte de la memoria, op. cit., 55-56. orr. Edonola ere, Platon, Carlos García Gual-ek dioenez, aurreko garaietako ahozkotatasunaren aurka, idatzizko zientziaren aldekoa izanik (ikus Politeia-ri egindako

hitzaurrea, Klasikoen bilduma honexetan, Bilbao, 1993, 23-28 orr.), greziar filosofoaren ikuspuntua ez da oso argi gelditzen, eta litekeena da Uharte zuzen egotea bere interpretazioan].

27 Hau da, "ulertzeko egintzan ulermena "aldaraz" dezakeenik".

28 ["Endeleguaren endelegarriak ez du endelegatzerik sortzen"]. Gorago, zentzuzko oharmenaren organoa "sentitzen" ari zen bitartean ez genuela ikusten, zioen bezala, era berean ez dazagugu burmuinaren jarrera (hots, endeleguaren "tresna"rena), ulermenaz lanean dihardugunean; hau da, ez dakizkigu burmuinaren mekanismoak ideiak sortu edo gogoratzeko irudimen edo oroimen-egintzetan, "ez eta arrazoitzekoak ere ulertzeko egintzan ere". Horrek ez du esan nahi, Uharteren hitzei darienez, ahalmen horrek bere funtzioak betetzeko organo berezirik ez duenik. Horretan Aristotelesen aurka dago, grekoak dioenez, endeleguak ez baitu izaerarik batere bere ahalmentasunetik kanpoan eta, hortaz, ilogikoa litzateke gorputzarekin nahasirik egotea. (De anima, III, 429 a 21-22)

29 Hemen Aristotelesek beherago dioenarekin bat datorrela dirudi (loc. cit. 430 a 3-4): "endelegua endelegarria da berearen objektuak diren bezalaxe. Izan ere, materia gabeko izakiak direnean, endelegatzen duena eta endelegatua identifikatu egiten dira, ezagutza teorikoa eta horren objektua berdinak direlako" (Cfr. Metafisika, 1074 b 33); baina, noski, Aristotelesek intellectus agens horri ez dio inolako organorik egokiarazten eta, hortaz, ezin daiteke inoiz qualis izan.

30 Horrela da, eta argudio horiek eman ematen ditu; halere, lehenbiziko edizioaren VII. kapitulua erabat moztua izan zen.

31 Hau da, "imajinak irudikatze" ("espezieak osatzeko") ez dira behar hark aipaturiko hiru ahalmenak besterik; beste biak ("zentzu komuna" eta "irudimena", hemen "gomutamena"ren balioa duena), "generikoak" esan gabe ere ulertzen dira.

* Honaino heltzen da Gauza bera diogo-rekin hasten zen mozketa.

32 Berriz ere Platonen pasarte gorago aipatuaz ari da (Fedro, 274 c - 275 b).

33 (Bazterrean) De anima, III. Liburua [428 b 1-3].

34 (Bazterrean) De anima, III. Liburua [ibid.].

35 (Bazterrean) De motu musculorum, II. liburua ["Irudikatzen duen arimaren atala, dena delakoa izanik, gogoratu egiten duena bera da"].

36 De memoria et reminiscencia, 451 a 22-22; 453 a 4-6.

37 Ibid. 453 a 8-14. Egia esan, Aristotelesek leku honetan gomutamena (= reminiscencia) egintza bereziki gizatiarra dela dio, oroimenak bere buruaren kontzientzia du eta. Greziako filosofo horren ustez gomutamena nahimena duten izakiengan besterik ez da aurkitzen.

38 (Bazterrean) Molles et candidi et obesi non habent humorem melancholicum ["Bigunek, zuriek eta gizenek ez dute humore malenkoniatsurik"], Galeno, De locis affectis, III. liburua, Vi. kap. Guillermo Serés-ek azpimarratzen duenez, Galenok obra honetan eta De atra bile, VI.an kolera-malenkoniatsuez egiten duen azalpena Don Kixoteren izaerari ia hitzez hitz dagokio, iturri horretan, agian Cervantes edana baitzen, Huarte de San Juan, Examen de Ingenios, Madril, 1989, 365. orr.

39 (Bazterrean) "Basa animalien artean ez dago bat bera ere giza zuhurtziara hainbat hurbiltzen denik, nola elefanteak egiten duen, eta batek ere ez du haren gisako haragi gogor eta latzik ere" [Erdi Arotik uste hori zegoen; ikus, adibidez, T.H. White-k latin bestiarium-az egin zuen edizioa (Cambridge-ko Unibertsitateko Bibliotekako eskueskribua), A book of Beasts, Londres, 1960, 24 - 28 orr. Eskueskribuaren egileak, ehizatuak izatean zuhaitzen ondoan erortzeko ohituragatik eta beste zenbait arrazoirengatik elefante arra eta emea Adam eta Eva-ren irudi direla dio.].

40 Galeno zenbait lekutan ileaz ere mintzo da, adibidez *Artis medicinalis*, XIII.ean (*Signa bonae temperaturae cerebri*): *Talibus igitur capilli capitis cum adhuc sunt infantes, subrufi... deinde nigricant... sunt crispi...* (In *Opera*, V, col. 206) Halere, geroago Uhartek bere hitza jango du Filipe II.aren tenperamentua ezartzeko orduan.

41 (Bazterrean) *Risus dentium et ingressus hominis enuntiant de illo* ["Gizonaren irriak eta ibilerak haren berri ematen dute"]. *Eklesiastikoa*, XIX [27].

42 Galenok, adibidez *De placitis*, VII.ean gibelaz honako hau dio "sanguineis omnibus sanguinis est procreatio. Ad eandem hanc pertinet iucundarum rerum fruitio, in qua cum vehementius, quam par est, movetur, incontinentiam intemperantiamque efficit" (in *Opera*, I, col. 847 C-D). Halabaina, ez diosku deus berezirik irriari buruz.

43 (Bazterrean) 6. *Aphorism.*, 53.

44 (Bazterrean) Galeno, *De sanitate tuenda VI liburua* [in *Opera*, II, col. 113 B); id. in *De temperamentis*, I (ibid. col. 41)].

45 Berriz ere, Hippokratesen gutunez ari da (ikus edizio eraldatuaren lehen kapituluko 45. oharra. Demokrito irriaren prototipoaren sinboloa zen, Heraklito, aldiz, beti triste pintatzen zen bitartean, "Democritus ridens et Heraclitus flens" zioen tradizio malenkoniatsuan.

46 Elementuen arteko nahasturan ez datoz bat Aristoteles eta Galeno (ikus lehenaren *De partibus animalium*, II, 1; eta bestearen *Methodus*, I, 2). Aristotelesen ustez airea hezeagoa da (*Meteorum*, IV, 1). Galenok, ordea, hezetasun gorena urak daukala dio (*De simplicium medicamentorum facultate*, VIII).

47 Izpiritu hauek bihotzetik datoz eta odolaren beroa dute, bizitzaren izpirituak sublimatzeko beharrezkoa dena; horregatik "zerbait oroimenetik hartzen denean" iharduera "pneumatikoa" areagotu egiten da (cfr., edizio eraldatuaren V. kapituluko 59. oharra).

48 (Bazterrean) Galeno, *De sanitate tuenda II. liburua*. [Zehazki, honela dio Galenok: *Nam quoniam mediocris, idcirco carnem augebit, quoniam mollis, solvet; hoc est, plane molliet. Id quod tantundem est, ac laxam et fluidam carnem efficere* (in *Opera*, II, col. 33 C)].

49 (Bazterrean) 30.^a sectione, *Problem.*, 1.

50 Ikus Ciceronen *De divinatione*, I, 81.

51 *Quod animi mores*, V.eko aipu hainbestetan errepikatua da hau.

* Bazterrean honela gehitzen du: "Orestez zioen Horatiok ezen, eroa zelarik, ez ziola inori kalterik egiten, baina hagitx erran finak erdiesten zituela haren kolerak zuen distiragatik. Eta honela, erran zuen: *iussit quod splendida bilis*. ["Bere behazun distiratsuak hartaratu zuen"] *Ser. 3* [145. berts. *Satirak*, II, 3.a (edo *Sermo*, 3)]; haren arreba *Elektrak*, ordea, *furia* izendatzen du".

52 (Bazterrean) *De senectute elkarrizketa* [XXI, 78].

53 Solertzia: latinismo honek "trebetasun, amarru, zuhurtzia" esan nahi du.

54 (Bazterrean) *In Tusculanis quaestionibus* [I, iv, 7; cfr. *De officiis*, I, xix, 63].

55 (Bazterrean) *In Epistola ad Damagetum* [ikus gorago 45. oharra eta, beherago 57.a].

56 (Bazterrean) "Ohar hadi nola endelegu handiko gizonak ez diren beren pertsonaren apainduraz axolatzen: guztiak arlosteak eta zikinak izaten dituk. Honen arrazoia VIII. eta XIV. kapituluetan ematen diagu".

57 Hippokrates, *Epistolae*, in *Opera*, op. cit.; 21. epistola (*Democritus Hippocrati, De natura humana*, 579. orr.).

58 (Bazterrean) *Ad romanos*, VIII. kap. [7: "Zeren haragiaren jakituria etsaigoa baita Jainkoaren kontra"].

59 Protagoras, 329 e.

60 (Bazterrean) III. kap. [15].

61 (Bazterrean) Prognosis, III. liburua, com. 2 [Prognostica Hippocratis cum Galeni commentarii izenekoak dira; IX. liburua (in Opera, II, col. 1561)].

62 Demostenesen aipamen hau Ciceronen De officiis (I, 4)tik aterea du.

63 (Bazterrean) Pro Sylla [III, ix, 20: "betebeharra zatiezina da eta bat bakarra gizon prestu guztien kausa"].

64 (Bazterrean) "Ohar hadi nolako garrantzia duen letretan lan egitea, burmuinari komeni zaion tenperamentua falta denean, hori etengabeko behakuntzaz lortzen duk eta" [Cfr. Luis Vives, De anima et vita, II, 2].

VII. Kapituluak

* Inkisizioak kapitulu hau osorik moztu zuen. Hau guztiau arimaren hilezintasunari buruzko digresio bat da. Aurreko kapituluetan endeleguak gorputzarekin duen lotura organikoa azpimarratzean, Uharteri esan zioten Inkisizioak horri doktrina heterodoxo eritz ziezaiokeela. Izan ere, orduko teologo guztiak arimaren hilezintasuna gorputzarekin duen independentziari zor zitzaiolakoan bat zetozen, eta hori zalantzan jartzen bazen, Uhartek itxuraz egiten zuenez, ordurarteko tratatu eskolastiko guztiak berregin beharko ziratekeen, eta katixima bera ere aldatu. Hortaz, kondena segurua zetorkiokeen. Hori, nolabait zuritu guran idatzi zuen garazitarrak kapitulu hau. Ondorioak ikusita, alferrik baina.

1 In Phaedro [245 c]. Eztabaida handia sortarazi du, arima definitzeko, ? ? ? ? ? ? ? ? ? "berez mugitzen dena" hitzaren interpretazioak; ikus, adibidez, G. Pasquali, Storia della tradizione e critica del testo, Florentzia² 1971, 255. orr.

2 (Bazterrean) In Apologia [seguraski errakuntza da, In Phaedro, apologia amoris-en orde (249 c-d), kontzeptua hortxe aurkitzen baita].

3 (Bazterrean) Quod animi mores liburua, III. kap. eta De placitis Hippocratis et Platonis, IX. kap.

4 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [47 a eta hurr.].

5 (Bazterrean) "Hil zenean, egia da Galeno infernura jaitsi zela eta han esperientziak ikusi zuela su materialak arimak erretzen zituela eta ezin higa ez suntsi zitzakeela. Medikuek honek ebangelioaren doktrinaren berri ukan zuen baina ez zuen errezibitu. De differentia pulsus II liburua, III. kap. [Galenok liburu horretan pulsu "huts" eta "betea"z tratatzean, sofistak eta "barbaroak" aipatzen ditu, hor Moise eta Kristo ere ukituz: "Multo certe praestaret aliquam opponere, si non firmam demonstrationem, at rationem sufficientem sermoni de octo qualitatibus, ut ne quis initio statim, quasi in Moysi et Christi scholam impingat, leges audiat nulla constituras demonstratione, inque ubi minime deceat. Nam cum dicere de omnibus pulsibus.... instituisset, quot sint nulla nos rationali methodo voluit inducere; sed disciplinam instituit empiricam, octo apud puros dicens pervulgatas qualitates esse" (in Opera, II, col. 1011).

6 Arimaren hilezintasuna arrazionalki erakusteko frogan balio apodiktiko urria tradizio eskolastikoak berak onartua zuen, bai Done Tomas Aquinokoak (Summa, I, q, 75, a.6) eta bai Duns Scotok (Opus Oxoniense, 4, d 43, q.2.) erakusten dutenez.

7 "Jainkoa ez zen sortua izan, etengabeki sortua eta betierekoa baita" (ez dugu aipamen hau aurkitzerik izan).

8 (Bazterrean) De fetus formatione Liburua. [Honela dio: Ego vero sicut fabricam nostri corporis ostendi summam opificis et sapientiam et potentiam pre se ferre: ita demonstrari mihi a philosophis velim, utrum is opifex Deus aliquis sit, et sapiens et potens, qui et intellexerit prius quale iniuscuisque animalis corpus esset fabricandum... (in Opera, I, col. 1022).]

9 (Bazterrean) Quod animi mores Liburua, X. kap. [In Scythis enim unus vir factus est philosophus, Athenis autem multi tales; rursus autem in Abderis imprudentes quidem multi, tales autem Athenis pauci (In Opera, I, col. 1008 C; eta tratatuaren bukaeran)].

Galeno, bistan denez, inplizituki Hippokratesen Aireez, Urez eta lekuez obrari dagokio (loc. cit. supra).

10 Dirudienez, Phaedon, 76 d-77 a aipatu nahi du (cfr. R. L. Patterson, Plato on Immortality, Univ. Park, 1965).

11 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [Timeo, 30 d-31 a: "Jainkoak, edertasuna eta jakituria maite dituenz gero, ororen aitzinean leku hautatu bat ezarri zuen, bere antzeko gizonak eman zitzaizkien"]].

12 Aristoteles, De anima, II, 430 a 10-20.

13 Agonia hitzak hemen "irrika bizia, zerbait lortzeko antsia sutua" esan nahi du, garai hartako gaztelaniaren balioarekin bat.

14 Antonio de Torquemadak honela zioen: "Deabruak gizonen etsaiak diren arren, ez dira haien gorputzetan sartzen kalte egiteko asmoz, baizik bero bizikorraren gogoaz, horiek toki ezin sakonago eta hotzagoetan bizi direnetakoak direlako, eta hango hotzak hain garbia izanik ez du hezetasunik; eta horrela toki bero eta hezeak nahi dituzte, eta horien atzetik ari dira, leku guztietan horiexen bila ibiliz, guk endelekatzen ez ditugun arrazoiengatik, Jainkoak horietan sartzeko boterea ukan dezaten uzten duen aldi guztietan" (Lili kuriosoaren Lorategia, op. cit. III. trat. 279. orr.). Era honetako esaerak ohikoak izaten ziren garai hartan, horietako asko Psello-ren De daemonibus liburutik atereak, aita Vitoriak (De Magia eta Relectiones theologicae, 1557) eta Martin del Río-k (Disquisitiones magicae) beren obretan egin zuten bezala.

15 (Bazterrean) 1. Regum, cap. XVI [15-16: "Hona non Jaunaganikako izpiritu gaiztoak zarabiltzan. Baldin gure jaunak atsegin badu, zure aitzinean diren zure zerbitzariak bilatuko dute kitara jotzen dakien gizon bat, Jaunaganikako izpiritu gaiztoa lotuko zaizunean, arinkiago jasan dezazun"]].

16 (Bazterrean) De antiquit. Liburua, II. kap.

17 Egia esan, ebangelioa ez da "gorpuetan sarturiko deabruak" mintzo, hilobietan bizi ziren demoniatuek baizik (Mateo, VIII, 28-34).

18 Quod animi mores, III (Opera, I, col. 995 C.).

19 (Bazterrean) De differentia pulsus II. Liburua, III. kap. ikus gorago 5. oharra.

20 (Bazterrean) Sed et serpens erat calidior cunctis animantibus terrae quae fecerat dominus Deus. Genesis, III. kap. [1: "Bada sugea zen Jainko Jaunak egin izan zituen lurreko abere guziak baino maltzurragoa"]].

21 Aristoteles izan zen izateak hierarkia bat duela esan zuen lehenbizikoa, hor animalia guztiak scala naturae batean beren hobasun mailaren arabera ordenaturik egonez (cfr. A.O. Lovejoy, The great Chain of Being, Cambridge, 1936, 58. orr.). Bere De anima (414 a 18-19) goi mailako izaki batzuen existentzia suposatzen du, gizakiaren antzera endelegatzeko ahalmena luketenak: laster pentsatu zen horrekin aingeruak aipatu nahi zituen eta kristau filosofiak uste horri eutsi zion.

22 "Usoak ez omen du behazunik, eta horrela animu lasai eta baketsuaren sinboloa da" (Covarrubias).

23 (Bazterrean) "Honetan ezagun da Jainkoaren handitasuna, guztiahalduna eta bere sorkarien premiarik izan gabe, horiez baliatzen delako, agente naturala balitz bezala".

24 Metafisika, IV, 1003 a.

25 Zentzuen oharpenak "ahalmenei" (ukimenari, entzumenari, etab.) eragiten dieten "akzidenteak" dira, horiek "bestelakaturik" (De anima, II, 418 a).

26 Hau da, objektu bat aldi berean dakusaten pertsonak "ugal daitezke".

27 Hots, zentzuekin ukimenezko oharpen bat izaten dugun aldi berean, beste bat ere, entzumenezkoa kasu, izan dezakegu.

28 Hau da, intentsioari edo koalitatearen handitzeari dagozkionak.

29 Litekeena da Aristotelesen De anima (III, 431 b 20-432 a 15) bistan izatea, filosofo grekoak hor analogia bat ezartzen baitu endeleguaren oharpen "izpiritualaren" eta zentzuen oharpen "sentikorraren" artean.

30 Lukas, XVI, 24.

31 [Seme, oroit hadi ezen heure onak heure bizian errezibitu dituala, eta Lazarok halaber gaitzak; eta orain hau kontsolatzen duk, eta hi tormentatzen haiz. Eta bestalde, gure eta zuen artean amildegi handi bat duk, hala non hemendik zuengana iragan nahi dutenak ezin baitaitezke, ez eta hortik hona iragan. Eta erran zezan hark: Otoitz egiten diat, beraz, Aita, igor dezaan hori ene aitaren etxera. Ezen baditiat bost anaia, hei testifika diezaientzat, hek ere ez datozen tormentuzko leku honetara.] Lukas, XVI, 25-28.

32 Galeno, De simplicium medicamentorum, XIX (Opera, III, col. 17-18).

33 Lehen erantzun hau, noski, Platonengan oinarriturik dago (Fedro, 249 c-d, Fedon 61 a; Filebo, 67 b, etab.).

34 "Aitzinerago", bokazioen eta lanbideen banaketa egitean, trebetasun horiek banakoen tenperamentuen arabera sailkatzen eta egokiarazten dituelako, hots, arimaren ahalmenen arabera, haiek hauen menean egonez.

35 Irtenbidea, begien bistan denez, konpromezuzkoa da, eta ez da, Guardiak iradokitzen duenez (Essai, op. cit., 171. orr.) Uhartek "serioski mintzatzeko itxura" egiten zuelako aitzakian. Uharteren ustez, ez dago "nitasunaren" hilkortasuna frogatzen duen argudiorik, ez eta, arrazionalki, hura hilezina dela erakuts dezakeenik ere: hortaz, fedea onartzea besterik ez dugu. Era berean, arima, izpirituala izan arren, elementu, koalitate eta humore "materialez" baliatzen da, horiek guztiok "akzidente" besterik ez direlako; halakoxeak dira, era analogoan, zentzuen bidezko oharmenak, endeleguarekiko.

VIII. Kapitulua [1594.eko X.a]

1 Pro A. Licinio Archia poeta, VIII, 18.

2 (Bazterrean) Est Deus nobis, agitante calescimus illo. Ovidio, in Fastis [VI, 5: "Jainkoa gudan da, haren su etengabea berotzen gara"].

3 ["Gainerako ikasketa guztiak ezaguera, arauak eta arterioa behar dituzte; poeta, ordea, bere izaeraz nabarmentzen da, bere adimenaren indarrak bultzatzen du eta jainkozko hats batek ukitzen du"] Ciceron, Pro Archia, loc. cit.

4 (Bazterrean) De interpretatione I. liburua [Egia esan, II. liburua da (De nomine, 16-19): Nomen ergo est vox significativa secundum placitum sine tempore, cuius nulla pars est significativa separata (...) "secundum placitum" vero, quoniam naturaliter nominum nihil est, sed quando fit nota; nam designat, et inlitterati soni, ... quorum nihil est nomen]. Uharteren aipamen hau ongi kontutan izan dute hizkuntzalariek, Ferdinand de Saussurek adierazle/adieraziaren arteko loturaz eta zeinu linguistikoaren arbitrariotasunaz mende batzuk geroago gauza bera esanen zuen eta. Noam Chomsky hizkuntzalaria Uhartez arduratzeak nafar idazle honen inguruan interes handiagoa sortarazi du.

5 (Bazterrean) 30.^a sectione, 4. Problema [5. problema da, izan].

6 Uhartek bizkaitar hitza darabil "euskaldun" esateko, Espainiako garai hartako idazle gehientsuen antzera, orduan Gaztelara joaten ziren euskaldun gehienak Jaurerrikoak izaten zirelako. Cervantesek Don Quixoteten aurka borrokarazten duen "bizkaitarra" Sancho de Azpeitia izateak argiro erakusten du, adibidez, usariozko sinonimia hori. Bestalde, orduko frantsesez ere langue biscayenne esan ohi zitzaion euskarari. Ikus beherago, 10. oharra.

7 Arrazoi: hemen "sistema" edo "barne-logika" gisa ulertu behar da.

8 (Bazterrean) IV. liburua De historia animalium, IX, kap.

9 Lehenago (IV-VII. kapituluaren bukaeran) "Platonen eta Aristoteles artean den kontu arras eztabaidatu" honetaz mintzatzean, Uhartek ez zen inoren alde jartzen. Oraingoan, ordea, badirudi Aristotelesen ustea hobesten duela, hots, hitzak gizonen arteko akordioaren fruitu direla (?????). Beherago, ordea, Platonen arrimuan jartzen da, izenek, ?????-tzat harturik, gauzekin lotura naturala dutelakoan (Cfr. Kratilo, 390 e). Hitzek eta esanguren arteko jatorrizko lotura honen aldekoa zen, Andres de Poza (De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas, Bilbao, 1587). Eta bide beretik ibili zaizkigu, zeinek bere ñabardurarekin, Etxeberri, Larramendi, Astarloa eta Sabino Arana.

10 Esaldi honetatik Uhartek espainolez gainera beste hizkuntza batzuk ere bazekizkiela ateratzen da. Horietako bat, bistan denez, latina zen. Haren gurasoak euskaldunak izanik eta bera Nafarroa Beherean jaioa zenez gero -Etxepareren garai hartan Garazi herri erabat euskalduna baitzen-, ia dudatzeke esan dezakegu euskara izan zela Uharteren lehen hizkuntza. Alde horretatik harrigarria da orain arte ikertzaile espainol bat ere gure autoreak lehentxoago aipatzen duen pasarte, hots, Gaztelara doan haur euskaldunak erdara ikasteko duen erraztasuna (ikus 6. oharra), seguraski berberari gertaturiko pasadizo autobiografikoa izan zela ez konturatzea, bai eta Uharteren ama-hizkuntza zein zen argitzeko arduragabetasun mespreziatia bezain susmagarria ere. Uhartek harrezkero Espainian bizitzeak eta harreman eta ikasketak oro gaztelaniaz egin beharrak, noski, trebetasun handiagoa zekarkioteten mintzaira horretan, orain arte, eta Euskal Herrian bertan ere hainbat euskalduni gertatu ohi zaionez.

Hizkuntza orok edozertarako berez duten gaitasuna eta nork bere mintzaira propioa landu behar duelako ideia hori, bestalde, Cervantesek berak dakar, dirudienek Uharterengandik jasoa: "Homero handiak ez zuen latinez izkiriatu, grekoa zelako; ez eta Virgiliok grezieraz ere, latindarra zelako. Azken finean, antzinako poeta guztiek esnetan edoski zuten hizkuntzan izkiriatu zuten, eta beren kontzeptuen goratasuna azaltzeko ez ziren atzerriko hizkuntzen bila joan; eta hau horrela izanik, arrazoizkoa litzateke ohitura hau nazio guztietan hedatuko balitz, eta aleman poeta ez gaitzestea bere hizkuntzan izkiriatzen duelako, ez gaztelara, ez eta berean izkiriatzen duen bizkaitarra ere". (Don Quixote, II. zatia, XVI. kap., 1.615).

Edonola ere, latina alde batera utzi eta herri-hizkuntzan idazteko ideia hori jadanik Ernazimenduan oso hedaturik zegoen. Dantek bere De vulgari elocuentia-n (1304-1307) gauza bera esan zuen; Espainian Nebrija bide beretik abiatu zen bere Gramatica castellana (1492) egitean, Juan de Valdés bere Diálogo de la lengua-n (1533 inguruan idatzia eta 1737an lehen aldiz argitaratua) bezala; Frantzia Joachim du Bellay-k antzeko laudorioak egin zituen bere Défense et illustration de la langue française (1549). Euskal Herrian ere adibideak ez ditugu falta; Etxeparek: Berze jendek uste zuten ezin skriba zaiteien; orain dute phorogatu enganatu zirela (1545); Leizarragak: segur izanez ezen heuskaldunak berze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoaiez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Jainko jauna (1571); Axularrek: Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ez bada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak (1643). Joanes Etxeberri Sarakoa: Irakur baletzate eskuarazko autorak, Axular perpaus lanoan, eta Etxeberri Jaun apezka bere kopletan, egiaz hetan khausi lezakete, ea eskuarak, eta eskualdunek baituztenentz hain naharoki, eta frankoki, nola zein nahi bertze hitzkuntzek, izpirituko pentsamenduen sothilki, eta agudoki adiarazteko: behar tuzten hitzak, eta mintatzeko manera diferentak, [...]. Erran dut: ezta eskuara hitzetan hain erromes, nola eremuz baita eskas, eta labur. Eta hala eztute ez zer eskuara hobenduri eta faltaduri egin, baina bai bere buruak, zeren

diren hain lazoak, eta artha apurretakoak, sortzeak emanikako hitzkuntzaren ikhasteko (1712 inguruan).

11 Hemen Nebrijak 1492an bere Gramática castellana-ren hitzaurrean aipatzen zuen esaldi famatua gogorarazten digu Uhartek, hots, "hizkuntza beti inperioaren laguna izan zela", handik aurrera, eta diotena diotela, hainbat mendetan gaztelauen hizkuntz inperialismoaren dibisa izan dena.

12 Hau da, "lehen orduetan" edo "goizeko eskoletan" irakurtzen ziren autoreak. Alcalako Unibertsitateko Ikasketa-planari doakionez, ikus Antonio de la Torre, "La Universidad de Alcalá. Estado de la enseñanza, según las visitas de cátedras de 1524 a 1528", in Homenaje a Menéndez Pidal, Madril, 1925, III, 361 orr. eta hurr.

13 Antza, Done Augustinek izen horrekin egin zuen liburuaz ari da.

14 Espainolek latin gutxi jakiten zutelako lekukotasunak oso ugari dira XVI. mendean. Adibide gisa, Pedro Simón Abril-ek bere Gramática griega-ri egindako eskaintzan (1586) nahi hau azaltzen du: "espainolok beste nazioengandik dugun izen txarra gal dezagun, antzinako letren zaleak ez izateagatik, hizkuntza horiek jakiten eta erabiltzen ez ditugulako" (apud M. Morreale, Pedro Simón Abril, op. cit., 45. orr.).

15 Beherago endele gua espainolen ahalmen berezia dela frogatzen saiatuko da.

16 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 1.

17 ["O Erroma, zorionekoa ene kontsulaldipean jaiotzeagatik"] Bertsoaren kakofonia begien bistakoa da. Juvenalen aipamena haren Satiretan aurkitzen da (X, 123-126). Cfr. Salustio, In M. Tulium Ciceronem invectiva, III, v: Atque is, cum eius modi sit, tamen audet dicere: "O fortunatam...".

18 (Bazterrean) In sophista [265 d].

19 Hau da "entusiasmatuak". Poeta Jainkoz aserik edo jainkoen eledun edo mediuma delako ideia hau Ion-en pasarte batean ageri da (533 a eta hurr.).

20 30.^a sectione, Problem., 1.

21 Aipaturiko problema ez da ondorio honetara heltzen, hau da, ez die malenkoniatsuei endelegamenik ukatzen, alderantziz baizik.

22 Fikziozko obrak dira irudimenari hobekien doazkionak. Gogoan eduki beharra dago Don Quixotek irakurtzen zituen liburuak zer eratakoak ziren: "fantasia bere liburuetan irakurtzen zuen guztiaz bete zitzaion... halako moldez, non irakurtzen zituen imentzio haien guztien makina hura egia zela jarri baitzitzaion irudimenean" (I,1, guk azpimarratua). Begien bistan da, bestalde, Uhartek, Cervantesek eta garai hartako intelektual gehienen antzera, oso begi txarrekin zekusala era horretako literatura. Horri buruzko gaitzespenen zerrenda luzea M. Menéndez Pelayok eskaintzen du bere Orígenes de la novela-n, I (Madril, 1943), 440-466. orr.; beste bat, ia exhaustiboa, Américo Castrok dakar bere El pensamiento de Cervantes-en, op. cit., 60-61. orr.

23 Organoko kantua: honela esaten zitzaion bere konposizio, nota edo puntuetan figura eta denbora-neurri ezberdina zuen kantuari; musika figuratua ere deitzen zen.

24 Lehena, ehunen jokia eta trunfoa garai hartako karta-joko batzuen izenak dira.

25 Enbiteak onartu edo gaitzestea, alegia.

26 Trunfo portugaleratik heldutiko hitza da, antzinako lexikografo askok onartua.

27 Enbite egiteko jokia izanik, Uhartek esan nahi du hor nork bere adorea, zuhurtzia eta beste "bertute" eta "bizio" batzuk erakusten dituela, bizitzako beste une edo egoera batzuetan ere agertu behar direnak.

28 (Bazterrean) Amictus corporis... indicat de homine. Eklesiastikoa, XIX [27: "Gorputzeko jantziak, hortzetako irriak, ibiltzeak erakusten dute zer den gizona"].

29 (Bazterrean) In Sophistis [Poetaren iradokizunaz mintzo den Sofista-ren pasarte bakarrak hura jainkozko dohaintzat erakusten du, "entusiasmo" gisa, eta ez maitemintzearen ondoriotzat (265 d)].

- 30 Maitasunaren azalpen naturalista hau (koalitate elementalez, humoreez, spiritus-ez, edo hirurak elkarrekin harturik) oso hedaturik zegoen, dolce stil nuovo-ko poeten artean batik bat. Cfr. G. Vitale, "Ricerche intorno all'elemento filosofico nei poeti del dolce stil nuovo", in *Giornale Dantesco*, XVIII, 5-6, 162-185. orr., 1910., eta Bruno Nardi, "L'amore e i medici medievali", in *Studi in onore di Angelo Monteverdi*, Modena, 1959, 1-28. orr.
- 31 ["Baldin Naturak ukatzen badu, bertsoa haserreak egiten du"] Satirak, I, 79.
- 32 Garai hartako gaztelaniaz matraka ematea burlatzea zen, estudiante beteteranoek hasiberriekin egiten zituzten txantxak, batez ere.
- 33 Galeno, *Artis medicinalis*, XII (in *Opera*, V, col. 206).
- 34 *De officiis*, I,4.
- 35 Harrokeriazko eta hantusteko ondoren gaitzespena aski maiz egiten zen Uharteren garaian, *El Lazarillo de Tormes-en* (III, F. Rico-ren ed., Madril, 1987an, 84. orr.), *Torquemadaren Coloquios satíricos-en* (533 B eta 535 A) edo M. Alemán-en *Guzmán de Alfarache-n* (I, ii, 3-ii, 4, ed. cit., 280-298. orr.) irakur daitekeen bezala. Ikus, halaber, C. Chauchadis, *Honneur, morale et société dans l'Espagne de Philippe II*, Paris, 1984, 45-109. orr. eta esp. 88.
- 36 Hau da, hezetasuna ongi doakio bero gutxiari, horrek hura lurruntzeko indarrak ez duelako.
- 37 (Bazterrean) *Est qui nequiter se humiliat, et interiora eius plena sunt dolo.* *Ecclesiast.*, XIX. kap. [23: "Bada gizona bere burua maltzurki beheratzen duena, eta zeinaren barnea zimarkhuz bethea baita"].
- 38 Noski, *grammaticus ipsa arrogantia est* lehen aipatuaz ari da. Eugenio Garinek (bere *L'educazione in Europa, 1400/1600*, op. cit., 100. orr.) Montaigneren testu bat aipatzen du, Uharterenarekin oso ederki konpara daitekeena. Honela dio Entseiuen autoreak bere garaiko gramatikari baten barrutik mintzatuz: "Lan egiten dugu oroimena betetzeko, eta hutsik uzten ditugu, aldiz, endelegua eta kontzientzia. Txoriek garau bila joan eta hura, osorik, mokoan bere txitoei emateko daramaten bezala, gure pedanteek ere liburuetan zientzia mokoka hartzen dute eta beren ezpainetan gordetzen dute, haizeari bera eramaten utziz... Badakigu esaten: -halaxe dio Ciceronek, eta hauxe da Platonen metodoa..., baina guk zer diogu, zer pentsatzen dugu, zer egiten dugu, papagaitxo izateaz gainera? Besteren iritziak eta jakituria gordetzen dugu, horixe da guztia; hura geuretu behar dugu, ordea". Montaigne eta Uharte antzinako autoreen *rationes* eta *causae*-tan berezituriko *grammaticus*-ez ari dira, hitzen jabe, baina haien mamiaz arduratu gabe.
- 39 (Bazterrean) *Quod animi mores*, IX. kap. [in *Opera*, I, col. 1003 D].
- 40 Uhartek, Aristotelesen hitzak hona ekartzean, anakronismo nabaria egiten du, Estagirarrak Iparraldea aipatzean ezin sar baitzezakeen hor aleman, ingeles, flandriar ez frantsesik, haren garaian horiek guztiok oraindik eratu gabeko nazioak zirelako.
- 41 (Bazterrean) 14.^a sectione, *Problem.*, 15 [Problema horrek, gutxi gora-behera, hauxe dio, eskualde horretako hotzagatik, bertako bizilagunek beren naturak eskatzen diena baino barne-bero handiagoa dutela, eta horregatik beroaz "hordi" gisa daudela, eta horrek ahalmenak desegokitu eta adimen-ondorio eskasagoak emanerazten dizkiela].
- 42 (Bazterrean) *Artis medicinalis* liburua, XIV. eta XVI. kap.
- 43 Antiparistasiar, hau da, elkarrekiko ekintza edo kontraekintzaz Aristoteles bere *De generatione animalium*, IV, 3 eta Galeno bere *De locis patientibus*, I, 2 eta *De causis symptomatum*, III, 2 obretan ari dira.
- 44 Hemen Uhartek hain ipartar ez zen Juanelo Turriano aipatzen du, Veronan jaioriko ingeniari eta makina-asmatzailea. Erlojua Carlos V.ari egin ziona da, "mila eta zortziehun gupil zituena, eta asmatzeko hogeitau urte oso" behar izan zituena, Ambrosio de Morales-ek dioenez (*Apud José María López Piñeiro, Ciencia y técnica*, op. cit., 242.

orr.). Turrianoren ingeniari-tza-lanik sonatuena ordea, Tajo ibaitik Toledora igonarazteko asmatu zuen makina hidraulikoa izan zen, 1560. urteraren erdialdean amaitua, 1581.ean are aparatu handiagoa eginez. Kalkuluen arabera, mende batean egunero 16.000 litro ur ehun metro gora eta 600 metrotara eramateko gai izan zen.

45 Uhartek, antza, hemen Unamunoren "bestek sor dezala" famatuaren aurretiko bat plazaratzen du, garai hartako beste anitz idazle espainolek, ez zekitena eta ezin egin zutena gaitzesteko, zerabilten justifikazio ezaguna bereganatuz. Cfr. Juan Martí-k Guzmán de Alfarache-ren jarraipenean dioena: "Asmatzaile ez izatea endelegu mekanikorik ez baina liberalak edukitzetik dator, horiek armetara aplikatuagoak baitira argitsu izatera baino. Eta hainbesteko balio eta indarra dutenez... horrela ez dute ezertxo ere asmatzeko premiari..." (BAE, III, 370. orr.). Gil Fernández-ek (op. cit., 80-81. orr.) asmaziorako mesprezio hori espainiar harrokeria gisa interpretatzen du, "norbera gutxiago izateko sentimenduak sortertzten duen" erreakzio konpentsatorio moduan. Bazen, ordea, gaitza bere gordinean garbi zekusanik ere; Venegas-ek, adibidez, bere *Agonía del tránsito de la muerte*, NBAE, XVI, 174. orr. honela dio kritikoki: "jende espainolak ez daki ez jakin nahi du".

46 (Bazterrean) *Quod animi mores liburua*, X. kap. [in *Opera*, I, 1008 C]. Eskitiarrei buruzko gaitzerizko hau oso hedaturik zegoen garai hartan.

47 (Bazterrean) In *Cratilo* [390 e 391 a]. Gorago, (4. oharrean) hitzek berez edo naturaz (? ? ? ? ?) ala konbentziotzat (? ? ? ? ?) esangura duten ala ez erabakitzeke arazoan, arrazoa Aristotelesi ematen dio, hizkuntz zeinuaren arbitrariotasunaren alde jarriz. Oraingoan, ordea, Platonen alde agertzen da, baina, beherago dakuskegunez, ez erabat. Platonen aldeko defentsa bera egin zuen Uhartek edizio eraldatuaren I. kapituluan (2. oharra) harekin batera izenek *rerum substantias* erakusten zituztela esanez. IV-VII. kapituluan ere (41. oharrean) oraingo exenplu berbera dakar: "baldin Jainkoak honi [Adamen ordezeko beste gizon bati] gauza berberak ekar baliezazkio, ukan behar zuten izena eman ziezaien, nolakoak lirake? Nik ez dut dudarik egiten Adamen izen berberekin asmatuko lituzkeela; eta arrazoa oso argia da, zeren biek gauzaren izaerari begiratu beharko batzioketen, eta hori bat besterik ez zen". Esan dugunez, ez du erabat Platonen tesia onesten, lerro batzuk beheraxeago "lehen asmatzaileen" artean gutxienezko akordioa egon beharra zegoela dioskulako (ikus gorago, 4. eta 9. oharra), hizkuntza hori "dotorea eta ez barbaroa" izan zedin; hortaz, nolabaiteko adostasuna eduki behar ukan zuten, hitzen aukera erabat aleatorio ez izateko, asmatzaileen onespena "arrazionala" izan baitzen.

48 Oso interesgarria da, honetaz, Brocense-k dioena: "Gogo onez deklaratu nuke, Platonekin batera, izenek eta aditzek gauzen natura adierazten dutela, hark hori deklaratu ukan balu, soilki, hizkuntza guztietarik lehenaz" (op. cit., 44. orr.). Autore berberonek, Francisco Sánchez de las Brozas-ek, argudio berriok sartzen ditu: hizkuntzak etengabeki aldatuz doaz, eta beraz estagirarraren fabore azaltzen da, Adamen soluzioa irtenbidetzat onartu arren: *Si dicas Adami primam, verum quidem est; poterat enim, quia rerum naturas noverat, ut testatur author Pentateuchi; baina lehenago galde egin du ea zergatik hebraierak izan behar duen natura reum delakoari dagokiona, eta ez beste batek (Si unam solam dicas linguam pro rerum natura impositam esse, cur non item aliae?); egia esan, dio berak, perpetuo voces corrumpuntur, hots, hitzen etengabeko aldaketaz, latina, adibidez, italus vulgaris bilakatu zen, Andres Poza lizentziatu bizkaitarrak ere azpimarratu zuenez, (De la Antigua Lengua de las Españas, Bilbao, 1587), eta, beraz, irtenbidea Aristotelesena besterik ezin izan daiteke: *Nulla ergo vocibus rerum naturas explicandi facultas, praeter eam quam ab arbitrio imponentis habent; eadem vis cani ad significandum panem est ac canem, si ita placet (Quod nihil scitur, op. cit., 36-38. orr.).* Joanes Etxeberri Sarakoak berak ere zeinu linguistikoaren*

arbitrariotasunaz ere antzeko ideiak agertu zituen (cfr. Lan hautatuak, 264-279. orr. Donostia, 1972).

49 (Bazterrean) De interpretatione liburuak, II. kap. [loc. cit., supra, 4. oharra].

50 Hau da, hotsak ebakitzean hiztunaren aurpegia itsusturik gera ez zedin.

51 Hemen barbaro hitzak "basa, trauskil, kultura gabe" esan nahi du.

52 Esaera hori seguraski "Trae aquí tantos" dateke, hots, "ekar itzak hona tantuak", hau da, "jokoaren irabazialdiak adierazteko harritxo, garbantzu edo aleak".

53 Zaldun horrek halako egokitasun "naturala" aurkitu zuen izenaren hots ia onomatopeiazko horren eta erraldoiaren furfuriaren artean; izenak, hortaz, erraldoia "irudikatu" edo "adierazi" baino gehiago, "erakutsi" egiten du "naturalki". Izen horrek geroagoko obra batzuetan ere nolabaiteko oihartzuna izan zuen, adibidez, Quevedoren Ametsak liburuaren aitzinsolasaren hamalaurkuntan ("Dialogístico soneto entre Tumumbeyo Traquitantos, alguacil de la reina Pantasilea, y Dragalvino, corchete") eta "Declaración de los siete Psalmos de Theologia, de la orden de San Agustín"-en, Zaragoza, 1601 (Para nombrar un gigante andan inventando nombres [zalduntza-liburuen egileak], que sus mismas sílabas pronunciadas parezca que van erizando los cabellos y mostrando la fiereza del Jayán, un Traquitantos, un Fierabrás, y otros tales; y para nombrar una doncella, o dama, procuran que el mismo nombre sea delicado y melindroso, que el mismo vocablo vaya mostrando lo que significa". 5. fol. 5 v. A).

54 Sanz-ek oso ongi azaltzen duenez (op. cit., 213-215), kapitulu honetako tesi batzuek garai hartako teologo eta latindar batzuk iraindu eta Uharteren aurka jarrarazi zituzten, bai Espainian eta bai kanpoan ere; teologoen hizkuntzak ikasteko gaitasunik ezagatik batik batik, espainolek latina ikasteko omen zuten desegokitasuna zela bide.

IX. Kapituluak [1594.eko XI.a]

1 (Bazterrean) "Ciceronek dioenez, gizonaren ohorea argimena ukaitea da, eta argimenarena bokantzari egokitua izatea". De claris oratoribus [Brutus, VI, 23].

2 Berriz ere, pneumaren teoriarekin aurkitzen gara, berau odolaren lurrinetan mamitua, burmuinaren bentrakuluetan kokaturik (Galeno, De placitis, VII).

3 (Bazterrean) Platonek kontatzen du hori. De scientia; et in Convivio elkarrizketetan.

4 (Bazterrean) "Ciceronek Platonen hizlaritza laudatzen zuelarik, dio ezen Jupiterrek grekoz mintzatu behar balu, haren gisara hitz eginen lukeela" De claris oratoribus [XXXI, 120-121: Quis enim in dicendo Platone? Iovem sic [ut] aiunt philosophi, si Graece loquatur, loqui. Quis Aristotele neruosior, Theophrasto dulcior?...]

* 1594.eko edizioan honi beste ohar bat erantsi zion bazterrean: "Claudio Donatok, gizon argiak, Virgilio poetaren bizitza izkiriatzean, hura mintzatzeko geldoa zela zioen, halako moldez non gizon ezjakina zirudien" [Vide Tib. Claudius Donatus, Interpretationes Vergilianae, II. lib., H. Georgii-ren ed. Vita a aicensivit B₂.

5 Epistolae-etan, op. cit., 569. orr.

6 Hau da, istorio hori luze kontatzeko, gutxienez, bost koadernotxo beteko zituen, horixe baitzen "esku bat paper". Ohartzekoa da ez duela Erasmoz estimu handiegirik, oroimen eta irudimena aitortzean, batera endelegu ona ukatzen baitio. Erasmoren aurkako iritzi hau maiz ageri zen "bigarren" Ernazimenduan, eta dirudienez, hark zerabilen idaztankera apaina, liburu debekatu batzuetatik etor zekiokela susmatzen zen. Uste horretakoa zen, adibidez Eneko Loiolakoa (ikus P. de Rivadeneira, Vida de Ignacio de Loyola, BAE, LX, i, 13, 30. orr. A-B); edo

Saavedra Fajardo (República, op. cit., 74. orr.). Arazo honi buruz, cfr.

E. Asensio, "El Erasmismo y las corrientes espirituales...", op. cit., 31 eta 39. orr.

7 (Bazterrean) 2.^a ad Corintios, XI. kap. [5-6].

Testuak honela segitzen du: Et quidam dicebat: quid vult semi verbius [seminiverbius] hic dicare? ["eta batzuk erraiten zuten: Zer erran nahi du edasle honek?"], eta bazterrean: Acta Apostolorum, 17. kap. [18, galdera hori Paulo Atenasen entzuten zuten epikurear eta estoiko batzuek egiten zuten].

8 Litekeena da De re publica-z aritzea, I, 27.

9 (Bazterrean) 1.^a ad Corintios, I. kap. [17].

10 Uste izateko zenez, kapitulu honek ere ez zuen kritika gogorrik falta izan, predikari batzuen aldetik batez ere. Atzerrian ere kontrakar handia izan zuen. Adibidez, Antonio Zara italiarrak bere Anathomia ingeniorum et scientiarum-en (Venezia, 1615) Uharteri oroimenaz egiten duen mesprezioa aurpegiatzen dio.

11 Hots, gainerako hizkuntza guztietan bere mintzaira propioan bezain motel hitz egiten zuela.

12 (Bazterrean) "Hebrearrentzako epistolak, Done Paulorena izanik ere, tankera ezberdina duelako, anitz pertsonari ez zela harena erranarazi diote, eta Elizak hori heretikotzat kondenaturik dauka.

13 Senecaren esaldi famatu baten zantzoa dirudi: Veritatis simplex oratio est (Epistulae, 49,4).

b I, V, H-ko edizioetako eranskina.

14 (Bazterrean) Proverbiis, XIV [23].

15 Hemen, seguraski, Erasmo eta beronen ondotik ari ziren bibli exegetak aipatzen ditu, garai hartan Europa osoan agertu zirenak: Adibidez Valla eta beronen Adnotationes in Novum Testamentum, Erasmok berak 1505ean argitaratuak.

16 Dirudienez Uhartek Platonek Timeo-n (64 a eta hurr.) ematen duen azalpena gogoratzen du zentzuen inpresioez eta horiek bereizteko "arimaren alde adimentsuak" darabilen prozeduraz.

17 Argi dago oso estima txikian zeukala teologia positiboa, berau oroimenaren fakultate zelakoan, funtsean sententiae gogoratzea besterik ez baitzen. Bide honetatik, funtsean, Bibliaren iruzkinak egiten ziren, eta Cisneros kardenalak bultzatu zuen (ikus Constitutiones insignis collegii Sancti Ildephonsi, const. 43), erasmisten bultzadari aurka egiteko. Erasmoren ustez, teologia eraberritzeko, eskolastika erabat baztertu eta berriz ere Testamentu Berrira itzuli beharra baitzegoen. Uhartek, edonola ere, endelegua gutxi erabiltzea aurpegiatzen die.

X. Kapituluak [1594.eko XII.a]

1 Eskoletako gizona "anitz autoreren doktrinen, oinarrien eta hastapenen berri dakiena".

2 Uharteren sisteman bi ahalmenok harreman handia dute elkarrekin: halere, eta beherago agertuko denez, litekeena da nafarrak hemen erretorikako oroimena aipatu nahi izatea, horretan Ad Herennium (III, xvi-xxiv) sasicicerondarrari jarraikiz.

3 Antza, gorago ere tazituki egin duenez, Etika (I, 1094 a 24-1094 b 10) aipatu nahi du.

4 Aurreko kapituluetan Gramatika aipatu du, eta horrek hemen aipaturiko Dialektika eta Erretorikarekin trivium eratzen dute, quatrivium-arekin batera (Aritmetika, Geometria, Astronomia eta Musika) zazpi arte liberalak osatuz. Horiek, lehenik Quintilianoren bitartez eta geroago Marciano Capella-ren zorioneko alegoriarekin, De nuptiis philologiae et Mercurii et de septem artibus liberalibus deritzonarekin, Erdi Aroko hazkuntzaren oinarrian ziren.

5 (Bazterrean) Scientia humana consistit in duobus: in locutione ornata et in distinctione rerum. Paulus, 2.^a ad Coloss., I. kap. [Kolosotarrentzako bigarren epistolan ez da ageri aipamen hori, ez eta Done Pauloren gainerako gutunetan ere].

6 Materiam esse rhetorices iudico omnes res quaecumque ei ad dicendum subiectae erunt: Quintiliano, Institutio oratoria, II, xxi, 4, seguraski Ciceronengandik hartua (De oratore, I, vi, 21).

7 (Bazterrean) De perfecto oratore [De optimo genere oratoris, I, i, 3: Hizlaria, edozein lekutan delarik ere, bere arloan da"]. Ciceronek erran nahi du hizlaritzak ez dauzkala genero batzuk, poesiak, adibidez, dauzkan bezala.

8 ["Hizlari hobezinak filosofo guztien jakituria dauka], in De oratore, II, 83.

9 Goian aipaturiko De optim. gen. or. (I, i,3) pasartean: oratore genere non divido; perfectum enim quaero.

10 Tradizioaren arabera, Quintilianok haien historia idatzi zuenetik (Inst. orat., III, i, 8), lehen lege-hizlariak Corax eta Tisias dira, siziliarrak, quos insecutus est vir eiusdem insulae Gorgias; geroagoko historiarako, ikus Quintilianoren lana, loc. cit. III, i, 9-21.

11 (Bazterrean) De oratore liburua [I, xvi, III, viii, 3: "Ez da hizlarien artean kontatu behar zientzia guztietan aditua ez dena"].

12 Hau da, jurisperituek hizlari-titulua pixkanaka baztertu egin zuten, gramatikarien eta bestelako hizlarien mesederako.

13 ["Ez hitzezko zuhurtzian"] I. Korintoarrei, I, 17.

14 (Bazterrean) Proverbiis, IX. kap. [3: "Bere neskatoak (= neskameak) igorri ditu deitzera gaztelura eta hiriko harresietara" (gonbitera etor daitezzen)].

15 Gogoan izan, adibidez, Axularren Gero-ren azalean bertan ere (1643.ean) azaltzen dena: Escritura saindutic, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debozinozcoetaric, Axular Saraco errotozac vildua.

16 (Bazterrean) De oratore Liburua [I, vi, 21: "Hizlariaren muina eta lanbidea proposatzen zaion edozein gaiz dotoretasunez eta oparo mintzatzea da"].

17 Horiek irudimenaren pean jartzean, erretorika, gorago seinalatzen zuenez, poesiaren baliokide egiten da.

18 (Bazterrean) "Gaia hautatzen jakitea ere, gerta daitezkeen anitzen artean irudimenari dagokio" [Uhartek cogitatio aipatzen du hemen (ikus Ciceronen De oratore, I, xxxiii, 150, edo Quintiliano, X, vi, 1-6)].

19 Argumentum eta inventio arteko bereizketa egiten du, lehenbizikoa bigarrenaren parte bat besterik ez bada ere. Uharteren "luzatzea" amplificatio-a da, argumentatio-aren parte berezia ez dena; "frogatzea" (probatio), ordea, bai, Aristotelesen Erretorika-tik bederen (I, ii, 2); ikus halaber Quintiliano, V, i, 1.

a verbi B₂.

20 ["Ene ustez, hizlaria da hitz atseginak eta gaiari ongi doazkion arrazoiak darabiltzana"].

21 Uhartek aipatzen duen "irakurketa" ez da irakurtze huts gisa ulertu behar, testu edo argumentu bat glosatu eta interpretatzea baizik, horixe baitzen Erdi Aroko ikasketetako ohiko metodoa, hots, auctoritas baten testua isolatu eta haren adiera posible guztiak maisatzea. Uhartek iradokitzen duenez, ia-ia inventio bat da, baina cogitatio-tik abiatu barik, autore baten pasarte, argumentu edo esapide batetik irtenik.

b pilak (montones) dakar B₂ testuak mendiak (montes)-en ordez.

22 Ibn-Sina-ren (Avizena-ren) garaitik (Canon, I. lib. fen. i, doct.vi, 5. kap.) maiz erabiltzen zen, irudimenaren fantasiarako duen ahalmena adierazteko, urrezko edo esmeraldazko mendien gainetik zerbait hegaz dabilelako irudia (sicut hominem, qui in monte volat smaragdino).

23 Uhartek, nolabait, Erdi Aroko "irakurketa" gaitzesten du, autore mugatu batzuen obren gainean egiten zelako. Cfr. Garin, "non si legge il libro della natura, ma il libro al posto de la natura; non il corpo umano, ma il Canone di Avicenna; non la lingua degli uomini, ma Prisciano; non il mondo, ma Aristotele; non il cielo, ma Tolomeo. Non si

ode più la parola di Dio; gli eredi leggono e interpretano con sottigliezza giuridica gli articoli del suo Testamento alla luce de la tradizione, degli interpreti precedenti, "autorevoli", che fanno, a loro volta, "testo" (L'educazione..., op. cit., 60 orr.) Edonola ere, kontutan eduki behar da nafarraren gogoko inventio horrek ia beti antzinakoen imitatio-a dakarrela aldean.

24 (Bazterrean) De perfecto oratore [I, xv].

c Nebrisa, I, V, H-ko edizioetan.

25 Ad Herennium liburu sasicicerondarraz ari da (III, xii).

26 Garizuma, Elizak barau eta haratuzterako garaiaz gainera, aldi horretako sermoien multzoari erraiten zitzaion, eta "gai berberari buruz autore baten sermoi guztiak biltzen zituen liburua"ri ere bai.

27 (Bazterrean) Ad Herennium [III, ix, 16].

28 (Bazterrean) Ad Herennium [III, xi, 19]. Uhartek pasarte honen bukaeran aipatzen duen latinezko pronuntiatio-a ebakera itzuli dugu, hots, "solasa ahots eta keinuen bidez burutzeko partea".

29 (Bazterrean) In Apologia [18 a].

30 Erretorika klasikoak exempla inventio-aren ataltzat jotzen ditu (cfr. Ad Herennium, I, viii, 13).

31 (Bazterrean) 18.^a sectione, Probl., 3.

d Jesu- B₂.

32 Egia esan, adibide "historiko" eta adibide "poetiko" bereizten ziren, eta beronen baitan alegia "jasoak" (poetica fabula) eta alegia "behere" edo fabellae banatzen ziren (Quintiliano, V, xi, 17-19). Uhartek lehenbizikoak aipatu nahi ditu, bera darraion Ad Herennium-ean (I, viii, 13) agertzen diren bakarrak, hain zuzen.

33 Hitzaren proprietas ez da ageri Ciceronen leku aipatuetan, baina bai De oratore-n (II,193), eta Quintilianok (VIII, ii, 1) ere bai. Uhartek kontzeptu hori naturaltasunarekin lotzen du, eta, gorago argi utzi duenez, nork bere hizkuntza propioa erabiltzearekin. Gogoan izan, adibidez, Ernazimenduak ekarririko hizkuntza nazionalen aldeko jokabide hori present zela haren herkide eta garaikide Etxeparek B. Leheteri eginiko hitzaurtean ere "...miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu, bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera..."

34 ["Boz, mugimendu eta graziaz hornitua"] De oratore, III, lvi, 213.

35 (Bazterrean) 11.^o sectione, Problem., 34 [Problema horrek dioenez, ahots ahularen iturria, fonazio-kanalaren herstasunean bilatu behar da, bai eta, ondorioz, hortik irteniko airearen ahultasunean ere].

36 (Bazterrean) 11.^a sectione, Problem., 3.

37 (Bazterrean) De semine liburua, XVI. kap.

38 (Bazterrean) De oratore [loc.cit.]

39 (Bazterrean) 11.^a sectione, Problem., 38.

40 (Bazterrean) 11.^a sectione, Problem., 54 [eta 60]. Problemari emandako erantzuna Uharteren kontrakoa da; autore grekoak dioena hauxe da, mihia berotzen denean, dela ardoarengatik, edo solasaldi luzeagatik, are nahasiago mintzatu ohi dela. Eta ezin izan liteke bestela, goian ikusi ditugun malenkoniatsuren funtsezko koalitateak kontutan harturik; hotza eta lehorra alegia, eta ez hezea, Uhartek, era pitxian, dioen bezala, hurrengo lerroan hori zuzentzen badu ere.

m haesitant B₂.

41 VIII-X. kapituluaren 28. oharrean jadanik aipatua.

42 (Bazterrean): 11.^a sectione, Problem., 35.

43 [XVIII. atala, 5. problema].

* Hemen mozketa luze bat hasten da, egia erdiesteko endelegurik ez ukaiteagatik-raino doana, (48. oharreraino). Arrazoa begien bistan dago, hemen, berriz ere, hizlarietara eta "teologo positiboetara" ahalmen intelektualak ukatzen dizkiela kontutan izanik: Ez dugu aherentzia behar, gainera, liburu hau 1579.ean Inkisizioari eraman eta salatu zuena Alonso Pretel izan zela, Baezako Ofizio Sainduko komisaria izateaz gainera, Unibertsitate horretako Teologia positiboaren katedraduna zena (ikus Iriarte, op. cit., 88. orr.).

44 (Bazterrean) Mat. XV. kap. 14: "Utizazue, itsurik itsuen gidari dirade: baldin itsuak itsua gida badeza, biak hobira eroriren dirade".

45 (Bazterrean): Nox nocti indicat scientiam [Psalmoak, XVIII, 3: "gauak gaua jakintsun egiten du hortaz"].

46 (Bazterrean): 1.^a ad Thimoth., I. kap. [5-7].

47 Erreformako teologoen aurkako ziria sartzen du hemen, hots, Luther, Melancton, Calvin, Zwingli, eta, nolabait, Erasmo bera era bai. Gogoan izan, adibidez, Philipp Melancton-en Declamationes (K. Hartfelder-en edizioa, Berlin, 1891) eta bereziki haren In laudem novae scholae (1526).

48 Inkisizioaren mozketa honaino heldu zen. Haria ez galtzarren, Uhartek, ondoko esaldiko "hauek"-en lekuan iparrekoak jartzen du. Edonola ere, kontzeptu hau ez dator ongi kontura, eta pasarte zentzurik gabe gelditzen da.

49 (Bazterrean) XVI. kap. [17-18].

50 (Bazterrean) 18. sectione, Problem., 4 [Hor, hizlarietara gainera, maltzakeriaren eredutzat, merkataria eta generala aipatzen ditu].

51 (Bazterrean) 2. kap. XI [3 eta 13-15].

52 Azeri-salda: garai hartako erdal esaldia: "azeri-salda, hotzik egonik ere, erregarria", pertsona kanpolarrosa eta ardi itxurako otsoei esaten zitzaien.

53 Erreformako teologoen aurka ari da berriz ere, eta oraingoan argiago. Lutheranismoak Espainian izandako eragin urria kontutan harturik, litekeena da Uhartek gogoan bere sorterriko kalbinismoa izatea, Errege Katolikoek Nafarroa armaz hartzean Joana Albretekat katolikotasuna baztertu eta bere erresuman protestantismoa erlijio ofizialtzat jarri baitzuen. Oroit gaituzen, horren ondorioz argitaratu zuela 1571.ean Leizarragak bere Testamentu Berria, Argimenen azterketa baino lau urte lehenago, hain zuzen. Protestantismoaren kontra jotzean, beharbada, jatorriz iparraldeko nafarra zelako Inkisizioak hartaz izan zitzaizkeen susmoak urrundu nahian ibil zitezkeen Uhartean.

54 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 1.

55 (Bazterrean) 29.^a sectione, Problem., 7.

56 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 10. [Uhartek, banan harturik, komiko eta ostataritzat jotzen dituen lanbide bi, jatorrizko testuaren arabera elkarrekin batu beharra dago (dionisiacos... artifices bacchanales... histriones) horiek (ardoak lagun) jendeari bakanaletan barre eragiteko arduradunak baitziren (cfr. Aulo Gelio, Noc. At. XX, 3; bai eta Aristotelesen Erretorika bera ere, III, ii, 12)].

57 Testua "intemperantziatara" ari da, bide batez askoz ere logikoa izanik.

58 (Bazterrean) 18.^a sectione, Problem., 6 [Egia esateko, problema horren jatorrizko testua ez da Uhartek bera itzultzen duen bezain determinista. Funtsean hauxe dio, pertsona batek bere burua lanbide zehatza hautatu eta hartzen duenean, harrezkero bokazio horretara kontsaktatzen duela bere burua, bestelako hautabideak bazterrean utzirik].

59 Falentzia: "esaten edo pentsatzen denaz fidagarritasun osorik ez izatea, huts egiteko ahalbidea".

60 (Bazterrean) Galeno, I liburua, Simp. XIX. kap. [i.e., De simplicium medicamentorum facultatibus, XIX-XXVI. kap.: De acetato et alia (in Opera, III, col.17-21)].

61 (Bazterrean) 30.^a sectione, Problem., 1.

62 Covarrubias-ek argitzen duenez "begian odola edukitzea gizon adoretuaren seinalea da", "nork bere eginbeharreko zereginak duintasunez eta ohorez betetzeko prest egotea".

* Bazterrean hau eransten du: "Halaber, bista laburrekoak izaten dira, haien burmuinak daukan lehortasun handiagatik. Aristoteles, De somno et vigilia liburua [457 a 27-35]". Hor adierazten dena hauxe besterik ez da, malenkoniatsuak ez direla oso lotiak izaten.

** Hemendik hasi eta negarrekin-eraino moztu zen, inkisidoreen ustez, malenkoniatsuen alde onak, italiar tradizioan XV. mendean azpimarratuak, gehiegi nabarmentzen zituelako.

63 (Bazterrean) Cum autem placuit Deo qui me segregavit ex utero matris meae et vocavit per gratiam suam ut revelaret filium suum in me. Pauli, ad Galatas, I. kap. [15-16: "Baina Jainkoaren plazera izan denean (zeinek neure amaren sabeleandian apartatu baininduen eta deitu bainau bere graziaz), Bere semearen errebelatzera nitan, hura ebangeliza nezantzat"].

s handiak, Iruñea, Valentzia eta Huescako edizioetan.

64 Problema, 11. atala, 35, 38, 54 eta 60. zenbakiak.

65 "Baina badakusat berze lege bat neure menbroetan, ene adimenduko legearen kontra batailatzen denik, eta menbroetan den bekatuaren legeari gatibatzen neraukonik", Erromat. VII, 23.

66 (Bazterrean) Psalm., LXXXIII [3: "Ene bihotza eta haragia bozkariatu dira Jainko bizia baitan"].

67 Uhartek esan nahi du sermolari sutsu horiek, beren furor edo vacatio animae delakoak itsuturik, maiz ez dutela behar bezala neurtzen predikatzen dutena (endelegua falta dutelako), eta, ondorioz, egiazko doktrinatik saihesta daitezkeela Ofizio Sainduaren aitzinean salatuak izanik; Uharte berari gertatu zitzaionez.

68 (Bazterrean) Ad Romanos, XVI. kap. 18. ["Eta hitz eztiz eta lausenguzkoz sinpleen bihotzak seduzitzen dituzte"].

XI. Kapituluak [1594.eko XIII.a]

1 letrado, jatorrizko testuan.

2 Garai hartarako, gaztelaniaz behintzat, letratu hitza, gaur bezalaxe, hasierako "letragizon" izatetik jadanik "abokatu" eta "lege-gizon" esateko erabiltzen zen nagusiki. Urte batzuk lehenago, 1545.ean Uharteren herikidea zen Etxeparek oraindik adiera orokorrean zerabilen euskaraz, B. Leheteri eskainirik hitzaurrean: "...eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago jauna..."

3 Daitekeena da Uhartek Ciceronen definizio famatua irakurria izatea: Lex est ratio summa insita in natura (De legibus, I, 6). Bestalde, legeaz egiten duen adierazpena "Digesto"koa da.

4 Zifra hitzak hemen "adiera ezkutuko hitz enigmatikoa, gakoaren berri ez duenarentzat ulertezina" esan nahi du, "hitz zifratu" gisa.

5 Legem brevem esse oportet, quo facilius ab imperitis teneatur, Seneca, Epistolae, 94, 38. Senecaren definizio hau, beste autore klasiko batzuenak bezala, garai hartako letragizon gehienek buruan egoten zen.

6 (Bazterrean) Non facietis... singuli quod vobis rectum videtur...; quod precipio tibi hoc tantum facito Domino, nec addas quicquam nec minuas. Deuteronomio, XII. kap. [8 eta 31-32: "Ez duzue eginen... bat bederari zuzen irudi zaiona...; Nik manatzen dizudana, hori bakarrik egizu Jaunari; ez ezazu berret, ez guti deuseren"].

7 Bistan da espainierazko letrado ez datorrela, Uhartek dioen a letra dado etimologiatik, latinezko litteratus-etik baizik. Edonola ere, honelako etimologizatasuna aski ohikoa izaten zen garai hartan, eta geroago ere, erro luzeak utzi ditu euskaldunon artean.

8 (Bazterrean) 2.^a ad Corint., III. kap. [6: "letrak hiltzen du, baina Izpirituak vivifikatzen du"].

9 Uhartek aipatzen dituen hiru hizkuntzak latina, greziera eta hebreera dira, baina horien jakite hutsa ez da aski testu sakratuen erran-nahi alegoriko, moral edo anagogikoa argitzeko. Hori teologo eskolastikoen zeregina zen, exegesia egiteko pertsona gaituena, alegia. Uhartek, hemen ere, Erreformako teologoak kritikatzeko beren propaganda-lanean psalmoen eta Bibliaren beste pasarte batzuk itzultzen eta iruzkinak egiten saiatzen zirelako. Arlo honetan, nafar medikuaren jarrera aski tomista eta atzerakoia da, humanista gehienak, kontrara, nork bere argiaz Biblia interpretatzearen aldekoak baitziren.

10 Hippokratesen axiomak errepikatzen ditu, Antzinako Medikuntzaz, I eta Izurriteak, VI, obretan azalduak; hor medikuntzaren enpirismo fisiologikoa azpimarratzen da, iharduera hori tékhnê gisa harturik.

11 (Bazterrean) De legibus [III, 684 a].

12 (Bazterrean) Cogitationes mortalium timidae, et incertae providentiae nostrae. Sapient., IX kap. [14: "Gelberak dira gizonen gogoetak, eta gure aitzinerateko oharpenak dira gertutasunik gabeak"].

13 (Bazterrean) L: nec leges, De legibus [Hau da, Digesto, I. lib. iii. tit., 10. atala, Julianorena].

14 (Bazterrean) De legibus et Senatusconsul: scire leges [Digesto, I. lib. iii. tit. 17. atala, Kelsorena].

15 (Bazterrean) Glosa in lege damni, parag. si is, verbo aliquas. De damno infecto [Hau da, 18 ataleko 5. pasarteko aliquas hitzaren glosa (Paulorena), ii. tit., Digesto-ren XXXIX. liburua].

16 De legibus, loc. cit. gorago, 11. oharrean.

17 (Bazterrean) De memoria et reminiscencia liburua [453 a 10-15].

18 Legeak, I, 630 d.

19 (Bazterrean) De anima, III. liburua, III. kap.

20 Espezieak: hitz hau hemen "objektu bat ezagutarazten duten zatiak, koalitateak edo ezaugarriak" gisa ulertu beharra dago.

21 (Bazterrean) Hippokrates, De alimento liburua.

22 (Bazterrean) De aliment. facult., I. liburua, I. kap. [Opera II, col. 18].

23 Pika edo malazia erraiten zitzaion pertsoneri elikatzeko aproposak ez diren gaiak janarazten dizkien apetituaren joera desbideratuari.

24 Greziako behialako sofistaren tankerakoa, hots, "itxuraz egiazkoa baina funtsean faltsua".

25 Naturak, alegia.

* Hemen pasarte luze hau tartekatzen du:

"Doktrina hau oso egiazkoa eta benetakoa da. Baina bera areago frogatuko genuke, hona Jainkozko Eskrituratik exenplu batzuk bagenekartza, hor begien bistan ikus genitzan gizon batzuek beren endeleguaren erruz egin dituzten gogoeta txarrak, eta beste batzuek biziki onak, kontrako arrazoiagatik. Eta ohikoena premisa onetatik kontrako ondorioa ateratzea denez, egin daitekeen zentzugabekeria handiena alegia, Done Mateoren parabola hura ekarri nahi dut [XXV, 14-30], honela dioena:

"Gizon batek, bide luzea egin nahirik, bere aitzinera bere zerbitzariak deitu zituen, eta bere ondasun guztia eman zien, harekin trafika zezaten: Eta batari eman zizkion bost talentu, eta besteari biga, eta besteari bat. Bost talentu errezibitu zituenak, hain trebea izanez, haiek doblatu zituen, eta gauza bera egin zuen bigarrenak ere; hirugarrenak lurrean zuloa egin eta hantxe gorde zuen eman zitzaion talentua, eta lotara etzan zen. Bere bidaiatik etorri eta gero jaunak bere zerbitzariak deitu eta haiekin kontu egiten hasi

zen. Bost talentu errezibitu zituenak erran zuen: "bost talentu eman zenizkidan, hona, ikus itzazu haiekin irabazi ditudan beste bost". Bigarrenak beste horrenbeste erran zuen bere bigaz. Baina etorririk, talentu bat errezibitu zuenak erran zuen: "jauna, ezagutzen dut gizon gogorra eta tasun txarrekoa zarela: erein gabe bildu eta barriatu gabe elkarganatu nahi duzu; horren beldurrez zure talentua ezkutatu nuen harik eta zu etorri arte: ikusazu hemen, eman zenidan bezalaxe". Jauna, ihardespen honetaz haserre, erran zion: bada hator hona, gizon gaizto eta nagia; arrazoi horrexegatik ardura handi-handia ukan behar huen talentu hori doblatzeko, gogorra eta tasun txarrekoa naizelako eta erein gabe bildu eta barriatu gabe elkarganatu nahi dudalako: premisa horietatik atera behar huen ondorioa, ene ondasuna ongi gobernatzea zuan, horrela ni pozik eta kontent edukitzeko, besteek egin duten bezala, lotara etzan gabe, nik tasun ona banu, eta neure ondasuna ugaltzen saia ez banendi bezala". Eta honela dio testuak: *serve male et piger, sciebas quia metto ubi non semino, et congreco ubi non sparsi: oportuit ergo te committere pecuniam meam nummulariis, et veniens recepissem utique quod meum est cum usura. Hain da komuna eta ohikoa endelegu urriko gizonen artean egiazko premiseak prometatzen duten ondorioaren aurkakoa ateratzea, non ez baita gauza ohikoagorik.*

Badira beste endelegu batzuk, erranak bezain dorpeak, zeren, ongi doakien gauzaren bat defendatu eta frogatu nahirik, haren aurkako arrazoiak aipatzen baitituzte, egiten dutena ulertu gabe: *judizio-egunean kondenatu batzuek beren buruen alde Jainkoari erranen dioten hura den bezala: Domine, Domine: nonne in nomine tuo prophetavimus, et in nomine tuo daemonia eiecimus, et in nomine tuo virtutes multas fecimus? [Mateo, VII, 22: "Jauna, Jauna, ez dugu hire izenean profetizatu, eta ez ditugu hire izenean deabruak egotzi kanpora, eta ez dugu hire izenean bertute anitz egin?"] Hau da zaldun batek errege koroaren kontra traizioren bat egin eta bere buruaren alde erregeren eskutik anitz mesede errezibitu zituela alega baleza bezala, eta ezkutari pobre izatetik bere erresumetako handiki egin zuela, eta anitz hiri eta leku eman zizkiola; arrazoi horiek (konturako inpertinenteak izanik) burua moztu behar diona are haserreago jartzeko balio baitute. Harako hura bezala: *si inimicus maledixisset mihi, utique sustinerem; sed tu qui dulces mecum capiebas cibos! ["Etsaiari ni iraintzea onetsiko niokek; baina hiri, neure mahaian jaki gozoekin gonbidatu haudanorri!]. Hauek, komunzki, zentzugabeko arrazoi eta kausak aipatu ohi dituzte haien kontuaren alde ez aurka egiten ez dutenak, ahora datorkien lehenbizikoa izaki.**

Badira gizonen artean beste endelegu batzuk, erranak bezain laburrak, zeren, begien aitzinean egiazko premisak ukanik, ez baitakite ondorioa ateratzen. Eta horrela, Ebangelioak kontatzen du ezen, Jesu Kristoren dizipuluak ogi faltaz eta aserik aurkituko zirelako fede txikiarekin zeudelarik, erran ziela: *quid cogitatis inter vos, modicae fidei, quia panes non habetis? Non intelligitis nec recordamini quinque panem in quinque milia hominum et quot cophinos sumpsistis? Nec septem panum in quattuor milia hominum et quot sportas sumpsistis? Quare intelligitis [Mateo, XVI, 8-11. Edonola ere, Vulgatak intra vos dio eta ez inter vos]. Erran balu bezala: "Zer dihardukazue zeuon artean, fede txikitakoak, ogirik ez duzuela eta? Oraino ez duzue konprenitzen, eta ez zarete gehiagorik oroitzen bost ogiez eta bi arrainez, zeinekin mila gizon ase nituen, eta sobera gelditu ziren saskiez? Eta ez zarete oroitzen zazpi ogiez, zeinekin lau mila gizon ase nituen, anitz saski bete gelditu zirela? Zergatik ez dakizue endelegatzen eta gogoeta egiten gizonen gisara?"*

Inferitzeko endelegu ederragoa zuen ehundariak; zeren, Jesu Kristoren ahalguztia ezaguturik, ez zuen nahi ukan zerbitzaria sendatzera bere etxera joan zedin, baina egin zezala zegoen lekutik, urrun bazen ere. Eta Jesu Kristo gurutzean hilik zegoela. *viso terraemotu et his qui fiebant, horrelako premisetatik honelako ondorioa inferitu zuen:*

vere filius Dei erat iste [Mateo, XXVII, 54, Marko, XV, 39; Lukas, XXIII, 47: "Egiazki Jainkoaren Semea zen hau"]. Eta besteek, endelegurik ezaz, mila zentzugabekeria inferitu zituzten.

Baina kontu honetan gehienik harritzen nauena hau da, Israelgo herria hain argitsua eta eskrituran hain aipatua izan arren, eta Jesu Kristo legean prometaturiko Mesia zela frogatzen zuten seinaleak hain nabarmen eta ageriak izanik, hortik ehundariaren ondorioa ez ateratzea eta hura ez ezagutzea. Zeren ezagutu ukan balute (Done Paulok erran zuenez) ez zuketzen inoiz gurutzean hilko ez eta hartaz hainbeste burla eta laido eginen. Horren arrazoia Isaiak dakar, dioela: *incrassatum est enim cor populi eius, et auribus graviter audierunt et oculos suos clausurunt* ["Ezen gizendua da populu honen bihotza eta belarriez gogorki entzun ukan dute, eta begiak hertsu ukan dituzte". Egia esan, pasarte hau Mateo, XIII, 15-koa da, baina Isaiak, VI,10-ren antzekoa da, harekin bat baitator, beteriko profetia gisa]; eta hitz horiekin profetak aditzera ematen du Israelgo herriak lehenago endelegu delikatuak zuela, eta bere bekatuengatik gizendu zitzaioela, eta ikusmen ona zuela eta lausotu zitzaioela, eta belarri onak izanik gortu zela. Horregatik ez zen asko, begien aurrean hain premisa handiak iraganik, hortik ehundariaren ondorioa ez ateratzea; zeren hura ikusi arren, ez zekusaten, eta hura entzun arren, ez zentzuten, eta hura aditu arren, ez zuten endelegatzen.

Badira beste endelegu batzuk, ondorioa atera arren, oso berandu eta denbora eta okasioa iragan eta gero egiten dutenak. Eta maiz, haserrealdia eta eztabaidetan, gizona jadanik bere etxean delarik, aurpegiko begi bat emanen luke kontu horretara itzultzearen irudimenera etorri zaionaren kontura erantzuteagatik besterik ez bada ere, kalapitan zenean hura gogoratu ez zaitzaioelako. Horixe bera gertatu zitzaion Jesu Kristorekin Emausko gaztelura ibili ziren bi dizipulu haiei, honela erran baitzien: *oh stulti et tardi corde ad credendum in omnibus quae loquuti sunt Prophetae!* [Lukas, XXIV, 25: "O adimendu gabeak, eta profetek erran dituzten gauza guztien sinestera bihotz berankorretakoak!"]

Aitzitik, badira beste endelegu batzuk, ondorioa inferitzeko beti prest, eta premisa gutxi eta erabat ahulekin, eta horiek jendeak harriduraz espantatzen dituzte. Nathanael hura bezala, zeinez Jesu Kristok erran baitzuen: *ecce vere Israelita in quo dolus non est* ["Hona egiazko israeldar bat, zeinetan enganiorik ez baita"]. Eta Nathanaelek hori entzunik galdetu zion: "Jauna, nondik nazaguk?" Ihardetsi zuen Jesu Kristok: "Filipek hi deitu baino lehen, pikondo azpian hintzenezan ikusi hindudan". Erran zuen Nathanaelek: *rabbi, hi haiz Jainkoaren Semea eta Israeleko Erregea*". Erantzun zuen Jesu Kristok: "Zeren, erran diadan "pikondo azpian ikusi haut" sinesten duk ni Jainkoaren Semea eta Israeleko Erregea naizela, hauek baino handiagorik ikusiko duk" [Joan, I, 47-50].

26 (Bazterrean): *Deus revelat profunda et abscondita*. Daniel, II. kap. [22: "Jainkoak agertzen ditu gauza barrenak eta gordeak"].

27 Gertakizuna: "ondorioa" alegia.

28 (Bazterrean) *Topicorum*, I. liburua [101 a 25].

29 *Eklesiastikoa*, VI, 6.

30 Heraklitoren pasarte honek (Irakurlearentzako Bigarren aitzinsolasaren hurrenkineko 1. oharrean jadanik aipatuak) honela dio: "Gizon batek enetzat hamar milak beste balio du, onena baldin bada" (D.-K., 49).

31 "behin txarra dena... [hurrengoan ere halakoxea izan baitaiteke"].

32 (Bazterrean) *Sapientia*, IX, kap. [14, ikus 12. oharra].

33 (Bazterrean) *Metaphysicae* II. liburua, I. kap.

34 ABC: haurrak letrak ikasteko erabiltzen zuen lehenbiziko liburuxkaren izena. Halaxe dator, adibidez, Leizarragak 1571ean argitaraturiko lehenbiziko obratoan ere: ABC, edo christinoen instructionea, othoitz eguiteco formarequin.

35 Irakurlea: (= lector): lectioa ematen zuen irakaslea, alegia.

36 Auzi bizia: praktikara eramana, eta ez, teoriko hutsa.

37 Ukitze-harria: "harri beltz eta leuna (jaspea) zilarginek eta txanpon trukatzaileek erabilia metalen kalitatea ezagutzeko".

XII. Kapitulua [1594.eko XIV.a]

a Iruñeko, Valentziako eta Huescako edizioek inperituek diote.

1 idiota: jatorrizko adieran, hots, "ezjakin, letragabea".

2 (Bazterrean) Galeno, Method. liburua, IX. kap. [Opera, I, 168].

3 De officio medic., I, iv.

4 (Bazterrean) De ordine librorum suorum [Opera, V, col. 50].

5 (Bazterrean) I. Liburua, Posteriorum [Analytica posteriora, I, ii, 10].

6 (Bazterrean) De anima III. liburua [428 a 27-30 eta 428 b 1-3]. Greziar filosofoak hau eransten du beheraxeago: "Irudimena sentsazioak egintzan sorturiko mugimendua izan da. Eta ikusmena zentzurik bikainena denez, irudimena hitza (? ? ? ? ? ? ? , phantasia) argia hitzetik (? ? ? ? , pháos) eratorria da, argirik gabe ezin ikus baitaiteke (429 a 2-4). Irudimenari ezagueraren "arartekoa" izateko funtzioa ematea, sentikortasunaren eta intelektuaren artean, tradizionala da.

b objectis I, V, H-ko edizioetan.

7 ["Kontzeptua objektutik eta ahalmenetik dator"]

8 (Bazterrean) Quicumque aliqua corporis parte dolentes, dolorem non sentiunt, iis mens aegrotat. Hippok. 5. Aphor., 6.

9 Darii, lau silogismo mota handietako bat, Barbara, Celarent eta Ferio erakoekin batera. Darii honek (A II) sinbolizatzen du lehen premisa ("nagusia") baieztapen unibertsal edo orokor bat dela (A), "endelegua" adibidez, bigarrena ("Txikia"), partikularra (I), "irudimena" kasu, eta biak baieztokoak direla; ondorioa, era berean, partikularra eta baieztokoa da (I). Humanismoan logikak zuen tokia eta banaketa argitzeko, ikus C Vasoli, La dialettica e la retorica dell'Umanesimo, op. cit., 9-27. orr.

10 (Bazterrean) 6. Epidem., 3. atala, I iruzkina.

11 Hippokratesen lehen aforismoa eskaintzen digu, zatiz bederen: "Bizitza laburra da; zientzia, ordea, luzea [vita brevis, ars longa]; okasioa [? ? ? ? ? ? , kairós] iheskorra; esperientzia, segurantzarik gabea; iritzia [? ? ? ? ? ? , krisis], zaila".

12 judiziari: astrologoa. Larramendik bere 1745.eko hiztegian honela dakar: Judiciario, Astrologo, vease. (II. lib. 28. orr.).

13 Berez Indiatik Europarantz migraturiko giza taldea den arren, Uharteren garaian ijitoak Egiptotik helduak zirela uste zen, eta berek ere jatorrizko sorterriaz ahantzirik, halakoxe ustea onetsi dute, beren folkloreko Faraoi erregea edo faraona gisako hitzek inoiz salatzen dutenez. Hortixek datoz euskarazko ijito(ko)a < Egiptokoa, gaztelaniazko (e)gitano < *egiptano, eta ingelesezko gypsy hitzak.

14 (Bazterrean) "Egiptokoak guztiak dira medikuak, eta pozik egon zitezen, errepublikak mediku bakoitzak eritasun bakar bana sendatzea besterik ez zuen utzi". Bestalde, ijitoen ustezko aztikeri, sorgin- eta nigromantia-ahalmenak, besteak beste, Julio Caro Barojak aztertzen ditu bere Temas castizos-en (Madril, 1980), 103 orr. eta hurr.

15 (Bazterrean) De antiquitate, VIII. lib., II. kap. ["Salomonek Jainkoarengandik hain jakituria handia jaso zuen, ezen antzinako guztiak gainditu zituen, egiptoarrak barne, berauk jakintsuenak zirela uste izan arren"].

16 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [23 a]. Cfr. Legeak, 819 b.

17 Garai hartan astrologiaren eta astronomiaren artean zen oraino bereizketarik. Hemen, ondoren datorren judiziaritza horren argitan, Uhartek, dirudienez, "astronomia" adierazi nahi zuen.

18 judiziaritza: astrologia. Ikus 21. orr.

19 Erdi Aroko translatio studii delakoaren ideia, hau da, Egipton eta Mesopotamian hasi eta gero handik Grezia eta Erromara iragan zen kultur historia luzearen jarraitzaileak zirelako sentimendua nabarmentzen du hemen Uhartek. Cfr. E. Gilson, *Les idées et les lettres*, Paris, 1932, 183. orr. eta hurr. Ikus, halaber, José A. Maravall, *Antiguos y modernos*, 216-220 orr.

c Karlos bosgarrena erantsi zen Iruñeko, Bilboko, Valentzia eta Huescako edizioetan.

20 Gauza jakina da hispanojuduek luzaroko nagusigoa izan zutela medikuntzaren aribidean Erdi Aroaren azken mendeetan. Baina 1492z gero, kanporatzeko dekretuaren ondorioz, haien kopurua nabarriro urritu zen. Errege-erregina Katolikoek 1501ean luzaturiko pragmatikaren bidez areago murriztu ziren, medikuntzan eta beste lanbide batzuetan aritzeko odol-garbitasuna nahitaezko baldintza zen eta. Halere, mediku famatu batzuk, jatorriz juduak edo judu konbertituak izan arren, zenbait handikiren eritasun korapilatsuak zirela bide, onetsi eta gaitu egin ziren, egoera larri hartatik salba zitzaten. Uhartek berak horixe berresten du, arraza horri medikuntzarako aparteko gaitasuna aitortuz. Horietako bat López de Villalobos izan zen (Fernando Katolikoaren eta Karlos enperadorearen medikua izandakoa), eta Uhartek aipatzen duen pasadizoa egia izan bazen, agian berori zatekeen Karlos V.ak Frantzisko I.ari igorri ziona. Ikus Luis S. Granjel-en *La medicina española renacentista*, op. cit., 80-81. orr.; eta J. Caro Baroja, *Los judíos en la España moderna y contemporánea*, 3. liburua (Madril, 1961).

21 kristau berri: Garai bertsuan Eneko Loiolakoak aipatzen zuen "jende berria", hots, "judu konbertitua".

22 Gogoan izan Espainiatik egotziriko judu askok Otomandar Inperioa hartu zutela bizileku, hiriburua batik bat, han, beren zientzi eta jakituri maila handiari esker, turkiar buruzagiengana abegi ona eta babes bat lortuz (itz. oh.).

23 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [Uhartek obra hau oker aipatzen du, Platonen aipu hori haren *De legibus* izenekoan baitatza (747 d-e), eta legegileak hiri bat fundatu behar duenean aukeratu behar dituen tokiei doakie].

24 (Bazterrean) Genesis, XV. kap. [13-14].

25 (Bazterrean) Exodi, XII. kap. [40-41].

26 Apostoluen Eginak: "Baina hunela erran zezan Jainkoak: Habitaturen duk hire hazia berzeren lurrean; eta han hura suieltzionetako eginen die, eta gaizki traktaturen laurehun urtez" (VII, 6); Hunek kanpora idoki zitzan hek, mirakuluak eta siognoak eginez Egipten, eta Itsaso Gorrian, eta desertuan, berrirogi urtez" (VII, 36). Done Eztebek ez du inon aipatzen hogeita hamar urte horiek, laurehun gainetik.

27 (Bazterrean) In oratione suasoria [VII, De nobilitate, loc. cit., supra]. Uhartek, Galeno eta beronen iturri izan zen Hippokratesen (Aireez, XII) iritzietan oinarritzeaz gainera, garai hartako espainiar literaturan, pikareskan batez ere, maiz agertzen den *necessitas magistra* delako ideiarekin zantzua bereganatzen duela dirudi, euskarazko "Beharrak zaharra merkatura" edo "asko daki zaharrak, erakutsi beharrak" atsotiz ezagunetan mamituak.

28 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 4.

29 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 15.

30 Protagoras, 329 2; Politeia, 582 a-d.

31 (Bazterrean) Exodi, XVI. kap. [33-35].

32 Mana, hortaz, juduak egiptoarregandik bereiziko duen janaria izanen da, haiei bigarren erako "jakituria" platonarra emateko. Ageri denez, Uhartek Eskriturako

kontuak bere gogoko ukitu naturalista eta filosofikoekin elkartzen eta harmonizatzen ditu.

33 Exodo, loc. cit. Arca foederis: "Batasuneko Arka".

34 Beherago aipatzen denez, gauza jakina zen bazela basamortuan mana natural bat landareen gainean goizero agertua. Gai hori zorri batzuek landareei egiten dizkieten zaurien sapa-jario gozoaz naturalki sortzen da. Bada, gainera, Liguens esculentus edo Canona esculenta deitzen den liken bat, euriaren ondoan edo goizeko ihintzaren eraginez lurraren azalean sortzen dena. Arabian, Pertsian, Mesopotamia zaharrea eta ia Sahara osoan aurkitzen da eta janarizat balio du. Izan, horixe izan zen juduek Sinaiko desertuan aurkitu zutena, hari Jainkoari mirari iritzirik. Nafarrak, dena den, bistako arrazoiengatik, ez du argiro aitortu nahi hori Bibliako mana bera denik, haren jatorri jainkotiarra ez ukatzeko.

35 Eskualdea: ez dio zehazki airearen zein eskualdetan den (gorenean, erdikoan ala behekoan). Seguraski behekoaz ari da, meteorologi aldaketak sortzen diren aldeaz.

36 Landare hau, espainieraz culantro edo cilantro deitua (*Coriandrum sativum* L.) haluzinogenotzat jotzen zen garai hartan.

37 Hots, elikagai horren balio sinbolikoa alde batera utzirik, materialaren eta izpiritualaren artean kokatua.

38 In similitudine prunae ["izotza irudi"] dio Exodoak, XVI, 14.

39 (Bazterrean) Exodoa, XVI. kap. [31].

40 (Bazterrean) Mesue, II. liburua, XVI. kap. Luis García Ballesterrek (Los moriscos y la medicina, op. cit., 24. orr.) dioenez "Ibn Sinak (= Avizenak) bere Canon-ean..., medikuntza arloko terminologia heldua eta behin-betikoa sartu zuen, horrekin ... beste arabiar eta judu autore batzuk (Mesue, Hali Abbas, Yitzhak Israeli), Corpus Constantinum-ean sarturiko latinezko itzulpenei esker, oso ezagunak gaindituz".

* Inkisizioak Eta hain-etik bilakatzen zitzaizela-raino moztu zuen.

41 (Bazterrean) De aliment. facult., I. kap. [Id., col. 23].

** Hauxe berau-tik mamirik ez zeukalako-raino moztua. Latindar zatia, ordea, errespetatu zitzaion.

42 (Bazterrean) Numeris, XI. kap. [6].

43 (Bazterrean) Exod., XV. kap. [25].

44 (Bazterrean) Exod., XVII. kap. [5-6].

45 (Bazterrean) 1.^a ad corint., X. kap. [4].

46 (Bazterrean) 6. Epidem., 4. zatia, 10. iruzk. [aip. ed., 178 fol. r].

47 (Bazterrean) 5. Aphor., 26 [Opera, IV, col. 670].

48 Hau Hippokratesek "antzekoa antzekoarekin" gisa formulaturiko axiomarekin bat dator.

49 (Bazterrean) Exod., XIII. kap. [21].

50 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 1 ["Tenperatura handiegiek, segitzen du esaten Teofrastok, geure senetik ateratzen gaituzte, gorputzari eragiten eta arimaren oreka hausten dute"].

51 (Bazterrean) De partibus animalium, II liburua [iv, 2].

* B₂-an hamazazpigarrenean dakar.

52 Mende honetako gauzetarako: "mundutar arazo, gai eta zientzietarako" alegia; hau da, teologiarako gaitasuna bazterturik.

53 (Bazterrean) 6. Aphor., 23 ["beldurra eta tristura, oso luze badoaz, malenkonია gaitzarenak dira"].

* Inkisizioak azken hiru hitzak (maltzurkeria, amarru eta malizia) moztu zituen, agian, Jesu Kristoren herriari esateko gogorregiak zirelakoan.

54 (Bazterrean) De aere, locis et aquis liburua [XIV]. Horiek legendako makrozefaloak dira, Itsaso Beltzaren kostaldean bizi omen zirenak; halere, fantasiak alde batera utzirik ere, Kaukaso aldean horrelako burezur deformazioak praktikatu ziren. Cfr. E. Lesky, Die Zeugungs- und Vererbungs-lehre der Antike und ihre Machwirken, Wiesbaden, 1951.

55 (Bazterrean) Omne recipiens debet esse nudatum a natura recepti ["edukitzaileak ez du ukan behar edukiaren izaera"], De anima, II. eta III. liburua [Aristoteles, 417 a 3-8 eta 429 a 16-25].

56 (Bazterrean) Numeris, XXI. kap. [5: "jaki ahul honek goiti eragiten dio gure barneari"].

57 (Bazterrean) Zuhurtziaren liburua, XVI, 20 ["zerutik igorri diozu ogi bat nekerik gabe apaindua, gozotasun guztiak berekin zituena"].

58 (Bazterrean) "oiloak eta eperrak jatera ohiturik daudenek ez dituzte horiek behin ere gaitzesten, jadanik urdaila haietara eginik daukatelako" [Hau aurrekoaren aurkako kasua da, eta Empedoklesen errankizunarekin bat dator].

59 Penintsulara ijito talde bat heldu zela dioskun lehen dokumentu idatzia Zaragozan ageri zen, 1425. urtean. Alfontso V.a Aragoikoak, Gogohandiak, data horretan salbokonduktu bat luzatu zuen Johannis Egipto Txikikoaren eta horren taldearen fabore. Ez dago, hortaz, hain gaizki Uharteren ustea. Edonola ere, gorago, 13. oharrean, esan denez, ijitoen egiazko jatorria ez zegoen Egipton, Indian baizik.

60 Uhartek gaur inork onartuko ez lukeen garrantzia ematen zien klima, janari, ur, geografi kokaera eta "tristura eta irainei", avant le mot nolabaiteko jarrera lamarkista izanez. Hori, pitxia izanik ere, ez da harritzekoa, garai hartan herentzia genetikoaren legeak oraino ez zirela aurkitu kontutan hartzen badugu. Darwinek berak ere ez zuen inoiz jakin zehazki gurasoen ezaugarriak umeengana nola iragaten diren. Gregor Mendel txekiarra izan zen, joan den mendearen azken aldean, lege horiek lehen aldiz aurkitu zituen.

XIII. Kapituluak [1594.eko XV.a]

1 (Bazterrean) 27.^a sectione, Problem., 5 [Hemen, zatiz bederen, "armak eta letrak" delako galdera eta topiko ezaguna azaltzen da, eta horien albokoak, hots, "adorea" eta "zuhurtzia", Ernazimenduko gizonenzat oreka lortzeko bi ezaugarri desiragarriak. Horrela adieraziko zuen, adibidez Don Quixotek bere mintzaldi famatu batean. Ikus puntu hau xehekiago azaldurik 62. oharrean].

2 (Bazterrean) Hippokrates, De aere, locis et aquis liburua [XVI eta XXII].

3 Militarren zuhurtziaren, moraltasunaren eta diziplinaren premia hauek garai hartako zenbait tratatutan ongi azaldurik ageri da. Ikus, adibidez, Diego de Salazarren De re militari (Alcalá, 1536), hor, ia hitzez hitz Machiavelliren Arte della guerra-ri jarraikiz.

4 Vegegio, De re militari. III, ix. Gogoan izan, halaber, Refranes y Sentencias liburuan (Iruñea, 1596) ageri den euskal atsotitz hau: "Bihotza ta zentzuna guduan dira beharrago iskiluak baino".

5 (Bazterrean) De natura deorum [III, x].

6 (Bazterrean) Ecclesiast., XII. kap. [10, 15-16].

7 (Bazterrean) Judit, X. kap.

8 (Bazterrean) De legibus [II, 674 a].

9 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 15.

10 (Bazterrean) De natura [deorum, III, x].

11 (["Khrisippo, zalantzarik gabe gizon malmutz eta maltzurra. Pentsamendua berehala bihurtzen dutenei esan zien maltzur"]. De natura deorum, ibidem.

12 (Bazterrean) Math., X. kap. X [16]. Bestaldetik, pasarte honen azken zatia, adiskidetasunaz ari dena, Aristotelesen Etika-rekin lot daiteke (VIII. 1157 a 1-4).

13 Vegecio, De re militari, III, iii.

- 14 (Bazterrean) De senectute elkarrizketa [IV, 10].
- 15 Plutarco, Bizitzak, VII, v-vii.
- 16 (Bazterrean) De scientia elkarrizketa [Teeteto, 195 a].
- 17 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 8.
- 18 Hots, "behazun beltza", ikus honetaz Don Quixotez VI-IX. kapituluko 38. oharra.
- 19 (Bazterrean) "Haurrak beldurti nabarmenak direnean, gizon hagitz zuhurak izanen direlako seinalea da; horiek sortarazi dituen hazia osoki txigortua eta atrabilis-izaerakoa baitzen" [Berriz ere Galenoren De locis affectis liburuak malenkoniaren ezaugarritzat ematen dituen tristitia eta timor direlakoetan oinarritzen da, eta Hippokratesen 6. ataleko 23. aforismoan].
- 20 Hots, hurrenez hurren, goragoko balio bakoitzaren pean hurrengo jartzeko prest egon beharra dagoela. Uhartek lau bertuteen temperamentuzko menpekotasuna ezarri du eta, borondatea (arimaren ahalmen tradizioaletako bat) ez dela nahikoa ongi obratzeko esateraino heltzen da. Arlo moralean sartu zen, beraz, baina zentsoreak ez ziren horretaz jabetu. Gainera, garai hartako balioen eskala "naturalki" azaltzen saiatzen da. Ondoren, nobleen adorearen "humorezko" arrazoiak ematen ditu, horiek, duten haziera lasai eta gozoagatik (berriz ere necessitas magistra gogoan), humore egokien funtsezko koalitateak aldean ez dituzten arren; horregatik "laudorioen nahia"ren ideia argitzen arituko da (cfr. F. Rico, "El deseo de alabanza" in Problemas del "Lazarillo", Madril, 1988, 57-68. orr), hots, une hartan (virtus klasikoaren kontzeptuaren bidez) hain garrantzi handia ukan zuena.
- 21 Maltako ordenarako ikus G.C. Bascapà, L'Ordine sovrano di Malta e gli ordine equestri della Chiesa nella storia e nel diritto (Milano, d.g.).
- 22 (Bazterrean) 6.^a Aphorism., 23.
- 23 (Bazterrean) Eklesiastes, I. kap. [17-18].
- 24 (Bazterrean) "Done Joanes Bataiatzailea aingerua zen bere ofizioan". Math. XI. kap. [10: "Hona, nik igorten diat neure mandataria hire begitarte aitzinean, zeinek hire bidea apainduren baitu hire aitzinean"].
- 25 (Bazterrean) II Method., VII. kap. [Opera, I, col. 100].
- 26 (Bazterrean) "gogoeta egiteko ahalmena, adimendu gabeko animalian ere, zein kontrakoa den ohartarazten du".
- 27 Ernazimenduan hira, ordurarte bekatu mortaltzat sailkaturik zegoena, mailaz goratu eta duintzeko, norbere gogozko hira mota bat postulatu beharra izan zuten, berez "lehertzen ez dena" baina norberak deitzen duenean datorrena. Hasierako hira gaizto hark bekatu mortal gisa segitu zuen, baina Aristoteles pentsamenduko nahiagabearen finduragatik bigarrena iradokizun handiko gizonen ezaugarri bilakatu zen.
- 28 (Bazterrean) "Irudipen handitan murgildurik ari diren gizonez Horatiok hau dio: et bona pars non unguis ponere curat, secreta petit loca; erran balu bezala: ez dituzte azkabalak moztzen, ez eskuak garbitzen, eta zikinak eta narratsak dira" [Ad Pisones, 297-298]. Edonola ere, Horatiok ez ditu jakintsuak satirizatu nahi, zenbait poetaren itxurakeria baizik.
- 29 Sanz-ek oso ongi seinalatzen duenez (332. orr., IV. oharra), Lucio Florok ez du Viriaturen kontu hau aipatzen bere Epithome de gestis Romanorum-eko II liburuan, xvii, Justino baizik (XLIV, ii), esanez Viriatok beti jantzi berbera erabili zuela, ut quivis gregarius miles ipso imperatore opulentior videretur.
- 30 Makrobioren aipamena Saturnalia, II, iv-an aurkitzen da; Suetoniorena De vita duodecim Caesarum, I, Xic, 5-ean (cfr. Aulo Gelio, Noctes Atticae, VII, xii, 1).
- * Honen ondoren atal hau erantsi zuen:
Hippokratesek, medikuen argimena eta trebetasuna ezagutzeko seinaleak eman nahirik, hartarako aurkitu zituen beste anitz aieruz landa, nagusitzat pertsonaren apainketa eta

janzkera hautatu zuen. Eskuak txukundu eta azkazalak mozten dituen, eta erhiak eraztunez beterik ekarri, eskularruak hagitz usaintsu, galtzak tenkaturik, soinekoa ongi ezarria eta zimurrik gabea, kapa garbia eta iletxo gaberik, eta honetaz guztiaz ardura handia lukeena, horiek guztiek ederki seinala lezakete endelegu gutxiko gizontzat. Eta horrela, hau erran zuen: *ex vestitu enim cognosces homines: quamvis enim fuerint splendide ornati, multo magis fugiendi sunt et a conspectibus odio habendi*; erran balu bezala: "gizonak jantzitik ezagutuko dituk, eta zenbat eta ikusiago ongi jantzirik eta apaindurik ibiltzen saiatzen direla, hainbat gehiago egin behar duk ihes haiengandik, ez baitira deusetarako ere on" [De decenti ornatu, II].

Argimen handiko eta beti ere irudipen sakonetan axolaturik ari diren gizonez espantatzen zen Horatio, haien azkazal luzeak ikusiz, hatz-koskoak zikinkeriaz beterik, kapa herrestan, soinekoaren botoiak lotu gabe, atorra zikin eta lokarrik gabe, zapatak nasai, galtzak urratuak, eroriak eta zimurrez beteak. Eta, horrela, hau erran zuen: *et bona pars non ungues ponere curat: secreta petit loca*; erran balu bezala: "ez dituzte azkazalak ebakitzen ez eta eskuak ikuzten ere" [Ad Pisones, 297-298]. Eta horren arrazoa da endelegu handiak eta irudimen ugariak munduko gauza guztiez burla egiten dutela, horietako batean ere balio ez substantziarik aurkitzen ez dutelako. Jainkozko behakuntzek ez bestek ematen diete gustu eta bozkario, eta horietan beren diligentzia eta ardura ezartzen dute, gainerakoak baztertuz.

Gizon bat ezagutu eta harekin adiskidantza egiteko (dio Ciceronek) lehenago harekin anega bat gatz gastatu beharra dago, haren ohiturak hain ezkutuak eta tolestuak izanik, denbora laburrean haiek inork ezin erdiets ditzakeelako: harekin anitz egunetan tratatzeko esperientziak ez bestek erakusten digu hura klar eta nabarmen [egia esan, aipamen hau Aristotelesena da: Etika, VIII, 1156 b 25-30; antzeko zerbait dio Ciceronek bere De amicitia, XVII, 61-an]. Baina Ciceron ohartu balitz Jainkozko Eskriturak ezartzen dituen seinaleez, eskukada gatz bakarra aski zukeen haren ohitura eta mainen berri jakiteko, hainbeste denboratan zain egon gabe.

Hiru gauzak (dio jakintsuak) salatzen dute gizona, arras barne-zuri izanik ere: lehenbizikoa irria da, bigarrena janztea eta hirugarrena ibiltzea [Eklesiastikoa, XIX, 27]. Irriaz jada lehenago errana dugu hori ugari eta edonoiz egiten denean, eta boz goraz eta esku-zartak joaz, eta hagitz irritsuek ukaiten dituzten beste moldegabekeria batzuekin, halakoak irudimenik eta endelegurik gabeak izaten direla. Txit dotore jantzeaz eta beti arropako iletxoehizan aritzeaz, aski da lehen errana; ohartarazi nahi dut hemen ez naizela gizonen garbitasuna eta apaindura kondenatzen ari, ez eta haien zabarkeria eta zikinkeria laudatzen ere. Hori guztia bizioa baita, eta erdipurdikotasunari dagokio; eta hori dela eta, honela erran zuen Ciceronek: *adhibenda est praeterea munditia non odiosa nec exquisita nimis: tantum quod fugiat agrestem et inhumanam negligentiam; eadem ratio est habenda vestitu*. Ibileraz Ciceronek gehiegizko bi ezberdintasun aipatu zituen, biak kondenatuz, biziortzat harturik: lehena presaka ibiltzea zen, eta bigarrena, arras astiki ibiltzea; eta honela erran zuen: *cavendum est autem, ne aut tarditatibus utemur in ingressu mollioribus, et pomparum serculis similes esse videamur; aut in festinationibus suscipiamus nimias celeritates, quae, cun fiunt, anhelitus moventur, vultus muntantur, ora torquentur, ex quibus magna significatio fit non adesse constantiam*; erran balu bezala: "Begira euzue aski astiki ibiltzetik, irudiz prozesioren batean joanen bazinete bezala, imajinen bonbazia eta segizioarekin; ez eta arras lasterka ibiltzetik ere, arnasestuka, aurpegia mudatuz, ahoa okertuz eta erdeinuak eginez, begira dagozkizuenek ez duzuela iraupenik aterako baitute hortik". Baina, egiazki, ez dira hauek gizonaren argimena erakusten duten ibiltzeko ezberdintasunak, beste batzuk baizik, izatez oso bestelakoak, hots, lumaz ezin pinta eta mihiaz ezin azal daitekeen ekintza berezia baizik. Eta, horrela Ciceronek erran zuen gauza batzuk begiekin ikusiz

gero endelegatzeko errazak direla, baina erraiteko edo izkiriatzeko, ordea, oso zailak". [Uhartek hemen ingelesez jizz hitzaz adierazi ohi den bereizmen ia instintibo hori azaltzen digu, adibidez, haur bat mutikoa ala neskatoa ote den aurpegiaragatik ezagutzeko era ematen diguna, xeheki azaltzeko hain zaila den arren].

31 (Bazterrean) Ex vestitu enim cognosces homines: quamvis enim fuerint splendide ornati, multo magis fugiendi sunt, et a conspectibus odio habendi ["Gizonak jantzitik ezagutuko dituk: zenbat eta apainduago egon, hainbat gehiago joan behar duk haiengandik ihesi"], Hippok., De decenti ornatu liburua, [II]. Jantzi apainak gizona burutsu egiten ez duelako iritzi hau, bi mende geroago ere azalduko zen euskal literaturan, Peru Abarkak maisu Juani soineko dotorengatik aurpegiaragatik destainak lekuko.

32 Hori da Ibn Sina-ren (Avicenaren) ustea (Canon, fen. I, i, doct. VI, 5. kap.): Porro post sensum communem in eadem anteriore capitis phantasiam. Uharteren "gainerako guztiak bezala" hori gainerako "irudimen" motez ulertu behar da, ez, ordea, gainerako ahalmenez: aestimativa seu cogitativa delakoa burmuinaren erdiko bentrikuluan omen zetzan; oroimena, aldiz, atzekoan (Ibn Sina, loc. cit.).

33 Galeno, De temperamentis, II, v (Opera, I, cols. 53 D eta 54 A-B).

34 Suetonio, ibid., I, xlv, 5.

35 Galeno, loc. cit., 54 D.

36 (Bazterrean) De officiis I. liburua [iv, 14].

* Zentsurak ezein gizonek munduan egin duenik handiena zatia moztu zuen.

37 Uhartek ematen duen etimologia ez da okerra. Berak aipatzen duen forte hori fors ("halabeharra, zoria") hitzaren ablatibo defektiboa da, mitologian kasualitatearen oinarri maskulinoa denarena; Fors Fortuna formula, azkenean, jainko berbera adierazteko erabili zen, jatorriz bigarrena oinarri femeninoa izan arren (cfr. Ciceron, De legibus, II, xi, 28).

38 Uhartek azaltzen duen Fortunaren irudi hori ohikoena zen Ernazimenduko ikonografian; ikus R. van Marle, Iconographie de l'art profane II, Paris, 1932, 185. orr.; A. Doren, "Fortuna im Mittelalter und in der Renaissance", Vorträgeder Bibliothek Warburg, II, i(1924), 136 eta hurr. orr.; R. Wittkower; "Chance, Time and Virtue", Journal of the Warburg Institute, I (1938), 318. orr. Gurpilatik biraka dabilen esferarako iragaitza ongi azaldurik dator lan hauetan; esfera edo harri biribilaren aurrean Jakituria jarri ohi zen, oinarri koadratu sendoaren gainean. Euskal literaturan jadanik Etxeparek aipatzen digu bere Benedika fortuna, hala enkontru ona...; Debile principium, melior fortuna sequatur; Axularrek ere gauza bera egiten du okasioaren deskribaketaz, berau kopetan iletsu eta garondoan bursoil dela esanez, Carmina Burana-ko Fortunaren erretratu ezagunarekin bat: verum est quod legitur/ fronte capillata/ sed plerumque sequitur/ occasio calvata.

39 (Bazterrean) 29.^a sectione, Problem., 8.

40 Fortunaren kontzeptua ukatzea (edo horren lekuan kristau Aurrikuspina jartzea) J.B. Avalle-k aztertu zuen bere La novela pastoril española, Madril2, 1974, 82 eta hurr. orr. eta 36. z-ko bibliografia.

41 (Bazterrean) Luccae, XVI. kap. [8].

42 Laugarren modua ez du bereziki aipatzen ez edizio princeps-ean ez eta eraldatuan ere, baina garbi dago: "jakintsu diren eta hala diruditenak" alegia.

43 Gogoan izan Oihenarteren 255. atsotitza: Jainkoak, bera langile ona izanagati, nahi du lankide.

44 Uhartek ez ditu Fortuna eta Jainkoa erabat berdintzen, Calderonek, adibidez, eginen zuenez (haren drama alegorikoetako batek, hain zuzen izenburu hori darama eta: "Jainkoaz landa ez dago beste Fortunarik"); Fortuna, hortaz, Jainkoak libre uzten dituen

"bigarren kausa" horietako bat da, "gizonaren diligentziak" bere helburuetarako moldarazi behar duena, alegia.

45 (Bazterrean) III. liburua, IX. titulua [De re militari].

46 Dama: erregina, alegia.

47 Herentziazko noblezasunari buruz, ikus beherago 56. oharra.

48 (Bazterrean) De arima II. liburua [iii, 415 a 25-30 eta b 1-8].

49 Ez dago garbi erdal hitz horien esangura. Adiskide eta irakaslea dudan Shalan Hares libanoarrak ohartarazi didanez, litekeena da mairu-usario horrek arabierazko sab`a "zazpi" hitzarekin loturik egotea, izen hori eskuarki lehoiari esaten baitzaio, eta, bide batez, pertsona adoretuari ere bai.

50 Ikus, gorago aipaturikoez gainera, N. Salomon-en La vida rural castellana en tiempos de Felipe II, Bartzelona, 1973, 301-317. orr, eta D.E. Vassberg-en Tierra y sociedad en Castilla, Bartzelona, 1987, 146-147. orr. Hitz horrek dituzkeen etimologiak Américo Castro-ren España en su historia, (Bartzelona,3 1984), 70-77. orr. eta arazo osagarrietarako 588-606- orr.

51 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 16 [Eta Generatione et corruptione, I, x-xv obran ere bai]. Ondoren aipatzen dituen "gainerakoak" ere ahalmenak dira, noski, hots, hazmena, sentimena eta adimena.

52 Nobletasun orok bere etorkia adore pertsonalean duelako ideia hau, eta honi darizkion beste batzuk, oso eztabaidatuak izan ziren XVI. mende osoan.

53 Karlos V.a 1568.eko uztailaren 24an hil zela eta Uharte hartaz orainaldian mintzo dela kontutan harturik, kapitulu hau (edo, elkarrizketa hau behinik behin) data hura baino lehenago idatzi zuela pentsa daiteke; eta nafarrak eskribua inprentara 1575ean, edo aurreko urtean, eraman bazuen ere, seguraski ahantzi egin zuen lehendik idatzirik zeukan pasarte hori "eguneratzea".

54 Gorteko alkatea: gortean eta inguruko bost legoatan ohiko jurisdikzioa duen goi mailako epailea. Hor alkate hitzak arabierazko etimoaren jatorrizko esangura du (< al-qadi "epailea").

55 Alcalako doktoreek ere bai; ikus, adibidez, E. Esperabé Arteaga, Historia pragmática e interna de la Universidad de Salamanca, op. cit. 156 eta hur. orr.

56 "Odolezko aitoren semeak" (hidalgos gaztelaniaz) ez zeuden halakotzat sailkatuak, bai ordea "pribilegiozkoak". Erregeak halakoei pribilegio hori ematen zien gerran edo bakean eginiko zerbitzu bikainengatik, eta horien noblezia une horretatik hasten zen. Baziren, lehenbizikoekin nolabait loturik, "jatorrizko oinetxe ezaguna zutenak". Baziren, azkenik, beren aitoren semetasuna erositak zutenak, hots, diruz pribilegioak, ohorea eta salbuespenak eskuraturiko jende aberatsak, odolezko eta nolbetasunaren kalitatea izan ez arren. Horiek oso ugari ziren garai hartan eta Uharte, antza, horiexez ari zen bereziki. Aitoren seme hitza, euskaraz, aita onen seme-tik dator eta, interpretazio okerra eginez (Aitor-en seme, alegia), hortixek atera zuen A. Xaho zuberotarrak Aitor izen ezaguna, hura euskaldunen behialako patriarka balitz bezala. Aitoren seme berbaz gainera, Oihenartek kapare hitza ere ematen digu, espainolezko hidalgo esateko.

57 Espainolez eskuarki Don Rodrigo deituriko azken errege godoaren izena.

58 (Bazterrean) "Txit ongi erran zuen Suárez doktoreak "egiazko aitoren semetasuna"; zeren Espainian anitz exekutoria baitira aitoren semearen industria eta maina onari esker. Eta holakoez egia handiz hobeki erran liteke aitoren semetasuna lekukoen eta hartzailearen eskutik hartu zuela, erregearenetik baino". [Uhartek aipatzen dituen "exekutoriako aitoren semeok" "exekutoria-karta" zuten, auzi bidez, eskriturak eta lekukoak (egiazkoak edo erosiak) eramanez beren noblezasuna nola edo hala frogatuak. Gogoan izan Quevedoren Las zahurdas de Plutón: "Munduan bertutetsua dena, horixe da aitoren seme, eta bertutea da hemen errespetatzen dugun exekutoria"]. Uhartek,

bistan da, ez deritze oso sinesgarri era horretako aitoren semeei. Berak, ordea, garai hartako euskaldunen antzera argi zeukan bere burua nobletzat, aurkitu diren dokumentuek egiaztatzen dutenez (ikus Iriarte, op. cit. 22-25 orr.).

59 Bere jatorrizko adieran erroldan sartzea "petxak, zergak eta erregearentzako bestelako karga eta zerbitzuak ordaindu behar dituztenak liburuetan jartzea" zen.

60 Gogoan izan 56. oharrean esanikoa.

61 Kontutan har nola, ohartzeke, Uhartek garai hartako euskal eta erdal deitura askoren jatorria aipatzen duen: Petrirena/ Perurena/ Pérez; Antsorena/Sánchez..., aitaren edo aurreko asabaren baten genitibotik herri-bidez (-r)ena atzizkiarekin euskaraz) edo eskribauen maila jasoagoaz (latinezko -is-etiko -ez atzizki fosilarekin gaztelaniaz) horiek eratorriz.

62 Obregatik bigarren jaiotza edo "jaiotza izpirituala"ren arazo hau maiz aipatu zuen Cervantesek (cfr. Quixote, I,4: "Kargu handiko zaldunak izan daitezke; are gehaigo nor bere obren semea dela kontutan harturik"; II., 32. "Honi erran diezaioket Dulcinea bere obren alaba dela, eta bertuteek odola apailatzen dutela", II, 42: "Harro egon hadi Sancho, heure leinuaren apaltasunaz... Prezia hadi gehiago apal bertutetsu izateaz, bekatari harro izateaz baino... Ezin kontatuzkoak dira jatorri beherekoak jaiorik, aitasaindutasunaren edo enperadoregoaren gorengo mailara goratuak"; ikus Américo Castro, El pensamiento de Cervantes, op. cit. 356-366). Beste humanista askok ere eztabaida gogorak izan zituzten gizarte-klaseen aldaezintasunaz, pixkanaka gizonaren "berezko duintasuna"ren kontzeptua bultzatuz. Uhartek, lanagatik berezitasunaren bidez, intelektualen klase mugikorraren ideia plazaratzen du, gizarteko postu garrantzitsuenetako batzuk betetzera deituak. Hor nork bere izaerak ematen dion ahalmenen araberako tokia bete beharko du, baina, beherago ikusiko dugunez, izaera berezi bakoitza Estatuaren premietara jarri beharko da, hots, horren buruaren pean, hau da, erregearen meneko izanez, eredu organizista bultzatuz.

63 (Bazterrean) Actorum, V. kap. [36]. Leizarragak bere 1571.eko Testamentu Berrian honela dio: "Ezen denbora hau baino lehen altxa zedin Theudas, zioela bere buruaz zerbait zela...".

64 (Bazterrean) Joannis, I. kap. [Egia esan, Joanes, III, 10-ean dator, beherago, berriz, ongi aipatua].

65 (Bazterrean) II. legea, 2. atala, XXI. tit. [Alfontsoaren testuak honela dio: "E porque estos fueron escogidos de buenos logares et algo, que quiere tanto dezir en lenguaje de España como "bien", por eso los llaman fijosalgo, que muestra tanto como "fijos de bien"." (= "[Zaldun] hauek legu onetatik eta zerbaitetik hautatu zirenez gero, horrek Espainiako hizkuntzan "ontasun" esan nahi baitu, horrexegatik aitoren seme deitzen dira, "ontasunaren seme" bezainbat balio duena").

66 Uhartek dioskuna egia hutsa da, Errege-Erregina katolikoek garaitik aurrera Gortean bizi ziren handikien eta letratuak garapenak baserriko aitoren semeen gainbera ekarri baitzuten, horiek lurra beren eskuetan pixkanaka bilduz joan zirelako. (N. Salomon, La vida rural castellana en tiempos de Felipe II, op. cit., 303. orr.). Hori zela eta, ondasunik ez zuen eta horren araberako bizimodua ez zeraman aitoren semea petxarien erroldan jar zitekeen. Behartsu bilakaturiko kapare horien eredu bikainena Tormesko itsumutilaren hirugarren tratatuko ezkutaria zen.

Beste batzuetan, aldiz, hiriko luxuzko bizimodu nabarmenari garestiegi iritiz, aitoren seme batzuek baserri aldera jotzen zuten, hirixka txikietan kokatzeko, han hainbeste gasturik gabe hobeki bizi eta bere pribilegioez erosoago gozatzeko. Honen erudia A. de Castillo Solórzano-ren "La fantasma de Valencia"n ikus daiteke (in Novelas amorosas de diversos ingenios del XVII, op. cit. 170. orr.). Ikus, gainera, M. Fernández Álvarez, La sociedad española en el siglo de Oro (Madrid, 1984), 195. orr.

67 (Bazterrean) Joannis, III. kap. [10].

68 Zuka: garai hartako gaztelaniaz vos. Vos tratatzeko era hau garai hartan aski desprestigiaturik zegoen Gaztelan eta behe mailakoei aplikatzen zitzairen, kortesiazko ohiko formula Vuestra Merced izanik (zure medese hori zioen euskaraz Mikoleta bilbotarrak XVII. mendean). Ikus R. Lapesa, "Personas gramaticales y tratamientos en español", Revista de la Universidad de Madrid, XIX [1973], 147. orr. Señoría, aldiz, titulua zeukaten nobleei esaten zitzairen, Italian, aldiz, Uhartek ongi gogoratzen duenez, trataera hori Italian ohizkoa zen bitartean, espainolezko vuestra merced-en parekoa.

69 Cervantes Uharteren pasarte honetaz baliatu zen bere Persiles-erako: Antonio espainiarraren istorioaren eta trataera-kontuengatik izandako dueloaren erdiko gunea da (I. liburua, v. atala, aip. ed. 73-78. orr.). Cfr. J.B. Avalor-Arce, Deslindes cervantinos, op. cit., 82. orr. et hurr.

70 (Bazterrean) In Gorgia [482 e eta hurr.; ikus Jaeger, Paideia, 511-517. orr.].

71 Gorago erran denez, ondasunak nabarmenkeriaz agertzea garai hartan kaparetasunaren nahitaezko froga izaten zen, seguraski bilauek herrietako aitoren seme behartsuen aurka eskaturik. Horiekiko etsaigoa biziki hazi zen 1525 eta 1551 artean, aitoren semeak zergaz salbuetsirik egoteak bilauen gaineko zama izugarri handitzen zuen eta. (Cfr. M. Morreale, "Reflejos de la vida española en el Lazarillo", Clavileño, XXX (1954), 28-31. orr).

72 (Bazterrean) "Nobletasuna guarismoen kontuetako zeroa bezalakoa da, zeren, horri zenbakiren bat ondoratzen ez badiote, ez baitu deus sumatzen" [Hirugarren baldintza honek, noblelari garaikideen iritziz, lehena izan beharko zukeen aitoren semeen kasuan; cfr. Hernán Mexía (Nobiliario vero, I, 4): "Aitoren semetasuna gizonei leinutik datorkien noblezia da"].

73 Laugarren baldintza hau, hots, bizimodua ateratzeko eskulan edo lanbide mekanikoren batez aritu beharra, aurrekoari dario, hau da, ondasunik ez izateari. Uhartek aipatzen duen baldintza horrek, gizona "beheratzeaz" gainera, horri noblezia ere kentzen zion, maila hori gabe geldituz. Hori zela eta, harridura sortarazten zuen gaztelauen artean euskaldunak, "jatorrizko nobletasuna" izanik, eskulangile edo zaltzain ikusteak. Ikus José A. Maravall, "Trabajo y exclusión: el trabajador manual en el sistema social español de la primera modernidad", in A. Redondo, ed., Les problèmes de l'exclusion en Espagne (XVIe-XVIIe siècles), Paris, 1985, 135-159. orr.

74 Hemen ere izenak izanarekin eduki behar duen egokitasun fonetikoa berriz azpimarratzen du, hots, eufonia (ikus. VIII-X. kapituluko 50. oharra), hori nobletasunerako baldintzetako bat izateraino goratuz, horretarako Alfontso Jakintsuaren General estoria famatua ere aipatuz.

75 (Bazterrean) De memoria et reminiscencia liburua [II, 453 a 5-13; lehenago I, 449 b 6 eta hurr.]. Gomutamenaren "grazia berezia" orain asoziazioaren legea deritzoguna da: antzogatik, kontraktotasunagatik, hurbiltasunagatik, etab. Izan ere, doktrina hau, oinarritz bederen, Platonengan aurki daiteke (Fedon, 73 d 2-74 a 4).

76 Latin klasikoan hitz hau, egia esan, vindico da.

77 Gaje frantses jatorriko hitza da. Euskaraz Leizarragak behintzat erabili zuen (...çure maiestatearen placera hala içanic gage ordena lekidan,..., Joana Albretekoari eginiko sarrera-gutunean). "Erregeek edo printzeek beren zerbitzariei ematen zieten ordain-saria esan nahi zuen, bai eta "soldaduen soldata" ere. Euskaraz hitz hau galdua da, eta espainolez fosil lexikal hau gajes del oficio esaeran besterik ez da bizi".

78 Gaztelaniazko originalean: "Fulano bien ha devengado su trabajo".

79 Uharteren etimologia zuzena da, gaztelaniazko vengado, euskarazko mendekatu bezala, latinezko vindicatus-etik datorrelako.

80 Becerro edo zekor-liburuan elizen eta monasterioen pribilegioak idazten ziren, eta izena bere azaleko larrutik datorkio, kartulario ere esaten zitzaion. Erregeak, 1509an Erret Eskrituren Artxiboa fundatzeko agindu zuen, hor leinu nagusiak biltzeko; Uhartek, antza, liburu hau aipatu nahi digu.

81 (Bazterrean) 1.º Regum, XVII. kap [55-56].

82 Sanzek ederki dioenez (335. orr., XII. oharra), nobleziari buruzko digresio hau "Nobletasunari buruzko egiazko Tratatu bat da, eta haintzat harturik, halaxe aipatu, transkribatu edo imitatua izan zen XVII. mendeko espainierazko liburu batzuetan". Hiru aipatzen ditu: Bernabé Moreno de Vargas-en Discursos sobre la Nobleza de España (1622); García de Góngora y Torreblancaren (Juan de Sada-ren ezizena) Historia apologética y descripción del reino de Navarra, eta Pedro Gerónimo de Aponte, Juan Huarte de San Juan eta Diego Hernández de Mendozaren obraren liburuki anonimoa ("Nobiliario" izenaz bataiatuta eta Madrileko Biblioteka Nazionalean 11.772. zkia duena), horren hirugarren atala, hain zuzen "Joan Uharte Donibaneko doktoreak izkiriatu zuen noblezia eta aitoren semetasun berberaren gaineko tratatua" izena duelarik (37-39. fol.).

83 (Bazterrean) 30.ª sectione, Problem., 11.

84 Problema honela amaitzen da: "Gainera, gimnasi borroketan saria nahiago izaten da borroka bera baino, eta haren gainean dago; halere, zer sari egon daiteke norbere jakituria baino goragoa denik?"

85 Uhartek dioenez, ohikoa izaten zen lizentziatu kandidatuen artean "graduaren kolazioa" egitea irtenaldi bakoitzeko lehen postuak epaitzeko. Nafar medikuak ikasketak egin zitueneko unibertsitateari dagokionez, Alcalan, ekitaldi hori Justo eta Pastor sailduen elizan egiten zen, arteetako doktore eta maisu guztiak hara derrigor joanda, Errektorearen eta Kantzelariaren burutzapean (ikus Alcalako Unibertsitateko Libro de protocolo de actos y grados, sign. 398-f). Halere, ekitaldi hori baino lehen Uhartek kritikatzan duen aukera egiten zen, hots, kandidatuen ordena erabakitzeo hautaketa sekretua, maiz azpikeriaz eta eskupeko eroskeriaz kutsatua. Uharte doktorearen irtenaldian, kandidatuek hiru hautalditan antzeko botuak lortu zituzten, eta hortaz, azkenean ordena zozketaz egitea erabaki zen, lehena gure autorea irtenik (Iriartek, 42-43. orr., akta transkribatzen du).

* Inkisizioak "ebangelioaren doktrinaren kontrakoa" zatia moztu zuen.

86 (Bazterrean) Marci, cap. IX [34].

87 (Bazterrean) Mathei, cap. XXIII [6: "on deritze lehen plazei oturuntzetan eta lehen kadirei sinagoetan"].

88 (Bazterrean) 27.ª sectione, Problem., 6.

89 (Bazterrean) Quod animi liburua, VII. kap. [Opera, I, col 1000 B-C].

90 Oroimena irudimenarekin zuzen-zuzenik dago loturik: hark "fantasmak" gordeten ditu, horiekin irudimenak "figura egiteko" (cfr., adibidez, Aristotelesen De memoria et reminiscencia, 450 a 30).

91 (Bazterrean) Divites potius quam pauperes perperam curantur ["Askoz gaizkiago sendatzen dira aberatsak behartsuak baino"] Galeni, II, Meth., XV. kap. [Opera, I. col. 578].

92 Galeno, De placitis, VII (Opera, I, 847 C).

93 Hau da, gauzak dohainik ez baina interes eta probetxuagatik egiten dutenak.

94 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [Timeo, 71 b eta hurr.].

95 Errekuntzaz malenkoniatsua izanik, Don Quixotek ere bere hitzaldirik onenak bazkari "neurrikoen" ondoan egiten zituen, haren kolera gehiegi pitz ez zedin; cfr. "armen eta letren" mintzaldiaren hasiera: "Eta horrela poztasun handiaz afaldu zuten, eta areago handitu zitzairen, ikustean ezen don Quixote, jateari utzirik, ahuntzainekin

afaldu zuenean bezainbat mintzatzera bultzatu zuen bezalako izpiritu batek hitz eraginda, hau erraiten hasi zenean... " (I, 37).

96 (Bazterrean) 2.º De legibus [674 a]. Halere, Uhartek aipamen hau Galenoren Quod animi mores, X.etik atera zuen (Opera, I, 1005 B).

XIV. Kapituluua [1594.eko XVI.a]

1 (Bazterrean) 3.º Regum, cap. III [9].

2 Hori elementu, humore eta horien organoekin elkarlotzen badugu, honelako laukia ateratzen da:

Lau kualitate elemental horietako baten nagusitasunetik, beste bi orekaturik egonik, lau temperamentu bakunak sortzen dira: beroa, hotza, lehorra eta hezea. Hauek guztiok diskrsiak dira, hau da, koalitateak proportziorik gabe nahasirik daudelako.

Badira beste lau konposatuak, bi koaliteren nagusitasunaz eta besteen orekarik gabe: bero eta lehorra (irudimena), bero eta hezea (oroimena), hotz eta lehorra (endelegua) eta hotz eta hezea (edozein ahalmenetarako desegokia). Hauek ere diskrsiak dira.

Bada temperamentu akatsgabea, pare bakoitzaren oreka gordez: tenplatua. Hauxe da eukrasia bakarra, hots, proportzio ona.

Lauki honen hedapena Martine Bigeard-en La folie et les fous littéraires en Espagne, 1500-1650-en ikus daiteke (Paris, 1972), 20. orr.

3 (Bazterrean) De Temperamento, I. liburua, IX. kap. [Opera, 39-41]; et Quod animi mores liburua, IV. kap. [Opera, i, 997-998].

4 Uhartek hemen, gaixotu aurretik erremedioa hartuz, gizonak "naturalki" erdiets dezakeen zuhurtziaz ari dela azpimarratzen du, arimaren menpekotasun temperamentala ukitu gabe, ortodoxia katolikoa beti ere temperamentuzko sailkapenaren aurka egon zelako.

5 Litekeena da Uhartek hemen prudentia-ren zatiketa hirukoitza eskaintzea (memoria-inteligenzia-providentia, iraganari, orainaldiari eta etorkizunari dagozkienak), Ciceronen formula klasikoarekin bat: De inventione, II, liii. Formula hau eskolastikaren topikoa izan zen; ikus, adibidez Albert Handia, De prudentia, II, i-iv, 468-86; Done Tomas Aquinokoa, Summa, I, ii, q, 57, VI. art., 4. zkia.

6 Baiezpen orokor hau hau Legeen VII. liburuan datza.

7 (Bazterrean) De sanitate tuenda II. liburua [Opera, II, col. 41 b].

8 Galeno, ibid. 41 C.

9 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 1.

10 (Bazterrean) Optima temperies non corpori solum, verum etiam intelligentiae hominis prodest. 14.^a sectione, Problem., 1 [Problema honetan, hain zuzen, diskrsia hitza darabil, "orekarik eza" itzuliz].

11 Baliteke hemen Timeo (36 d-e) nolabait aipatu nahi izatea.

12 (Bazterrean) Graecis ac barbaris, sapientibus et insipientibus, debitor sum Ad Romanos, I. kap. [14: "zordun naiz hainbat grekoengana nola barbaroengana, hainbat zuhurrengana nola ezjakinengana"].

13 Hemen Uhartek translatio studii delakoa aipatzen du, hots, zientziak Atenastik, edo Erromatik, Parisera eginiko lekualdaketa, translatio imperii deritzona osatzen duena, Karlo Handiak Erromatik Parisera eraginiko inperioaren berrezarkuntza, alegia. Ideia hau jadanik Horatiok formulatu zuen Graecia... artes/intulit agresti Latio (Epistolae, II, i, 156-157), Cfr. E. Gilson, Les idées et les lettres, op. cit. 183 eta hurr. Ageri denez, oraino gure artean zenbait grekozale amorratuk bestela uste badu ere, kultur guneak politika eta ekonomiaren garapenaren arabera lekuz aldatzen direlako ideia hau aski zaharra da, eta historiak argi erakusten digu arlo horretan nolako bilakaera egon den Ekialde Hurbiletik Greziara, hortik Erromara, gero arabiarrengana, ondoren Italia, Frantzia eta Alemaniara, gero, industri iraultzaz gero, Ingalaterrara, Amerikara eta

Japoniara heldu arte. Arrazoi berberetatik, herri horietako hizkuntzek prestigio eta erabilera kulturalean gorabeherak izan dituzte, inolako predestinaziorik gabe.

14 (Bazterrean) In oratione suasoria [VII].

15 Anakarsisen erantzuna hemen amaitzen da; gainerakoa Uharteren eranskina da.

16 Uharteren baiezpenez Guardiak bere Essai-n (149-151) egiten duen laburbilduma ez dago batere gaizki: hor Hippokratesengandik (De aere, locis et aquis) Galenorengana doan haria markatzen du, Platonen Timeo eta Aristotelesen Politika-n zehar iraganez. Tesi horretan legeak ez dira halabeharrez aldatzen, zeruaren eta luraren eraginez baizik. "Galenok -dio Guardiak- klimari garrantzia handiegia eman zion, giza berezkotasunaren eragina ukatuz... Baina Uhartek teoria onartu arren, ez du gehiegikeriarik erraiten: berezkotasunak klima gairi dezake".

17 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XIII. kap. [kapituluaren izenburua Signa bonae temperatae cerebri da (in Opera, V, 206): Talibus igitur capilli capitis cum adhuc sunt infantes, subrufi, cum vero pueri, subflavi, cum iam adoleverint, flavi fiunt].

18 sub-rufo: "ilegorria" alegia.

19 (Bazterrean) Galeni, De temperamentis II. liburua [V. kap. Opera I. col. 53 D-54 A].

20 Hau da, eukrasia edo humoreen proportzioa dagonean.

21 (Bazterrean) De aere, locis et aquis liburua [XXIV].

22 (Bazterrean) De optima corporis constitutione, IV. kap. [Opera, I, 139 D].

23 (Bazterrean) De optima corporis constitutione liburua, IV. kap. [loc. cit., supra 140 B-c].

24 (Bazterrean) Alexand. Aphrod. I. liburua, problem., 25.

25 (Bazterrean) Galeni, De optima corporis constitutione liburua, IV. kap. [loc. cit.].

26 (Bazterrean) De sanitate tuenda I. liburua [loc. cit. supra].

27 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [86 a eta hurr.]. Platonen elkarrizketa askotan "gogoz inor ez dela gaiztoa" ageri da (Gorgias, 480 b, Legeak, III, 691 b). Halere, Timeo-ren pasarte honetan ageri da doktrina hori arrazoi fisiologikoekin, edo heziketazkoekin, justifikaturik; horregatik Uhartek gizonak "lehenago bere jaugin naturalari uko egin behar diola" gaineratzen du, hori gaiztoa denean, jakina.

28 (Bazterrean) De sanitate tuenda II. liburua [Opera, loc. cit., 33 C].

29 (Bazterrean) "Eta non sit pronus ab adolescentia sua ad malum [“nerabazarotik okerbidera makurtua ez dena”].

30 Galeno, Quod animi mores, II: irascibilis autem, libertatis, victoriae, potentiae, imperii, gloriae atque honoris (Opera, I, 994 D).

31 Galeno, De placitis, VII, in Opera, I, 847 C-D.

32 (Bazterrean) De usu pulsus liburua [Opera, I, 717 B-C].

33 Galeno, De semine, II, v (Opera, I, 1063).

34 (Bazterrean) "Bihotzak burmuinari arterien bidez bidaltzen du; gibelak zainetatik eta barrabilek bide berberetatik" [Uharte honetan Galenori darraio (De usu partium, VI, x; De placitis, VII, etab.), eta, hark bezala, odolaren zirkulazioa itzulerarik gabekotzat jotzen zuen. Harrigarria da, ordea, odolaren zirkulazio txikia, Miguel Servet tuterarrak hogeita bi urte lehenago azaldua (Christianismi restitutio, 1553), ez aipatzea].

35 (Bazterrean) "Gizona bere eraketa txarrak bultzatzen badu ere, halere libre gelditzen da nahi duena egiteko. Apposuit tibi aquam et ignem; ad quod volueris porrige manum tuam. Ecclesiast. XV. kap. [17: "Aitzinean ezarri dizkizu ura eta sua: nahiago duzunera heda ezazu eskua"]. Ageri denez, Uhartek giza erabakimen askearen doktrinaren alde azaltzeko ardura erakusten du".

* Pasarte hau (Gizonaren izaerari-tik gaizkera okertu gabe egotea-raino) moztu zen, bistako arrazoiengatik, hor, beste batzuen artean giza erabakimenaren askatasuna zalantzan jartzen delako.

- 36 ["Haz eta ugal zaitetze, eta bete ezazue lurra"] Genesia, I, 28.
- 37 ["Hona non eman dizkizuedan lurraren gainean hazten diren belar guztiak, eta zuhaitz guztiak, zeinek bere hazia berekin ekartzen dutenak, horiek izan daitezen zuen hazkurri"] Genesia, I, 29.
- 38 ["Ezar ezazue lurra zeuen azpiko, eta nagusitasun har ezazue itsasoko arrainen eta zeruko hegaztien eta lurraren gainean higitzen diren abere guztien gainean"] Genesia, I, 28.
- * Hemen (Zeren gorago) mozketa luze bat hasten da bi paragrafo behegoraino doana (berak diosku). Ofizio Sainduak uste zuen nafar medikuak zioela, doktrina katolikoaren kontra, Jainkoak, bere graziak banatzeko, ongien "eraturik" daudenak hautatzen dituela. Bestalde, berriz ere gizonak fisiologiaren meneko zama dutela dio, eta horrexek bultzatzen duela egokiro eta zuhurki obratzera.
- 39 (Bazterrean) Ecclesiast., XVII. kap. [5-6: "Eman die gogoetarako bihotza eta zuhurtziaz bete ditu"].
- 40 Hau da, "Jainkoak lehen gizona sortzean hari eman zion inozentzi egoera".
- 41 Loc. cit. supra, 29. oharra.
- 42 (Bazterrean) Galeni, De sanitate tuenda VI. liburua [Opera, II, col. 116].
- * Gorago aipaturiko mozketa honaino heltzen da.
- 43 (Bazterrean) Psalm., LXXXVIII [Vulgata-ren 89, 10].
- 44 (Bazterrean) De temperam. I. liburua, IX. kap. [Opera, I, 40 B].
- 45 Timeo, 86 a eta hurr.
- 46 (Bazterrean) De pulchro elkarrizketa [Fedro, 238 b-c, 252 b].
- 47 Nabarmen gelditzen da berriro ere Uharteren gogoko organizismoa (erregea, burua edo "arrazoimena"; handiak, ertainak eta txikiak, hurrunez hurren, gorputzaren beste organo eta ahalmen batzuekin lotuko ditu, gero eta garrantzi txikiagoaren arabera) eta horren alde oinarri natural edo fisiologikoak dakartzkigu.
- 48 (Bazterrean) In Thaeteto [149 c; hor ezkontzalariak andrazkoak ziren]. Agintariak ezkontzak onartu eta lotu beharko lituzkeelako ideia hau beste platondar liburu batzuetan ere ageri da, Politeian, adibidez (458 d-e).
- 49 (Bazterrean) De natura humana liburua, comment. 11 [litekeena da hemen Uharte oker jartzea eta III. iruzkina aipatu nahi izatea; izan ere, jadanik Galenok berak uste baitzuen, zortzigarrenetik aurrerakoak geroagoko tartekaketak zirela, salbu, hain zuzen 11. kapitulu hau, Aristotelesek ere aipatua (Historia animalium, III, iv), eta, berak uste zuenez, Polybok, Hippokratesen suhiak idatzia].
- 50 (Bazterrean) 5. Aphorism. comment., 62 [Opera IV, col. 682: Bene temperati uteri ad conceptionem sunt idonei; male autem temperati, si parum a bonitate recedunt, difficulter concipiunt: sine nimium mulieres steriles reddunt].
- 51 (Bazterrean) De sanitate tuenda liburua [Opera, II, col. 116 B].
- 52 (Bazterrean) Eklesiastes, X. kap. [17: "Dohatsu lurra, zeinaren erregea deitatu baita, eta zeinetako buruzagiek tenorean jaten baitute, barnearen hazteko, eta ez zalekeriaz!]
- 53 (Bazterrean) Erran Zaharrak., XXI [1: "Nola ur-xirripak, hala] erregearen bihotza Jaunaren eskuan da"].
- 54 (Bazterrean) 1.º Regum, cap. XVI [Egia esan, pasarte hau Samuel, XV-XVI.etan aurkitzen da].
- 55 [6: Jaunak aitzinean ote du bere Kristo?]
- 56 (Bazterrean) Actorum, cap. XIII [22: "Aurkitu dut (David, Jeseren semea) neure bihotzaren araberrako gizon gisa"].
- * "Eta anitzetan"etik "ohitura galtzen"eraino Inkisizioak moztua.
- 57 (Bazterrean) 3.º Regum, cap. I [1-4].

- 58 (Bazterrean) 1.º Paralip., cap. XXIX [28].
- 59 (Bazterrean) 1.º Regum, cap. XVI [18].
- 60 (Bazterrean) 1.º Regum, cap IX [2].
- 61 (Bazterrean) De sanitate tuenda II. liburua [loc. cit. col. 41 B].
- 62 (Bazterrean) Psalm., CXVIII [66: "Irakatsiez azkizidazu ontasuna, zuhurtasuna, jakitatea"].
- 63 (Bazterrean) Mathei, II. kap. [2: "Non da juduen errege jaio dena?"]
- 64 Hau da, haren latitude txarra, hango aire eta ur destenplatuak.
- 65 (Bazterrean) Joannis, XVII. kap. Mathei, XX. kap. [28].
- 66 (Bazterrean) Numer., XIX kap. [2].
- 67 (Bazterrean) Esaia, LXVIII [egia esan, LXIII, 1 da: "Zein da Edometik heldu den hau, Bosratik soineko tindatuekin?"]
- 68 (Bazterrean) Psalm., XLIV [3: "Oi gizasemeetarik ederrena"].
- 69 (Bazterrean) Genesis, XLIX. kap. [12: "Ardoa baino ederragoak dira haren begiak, eta hortzak esnea baino zuriagoak"].
- 70 ["Nork zuetarik salatuko nau bekatuz?", Joanes, VIII, 46].
- 71 (Bazterrean) De antiquitati, XVIII. lib. IX. kap. [berez, IV. kapitulua da].
- 72 (Bazterrean) Mathei, IV. kap. [1-2].
- 73 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [31 a eta hurr., hor dioenez, Jainkoak toki bat ezarri zuen hartan bere irudiko gizonak jaio zitezela].
- 74 Ikus IV-VII. kapituluko 16. oharra.
- 75 (Bazterrean) Genesis, II. kap. [15: "Jainko Jaunak hartu izan zuen beraz gizona eta ezarri gozozko paradisuari, hura lant eta zain zezan].
- 76 Hau da, autore klasiko horien obrek ezin dezakete Jainkoaren erabakiez argirik eman.
- 77 rufus: "ilegorria" alegia. Izan ere, Done Hieronimok hala itzultzen du hebreerazko izena, lehen gizona lur gorritz moldatua izan zela azalduz.
- 78 (Bazterrean) Genesis, I. kap. [31: "Eta Jainkoak ikusi zituen berak egin zituen guztiak: eta anitz onak ziren"].
- 79 (Bazterrean) Deuteronomii, XXXII. kap. [4: "Jainkoaren egintzak osoak dira"].
- 80 (Bazterrean) Genesis, II. kap. [9].
- 81 ["Gizona egin deza gun geure antz eta irudira"] Genesis, I, 26. Ikus, adibidez IV-VII. kapituluko 55. oharra.
- 82 (Bazterrean) De [cognoscendi] curandi[que] animi morbis [Opera, I, cols. 1224-1243]. Uhartek ukitzen dituen filosofoak, Galenok aipatuak, batez ere, Diogenes eta Zenon dira.
- 83 (Bazterrean) De lege [III, 716 c].
- 84 Gizonak Jainkoarekin duen antza Mendebaldeko kultur tradizioaren ideia aberatsenetako bat da, eta ez dator, soilki, Bibliaren bertsetetik (ikus F. Rico, El pequeño mundo del hombre, op. cit. s.v."imagen de Dios"); Genesirako, ikus C.P. Thompson, "The Lost Works of Luis de León: (2) Expositio in Genesim", Bulletin of Hispanic Studies, LVII (1980), 199-212. orr).
- 85 Begien bistan da Uhartek Filipe II.aren kanpoko ezaugarriak bilatu dituela "ilehoria, gorputzertainekoa, bertutetsua, osasuntsua" etab. Hori dela eta, espainiar erregearen Jainkozko irudia ez da, soilki, sinbolikoki organizista (erresumaren buru eta adimena delako); horrez gainera, "naturala" ere bada, hots, fisikoa. Jesu Kristoren, Adamen eta Daviden itxura du; hortaz, Filipe II.a erregea da "berez hala izan daitekeelako". Bakoitza bere "obren umea" dela eta "Naturak norberari ematen dion" gizarte maila ukan beharra badago, Filipe II.ak ongi betetzen du erregela hau: erregea baldin bada, ez da Karlos V.aren semea delako, baizik eta, horrez gainera, (zorioneko kasualitatea!)

Naturak horretarako behar den temperamentu bikainaz hornitu duelako. Ikus G. A. P erousse, "Le Dr. Huarte de San Juan: p edagogie et politique sous Philippe II", Biblioth eque d'Humanisme et Renaissance, XXXII (1970) I, 81-92. orr.

86 Burmuina eraturik egoteko "beste" modu batez ari da, hor hiru ahalmenak "gizona tenplatua izan gabe ere, elkartzeko. Ez digu argitzen, ordea, nola bil daitezkeen, bikainik, hiru ahalmenok.

87 Ibn Sinaren (Avicena) kokaera da hau (Canon, fen I, i, doct. VI, c, 5), Uharteren garaikideen artean oso ezaguna.

88 Uhartek berak imaginatzen duen doktrina hipotetikoa aipatzen digu, ez baitu hori frogatzen, hots, burmuinaren bentrikuluetan hiru ahalmenak dautzala.

89 Hau da, irudimenari, endeleguari eta oroimenari dagozkion oinarritzko koaliteteak. Azken esaldiari, edonola ere, ironia dario.

XV. Kapituluak [1594.eko XVII-XXII.a]

1 "Odolezko nobletasuna"ri heldu ohi zaion gainbeheratik ihes egiteko eta beherakada hori baztertzeko, haur egokiak sortzeko aholkuak eman nahi ditu Uhartek. Horrela, klase sozial baten pribilegioak mantendu barik, herritarren argimenean eugenesia lortu nahi du, horrela gizabanakoaren gaitasuna eta gizartearekiko zerbitzu egokiagoa garantizatzeko.

2 Honekin Uhartek esan nahi du ezin daitekeela irakurleen pudore-sentimenduetara makur, horrela eginez gero haurrak sortarazteko ihardupideko munta handiko pasarte edo diligentziaren bat aipatzeke utzi eta azalpen osoa balio gabe eta alferrik galduko litzatekeelako.

3 (Bazterrean) De arima II. liburua [433 a 1-10]; et IV Topicorum [v.4].

4 Endelegu gabea, alegia.

5 Litekeena da, Uhartek adibide hau Ciceronen De oratore-tik (48, 212) aterea izatea; edo Pro Plancio, 1-etik, hor hari ignorabilem... sine virtute, sine ingenio, vita etiam contempta et sordida aurpegiatzen baitzaio.

6 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 27 [izan, 28 da].

7 (Bazterrean) 1.^o Prorrh et., comment. 2, 6 [egia esan, Galenoren In primum Prorrh etici Hippocratis librum, VI. kapituluko ii. iruzkinari darraio (De urina deritzonari), in Opera, II, cols. 1403-1405].

8 (Bazterrean) 6.^o De locis affectis, VI. kap. [Opera, II, col. 960].

9 (Bazterrean) De locis affectis, VI. kap [ibid., baina kapituluak V.a da, col. 959: Vidi mulieres hystericas, id est, ab utero suffocatas... alias quidem sine sensu immoviles iacere cum obscuro, parvoque pulsu, vel omnino sine ullo pulsu...]. Hortaz, Galenoren ustez, histeria mota bat da.

10 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 29 [izan, 30.a da].

11 (Bazterrean) Methaph. XII. lib. [1073 a 23-34].

12 Hau da, animalien atzera, beste bi "arimak" ere, begetatiboa eta sentikorra, izateaz lotsatzen da.

13 Genesis, II, 25 eta II, 7; hurrenez hurren.

14 Gauzak: elikatzeke eta ugaltzeke tresnak alegia, espeziea iraunarazteke balio diotenak.

15 (Bazterrean) "Arima arrazionala hilezina izateke aieru batez ageri da" [Agian hemen Platonen doktrinen oihartzuna soma liteke (cfr. Fedon, esp. 76 d-77a). Bestela, litekeena bada aipamen hau Inkisizioaren beldur egina izatea, beronek haren hitzak arima ustelkorra delako adieran gaizki interpreta ez zitza].

a kapitulu ezberdinetan B₂.

[I. ATALA] [1594.EKO XVII]

- 16 Ikus aurreko kapituluko 47. oharra.
- 17 (Bazterrean) De dissect. vulvae [Opera, I, cols. 315-332].
- 18 Bekatu higuingarria: "sodomia" alegia.
- 19 Pedro de Peramato-k bere De regimine pueri, praegnantis et puerparae liburuan, (Sanlúcar de Barrameda, 1576) honela dio: "Jaioberri batzuek gizon-sexua barrualdean ezkutaturik dakarte, emeak dirudite, harik eta, adinarekin, hura kanpora irten arte; hori Pliniok aipatzen du eta duela urte gutxi Kordoban gertatu zen" (VIII. kap. 117. fol.). Ondoren kontatzen du, eta horren fedea ematen, lehenago ere beste kasu bat jazo zela Madrileko Santo Domingo el Realeko moja batengan: hura, behin gizon bihurtu eta erlijio-profesioa zenbait urte egin ondoren, apeztu zen eta. Ez da harrizkoa Uhartek kasu horietako batzuk ezagutzea, horien berri orduko medikuen artean barreiatuak.
- 20 (Bazterrean) Galeni, De semine, II. liburua, V. kap. [Opera, I, 1063 D].
- 21 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 2 [cfr. Hippokrates, Naturaleza de la mujer, Littré, VII, 341. orr.].
- 22 (Bazterrean) Galeni, 5.^o Aphorism., 62. iruzk. [Opera, IV, col. 682].
- 23 Begien bistan dago Uharteren esaldi hone n gehiegikeria.
- 24 (Bazterrean) 5.^o Aphorism., 62.
- 25 (Bazterrean) 5.^o sectione, Aphorism., 25.
- 26 Emakumearen "barrabilak" aipatzean, noski, "obarioak" adierazi nahi ditu Uhartek.
- 27 (Bazterrean) 5.^o Aphorism., 62. iruzk. [loc. cit., supra, Opera, IV, col. 682].
- 28 (Bazterrean) Hippocr., 6.^o Epidem., 1. parte, 2. iruzk.
- 29 (Bazterrean) De semine I. liburua, XV. kap. [Opera, I, 1048 B].
- 30 Haren herkiea zen Etxeparek "emazteen fabore" bestelako jarrera agertzen zuen arren, bistan da Uharteren hitz hauei darien antifeminismoa. Nolanahi ere den, ez gaitu horrek eskandalizatu behar, hor, Uharte, bere ustez behinik behin, metodo "zientifikoa" aplikatzen saiatzen baita: tenperamentuen sailkapena alegia, haren garaikide gehienek, fisiognomoniarekin batera, erabat onartua. Harrigarriagoa da, ordea, 1930.eko espainiar edizioan, haren paratzaile Rodrigo Sanz-ek honelako hitzak eranstea: "El sexo femenino bien llamado está débil por experiencia de toda la humanidad; y debilidad humana es, ante todo, minoría mental".
- 31 Done Paulo, 1. Timotheo, II, 11-12.
- 32 Judith, VIII, 9-34.
- 33 Jujeak, 33 IV-V.
- 34 Berriz ere, orduko aurriritzien menpeko ageri zaigu hemen Uharte.
- 35 Izaera txarra: honekin adimenaren koalitate bereziak adierazi nahi ditu, argimenaren nolabaiteko "desbideraketak", alegia: maltzurkeria, azerikeria, zurikeria, gaizki pentsatzea, amarrua etab.
- * Bazterreko eranskina: "Hauetz erran zuen Juvenalek: non habeat mulier, quae tibi iunctare cumbit, discendi genus exce; mulier-en lekuan matrona jarri behar da, eta quae tibi iunctare combit-en orde, tibi quae iuncta recumbit irakurri behar da, exce hori etc. da [Satyrae, VI, 449-450].
- ** Bazterreko eranskina: "Hauen umetokia bero eta lehorra da, eta temperatura horretaz Galenok hau erran zuen: petulca esse (sic) et ad libidinem prona" [zirikatzailea eta haragikeriara makurtua da].
- 36 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua [LXVII eta LXIX, Opera, V, col. 216; Hippocr., 6.^o Epidem., 4.^a, 19, aipa. ed. 162 r.].
- 37 (Bazterrean) De sanguinis missionibus liburua [Opera, I, 175].
- 38 Hippokrates, Emakumearen izaeraz, I.

39 Aristotelese bere De anima-n (II, 414 a 32-35 eta 414 b 2-7) dakarren eskemari datzekio: elikamenak eta nahimenak, hau da, gizakia "mantentzen" edo "iraunarazten" duten ahalmenek era bereko objektuak behar dituzte.

[1594.EKO XVIII.A]

40 (Bazterrean) De semine I. liburua, XV. kap. [Opera, I, 1049 A-B].

41 (Bazterrean) Galeni, De semine I. liburua, XVI. kap [loc. cit. supra, 1049 B].

42 (Bazterrean) Hippokr., Epidem., II. liburua, 5. atala: et Aristotelis, 11.^a sectione, Problem., 34 [*bazterrean hauxe eransten du]: Tussis sedatio testium tumor et e contra. Hippo. 2. Epidem.

43 Galeno, De temperamentis, II, v (Opera, I, 55 B-C).

44 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 4 [bai eta De temperamentis, loc. cit.].

45 Quippe si totum corpus aequabiliter conditum sit, omnemque partium inter se competentiam in latitudine, longitudine et altitudine servet: potest utique aequabiliter attemperatum esse id corpus (Galeno, id., ibid. 56 D).

46 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua [LVIII, in Opera, V, 215].

47 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua [XLV, id. 211].

[1594.EKO XIX.A]

48 (Bazterrean) 5.^a sectione, Aphorism., 59 [cfr. Aristoteles, De generatione animalium, 747 a: hor gauza bera gomendatzen du, eta dirudienez orduko ohiko praktika arrunta zen.

49 Ekialdeko zuhaitz batetik ateratzen den baltsamu lurrintsua. Uharteren garaiko medikuntzan ohiko praktika zen emakumeei era honetako keztaketak gomendatzea, magina eta umetokiko minetarako.

50 (Bazterrean) Hippocr., De sterilibus liburua [VI, in Opera, 33. orr.].

51 (Bazterrean) De natura humana I. liburua, 11. iruzk. [ikus XIV-XVI. kapituluko 48. oharra].

52 (Bazterrean) 5.^a Aphorism., 62.

53 (Bazterrean) 5.^a Aphorism., 16 [Aforismo honetan ez da "bainurik" aipatzen; bai, ordea, beroak haragien nasaitasunari fabore egiten diola.

54 (Bazterrean) 5.^a Aphorism., 46 [Emakume oso gizen bat haurdun geratu ezinean baldin badabil, umetokiaren ahoa gantzak estutzen diolako da, eta ez da haurdun geratuko argaltzen ez den bitartean].

55 (Bazterrean) Alexandri Aphrod., I. liburua, Problem., [loc. cit., fol. 8. r].

56 (Bazterrean) Galenorengan oinarritzen da, beronek pasarte batzuetan burmuina eta barrabilak elkar lotzen dituelako (adibidez De semine, I, xvi).

57 Hautzaroko hezetasun gradu handia kontutan izanik (cfr. adibidez, Galeno, De usu partium, XIV).

[II. ATALA] [1594.EKO XX.A]

58 (Bazterrean) Eklestias, VII, kap. [29]

59 (Bazterrean) De semine I. lib. XVI. kap. [Opera, I, 1051 D-1052 A: in testibus serosus humor continetur, ab eo nutriri ipsorum corpus manifestum est semen igitur efficiunt testes; id quod efficere etiam arterias et venas demonstravimus].

60 (Bazterrean) "Iraizkin hau Hippokratesek vehiculum alimenti deitzen du. De alimento lib. [XII, in Opera, col. 144; hor, egia esan, Humiditas alimenti vehiculum est dio].

61 (Bazterrean) "Kaba zainean besterik ez zuen landatu, eskuineko giltzurrunaren ondoan, horrela gazura beroago eta gizonezkoaren sortarazpenerako egokiago izan zedin".

62 Galeno, De usu partium V, xiii.

63 De semine, I, xvi.

64 Bere adiera etimologikoan, berez "haragikoi, likits" esan nahi baitu.

65 Ikus Valverde, op. cit., III eta IV. liburuak.

66 Beharbada Uhartek aurrean Hippokratesen Sorkuntzaz tratatua (VIII, 478) zukeen, autore hori baita hazi bi horien bisexualitatea onartzen duen lehenbizikoa.

* Bazterreko eranskina: Hipp. lib. De superfaetatione, inquit, ligato teste sinistro, generatur vir, et dextro, faemina [Littre, VIII, 500]. Kontzepzio anatomiko oker batek (umetokia adarbikoa dela, Littre, VII, 540) eta fisiologia arloko beste faltsukeria batek (hilabeteko odola umetokiaren ezkerreko edo eskuineko aldetik etor daitekeela: V, 116 eta 344) oinarria eman zioten Hippokratesen uste zahar eta mitikoari, hots, emetasuna ezkerrean eta artasuna, aldiz, eskuinaldean dautzalako bereizkuntzari (Lain, La medicina hipocrática, op. cit., 123. orr.); ikus, halaber, R. Joly, Le niveau de la science hippocratique, Paris, 1966, 64-69. orr. Maskulino-femeninotasunaren uste hau, azken autore honek azaltzen digunez, pitagorikoen zirkuluan (D.-K., 58 B 5) eta joniar pentsalarien artean (Parmenides, D.-K. 28 B 17, Anaxagoras, D.-K., 59 A 107) doktrina "fisiologikoa"ren mailara igonarazi zen. Hippokratesen beste tratatu batzuetan ere gisa bereko ideiak aurkitzen ditugu, Aforismoetan adibidez: (IV, 550).

** Bazterreko eranskina: Taxatur Arist., qui apellavit mulierem mareum occasionatum, ex eo quod semper fit et errore et non intento a natura ["Aristotelesi aurpegiratzen diote emakumeari "gizakume zapuztua" erraitea, Naturak beti errakuntzaz sortarazten baitu, eta ez berariaz"].

67 (Bazterrean) De sanguinis mission. liburua.

68 Gaztelaniazko jatorrizkoa: "Nazca mi hijo varón y sea ladrón".

69 (Bazterrean) Ecclesiast., XLII. kap. [14: "gizon gaizki-egilea hobe da, ezen ez ongia egiten (...) duen emaztekoa"].

70 (Bazterrean) De cibis boni et mali succi liburua, III. kap. [Opera, I, col. 1176].

71 Frankolina eperraren neurri eta antzeko basa hegaztia da.

72 (Bazterrean) De salubri dieta II. liburua, 2.[eta 36.] iruzk.

73 (Bazterrean) De legibus 2.a [Politeia, 674 a].

74 (Bazterrean) De aere, locis et aquis [XXI-XXII].

75 Hippokratesek bere tratatuan (XXII. kap.) diozen hitzak argigarriak dira: "Nik, halere, zinez uste dut akats hau [ezintasuna eta homosexualitatea] Jainkoagandik datorrela, gainerako guztiak bezala, baina ez besteak baino gehiago; eritasun guztiak berdinak dira, eta guztiak, azken buruan, Jainkoagandikoak: nolana ere, guztiek dute beren oinarri natural berezia eta bat ere ez da gertatzen Naturaren ordenaren aurka". Hortaz, medikuak ez du ukatzen jainkoek gizakiengan duten eragina, baina bere iharduera tekniko profesionalean, ez da urruneko kausa filosofikoez arduratzen, hurbileko kausa zuzen eta naturalaz baizik. Eritasuna, hortaz, gizakiaren physis-a physis unibertsal edo "ororen indarra"ren pean meneraturik gelditzean gertatzen da. Hor behialako jainkoen borondate arkaiko eta mitikoa arrazionaldu eta kosmologizatu egin da Naturaren "ororen indar" horren itxuraz (dynamis tou holou).

76 Antzeko deskribaketa eskaintzen digu Benjamin Tuterakoak XII. mendean Byzantioko hiritarrez, hauek, Hippokrates bezala, grekoak izan arren: "Halere, gudurako adorerik ez dute eta, hori dela eta, barbaroak deitzen diren herri jentil guztietatik merkenariak biltzen dituzte, turkoak deritzen turkomanen errege den Mas`ud sultanaren aurka borrokatzeko; horregatik oldartzeko indarrak ez duten emagizontzat hartuak dira bizantiarrak". Benjamin Tuterakoa, Bidaien liburua, Iruñea, 1994, 72. orr.

77 De aere..., XII; baina mintzaldi honen estilo zuzena eta azken zatia ("hazi bero eta lehorra" egitea, alegia) ez dira tratatu horretan.

78 (Bazterrean) Exodi, I. kap. [10: "Zatozte, zuhurki egiteko zapa dezagun [Israelgo herria] popula dadin beldurrez: eta gure gainera gerla bat heldu bada, bat egin dadin gure etsaiekin, (eta gu garaiturik ilki dadin Egiptotik)"].

79 (Bazterrean) Exodi, I. kap. [12: "Baina zenbatenaz zapatuago, eta hanbatenaz populatzen eta berretzenago ziren"].

80 (Bazterrean) "Barazkiak eta jaki ahul guztiak bizia laburtzen dute" Hippo., 5.º Epidem., 5. zatia, 21. iruzk. [Uharteren aipu hau ez da zehatza: berak adierazten duen kontzeptua II,4.a 3 eta VI, 4.a 11etan aurkitzen da; toki biotan Aenos-ko bizilagunei, beti lekariak jaten zituztelako, "zangoak flakutzen zitzaizkiela" diosku. Uhartek dioena, hots, "bizia laburtzen dutelakoa", espeziearen edo nazioaren biziaz ulertu beharra dago, berberak beheraxeago argitzen duenez.

81 (Bazterrean) 5.ª sectione, Problem., 31.

82 Garai hartan Hektika edo Hetika tuberkulosiari esaten zitzaion, hortaz, hektiko edo hetikoak biriketako eriak ziren (cf. Axular: "Zeren nola baita Hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuilluz edo baizen...", Gero, Bordele, 1643, 95. orr.).

83 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XLVI. kap. [Opera, V, 212: "Oso umekorra da eta animalia berehala bultzatzen du sexu elkartzera, kitzikatzen, erasotzen eta lizunkeriara makurtarazten du"].

* Bazterreko eranskina: Cur omnes qui humore prolifico vacant, mulieres et eunuchi, vocem redunt acutam? 2.ª sect., Probl., 34 ["zergatik isurki ernalkorrik ez dutenek, hala nola haurrek, emakumeek eta irenek, ukaiten dute ahots zorrotza?"; bazterreko ohar hau ez dator inondik ere kontura, baina jadanik Bilboko edizioan 1580an agertzen da].

84 (Bazterrean) 5.ª sect., Aphor., 43 (izan, 42.a da eta honela segitzen du: "emakumea badakar, kolore txarra").

85 Hilabete hitzarekin hemen "hilekoa", "hilabetekoa" esan nahi du.

86 (Bazterrean) Levit., XII. kap. [2 eta 5].

87 (Bazterrean) Purgatio diuturnior est in faemella quam masculo; in faemella fit in quadraginta duabus diebus, in masculo in triginta, ut tardissime, contingit. Hippocr., De natura fetus liburua [XIV; Opera, 40: "Haurregitondoa luzeagoa da emeaz erditu denean, gizakumeaz erditu denean baino; emearen kausan berrogeita bi egunez dirau, eta gizonezkoaren kasuan hogeita hamar, gehien dela"]; 3.º Ep., 3. zatia, 75. iruzk.

88 (Bazterrean) De semine liburua, VI kap. [Opera, I, 1035 B].

89 (Bazterrean) De semine I liburua, V. kap. [Id., 1065 C: Ita etiam ex testibus, quibus crassior dexter est, et prior in coitu inflatur, ii mares procreant: quibus est gracilior, posteriorque intumescit, ii foeminas gignunt; lerro batzuk beherago Uhartek aipatua].

90 (Bazterrean) 5.ª sectione, Aphorism., 48 [Litré, Iv, 549; id. Epidemiak, VI, Litré, V, 290 eta 312].

91 Hippokrates, De generatione (Litré, VII, 480-482). Tratatuaren atal honen helburu nagusia gurasoengandik seme-alabenganako antzak aurkitzea da, hots, karaktere heredagarrien transmisioa.

92 (Bazterrean) De fetuum formatione [Opera, I, 1009]; et Hippocr. De genitura lib. [loc. cit. aurreko oharrean].

93 De generatione animalium, 747 b.

94 (Bazterrean) 5. Aphorism. 51.

95 (Bazterrean) 5. Aphorism. 61.

[III. ATALA] [1594.EKO XXI.A]

96 Uhartek, medikuntza-astrologia binomioa gaitzesten badu ere, ez du ukatzen, ordea, astroek, zeharka bederen, pertsonengan nolabaiteko eragina ukan dezaketela.

97 arimaren ohiturak: "jokabideak, karakterea, berezko jeinua"; ez "bigarren izaera"ren adieran (cfr. Ciceron, De finibus, V, xxv, 74), "herentzi karaktereen eskuratzea" gisa baizik.

98 (Bazterrean) II. liburua De sanitate tuenda [Opera, II, 18 B].

* Bigarren edizioan eta arnasketaz kendu zuen. Puntu honetatik aurrera eranskin oso luzea gehitu zen. Ageri denez, suari buruzko eztabaida eskolastiko bat da, eta ez du zer ikusi zuzenik Argimenen azterketa-rekin. Agian Uhartek apart argitaratu nahi zuen, baina, edonola ere, autorearen borondatez edo haren semearen erabakiz, 1594.eko edizioan tartekatu zen. Hori dela eta, beste erdal edizio batzuetan bezala, euskarazko honetan ere kapitulu honen bukaeran ezarri dugu (ikus 309. or.).

99 Galenoren baiezen hau zenbait lekutan agertzen da, baina azalpenik zabalena obra honetan ematen du: De elementis, I.

100 Kontraesanean ari da hemen Uharte, aipaturiko eranskinean sua ez zaigula arnasbidetik sartzen esan duelako.

101 (Bazterrean) Quod animi mores liburua, X. kap. [Opera, I, 1006 B].

102 (Bazterrean) De semine I. liburua, XVI. kap.

103 (Bazterrean) 1.^a sectione, Problem., 13.

104 (Bazterrean) De alimento liburua. Principium alimenti, os, nares, guttur et cutis universa [I, ii; Opera, 142: Ahotik, sudurretik, eztarritik eta azal guztitik elikatzen gara"].

105 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 5.

o Ekialdekoari B₂.

106 (Bazterrean) 26.^a sectione, Problem., 31 [egia esan, 33. zenbakia da]. Azken epitetoa Homeroren Odisea-koa da, IV, 567.

107 Ikus, adibidez, Aristotelesen De partibus animalium, II, iii.

108 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII. kap. [Opera, V col 206].

109 (Bazterrean): I. Liburua De alimentorum facultatibus, cap. II.

110 (Bazterrean): Quidquid obtuleris sacrificii, sale condies [Levitikoa, II, 13: Sakrifiziotan eskainiko duan guztia gatzez ondu beharko duk] Accipe sal sapientiae [Marko, IX, 50: Euzue zeurok baitan gatz]. Vos estis sal terrae [Mat. V,13: Zuek zarete lurreko gatz].

* Hemen, lehenago suarekin gertatu bezala, bigarren eranskin bat hasten da, gatzari buruz oraingoa, kapitulu honen bukaeran jarri nahiago ukan duguna (ikus 325. or.).

111 Ohartzekoa da nola erlazionatzen dituen elementuen koalitate "naturalak" ahalmenaren izaerarekin: likinak edo itsaskorrak, adibidez, oroimenean gauzak "lotu" edo "atxikitze" balio du.

112 (Bazterrean)" Ohar hadi gizona librea dela eta bere obren jauna: Deus ab initio constituit hominem et reliquit illum in manu consilii sui. Eklesiast., XV. kap. [14: "Jainkoak hastapenetik egin izan zuen gizona, eta utzi zuen egitera iruditzen zitzaionaren arabera"]; nahiz eta bere tenperatura txarraz narritua den.

** Hemen hirugarren gehipen handia dator eta, aurrekoen antzera, beste lan baterako idatzirik dirudi; era berean, besteetan bezala, kapituluaren bukaeran jarria da, eranskin gisa (ikus 329. or.).

113 (Bazterrean) III. liburua De aliment. facult. cap. II [Egia esan, I. kapitulua, Opera, II, col. 173].

*** Bazterrean hau gehitzen du: "Hauez erran zuen Aristotelesek: bonum est illud ingenium quod bene dicendi obedit. Lib. II Hecti ["Argimen ona da ongi diotsonari kasu egiten diona"].

114 Gogoan izan XIII-XV. kapituluan esanikoa: "mirariz ez bada, ez direla gizon hagitx egitanditsuak, edo zientzia eta armetarako argimen handikoak, agertzen, herrixka edo baserri leketan jaio gabeak, eta ez hiri handi-handietan". Itxurazko kontraesan hau esaldiaren azken zentzua kontutan hartzean ezerezten da: argimen handiak baserrietan jaiotzea gauza harrigarria da; halere, ia argimen harrigarri guztiak handixek jaiotzea dira. "Guztiak dorpe eta zakar" direla esatea orokor hutsa da, baina ez du salbuespena

bazterzen. Aipaturiko XIII-XV. kapituluaren horren adibide bat jartzen du: Jesu Kristo Nazareten jaiotzea, alegia.

115 Erdal testuak comer leche dakar. Euskaraz ere, freskagarri moduan barik, elikatzeke hartzen denean, esnea jan esaten da. Halaxe zetorren, kasu, Tx. Agirreren Garoaren jatorrizko testuan, horren berri ez zekien norbaitek hura esnea edan gisa "zuzendu" arte.

116 (Bazterrean) De cibis boni et mali succi, cap. III[Opera, I, col 1176: Caprinum inter caetera lactis genera moderata se habet... (nunc vero id tantum referre sit satis) caprinum lac sine melle sumtum periculosum esse. Plerisque enim, qui purum illud hauserunt, coactum est in ventriculo, in speciem casei; quod quidem quum accidit, mirum est quam aggravet hominem, ac strangulet].

117 Beraz, jaki horrek lau elementuak "orekaturik" dauzka. Uharte hemen, ahuntz-esnea gorestean, argudioa aldeztatik prestatzen ari da, geroago irakurleari Isaiaren pasarte bat ("eztia eta gurina janen ditu") aipatzeko: hori liburuaren azkenean berraipatuko du, Jesu Kristok bere haurtzaroan ukan zuen elikadura aztertzen duenean.

118 (Bazterrean) 10.^a sectione, Problem., 10.

119 Uhartek gaizki interpretatzen du hemen Aristotelesen testua (cfr. adibidez Historia animalium, VII, vi, 11 eta De generatione animalium, I, iv, 1 eta 3). Izan ere, grekoak ez du inon esaten hazia burmuinetik datorrenik; aitzitik, horren iturria odolean dakusa.

120 (Bazterrean) Genesis, XXX. kap. [32-42].

121 (Bazterrean) "Aristotelesek berak aitortzen du". De anima II. liburua [iv 415 a 20-25 eta 415 b 5].

122 Gizakiak, beraz, arima begetatiboa (scala naturae osoaren mailarik behearena), landare eta animaliekin konpartitzen du; animaliekin, gainera, sentimenezko arima, eta aingeruekin, aldiz, arrazionala (cfr. Aitzinsolasa Irakurleari, 8 oharra).

123 Vide supra, 92. oharra.

124 (Bazterrean) In pueris membrorum discretio longissima contingit in faemina in quadraginta diebus, in masculo in triginta; paulo brevior tempore aut paulo longior, articulatio in ipsis contingit. Hippocr. De natura fetus liburuak.

125 Uharteren adimen bikain eta umore oneko adibide hau gora-behera, bi mende geroago Hervás y Pandurok bere Historia de la vida del hombre-n (Madril, 1789-1799), irudipenek giza munstroen sorkuntzan izan dezaketen eragina aipatzen zuen oraindik, Jakob eta ardiaren exenplua bera ere kontura ekarri.

126 (Bazterrean) De aere, locis eta aquis liburuak [XIX].

127 (Bazterrean) Alexand. Aphrodisii, I. liburua, Problem., 27 [loc. cit., 8. fol. r].

128 (Bazterrean) Alex. Aphrod., Problem., 28 [ibid.].

129 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 15 [eta 16].

130 Salustio, In M. Tullium Ciceronem invectiva, III, 5. Historialariak ironiaz pedes fugaces "oin iheslariak" izengoitia ematen dio, eta ondoren Juvenalek ere transkribatu zuen Ciceronen bertsoa aipatzen du (ikus VIII-X. kapituluaren 16. oharra), poesia txarraren eredu gisa: Atque is cum eius modi sit, tamen audet dicere: "O fortunatam natam me consule Romam!"

131 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [86 c-d].

132 (Bazterrean) In Sophista [Uhartek dioenarekin antz handiena duen Platonen pasarte Gorgias, 480 b da].

133 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 30 [egia esan, 31 da].

134 (Bazterrean) De semine I. liburua, VII. kap. [Opera, I, col. 1039 A: Haec semina inter se membranulis copulentur, quas scilicet foemineum propria sua progressionem tunc effecit semen; ut totum genituram complexum hunc usum foetui exhiberet, virilique esset alimentum: tenuius enim ipso cum sit, et frigidus, accomodatius ad alimentum praestandum quam quippiam alius est].

- 135 Aristotelesen De anima-ri jarraikiz (415 a 27-29), "beteginak" "osoak diren eta berezko sortzapenik ez duten [bizidun]ak dira".
- 136 (Bazterrean) De semine I. liburua, XV. kap. [cols. 1047 D-1048 A: Testes vero cum superiore sede collocati sunt et ex distantia satis convenientem seminariis vasis longitudinem exhibuerunt, et ex calidiorum viscerum propinquitate id consecuti sunt, ut celerem semini generationem praestent].
- 137 (Bazterrean) De semine II. liburua, XVI. kap. [col. 1068 B-C].
- 138 (Bazterrean) De genitura liburua [VI-VII eta XXXI; Opera, 34. orr.].
- 139 (Bazterrean) 4.^a sectione, Problem., 15 [16].
- 140 Sexu harremanetako atsegina, beraz, premiaztat jotzen du (cfr. Aristoteles, De generatione animalium, I, x-xv eta xxii). Antzeko iritzia zuen Axularrek, haragizko bekatuak pertsonak zergatik horrenbeste tiratzen dituen justifikatzeko: "Hala bada Deabruac ere emaiten dio becatuari cenbait atseguin eta placer, cenbait bazca eta goçotasun, ez eman nahiz, ez atseguin sari, baina ceren bertcela ecin engana baiteçaque beccatorea eta ez atrapa". Gero, 512.
- 141 (Bazterrean) De semine I liburua XV. kap. [loc. cit. col. 1048].
- 142 (Bazterrean) Ut est semen in mulieribus humidius, ita est etiam frigidius. Galeni, 6.^o De locis [affectis], V. kap. [Opera, II col. 960].
- 143 (Bazterrean) Erran Zaharrak, X. kap. [1: "Aitaren bozgarri da seme zuhurra; seme zoroa, berriz, bere amaren hiragarri"]].
- 144 Eta adin honetatik aurrera nerabezaroa hasten delako, eta hor gizona "gehiegizko" hezetasuna galtzen hasten da. Ikus Hippokrates, Aforismoak, V, vii ("Nerabezaroa baino lehenago sorturiko epilepsia sendatu egin ohi da, hogeitabost urteren ondoren jotzen duenak hil arteraino iraun ohi du") eta Galenok haiez eginiko iruzkinak (III, xxvii).
- 145 Aetas consistendi laugarren adina da (hogeita hamarretik berrogeita hamarreraino). Ikus Galeno, Com. supra Aphorism. Hippocr., I, xiii; Hippokrates, De victus ratione, I.
- 146 (Bazterrean) Fames enim exsiccat corpora. Galeni. 2.^o Aphorism., com. 16 [Opera, IV, col. 574; Hippokratesen Epidemiak II-ra bidaltzen du].
- 147 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [86].
- 148 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua [XLVI; Opera, V, 211].
- 149 Era pitxi honekin azaldu nahi zuen Uhartek, Mendel-ez gero, genetika modernoak aurkituriko karaktere nagusien transmisioa, garai hartan herentziaren legeak erabat ezezagunak izanik.
- 150 Pintzelaz pintatu: "bikaintasun osoz, xehetasunez egin".
- 151 (Bazterrean) 5.^aAphor., 45 ["Indarrez ondo dabilen emakumeak besterik gabe haurra bigarren edo hirugarren hilabetean galtzen baldin badu, umetokiko mintzak mukiz estalita dauzka, eta, umekiaren pisuari eutsi ezinez, eten eta askatu egiten zaizkio"].
- [IV. ATALA] [1594.EKO XXII.A]
- 152 (Bazterrean) Zuhurtzia, V. kap. [13: "Hala gu ere sortu bezain sarri izatetik gelditu gara"]].
- 153 Galeno, De temperamentis, III, i (Opera, I, col. 65 C).
- 154 (Bazterrean) De natura elkarrizketa [44 d].
- 155 (Bazterrean) De cibis boni et mali succi liburua, III. kap.
- 156 "Antzekoak antzekoa elikatzen eta sortarazten duela" dioen axioma fisio-psikologikoarekin bat: horrela, argimenaren zolitasuna jakiaren zati sotilen asimilaziotik datorke (cfr. adibidez, Hippokrates, De carnibus, Littré, VIII, 584 eta hurr.).
- 157 Butiroso: "behi-gurina" esan nahi duen lat. butyrum, grezierazko boutyron (? ? ? ? ? ? ?)-etik sorturiko adjektiboa, "koipetsu" alegia.

- 158 (Bazterrean) Iliada, 10 [azken lerroan, 579an, eztiarekin nahasiriko ardoaz mintzo da; aurrekoan olioaz, baina gantzutzeko, ez jateko].
- 159 (Bazterrean) De aere, locis et aquis liburua [VIII]; De salubri dieta liburua, 13. iruzk.; 6.º De epidemiis, 5. zatia Aphorism., 9.
- 160 (Bazterrean) Hippokrates, De ulceribus [II, Opera, 556. orr.]; Aristoteles, 14.^a sectione, Problem., 9.
- 161 (Bazterrean) Hippokrates, De dieta II. liburua [57]; De glan Edulis I. liburua, IX. kap. [in Opera, 70. orr.].
- 162 (Bazterrean) 6.^a Aphorism., 16 [egia esan, 5.º sectione da (Litré, IV, 537)].
- 163 Pasmatu: medikuntza-adieran ulertu behar da, hau da, "izpirituen mugimendua gelditzea" eta, beraz, "gorputzaren edo beronen atal baten garapena gelditzea".
- 164 (Bazterrean) De salubri dieta, 6. iruzk. [Litré, II, 254. orr.].
- 165 (Bazterrean) De sanitate tuenda I. liburua [Opera, II, col. 19 C].
- 166 Hots, ezingo litzateke libratu barruko su eta pneumatik, ez eta kanpokoak asimilatu ere: giza gorputzaren bi ahalmenik gabe geldituko litzateke (tractrix "erakarmena", eta segregatrix "egozmena", alegia). Cfr. De temperamentis, loc. cit. supra, 153. oharra.
- 167 (Bazterrean) De aere, locis et aquis liburua [XII].
- 168 (Bazterrean) 14.^a sectione, Problem., 12 [hor ematen den azalpena hauxe da: ur geldiak, usteltzean, kolorea zurbilarazten du; dabilen urak, ordea, beltzarandu egiten du].
- 169 ["Bere biziari on deritzanak galduren du hura mundu honetan", Joanes, XII, 25 (ez ordea, hitzez hitz)].
- 170 Mentura txarrean: egoera txarrean, alegia.
t kalte hitza dator Iruñeko, Valentziako eta Huescako edizioetan.
- 171 (Bazterrean) Semel comedere, duriter cubare, nudusque ambulare ["(Egunean) behin jan, ohe gogorrean lo egin eta biluzik ibili"] Hippokr., De salubri dieta liburua [loc. cit. supra].
- 172 (Bazterrean) Celsus, II. liburua [Medicine libri octo, Lyon, 1554, II, iii: Quae bona in egrotantibus signa sunt, 10 fol. 10 r.].
- 173 (Bazterrean) 1.º Aphorism., 3 [Id., De alimento, 35]. "Atletiko" deitura hau atletengan oreka fisiko handiena (euexía ? ? ? ? ?) agertzen delako adieran ulertu beharra dago, eta horretan edozein aldaketa arriskugarria litzateke.
- * Ofizio Sainduak hemendik liburuaren azkenerainoko zatia moztu zuen, horretan egileak Kristoren temperamentua azaldu nahi izateari barka ezineko ausarkeria iritzirik, nonbait.
- 174 (Bazterrean) Ezequielis, XVI kap. [4: "Sortu haizen egunean, heure sortegunean, ez dinat zilkoa ebaki; ez haute heure salbamendutan urez garbitu, ez gatzez gazitu, ez xatarrez inguratu"].
- 175 (Bazterrean VII. kap. [15: "Gurinez eta eztiz haziko da, jakin dezan txarretik hastantzen eta ona bereizten"].
- 176 ut horren esangurak interpretari askoren ardura bereganatu zuen. Hirurogeita hamarrek grezierara "(jakin) baino lehenago", "(jakin) artean" itzuli zuten. Geroago itzultzaileek "(jakin dezan) arte", "horrela (jakin deza)n", "jakiteko" gisako adierak eman zituzten. Uharteren ustez, "jakin dezan" moduko itzulpenek (Duvoisinek ere halaxe eman zuen euskaraz 1859-1863ko edizioan) ezin gaituzko eragozpen teologikoa ezartzen zuten, hortik Jesu Kristo bere lehen urteetan ergela izan zelako ondorioa atera baitzitekeen. Gaurko eskriturista katolikoek "azalpen" kutsua aurkitzen diote ut horri: "jakin behar duenaren antzera" alegia, hebrearrek hala ezaririk grekoek hazkurri hori beren seme-alaben adimena azkartzeko zerabilteela zekitelako.
- 177 Elementatua: "lau elementuen partaide", alegia.

178 Gogoan izan euskal atsotitz ezagunak: "umeen zentzuna etxean entzuna" edo "zer ikusi hura ikasi".

179 (Bazterrean) "Done Tomasek Kristorengan hirugarren zientzia ezartzen du eta endelegu agentearekin erdietsia deritzo. 3. zatia, quest. 10. arg. 4; eta quest. 12, arg. 2".

180 (Bazterrean) Lucae, II. kap. [52: "Eta Jesus aitzinatuz zihoan zuhurtzian, adinetan eta grazian, Jainkoaren eta gizonen begietan"].

181 Ikus gorago V-VIII. kapituluko 14. oharra eta VI-IX.eko 51.a.

182 (Bazterrean) Artis medicinalis liburua, XII. kap. [III-VI. kapituluko 15. oharra].

183 Argi dago azken iritzi hau Kristo gizonari doakiola, horrekin haren beste natura jainkozkoa ukatu gabe. Inkisizioak, ordea, ez zuen hor ere amore eman.

* Lauda bedi Kristo betikotasunean.

Suari buruzko eranskina

1 Eranskin hau, funtsean, kanpoko suari lehentasuna ematen dioten teorien eta, bestetik, plano makrokosmikoan, eta beraz, mikrokosmikoan ere, kosmogonikoki ezberdintasunik egiten ez delako, barneko suaren existentziaren premia azpimarratzen dutenen inguruan ari da. Osagarri gisa, pneuma edo arnasaren doktrinaz mintzo da, bai munduan eta bai gizonaren baitan ere; eta aldaketa-ihardupideez ere bai, eta, hortaz, biziaren nahitaezko segidaz (sorkuntza, ustelkuntza eta eraldaketa). Lehen jarreraren argudioak Aristotelesen De caelo eta Meteora-tik datoz, eta Galenoren eta Aristotelesen eskuetatik iragaziriko Sokrates aurreko zenbait autorerengandik. Bigarren jarrera (eta Uharte honi datzekio) Hippokratesen medikuntza-doktrinatik dator, Sokratesen aurreko beste autore batzuegandik, Aristotelesen De generatione et corruptione-tik eta Galenorengandik, bai, halaber, Bibliatik ere.

2 Galeno, gauza askotan eklektikoa izanik ere, oro har, Anaximandrori darraio. Honek "lurra inguratzen duen airearen inguruan suzko esfera bat" dela dio, eta horrek "lurra, azalak zuhaitza bezala, inguratzen duela" (D.-K. 12 A 10). Sokratesen aurreko filosofo horrek, ordea, ez dio lehentasuna ematen ezein elementu bereziri eta halako "justizia kosmikoaz" mintzo da, "dena gobernatuko lukeena" (D.-K. 12 A 9; antzinako kosmologiarako, ikus Ch.H. Kahnn-en lan garrantzitsua, Anaximander and the Origins of Greek Cosmology, New York, 1960). Edonola ere, filosofo horren kosmogonian suak eskuhartze erabakigarria du: eratu ondoren, suzko bola horrek leher egin, lurrunez inguraturiko zirkulutan zatitu eta zeruko gorputzak eratzen ditu. "Zeruko gorputzak, dio Anaximandrok, munduko sutatik banaturiko suzko zirkulu gisa sortzen dira, aireaz inguraturik" (G.S. Kirk, J.E. Raven eta M. Schofield, Los filósofos presocráticos, Madril, 1987, 200. orr.).

3 Hau da Aristotelesen Deus et natura nihil faciunt frustra (De caelo, I, iv).

4 (Bazterrean) De flatibus liburua [V. kapitulua, 105. orr.). Hippokratesen testu hauetan Sokratesen aurreko filosofoen oihartzun garbia nabari daiteke. Izan ere, pneuma-ren teoria eskuarki Kos-eko mediku honi zor zaiola uste izan arren, Anaximenes miletoarrak lehenago ere bazioen "arnasak eta aireak mundu osoa inguratzen dutela, gure arimak, berez arnasa denak, mantentzen gaituen bezala" (D.-K. 13 B 2). Horrekin esan nahi du, gizonaren eta munduaren arteko analogia eginez, hots, mikro eta makrokosmoaren artean, gizonen biziaren hastapena pneuma dela, hots, arima-arnasa, makrokosmoan haize gisa agertua; hortaz, munduaren bizi-hastapena pneuma da, eta haizea, arnasa edo airea gauza guztien bizia eta substantzia dira.

5 (Bazterrean) De ortu et interitu II. liburua [xiv, 474 b (De iuventute et senectute, de ortu et interitu).

6 Litekeena da Aristotelesen De caelo-z (III, v, 304 a) aritzea. Cfr., halaber, Empedokles (D.-K. 31 A 30 eta 56). Antiparistasirako, ikus VIII-X. kapituluko 40. oharra.

7 (Bazterrean) "Hemen sukariaren sua sartu behar da, horrek argitzen eta erretzen du eta".

8 Cfr. adibidez, Heraklito (D.-K. 22 A 15), edo Hippokrates, De carnibus, II.

9 Hau da, "nahastura nahastuen aldaketarekin".

10 Ikus gorago 5. oharra. Pixka bat beherago De gen. et corrup.-z ari da (II, viii, 334 b).

11 Bentosa medikuek erabiltzen zuten beirazko tresna bat zen, behera begira jarririko kopa baten antzekoa, goian lepo hertsia zeukana. Barruan sua pizten zen eta, behin berotu eta gero, eriazen azalean aplikatzen zen, barruan omen zuen gai kaltegarria kanpora zekion.

12 Zenbait lekutan: Fisika, VIII, 252 b; De partibus animalium, 641 b; De caelo, 288 a, etab.

13 Baliteke De caelo, I, 270 b aipatzea. Edonola ere arrazoiketa hori De gen. et corrup. gorago aipatuan ageri da (10. oharra).

14 Cfr. adibidez Empedokles (D.-K. 31 A 30).

15 Su potentziala: "su kaustikoa", hau da, mineral, landare edo harri erregarrien suzko bertutea.

16 (Bazterrean) IV Meteor., VII.

17 De caelo, II, 284 a.

18 Erdi Aroko uste komuna zen tximista harri bat zela -gogoan izan euskarazko tximistarria- eta lurra jotzen zuenean lurtean zazpi estadiotan barneratzen zela, handik aurrera, urtez urte estadio bat gorantz eginez. Hori zela eta, tximistak jo zuen lekuan, zazpigarren urtean harri hori aurkitu behar zen. Eskuarki tximistarri sukarrizko harriei esaten zitzaien, harri-aroko aizkorak barne. Sukarriak burdinaren kontra jotzean ematen dituen suzko txinpartak bere jatorrizko tximistasunetik zetoziola pentsatzen zen.

19 Aipamen honek pentsarazten digu Uhartek Argimenen azterketa ez bezalako tratatu berezi bat idazteko asmoa zuela, eranskin hau eta hurrengo biak kapitulu gisa prest zituenez gero; azkenean, baina, hirurak bildu eta pasarte edo gehipen gisa aurkeztea erabaki bide zuen.

20 Aristotelesek pitagorikoei buruz, eta Filolao Krotonakoaz bereziki, honela dio (De caelo, II, 293 a): "uste dute ez duela Lurrak esferaren erdia betetzen, zeruak baizik. Pitagorikoei beste arrazoi bat gehitzen dute: munduaren alde garrantzitsuena, hots, erdia, ahalik eta gehien zaindurik egon behar dela diote, eta toki hori betetzen duen erdiguneari edo, hobeki esan, "Zeusen gotorlekua" deritzote".

21 Uhartek, berriz ere, bere doktrina Bibliaren bitartez berretsi eta argitu nahi du.

22 Munduaren makina: esaldi honek, latinezko mundi machina-tik itzuliak, nafar idazlearen eta bere garaikoen kontzepzio naturalista eta mekanizista ederki adierazten du.

23 (Bazterrean) Mathei [XXV, 41: "Maradikatuak, parti zaitezte eneganik sekulako sura, deabruari eta haren aingeruei preparaturik dagoenera"].

* Esaldi hau bazterreko ohar honekin osatzen du: ... iudicare vivos et mortuos et saeculum per ignem.

24 (Bazterrean) Erran-Zaharrak, XXX [16: "Sua, berriz, behin ere ez dioena: Aski."]

25 Aforismoak, 1. atala, XV: "Neguan eta udaberrian urdailak bero handia izaten du berez". Galeno, honetan, Hippokratesi hitzez hitz darraio (Opera, IV, col. 556).

26 De anima, II, 414 b 7-16. Uharteren azken esaldiari ironia dario. Hor iradokitzen duenez, Aristotelesek hotzari eta beroari arima sentikorra ematen die, bata besteagandik iheska ari baitira, hots, "animali ezaguerarik" balute bezala.

27 Cfr. adibidez, De generatione et corruptione, II, ii-iii.

28 Anitz lekutan, adibidez, Metafisika, X, vii.

29 (Bazterrean) 3 [De] Simpl.[-icium medicamentorum facultate], 7.

30 (Bazterrean) De aere, locis eta aquis liburua [VII. kapitulua].

- 31 Ibid., VII.
- 32 Hau da, oinarrizko koalitate deritzon kategoria edo klasean.
- 33 De temperamentis, III, i (Opera, I, 65 C).
- 34 Ez da Aristotelesen aipamen hau aurkitu. Dena den, XIV. ataleko 4. problemaren antza du.
- 35 Hots, "goranzko" eta "beheranzkoa".
- 36 De placitis, VIII (Opera, 877, A).
- 37 Galenok "oinarrizko hezetasuna" aipatzeko darabilen kriseiluaren imajina maiz ageri da garai hartan. Cfr. Pero Mexía: "gizonarengan, haren bero naturalak zenbat dirauen, biziak ere hainbat irauten dio, horixe baita arima begetatiboak bere eragiketak egiteko darabilen tresnarik garrantzitsuena... Eta bero natural hau suaren izaerakoa denez eta beti gastatzen zerez elikatu eduki behar duenez gero, premiazkoa izan zen eta halaxe ezarri zuen Jainkoak haren konpainian medikuek oinarrizko hezetasuna deitzen dutena, eta nik hezetasun naturala deitua, eta horretan mantentzen eta elikatzen da sua kriseiluko olioan bezala (Silva, 4. zatia, II, 272. orr.). Ciceronek ere antzeko zerbait zioen (De senectute, XI, 36).
- 38 Bereizketa hau Aristotelesen De anima, II. vi. (428 a 1-26) liburuan aurkitzen da.
- 39 Hauxe da antzinako medikuntzan hainbeste aldiz aipatzen zen kilo famatua. Galenok honela definitzen du: in ventriculo autem solum generari chylum, quem non dicunt in genere alicuius illorum [i.e., ez da odola, ez gorroa ez behazun hori edo beltza] esse, sed dispositionem necessariam, quo humores fiant (De ratione victus in morbis acutis, XXX).
- 40 "Ahalmen naturaletarako", ikus Galeno, De temperamentis, III, i. Bihotza "metxa" (edo "gar") moduan, odola "olio" gisa eta birika "olio-ontzi" eran aurkezteko imajina hau jadanik Galenoren De usu partium corporis humani, VII, vii liburuan ageri da (Opera, I, 488 D-489 A).
- 41 Genesisia, I, 11 ["Lurra ekar bitza belar berdeak eta hazia emanen dutenak, eta zuhamu fruitu ekarleak, emanen dutenak zeinek bere motaren arabera"].
- 42 Galeno, De decretis, VI (Opera, I, 824 D-825 A).
- 43 Aristoteles, De generatione et corruptione, I, i, 314 a.; I, iii 318 b.
- 44 Joanes, XII, 24 ["Baldin ogi bihia lurrera eroririk hil ez badadi, hura bera dago"].
- 45 Honi buruzko pasarte hurbilena hemen irakur daiteke: Legeak, II, 656 D eta hurr.
- 46 Maneatua: "apailatua, gatz eta espeziekin luzaro gordetzeko prestatua".
- 47 Nasaikeria: "ehunen trinkotasunik eza" alegia.
- 48 De Natura humana, 39, eta Galenoren De usu partium, IV, vii.
- 49 Aristoteles, De gen. et corrup., 43. oharrean aipaturiko tokian.
- 50 De anima, II, 417 a 17-19; Fisika, III, 291 b 31 ["Mugitzen den guztiak beste bati zor dio mugitzea"].
- 51 Hau da, "zoritzea, egostea eta erretzea".
- 52 (Bazterrean) 4.a Meteor., III. kap.
- 53 Summa, I, q. 91, a. 1.
- 54 (Bazterrean) De civit., XIII. lib., XVI. kap.
- 55 Cfr. Timeo, 46 a eta hurr.
- 56 Exodoa, X, 21-22.
- 57 Caietano hau Tomas de Vio da. Aipaturiko iruzkina bere Divi Thome commentarii liburuan ageri dira (Venezia, 1531), zehazkiago, XLV. galdera, iii, c.2, a. 1 (96 v.-97 r.).
- 58 Genesisia, I, 2 ["eta Jainkoaren izpiritua [= "hatsa", "arnasa"] ekarria zen uren gainean"].
- 59 18. b. ["Haren hatsak joko du, eta urak turrustan joanen dira"].
- 60 De flatibus, V; ikus gorago 4. oharra.

Gatzari buruzko eranskina

- 1 Timeo, 60 d: "eta horri jainkoek maitaturiko gorputza esaten dio egokiro".
 - 2 Gauza jakina da Uharteren garaian, gauzak hotzetan edo bestelako eraz kontserbatzeko modurik ezaz, gatzak nolako garrantzi handia zuen.
 - 3 Mateo, V, 13 ["Zuek zarete lurreko gatzak, eta baldin gatzak gezat badadi, zerzaz gazituren da?"]
 - 4 Lukas, XIV, 34 ["[baina gatzak gezat badadi,] zerzaz gazituren da?"]
 - 5 ["Zeinek sendatuko du sendatzailea?"]
 - 6 Bost arrain eta bi ogien mirariak ari da: Joanes, VI, 9-13; Mateo, XIV, 13-21 eta XV, 29-38; Marko, VI, 31-44; Lukas, IX, 10-17.
 - 7 ["Oro har, gatz orok bera aplikatzen zaion gorputzaren substantzia berotzen, hertsatzen, idortzen eta trinkotzen du"].
 - 8 2 Erregeak, II, 19-22.
 - 9 Cfr. adibidez Meteora, I, iv; De ortu et interitu; II; De generatione et corruptione, I, i, 314 a.
 - 10 Aireez, uez eta lekuez, I-VII, XII-XV eta passim.
 - 11 De alimento, XII.
 - 12 Mojí kazola (esp. cazuela mojí) arabiar jatorrizko jakia, gatzaz, ogi birrinez, alberjiniak eta espeziez prestatua.
 - 13 Adarrea pisu neurri bat zen eta ontzaren hamaseirena balio zuen.
 - 14 Loc. cit., supra, 1. oharra.
 - 15 Platonek bere Timeo-n (90 a-b) gizakia zeruko landareztat aurkezten du, zutik eta gora begira; ez du, ordea, deus esaten bere elikadurari buruz.
 - 16 De placitis Hippocratis et Platonis, VIII (Opera, I, cols. 863 D-864 A). Era berean, De foetuum formatione-n ere aipatzen du (Opera, I, cols. 1012 D-1013 A): Plato [animam plantarum] adiunxit.
- Paradisuko zuhaitz debekatuari buruzko eranskina
- 1 Confectio sapientium honi eskaintzen dio Uhartek liburu honen azken zatia, XV(4)-XXII alegia.
 - 2 Hau da, "trebetasuna, jukutria, amarrua, maltzurkeria".
 - 3 III, 11 (beherago itzultzen du).
 - 4 Joseforen eta Nicola de Lira-ren pasarteak Alfonso de Madrigal, El Tostado Avilakoaren Commentaria in Genesim-etik ateratzen ditu zeharka (Veneziako edizioan, 1615, XI. lib.): Lignum scientiae... Iosephus dicit, quod sic vocabatur illa arbor; quia usum rationis accelerabat et acuebat (II, 25).
 - 5 Madrigal, loc. cit.
 - 6 (Bazterrean) Eklesiastes, II [3: "Ene bihotzean gogo hartu dut behar naizela ardotik begiratu, ene arima ekartzeko zehurtziara"].
 - 7 Aristotelesen tratatuaren I. liburua, i da. Edonola ere, hor el Tostado ez da hazkurriez edo eskualdeez mintzo. Dirudienez, Hippokratesen edo Galenoren tartekatze bat da.
 - 8 Vegetio, De re militari, III, iii.
 - 9 Genesis, III, 7; hitzez hitz ez bada ere ["Eta irekiak izan ziren bien begiak: eta oharturik biluzgariak zirela..."].

- 10 Uhartek Nemesio Emesakoaren liburuaren Amberesko edizioa ezagutu behar izan zuen (1565, latinez eta grekoz argitaratua); aipaturiko pasartearen haren aurkitzen da: Patr. Graeca, Migne, 40. liburukia, col. 515.
- 11 Esaldi honen esangura, noski, hauxe da: "ongia eta gaizkia jakitetik eta Jainkozko beste kontsiderazio batzuetatik urruntzea".
- 12 De alimento, VII.
- 13 Hippokratesen erran hau gorago aipatua dugu: XII-XIV. kapituluko 8. oharra.
- 14 Plutarko, XVII, ii. Pasarte eder honetan Marcelok "Geometriaren Briareo" deitzen du. Briareo berrogeita hamar buru eta ehun eskuko erraldoi hekatonkiroetako bat zen, Urano eta Gearen semea, titanen aurkako borrokan Zeusen alde borrokatu zuena.
- 15 Genesis, III, 11.
- 16 Adibide hau Ciceronek dakar (De officiis, I, iv).
- 17 Job, I,1.
- 18 2. oharrean aipaturiko tokian.
- 19 Lukas, XVI, 1-8.
- 20 Mateo, X, 16.
- 21 Seguraski Aristotelesengan oinarritzen da hemen Uharte. Cfr. Nikomakorentzako Etika, VIII, 1156 a 7-25.
- 22 ["...ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzak ez zuen izen hori bere izaeragatik hartu, geroago gertatu zenagatik baizik. Eta adiera hau hobesten dut"] Nemesio Emesakoa, loc. cit.

Bibliografia

Uharteren obrak ohi ez bezalako arrakasta izan du. Egileak hamar argitaraldi ikusi zituen bizitzan, bost gaztelaniaz, eta beste bost frantsesez eta italieraz. Hil ondoren ere beste hainbat hizkuntzatarara itzultzen segitu zen. Gaur arte 70 baino gehiago edizio izan ditu liburuak. Hemen aipagarrien berri ematen dugu.

Espainiar edizio zaharrak

a) Jatorrizko testua (B)

Edizio princeps-a: Examen de ingenios para las ciencias. Donde se muestra la diferencia de habilidades que ay en los hombres, y el genero de letras que a cada uno responde en particular. Baeza, Juan Baptista de Montoya, 1575.

Ondoko edizioak: Iruñea, 1578; Bilbao, 1580 (Iruñeko onespenik gabea); Valentzia, 1580, Huesca, 1581; Leyden, 1591; Amberes, 1593; Amberes, 1603; Leyden, 1652; Amsterdam, 1662; Brusela, 1702.

b) Testu eraldatua (B₂)

Examen de ingenios para ciencias, en el qual el lector hallará la manera de su ingenio para escoger la ciencia en que mas â de aprouechar. Y la diferencia de habilidades que ay en los hombres, y el genero de letras y artes que à cada uno responde en particular. Baeza, Jaun Baptista de Montoya, 1594.

Ondoko edizioak: Medina del Campo, 1603; Bartzelona, 1607; Alcalá, 1640; Madril, 1668; Granada, 1768.

Espainiar edizio berriak

Examen de ingenios para las ciencias. Ildefonso Martínez y Fernández-en edizioa, hitzaurrearekin, Madril, 1846 (Debekuaz geroztik, Espainian egindako lehenbiziko edizio osoa).

Adolfo de Castro-ren edizioa. Biblioteca de Autores Españoles, LXV. lib. Madril, 1873. Edizio berriak 1905, 1913, 1929, 1953.

Biblioteca Clásica Española, Bartzelona, 1884.

Federico Climent Ferrer-en edizioa. Biblioteca de Cultura y Civismo, Bartzelona, 1917.

Rodrigo Sanz-en edizioa, hitzaurre eta oharrekin. Biblioteca de Filósofos Españoles, 2 lib. Madril, 1930 (Edizio kritikoa ez bada ere, testuaren antolaketa fidagarria eta hitzaurre joria du).

Esteban Torre-ren edizioa, hitzaurrearekin. Editora Nacional, Madril, 1977 (jatorrizko eta eraldaturiko aldeak ongi bereizturik aurkezten ditu).

Guillermo Serés-en edizioa, hitzaurre eta oharrekin. Cátedra. Letras Hispánicas, Madril, 1989 (Orain arteko ediziorik hoberena eta zainduena).

Itzulpenak

Frantsesez

Anacrise, ou parfait jugement et examen des esprits propres et naiz aux sciences. Gabriel Chappuis-en Itzulp., Lyon, Estinne Brignol, 1580. Ondoren, Paris, 1588; Lyon, 1597; Rouen, 1598; Rouen, 1602; Rouen, 1607; Lyon, 1608; Lyon, 1609; Rouen, 1613; Paris, 1614; Paris, 1619; Paris, 1631; Paris, 1633.

L'examen des esprits pour les sciences. Charles Vion Dalibray-ren itzulpena (edizio princeps-ari eta eraldatuaren eranskin garrantzikoak gehituz), Paris, Jean le Bouc, 1645. Ondoren, Paris, 1650; Paris, 1655; Paris, 1661; Lyon, 1668; Paris, 1668 eta Lyon, 1672.

L'examen des esprits pour les sciences. François Savinien d'Alquié. Amsterdam, Jean de Ravenstein, 1672. Edizio hau Parisen 1675ean berrargitaratu zen.

Italieraz

Essame de gl'ingegni de gli huomini per apprendere le scienze. Camillo Camilli-k itzulia, Aldo, 1582. Ondoren, Venezia, 1586; Cremona, 1588; Venezia, 1590.

Essamina de gl'ingegni de gli huomini accomodati ad apprendere qual si voglia scienza. Salustio Gratii-ren itzulpena. Venezia, Barezzo Barezzi, 1600. Ondoren, Venezia, 1603; Venezia, 1604.

Ingelesez

Examen de Ingenios. The Examinations of Mens Wits. Camilo Camilli-ren itzierazko itzulpenetik Richard Carew-ek ingelesaratu. Londres, Adam Islip, 1594. Geroago, Londresen beste hiru aldiz argitaratu zen 1596, 1604 eta 1616an.

Examen de Ingenios, or The Tryal of Wits. Edward Bellamy-ren itzulp., Londres, Gray-Inn-Gate, 1698.

Latinez

Scrutinium ingeniorum pro iis qui excellere cupiunt. Itzultzailea: Aeschacius Maior (Ioachimus Caesar), Leipzig, In Officina Cothoniensi, 1622. Hau 1637an beste bi aldiz argitaratu zen (eta agian Vienan ere bai) eta Jena-n 1663an.

Nederlandez

Onderzoek der byzondere Vernuftens Eygentlijkke Abelheen. Henryk Takama-k itzulia. Amsterdam, Johannes van Ravensteyn, 1659.

Alemanez

Johann Huarts Prüfung der Köpfe zu den Wissenschaften. Gotthold Ephraim Lessing idazle ospetsuak doktorego tesi gisa itzulia. Zerbst, Zimmermann, 1752. Hurrengo edizio alemana Lessing-enean oinarriturik, Johan Ebert-ek egin zuen, Zerbst, 1785.

Bibliografi zerrendak eta obra

orokorrak

AGUILO Y LOBO, M., Documentos sobre médicos españoles de los siglos XVI al XVII, Salamanca, 1969.

ALONSO MUÑOYERRO, L., La Facultad de Medicina en la Universidad de Alcalá de Henares, Madril, 1945.

ALBERTI LOPEZ, La anatomía y los anatomistas españoles del Renacimiento, Madril, 1948.

BABB; Lawrence, The Elizabethan Malady. A Study of Melancholia in English Literature from 1570 to 1642, Lansing, 1951.

BOAS, M., The Scientific Renaissance, 1450-1630, Londres, 1962.

BRABANT, H., Médecins, malades et maladies de la Renaissance, Paris, 1966.

CLAVERIA, C. "Humanistas creadores", in Historia General de las Literaturas Hispánicas, Bartzelona, 1951 (berrinpr. Bartzelona, 1968).

CHINCHILLA, A., Anales históricos de la medicina. Historia de la medicina española, Valentzia, 1841-1846, 4 lib.; esp. I, 312-347. orr.

ESCUADERO ORTUÑO, A., Concepto de la melancolía en el siglo XVII, J.J. López Ibor-en hitzaurreaz, Huesca, 1950.

GALLARDO, Bartolomé J., Ensayo de una biblioteca española de libros raros y curiosos, 2. arg., Madril, 1968.

GARCIA BALLESTER, L., Historia social de la medicina en la España de los siglos XIII al XVI, Madril, 1976.

Los moriscos y la medicina. Un capítulo de la medicina y la ciencia marginadas en la España del siglo XVI, Bartzelona, 1984.

GRANJEL, Luis S., Bibliografía histórica de la Medicina española, I-II. lib., Salamanca, 1965-66.

Capítulos de la Medicina española, Salamanca, 1971.

El ejercicio médico, Salamanca, 1974.

Historia general de la medicina española, II: la medicina española renacentista, Salamanca, 1980.

Humanismo y medicina, Salamanca, 1968.

"Humanismo médico renacentista", in Historia Universal de la Medicina, Pedro Laín Entralgok zuzendua, Bartzelona, 1981, IV. lib. 33-40. orr.

Médicos españoles, Salamanca, 1967.

GREEN, Otis H., España y la tradición occidental, Madril, 1969, 4 lib.

HERNANDEZ MOREJON, A., Historia bibliográfica de la medicina española, Madril, 1842-1852, 7 lib.; esp. III, 229-257. orr.

KAMEN, H., La Inquisición española, Madril, 1973.

LOPEZ PIÑEIRO, José M., Ciencia y técnica en la sociedad española de los siglos XVI y XVII; Bartzelona, 1979.

Diccionario biográfico de la ciencia moderna en España, Bartzelona, 1983.

La introducción de la ciencia moderna en España, Bartzelona, 1969.

Medicina moderna y sociedad española (siglos XVI-XIX), Valentzia, 1976.

LOPEZ PIÑEIRO, J.M.; PESET REIG, L.; GARCIA BALLESTER, L.; TERRADA, M.L. eta ZARAGOZA, J.R., Bibliografía histórica sobre la ciencia y la técnica en España, Valentzia-Granada, 1973, 2 lib.

MARAÑÓN, G., "La literatura científica en los siglos XVI y XVII", in Historia General de las Literaturas Hispánicas, G.Díaz Plajak zuzendua, Bartzelona, 1953; III, 931-966.

MARAVALL, J.A., Antiguos y modernos. La idea de progreso en el desarrollo inicial de una sociedad, Madril, 1966.

MENENDEZ PELAYO, M., La ciencia española, Madril, 1953-54.

Historia de los heterodoxos españoles, Madril, 1946-48.

MILLAS VALLICROSA, J.M., Estudios sobre Historia de la Ciencia Española, Bartzelona, 1949.

PICATOSTE, F., Apuntes para una biblioteca científica española del siglo XVI, Madril, 1891.

RICO, F., "De medicina y astrología", in El pequeño mundo del hombre, Madril, 1970 (ed. zuzendua eta gehitua, Madril, 1986).

SANTANDER, T., Hipócrates en España (siglo XVI), Madril, 1971.

SARTON, G., Seis alas: hombres de ciencia renacentistas, Buenos Aires, 1965.

SINGER, Ch., A Short History of Anatomy and Phisiology from the Greeks to Harvey, New York, 1957.

SUBIZA, E., "Los médicos de Felipe II. Aportación a su estudio", Archivo Iberoamericano de Historia de la Medicina y de Antropología Médica, VI (1954), 377-90. orr.

THORNDIKE, L., History of Magic and Experimental Science, New York, 1923-1958, 8 lib.

ULLESBERGER, J.B., La Historia de la Psicología y de la Psiquiatría en España desde los más remotos tiempos hasta la actualidad, Madril, 1954.

VOSSLER, K., Introducción a la literatura española del siglo de Oro, Buenos Aires, 1945.

Ikerketa monografikoak eta obra bereziak

ARTIGAS, M., "Notas para la bibliografía del Examen de Ingenios" in Homenaje a don Carmelo de Echegaray, Donostia, 1928, 579-600. orr.

CHOMSKY, N., "Contribuciones de la lingüística al estudio del entendimiento: el pasado", in El lenguaje y el entendimiento, J. Ferraté-ren itzulpena, Bartzelona, 1977, 17-50. orr.

Lingüística cartesiana, Madril, 1972.

ETCHARREN-LOHIGORRI, Jean-Baptiste, Juan Huarte de San Juan à travers son analyse de l'homme dans Examen de ingenios para las Ciencias, Tesia, Donibane-Garazi, 1967.

Juan Huarte, une figure intellectuelle, Baigorri, 1991.

DANTIN GALLEGU, J., "La filosofía natural en Huarte de San Juan", in Estudios de Historia social de España, Madril, 1952, II, 155-208. orr.

FARINELLI, A., Dos excéntricos: Villalón y Huarte, Madril, 1936, 53-103. orr.

FRANZBACH, M., Lessings Huarts Übersetzung (1752). Die Rezeption und Wirkungsgeschichte des "Examen de ingenios para las ciencias" (1575) in Deutschland, Hamburg, 1965.

GIL BERA, Eduardo, Uharterengandik egungo gizarteraino: egiaren kontzeptua, Bilbao, 1989.

La traducción de Huarte por Lessing, Iruñea, 1978.

GONDRA REZOLA, J.M., Huarte de San Juan: precursor de la moderna psicología de la inteligencia, UPV/EHUko 1993-1994 Akademi ikasturtearen hasierako ikasgaia, Bilbao, 1993.

GRANDA, Antonio de la, "Huarte de San Juan y Francisco Villarino", in Estudios de Historia Social de España, Madril, 1949, I, 656-669. orr.

GREEN, Otis H., "El ingenioso hidalgo", Hispanic Review, XXV (1957), 175-193. orr.

"El licenciado vidriera: Its Relation to the Viaje del Parnaso and The Examen de Ingenios of Huarte", in Linguistic and Literary Studies in Honor of Helmut A. Hatzfeld, Washington, 1964.

GUARDIA, J.M., Essai sur l'ouvrage de J. Huarte: Examen des aptitudes diverses pour les sciences, Paris, 1855.

GUERRERO, E., "El Doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios", Razón y Fe, CXIX (1940), 180-184. orr.

HIPOKRATES, Hipokratesen aforismoak, J. K. Igerabidek prestatua, I. Ugartebururen hitzaurreaz, Elhuyar, Usurbil, 1995.

HUTCHINGS, C.M., "The Examen de Ingenios and the Doctrine of Original", Hispania, XIX (1936), 273-282. orr.

IRIARTE, M. de, "El dr. Huarte de San Juan. Su Examen de Ingenios", Razón y Fe, CXVIII (1939), 26-38. orr.

El doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios. Contribución a la historia de la psicología diferencial, Madril, 1948.

JIMENEZ GIRONA, J., "Algunos aspectos antropológicos en la obra de Huarte de San Juan", IV Congreso Español de Historia de la Medicina. Actas, I,99-104, Granada, 1975.

KLEIN, A., Juan Huarte und Psychognosis der Renaissance, Bonn, 1913.

MARAÑÓN, G., "Examen actual de un Examen antiguo", Cruz y Raya (1933), Tiempo viejo y tiempo nuevo-n berrarg., Madril, 1940, 113-149.

OTEIZA, Antonio de, Comentarios al "Examen de Ingenios" de Huarte de San Juan, Bilbo, 1975.

PEROUSSE, G.A., "Le Dr. Huarte de San Juan: Pédagogie et Politique sous Philippe II", Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance, XXXII (1970), 81-92. orr.

PESET LLORCA, V., "Las maravillosas facultades de los melancólicos (Un tema de Psiquiatría renacentista)", Archivos de Neurología, XVIII, 4 (1955), 980-1002. orr.

REMENTERIA, M., Reflexiones sobre la obra de Juan de Dios Huarte titulada "Examen de Ingenios", Madril, 1860.

REY ARTURO, L., "El pensamiento filosófico de Huarte de San Juan", Príncipe de Viana, XVIII (1945).

Juan Huarte de San Juan y su "Examen de ingenios". Valoración educativa actual, Bilbao, 1956.

La materia, órgano del espíritu en Huarte de San Juan, Zaragoza, 1961.

"El Doctor Huarte de San Juan a la luz del Examen de ingenios", Príncipe de Viana, XLIV (1983), 199-223. orr.

SALILLAS, R., Un gran inspirador de Cervantes. El doctor Juan Huarte y su "Examen de Ingenios", Madril, 1905.

SALVA, J., "Observaciones sobre la obra titulada Examen de Ingenios por don Juan Huarte", Revista de Madrid, I (1841), 266-276. orr.

SANZ, R., Berak prestaturiko Examen de Ingenios-en argitaraldiaren sarrera, Madril, 1930, III-LXXIV. orr.

SCHEER, R.J., Juan Huarte de San Juan and his "Examen de ingenios", New York, 1961.

SERES, G., Berak prestaturiko Examen de Ingenios-en argitaraldiaren sarrera, Madril, 1989, 13-131. orr.

SIMONEDA Y ZABALEGUI, A., "Un precursor de la orientación profesional: El Doctor Juan Huarte", in Cuarto Congreso de Estudios Vascos, Donostia, 1927.

TORRE, E., Berak prestaturiko Examen de Ingenios-en argitaraldiaren sarrera, Madril, 1977, 9-54. orr.

Ideas lingüísticas y literarias del Doctor Huarte de San Juan, Univ. de Sevilla, 1977.

Sobre lengua y literatura en el pensamiento científico español de la

segunda mitad del siglo XVI, Univ. de Sevilla, 1984.

WEINRICH, Harald, Das Ingenium Don Quijotes. Ein Beitrag zur literarischen Charakterkunde, Münster, 1956.